

# EUSKAL ESTILO LIBURURANTZ

## GRAMATIKA, ESTILOA ETA HIZTEGIA

Xabier Alberdi Larizgoitia (EHU)  
Ibon Sarasola Errazkin (EHU)







EUSKAL ESTILO LIBURURANTZ.  
GRAMATIKA, ESTILOA  
ETA HIZTEGIA.



EUSKAL ESTILO LIBURURANTZ.  
GRAMATIKA, ESTILOA  
ETA HIZTEGIA.

*Xabier Alberdi Larizgoitia*  
(EHU)

*Ibon Sarasola Errazkin*  
(EHU)

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco	Euskal Herriko Unibertsitatea
servicio editorial	argitalpen zerbitzua

Liburuaren atal batzuetan Euskaltzaindiak aspaldi honetan emandako arau batzuen testua jaso dugu. Orobat jaso ditugu Euskaltzaindiaren zenbait arau-proposamen. Har bedi ohar hau, beraz, azterlan honetan Euskaltzaindiaren langintzarekin hartu dugun zorraren erakusgarri eta kitagarritzat.

© Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua  
Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco

I.S.B.N.: 84-8373-348-X  
Lege gordailua: BI - 1506-01

Fotokonposizioa: Ipar, S. Coop. - Bilbao  
Particular de Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

Inprimatzea: Itxaropena, S.A.  
Araba Kalea, 45 - 20800 Zarautz (Gipuzkoa)



# Aurkibidea

<b>Aurkezpena</b> .....	15
<b>Hitzaurrea</b> .....	17
<b>Lehen zatia.</b> Gramatika eta estiloa (Xabier Alberdi) .....	21
1. Osagaien ordena eta galdegaia .....	21
1.1. Hanpadura-jokoetan galdegaia ondo aukeratzea eta ondo kokatzea komeni da	21
1.2. Zer egin galdegai den sintagmaren ondoren aposizioa datorrenean? .....	22
1.3. Ez da komeni galdegaiaren ezkerrean elementu asko metatzea .....	22
1.4. Aditza beti bukaeran? Aditza aurreratzeko gomendioa .....	23
1.5. Elementuak zerrendatzean ere aditza bukaeran? Aditza aurreratzeko eta bi puntuak erabiltzeko gomendioa .....	24
1.6. Subjektuaren eta aditzaren arteko urruntasuna: subjektua atzeratzeko aukera	26
1.7. Galdegai izateko joera duten osagaiak .....	26
1.8. Perpaus osagarri jakin batzuen ordena: « <i>garbi dago ... -la (-na)</i> » tankerakoak	27
1.9. Perpaus osagarrien salbuespena edo «lizentzia»: galdegaia predikatu nagu- siaren ondoren .....	27
1.10. Muga-arazoak «eskuineraturiko» perpaus osagarrietan: <i>ezen</i> markatzailearen erabilgarritasuna .....	31
1.11. Zehar-estilotik estilo zuzenera: <i>Ministroak ...-la dio (?) / Ministroak dio ...</i> <i>-(e)la / Ministroak esandakoaren arabera...</i> .....	32
1.12. Perpaus-burua eta adizki trinkoen <i>ba-</i> aurrizkia .....	33
1.13. Objektua luze-luzea bada, maiz ematen da aditzaren ondoren .....	34
1.14. Definizioen arazoa: egitura sintetikoaren astuntasunetik ihes egitea komeni da	34
1.15. <i>Egin</i> indartzaile edo fokalizatzailearen erabilera desegokia .....	36
1.16. Ezeztapena: urruntasun-arazoak edo «ogitarteko luzeak» eta beste .....	37
1.17. Muga-arazoak eta ordena-aldaketak .....	38
1.18. Erlatibo «hautsiak» eta enfasi-joko bereziak: <i>X da (...)-na; -t(z)en dena</i> <i>da...</i> .....	38
1.19. Hanpadura-jokoak eta erlatibo «klasikoaren» ( <i>zein...bait/-n</i> ) erabilera itsua itzulpenetan: * <i>Hau da prozedura zeinaren bidez...</i> .....	39
1.20. Mendeko perpausaren barneko ordena .....	40

1.21.	<i>Zein ... baita /den</i> erlatibozkoen ordena: menderagailua duen aditzak ( <i>baita/den</i> ) ez du zertan erlatibozkoaren amaieran joan	43
1.22.	Erdal egitura pasiboa: ordain mimetikoaren arriskua	44
1.23.	Sintagma barneko ordena: eskuinaldeko posizioez baliatzeko aukera	45
2.	<i>X bakarrik, X soilik</i>	46
2.1.	Baiezko perpausak	47
2.2.	Ezezko perpausak	48
2.3.	Hurrenkera desegokiak: adibideak	48
3.	<i>X besterik</i> eta aditz-komuntadura: <i>liburuak besterik ez zegoen, zuek besterik ez da sartu...</i>	50
4.	<i>X ere...</i>	52
4.1.	<i>Ere</i> lokailuaren erabilerak	53
4.2.	Aztertze adibideak	56
5.	<i>Zu izan ezik</i> (Euskaltzaindiaren 16. araua)	58
6.	<i>Ez ezik # izan ezik</i>	59
7.	Balio banakaria: <i>bai... (eta) bai...; ez... ez...</i>	61
8.	<i>Ez... bakarrik, ...ere</i>	63
8.1.	Egiturak eta adibideak	63
8.2.	Ezaugarriak	64
8.3.	Zuzentze adibideak	65
9.	Data nola adierazi (Euskaltzaindiaren 37. araua)	66
10.	Partitiboaren erabilera (Euskaltzaindiaren 15. eta 30. arauak)	68
10.1.	Partitiboaren erabilera okerra: <i>*ez ditut liburu garestirik erosi; *ez dut lanarik egin</i>	68
10.2.	Partitiboa baiezko perpausetan noiz eta nola	68
11.	Ehunekoaren deklinabidea: <i>ehuneko bost</i> ala <i>ehuneko bosta?</i>	71
12.	<i>-a / bat</i>	72
12.1.	Izen zenbakarriekin ( <i>liburu, pezeta, gizon, erloju, ate, etab.</i> )	73
12.2.	Izen zenbakaitzekin ( <i>haize, ohore, diru, hizkuntzalaritza, ardura, etab.</i> )	76
12.3.	Esaera eta egitura bereziak	77
12.4.	Aztertze adibideak	78
13.	<i>-a</i> berezkoa duten hitzen deklinabide okerra: <i>*zenbait pertsonentzat...</i>	80
14.	<i>Hiru kiloko haurra, lau hankako mahaia</i> (Euskaltzaindiaren 34. araua)	85
15.	<i>-(r)en / -ko</i> : ikastolaren zuzendaria ala ikastolako zuzendaria?	89
15.1.	<i>-(r)en</i> eta <i>-ko</i> bereizteko erabili ohi diren irizpideak	89
15.2.	Zalantzarik gabe <i>-(r)en</i> eskatzen dutenak	91
15.3.	Zalantzarik gabe <i>-ko</i> eskatzen dutenak	92
15.4.	<i>-ko</i> zein <i>-(r)en</i> onar dezaketen izenak eta zalantzazko kasuak	93
16.	<i>Eta, edo / ala...</i>	101
16.1.	Izen-sintagmak ala izenak juntatu?: <i>*etxeA eta kaleAN &gt; etxeAN eta kaleAN...</i>	101
16.2.	<i>Edo / ala: (?) hil ala biziko kontua... &gt; hil edo biziko kontua</i>	104
16.3.	Komuntadura	105
16.4.	Osagaien ezabaketa	105
16.5.	Aztertze adibideak	107

17. <i>Hura / bera. haiek / ? beraiek</i> .....	108
18. <i>Haren, beraren, bere. Haien, (?)beraien, beren (euren)</i> .....	113
19. <i>Liburu bera(k) # liburu berdina(k) # liburua(k) bera(k) (aposizioa)</i> .....	121
19.1. <i>Liburu bera(k): identitatea</i> .....	121
19.2. <i>Liburua(k) bera(k) (aposizioa): balio indartzailea</i> .....	122
19.3. <i>Liburu berdina(k)</i> .....	123
19.4. <i>Zalantzazkoak: iritzi bera / iritzi berdina...?</i> .....	124
19.5. <i>Gaur egungo adibideak</i> .....	125
20. <i>-ekiko atzizki konposatua</i> .....	127
20.1. <i>-ekiko-ren tradizioko erabilerak</i> .....	128
20.2. <i>-ekiko-ren gaur eguneko erabilera dudazkoak eta okerrak</i> .....	130
20.3. <i>-ekiko hizkuntza teknikoetan</i> .....	135
21. <i>-gatiko atzizki konposatuaren erabilera mimetikoa</i> .....	139
22. <i>Instrumentalaren (-z) zenbait erabilera oker</i> .....	141
22.1. <i>Modua adierazten denean: *zazpietako trenez etorri da</i> .....	141
22.2. <i>Denbora adierazten denean: *Joan zen igandez iritsi zen</i> .....	142
22.3. <i>-ekin soziatiiboaren orde z instrumentala: *Bigarren doa, hamar puntuz</i> ..	142
22.4. <i>-z / -taz: *Gaurko arazoetaz mintzatu dira &gt; Gaurko arazoez mintzatu dira</i>	143
22.5. <i>(?)-tazko (*benetazko &gt; benetako...)</i> .....	145
23. <i>Izenondo erreferentzialak: *intelektual mailan...</i> .....	145
23.1. <i>Izenondo kalifikatzaileak / izenondo erreferentzialak.</i> .....	145
23.2. <i>Izenondo erreferentzialen motak: tematikoak eta sailkatzaileak</i> .....	147
23.3. <i>Erdal izenondo erreferentzialen ordainak</i> .....	148
24. <i>Ahal eta ezin aditz modalak: joaten ahal naiz, ezin dut irakurri...</i> .....	155
25. <i>Nahi(ago) izan/gura(go) izan eta behar izan aditz modalak: joan behar dut...</i>	156
26. <i>Iraun, balio/kosta, luzatu, neurtu, pisatu...: hamar ordu iraun du / *ditu</i> .....	158
26.1. <i>Iraun: Hamar ordu iraun du bizirik / *Hamar ordu iraun ditu bizirik</i> ....	158
26.2. <i>Balio izan; kosta(tu): lau milioi balio du/ditu etxeak</i> .....	158
26.3. <i>Luzatu: bost metro luzatu du katea; ordubete luzatu ditu hitzaldiak</i> .....	159
26.4. <i>Neurtu: tunelak 200 metro neurtzen du/ditu &gt; tunela 200 metro luze da</i> <i>[hobestekoa]...</i> .....	159
26.5. <i>Pisatu: Zenbat pisatzen duzu? 80 kilo pisatzen dut/ditut</i> .....	159
26.6. <i>Garestitu: *ehun pezetatan garestitu da &gt; ehun pezeta garestitu da</i> .....	160
27. <i>Egitura pasiboak: ?idazkaria lehendakariak izendatuta izango da...</i> .....	160
27.1. <i>Azalpena</i> .....	160
27.2. <i>Aztertzeko adibideak</i> .....	163
28. <i>?Kanpo-ministroak dimiti lezake</i> .....	164
29. <i>*Ez daukazu zertan negar egin beharrik</i> .....	166
30. <i>*Bazkaria eta gero &gt; bazkaldu eta gero</i> .....	168
31. <i>??Hitzaldia medio &gt; hitzaldia dela medio</i> .....	169
32. <i>Konparazioak</i> .....	170
32.1. <i>??Euskal zinegile baino zinegile soila naiz</i> .....	170
32.2. <i>Nahiago # nahien; gehiago # gehien</i> .....	171

33. Perpaus osagarriak (I): <i>-(e)la, -(e)na, -(e)nik...</i> .....	171
33.1. Aditz baten mendeko perpausak .....	171
33.2. Aztertzeko adibideak .....	172
34. Perpaus osagarriak (II): osagarri izenlagunak ( <i>*etorriko delaren berria...</i> ; <i>*etorriko denaren berria zabaldu da...</i> ) .....	173
34.1. Izenen osagarri diren adierazpen-perpausak: <i>Etorri delako berria zabaldu da. Etorriko den esperantza dugu...</i> .....	173
34.2. Izenen osagarri diren zehargalderak: <i>?Gaindituko ote duen galderari erantzun nahirik dabil...</i> .....	176
34.3. Subjuntiboko perpaus izenlagunak: <i>Orok maita zaitzaten desirak galduko zaitu</i> .....	177
34.4. Aztertzeko adibideak .....	178
35. Perpaus osagarriak (III): <i>-(e)nik</i> eta <i>-(e)la</i> .....	181
35.1. <i>Beti -enik</i> ezezkoetan?: arauak izan ditzakeen mugak .....	181
35.2. <i>-enik</i> baiezeko perpausetan? .....	183
35.3. Zehargalderetan <i>-en</i> atzizkia, baina ez <i>*-enik</i> .....	184
35.4. <i>-enik</i> menderagailua duten adierazpen-perpaus osagarriak .....	185
36. <i>-(e)la</i> atzizkiaren zenbait erabilera oker .....	187
36.1. Ondoriozko perpausetan: <i>*Hain gaiztoa da ez duela inork maite</i> .....	187
36.2. Erlatiboetan: <i>*Neska batzuk agurtu ditut zu ezagutzen zaituztela</i> .....	188
36.3. Beste erdarakada bat: <i>*Kontuz platerarekin, beroa dagoela!</i> .....	188
37. <i>Denz, denentz, denez</i> ala <i>denetz</i> : <i>jakin nahi nuke ea hori horrela ote denetz</i> .....	189
38. <i>-elarik</i> : <i>?tutu zilindriko bat daukagu, mutur bat itxita duelarik</i> .....	190
39. <i>Hartuz gero # hartzekotan</i> .....	196
40. Perpaus erlatiboak .....	199
40.1. Zein da perpaus erlatiboa? .....	199
40.2. Perpaus erlatibo arrunten ( <i>-n</i> ) balioa: murrizgarriak (mugarriak/ez-mugarriak) eta ez-murrizgarriak .....	200
40.3. Euskal erlatibo «arruntaren» ( <i>-n</i> ) murriztapenak: zein diren erlatiba daitezkeen sintagmak .....	201
40.4. Testuinguruaren garrantzia .....	205
40.5. Erlatibakuntza errazteko bideak .....	205
40.6. Erlatibo «klasikoa» ( <i>zein bait/-n...</i> ; <i>non bait/-n...</i> ) .....	208
40.7. Burua isildua duten erlatiboak: <i>-(e)na(k)</i> .....	212
40.8. Erlatibo jokatugabeak .....	214
40.9. Erdal erlatiboak itzultzeko beste bide batzuk .....	215
41. Komunztadura aposizioetan: <i>??Donostiako alkateak, elorza jauna, aurkeztu du...</i> .....	217
41.1. Aposizio-motak .....	217
41.2. Komunztadura .....	218
41.3. Araua .....	221
42. <i>Bi urtean egon zen # bi urtetan joan zen. Lau urtean behin; *lau urtero...</i> .....	222
42.1. Iraupena adierazteko .....	222
42.2. Maiztasuna adierazteko .....	223



43.	Perpauz-egitura / izen-egitura nominalizatua: ? <i>sindikatu baten sorkuntzarako baldintza bakarra</i> > <i>sindikatu bat sortzeko baldintza bakarra</i> . . . . .	223
44.	* <i>Funtziotan lehendakaria</i> eta izenburuak edo irudien oinak ( <i>pauloren lehen gutuna tesalonikarrei</i> ...) . . . . .	229
45.	?? <i>Indarreango legeria</i> , ?? <i>jarduneango magistratua</i> ... . . . . .	232
46.	Aditzetiko izenak: <i>-le/-tzaile</i> , <i>-era</i> , <i>-keta</i> , <i>-kuntza</i> , <i>-pen</i> , <i>-kari</i> , <i>-kin</i> ... . . . .	233
	46.1. <i>-le / -tzaile</i> atzizkien banaketa . . . . .	233
	46.2. <i>-era</i> , <i>-keta</i> , <i>-kuntza</i> , <i>-pen</i> ... . . . .	234
	46.3. <i>-kari</i> , <i>-kin</i> . . . . .	236
47.	<i>-(t)ar</i> atzizkia . . . . .	237
48.	<i>-ari (-lari)</i> atzizkiak . . . . .	241
49.	<i>-ari / -ario</i> . . . . .	244
50.	<i>-gailu</i> atzizkia . . . . .	245
51.	<i>-garri</i> eta <i>-kor</i> atzizkiak . . . . .	246
	51.1. <i>-garri</i> . . . . .	246
	51.2. <i>-kor</i> . . . . .	248
52.	<i>-go</i> atzizkia eta izen multzokariak . . . . .	251
53.	<i>-kol/-dun</i> atzizkiak . . . . .	253
	53.1. Izena oinarri: izena + <i>-kol/-dun</i> . . . . .	253
	53.2. «Izen-multzoa» oinarri: [izena + izenondoa] + <i>-kol/-dun</i> . . . . .	255
	53.3. Izen-sintagma zenbatzaileduna oinarri: [zenbatzailea + izena + (izenondoa)] + <i>-kol/-dun</i> . . . . .	259
	53.4. <i>-(r)en</i> + izena + <i>-ko</i> ; <i>-ko</i> + izena + izenondoa + <i>-dun</i> . . . . .	260
54.	<i>-tegi</i> atzizkia . . . . .	262
55.	<i>-tu / -izatu</i> : normaldu ala normalizatu? . . . . .	263
56.	<i>-xka (-ska)</i> , <i>-xko (-sko)</i> atzizkiak . . . . .	264
57.	Berrelkarketaren mugak: ? <i>lan-bilera mahaia</i> , ?? <i>Euskal aldizkari-zuzendari-bilera</i> ... . . . .	265
58.	Perpauzetik testura: kohesio-mekanismo batzuk . . . . .	269
	58.1. Perpauza eta testua: zuzentasun gramatikaetik testura. . . . .	269
	58.2. Kohesio-mekanismoak: pronominalizazioa, erlazio anaforikoak eta kataforikoak . . . . .	271
	58.3. Kohesio-mekanismoak: erakusleak . . . . .	275
	58.4. Kohesio-mekanismoak: mugatzailea eta erakusleak . . . . .	279
	58.5. Kohesio-mekanismoak: adberbioa . . . . .	280
	58.6. Kohesio-mekanismoak: errepikapena . . . . .	281
	58.7. Kohesio-mekanismoak: sinonimoak . . . . .	282
	58.8. Kohesio-mekanismoak: hiperonimoa/hiponimoa . . . . .	282
	58.9. Kohesio-mekanismoak: perifrasiak . . . . .	282
	58.10. Kohesio-mekanismoak: erlazio metonimikoak . . . . .	284
	58.11. Kohesio-mekanismoak: elipsia eta elementu isilak . . . . .	284
59.	Emendiozko lokailuak: <i>ere</i> , <i>gainera</i> , <i>bestalde</i> ... . . . .	286
	59.1. <i>Ere</i> (bizkaieraz <i>bere</i> ) . . . . .	286
	59.2. <i>Gainera</i> . . . . .	287
	59.3. <i>Bestalde/bertzalde</i> . . . . .	287
	59.4. <i>Halaber (orobat, berebat)</i> . . . . .	288
	59.5. <i>Behintzat</i> (mendebaldekoa) / <i>segurik</i> (ekialdekoa) . . . . .	289

59.6.	<i>Bederen, bederik, behinik behin</i> .....	290
59.7.	<i>Badere</i> .....	291
60.	Lokailu hautakariak: <i>bestela, osterantzean, gainerakoan</i> .....	291
60.1.	<i>Bestela / bertzenaz (bestenaz)</i> .....	291
60.2.	<i>Osterantzean</i> .....	292
60.3.	<i>Gainerontzean (gainontzean); gainerakoan</i> .....	292
60.4.	<i>Ezpere(n)</i> .....	292
60.5.	<i>Ezpabere</i> .....	293
61.	Aurkaritzako lokailuak: <i>ordea, berriz, ostera, aldiz, aitzitik</i> ... ..	293
61.1.	<i>Ordea</i> .....	293
61.2.	<i>Berriz</i> .....	294
61.3.	<i>Ostera</i> .....	295
61.4.	<i>Aldiz</i> .....	295
61.5.	<i>Aitzitik</i> .....	296
61.6.	<i>Bizkitartean, bitartean, bien bitartean, artean</i> .....	296
61.7.	<i>Alta, alabaina, alabadere</i> .....	297
61.8.	<i>Dena dela (orokorra), dena den (ekialdekoa)</i> .....	298
61.9.	<i>Hala ere, hala eta guztiz ere</i> .....	298
61.10.	<i>Haatik/hargatik, horratik/horregatik</i> .....	299
61.11.	<i>Barren</i> .....	300
61.12.	Aurkaritza adierazten duten esapideak: <i>zernahi gisaz, nolnani ere</i> ... ..	300
62.	Ondoriozko lokailuak: <i>beraz, bada, hortaz, orduan, honenbestez</i> ... ..	300
62.1.	<i>Beraz</i> .....	301
62.2.	<i>Bada</i> .....	302
62.3.	<i>Hortaz</i> .....	302
62.4.	<i>Orduan</i> .....	303
62.5.	<i>Honenbestez, horrenbestez, hainbestez</i> .....	303
62.6.	<i>Halatan, hala</i> .....	304
63.	Kausazko lokailuak: <i>zeren, zergatik, alabaina, bada, izan ere</i> .....	304
63.1.	<i>Zeren</i> .....	304
63.2.	<i>Zergatik</i> .....	304
63.3.	<i>Alabaina</i> .....	305
63.4.	<i>Bada</i> .....	305
63.5.	<i>Izan ere</i> .....	305
64.	<i>Ordea # berriz, aldiz, ostera</i> .....	306
65.	<i>Izan ere ... bait-; izan ere # hain zuzen (ere)</i> .....	307
66.	Iruzkinak: <i>hau da, hots, hala nola, alegia, hain zuzen (ere), adibidez, esate bate-rako, batez ere, bereziki</i> ... ..	308
66.1.	Testu-antolatzaile hauek iruzkinaren barruan hartzen duten kokagunea ..	309
66.2.	Azalduriko testu-zatiaren eta iruzkinaren ezaugarriak eta kokapena .....	309
66.3.	Testu-antolatzaileen arteko bereizketa semantikoa .....	310
66.4.	Estiloari dagozkion ohar batzuk .....	312
67.	Bestelako gomendio eta akatsak .....	314
67.1.	<i>??Esan zion nola (...) -ela &gt; Esan zion nola (...) -(e)n</i> .....	314
67.2.	<i>? Sinesten dute segun/depende nork esaten duen</i> ... ..	314

67.3.	? Aldamenekoe <u>k</u> uste dute <u>NA</u> baino hobeto bizi gara gu > Aldamenekoe <u>k</u> uste dute <u>N</u> baino hobeto bizi gara gu...	315
67.4.	?Mendira igoko zarenean, egin ezazu oi <u>hu</u> > Mendira igotzen zarenean (igo zaiteze <u>nean</u> )...	315
67.5.	*Nik ez dut zuk adina buru <u>ha</u> sterik izan > Nik ez ditut/dut zuk adina buru <u>ha</u> ste izan	316
67.6.	? (...) jaun eta jabe b <u>ail</u> itzan > (...) jaun eta jabe b <u>al</u> itz bezala	316
67.7.	*Lanik gabe geratu da eta, hori gutxi b <u>al</u> itz, hanka bat galdu du istripu b <u>ate</u> an > (...) eta hori gutxi b <u>al</u> itz bezala / eta hori nahikoa ez dela...	317
67.8.	??Gero eta barru <u>r</u> ago eta ilunago aurkitu <u>ko</u> duzu basoa > Zenbat eta barru <u>r</u> ago, hainbat eta (ordu <u>a</u> n eta) ilunago aurkitu <u>ko</u> duzu basoa	317
67.9.	Aditzaren komun <u>z</u> tadura: ?Hamahiru urte du > Hamahiru urte ditu...	317
67.10.	Erdal gerundio okerren eragina: *Eka <u>it</u> za izan zen, kalte handiak eraginez	319
67.11.	-ki aditzondo-sortzailearen gehiegizko erabilera	319
67.12.	Ask <u>o</u> maite zaitut (Oso maite zaitut)	319
<b>Bigarren zatia.</b> Zalantzen hiztegia (Ibon Sarasola)		321
<b>Bibliografia aukeratu</b>		357





## Aurkezpena

Euskararen historian, kontzeptu berri bat sortu zaigu azken urteetan: kalitatea-rena. Euskararen kalitateak kezkatzen gaitu, horretaz berba egiten dugu, horren gaineko jardunaldiak antolatzen ditugu. Ez dugu guztiz amaitua euskararen batasuna, aurrera bagoaz ere. Baina batasunaz gain, edo batasunaz areago, kalitateak sortzen digu ardura. Eta nola defini dezakegu zer den kalitatea? Hitz bitan esateko, erabileremu bakoitzerako hizkuntza-eredu egokia erabiltzea. Beraz, erabileremuak askotarikoak diren neurrian, euskara-ereduez hitz egin behar genuke, eredu bakarra ez baita nahikoa izango. Eta horregatik esan dugu, hain zuzen ere, «batasunaz areago» doan kontua dela. Izan ere, eredu egokiak batzuetan euskara batua erabiltzea eskatuko du, baina ez beti. Eta bestalde, eredu egokiak, gehienetan, aukera egitea eskatuko du: gramatikalak diren egituren arteko aukera, hiztegi batuan ageri diren berben arteko aukera... Alde honetatik ere «batasunaz areago» joan beharko dugu.

Ikuspegi orokor horretatik geure esparrura jauzi eginaz, unibertsitatean zein hizkuntza-eredu behar dugun itaundu diezaiokegu geure buruari. Eta itaun honi erantzuna eman nahi dio esku artean duzun liburuak. «Euskara batua» eta «gramatikaltasuna» aipatu ditugu goratxoago. Ez dago inolako dudarik, unibertsitateko euskarak ezingo duela gramatika-akatsik izan, eta, erabilera estandar zainduari dagokion neurrian, Euskaltzaindiak batasunerako emandako arauak bete beharko dituela; arau hauek eurak ere gaurko erabilera agramatikalak saihestea dute helburu behin baino gehiagotan (partitiboari buruzkoa, edo «-(e)lako, -(e)n + izena» egituren gainekoa, lekuko). Horretaz gain, onargarriak diren egituren artean, ahalik eta hedadura handiena dutenak aukeratu beharko lituzke, unibertsitario gehienek errazen ezagutuko dituztenak.

Horiek guztiak gogan izanik, gaur benetan unibertsitatean darabilgun euskara hartzen du abiapuntutzat esku artean duzun liburuak. Horren gaineko gogoeta eta kritika egiten dute egileek. Eta gogoeta eta kritika horretan, kalitateko euskararako ezarri ditugun irizpideak ageri dira ezinbestean: gramatikaltasuna lehenik, Euskaltzaindiaren arauak ondoren, eta estiloarekin zerikusi zuzenagoa duten aukerak azkenik. Horrexegatik jarri diote, hain zuzen ere, *Euskal Estilo Libururantz* izena:

bide batetik edo bestetik jo daitekeen auzietan, -mintzagai/galdegai ordenak, egitura pasiboen erabilera, izenordain erreferentzialak, etab.- proposamen jakin bat defendatzen dutelako, unibertsitatean behar dugun euskara-eredurako egokiena delakoan. Modu berean jokatu dute hiztegi kontuetan ere: Hiztegi Batua eta horko irizpideak oinarri harturik, zer esana ematen eta gure testuetan ageri diren hitzak bildu dituzte, horien gaineko argibideak eman eta etorkizunerako proposamenak eginaz.

Proposamen horiek, bestalde, ez dira azalpen teorikoetara mugatzen; aitzitik, benetako testuetatik jasotako adibide ugari aurkituko ditu irakurleak, ematen diren argibideen lagungarri. Neurri handi batean, orain dela urte pare bat argitaraturiko *Euskaltzaindiaren araugintza berria: ikastaroa* liburuko saioaren osagarri eta gehigarri dela liburu berria esango nuke; hangoa osatzeaz gain, urrats bat areago ematen duena.

Zer esanik ez, iritzi desberdinak izango dituzte ikasle eta, batez ere, irakasleek hemen aurkituko dituzten proposamenei buruz. Horixe da, helburua, jakina, eztabaida eta iritzi-truke patxadatsua sorraraztea, guztion artean hizkera-eredu kalitatekoa lor dezagun.

Miren Azkarate

## Hitzaurrea

Liburu honetan, gaur egun erabiltzen den —erabiltzen dugun— euskara estandar idatziaren gaineko kritika, gogoeta eta zuzenketa-proposamen franko aurkituko ditu irakurleak: euskaldun eskoladunen idatzietan nabaritu ohi diren gramatika-okerrak, estilo-zalantza eta hiztegi-gorabehera nagusi eta ohikoenak dira liburu honen mamia osatzen dutenak.

Liburuak bi zati nagusi eta osagarri ditu, eta zati bakoitzak egile bana du. Lehen zatian gramatika- eta estilo-kontuak landu ditu Xabier Alberdi EHUKo irakasleak<sup>1</sup>: alde batetik, euskaldun alfabetatu eta ikasien gramatika-zalantza eta hutsegite nagusien azterketa eskaintzen da (*hura/bera, haren/beraren/bera, haien/beraien/bera (euren), -ekiko, -albat, -(r)en/-ko*, perpaus osagarriak, erlatiboak, berrelkarketaren mugak, atzizki batzuen erabilera eztabaidagarriak —*-le/-tzaiile, -era/-keta/-kuntza/-pen, -(t)ar, -(l)ari, -ari/-ario, -garri, -kor, -go, -tegi, -kol/-dun, -tu/-izatu, -xa...—*, etab.); beste aldetik, estiloari lotuago dauden kontu batzuen azterketa eskaintzen da (osagaien ordena eta galdegaia, izenondo erreferentzialak, egitura pasiboak, izen-egitura nominalizatuak/perpaus-egiturak, kohesio-mekanismoak —anaforak, kataforak, erakusleak, errepikapenak...—, etab.). Lehen zati hau atalka antolaturik dago: atal bakoitza beregaina da, eta gehienetan azalpena adibide batzuen azterketarekin osatzen da (adibide akastunak eta haien berridazketa zuzenduak eskaintzen dira); guztira, hirurogeita zazpi ataletan bildu dira zati honetako aztergaiak.

Bigarren zatian («Zalantzen Hiztegia») euskara batuko hiztegi-auziak jorratu ditu Ibon Sarasola EHUKo katedradun eta euskaltzainak. Guztira, mila eta bos-tehun sarrera inguru hautatu ditu hiztegi honetarako: sarrera hautatuok okerrak edota iruzkinen bat merezi dutenak dira, eta —estilo-liburuetan egin ohi denez— hurrenkera alfabetikoan antolaturik daude. Hauta-lana egin du Sarasolak, irakurle-ari hiztegi-zalantza ohikoenen inguruko argibide eta xehetasunak modu labur eta

---

<sup>1</sup> Xabier Alberdik bereziki eta bihotz-bihotzez eskertu nahi die Miren Azkarateri eta Ibon Sarasolari, liburu honen lehen zatia gainbegiratzeko hartu duten ardura eta lanagatik. Dena dela, lehen zati honetan egon daitezkeen akatsak egilearenak dira, noski, eta ez beste inorenak.

ulergarrian eskainiz. Zalantzen hiztegi honek Euskaltzaindiak atera berri duen Hiztegi Batuaren lehen argitaraldia du oinarri, eta neurri handi batean haren oinarri eta irizpide nagusien azalpentzat ere har daiteke. Nolanahi ere, labur-beharrez eta estilo-liburuetako idaztankera soilari men eginez, ikaragarri murriztu edo laburtu behar izan ditu azalpenak. Beraz, zenbaitetan irakurleak, sarrera jakin bateko hautuari buruzko argibide gehiago nahi izatera, *Sarasolaren Euskara Batuaren Ajeak* liburura edota *Orotariko Euskal Hiztegia*-ra jo beharko du azalpenak osatzeko.

Euskararen erabilera zuzenaren eta egokiaren arrastoan ibili gara liburuan barrera, gehienetan literatura-tradizioa eta Euskaltzaindiaren gomendio-erabakiak oinarritzat harturik. Garbi gera bedi, beraz, ez garela ibili «laborategiko» edo balizko gramatika ustel baten araberako euskara perfektu eta makulagabe baten bila. Hala ere, liburu osoan joera arau-emailea edo gomendio-zalea —ez «erezeta-zalea», ordea— nabaritu du irakurleak. Izan ere, liburu honetan —estilo-liburu batean itxarotekoa zenez— era askotako iradokizun, gomendio eta arauak aurkitu ditu irakurleak: asko eta asko Euskaltzaindiak emanikoak; beste batzuk, beste estilo-liburu batzuetatik jasorikoak; eta banaka batzuk, azkenik, egileek berek proposaturikoak.

Argitalpen honen ekarpenik nabarmentzekotan, hautatze- eta biltze-lana aipatuko genuke. Aurkibideari erreparatu besterik ez dago konturatzeke liburu honen emaitza nagusietako bat gaien bilketa izan dela: lehen aldiz, filologo ez den irakurlearen eskura jarri dira han-hemenka sakabanaturik zeuden proposamen, gomendio eta zuzenketa asko eta asko. Zentzu horretan, lan eta autore batzueganako geure zorra aitortu beharrean gaude. Lehenengo eta behin, zorretan gaude Miren Azkarate EHUKo irakasle eta euskaltzainarekin, berak 1995 aldera prestatu zuen «Hobekuntza Ikastaroa» material argitaragabea izan baita, irakurle, orain esku artean duzun liburuaren oinarri, hastapen eta eragingarri nagusia; argi gera bedi, hortaz, harenganako gure ezagutza. Bigarrenik, estilo-liburutzat jo daitezkeen aurreko lan batzuen (Egunkaria, 1995; Garate, 1988; Garzia, 1997; HAEE-IVAP, 1994 eta 1999; Odriozola, 1999; Zabala, 1996) baliagarritasuna azpimarratu nahi dugu: ez dago dudarik gure liburua ezinezkoa izango zatekeela halako oinarririk eduki ez bagenu. Hirugarrenik, ezinbesteko erreferentzia diren eta bistatik galdu ez ditugun Euskaltzaindiaren gramatika-liburukiak (*EGLU*) eta *Orotariko Euskal Hiztegia* aipatu behar ditugu: oinarri horiek gabe ere, noski, ezinezkoa izango zatekeen liburu hau. Esan dezagun, azkenik —gure zorra nolabait kitatzeko—, berebiziko ahalegina egin dugula geure azalpenen iturri eta oinarriak agerian uzteko: barka biezagute iturri horien egileek, batzuetan haien esanak gureetatik behar bezala bereizteko gai izan ez bagara.

Irakurlea konturatuko zenez, *Euskal Estilo-Libururantz* hau, egileena izateaz gainera, Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Institutuarena ere bada, edo asmo horrekin kaleratu dugu, behintzat. Hau da, liburua erakunde horretan diharduten irakasleen fruitua da eta, berariaz, EHUKo irakasle eta langile euskaldunen hizkuntza-hobekuntza du helburu. Horrek ez du esan nahi, hala ere, liburua unibertsitateko jendearentzat bakarrik pentsatua dagoenik. Izan ere, liburu hau nonahiko euskaldun eskolatuaren euskara hobetzeko tresna ere bada, haren hizkuntza-beharrak unibertsitateko pertsonarenak ez badira ere: azken batean, estilo-liburu honek gaur eguneko euskaldun ikasi «arruntaren» akats eta zalantza ohikoenak argitzea



du helburu. Gainera, bi erataraz erabil daitezke liburua: edo aldi bereko zalantza eta gorabehera xeheak argitzeko, argibide-liburu gisa alegia; edo euskaldun eskoladunen hizkuntza-prestakuntza modu sistematikoan lantzeko eta garatzeko, hobe-kuntza-ikastaro orokorrak eskaintzeko alegia.

Gure lanari *Euskal Estilo-Libururantz* izena jarri diogu, bai baitakigu landu gabe geratu direla estilo-liburu askotan ohikoak diren zenbait atal (puntuazioa, laburtzapenak, letra larrien erabilera, idazkuntza-arauak, etab.). Gauzak horrela, behin-behineko ekarpenentzat edo egiteko dagoen egitasmo biribilago baten hastapentzat jotzen dugu liburu hau.

Hutsuneak hutsune, *Euskal Estilo-Libururantz* hau —aldi batean, bederen— euskara idatzi (eta mintzatu) hobe erabili nahi duten guztientzat tresna baliagarri eta argigarria izango delakoan gaude. Hala izango ahal da!



## Lehen zatia

# Gramatika eta estiloa

*Xabier Alberdi*

### 1. OSAGAIEN ORDENA ETA GALDEGAIA

#### 1.1. Hanpadura-jokoetan galdegaia ondo aukeratzea eta ondo kokatzea komeni da

Euskaraz, bereziki azpimarratu nahi den osagaia aditzaren aurre-aurrean ipini ohi da. Beraz, hanpadura-joko bereziak galdegaigune horren arabera gauzatzen dira normalean: zein elementu azpimarratu nahi den, huraxe ipiniko da aditzaren aurrean<sup>1</sup>. Eta horrek esan nahi du hanpadura-jokoetan SOA (Subjektua-Objektuak-Aditza) ordena neutroa hankaz gora jar daitekeela. Bestela esan, baldin eta enfasirik badago, galdegaiaren legearen arabera jokatu beharko da eta ez SOA ordena zurrunaren arabera. Garrantzi handikoa da, beraz, galdegaia ondo aukeratzea eta behar den lekuan ipintzea, nahiz eta horretarako —beheko adibidean ageri denez<sup>2</sup>— subjektua atzeratu behar izan edo ordena neutroa aldatu behar izan.

#### DESEGOKIA

- (1) (Lan-zuzenbidearen oinarria langileria-mugimenduaren eta burgesia-  
ren erantzunaren arteko sintesi dialektikoan datza.) *Lan Zuzenbideari hortik BERE JITE BIKOITZA datorkio.* Alde batetik, Zuzenbide lortua da (langileriaren liskarren ondorioa); eta bestetik, Zuzenbide emana...

#### EGOKIA

- (2) (Lan-zuzenbidearen oinarria langileria-mugimenduaren eta burgesia-  
ren erantzunaren arteko sintesi dialektikoan datza.) *Lan Zuzenbideari HORTIK datorkio bere jite bikoitza.* Alde batetik, Zuzenbide lortua da (langileriaren liskarren ondorioa); eta bestetik, Zuzenbide emana...

---

<sup>1</sup> XX. mendeko (Hegoaldeko?) prosan, behinik behin, zeren lehenagoko literaturan (Hidalgo, 1994) badirudi SAO izan dela eredu nagusia.

<sup>2</sup> Letra maiuskula txikiak edota letra etzanaz seinalatuko ditugu aurrerantzean galdegaiak.

### 1.2. Zer egin galdegai den sintagmaren ondoren aposizioa datorrenean?<sup>3</sup>

Horrelakoetan, ahal bada, aposizioa gibeleratzea izan daiteke irtenbiderik txukunena:

DESEGOKIA

- (3) Gizon bat, antzinako arropa dotorez jantzia, ikusi nuen geltokian.

EGOKIA

- (4) Gizon bat ikusi nuen geltokian, antzinako arropa dotorez jantzia.

Dena dela, irtenbide hori ez dugu beti helmenean. Adibidez, galdegai den sintagmak absolutiboan ez beste kasu-markaren bat badarama, ezin da atzera eraman aposizioa. Kontuan harturik aposizioetan kasu-marka berbera ipintzea komeni dela, hurrungo perpausak ez dira batere gomendagarriak:

DESEGOKIAK

- (5) ??Aizkolari askok, herrialde guztietatik etorriak, egingo dute erakustaldia Tolosan.  
(6) ??Aizkolari askok egingo dute erakustaldia Tolosan, herrialde guztietatik etorriak.

Halakoetan —perpausak zatitzeko aukera alde batera utziz gero—, irtenbide gutxienik txarrena, beharbada, sintagma aposatua parentesien edota marra luzeen artean ematea izan daiteke, aparteko eranskin gisa tartekatzea alegia (nahiz eta aparte horrek testuaren irakurgarritasuna oztopatzen duen)<sup>4</sup>:

BESTE IRTENBIDE BAT: MARRA LUZEAK EDOTA PARENTESIAK

- (7) Aizkolari askok —herrialde guztietatik etorriak— egingo dute erakustaldia Tolosan.  
(8) Aizkolari askok (herrialde guztietatik etorriak) egingo dute erakustaldia Tolosan.

### 1.3. Ez da komeni galdegaiaren ezkerrean elementu asko metatzea

Ez da komeni galdegaiaren ezkerrean elementu gehiegi (mintzagai hanpatu [+M] gehiegi) pilatzea. Hobe da horrelakoetan galdegaia ondo kokatzea eta bere ezkerrean osagai bat edo, gehienez ere, pare bat uztea. Bigarren mailako mintzagaiak —mintzagai hanpatu gabeak— aditzaren eskuinera eramatea komeni da<sup>5</sup>: aditzaren atzean zama informatibo txikiak duten elementuak kokatzeko joera dago eta. Hona hemen, adibide batzuk:

<sup>3</sup> Ik. Garzia (1997: 153-160).

<sup>4</sup> Ikus 41. atala.

<sup>5</sup> Perpaus bakun edo lokabeetan, bederen, zeren, jakina denez, perpaus menderatueta ez baitago horrelako banaketarik egiterik: menderatueta, sarrienik, menderagailua duen aditzak eman ohi dio bukaera perpausari. Perpaus erlatiboetan, adibidez, ezin da elementurik atera menderatutik:

a) \*Bereziki azpimarratu behar da [Ø formak duen] garrantzia *musikan* →  
b) Bereziki azpimarratu behar da [*musikan* formak duen] garrantzia.

- |   |  |
|---|--|
| <p>DESEGOKIA</p> <p>(9) Autore honen ustez, azterketa bakar batekin, ondorio orokorrak ateratzea ezinezkoa da.</p> <p>DESEGOKIA</p> <p>(11) Nire ustez, txiki-txikitatik haurrak telebista ikusteko hezi behar ditugu.</p> <p>DESEGOKIA</p> <p>(13) Duela 150 urte, eta ez lehenago edo beranduago, Teoria Zelularra plazaratua izateak hainbat arrazoi historiko baditu.</p> | <p>EGOKIA</p> <p>(10) Autore honen ustez, <i>ezinezkoa</i> da azterketa bakar batekin ondorio orokorrak ateratzea.</p> <p>EGOKIA</p> <p>(12) Nire ustez, <i>txiki-txikitatik</i> hezi behar ditugu haurrak telebista ikusteko...</p> <p>EGOKIA</p> <p>(14) a. Teoria Zelularra duela 150 urte —eta ez lehenago edo geroago— plazaratua izateak <i>hainbat arrazoi historiko</i> ditu./</p> <p>b. Teoria Zelularra duela 150 urte —eta ez lehenago edo geroago— plazaratua izateak <i>baditu</i> hainbat arrazoi historiko.</p> |
|---|--|

#### 1.4. Aditza beti bukaeran? Aditza aurreratzeko gomendioa

SOA ordena markatugabea zurruntasunez aplikatu izanak triskantza ederrak eragin ditu gaurko prosa estandarrean. Izan ere, aditzak nahitaez bukaeran joan behar duelako usteak aldrebeskeria galantak idaztera bultzatu ditu gaurko idazle arauzaleak: perpaus luze samarrak ditugunean, komunikazioaren izenean «lege» hori hausten eta aditza aurreratzen ikasi behar genuke gaurko idazleok<sup>6</sup>, gure idazle onenek erakutsi diguten bezala. Hona hemen, adibide bat:

<sup>6</sup> Ikus kazetari-hizkerari buruzkoetarako Zubimendi eta Esnal (1993: 171-235) eta Egunkaria (1995: 16-20).

Bestalde, kontuan izan behar da, oso kontuan gainera, erregistro desberdinak ditugula hitz egitean: umeak, esaterako, askoz sarriago baliatzen dira hanpaduraz (*badakizu zer? Ba aitak/ amari / gona gorria erosi dio*). Umeen hizkeran edo umeekin mintzatzean (ipuin bat kontatzean...) oso egokia izan daitekeen hanpadura-maila hori desegokia eta lekuz kanpoko gerta daiteke beste modu bateko testuetan: unibertsitatekoetan, adibidez. Era berean, oso desberdina da artikulua argumentatibo bat idaztea edo informazioa ahalik eta modu objektiboenean eman nahi duen artikulua idaztea (unibertsitateko testua, adibidez). Lehen kasuan ordena markatua izango da ohikoena, elementu bati edo besteari emango zaio-eta garrantzia, eta hori izango da galdegai. Bigarrenean, ordena neutrora joko genuke.

Orain arte esandakoaz gain, kontuan hartu behar da Mitxelenak (1978) argi utzi zuena: kontakizunetan bi estilo izan ditugula tradizioan. Lardizabalek adierazten duena bata, literatura-maila jasoagoa, goiko ordena neutroarekin bat datorrena (SOA: *aita batek bi seme zituen*); Agirre Asteasuokoarena bestea, herrikoiagoa (SAC: *aita batek zituen bi seme*). Praktikan Lardizabalen eredu bultzatu dugu estandarerrako; baina berriaz eztabaidatu gabeko puntua da hau.

Bestalde, ahoz ari garenean galdegai aditzaren ondoren ere ezarri ohi dugu, indar handiagoa eman nahian edo —modu berezian ahoskatua, aditzaren ondoren etenaldia eginez— (a. *Horri gertatu zaiol* / *BESTE BEHARTSU HARENA*. b. *Nora joan zineñ atzo?* -*Joan nintzen!* / *MIRANDARA*).

#### TXARTO

- (15) *Konstituzioak* Atariko Tituluan sindikatuak eta enpresaburuen elkarteak sortzea eta hauen lana libreak direla *aldarrikatzean*, eta erakunde hauek Zuzenbidezko Estatu sozial eta demokratiko berrian gizartearen eta ekonomiaren interesen sustapenean eta defentsan oinarrizko funtzioa betetzen dutela *esatean, prozesu hori burutu du.*

#### DESEGOKIA

- (17) Hala ere, mikroskopioa helburu naturalistekin erabili izanaren agiririk XVII. mendearen erdia arte *ez da aurkitu.*

#### TXARTO

- (19) Aldekoa den iritzian, auditoreak era ulergarrian eta zehatzean *adieraziko du urteko kontuek*, aurreko ekitaldian erabilitakoekin uniformeki aplikatzen diren eta orokorki onartuak diren kontabilitate printzipio eta arauekin bat etorritz, arlo esanguratsu guztietan, ikuskatutako enpresaren ondarearen eta egoera finantzarioaren irudi fidela *erakusten dutela* eta beraien ulerkuntza egokirako beharrezkoa den informazio nahikoa *biltzen dutela.*

#### ONDO

- (16) *Konstituzioak prozesu hori burutu du*, Atariko Tituluan *aldarrikatzean* sindikatuak eta enpresaburuen elkarteak sortzea eta hauen lana libreak direla eta *esatean* erakunde hauek Zuzenbidezko Estatu sozial eta demokratiko berrian gizartearen eta ekonomiaren interesen sustapenean eta defentsan oinarrizko funtzioa betetzen dutela.

#### EGOKIAGOAK

- (18) a. Hala ere, XVII. mendearen erdia arte *ez ziren aurkitu* mikroskopioa helburu naturalistekin erabili izanaren lekukotasunak.  
b. Hala ere, mikroskopioa helburu naturalistekin erabili izanaren lekukotasunak *ez ziren* XVII. mendearen erdia arte *aurkitu.*  
c. Hala ere, mikroskopioa helburu naturalistekin erabili izanaren lekukotasunak *ez ziren aurkitu* XVII. mendearen erdia arte.

#### ONDO

- (20) Aldekoa den iritzian, auditoreak era ulergarrian eta zehatzean *adieraziko du urteko kontuek*, aurreko ekitaldian erabilitakoekin uniformeki aplikatzen diren eta orokorki onartuak diren kontabilitate printzipio eta arauekin bat etorritz, *zera erakusten dutela, alegia* arlo esanguratsu guztietan, ikuskatutako enpresaren ondarearen eta egoera finantzarioaren irudi fidela, eta *orobat adieraziko du kontuek*, behar bezala ulertu ahal izateko beharrezko den informazio nahikoa *biltzen dutela.*

### 1.5. Elementuak zerrendatzean ere aditza bukaeran? Aditza aurreratzeko eta bi puntuak erabiltzeko gomendioa

Zerrendak ematen direnean, ezin dugu utzi aditza (predikazio-gunea) amaierarako; aitzitik, horrelakoetan predikatua aurreratzeko komeni da eta zerrendako osagaiak bukaeran eman, bi puntuen ondoren. Hona hemen, pare bat adibide:

#### TXARTO

- (21) *Askatasun sindikalaren erregulazioaren pauso nagusiak* 19/1977 Legea, apirilaren 1ekoa, enpresaburu eta langileei elkarte profesionalak eratzeko eskubidea aitortu ziena; 31/1977 Errege-Dekretu Legea, ekainaren 2koa, sindikatu bertikalean afiliaturik egon beharra kendu zuena; 3147/1977 Errege-Dekretua, abenduaren 6koa, organizazio korporatibo hori deuseztatu zuena; eta gainera, OITko 87 eta 98 Hitzarmenak, Espainiak 1977ko apirilaren 13an berretsita-koak, *izan ziren*.

#### TXARTO

- (23) *Lan-ikuskaritzaren funtzio garrantzitsuenak* lan, gizarte-segurantzaz, segurtasun, osasun, enplegu eta migrazioaren inguruko legeria zaintzea eta asistentzia teknikoa eskaintzea, lan-gatazketan bitartekoa izatea, enplegua erregulatzeko espedienteetan aurretikostenak egitea eta arriskua egonez gero, lantegiko jarduera etetea *dira*.

#### ONDO

- (22) *Askatasun sindikalaren erregulazioaren pauso nagusiak (honako) hauek izan ziren:* 19/1977 Legea, apirilaren 1ekoa, enpresaburu eta langileei elkarte profesionalak eratzeko eskubidea aitortu ziena; 31/1977 Errege-Dekretu Legea, ekainaren 2koa, sindikatu bertikalean afiliaturik egon beharra kendu zuena; 3147/1977 Errege-Dekretua, abenduaren 6koa, organizazio korporatibo hori deuseztatu zuena; eta gainera, OITko 87 eta 98 Hitzarmenak, Espainiak 1977ko apirilaren 13an berretsita-koak.

#### ONDO

- (24) *Lan-ikuskaritzaren funtzio garrantzitsuenak (honako) hauek dira:* lan, gizarte-segurantzaz, segurtasun, osasun, enplegu eta migrazioaren inguruko legeria zaintzea eta asistentzia teknikoa eskaintzea, lan-gatazketan bitartekoa izatea, enplegua erregulatzeko espedienteetan aurretikostenak egitea eta arriskua egonez gero, lantegiko jarduera etetea.

Horrelako enumerazioetan aditza aurreratzen bada eta bi puntuak erabiltzen badira, ez dirudi ezinbestekoa denik zerrendako elementuen ordezkot hitz iragarlea (*honakoak, honako hauek...*) erabiltzea.

- (25) *Lehenbizikoak dira: Opera viva.* Obra biziak: bekhathurik gabe zeneundenean egin zintuen obra onak. *Bigarrenak dira: Opera mortifera.* Obra hiltzailleak, arima hiltzen, eta erhaiten dutenak, zein baitira bekhatu mortalak. (Ax)
- (26) Juicijo on baten erreguela pera ecarri leguizan, ta casic gueijenac nai oiditubeen *olgueetaac dira: Jocua, Eitza, Pasiua, Soinuba, ta dantzia.* (fB Olg)
- (27) *Escatuten duseet guztiai:* au iracurri, noberari ez bazuaco leguez, naasteco dantzai beguiratu, tan dantzarijac ondo ondo esaminau artian, ez naijela simplezat equi. (fB Olg)
- (28) Guizon, ta emacamen naasteco dantziari *esaten deutsee Eleisaco Santubac verbaan verbaan:* Impernuco pozuba, Babilonijaco labia, Errijetaco pestia, pecatu guztien erne lecuba, luxurijaren escolia castidadiaren galdugarrija, diabrubaren chirrintolia, satanasaren saria, demoninuen jocua, piestia, sortia, Jesucristoren desondragarrija, cristinaubeen lotsagarrija, Bautizmoco promeseen ucagarrija, Ainguerubeen tristecia, Virgineen ondamediija, adulterijoguina, lapurguina, gorrotoguina, zeloguina... (fB Olg)
- (29) *Ona emen beste batzuc, ta dira:* Iraztasquia, edo arilteguija./ Iraztramaac. / Buztarrijac. / Arillac. (Mg PAb)

## 1.6. Subjektuaren eta aditzaren arteko urruntasuna: subjektua atzeratzeko aukera

Aurreko adibide eta gomendioetatik ondoriozta daitekeenez, askotan arazoa subjektuaren eta predikatuaren arteko urruntasuna izaten da: bistan dagoenez, ez da komeni elkarrengandik gehiegi urruntzea informazioaren bi oinarriak, hau da, subjektua eta predikatuaren muina<sup>7</sup>. Horrelako distantzia-arazoak saihesteko, gutxieenez, bi irtenbide ditugu: a) aditza aurreratzea, aurreko adibideetan egin denez (31); b) subjektua atzeratzea, bigarren adibidean ikus daitekeenez (33)<sup>8</sup>:

- |   |  |
|---|--|
| <p>GAIZKI</p> <p>(30) <i>Administrazioak</i> herritarren eskariak erantzuna izan dezan eta hizkuntza dela-eta inor berezia izan ez dadin bitartekoak <i>jarri behar ditu</i>.</p> | <p>ONGI</p> <p>(31) <i>Administrazioak bitarteko egokiak jarri behar ditu</i> herritarren eskariak erantzuna izan dezan eta hizkuntza dela-eta inor berezia izan ez dadin.</p> |
| <p>GAIZKI</p> <p>(32) <i>Adituek(,)</i> jaurtiriko gasa osasunerako arriskugarria izan daitekeela <i>adierazi dute</i>.</p>   | <p>ONGI</p> <p>(33) Jaurtiriko gasa osasunerako arriskugarria izan daitekeela <i>adierazi dute adituek</i>.</p>  |

## 1.7. Galdegai izateko joera duten osagaiak

Aditzaren ezker alde hurbilenean agertzeko joera duten elementu jakin batzuk premiari gabe — alegia, bestelako osagaien bat azpimarratzeko asmorik gabe — beren ohiko lekutik kanpo emanez gero, ordena markatuak eta fokalizazio desegokiak sortzen dira. Hona hemen, galdegai izateko joera duten elementu horietariko batzuk:

- a) *-ago, -egi* mailakatzailledunak: *hobeto, arinegi, azkarrago, gehiago...*
- b) Moduzko adberbioak: *argi, garbi, erraz, nekez...*
- c) Predikatu-osagaiak: *alkate izendatu, ordezkari aukeratu...*
- d) Denborazko adberbio batzuk: *beti, betidanik, berehala(xe), laster...*
- e) Zenbait aditz-esapide: *aski da, goiz da, nahikoa da, egia da, bistan da, (gauza) jakina da, denok dakigu, litekeena da, baliteke...*

- |  |  |
|--|--|
| <p>DESEGOKIA</p> <p>(34) Gerta daiteke pertsonen zein ondaren kontrako bortizkeria egotea eta alderdiek hori existitzen dela egiaztatzea; orduan, aribidean zegoen negoziazioa <i>berehalakoan</i> eten egingo da, harik eta bortizkeria desagertu arte.</p> | <p>EGOKIA</p> <p>(35) Gerta daiteke pertsonen zein ondaren kontrako bortizkeria egotea eta alderdiek hori existitzen dela egiaztatzea; orduan, aribidean zegoen negoziazioa <i>berehalakoan</i> etengo da, harik eta bortizkeria desagertu arte.</p> |
|--|--|

<sup>7</sup> Ik. J.M. Agirre (1994: 16).

<sup>8</sup> Hala ere, Hídalgo ohartarazi duen bezala (Hídalgo, 1996a: 51; 1996c: 29), subjektua sistematikoki atzeratzeak badu arrisku bat, eta da OAS tankerako ordena bitxi eta antikomunikatibo batera igarotzea, zeina —dirudienez— ez baitago inongo hizkuntzatan hezurmamiturik.



### 1.8. Perpaus osagarri jakin batzuen ordena: «garbi dago ... -la (-na)» tankerakoak

Aurreko ataleko esapide batzuk (*aski da, egia da, argi dago, bistan dago, age-rian dago, harritzekoa/harrigarria da, badirudi, badakigu...*) osagarritzat hartu ohi duten mendeko perpaus konpletiboaren aurrean eman ohi dira<sup>9</sup>. Horrelakoetan, ordena markatuegiak sortzen dira «mendeko perpausa + perpaus nagusia» hurrenkerari jarraituz gero. Hona hemen, pare bat adibide:

#### DESEGOKIA

- (36) Askorentzat garapen eta eboluzioaren adierazpen den gertakizun hau, guretzat, herritarrontzat, ekonomia zein kultura aldetik, sekulako galera dela *argi dago*.

#### DESEGOKIA

- (38) (...); hori guztia gorabehera, enpresari egin beharreko jakinarazpena egin ez bada, lan-agintaritzaren menpeko herri-bulegora eraman den jakinarazpenaren kopia bat lekualdatzea enpresa horretara *aski izango da*.

#### EGOKIA

- (37) *Argi dago* askorentzat garapen eta eboluzioaren adierazpen den gertakizun hau, (*argi dago*) guretzat, herritarrontzat, ekonomia zein kultura aldetik, sekulako galera dela.

#### EGOKIA

- (39) (...); hori guztia gorabehera, enpresari egin beharreko jakinarazpena egin ez bada, *aski izango da* lan-agintaritzaren menpeko herri-bulegora eraman den jakinarazpenaren kopia bat lekualdatzea enpresa horretara.

### 1.9. Perpaus osagarrien salbuespena edo «lizentzia»: galdegaia predikatu nagusiaren ondoren

Goraxeago adierazi denez, galdegai den osagaia aditzaren aurrealde hurbilenean joan ohi da euskaraz. Joera horren salbuespen bat perpaus osagarriena izan daiteke<sup>10</sup>: izan ere, galdegai den perpaus osagarria perpaus nagusiko aditzaren eskuinetara joaten da maiz<sup>11</sup>.

Perpaus elkartua laburra denean, ez dirudi fokalizazio aldetik kontraste handirik dagoenik bi hurrenkera hauen artean<sup>12</sup>:

<sup>9</sup> Ohiko analisiaren arabera, horrelakoetan aditzaren aurreko osagaia («aski», «egia», «argi»...) izango litzateke galdegaia. Dena den, bestelako azterketa ere egin liteke agian (Hidalgo 1994: 621): ondorengo predikatua har genezake galdegaitzat, esapide hauek perpaus osagarrian datorren informazio nagusia aurkezteko erabiltzen diren neurrian.

<sup>10</sup> Badira, hala ere, beti ezkerrean joan ohi diren perpaus osagarri batzuk: esaterako, perpaus osagarri izenlagunak («*gauzak okertzen ari zaizkiolako susmoa*», ik. 34. atala, *eskerrak, baizik eta bezalako* predikatuen osagarriak (*eskerrak etorri dela*), *ezen* lokailua daramatenak eta *bait-* menderagailua dutenak. (Ik. *EGLU-V*:38-40). Bere barnean galde-hitza daramaten adierazpen-perpaus osagarriak, berriz, ezin dira aditzaren eskuinean ipini (a. *Nor etorriko dela uste du Pellok?* / b. *\*Pellok uste du nor etorriko dela?*).

<sup>11</sup> Horrelakoetan perpaus osagarria hartuko dugu galdegaitzat, salbu eta predikatu nagusiaren aurreko osagaia enfasi-marka batez hornituta badator: *LEHENTXEAGO* [galdegaia] *esan dute etorriko dela*.

<sup>12</sup> Are gehiago, *EGLU-Ven* arabera, bigarren perpauskoa da «askotan hobesten den ordena, inplikazio berezirik gabe» (*EGLU-V*: 39).

- (40) Tren hau Orion gelditzen dela entzun dut.  
 (41) Entzun dut tren hau Orion gelditzen dela.

Baina predikatu nagusia edota perpaus osagarria korapilatsuago bihurtzen direnean, ordena markatu ezohikoak, eta are desegokiak ere sortzen zaizkigu osagarria perpaus nagusiaren aurretik edo perpaus nagusian txertaturik eman nahi izanez gero:

- |  |  |
|--|--|
| <p>ORDENA MARKATUA<br/>(EZOHIKOA)</p> <p>(42) <i>Norbaitek</i> tren hau Orion gelditzen dela <i>esan dit</i>.</p>                              | <p>ORDENA MARKATUGABEA</p> <p>(43) <i>Norbaitek esan dit</i> tren hau Orion gelditzen dela.</p> <p>(44) (Tren hau Orion gelditzen dela <i>esan dit norbaitek</i>.)</p>   |
| <p>ORDENA MARKATUA<br/>(EZOHIKOA)</p> <p>(45) <i>Museokoek</i> euskal arteak hemendik kanpo sustapen eskasa duela <i>azpimarratu dute</i>.</p> | <p>ORDENA MARKATUGABEA</p> <p>(46) <i>Museokoek azpimarratu dute</i> euskal arteak hemendik kanpo sustapen eskasa duela.</p> <p>(47) (Euskal arteak hemendik kanpo sustapen eskasa duela <i>azpimarratu dute museokoek</i>.)</p> |

Beraz, ezkerreko hurrengo adibidearen modukoak saihestu behar genituzke:

- |  |   |
|--|---|
| <p>ORDENA MARKATUA<br/>(DESEGOKIA)</p> <p>(48) Ministroek hartutako konpromiso guzti-guztiak bete eta agindutako epeak errespetatuko zirela <i>adierazi zuten</i>.</p> | <p>ORDENA MARKATUGABEA<br/>OHIKOA</p> <p>(49) Ministroek <i>adierazi zuten</i> hartutako konpromiso guzti-guztiak bete eta agindutako epeak errespetatuko zirela.</p> <p>(50) (Hartutako konpromiso guzti-guztiak bete eta agindutako epeak errespetatuko zirela <i>adierazi zuten</i> ministroek.)</p> |
|--|---|

Ez dago inolako debekurik, beraz, perpaus osagarria predikatu nagusiaren eskuinetara joateko, ezta osagarria galdegai denean ere. Hortaz, galdegai izanik osagarria «atzeratzeko» eragozpenik ez badago, arrazoi gehiagoz kokatu ahal izango da perpaus osagarria eskuinaldean beste elementuren bat bada galdegai. Demagun hurrengo perpausean «komunikabide guztien aurrean» galdegai gisa azpimarratu nahi dugula:

- |   |  |
|---|--|
| <p>ORDENA MARKATUA<br/>(DESEGOKIA)</p> <p>(51) Bozeramaileak Gobernuak hauteskundeak aurreratzeko asmoa duela komunikabide guztien aurrean adierazi du.</p> | <p>ORDENA MARKATUGABEA<br/>OHIKOA</p> <p>(52) Bozeramaileak komunikabide guztien aurrean adierazi du Gobernuak hauteskundeak aurreratzeko asmoa duela.</p> |
|---|--|

Hona hemen, idazleengandik jasoriko adibideak:

- (53) Pecatu ezdan moduban, celan olgau leitequian esatera orduco, *jaquin biar da*: Cristinau bacoachac daucan leguez, aparteco echuria, aparteco guenijua, ta aparteco penseeta moduba; alan dauqueela gueijeenc aparteco gogua, bata gauza batian, ta bestia bestian divertiduteco, ta olgheetaco. (fB *Olg*)
- (54) Katon Zensorino hartaz *irakurtzen da* (zeiñek baitzuen alferren gaiñean esku eta bothere) ekhartzen zeraukatenean gizon bat bere aitzinera, akusaturik, erraiten zela ezen alferra zela, berehala lehenbiziko gauza eskuetako larrua hazkatzen, eta ferekatzen zioela: eta baldin latz, lodi, eta gogor edireiten bazioen, ahalik eta arintkiena utzten zuela. Baiña mehe, leun eta bera bazuen, alfertzat kondenaturik, falta gutigatik ere bortitzki gaztigatzen zuela (Plutarc. in vita Caton. Censor.). (Ax)
- (55) Untziaren eragiterakoan, *erran zerauen* Iainkoak igurikiko zerauela ehun eta hogoi urthez. Baiña baldin kontua ongi atheratzen badugu, *edirenen dugu*, etzerauela iguriki ehunez baizen. (Ax)
- (56) Konparazino hautan *emaiten da aditzera*, handia dela gure Iaugoikoak gure salbatzeko duen desira, eta hartan hartzen duen atsegina eta plazera. Zeren *erraiten baitu*, kontentamendu gehiago duela bekhatore baten penitenziaz, laur eta hogoi eta emeretzi iusturen iustutasunaz baiño. (Ax)
- (57) Dantza zaleen urten erai, edo argumentubai erantzutera orduco, *pensau dot*, erabagui biar ditudala, cer dirian Erromedijac, Biguiraac, ta Saraubac. Oneen ondoric eranzungo jacue erabatera guztien erraparubai. (fB *Olg*)
- (58) O Ama guziz maitagarria! Berandu bederik, *erabaki degu* zu era onetan onratzea, eta zugana gatoz gure otoitz edo erregu umillak Eliz Ama santarekin egitera. (AA)
- (59) Baiña egiteko hunetan sarthu baiño lehen, *nahi nuke* iakin zenezan gauza bat, eta da: Nola egiazko penitentzia baita Iainkoaren donua, dohaiña eta emaitza, Iainkoak berak plazer duenean eman dezakeiena: hala egiazko penitentzia hura, noiz nahi den dela, heriotzeko azken orenean bada ere, salbatzeko asko sendo eta boheretsu dela. (Ax)
- (60) Aitzitik *ikhusiko dugu*, sentitu gabe, ioan zaizkigula [urteak], eta nola eztakigula zahartu garela. (Ax)

Ikus daitekeenez, aditz gobernatzailerak «deklaratioa» (pentsamendu, adierazpen, borondate edo pertzepziozkoa: *jakin, irakurri, esan, adierazi, aditzera eman, pentsatu, azaldu, iruditu, ageri izan, ikusi, aitortu, erabaki, uste izan, ohartu, galdetu, erakutsi, kontuan hartu, jakinarazi* ...) denean, ez dago inolako eragozpenik galdegai den mendeko perpau osagarria haren ondoren emateko, areago kontuan harturik mendeko perpau osagarri hauek ohituraz direla luze eta konplexuak<sup>13</sup>. Horrelako aditzekin, beraz, ez genuke beldurrik izan behar perpau nagusia (adierazpenezko aditz nagusia) aurreratzeko eta menderatu luzea ondoren emateko, ondoko adibideetan ikus daitekeen moduan<sup>14</sup>:

ORDENA DESEGOKIA

- (61) Udalak aldeko txostena eman zuela eta jendaurrean egon diren epean ez dela erreklamaziorik aurkeztu *kontuan harturik*...

ORDENA EGOKIA

- (62) *Kontuan harturik* udalak aldeko txostena eman zuela eta jendaurrean egon diren epean ez dela erreklamaziorik aurkeztu...

<sup>13</sup> (Garzia, 1997: 227 eta hurr.; Hidalgo, 1996a: 46).

<sup>14</sup> Adibideak, Españak (1999) idatzitako artikulutik jaso ditut.

- (63) Jaurlaritzaren Kontseiluak datorren urteko aurrekontuetan kontu-sailak murriztuko ez direla eta, gainera, alderdi guztien oniritzia ezinbestekoa izango dela *adierazi du*.
- (64) Jaurlaritzaren Kontseiluak *adierazi du* datorren urteko aurrekontuetan kontu-sailak ez direla murriztuko eta, gainera, alderdi guztien oniritzia ezinbestekoa izango dela.
- (65) Gutun honen bidez, Mikel Garciak basoak landu, entresaka egin eta enborrak basotik ateratzeko joan den otsailaren 17an aurkeztutako eskabidea ez dela onartu *jakinarazten dizut*.
- (66) Gutun honen bidez *jakinarazten dizut* ez dela onartu joan den otsailaren 17an aurkeztutako eskabidea, alegia, Mikel Garciak basoak landu, entresaka egin eta enborrak basotik ateratzeko aurkeztutakoa.

Dena dela, aditza aurreratzea irtenbide posibleetako bat baino ez dela gogorazi behar da; izan ere, baditugu beste irtenbide batzuk eskura:

- ORDENA DESEGOKIA
- (67) Uztailaren 27ko 389/1995 Dekretuko 3. artikulua Akordioak 1995eko urtarrilaren 1etik 1995eko abenduaren 31ra arteko indarraldia izango duela ezartzen du.
- ORDENA EGOKIAK
- ADITZA AURRERATUZ:
- (68) Uztailaren 27ko 389/1995 Dekretuko 3. artikulua (*halaber*) *ezartzen du* Akordioak 1995eko urtarrilaren 1etik 1995eko abenduaren 31ra arteko indarraldia izango duela.
- NEZ EGITURA ERABILIZ:
- (69) Uztailaren 27ko 389/1995 Dekretuko 3. artikulua *ezartzen duenez*, Akordioak 1995eko urtarrilaren 1etik 1995eko abenduaren 31ra arteko indarraldia izango du.
- BI PUNTUAK ERABILIZ:
- (70) Uztailaren 27ko 389/1995 Dekretuko 3. artikulua *hau ezartzen du*: Akordioak 1995eko urtarrilaren 1etik 1995eko abenduaren 31ra arteko indarraldia izango du.

Gainera, badirudi «lizentziak» berdin-berdin balio duela «zehargaldera» deituriko osagarri kasurako: hau da, lehengo hurrenkera berbera («aditz gobernatzaileria + mendeko perpaus osagarria») maiz agertu ohi da osagarria «zehargaldera» motakoa denean:

- (71) Baiña *ikhusirik* zein gauza guti edireiten den euskaraz eskribaturik, ... (Ax)
- (72) Bertze guztiak erraxki eta aise zegoela pitztu zituen, baiña Lazaro, iduriz, nekez. *Aditzera emaitzagarrik*, zein gaitz den, denbora luzeaz, bekhaturan usatua, usteldua, eta kirastua dagoen bekhaturearen sendatzea, eta erremediatzea. (Ax)
- (73) Artu zioten gaitziritziak gogoratzen zitzen fariseoai milla modu, jentteekiko kreitua galzeko JesuKristori; eta onetan asmatu zuten, eren arteko batzarrea juntatzeko, ondoren *erabakitze*ko zer burubide artu al zeikean, zertanbait uts eragiteko eta keje\* emateko beraren kontra. (AA)

- (74) Dantza zaleen urten erai, edo argumentubai erantzutera orduco, *pensau dot, erabagui biar ditudala*, cer dirian Erromedijac, Biguiraac, ta Saraubac. One-  
en ondoric eranzungo jacue erabatera guztien erraparubai. (fB *Olg*)

Bestalde, zehargalderetan ez da komeni osagai asko tartekatzea perpaus nagu-  
siko aditz gobernatzailearen eta mendeko perpausoko galde-hitzaren artean.

ORDENA MARKATUA  
(DESEGOKIA)

- (75) Nekez *uler daiteke* historialariek elkarrengandik urrunduz doazen gizarte-antolamendu «ahozko» eta «idatzizkoaren» izaerak *zergatik* ez dituzten aspaldi aztertu.

ORDENA MARKATUGABE  
ARRUNTA

- (76) Nekez *uler daiteke zergatik* ez dituzten aspaldi aztertu historialariek elkarrengandik urrunduz doazen gizarte-antolamendu «ahozko» eta «idatzizkoaren» izaerak.  
(77) Nekez *uler daiteke* historialariek *zergatik* ez dituzten aspaldi aztertu elkarrengandik urrunduz doazen gizarte-antolamendu «ahozko» eta «idatzizkoaren» izaerak.

Aditz gobernatzailea ezezkua denean ere, ezeztapenak berak hartu ohi du le-  
hentasuna eta, berriro ere, «aditz gobernatzailea + mendeko perpaus osagarria» hu-  
rrenkera nagusitu ohi da:

- (78) *Eztakigu* noiz hillen garen, *eztakigu* noiz izanen den gure azken eguna: ezta beraz arrazoin, iakin dezagun, noiz izanen ezten ere. (Ax)  
(79) *Eztakizu*, erran komuna den bezala, *eztela* heriotzea bezain gauza segurik, eta orena noiz izanen den bezain guti gerthurik? (Ax)  
(80) Eta *eztakizu*, benturak, benturaren iokoak, eta tornuak dituela? (Ax)  
(81) Ordea *eztakizu* zure baithan hala gerthatuko denz: halako faborerik, eta gara-  
ziarik eginen zaitzuntz. (Ax)  
(82) *Ez det uste* inguru oetara zabaldu dala onelako usanza itsusirik; baña kontuan ipintzen zaituet, engañatu etzaitzten. (AA)

Hala ere, perpaus osagarriaren aditz gobernatzailea (*ez dakizu*) beste perpaus baten mendean badago, orduan «perpaus osagarria + aditz gobernatzailea» ordena-  
ra itzul gaitezke berriro, Axularren ondoko adibidean ikus daitekeenez:

- (83) Anhitzetan, hartan guti pensaturik, zeinatzen zara. Anhitzetan, zer mintzo za-  
ren *eztakizula*, arneguak, eta iuramentuak egiteintzu. (Ax)

1.10. **Muga-arazoak «eskuineraturiko» perpaus osagarrietan: ezen markatzailearen erabilgarritasuna<sup>15</sup>**

Perpaus osagarria perpaus nagusiaren ondoren kokatuz gero, perpausen arteko muga-arazoak sortzeko arriskua areagotzen da: zenbaitetan anbiguotasunak sortzen

<sup>15</sup> Garzia (1997: 235). Ikusi, orobat, *EGLU-V* (62-65).

dira, ez baitakigu tarteko osagai jakin bat perpaus nagusikoa den ala menderatukoa den. Hona hemen, horrelako adibide bat, non «gaur adierazi» nahiz «gaur erabakia hartu» uler daitekeen:

- (84) Bozeramaileak komunikabide guztien aurrean adierazi du]<sub>17</sub> GAUR]<sub>27</sub> Gobernuak hauteskundeak aurreratzeko erabakia hartuko duela.

Horrelakoetan, *ezen* lokailua mendeko perpausaren hasieran sartzea izan daiteke halako muga-arazoak gainditzeko bide bat<sup>16</sup>. Izan ere, *ezen ... -(e)la* osagarriak perpaus nagusiaren eskuinean doaz beti, eta sekula ez haren ezkerrean. Honako hau dugu egitura, beraz: «perpaus nagusia + *ezen ... -(e)la*».

- |   |  |
|---|--|
| <p>ANBIGUOA</p> <p>(85) Bozeramaileak komunikabide guztien aurrean adierazi du <i>gaur</i> Gobernuak hauteskundeak aurreratzeko erabakia hartuko duela.</p> | <p>ANBIGUOTASUNIK GABEA</p> <p>(86) Bozeramaileak komunikabide guztien aurrean adierazi du <i>gaur ezen</i> Gobernuak hauteskundeak aurreratzeko asmoa duela. / ... adierazi du <i>ezen</i> <i>gaur</i> Gobernuak...</p> |
|---|--|

### 1.11. Zehar-estilotik estilo zuzenera: *Ministroak ...-la dio (?) / Ministroak dio ... -(e)la / Ministroak esandakoaren arabera...*

Aurreko puntuan nabarmendu denez, perpaus osagarrietako zehar-estiloak ordena-arazo ugari sortzen ditu, batez ere perpaus luze edo konplexuak eraikitzen ditugunean. Alde horretatik, estilo-aldaketa izan daiteke batzuetan irtenbiderik erosoan eta merkeena: menderakuntzarik gabeko estilora aldatzea, alegia. Beraz, aurreko adibide aldrebesa hobeto berridazteko beste aukera bat honakoa izan daiteke:

- |   |   |
|---|---|
| <p>ZEHAR-ESTILOA: ORDENA DESEGOKIA</p> <p>(87) Ministroek hartutako konpromiso guzti-guztiak bete eta agindutako epeak errespetatuko zirela adierazi zuten.</p> | <p>MENDERAKUNTZARIK GABEKO ESTILOA</p> <p>(88) Ministroek adierazitakoaren arabera, hartutako konpromiso guzti-guztiak bete eta agindutako epeak errespetatuko dira.<sup>17</sup></p> |
|---|---|

<sup>16</sup> Jakina, beste irtenbide bat komaz baliatzea da:

- a) *Bozeramaileak komunikabide guztien aurrean adierazi du, GAUR Gobernuak hauteskundeak aurreratzeko erabakia hartuko duela.*  
 b) *Bozeramaileak komunikabide guztien aurrean adierazi du GAUR, Gobernuak hauteskundeak aurreratzeko erabakia hartuko duela.*

<sup>17</sup> *-nez* egitura (*Ministroek adierazi zuten, (...) epeak errespetatuko dira*) anbigua izan daiteke: a) irakurketa batean perpaus osagarriaren baliokidea da; b) bigarren irakurketa baten arabera («ministroek adierazi zuten bezala»), gauzak ziur hala gertatuko direla uler daiteke. Alde horretatik, zehatzago eta aproposagoak dira hurrengoan moduko esapideak norbaitek egindako adierazpenak emateko: *-en hitzetan, -k esandakoaren arabera...*

### 1.12. Perpaus-burua eta adizki trinkoen *ba-* aurrizkia

Salbuespenak salbuespen, perpaus-buruan (eta efektu hauetarako mintzagai hanpatuaren ondoren hasten da perpausa) nekez agertzen dira aditz trinkoak *ba-*aurrizki baieztatzailearen edo gauzatzailearen laguntzarik gabe. Horra hor, erabile-  
ra oker baten adibide pare bat:

- |  |  |
|--|--|
| <p>TXARTO</p> <p>(89) Bestalde, Lege Organiko honek erregela batzuk <i>ere ditu</i>, bilatzen dutenak, organizazio sindikal nagusienen posizio juridikoa sendotzea (...)</p> | <p>ONDO</p> <p>(90) Bestalde, Lege Organiko honek erregela batzuk <i>ere baditu</i>, bilatzen dutenak, organizazio sindikal nagusienen posizio juridikoa sendotzea (...)</p> |
| <p>TXARTO</p> <p>(91) Horrek <i>ere daki</i> horrelakoetan zer egin behar den.</p>   | <p>ONDO</p> <p>(92) Horrek <i>ere badaki</i> horrelakoetan zer egin behar den.</p>   |

Nolanahi ere, goiko adierazpenetik («nekez agertzen dira...») ez da segitzen perpaus-buruan adizki «buruzuria» erabiltzeko erabateko debekua dagoenik euskararen gramatikan. Izan ere, idazleetan ugari dira salbuespenak<sup>18</sup>. Hala gertatzen da batzuetan *dio* adizki trinkoarekin, ondorengo adibideetan ikus daitekeenez:

- (93) *Dio* doktor hunek ezen behin gizon saindu batek ikhusi zuela bere espirituan, ametsetan bezala, ifernuko suaren erdian eskalera bat: eta eskalera haren lehen pausuan eta maillean zegoela konde bat, iaun handi bat. (Ax)
- (94) Eta *dio* Iaunac, Ençuçue cer iuge gaichto harc erraiten duen... (Lç)
- (95) Ecen *dio* Iaincoac, Dembora gogaracoan exauditu vkan aut, eta saluamendutaco egunean aiutatu vkan aut. (Lç)
- (96) *Dio*, Ni naiz desertuan oihuz dagoenaren voza. (Lç)
- (97) *Dio* Iesusec, Altcha eçaçue harria. (Lç)
- (98) *Dino* Espiritu Santubac lecu baten: Ganadu aldriac leguez, urteten davee pecatarijeen umiac soinuabagaz; ... (fB *Olg*)
- (99) Ta *Dinot*: I. Dantzán eguitia berez ezdala pecatu. Berez pecatu balitz, beti izango litzaateque. (fB *Olg*)

Orobat gertatzen da beste egitura batzuetan, hala nola «ustea» adierazten duten hurrengo egituretan: *daukat ... -(e)la; nago ... -(e)la/-(e)n*<sup>19</sup>. Are gehiago, literaturan maiz agertzen dira adizki kopulatiboak (*da, dira*) perpaus baten hasieran, baina testuinguru mugatu batean eta esplikazio modura: *Gauza bat esan nahi dizuet, eta da (...). Esango dizuet non dagoen. Dago...* Horrelako kopulatiboek goranzko intonazioa beharko dute, noski. Dena dela, hobe da horrelakoak gehiegi ez erabiltzea unibertsitateko testuetan.

<sup>18</sup> Hidalgo (1996c: 25-27).

<sup>19</sup> Osa (1990).

### 1.13. Objektua luze-luzea bada, maiz ematen da aditzaren ondoren

Objektua luze-luzea denean, nahiz eta galdegai izan, ez da komeni aditzaren aurrean ipintzea: perpaus osagarrien kasu bertsua da funtsean, antikomunikatiboa baita predikazio-gunea gehiegi atzeratzea.

- |   |  |
|---|--|
| <p>DESEGOKIA</p> <p>(100) [... hartu ditut...] Orobat, gure literatura tradizioko hainbat erdal hitz, zaharkituak zirenak eta gaur egun berriro, askotan premiarik gabe, erabiltzen hasi direnak <i>sartu ditut</i>.</p> <p>DESEGOKIA</p> <p>(102) Kontuan hartu behar den beste alderdi bat organismo horien kanpoko ezaugarri morfologikoak eta barneko batzuk, bai eta beren ezaugarri funtzionalak ere <i>da</i>.</p> | <p>EGOKIA</p> <p>(101) [... hartu ditut...] Orobat <i>sartu ditut</i> gure literatura tradizioko hainbat erdal hitz, zaharkituak zirenak eta gaur egun berriro, askotan premiarik gabe, erabiltzen hasi direnak.</p> <p>EGOKIA</p> <p>(103) Kontuan hartu behar den beste alderdi bat <i>da</i> organismo horien kanpoko ezaugarri morfologikoak eta barneko batzuk, bai eta beren ezaugarri funtzionalak ere.</p> |
|---|--|

### 1.14. Definizioen arazoa: egitura sintetikoaren astuntasunetik ihes egitea komeni da<sup>20</sup>

Gaur egungo euskaran sarri ikusten ditugu egitura sintetikoaz (partetik osotasunera doan egituraz) baliaturik emandako definizio gogo-nekagarriak, beheko zerrendaren ezkerrean ageri zaizkigun tankerakoak (104, 107, 110). Horrelakotan bukaera arte itxaron beharra dago predikazioaren guneaz jabetzeko: alegia, definizio baten aurrean gaudela jakiteko eta zer definitzen ari garen jakiteko (...*da egiaztagiria*) edota definitzekoa den adigaiaren funtsezko ezaugarriaz jabetzeko (...*idatzizko aitorten ofiziala da*).

Begien bistan dagoenez, halako egitura edo hurrenkerak —batik bat, esaldia luzea bada eta aurretik bigarren mailako ezaugarri asko pilatzen badira— oso astunak gerta dakizkioke irakurleari, zeren amaierara iritsitakoan bakarrik izan daiteke irakurlea gai ordura arte irakurritakoa informazioaren harian kokatzeko: testua berriakurtzera behartzen dugu irakurlea horrelako egituren ondorioz.

Intenbide bat baino gehiago ditugu antikomunikatiboak diren halako egitura sintetikoetatik ihes egiteko: funtsean beheko zerrendaren eskuinaldean ageri direnak.

- |  |   |
|--|---|
| <p>EGITURA SINTETIKOA:<br/>PARTEETATIK<br/>INFORMAZIOAREN GUNERA</p> <p>(104) Ekintza, gertaera, erabaki edo horrelakoren bat egia dela baieztatzen duen <i>idatzizko aitorten ofiziala da egiaztagiria</i>.</p> | <p>EGITURA ANALITIKOA:<br/>INFORMAZIOAREN<br/>GUNETIK PARTEETARA</p> <p>(105) <i>Egiaztagiria idatzizko aitorten ofizial bat da</i>, ekintza, gertaera, erabaki edo horrelakoren bat egia dela baieztatzen duena.</p> |
|--|---|

<sup>20</sup> Honetaz Kaltzakorta (1997) ikus dezake irakurleak.



- (106) *Egiaztagiria idatzizko aitorten ofizial bat da*, baieztatzen duena ekintza, gertaera, erabaki edo horrelakoren bat egia dela.
- (107) *Egiaztagiria ekintza, gertaera, erabaki edo horrelakoren bat egia dela baieztatzen duen idatzizko aitorten ofiziala da.*
- (108) *Egiaztagiria da idatzizko aitorten ofizial bat*, ekintza, gertaera, erabaki edo horrelakoren bat egia dela baieztatzen duena.
- (109) *Egiaztagiria da idatzizko aitorten ofizial bat*, baieztatzen duena ekintza, gertaera, erabaki edo horrelakoren bat egia dela.
- (110) *Egiaztagiria honako hau da: ekintza, gertaera, erabaki edo horrelakoren bat egia dela baieztatzen duen idatzizko aitorten ofiziala.*
- (111) *Egiaztagiria honako hau da: idatzizko aitorten ofizial bat*, ekintza, gertaera, erabaki edo horrelakoren bat egia dela baieztatzen duena.
- (112) *Egiaztagiria honako hau da: idatzizko aitorten ofizial bat*, baieztatzen duena ekintza, gertaera, erabaki edo horrelakoren bat egia dela.

Eskaini ditugun irtenbideen artean bigarrena («X da Y...») dateke, hain segur ere, errezelo edo erreparo gehien sortuko duena, batez ere Altuberen eskolan hezitakoentzat. Dena dela, gauza jakina da egitura edo hurrenkera hori ez dela zerbait arrotz euskal tradizio idatziarentzat, ondoko adibideek erakusten dutenez:

- (113) *Piramidea edo Piramideak ziren* sepultura suerte batzuk, pilare, harroin, edo thonba laur kantoinetako gora ailtxatu batzuk, egin ahal zitezkeien gorenak, ondoan zabal eta puntan mehar. (Ax)
- (114) *Fidanzia da* esperantza bat bortiztua, indarztatua, eta ustez ongi finkatua eta seguratu. (Ax)
- (115) Baiña gure kontuko, *denbora da* lehen, orai eta gero, gauzeen ibiltzea, iragaitea eta iragaitearekin batean hingatzea eta akhabatzea. (Ax)
- (116) *Jocua da* olgueeta bat berez, inoc bere condeneetan ezdavena. (fB *Olg*)
- (117) *Soinuba da* beste olgueeta bat berez inocentia. (fB *Olg*)
- (118) *Satisfatzea da*, zor eztitugun obrez, geure eskuko ditugunez, nahi badugu baizen egitera obligatu ezkarenez, zor dugun bezanbat pagatzea, eta bihurtzea. (Ax)
- (119) *Olgueetia da*, noberaren cer eguin nausijai, ta obligacinoiai ichita, goguc escatuten deutan beste gauza baten, demporia iragotia. (fB *Olg*)
- (120) *Eskandalua deritzon bekatua da* lagun hurkoari bekatutako bidea edota laguntza ematea. (AA, *Irakurbideak*, 34.or.)
- (121) Guretzat, «*errainua*» da guztiok itsasirik daramaguna eta harako Peter Schlemihl hark galdu omen zuena. (Mitx)

Dena dela, definizioen korapiloaren gakoia ez da besterik gabe «X da Y...» egitura (108-109) baliatzea, baizik ahal den neurrian predikazio-gunea aurreratzea (goiko 105-106). Behin predikazio-gunea aurreratu gero, ez da hain premiazkoa «X da Y...» egitura:

- (122) *Fidantzia* esperantza bat *da*, bortiztua, indarreztatua, eta ustez ongi finkatua eta seguratua. (Ax)

nahiz,

- (123) *Fidantzia da* esperantza bat bortiztua, indarztatua, eta ustez ongi finkatua eta seguratua. (Ax)

Hona hemen, hurrenkera analitikoaren arabera definizio eredugarri bat:

- (124) *Epitelio-ehunak (dira)* lotura interzelularren bitartez loturiko zelula polarizatuaren elkarre hertsia *dira*, substantzia interzelular oso urria dutenak eta xafra basalen gainean geruzetan paraturik, kanpo zein barne-gainazalak gaineztatzen dituztenak.

### 1.15. *Egin indartzaile edo fokalizatzailearen erabilera desegokia*

Hegoaldeko sarritan erabiltzen dugu *egin* berezi bat —eduki semantikorik gabekoa—, aditzaren ekintza azpimarratu edo fokalizatzeko: baliabide egokia da, behar denean eta neurritz erabiltzen bada. Dena dela, ipar-ekialdean ezezaguna den neurrian, ez dirudi bidezkoa denik Hegoaldeko usadioa gainerakoei ezartzen hastea. Edozein modutan ere, Hegoaldeko erabileran, batik bat, gehiegizko erabilera, edo hobeto esan, «lekuz kanpoko erabilera» dateke zuzentzekoa. Horra hor, pragmatikoki desegokiak diren zenbait esaldi:

- |   |   |
|---|---|
| <p>DESEGOKIA</p> <p>(125) Erantzunen ardatzak aurretik <i>aipatu egin ditugu</i> hitzaurrean.</p>   | <p>EGOKIA</p> <p>(126) Erantzunen ardatzak gorago/aurrerago <i>aipatu dira</i>, hitzaurrean, hain zuzen.</p>  |
| <p>DESEGOKIA</p> <p>(127) Gerta daiteke pertsonen zein ondasunen kontrako bortizkeria egotea eta alderdiek hori existitzen dela egiaztatzea; orduan, aribidean zegoen negoziazioa berehalakoan <i>eten egingo da</i>, harik eta bortizkeria desagertu arte.</p> | <p>EGOKIA</p> <p>(128) Gerta daiteke pertsonen zein ondasunen kontrako bortizkeria egotea eta alderdiek hori existitzen dela egiaztatzea; orduan, aribidean zegoen negoziazioa <i>berehalakoan etengo da</i>, harik eta bortizkeria desagertu arte.</p> |
| <p>DESEGOKIA</p> <p>(129) Hau [Konstituzioko ahalmenak nazioarteko erakundeei lagatzea] Elkarteei atxikitzean <i>gauzatu egin zen</i>.</p>  | <p>EGOKIA</p> <p>(130) Hau [Konstituzioko ahalmenak nazioarteko erakundeei lagatzea] Elkarteei atxikitzean <i>gauzatu zen</i>.</p>  |

<sup>21</sup> Hala ere, (129) perpausa egokitzen joko genuke, ekintza («gauzatu») fokalizatu nahi bada. Bestela, «noiz» (*atxikitzean*) bada galdegaia, soberan dago *egin* fokalizatzailea eta (130)-ko eskemara jo behar genuke.

- |   |   |
|---|---|
| <p>DESEGOKIA<br/>(objektua bada galdegai)<sup>22</sup></p> <p>(131) (...) esan genezake euskal lankidetzak berezko pentsakera <i>garatu egin duela</i>.</p> | <p>EGOKIA</p> <p>(132) (...) esan genezake euskal lankidetzak berezko pentsakera <i>garatu duela</i>.</p> |
|---|---|

### 1.16. Ezeztapena: urruntasun-arazoak edo «ogitarteko luzeak» eta beste

Ezezkoetan ez da komeni aditz laguntzailearen eta aditz nagusiaren artean elementu gehiegi metatzea, ezta oso luzea den osagai bat (adibidez, perpaus osagarri luze bat) tartekatzea ere. Urruntze horrek ulergarritasun-arazoak baino ez ditu ekariko<sup>23</sup>. Hona hemen, erabilera arriskutsu horren adibide batzuk:

- |  |   |
|--|---|
| <p>DESEGOKIA</p> <p>(133) Horrekin <i>ez dugu</i> euskal ezker soziala sakabanatzen duten arazoak konpondu ditugunik <i>esan nahi</i>.</p>   | <p>EGOKIA</p> <p>(134) Horrekin <i>ez dugu esan nahi</i> euskal ezker soziala sakabanatzen duten arazoak konpondu ditugunik.</p>  |
| <p>DESEGOKIA</p> <p>(135) Horrek <i>ez du</i> aldaketa nahitaez dekretuz ezarri behar dutenik <i>esan nahi</i>.</p>  | <p>EGOKIA</p> <p>(136) Horrek <i>ez du esan nahi</i> aldaketa nahitaez dekretuz ezarri behar dutenik.</p>   |
| <p>GAIZKI</p> <p>(137) Aurkako iritziak, osotasunean hartutako <i>urteko kontuek ez dutela</i>, orokorki onartutako kontabilitate arau eta printzipioekin bat etorritz, ikuskatutako enpresaren ondarearen, egoera finantzarioaren, eragiketen emaitzen eta egoera finantzarioan egondako aldaketen irudi fidela <i>erakusten adierazten du</i>.</p> | <p>ONGI</p> <p>(138) Aurkako iritziak <i>adierazten du</i> osotasunean hartutako <i>urteko kontuek ez dutela erakusten</i>, orokorki onartutako kontabilitate arau eta printzipioekin bat etorritz, ikuskatutako enpresaren ondarearen, egoera finantzarioaren, eragiketen emaitzen eta egoera finantzarioan izandako aldaketen irudi fidela.</p> |

Beste akats bat da ezezkoetan beti «ogitartekoa» egitea, hau da, objektuak sistematikoki adizki laguntzailearen eta aditz nagusiaren artean kokatzea (*ez du X nahi*). Izan ere, badirudi ezezko esaldietan bitarteko leku hori erabiltzen dela objektu bat (X) galdegai gisa-edo azpimarratzeko; baina kontua da idazlari askok eta askok ezer azpimarratzeko premiarik gabe kokatzen dituztela objektuak bitarteko posizio horretan, ezezkoetan «ogitartekoa» egitea beharrezkoa balitz bezala<sup>24</sup>.

<sup>22</sup> Adibide honetan ere —(129)-an bezalatsu— bi irakurketak dira posible: (131) egokia da, ekintza (*garatu*) azpimarratu nahi bada; baina objektua (*pentsakera*) bada galdegai, *egin* fokalizatzailea soberan dago.

<sup>23</sup> Egunkaria (1995: 17), 42. araua.

<sup>24</sup> Garzia (1997: 199-201).

Behin ezezkoetako bitarteko osagaiaren enfasiarena aipatu ondoren, ohartarazi behar genuke ez dela ezinbestekoa galdegaia beti-beti tartean ematea. Izan ere, objektu luzea —perpau osagarri bat— dugunean ezinbestean kokatu beharko da delako osagaia aditz ezeztatuaren ondoren eta ez tartean.

- |  |  |
|--|--|
| <p>DESEGOKIA</p> <p>(139) <i>?Ez dut egin duzuna zuhurra izan denik uste</i></p> | <p>EGOKIA</p> <p>(140) <i>Ez dut uste egin duzuna zuhurra izan denik</i></p> |
|--|--|

### 1.17. Muga-arazoak eta ordena-aldaketak

Zenbaitetan ordena aldatzea izan daiteke funtzio desberdinak (konparazio baten bi terminoak, subjektua eta objektu zuzena, etab.) betetzen dituzten sintagmak identifikatzeko eta elkarrengandik bereizteko estrategia egokia. Ikusi hurrengo adibideak:

- |   |   |
|---|---|
| <p>NAHASIA</p> <p>(141) Arau batzuk zorrotzago betetzen dira tokiko administrazioan, komunitate autonomoetan edo Estatuko administrazioetan baino.</p>              | <p>ARGIAGOA</p> <p>(142) Arau batzuk tokiko administrazioan zorrotzago betetzen dira, komunitate autonomoetan edo Estatuko administrazioetan baino.</p>             |
| <p>NAHASIA</p> <p>(143) Zuzenbideak, borrokak, indarkeriak eta gizabanakoaren nahiz taldeen interes partikularrek sortu dituzten gatazkak gainditzeko balio du.</p> | <p>ARGIAGOA</p> <p>(144) Borrokak, indarkeriak eta gizabanakoaren nahiz taldeen interes partikularrek sortu dituzten gatazkak gainditzeko balio du zuzenbideak.</p> |
| <p>AGRAMATIKALA<sup>25</sup></p> <p>(145) *Kritika gogorak jaso ditu diskurtsoak, sozialistak, Partidu Popularra eta IUren aldetik.</p>                             | <p>GRAMATIKALA/ARGIAGOA</p> <p>(146) Diskurtsoak kritika gogorak jaso ditu sozialistEN, Partidu PopularAREN eta IUren aldetik.</p>                                  |

### 1.18. Erlatibo «hautsiak» eta enfasi-joko bereziak: *X da (...)-na; -t(z)en dena da...*

Jakina denez, inguruko erdaretan erlatibo «hautsi» edo perifrastikoez («Es el Estatuto de los Trabajadores el que regula la mayor representatividad de las asociaciones empresariales») baliatzen dira sarri —gu baino sarriago— osagaiak fokalizatzeke. Euskaraz, beharbada, neurri apalagoan erabili behar genuke baliabide hori, horretarako ordenaz (aditzaren ezkerreko kokaguneaz) baliatzen garelako eta perifrasi-bide horrek aditz garrantzitsuen gehiegi urruntzera eraman gaitzakeelako: perpau laburretan ez dago arrisku handirik, arriskua perpau luzeetan sortzen da. Dena dela, gaia

<sup>25</sup> Bistan dagoenez, perpau honen agramatikaltasuna juntadura egiteko moduan datza (*sozialistAK, partidu Popularra eta IUren aldetik*), eta ez ordenan.

hobeto aztertu beharko litzateke agian, egiturari atek erabat itxi baino lehen<sup>26</sup>: esate baterako, (149a) perpausaren gisakoak egokitzen joko genituzke seguruenik.

- |  |  |
|--|--|
| <p>(147) EGOKIA? (perpaus laburra)</p> <p>a. Askatasun Sindikalari buruzko Lege Organikoa <i>da</i> eskubide honen gaineko erreferentzia arauemaileak <i>osatu dituena</i>.</p>  | <p>EGOKIAGOA (estilo zuzenagoa)</p> <p>b. Askatasun Sindikalari buruzko Lege Organikoa <i>osatu ditu</i> eskubide honen gaineko erreferentzia arauemaileak.</p>  |
| <p>(148) DESEGOKIA (perpaus luzea)</p> <p>a. Gainerako alderdiak PP konbentzitzen saiatuko dira, alderdi hau <i>izan baita</i> HBren eta EAJren arteko elkarrizketek Ajuria Eneko Ituna bera kolokan jarri dutela <i>kritikatu duena</i>.</p>                                | <p>EGOKIA</p> <p>b. Gainerako alderdiak PP konbentzitzen saiatuko dira, alderdi honek <i>kritikatu baititu</i> HBren eta EAJren arteko elkarrizketak, Ajuria Eneko Ituna bera kolokan jarri dutela esanez.</p> |
| <p>(149) EGOKIA (aditz garrantzitsua aurretik emana)</p> <p>a. Enpresaburu-elkarteen ordezkari handiena <i>erregulatzen duena ez da</i> apirilaren 1eko 19/1977 Legea, eta bai Langileen Estatutua, batik bat bere 6. Xedapen Gehigarrian, zeinak erreserbatzen baitu...</p> | <p>EGOKIA</p> <p>b. Enpresaburu-elkarteen ordezkari handiena, <i>ez du 19/1977 Legeak erregulatzen</i>, Langileen Esatatutuak baidik, batik bat bere 6. Xedapen Gehigarrian, zeinak erreserbatzen baitu...</p> |

Zenbaitetan, hala ere, erlatibo «hautsi» hori alderantzizko hurrenkeran ematen da (*Gertatzen dena da...*) eta orduan fokalizazio-jokoa bestelakoa da. Hain zuzen ere, halako egiturak erabiltzean maiz kokatzen da galdegaia aditzaren ondorengo lekuan:

- (150) Begien bistan dagoena da + [GALDEGAIA]
- (151) Gertatzen dena da + [GALDEGAIA]
- (152) Egin behar duguna da + [GALDEGAIA]
- (153) Gauza jakina da + [GALDEGAIA]
- (154) Kontua da + [GALDEGAIA]

Beraz, horrelako egiturak eta antzekoak (*Kontua da* + G) salbuespentzat jo daitezke galdegaia kokaguneari dagokionez<sup>27</sup>.

### 1.19. Hanpadura-jokoak eta erlatibo «klasikoaren» (*zein...bait/-n*) erabilera itsua itzulpenetan: *\*Hau da prozedura zeinaren bidez...*

Euskaraz perpaus erlatiboaren erdibitza (perifrasia) funtzio gramatikal jakin batzuekin (subjektua, objektu zuzena eta zeharkako objektua) baino ezin da egin. Alegia, «este es el procedimiento que hemos seguido», *hau(xe) da jarraitu dugun*

<sup>26</sup> Egunkaria-ren *Estilo Liburua*-n guztiz gaitzetsi dute baliabide hau (Egunkaria, 1995: 16-17).

<sup>27</sup> (Garzia, 1997: 247. or. eta hurr.).

*prozedura* itzulenezake, baina «este es el procedimiento mediante el cual/con el cual/del cual/por el cual... se han obtenido los datos» egiturak kalkatzerik ez dago<sup>28</sup>. Horrelakoak itzultzeko ez da batere gomendagarria «erlatibo klasikoa» (*zein ... bait/-n*) eta bai, ordea, galdegai-sistema arrunta:

- |   |   |
|---|---|
| DESEGOKIA   | EGOKIA  |
| (155) Hau da prozedura, zeinaren bitartez lortu diren emaitzak. | (156) Prozedura honen bitartez lortu dira emaitzak. |

## 1.20. Mendeko perpausaren barneko ordena

Mendeko perpaus batzuetan (erlatibozkoetan, esaterako) aditzak izan behar du azken elementua, ezin da beraz mintzagai hanpatu eta hanpatugabeen arteko bereizketarik egin aditzaren eskuineko kokagunearen arabera. Kontua da oraindik ez dagoela erabakia zein mendeko perpausetik behar duen nahitaez aditza azken lekuan eta zeinek ez<sup>29</sup>. Badirudi osagarrietan —hizkuntza mintzatuan, behinik behin— erraz pasatzen ditugula osagaiak aditzaren eskuinera (mendeko perpaus «hautsiak» deituko diegu halakoei):

- (157) a. «atzo jakin genuen [*zor digutena* datorren hilean jasoko dugula]»  
 b. «atzo jakin genuen [datorren hilean jasoko dugula] *zor digutena*»

Baina hala gertatzen al da beste zenbaitekin?:

- (158) a. *zor digutena* datorren hilean jasoko dugunez  
 b. ?[datorren hilean jasoko dugunez] *zor digutena*  
 c. *zor digutena* datorren hilean jasotzen badugu  
 d. ?[datorren hilean jasotzen badugu] *zor digutena*

Azkue eta Altubez geroztik hizkera estandarerrako gehien zabaldu den ereduaren arabera, halakoetan aditz lotua (menderagailuduna) perpausaren bukaeran jartzen da (alegia, *Nik soloan galgaraua erein [dudan] arren* eta ez —Mogelek idazten duen bezala— *Nik erein [dudan] arren galgaraua soloan...*). Baina hemen, zer esanik ez, ahozko hizkera askoz zabalagoa izan daiteke; kontua da estandarerrako zer bultzatu behar litzatekeen. xx. mendera arteko literatura-tradizioan eta xx.eko Iparraldeko tradizioan maiztasun handia dute menderatu hautsiek<sup>30</sup>: %47,9 atzizki bidez eta aditz jokatu bidez osatutako baiezkoean; %81,7 aditz jokatu bidez osatutako ezezkoean; ordena hautsiaren maiztasun apalagoa ageri da aditz jokatugabeen bidez osatutakoetan (%21,3).

Are gehiago, erlatibozkoetan ordena nahiko zurruna bada ere, gaurko hizkuntza idatzia behar baino zurrunago bihurtu dugu beheko esaldien modukoak gaitzetsiaz. Idazleetan ugari dira buru nominalaren ondotik emandako erlatiboak (a, b, c, d, e, h, i, j)

<sup>28</sup> Ik. Osa (1990: 142-143).

<sup>29</sup> Azkarate (1995).

<sup>30</sup> Hidalgo (1994: 597 eta hurr.)

eta erlatibozko perpaus nominalizatu hutsak (f, g); eta horien artean ez dira falta menderatu hautsiak (f, g, h, i, j):

(159) IDAZLEAK (TRADIZIOA)

- a. Hau da etxeko ohoina, barreneko etsaia, beti ere gurekin dagoena.
- b. Eta hain herstuki begiratzten zuen, non ez baitzen faborerik, ahaidetik eta ez urrerik, eta ez zilarrik, hauts arazi ahal ziezaiokeenik.
- c. Daukat Jainkoak emanda emazte otzan, baketsu, euli bati ere gaitzik egingo ez liokeena.
- d. Ez dabil zu legez basatzarik basatza oinetako meheakaz, eta bai zaldi, berak beste urte dituenean.
- e. Beste makina bat gauza, ixilik igaro, estali, eta gorde behar zirenak, zabalteak...
- f. Eta bada erraiten duenik biak karrozan edo kotxean ibili zirela...
- g. Jesusek orduan egin zuena gizon gor, eta mutuarekin, egiten du Elizak bataioa hartu nahi duenarekin.
- h. Baina non da ontasuna aski eremu duena, gisu labe handi bat berehala bero-beroan enplegatzeko?
- i. (...) gizon batzuek aldare aitzin guzian lerro-lerro ezarriak zituzten behin ere ikusiak ez nituen halako berinazko punpulatto batzuk, barnean ageri zutenak hari beltz mehe bihurdikatu bat.
- j. (...) esan zigun ipuin txito eder abade batek ipini zuena berba neurtuaz.

ZUZENBIDEKO HIZKERA (erlatibo hautsiaren adibidea)

- k. Bestalde, Lege Organiko honek erregela batzuk ere baditu, bilatzen dutenak, organizazio sindikal nagusienen posizio juridikoa sendotzea eta, beraz, negoziazio-eredu sozial eta zentralizatua egonkortzea, zeina gartatu baitzen Konstituzioaren indarraldiko lehen urteetan.

Edozein modutan ere, menderakuntza-marka atzizkia ez bada, are nekezago eman daiteke aditza bukaeran kokatzeko lege zorrotzik. «Bait-» aurritzia duten perpausetan, adibidez, sarritan hausten da «aditz lotua (menderagailuduna) bukaeran» legea. Eta beste hainbeste gertatzen da literatura-tradizioan «zein (...) bait-/n (...)» tankerako perpaus erlatiboetan<sup>31</sup>: uste okerra da pentsatzea egitura hauetan menderagailua (eta, beraz, aditza ere) nahitaez amaieran ipini beharra dagoela. Are gehiago, tankera honetako ezezkako perpaus menderatu ia guztiak izaten dira «hautsiak».

(160) IDAZLEAK (TRADIZIOA)

«BAIT-» HAUTSIAK

- a. Nola gehienek *ezagutzen baitzuten* Piarres Adame, eta nola Piarresek ere *ezagutzen baitzituen* gehienak, kapeluak kendurik (...)
- b. Izan ere, gizonak aberetzen delarik, mendekuan *aurkitzen baitu* gozamenik handiena.
- c. Lotsagarri eta penagarri, eta halaz guztiz nahitaezko. Hizkuntzarekiko auziak *ez baitaude* oraindik egon beharko luketen lekuan.
- d. Ez da gure xedea hemen parte hartzea, *ez baita* errax ere askotan gauza beraren alderdi guztiak ikustea.

<sup>31</sup> Ik. Alberdi eta García (1996).

«zein (...) bait-/n» hautsiak

- e. (...) aita, zein *baita* gauza guztien lehen fundamentua eta kausa (...)
- f. (...) eta irakin hartarik ilkitzen da ke bat, laino bat, zeinek, poetak dioen bezala, *itsutzen baitu* adimendua...
- g. (...) horra bi mugak, zeinetarat *baitaramate* mundu honetan atxikitzen diren bi bidek.
- h. (...) manatu zituen bere azpikoak amarratzeaz gizon haren eskuak eta oinak, eta haren jaurtikitzeaz leize beltz batera, zeinetan *ez baita entzuten* negar-marraskarik eta hortz-karraskarik baizen.

## ZUZENBIDEKO HIZKERA

«ZEIN (...) BAIT-/N» MENDERATU HAUTSIAK

- i. Bestalde, Lege Organiko honek erregela batzuk ere baditu, bilatzen dutenak, organizazio sindikal nagusien posizio juridikoa sendotzea eta, beraz, negoziazio-eredu sozial eta zentralizatu egonkortzea, zeina *garatu baitzen* Konstituzioaren indarraldiko lehen urteetan.
- j. Langileen Estatutuaren arabera, deialdi hori egin behar dutenak izaten dira: lantoki hartako langileak, beren arteko gehiengoaren adostasunez, edo enpresa hartan behar hainbateko ordezkariak daukaten sindikatuak (Batzordeko kideen %10) edo ordezkariarik handiena daukaten organizazio sindikalak, zeintzuei honela posizio pribilegiatua *aitortzen baitzaie* hauteskunde-prozesu osoa ordenatzeko.

«BAIT-» MENDERATU HAUTSIAK

- k. Gainera, Konstituzioak garrantiarik handienekin babestu du askatasun sindikala, hori aitortzen duen manamendua *sartu baitu* Lehen Liburuko II. Atalburuko Lehen Sekzioaren 28. artikuluan, hau da, eskubide-deklarazioen erdi-erdiko muinean.
- l. Hauteskunde hauetako emaitzen aldarrizkapena eta horietatik sindikatu bakoitzari bereak esleitzea Hauteskunde Sindikaletako Batzorde Nazionalaren gauza da, Batzorde horretan *ordezkaturik egoten baitira* sindikatuak berak ere.
- m. Nolanahi ere, enpresaburuen elkarte-eskubidearen izaera juridikoak zalan-tza batzuk sortzen ditu, datu konstituzionalek *ez baitute behar bezala argitzen*, hori sindikazio-eskubidearen bariante bat den ala, Konstituzioko 22. artikuluan aitortzen den elkarte-eskubide generikoaren manifestazioa.

Puntu hau, jakina, «ez» eta aditz laguntzailea aurreratzeko aukerari lotua dago. Erlatiboetan ezin da halakorik egin: *jasotzen ez dugun* esan behar da. Konpletiboetan denok onartuko genuke *ez dugula jasotzen*; are gehiago, horixe da forma ohi-koa edo markatugabea<sup>32</sup>. Esan bezala, berdin onartzen ditugu *ez baita etorri* edo *zeinek ez baitu jasotzen* tankerakoak. Gainerako kasuetan, ahozko hizkeran entzuten diren *?ez dugunez jasoko*, *?ez badugu jasotzen...* moduko adberbialak baztertu-  
xeak geratu dira hizkuntza idatzian (*jasoko ez dugunez*, *jasotzen ez badugu*).

---

<sup>32</sup> *Behin eta berriz esana dut EZ NINTZELA neure gogoz SARTU* modukoak ohikoagoak dira *Behin eta berriz esana dut neure gogoz SARTU EZ NINTZELA* baino. Dena dela, azken segida hori errazago erabiltzen da egitura konplexuagoetan, perpaus osagarria beste mendeko batean txertatua denean (EGLU-V: 45): *Tren hau Orion gelditzen ez dela esaten duena oker ari da*.



(161) a.	Erlatiboa ( <i>zein bait-/n</i> ):	? (zeinek) jasotzen ez baitu	(zeinek) ez baitu jasotzen
b.	Konpletiboa ( <i>-la</i> ):	jasotzen ez dugula	ez dugula jasotzen
c.	Konpletiboa ( <i>-la</i> ): [* <i>ezan</i> ]	? jaso ez dezagula	ez dezagula jaso
d.	Adberbiala ( <i>bait-</i> ):	? jaso ez baitugu	ez baitugu jaso
e.	Erlatiboa ( <i>-n</i> ):	jasotzen ez dugun	*ez dugun jasotzen
f.	Konpletiboa ( <i>-nik</i> ):	jasotzen ez dugunik	? ez dugunik jasotzen
g.	Adberbiala ( <i>-nean</i> ):	jasotzen ez dugunean	? ez dugunean jasotzen
h.	Adberbiala ( <i>-nez</i> ):	jasotzen ez dugunez	? ez dugunez jasotzen
i.	Adberbiala ( <i>ba-</i> ):	jasotzen ez badugu	? ez badugu jasotzen
j.	Adberbiala ( <i>-lako</i> ):	jasotzen ez dugulako	? ez dugulako jasotzen
k.	Adberbiala ( <i>-la(rik)</i> ):	jasotzen ez dugula(rik)	? ez dugula(rik) jasotzen
l.	Adberbiala ( <i>-la(rik) ere</i> ):	jasotzen ez dugula(rik) ere	? ez dugula(rik) ere jasotzen
m.	Adberbiala ( <i>-n</i> ): [* <i>ezan</i> ]	jaso ez dezagun	? ez dezagun jaso
n.	Adberbiala ( <i>nahiz -n</i> ):	nahiz jaso ez dugun	? nahiz ez dugun jaso
ñ.	Adberbiala ( <i>-n arren</i> ):	jaso ez dugun arren	? ez dugun arren jaso

Ondorio gisa honako hau azpimarra daiteke: Azkue eta Altuberen «legea», mendeko perpausetako aditz lotuak (menderagailudunak) perpaus menderatuaren bukaeran joan behar duela aldarrikatzen duena, ezin da itsumustuan zabaldu mendeko perpaus guztietara.

#### 1.21. *Zein ... baita /den* erlatibozkoen ordena: menderagailua duen aditzak (*baita/den*) ez du zertan erlatibozkoaren amaieran joan.

Funtsik gabeko uste oker baten arabera, *zein ... bait-/n* tankerako erlatiboetan perpausaren bukaeran jarri behar omen da menderagailua duen aditza (*baita/den...*) eta ez lehenago. Nolanahi ere, uste hori erdi ustela da, hori ordena posibleetako bat besterik ez baita. Are gehiago, idatzizko tradizioan beheko hiru aukeren artean lehena (A ordena: «*zein* + aditza + gainerako osagaiak») da maiztasun altuena ageri duena:

A ordena: «*zein* + aditzkia + gainerako osagaiak» (%58)

(162) (...) kontritioneaz bertze dolore molde bat, parabisurako loriaren galtzeko, edo ifernuko penetara ioaiteko beldurtasunetik heldu dena, *zein deitzen baita: Atritio, Atrizionea*. (Axular: Gero, 1643)

B ordena: «*zein* + gainerako osagaiak + aditzkia» (%20)

(163) (...) hura da kristino guztiek egiten duten fedearen konfesionean: *zein komunzki apostuluen sinboloa deitzen baita* (Lç *Ins*)

C ordena: «*zein* + osagaiak + aditzkia + osagaiak» (%28)

(164) (...) orain aiphatzera daramatzadan bi mezu hauk, *zeinak gizonaren ongi bizitzeko baitira hagitz progotxosak* (...) (ES)

Beheko esaldian, adibidez, menderagailua duen aditzkia bukaeran ematean (*hartzen duen*), predikatu hori oso urrunduta geratzen da dagokion subjektutik (*aseguratzaileak*) eta urruntze horren ondorioz esaldia ilun eta antikomunikatibo

bihurtzen da. Beraz, lehengora gatoz, berriro ere: ez da komeni predikazioaren gu-  
nea den adizkia eta bere subjektua elkarrengandik gehiegi urruntzea, ezta *zein ...*  
*bait-/n* tankerako erlatiboetan ere.

- |  |  |
|--|--|
| <p>DESEGOKIA</p> <p>(165) [Aseguru:] Kontratu-mota, <i>zei-<br/>naren bidez</i> aseguratzaileak<br/>diru-prestazio (aseguru-sari, pri-<br/>ma) baten truke, aurrez ezarritako<br/>muga batzuen barruan, asegu-<br/>tuak ustekabeko ezbeharren ondo-<br/>rioz jasan litzakeen kalteak ordain-<br/>tzeko obligazioa <i>hartzen duen</i>.</p> | <p>EGOKIA</p> <p>(166) [Aseguru:] Kontratu-mota, <i>zeina-<br/>ren bidez</i> aseguratzaileak obliga-<br/>zioa <i>hartzen duen</i> diru-prestazio<br/>(aseguru-sari, prima) baten truke,<br/>aurrez ezarritako muga batzuen<br/>barruan, aseguratua ustekabeko<br/>ezbeharren ondorioz jasan litza-<br/>keen kalteak ordaintzeko.</p> |
|--|--|

### 1.22. Erdal egitura pasiboa: ordain mimetikoaren arriskua

Inguruko erdaretan —bereziki, hizkera juridiko-administratiboan— ikaragarri  
hedatuta dago pasiboaren erabilera. Seguruenik, hizkera jasoaren ezaugarritzat  
hartzen delako jotzen dute hainbestek egitura horretara: horrelako idazlariek pasi-  
boa erabiltzean ez dute bilatzen objektua fokalizatzea, idazkiari estilo apaina eta  
goitarra —iluna, alegia— ematea baizik. Horregatik, hizkera juridikoa erraztearen  
eta argitzearen aldeko mugimenduei esker —eta ingelesetik hasita— iritsi dira gu-  
ganaino egitura honi hesiak eta mugak jartzeko ahaleginak. Joera murriztaile ho-  
rrek ingelesarentzat balio baldin badu, ez dago esan beharrik arrazoi gehiagoz ba-  
lio dezakeela euskararentzat, euskarazko literatura-tradizioan —Hegoaldean, batik  
bat—, dirudienez, erdal pasiboaren pareko egitura askoz ere maiztasun apalagoz  
erabili izan da eta. Beraz, hurrengo oharrak hartu behar dira kontuan (ik. 27. atala):

a) Ahal dela, baita itzulpenetan ere, estilo aktiboa bilatzea komeni da eta ez  
pasiboa<sup>33</sup>. Adibidez,

- |  |   |
|--|---|
| <p>?EGOKIA</p> <p>(167) Tratatu hauek, Espainiak berre-<br/>tsiak izan ziren 1976an...</p> | <p>EGOKI(AGO)A</p> <p>(168) Tratatu hauek, 1976an berre-<br/>tsituen Espainiak /...</p> |
|--|---|

b) Itzulpen traketsetan azaldu ohi diren \**Tratatu hauek Espainiatik/Espai-  
niagandik berretsiak izan ziren 1976an* tankerako interferentziak onartezinak dira.

- |  |   |
|--|---|
| <p>AGRAMATIKALA</p> <p>(169) Langileen Estatutuak ezartzen<br/>duenez, enpresa-hitzarmenak <i>en-<br/>presako batzordearengatik</i> edo<br/><i>pertsonalaren delegatuengatik</i><br/>negoziatuak izan ahal dira.</p> | <p>EGOKIA</p> <p>(170) Langileen Estatutuak ezartzen<br/>duenez, <i>enpresako batzordeak</i><br/><i>edo pertsonalaren delegatuek</i><br/>negoziatu ahal izango dituzte en-<br/>presa-hitzarmenak.</p> |
|--|---|

<sup>33</sup> Euskal egitura «pasiboan» tradizioa hobeto aztertu beharko litzateke. Izan ere, puntu horretan ba-  
liteke Iparraldeko joera Hegoaldekoa ez bezalakoa izatea. Nolanahi ere den, pasiboa neurritz gain eta  
modu mimetikoan ez erabiltzeko gomendioa bere horretan mantenduko guneke.

c) Egitura «pasiboa» erabiltzekotan, osagaien hurrenkera finkoari eta koinzidentziari erreperatu behar diegu. Hona hemen, adibide batzuk:

(171) \**Tratatuak Espainiak berretsita izan ziren.*

(172) ?*Tratatuak ESPAINIAK 1976AN BERRETSIAK izan ziren >*

(173) *Tratatuak (1976an) ESPAINIAK BERRETSIAK izan ziren (1976an).*

### 1.23. Sintagma barneko ordena: eskuinaldeko posizioez baliatzeko aukera

Orain arte sintagmen arteko hurrenkeraz mintzatu gara, baina sintagmaren mailan ere badago nolabaiteko askatasuna elementuak ordenatzeko, perpaus-mailakoa baino askoz ere mugatuago eta hertsiagoa bada ere. Esaterako, izen-sintagmari bagagozkio, izenondoek eta determinatzaileek beren leku finkoa dute izenaren eskuinaldean<sup>34</sup>. Izenaren eskuinaldean, beraz, ia-ia ez dago ezer lekuz aldatzeko aukerarik. Izenaren ezker aldean era askotako izenlagunak agertu ohi dira:

- a) *-ko / -en* izenlagunak
- b) Perpaus erlatiboak (*-n*)
- c) Perpaus izenlagun osagarriak (*-lako...*)

Euskaraz —alboko hizkuntzetan ez bezala— ezker aldean joaz gertatzen da izen-sintagmaren hedapena. Eta ezker aldeko hedapen hori astunegia gertatzen da maiz, zehaztapenak (izenlagunak) zehaztu beharrekoaren (izenaren) aurretik metatzen direlako. Gauza jakina da, ordea, gure idazle zaharrek sarritan iraultzen dutela ordena zurrun hori, izenlagunak-eta eskuinaldera eramanez, hurrengo adibideetan ikus daitekeen moduan:

#### ORDENA OHIKOA:

«Izlag + (izlag) + iz + det»

(174) a. *esnea bezain zuria den behia*

(175) a. *gerrarako gai ziren hogeitortetik aurreragoko gizonak iritsi ziren seiehun mila eta gehiagoraino.*

(176) a. *kanpotik eta barrutik betunez igortzitako zurezko ontzia*

(177) a. *egunaz itzal eta gauaz argi egiten zien hodei handi bat*

(178) a. *daukat Jainkoak emanda euli bati ere gaitzik egingo ez liokeen emazte otzan eta baketsua*

#### ORDENA MARKATUA:

«(izlag)+ iz + izlag + det»

b. *behi ederra, behi handia, behi, esnea bezain zuria*

b. *hogeitortetik aurreragoko gizon, gerrarako gai zirenak, iritsi ziren sei eun mila eta geiagoraino (AA II 5);*

b. *ontzi zurezko, kanpotik eta barrutik betunez igortzia (Lard 8);*

b. *hodei handi, egunaz itzal eta gauaz argi egiten zien bat (Lard 73).*

b. *daukat Jainkoak emanda emazte otzan, baketsu, euli bati ere gaitzik egingo ez liokeena<sup>35</sup> (Mg PAb).*

<sup>34</sup> *Zenbait, anitz...* tankerako zenbatzaileen salbuespenarekin, azken hauek izenaren alde bietan koka daitezke eta.

<sup>35</sup> Hitzez hitz, honela dio: *Daukat Jangoicua emanda emazte otzan, baquetsu, euli bati bere gaitzik egingo ez leusquiona.*

- (179) a. ez dabil zu legez basatzarik basatza oinetako meheekin, eta bai *berak beste urte dituen zaldian*. b. ez dabil zu legez basatzarik basatza oinetako meheekin, eta bai *zaldi, berak beste urte dituen*<sup>36</sup>. (Mg PAb).
- (180) a. *abade batek berba neurtuaz ipini zuen ipuin txit(o) ederra* esan zigun. b. esan zigun *ipuin txito eder abade batek ipini zuena berba neurtuaz*.

Dударик gabe, idazle zaharren egitura «irauli» horiek berreskuratzeko ahalegina<sup>37</sup> emankorra izan daiteke euskara estandar jaso eta malgua eraikitzeko, beti ere halako egiturak neurritz eta jakitez erabiltzen badira eta ez itsumustuan.

Bestalde, aipatu egitura markatuetara jo gabe, perpaus erlatibo askorekin badugu aukera erreferentea (izen ardatza) aurrean emateko, perpaus erlatibo aposatua ondoren ipiniz<sup>38</sup>:

- (181) Hau da etxeko ohoina, barreneko etsaia, *beti ere gurekin dagoena*.
- (182) Eta hain herstuki begiratzen zuen, non ez baitzen faborerik, ahaidetik eta ez urrerik, eta ez zilarrik, *hautsarazi ahal ziezaiokeenik*.
- (183) Beste makina bat gauza, *ixilik igaro, estali, eta gorde behar zirenak, zabal-tzeak...*
- (184) Baina non da ontasuna *aski eremu duena, gisu labe handi bat berehala bero-beroa enplegatzeko?*
- (185) ...gizon batzuek aldare aitzin guzian lerro-lerro ezarriak zituzten behin ere ikusiak ez nituen halako berinazko punpulatto batzuk, *barnean ageri zutenak hari beltz mehe bihurtikatu bat*.

## 2. X BAKARRIK, X SOILIK

Lehenengo eta behin, hor zehar zabaldu den sasibereizkuntza baten funsgabetasuna salatu beharrean gaude. Ustezko bereizkuntza horren arabera, *bakarrik* aditzondoa «lagunik gabe, kiderik gabe» esanahia —(a) esanahia— adierazteko baino ez litzateke erabili behar (*Luis bakarrik dago* = hots, «lagunik gabe edo beste inor gabe»); *soilik* hitza, ostera, «eta ez besterik, eta ez gehiago, eta ez bestetan...» esanahia —(b) esanahia— bakarrik adierazteko gorde beharko omen litzateke (*Luis soilik harrapatu dute* = hots, «Luis baizik ez dute harrapatu»). Kontua da, ordea, bereizkuntza horrek ez duela oinarri sendorik, batetik, *bakarrik* aditzondoak maiz (b) adiera ere hartzen duelako,

- (1) Sinestean dago bertzela, sinestean *bakarrik*, bihotzeko gozoa (JE Bur 41)
- (2) Eskubide ori ezjala arimen onerako *bakarrik*, ezpada gorputzaren osasunerako be bai (Ag Kr 25)

<sup>36</sup> Hitzez hitz, honela dio: *Eztabil zu leguez basatzaric basatza oiñetaco meiacaz, ta bai zaldi, berak beste urte ditubanian*.

<sup>37</sup> Ik. Sarasola (1996: XVI. or.).

<sup>38</sup> Ikusi 40. atala.

eta, bestetik, *soilik* hitzari ere ia beti (b) adiera badagokio ere, (a) adiera ere guztiz arrotz ez zaiolako:

- (3) «Deza», «leza», etab., ezin erabil daitezkeela *soilik* inongo euskalkitan, ... (EH: «soilik»)
- (4) Eta halaz guztiz, Axularrek «diazai» eta horren kideak *soil-soilik* darabiltza, beste makulurik gabe (MEIG VIII 99)

## 2.1. Baiezko perpausak

Baiezko perpausetan *bakarrik* eta *soilik* aditza ez den beste osagai bat (izen-sintagma edo adizlaguna) modifikatuz agertzen direnean, harexen eskuinean ezarri ohi dira eta galdegai izaten dira gainera; beraz, ondoren aditza ezartzea eskatzen dute. Horixe da, behinik behin, tradizioan ageri den joera nagusia<sup>39</sup>:

### BAIEZKO PERPAUSAK: X BAKARRIK / X BAKAR-BAKARRIK

- (5) *Hauxe bakarrik (bakar-bakarrik)* esan nahi dizut
- (6) *Gure artean bakarrik* gertatzen diren gauzak
- (7) *Berak bakarrik* egin dezakeen lana
- (8) Bi aldetarik *eta bi aldetarik bakarrik* zetozen erasoak
- (9) *Gizon bat bakarrik* etorri zen
- (10) *Bost gizon bakarrik* daude hemen
- (11) Batzuek *ezpañez bakarrik*; beste batzuek *biotzez bakarrik* eta beste batzuek *biotzez* eta *ezpañez* egiten dutenak. (Inza *Azalp* 119)
- (12) *Gure Jainkoak bakharrik* daki noizpeit gerthatuen berri (Ox 22)
- (13) Liburu au ezpaita saldu ulerterreza *dalako bakarrik*, Pernandoren ipui gaiak edonork egosi ditzakelako baizik. (Etxde *AlosT* 10s)
- (14) Demonio *eta kondenadubak gaitik bakar bakarrik* ezin ofrezidu leiteke (Astar II 211)

### BAIEZKO PERPAUSAK: X SOILIK / X SOIL-SOILIK

- (15) *Gotzonak soilik* dira bere laztanen gai (Laux *BBa*)
- (16) Gorputz-atalek ematen diguten *laguntza soil-soilik* dugula mugigarri.

---

<sup>39</sup> Batzuetan, ohiko hurrenkera (*X bakarrik/soilik*) hausten dela dirudien arren, *bakarrik (soilik)* ez dagokio sintagma arrunt bati, ezpada aditzari. Horrelakoetan, *bakarrik (soilik)* leku desberdinetan kokaturik ageri zaigu, maiz aditzaren eskuinean:

- (1) Huts bat du *bakarrik* (EH: «bakarrik»)
- (2) Euskaraz mintzatzen direnak aipatzen ditu *ia bakarrik* (EH: «bakarrik»)
- (3) AITAK. Arbola landatu-berri batzuei sortzen zaizkote tantayaren erditsutik boteak. Halakoei ohar-tzen denean, berehala eskuz khendu behar dira. Kapetako muskila uzten da *bakharrik*. (Dv Lab)
- (4) Pozik zebiltzela danak gomutatzen zaió *bakharrik*, eta txoferrak bruza zuria eta bisera-belzdun kapela zuria zeramala, eta automobileri ezkerreko farola faltatzen zitzaioela. (Osk Kurl 42)
- (5) Non aurkituren du gizonak, bere bihotzaren sosegua eta bakea? *Bakarrik* [aurkituren du], sekulan enganatzen ez duen adixkidea baitan. (Lap 47)
- (6) *Bakarrik*, Jauna, *esketan deutsut*, sortu daizula nire biotz otzituan Zeure maitetasun, ta grazia (Añ *EL'* 70)
- (7) Norbait yuiatu nahi duzuenean, ez beha presunari, baina *bakharrik [beha]* arrazoinari eta zuzentasunari (Lg II 201)
- (8) Haren seme bakharra da, eta *bakharrik [da]* harena (Jaur 358)
- (9) Jaungoikua *da bakarrik* zorrik ez daukana (fB *Olg* 193)

- (17) ...erran zuan Mocotyk, Bizkai eta Gipuzkoako *garbizale porrokatuek soilik* ezagutzen duten hitz berria, (...) (Osk *Kurl* 23)
- (18) Gero eta argiago ageri baita, nahiz Bergarako Mintegiarenak ez hain hedatuak egon, orduan hasi zela eta ez lehenago gure Hegoalde honetan gero eta aberatsago, *ia paperetan soilik*, zoritxarrez, egungo eguneraino iraun duen bizialdi berria. (MEIG IV 126)
- (19) Farmazietan *soilik* saltzen den sendagaia (EH: «farmazia»)
- (20) Itsasbeheran *soilik* ikusten diren harkaitzak (EH: «itsasbehera»)

Joera horren aurkako lekukotasun bat edo beste bada literaturan, baina salbuespentzat har daitezke halakoak:

- (21) Oñatiko mendietan arkitzen dira meatzeak, beruna eta burnia ematen dituztenak; bañan *bakarrik* berunezkoan diardute langilleak (Izt C 71)
- (22) Gorputzak hartu ohi du lurrean sepultura. Eta *bakharrik arima* sartzen da erran lekhura, (...) (EZ *Man I* 116)

## 2.2. Ezezko perpausak<sup>40</sup>

Ezezko perpausetan, ostera, hurrengo hiru hurrenkerak onartzen ditu *bakarrik* aditzondoak<sup>41</sup>:

### EZEZKO PERPAUSAK:

A) EZ X BAKARRIK      B) X BAKARRIK EZ      C) EZ BAKARRIK X

- (23) Ez *zuk bakarrik*...
- (24) Ez *ni bakarrik*, zu ere bai.
- (25) *Zuk bakarrik ez*, beste edozeinek ere sinetsiko luke.
- (26) Ez *bakarrik zuk*...
- (27) Ez *bakarrik aldeko zirenei*, baita gainerako guztiei ere.

### EZEZKO PERPAUSAK:

A) EZ X SOILIK      B) EZ SOILIK X      C) X SOILIK EZ

- (28) Eskualde horretan guztian ez zen *euskaraz soilik* egiten
- (29) Ez ditugu *soilik poemak* galdu, horiez gainera...
- (30) Segiziokoen artean ez daude *soilik bere garai eta garaitsukoak*
- (31) Alabaina, norbaitek erritarren aberaskizunen gain, gizonak berak arrapatuz ioputzara ekarten dituenen, izen itsusioan ordez, zorioneko ta aberats izendatzen dute, *erritarrek soilik ez*, baina, erabateko bidegabekeri makurrenaren berri luketen guziek... (Zait *Plat* 136)
- (32) Eta argitaratzaileak lau arrasto larriz itxuratzen digun *Zabala gizonaren irudiak soil-soilik ez du esku-hutsik utziko* liburuaren eroslea. (MEIG III 097)

## 2.3. Hurrenkera desegokiak: adibideak

Ondorioz, hurrenkera aldatzea edota egitura aldatzea (*X baizik/baino ez...*) gomendatuko genuke hurrengo adibideetan eta antzerakoetan:

<sup>40</sup> Ikus bedi beherago 8. atala («Ez ... bakarrik, ... ere»).

<sup>41</sup> Ik. Euskaltzaindia (1994: 99-102).

### BAKAN ERABILIA

- (33) Orain *bakarrik euskaraz* mintzatzen direnak oso gutxi dira.
- (35) Erdaldunek, aldiz, *bakarrik beren hizkuntza* erabiltzeko aukera dute.
- (37) Maila guztiok, errepika dezadan, *soilik nolabaiteko abstrakzioa eginez* finka daitezke.
- (39) Konponbide judiziala *soilik* erabil daiteke gatazka juridikoetan...
- (41) Gatazka ekonomikoa konpontzea *soilik langile eta enpresaburuei* dagokie.
- (43) «Langile» terminoa, zentzu teknikoan, *soilik lan kontratuaren subjektuari* dagokio.
- (45) Horregatik, *soilik oso egoera larrietan* erabil daiteke nahitaezko arbitrajea.
- (47) Ugazaben itxiera *soilik* legezkoa izango da Konstituzio Auzitegiak dioen kasuan.
- (49) Alde honetatik, bada, askoz errazagoa da ingurune *soilik katalandunak* aurkitzea, ingurune edo giro *soilik euskal hiztunak* topatzea baino.
- (51) (...) eta premiazko egoerak arautzeko aldarrikatzen diren lege-dekretuak, premiazko egoerak dirauen bitartean indarrean egongo dira *soilik*.
- (53) Aipatu ahalmen hau *soilik* estatuko gobernuari ematen dio eta ez, ordea, komunitate autonomoko gobernuari.
- (55) Forma askatasuna printzipioarekin bat etorritz, kasu hauetan ere forma idatziak *bakarrik* eragin deklaratzailerak («ad probationem») dauka eta ez sortzailerak («ad solemnitatem»).
- (57) Jakina, zirkunstantzia hauek *bakarrik langilei* dagozkie.

### GOMENDAGARRIAGOA

- (34) Orain *euskaraz bakarrik* mintzatzen direnak oso gutxi dira.
- (36) Erdaldunek, aldiz, *beren hizkuntza bakarrik* erabil dezakete.
- (38) Maila guztiok, errepika dezadan, *nolabaiteko abstrakzioa eginez (soilik)* finka daitezke (*soilik*).
- (40) Konponbide *judiziala gatazka juridikoetan soilik* erabil daiteke.../ Konponbide judiziala *gatazka juridikoetan baino (baizik)* ezin erabil daiteke.
- (42) Gatazka ekonomikoa *konpontzea langile eta enpresaburuei (soilik)* dagokie (*soilik*) / *Langile eta enpresaburuei baizik (baino)* ez dagokie gatazka ekonomikoa konpontzea.
- (44) «Langile» terminoa, zentzu teknikoan, *lan kontratuaren subjektuari (soilik)* dagokio (*soilik*).
- (46) Horregatik, *oso egoera larrietan soilik* erabil daiteke nahitaezko arbitrajea.
- (48) Ugazaben itxiera *Konstituzio Auzitegiak dioen kasuan soilik* izango da legezkoa/ Itxiera patronala *Konstituzio Auzitegiak dioen kasuan baizik (baino)* ez da izango legezkoa.
- (50) Alde honetatik, bada, askoz errazagoa da *katalanez soilik* mintzatzen den inguruneak aurkitzea, *euskaraz bakarrik* mintzatzen den inguruneak topatzea baino /... euskaldun huts diren inguruneak topatzea baino.
- (52) (...) eta premiazko egoerak arautzeko aldarrikatzen diren lege-dekretuak, *premiazko egoerak dirauen bitartean soilik* egongo dira indarrean.
- (54) Aipatu ahalmen hau *estatuko gobernuari soilik* ematen dio eta ez, ordea, komunitate autonomoko gobernuari.
- (56) Forma askatasuna printzipioarekin bat etorritz, kasu hauetan ere forma idatziak eragin deklaratzailerak («ad probationem») bakarrik dauka (*bakarrik*) eta ez sortzailerak («ad solemnitatem»).
- (58) Jakina, zirkunstantzia hauek *langilei bakarrik* dagozkie. / ... *langilei baizik (baino)* ez dagozkie.

### 3. X BESTERIK ETA ADITZ-KOMUNZTADURA: LIBURUAK BESTERIK EZ ZEGOEN, ZUEK BESTERIK EZ DA SARTU...<sup>42</sup>

Testuen azterketa egin ondoren, ondorio hauetara irits gaitzke:

#### 1. *Pertsona-komunztadura*

Perpauis baten barruan, *besterik* forma soila bere aurrean lehen eta bigarren mailako pertsona-izenordainak kasu absolutiboan dituenen bakarrik agertuko da (1a, 1b/\*1c), eta aditzak *besterik*-ekin (hirugarren pertsona singularrarekin) egiten du komunztadura (1a, 1b/\*1d):

- (1) a. *Zu besterik ez dut maite.*
- b. *Gu biok besterik ez al duzu gonbidatu?*
- c. *\*Zuk besterik ez nau maite.*
- d. *\*Zu besterik ez zaitut maite*

Pertsona-izena edo pertsona-izenordaina ergatiboan nahiz datiboan badator, aditzak *besterik* / *beste inor* (*inork*) (*inori*) / *beste* [izena]-(*r*)/*rik* sintagmarekin egiten du komunztadura, (2)-an ageri diren adibideen arabera<sup>43</sup>. Bestalde, kasu absolutiboan ere erabil daitezke forma hauek (2c):

- (2) a. *Hori ez daki zuk beste inork.*
- b. *Sekretu hau ez diot zuri beste inori esango.*
- c. *Bart kalean ez dut zu beste inor ikusi.*
- d. *Zuk bestek ez dit esan.*
- e. *Amodioz maitatzen / ez daki zuk bestek.*

Pertsona-izena edo pertsona-izenordaina ez denean, *inor* / *inork* / *inori*-ren ordeez, *ezer* / *ezerk* / *ezeri* erabiliko dira.

- (3) a. *Zu ez zaitu drogak beste ezerk hondatzen.*
- b. *Ez al diozu heriotzari beste ezeri beldurrik?*

*Besterik*-en aurreko izen-sintagma singularra denean, ez da dudarik, *besterik*-ekin singularrean egingo du komunztadura. Adibidez:

- (4) *Autoa besterik ez da ageri bazterretan.*

---

<sup>42</sup> Ia hitzez hitz aldatu ditut hona Euskaltzaindiko Gramatika Batzordearen arau-proposamenaren ondorioak (Euskaltzaindia, 1998: «Izen-sintagma + *besterik* eta aditz komunztadura» izeneko txostena).

<sup>43</sup> Goiko (1) eta (2)ko esaldietan ageri den komunztadura-moduaren kontrako adibiderik ez da ageri lirateratura-tradizioan oinarrituriko datu-basean. Bestalde, gaineratu behar da bi izen-sintagma horrela segidan daramatzen egitura hau ez dela euskalki guztietan erabiltzen: mendebaldean, gipuzkeraz batik bat erabili izan da. Honen ordeez, *-(e)z bertzerik* egitura erabili izan dute ekialdeko idazleek (*zeren erreginak bere senharraz bertzerik ere dastatu baitzuen; guk Jainkoaz bertze aitarik ez dugu; ez duk izanen nizaz bertze Jainkorik, etab.*).



## 2. Numero-komunztadura

*Besterik*-en aurreko izen-sintagma plurala denean ere komunztadura *besterik*-ekin singularrean egitea gomendatzen da. Hauek dira horretarako arrazoiak:

- a) *Besterik*-en aurreko izen-sintagma lehenengo eta bigarren pertsonen izenordainen bat denean, aditzak komunztadura 3. pertsona singularrekin, hau da, *besterik*-ekin egiten badu, zergatik ez aurreko izen-sintagma plurala denean? Komunztadura pluralean egitea ez al litzateke komunztadura-sistema haustea izango?
- b) Euskal testuak ere aditz-komunztadura *besterik* sintagmarekin egitearen aldeko ditugu, bai horien kronologiaren aldetik baita maiztasunaren aldetik begiratuta ere<sup>44</sup>.
- c) Mendabaldeko [«izen-sintagma<sub>absolutiboan</sub> + *besterik*<sub>absolutiboan</sub>»] eta ekialdeko [«izen-sintagma<sub>instrumentalean</sub> + *bertzirik*<sub>absolutiboan</sub>] egiturek parekotasun nabaria dute bigarren sintagman eta honekin singularrean egiten duen aditz-komunztadurarekin. Mendebaldean komunztadura pluralean eginez gero, hautsi egingo litzateke parekotasun hori eta nahasmendua sortu.

Azterketa honen ondoren, honela labur daiteke arau-proposamena:

1. *Besterik*-ek ezkerretara daraman osagaia absolutiboan bakarrik joan daiteke. Beraz, ABSOLUTIBOA + *BESTERIK EZ* + ADITZA egitura izango dugu.

- (5) a. *Liburuak besterik ez zegoen* etxe hartan.  
b. \**Liburuai besterik ez zien* jaramonik egiten.

2. Horrelakoetan perpauseko aditzak *besterik*-ekin egiten du komunztadura, oro har.

- a) Pertsonari dagokionez, dudarik gabe.

- (6) a. [...] zu *besterik ez dut* maite (herri-kanta).  
b. Zuek hirurok *besterik ez omen da sartuko* aretoan.

- b) Numeroari dagokionez ere, hori da Euskaltzaindiaren gomendioa<sup>45</sup>.

- (7) a. [...], bañan *etzegoan* bakar batzuk *besterik* [...] (Salav 99).  
b. Ez gero pentsa an ez *dagola* probalariak *besterik*. (Bas *Kantari* 80).

<sup>44</sup> Kronologiaren aldetik, hasi Larramendiren *Corografía*-tik (1754), hemen jaso dugun lehen testua, eta XVIII-XIX. mendeetako euskal testuetan komunztadura singularra da ageri dena, XIX. mendearen azken hamar urteetako hiru adibidetan salbu (Ag, AB eta Bv). XX. mendean komunztadura plurala erabiltzen dutenak 1929tik 1965era bitartekoak dira, Gofñi eta Echeitaren adibide bana salbu.

Maiztasunari dagokionez, XVIII-XIX. mendeetan eta XX.ean 1930 arte komunztadura singularra da ia erabatekoa. Geroztik, batez ere 1950etik hona ugalduta komunztadura pluralaren aldekoak. Horrela guztira: 33 dira pluralaren aldekoak; eta 31, komunztadura singularra dutenak.

<sup>45</sup> Bizkaiko idazleak ere bide horri jarraitzen zaizkio, komunztadura pluralarekin ez, baina «*beste* + [izena]-(*r*)ik» bigarren izen-sintagmarekin eginez. Baina kontrajarpena markatzen duen *baino* juntagailua sartzen dute bi izen-sintagmen artean:

- a) [...] dotriñako liburu apurrak *baño besterik* ikusten ez *nabalako* (Añ *EL*<sup>1</sup> 4).
- b) Itz min zorrotzak *baño besterik ez dot* topetan (AB *AmE* 91).

OHARRAK:

a) Gogoan izan «X + *BESTE (INOR) (INORK) (INORI) / BESTE (EZER) (EZERK) (EZERI)...*» ... bezalako egiturak kasu guztietan erabil daitezkeela eta bi sintagmak kasu berean joango direla, edo postposizio bera eramango dutela. Komuntadura eskatzen duten kasuetan aditzak *BESTE (INOR)/(EZER)...* eta abarrekin egingo du komuntadura.

- (8) a. *Zuk bestek ez dit esan / lotsik ez dedanik (Azp Pr 42).*
- b. *Hori ez daki zuk beste inork.*
- c. *Gertaturikoa ez diot zuri beste inori esango.*
- d. *Ez omen dute gu beste inor ezagutzen.*
- e. *Zenbaitek ez omen dio heriotzari beste ezeri beldur.*
- f. *Gaixoak ez du osasuna beste ezer/besterik desira.*
- g. *Gizona ez omen du barruko bakeak beste ezerk lasaitzen.*
- h. *Asteburuetan ez omen zara mendira beste inora joaten.*
- i. *Zenbaitek denbora ez du liburuak irakurtzen beste ezertan pasatzen.*
- j. *Mikel ez doa oporretara bere adiskidearekin beste inorekin.*

b) Bestalde, izen predikatuekin *izan* lotura-aditzak subjektuarekin egiten du beti komuntadura. *Besterik*, berriz, atributuaren ondoren doa beti eta aditzaren komuntadurarekin ez du zerikusirik. Horrelakoetan *baizik/baino* jo daitezke *besterik*-en baliokidetzat.

- (9) a. [...] Auzi ontan *kausa urkoak eztira* orixe besterik: kirten luze bat [...] (Vill Jaink 36).
- b. *Zeru oriek* Jaunaren bizi lekuaren ataria besterik ez *dira* (AA III 350).
- c. *Atza, ezkabia eta beste asko* miñ arrak besterik ez *dira* (It Dial 33).

#### 4. X ERE...<sup>46</sup>

Lokailu hau beti ezkerreko aldean duen osagaiari lotzen zaio, honekin halako batasun bat eginez ([Peru(e)re], [Perube]...). Lokailuaren ezkerrean geratzen dena mintzagaitzat hartzen dugu; eta edozein osagai izan daitekeenez mintzagai —aditza bera barne—, edozein osagaik eraman ahalko du *ere* bere eskuinaldean.

Balioaren aldetik, lokailu honek zabaldu egiten du perpausaren erreferentzia-mundua. *Ere* lokailua ageri zaigun bakoitzean suposizio egin behar dugu, beraz, perpaus horren erreferentzia munduaz; halako balio anaforikoa du, aurreko zerbaitekin duen lotura adierazten baitu:

- (1) (a) Miren eta Koldo afaltzera joan ziren. Peru *ere* haiekin joan zen.
- (b) Miren eta Koldo ez dira agertu gaur. Peru *ere* ez da agertu.

PRESUPOSIZIOA

- (2) (a) Peru *ere* gaur Iruñera joango da [«ez Miren... bakarrik...»]
- (b) Peru gaur *ere* Iruñera joango da [«ez atzo... bakarrik»]
- (c) Peru gaur Iruñera *ere* joango da [«ez Bilbora... bakarrik»]

<sup>46</sup> Atal hau moldatzeko, hurrengo langaietan oinarritu gara: Azkarate (1995); Euskaltzaindia (1990: 35-51) eta Euskaltzaindiko Gramatika Batzordea (1994c: 947-951), *OEH* («ere» sarrera).

*Ere*-ren kokagunea txarto aukeratzen bada, okerreko presuposizioak sortzen dira. Beheko (b) erantzuna ez da zuzena, okerreko presuposizioa ezartzen duelako:

- (3) Guk goian afalduko dugu. Eta zuek?
- Presuposizioa
- a. Guk ere (bai) / Guk ere (goian...) [«ez zuek bakarrik, guk ere...»]  
b. \*Goian ere/\*Guk goian ere [??«ez behean bakarrik goian ere...»]

*Ere* beti zerbaiten ondoren erabili behar dugu; ezin dio hasierarik eman perpausari (\**Eta ere bai...*; \**Be bai...*; \**Ere bai...*):

- (4) Nor joango da mendira? / Peru. \**Ere bai Jone*/\**Eta ere Jone*

Desberdina da ekialdeko euskalkietan enumerazioak emateko erabiltzen den «*eta ere X*» egitura:

- (5) Idahok badauka denetarik frango polliki: desertu gorak, gaitzeko mendi eta oihanak *eta ere* laborantzako lur alde onak.

Lokailuaren ezkerrekoa mintzagaia den aldetik, perpausaren hasieran nahiz amaieran joan daiteke:

- (6) Amaia ere badoa (\**Amaia ere doa*)/ Badoa Amaia ere

Sarritan iruzkineko osagaiak ezabatzen dira eta orduan *bai* partikulak (aukerakoa edo beharrezkoa euskalkiaren arabera) ordezkatzeko du aditz-sintagma; biak batera ezin dira agertu, ordea:

- (7) (a) Peru gaur etorriko omen da. *Eta Jone*?  
(b) *Jone ere gaur etorriko da* / *Jone ere (bai)* / *Baita Jone ere* / *Baita (ere)*  
(c) \**Jone ere bai gaur etorriko da* / \**Baita Jone ere gaur etorriko da*

*Ere* lokailua edozein juntagailurekin ager daiteke:

- (8) (a) Atzerritarra zen *eta* euskaraz *ere* ez zen gaizki moldatzen.  
(b) Ez du hainbeste indar, *baina* hark *ere* on egiten du.  
(c) Ez balitz sortu, *edo* egon balitz *ere* azken gizon bat bezala ilunbean...

#### 4.1. *Ere* lokailuaren erabilerak

1. *X ERE* (*X* = edozein osagai, aditza barne). Aditz jokatuaren ondoan doanean:

- (9) a. Irakurri *ere* dugu Lehendakariak Madrilera joateko asmoa duela  
b. Irakurri dugu *ere* Lehendakariak Madrilera joateko asmoa duela

Aurreko egiturak mugatuagoak dira hurrengoak baino («*Afaldu ere*, berandu afaldu zuen», «*Musika entzutea gustatzen zait, baita irakurtzea ere*», «*Bultzatu ez ezik, jo ere egin du*...») eta interpretazio desberdinak dituzte.

(9a) perpausak bi interpretazio ditu: bata, egitura hori darabilen edozein euskaldunek emango liokeena, «ez entzun bakarrik, irakurri ere egin dugu»; eta bestea, batez ere ekialdeko euskalkietara mugatua, «hau guztia ere irakurri dugu». Bigarren adieraren parafasia hurrengoa da: «Lehendakariak Madrilera joateko asmoa duela ere irakurri dugu».

(9b) egiturak, berriz, aurreko bi interpretazioez gain hirugarren bat ere izan lezake, lokailuak eskuinaldean osagai edo sintagma bat baino gehiago balitu. Ekialdeko interpretazio honen arabera, lokailua eskuinaldean ageri den sintagmetako bati loturik legoke (zenbat eta sintagma gehiago, hainbat eta anbiguoago):

- (10) Aitor dezagun bada euskara orain arte, Euskal Herriko eskoletarik kanpo atxiki izan dugula, hori baita herrian herriko mintzaira hiltzera kondenatzea. *Ikusi ere da* horrelakorik munduan barna «koloniak» deitzen ziren eskualdeetan eta izan du gaitz horrek ondoriorik, ondorio odoltsurik.

Adibide honetan hiru interpretazioak dira posible: «kontu hau ez da bakarrik buruan daukagun ideia bat, ikusi ere da»; pentsa daiteke hurrengo sintagmarekin doala («horrelakorik ere ikusi da kolonietan...»); edo hirugarren interpretazioan lokailua ondorengo beste sintagma bati —ez hurrengoari— lotua dagoela uler daiteke («koloniak deitzen diren eskualdeetan ere ikusi da horrelakorik»).

2. ... *ETA X ERE (BAI)*:

- (11) Peru gaur etorriko omen da eta Jone ere (bai)

3. ... *ETA X ERE EZ*:

- (12) Peru ez da gaur etorriko eta Jone ere ez

4. ... *ETA BAI X ERE*:

- (13) Peru gaur etorriko omen da eta bai Jone ere

5. ... *ETA EZ X ERE*:

- (14) Peru ez da gaur etorriko eta ez Jone ere

6. ..., *BAI ETA X ERE*:

- (15) Peru gaur etorriko omen da, bai eta Jone ere

7. ..., *EZ ETA X ERE*:

- (16) Peru ez da gaur etorriko, ez eta Jone ere

8. ..., *BAITA X ERE*:

- (17) Peru gaur etorriko omen da, baita Jone ere

- (18) Hotzildu zen, epeldu zen gero eta azkenik, hoztu ez ezik, baita izoztu ere

9. ..., *EZTA X ERE*:

- (19) Peru ez da gaur etorriko, ezta Jone ere

(Honaino eskema hau euskaldun guztiek segitzen dutela dirudi)

10. ..., *ETA BAI ERE X* (ekialdean):
- (20) Peru gaur etorriko omen da, eta bai ere Jone
11. ..., *ETA EZ ERE X* (ekialdean):
- (21) Peru ez da gaur etorriko, eta ez ere Jone
12. ..., *BAITA ERE X* (mendebaldean, ondoren datorrena luzea denean batez ere):
- (22) Etxeberri Ziburukoaren *Manual*-ak badu zatitxo bat, balearen arrantza dela eta, nahikoa eta gehiegi nahasia. **Baita ere**, horrek edo Etxeberriren beste obra batek, latineko distikoetan egina den eskeintza, nik zeharo ezin aditu dudana.
13. ..., *EZTA ERE X* (mendebaldean, ondoren datorrena luzea denean batez ere):
- (23) Eta ez nuke nahi inork hau txartzat har lezan, neure buruari harrika eta ez besteri ari naizenez gero. **Ezta ere** harako gorago esan dudana hura.
14. ... \**X BAITA ERE*:
- (24) Peruk buruko mina du./ \*Jonek baita ere
15. ... \**X EZTA ERE*:
- (25) Peru ez da gaur etorriko./ \*Jone ezta ere
16. ... \**BAITA X*:
- (26) Peruk buruko mina du./ \*Baita Jonek
17. ... \**EZTA X*:
- (27) Peru ez da gaur etorriko./ \*Ezta Jone
18. ... \**ERE X*:
- (28) Peruk buruko mina du./ \*Ere Jonek
19. ... \**ETA ERE X* (ekialdean bai, enumerazioetan):
- (29) Peruk buruko mina du./ \*Eta ere Jonek
20. ... \**X ERE BAITA*:
- (30) Peruk buruko mina du./ \*Jonek ere baita
21. ... \**X ERE EZTA*:
- (31) Peru ez da gaur etorriko./ \*Jone ere ezta
22. ... \**ERE BAI X*:
- (32) Peruk buruko mina du./ \*Ere bai Jonek
23. ... \**ERE EZ X*:
- (33) Peru ez da gaur etorriko./ \*Ere ez Jone

## 4.2. Aztertzeo adibideak

- |   |  |
|---|--|
| <p>EGITURA OKER EDO DESEGOKIAK</p> <p>(10) Atsegina da zinta hau ERE BAI.</p> <p>(12) Biharko emanaldia Victoria Eugenia antzokian izango da. Eta etziko? Victoria Eugenia ERE (BAI).</p> <p>(14) Euskarazko irakaslearen titulua sortu du ERE, BAITA titulu hau eskuratzeko bete behar diren azterketak eta ikastaroak.</p> <p>(16) Esandako kritika eta eztabaidak hala ere ez dute ez programa hauen emanaldiak gutxitu EZ ETA ikus-entzule kopurua gutxitu ERE.</p> <p>(18) Konturatzen gara edozein alditan eta edozein gizartetako umeez beti izan dituztela jostailuak jostatzeko, hasi klasikotasunetik eta gaur egun arte, BAITA zibilizazio primitiboetan.</p> <p>(20) Bertan, protagonista Stillman ikertzaile eta doktorea BAITA bere lan taldea dugu ERE.</p> <p>(22) Nire iritziz zaila da ikerketa honen emaitza positiboa edota negatiboa dela esatea, bere alde onak dituen bezala txarrak baititu.</p> <p>(24) Askotan pisatuko du gehiago lehenengo ahotsak eta neskatoak futboleko jolasteari ekingo dio (hau, mutikoez ez badiote esaten ERE hori ez dela berarentzako joko bat).</p> <p>(26) Agian bere abantailak ditu ERE paperen banaketa horrek [emakume eta gizonen artekoak].</p> | <p>EGITURA EGOKIAK</p> <p>(11) Atsegina da zinta hau ERE / Zinta hau ERE atsegina da</p> <p>(13) Hori (etzikoa) ERE, Victoria Eugenia.</p> <p>(15) a) euskarazko irakaslearen titulua sortu du, BAITA titulu hau eskuratzeko bete behar diren azterketak eta ikastaroak ERE.<sup>47</sup><br/>b) ...euskarazko irakaslearen titulua ERE sortu du, baita azterketak eta ikastaroak ERE.</p> <p>(17) a) Esandako kritika eta eztabaidek hala ere ez dituzte gutxitu ez programa hauen emanaldiak EZ ETA (EZTA) ikus-entzuleen kopurua ERE.<br/>b) Esandako kritika eta eztabaidek hala ere ez dituzte programa hauen emanaldiak gutxitu EZ ETA (EZTA) ikus-entzuleen kopurua ERE.</p> <p>(19) (...)BAITA zibilizazio primitiboetan ERE.</p> <p>(21) Bertan protagonista Stillman ikertzaile eta doktorea da, BAITA bere lan-taldea ERE.</p> <p>(23) ... bere alde onak dituen bezala, txarrak ERE bai baititu.</p> <p>(25) ...hau, mutikoez ERE ez badiote esaten hori ez dela berarentzako joko bat.</p> <p>(27) Agian (bere) abantailak ERE badi-tu...</p> |
|---|--|

<sup>47</sup> Hedapena perpausaren bigarren zatian hasiz gero, (a) moldaera litzateke egokiena; hedapena lehenagotik —goragotik— datorrela ulertzen baldin bada, ordea, (b) moldaera datorkio hobeto.

- (28) Olentzero eguna badator eta umeak oso urduri daude. Hilabetea bukatzen ari da eta BAITA ERE urtearen bukaera iristen ari da.
- (30) Euskarari batasun horren beharra etorriko zaio ERE dituen euskalki ugarien arrazoiengatik.
- (32) Prestakuntza ez da bakarrik intelektuala; etikoa, morala, pertsonala da ERE.
- (34) Aipatu digute BAITA ERE, orain ezagun hori, ez dagoela ingesatua bera gaizki dagoelako, baizik eta besteok ez kutsatzeko dagoela oraindik han.
- (36) Jostailuak datozkigu gogora, haurrei hainbeste gozamen eta BAITA buruko min ematen dizkieten jostailuak.
- (38) Baina egia da BAITA ERE, intsumisioak Ejerzitoen eta militarkeriaren eragin hori gaintitzea bilatzen duela, hau da mundu hobea, justua, solidarioago bat bilatzen duela.
- (40) Kexatzen ziren BAITA ERE arrisku handia suposatzen baitzuen eguneroko hiru orduko bidaia egiteak.
- (42) Kontuan izan behar dugu ERE ordutik hona pauso handia dagoela eta asko filosofatu egin dela bidean zehar.
- (44) Zigor berriak ari dira asmatzen gobernuan, zerbitzu militarari eta BAITA ordezkoko zerbitzu sozialari uko egiten dieten gizonetako gazteentzat.
- (29) a) Hilabetea bukatzen ari da eta urtearen bukaera ERE iristen ari da.  
b) Hilabetea bukatzen ari da eta BAITA urtea ERE.
- (31) a) Euskarari batasun horren beharra etorriko zaio euskalki ugari izateagatik ERE.  
b) Onargarria ekialdean: «...etorriko zaio ERE euskalki ugari izateagatik».
- (33) Prestakuntza ez da bakarrik intelektuala; etikoa, morala eta pertsonala ERE bada.
- (35) Beste hau ERE aipatu digute:...<sup>48</sup> / OROBAT aipatu digute...
- (37) Jostailuak datozkigu gogora, haurrei hainbeste gozamen eta buruko min ematen dizkieten jostailuak.
- (39) a) Baina intsumisioak armaden eta militarkeriaren eragin hori gaintitzea bilatzen duela (ERE), hau da mundu hobea, justua, solidarioago bat bilatzen duela ERE egia da.  
b) Baina egia DA ERE, intsumisioak armaden eta militarkeriaren eragin hori gaintitzea bilatzen duela, hau da mundu hobea, justua, solidarioago bat bilatzen duela. [ekialdean]
- (41) Hiru orduko bidaia egiteak arrisku handia suposatzen zuelako ERE kexatzen ziren.
- (43) a) Zuzena ekialdeko tradizioan: «aditz jokaturia + ERE + X».  
b) Ordutik hona pauso handia dagoela eta bidean zehar asko filosofatu dela ERE kontuan izan behar dugu.
- (45) Zigor berriak ari dira asmatzen gobernuan, zerbitzu militarari eta ordezkoko zerbitzu sozialari uko egiten dieten gizonetako gazteentzat.

<sup>48</sup> «Aditz jokaturia + baita ere» egitura ohiz kanpokoa da. «Baita ere X», agertzekotan, enumerazioetan falta diren osagaien aurretik eta perpausaren hasiera-hasieran agertu ohi da, eta ez aditz baten ondoren, hemen bezala.

- (46) eta portaera berri bakoitza oreka berriz ezartzean bakarrik ez datza; aldaketa horren aurretiko egoerakoa baino oreka egonkorragora jotzera ERE BAI baizik.
- (47) eta portaera berri bakoitza ez da oreka berriz ezartzea bakarrik, aldaketa horren aurreko egoerakoa baino oreka egonkorragora jotzea ERE bada.
- (48) aurkitu zen landareen gaixotasunetan eta BAITA ERE animalien eta bakterioen hainbat gaitzetan.
- (49) a) onargarria (oso ohikoa ez bada ere).  
b) aurkitu zen landareen gaixotasunetan eta BAITA animalien eta bakterioen hainbat gaitzetan ERE.
- (50) DNA, histonen familiako proteina basikoei asoziatua azaltzen da eta, bestalde, mintzean integratuta dauden erreplisoma izeneko konplexu proteikoei ERE.
- (51) DNA, histonen familiako proteina basikoei asoziatua azaltzen da eta, bestalde, mintzean integratuta dauden erreplisoma izeneko konplexu proteikoei ERE BAI.
- (52) Digestio-organoen antolakuntza histologiko eta funtzionamenduz arduratu da ERE.
- (53) Digestio-organoen antolakuntza histologikoaz eta (haien) funtzionamenduz ERE arduratu da.
- (54) Ikusi dugu ERE jadanik nola elebitasunaren definizioa pertsonak eta gizarte elebiduna aztertzen dituenaren ikuspuntuak mugatua dagoen, (...)
- (55) a) onargarria  
b) Orobat ikusi dugu nola...  
c) Ikusi dugu jadanik nola...
- (56) Bestalde, autore horrek organismoa *asyntheta* eta *syntheta* elementuetan banandu daitekeela frogatu zuen, Histiologiaren gaur egungo oinarriak, batetik, eta Anatomiarenak, bestetik, ERE finkatu zituelarik.
- (57) Bestalde, autore horrek organismoa *asyntheta* eta *syntheta* elementuetan banandu daitekeela frogatu zuen, batetik, Histiologiaren gaur egungo oinarriak, eta, bestetik, Anatomiarenak finkatuz/ finkatu zituelarik.

## 5. ZU IZAN EZIK (Euskaltzaindiaren 16. araua)

### **Tradizioa, irizpideak...**

Askotan entzun eta ikusten dira azken urteotan honelakoak:

- (1) Autobusak eta *taxiak ezik*.
- (2) *Zuri ezik*, gainerako guztiei bidali diet txostena.

Esan behar da, hala ere, «izen-sintagma + *izan ezik*» dela autore gehienek erabiltzen dutena:

- (3) Isabelek, *aoz izan ezik*, zuka itz egin bear izaten zion aizpari.
- (4) *Teologia izan ezik*, beste eledegai guztiak agertu, ikertu...
- (5) Errira polbora-billa *zoazenean izan ezik*, ondo gordeta zaudeke an.

*Izan ezik*-en ezkerrean doan sintagmak dagokion kasu-marka hartu ohi du: *herri horretan izan ezik*, *zuri izan ezik*, *igandeetan izan ezik*, e.a. Salbuespena, batzuetan, ergatiboarekin egiten dela dirudi, behin baino gehiagotan aurkitzen baita absolutiboan *izan ezik*-en aurreko sintagma, nahiz ondokoa ergatiboan joan:



- (6) *Bera izan ezik*, ezin zuan inork hitz egin errosarioa bukatu arte (Oskillaso).  
 (7) Orixe egingo eban *zu izan ezik beste edozeinek* (Tx. Agirre).

Baina askotan ergatiboa jartzen da, jakina:

- (8) Horixe egingo luke, *zuk izan ezik*, beste edozeinek.

Erabilera okerrak:

- |   |   |
|---|---|
| (9) * <i>Baserriak izan ezik</i> , ez duzu inon aurkituko euskaraz garbi, zuzen eta egoki hitz egingo dizunik.  | (10) <i>Baserrietan izan ezik</i> , ez duzu inon aurkituko euskaraz garbi, zuzen eta egoki hitz egingo dizunik.   |
| (11) ? <i>Zu ezik</i> , ez dut beste inor ikusi halako trantze batean.  | (12) <i>Zu izan ezik</i> , ez dut beste inor ikusi halako trantze batean. (hobestekoa)  |
| (13) ? Atariko titulu honen xedapenek, legeen efektu eta beren aplikaziorako erregela orokorrak finkatzen dituzten heinean, hala nola I liburuko IV titulukoek, azken honen eta ezkontzaren eraentza ekonomikoari dagozkion <i>arauak ezik</i> , aplikazio orokor eta zuzenekoa izango dute Espainia osoan. | (14) Atariko titulu honen xedapenek, legeen efektu eta beren aplikaziorako erregela orokorrak finkatzen dituzten heinean, hala nola I liburuko IV titulukoek, azken honen eta ezkontzaren eraentza ekonomikoari dagozkion <i>arauak izan ezik</i> , aplikazio orokor eta zuzenekoa izango dute Espainia osoan. (hobestekoa) |

Erabil bedi formula osoa, *izan ezik*, eta ez *ezik* bakarrik, eta aurreko sintagmak har beza dagokion kasu-marka. Nolanahi ere, ergatiboaren kasuan zilegi da absolutibo kasua erabiltzea.

## 6. EZ EZIK # IZAN EZIK

Bi erabilera desberdin eta bi balio desberdin dituzte goiko esapideek (bereizten dituzten euskaldunen artean behintzat, bai baitira halako bereizkuntzarik egiten ez dutenak).

«Izen-sintagma<sup>49</sup> + *izan ezik*» egituraren bidez honako hau adierazten dugu: «X ez, baina Y bai».

- (1) *zu izan ezik* gainerako guztiak garaiz iritsi dira. (= «zu ez, baina gainerakoak bai»)
- (2) *Aoz izan ezik*, zuka itz egin bear izaten zion...
- (3) Euskalerra guztia, *Eibar izan ezik*, abadien mendian dago
- (4) Errira polbora-billa *zoazenean izan ezik*, ondo gordeta zaudeke an

<sup>49</sup> Ikus bedi aurreko atalean, izen-sintagmak hartu behar duen kasu-markari buruz esandakoa.

Aditz-partizipioarekin baldintza-balioa hartzen du:

- (5) Eta mirariak *ikusi ezik*, eztuzue sñesten (= «mirariak ikusten ez badituzue, ez duzue sinesten»)
- (6) Geuk *egin ezean*, ez du inork egingo.

*Ez ezik*-ek emendiozko esapideak osatzen ditu, eta *ere* eraman ohi du korrelatu modura (korrelatu hori nahitaezko ez badu ere). Balioa «X bai eta Y ere (bai)» edo «ez bakarrik X, baita Y ere» da.

{*ez ezik, ez ezen, ez eze*} ... {*ere, baita ... ere, ere bai, ø*}

#### Adibideak:

- (7) Bertsook, gainera, *hilarrian EZ EZIK*, herriak jasoko dion *monumentuan ERE* ederki leudeke.
- (8) Hau *desobeditzea EZ EZIK*, Espiritu Santuaren kontra *altxatzea ERE* da/bada.
- (9) Eta *jantziak EZ EZE, gosari on bat ERE* eman zion gaixoari.
- (10) Eta gauza hauek, *esan EZ EZE, egin ERE* behar dira.
- (11) *Bete EZ EZIK*, bai baitirudi haien *berririk ERE EZ* dutela izan.
- (12) *Bere izena EZ EZIK*, familia guztiarena *ERE* lohitzen ari zen. (EH: «ez ezik» azpisarrera).
- (13) Aitortu gabe utzi zuen *bekatua EZ EZIK*, aitortuak *ERE* berriro esan beharko ditu. (EH: «ez ezik» azpisarrera).
- (14) Ezkontzak *biziera EZ EZIK* bizilekua *ERE* aldarazi zion. (EH: «ez ezik» azpisarrera).
- (15) Hotzildu zen poliki-poliki, epeldu gero eta azkenik, *hoztu EZ EZIK, baita izoztu ERE*. (EH: «ez ezik» azpisarrera).
- (16) *Gau batean EZ EZIK*, urte guztian loa galerazteko gertaerak. (EH: «ez ezik» azpisarrera).
- (17) *Esan EZ EZIK*, egin *ERE* egin du.
- (18) *Ezagunei EZ EZIK, ezezagunei ERE* laguntzen die horrek.
- (19) *Ebaki EZ EZE*, guganik urrun bota behar da. (EH: «ez eze» azpisarrera)
- (20) Hor aurki daitezke egungo eguneko gehienak, *gaurkoak EZ EZIK* betikoak direnak ahaztu gabe: (...) (MEIG III 134).
- (21) Euskal herriko tradizio bizimodua delako hori ez da aldakuntzarik gabe iraun duen zerbait: iraultzak *ERE* ezagutu ditu, *aldakuntzak EZ EZIK*. (MEIG VIII 99)<sup>50</sup>.
- (22) Orobat esanen zenuke zuk ere, baldin zuk bazeneki Davidek bezain ongi zer den bekatuan bat eta Jangoiko bage gelditzea; ta hau *esan EZ EZIK*, egiñen *ERE* zenuke Jangoikoa billatu ta arkitzeko ark berak bein egin izandua. (Mb *IArg* I 173).

a) Formen banaketa euskalkien arabera: Hegoaldeko euskalkietakoak bakarrik dira eta idazkera bereizia izan da erabiliena.

- (23) (a) *Ez ezik, ez ezen*: batik bat gipuzkerazko testuetan (eta bereiz idatzirik gehiagotan).
- (b) *Ez eze*: batik bat bizkaieraz, nahiz gipuzkeraz ere ezezaguna ez izan.

---

<sup>50</sup> Mitxelenaren adibide honetan ikus daitekeenez, inoiz korrelazioa iruntzitarra ere azaltzen zaigu («Y ere, X ez ezik»).

b) Esamoldearen bigarren atalean ditugun aukeren artean ohikoena *ERE* lokailua da:

- (24) (a) Amarentzat EZ EZIK, aitarentzat ERE zerbait erosi nahi nuke.
- (b) Mutilari aho-begietara datozkio haize-parrastadak EZ EZIK, BAITA harririkisirik ERE.
- (c) Guztiok dugu, bada, hizkuntza geure kabuz aldatzeko eskua EZ EZIK, aldatzeko kemena ERE BAI.
- (d) Eta hau egiten badu, ongi EZ EZIK, atsegin handiarekin (∅) eginen ditu bere gauzak.

c) Funtzioa: mintzagai izan daitezkeen perpaus-osagaiak korrelazio bidez juntatzeko erabiltzen ditugu esamoldeok.

d) Tokia: esamoldeko atalak, bai lehena eta bai bigarrena, dagozkien osagaien eskuinean eta hauei atxikirik doaz (eta hala ahoskatzen dira): *zuk ez ezik, nik ere; entzutea ez eze, ikustea bere.*

Erabilera okerrak:

- (25) \**Apaiz ezik zientzialari ere* izango zirenak nahi zituen Barandiaranek apaizak.
- (26) *Apaiz ez ezik zientzialari ere* izango zirenak nahi zituen Barandiaranek apaizak.
- (27) \*Hala erakutsi *du Euskal Herri osoan barrena ezik, baita* Euskal Herritik landa *ere*, mundu zabalean.
- (28) Hala erakutsi *du Euskal Herri osoan barrena ez ezik*, (baita) Euskal Herritik landa *ere*, mundu zabalean.
- (29) \*Gai honetan printzipio gidatzailea, borondatezko autonomia da, zeinaren birtartez, debekaturik dagoena ez ezik, beste edozein gaiz egin daitekeen kontratu bat.
- (30) Gai honetan printzipio gidatzailea, borondatezko autonomia da, zeinaren birtartez, debekaturik dagoenaz izan ezik, beste edozein gaiz egin daitekeen kontratu bat.
- (31) \*Trukea: Gauza bat bestearen truke ematea, erosketan ordea, gauza diruaren truke delarik. Antzerako kontratuak dira, *ezberdintasun hori ez ezik*.
- (32) Trukea: Gauza bat beste baten truke ematea; erosketan, ordea, gauza diru truke ematen da. Antzerako kontratuak dira, *ezberdintasun hori izan ezik*.

## 7. BALIO BANAKARIA: *BAI... (ETA) BAI...; EZ... EZ...*<sup>51</sup>

Bi juntagai, bakoitza bere aldetik baieztatuz edo ezeztatuz juntatu nahi ditugunean, bi aukera ditugu. Lehena, (1)-ean ikusten duguna da; baieztapen- edo ezeztapen-markak juntagaien ondoren kokatzen dira.

- (1) (a) Goizean BAI, eta arratsaldean ERE BAI.
- (b) Goizean EZ, eta arratsaldean ERE EZ.

---

<sup>51</sup> Atal honetan *EGLU-IV* liburuko informazioa (Euskaltzaindia 1994a: 81-84) laburbiltzen saiatu gara; adibideak ere, iturri beretik jasoak dira, baina laburturik eta batura egokiturik ematen ditugu idazlanaren aipamenik egin gabe.

Bigarren aukera, baieztapen- edo ezeztapen-markak juntagai bakoitzaren aurrean ezartzea da eta orduan balio banakaria lortzen dugu (2):

- (2) (a) BAI goizean BAI arratsaldean (ere).
- (a') BAI goizean ETA BAI arratsaldean (ere).
- (b) EZ goizean EZ arratsaldean (ere).
- (b') EZ goizean ETA EZ arratsaldean (ere).

Alborakuntzaz (2a, 2b) nahiz juntagailu bidez (2a', 2b') elkartzen ditugun osagaien aurrean, osagai bakoitzaren aurrean, partikularen bat errepikatuz sortzen da balio banakaria. Beste batzuetan partikula berak errepikatu beharrean, korrelazioan doazen hitz desberdinek osatzen dituzten formulez ere baliatzen gara: *hala... nola... etab.* Hona hemen, *bai...(eta) bai... eta ez... (eta) ez...* egituren zenbait adibide:

- (3) (a) BAI nire gurasoak ETA BAI ni, harritu eta ikaritzen ginen gauza harekin.
- (b) Sinesten banauzu, liburu hari itxekiko diozu zure bizitzeko, BAI kanpoko, BAI barreneko urrats guzieren moldatzeko eta neurtzeko.
- (c) BAI soinekoetarako ETA BAI barruko arropetarako, aukera handia etorri zait.
- (d) Nahi dut, eta erran gabe doa, hobeki egin lezaketela, BAI beren ETA BAI bertzeen onetan, aipatu ditugun gizon haiek osoki erlijioari jarraikiak babilira.
- (e) Familiako bizitzan aurkitzen du gizonak bere giro egokia, BAI ahalmenak heldutasuneran eramateko ETA BAI bere beharrak erremediatzeko ERE.

Adibideek erakusten dutenez, bigarren atalean ez da beharrezkoa *bai...ERE* erabiltzea, juntadura arruntean ez bezala (\**Zuekin haserretu da ETA BAI gurekin* → ...*ETA BAI gurekin ERE*).

Ezezko perpausak juntatzen direnean, bi modu ditugu euskaraz ezezko perpausak *eta-z* baliaturik elkarri lotzeko:

- (4) (a) Ez du jan eta ez du edan.
- (b) Ez haut ezagutzen eta ez zakinat hik zer dionan.
- (5) (a) Ez jan du eta ez edan du (=Ez du ez jan eta ez edan) (MARKATUA).
- (b) Ez gizona duzu osoa eta ez emakumezkoa (da) (MARKATUA).
- (c) Ezikasiak ez lehen (irakurri du) eta ez orain irakurtzen du (MARKATUA).  
MENDEBALDEKOA).

Bietarik (4) da egitura arrunt edo markatugabea eta (5) markatua. (4)an ezezko bi perpaus arrunt («ukamena + aditz laguntzailea + partizipioa») lotu dira *eta* juntagailuaren bidez. (5)ean, oster, *ez* partikulak ez du trukatu baiezko perpausen ordena: (5a)n «partizipioa + aditz laguntzailea» ordena gorde da; (5b)n eskuineko juntagaian ezabatu da eta (5c)n ezkerrekoan. Bestalde, ez dirudi bi egitura hauek (4 eta 5) semantikoki erabat parekoak direnik. Aldea honelatsukoa dateke: (4) egituran, banaka eta bereiz ikusten ditugu perpausak, eta banaka eta bereiz ukatzen; (5)ean, aldiz, bi perpausen ezezkoa hasieratik ikusi eta korrelatiboki ukatzen ditugu.

Beheko adibideetan ikus daitekeenez, balio banakaria duten esamoldeetan (*bai ... (eta) bai ...; ez ... (eta) ez ...; nahiz ..., nahiz ...; zein ... zein ...; etab.*) korrelazioa haustea izan ohi da akats ohikoena<sup>52</sup>:

- | EGITURA OKERRA   | EGITURA ZUZENA  |
|--|---|
| (6) <i>Bai</i> ekonomi-, gizarte-, kultur <i>edo-<br/>ta</i> hezkuntza-arloetan... | (7) <i>Bai</i> ekonomia, gizarte, kultura <i>bai</i><br>hezkuntza-arloetan... |
| (8) <i>Bai</i> sozietate menperatzaileak <i>zein</i><br>menpekoak...               | (9) <i>Bai</i> sozietate menperatzaileak <i>bai</i><br>menpekoak...           |
| (10) <i>Nahiz</i> pertsona fisikoa <i>zein</i> juridi-<br>koa...                   | (11) <i>Nahiz</i> pertsona fisikoa <i>nahiz</i> juri-<br>dikoa...             |
| (12) <i>Bai</i> lan-harremana dutenei <i>zein</i><br>funtzionario publikoei...     | (13) <i>Bai</i> lan-harremana dutenei <i>bai</i><br>funtzionario publikoei... |

## 8. EZ ... BAKARRIK, ...ERE<sup>53</sup>

### 8.1. Egiturak eta adibideak

*EZ ... BAKARRIK, ... ERE*

- (1) EZ dut burruntzia BAKARRIK eskaintzen, bihotz bat ERE eskaintzen dut.
- (2) Ez da BAKARRIK Hiribarren mintzatu Azkuez; Ikertzaileak ERE bere hitza erran zuen «Gure Herria»n.
- (3) Hirian BAKARRIK EZ, inguruetako herrietan ERE badago zer ikusi.

*EZ BAKARRIK ..., BAITA (BAI ETA) ERE ... / EZTA (EZ ETA) ERE ...*

- (4) Harrigarria zen igo zen jende-taldea, EZ BAKARRIK Ondarribia, Irun eta beste Espainiako herrietatik, BAITA ERE Frantziakoetatik.

*EZ BAKARRIK ..., BAI ETA ... ERE / (BAINA) EZTA (EZ ETA) ... ERE*

- (5) EZ bekatariak BAKARRIK, BAI ETA diren, eta izango diren justuenak ERE egun triste, edo egun ilunaren memoriak beldur handiaz beteko ditu.
- (6) Ez zien jaramonik egiten, EZ BAKARRIK eurei, EZTA erromatarren esamesei ERE.

*EZ ... BAKARRIK, ... ERE BAI*

- (7) Herriarentzat, EZ aberatsentzat BAKARRIK; behartsuentzat ERE BAI, hau da jolasik asegarriena.

*EZ ... BAKARRIK, ... Ø*

- (8) Bai naski, euskararen bizia, osasuna (...) Jainkoaren eskuetan dira, bai eta gure eskuetan ere; EZ geroko BAKARRIK; orain beretik.

<sup>52</sup> OEH-ren arabera badira korrelazioa betetzen ez duten egitura batzuk: *nahiz... berdín/igual/orobat...; nahiz... edo...* Baina edozein moduz, azken hauek ez dira aurrekoak (*nahiz... nahiz...*) bezain ohikoak, ezta hurrik eman ere.

<sup>53</sup> Atal honetan *EGLU-IV* liburuko informazioa (Euskaltzaindia 1994a: 99-108) laburbiltzen saiatu gara; adibideak ere, iturri beretik jasoak dira, baina laburturik eta batura egokiturik ematen ditugu idazlanaren aipamenik egin gabe.

*EZ BAKARRIK ... , BAINA ... (ERE)*

- (9) EZ BAKARRIK herritik herrira, BAINA(N) etxetik etxera (ERE) ohiturak desberdinak dira.
- (10) Hauek, EZ BAKARRIK ez daukate zer barau egin beharra egiten duten egunean; BAINA EZTA egiten ez dutenean ERE.

*EZ BAKARRIK ... , BAIZIK ... (ERE)*

- (11) Eta zergatik eskatzen dugu EZ BAKARRIK digula egunerokoa, BAIZIK egun eman diezagula.

*EZ BAKARRIK ... , ... BAIZIK.*

- (12) Izan beldur EZ gorputza hil dezaketenei BAKARRIK, gorputza hil eta anima betiko sutara bota dezaketenei BAIZIK.

*EZ... BAKARRIK, BAIZIK (...) ERE*

- (13) EZ bere herrikoak BAKARRIK, BAIZIK Andoninekoak ERE etorri zitzaizkion.

*EZ BAKARRIK ... , BAIZIK ETA ...*

- (14) Ezagupide horiek xeheki bilatu nahi ditugu, EZ BAKARRIK elizakoak hartzeko, BAIZIK ETA azkenetan daudenen eginbeharrak egiteko.

*EZ BAKARRIK ... , EZPADA (ZE) ...*

- (15) Askok eta askok, EZ BAKARRIK EZ dute hartzen egin duten pekatuaren damurik, EZ BAKARRIK EZ dira lotsatzen, EZPADA alabatu ohi dira hau egin dutelako, gauzarik miragarriena izan balitz legez.
- (16) Baina inor geu bagara, (...), bene-benetako malko-hari mingotsak isurtzen ditugu, eta EZ BAKARRIK dauka lekurik besteen pozak geure barruan, EZPADA ZE mingostasun berriak ematen dizkigu.

## 8.2. Ezaugarriak

- a) FORMA: esamoldeko lehen atala hiru modutan aurki daiteke:

- (17) EZ ogia BAKARRIK  
(18) Ogia BAKARRIK EZ (Hegoaldean batik bat).  
(19) EZ BAKARRIK ogia (Euskalki guztietan, Iparraldean ia bakarra izanik).

- b) BIGARREN ATALARI dagokionez, ohikoena, batez ere mendebaldeko adibideetan, *ERE* lokailua aurkitzea da:

- (20) EZ BAKARRIK lagunei, maisuari ERE ziria sartu zion.

Aditza lehen perpausean ageri denean, «*BAITA/EZTA ... ERE*» eta «*... ERE BAI/EZ*» formak erabiliko ditugu:

- (21) Ziria sartu zien, EZ BAKARRIK lagunei, BAITA maisuari ERE.  
(22) Ziria sartu zien, EZ BAKARRIK lagunei, maisuari ERE BAI.

Bigarren atalean formalki aurkari izan arren emendio-balioa duen *BAINA/BAIZIK* juntagailua ere erabiltzen da:

- (23) Hizkera desberdinak aurki ditzakegu EZ BAKARRIK herritik herrira, BAINA etxetik etxera.

Gainerakoak (*baizik ere, baizik eta, ezpada x*) askoz urriagoak dira.

c) FUNTZIOA: perpaus-osagaiak ez ezik, perpaus beregainak ere junta ditzakete halako esamoldeek; eta horixe da, hain zuzen ere, *ez ezik* egituraren aldean duten desberdintasun nabarmenena.

Emendio-balioa emateko, *ez ezik* eta *ez bakarrik* esamoldeen orde zuzeneko postposizioak ere erabil daitezke: *-z gainera, -z gain, -z landa*. Baina azken hauek sintagma bati eransten zaizkio, perpaus bakarren barnean; juntaturarik gauzatu gabe, beraz.

- (24) Bere bekatuak aitortzeAZ GAINERA aditzera eman zuen bekaturen batean lagun izan zuena ERE.
- (25) Txanton, Otoioberen lemazainAZ LANDA, jabeakide ERE bazen.
- (26) Euskaldunok geure hizkuntzaZ LANDA besterik ERE beharko dugu etorkizunean.

### 8.3. Zuzentzeko adibideak

- (27) ?Gure herrialdean *bakarrik ez eta* Latinoamerika guztian gertatu den fenomeno baten aurrean gaude.
- (28) a. Gure herrialdean *bakarrik ez*, Latinoamerika guztian *ere* gertatu den fenomeno baten aurrean gaude.  
b. Gure herrialdean *bakarrik ez, baizik (baina)* Latinoamerika guztian (*ere*) gertatu den ...  
c. Gure herrialdean *bakarrik ez, ezpada* Latinoamerika guztian gertatu den ...
- (29) \*Dena, eskema praktikoa maila berrira transferitu eta bertan luzapena izango balute bezala gertatzen da, *eta ez* (ikus berri dugunez) helburu moduan; hurrengo *formetan ere bai baizik*.
- (30) a. ... *eta ez* helburu moduan, hurrengo formetan *baizik*.  
b. Dena, eskema praktikoa maila berrira transferitu eta bertan luzapena izango balute bezala gertatzen da, *eta ez* (ikus berri dugunez) helburu moduan *bakarrik*, hurrengo formetan *ere bai*.  
c. ... *eta ez* (ikus berri dugunez) helburu moduan *bakarrik, baita (bai eta)* hurrengo formetan *ere bai*.  
d. ... *eta ez* (ikus berri dugunez) helburu moduan *bakarrik, baizik (baina)* hurrengo formetan *ere bai*.  
e. ... *eta ez* (ikus berri dugunez) helburu moduan *bakarrik*, hurrengo formetan *baizik*<sup>54</sup>.

<sup>54</sup> Halako esaldiak xx. mendeko Hegoaldeko testuetan *baizik ez* dira aurkitzen, eta harrigarri samarrak dira erreferentzia-mundua zabaltzeko aurkaritzako *baizik* lokailu hutsaz baliatzen direlako (ik. EGLU-IV, 106. or.).

- (31) \*eta portaera berri bakoitza oreka berriz ezartzean *bakarrik ez dazta*; aldaketa horren aurretiko egoerakoa baino oreka egonkorragora jotzera *ere bai baizik*.
- (32) a. eta portaera berri bakoitza *ez da* oreka berriz ezartzea *bakarrik*, aldaketa horren aurreko egoerakoa baino oreka egonkorragora jotzea *ere bada*.  
 b. eta portaera berri bakoitza *ez da* oreka berriz ezartzea *bakarrik*, *baizik (baina / ezpada)* aldaketa horren aurreko egoerakoa baino oreka egonkorragora jotzea *(ere bada)*.
- (33) \*Beste kasu batzuetan *ez bakarrik* forma bat *baina baita ere* ordenamentuak *galdatzen du* forma hori formaltasun batzuekin bat egitea, adib. hipoteka kasuan, eskritura publikoz gain, Erregistroan inskribapena eskatzen da.
- (34) Beste kasu batzuetan *ez bakarrik* forma bat, *baina (baizik (eta) / ezpada)* ordenamentuak *galdatzen du* forma hori formaltasun batzuekin bat egitea *(ere)*, ...
- (35) \*Testamentugileak kargatu ahal izango die agintza eta legatuekin, *ez bakarrik* beren jaraunslari, *baizik eta* legatudunei *ere*.
- (36) a) ... *baizik (eta)* legatudunei *ere bai*.  
 b) ... *baita* legatudunei *ere*.  
 c) ... legatudunei *ere bai*.

## 9. DATA NOLA ADIERAZI (Euskaltzaindiaren 37. araua)

### *Tradizioa, irizpideak...*

Data adierazteko formarik hedatuena eta erabilienak honako hauek dira:

- (1) Durango(n), 1983ko martxoaren 7a(n)  
 (2) Durango(n), 1983ko martxoak 7.

Dena den, bi horien artean ere, lehena da orain arte gehien erabili dena, bai *-n* kasu-marka leku-izenari eta egunari ezarriaz, bai kasu-markarik gabe. Hori da, beraz, batez ere Euskaltzaindiak gomendatzen duena:

- (3) Durangon, 1983ko martxoaren 7an  
 (4) Durango, 1983ko martxoaren 7a.

Zenbaki bidez adierazteko, berriz:

- (5) 1983/03/07; 1983/III/07

nahiz

- (6) 1983-03-07; 1983-III-07

Eta era berean:

- (7) 1993-03-07ko Euskaldunon Egunkaria-n



Hilabetea eta eguna bakarrik adierazi nahi denean, ostera, bi aukera ditugula esan ohi da:

(8) urtarrilaren 20a

(9) urtarrilak 20

Gehiago zehaztu beharko litzateke, ordea, ez baitira beti biak aukeran izaten. *Urtarrilak 20* egitura, kasu-marka agerikorik eskatzen ez duenean erabil daiteke, beste zerbaiten aposizioan doanean, esaterako:

(10) Datorren ostegunean, urtarrilak 20, bilduko da epaimahaia.

«Urtarrilak 20 egun dituela» edo horren antzeko egituraren laburpena da, azken batean. Baina kasu-markeen bat ezarri behar zaionean ezin dugu egitura hau erabili. Okerrak dira, beraz, ondokoak:

(11) \*Otsailak 24tik 27 arte izango da ikastaroa.

(12) \*Datorren otsailak 14 egingo dugu bilera.

Horrela behar lukete:

(13) Hilaren 20an eta 27an

(14) Otsailaren 24tik 27 arte.

(15) Datorren otsailaren 14an.

Honek guztiak testuan zehar urtea, hilabetea eta eguna adierazi nahi denerako ere balio du, jakina. Goian aipatu ditugun aukeretatik forma bakarra geratzen zaigu orduan:

(16) 1993ko martxoaren 7a egun handia izango da guztiotzat.

(17) Jardunaldiak Bilbon, 1994ko urtarrilaren 5etik 7ra izango dira.

Azkenik, aposizioetan, hiru modutara eman daiteke asteko zein egun den:

(18) martxoaren 7an, osteguna / ostegunean / ostegunarekin.

Horrenbestez, azken bolada honetan asko hedatu den arren, ez da gramatikala ondorengoa:

(19) \*martxoaren 7an, ostegunez, ezkonduko dira.

Data adierazteko orduan, hortaz, forma hauek erabil bitez:

- *Durango(n), 1995eko martxoaren 7a(n)*, aukeran utziz inesiboaren marka.
- *1995/03/07; 1995-03-27; 1995/III/07; 1995-III-27; 1993-11-23ko bilera agiriak dioenez...*
- *Urtarrilak 20* bezalakoak ere erabil daitezke, baina aposizioan: *gaur, urtarrilak 20* bezalakoetan (beraz, *\*otsailak 20 egun zuten bilera* ez da zuzena).

## 10. PARTITIBOAREN ERABILERA (Euskaltzaindiaren 15. eta 30. arauak)

### 10.1. Partitiboaren erabilera okerra: *\*ez ditut liburu garestirik erosi; \*ez dut lanarik egin*

#### *Tradizioa, irizpideak...*

Partitiboaren marka lotzen zaienean, mugagabeen izan behar dute izen-sintagmek:

- (1) Ez dut *liburu garestirik* erosi.
- (2) Ez dut *lanik* egin.

Hortaz, ez daude ongi emanak beste hauek:

- (3) \*Ez dut *liburu garestiarik* erosi.
- (4) \*Ez dut *lanarik* egin

Batez ere, izena kontsonantez amaitzen denean hedatu da zenbait euskaldunen artean berria, eta aldi berean gramatikaz kanpokoa, den ohitura hau: *\*lanarik, \*planarik, \*muskerrarik, \*mahatsarik, \*aipamenarik, \*pluralarik, \*ahuntzarik, \*gizonarik*, e.a.

Hori horrela, aditzarekin egiten den komunztaduran izen-sintagma partitiboek ez dakarte sekula numero-markarik eta honenbestez, adizkera jokatuan ezin dezakete erabil pluralik. Beraz, azken aldiotan hedatzen ari diren egitura hauek, hain segur erdal interferentziaren ondorio direnak, zeharo arrotzak eta baztertekoak dira:

- (5) \*Ez dituzte gaixoak sendatzeko behar diren tresnarik.
- (6) \*Aspaldian ez ziren entzuten horrelako hitzik.
- (7) \*Ez dituzu lagun onik aurkituko.

Beraz, hau da Euskaltzaindiaren erabakia:

Erabil bedi partitiboa euskaraz, beti erabili izan den gisa, hau da, artikulurik gabe (*lagunik, lanik, ahuntzik*, e.a.) eta pluralik gabeko komunztadura egin ez aditzarekin (*dugu, dute, genuen*, e.a.).<sup>55</sup>

### 10.2. Partitiboa baiezeko perpausetan noiz eta nola

#### *Tradizioa, irizpideak...*

Izen-sintagma partitiboak lau perpaus-motatan erabiltzen dira:

- ezezkoetan,
- galderetan,

<sup>55</sup> Euskaltzaindiaren arauan jaso ez bada ere, baiezeko perpausetan bada zuzendu beharreko beste erabilera bat: batzuetan partitiboaren ordean, mugatu plurala erabiltzen da:

- a) Pertsona batek OPARIAK jasotzen ez BADITU (> OPARIK jasotzen ez BADU), gainontzeko pertsonen indibiduo arraroa dela esango dugu.
- b) Gainera opariak jasotzen dituen pertsonak OPARIAK jaso ez DITUENA (> OPARIK jaso ez DUENA) nahi gabe diskriminatuko du.

- baldintzazkoetan,
- baiezkoetan, indar enfatikoak emanez.

Lehenbiziko hiru kasuetan ez da arazorik, eta partitiboak, nahi izanez gero, beti badu tokia:

- (8) Ez dut *ogirik* erosi.
- (9) *Ogirik* erosi duzue?
- (10) *Ogirik* erosi bazenu, puska bat hartuko nizun.

Laugarren kasuan, baiezko perpausetan, alegia, gauzak ez dira hain argi.

Alde batetik, partitiboa baiezkoetan erabiltzea itzuli enfatiko bati dagokionez gero, ohiz kanpoko erabilera dela, edo bederen erabilera markatua dela esan beharra da, ugaritasuna edo *bizikitasuna* adierazten baita haren bidez, edo baieztapena indartzen: *Bada pentze gizenik hemen! Badut beste egiteko presatuagorik!*

Goiko adibide horietan gertatzen den bezala, maizenik *izan / egon* eta *ukan / eduki* dira perpausoko aditzak, baina ez da hori baitezpadako baldintza:

- (11) *Artzain baliusik* hara biltzen da (Etxahun).
- (12) Gaur *film hoberik* egiten da (Mitxelena, *Idazlan Hautatuak*, 328).

Bestalde, baiezko perpausetan diren sintagma partitiboek badute gutiz gehienetan ardatz-izenaren ondoan, izenondo bat, edo beste elementu adjektibal bat. Hona zenbait adibide:

«*Beste + izena*»:

- (13) Badu *bertze egitekorik* goiz huntan (Barbier, *Ipuinak*, 134).
- (14) *Beste esankizunik* ere badago (Mitxelena, *Idazlan Hautatuak*, 324).

«*Izenlagun genitiboa + izena*»:

- (15) Bazen heien artean *thalendu handitako gizonik* (M. Elissamburu, *Framazonak eta...*, 122).
- (16) Bazeukan buruan *aurreragoko gauzarik* (D. Agirre, *Garoa*, 160).
- (17) Eukiko jok oraindino Anastasik *nire beharrik* (F. Bilbao, *Ipuin barreka*, 198).

«*Izena + izenondoa*»:

- (18) Ziberuan bada *mithil eijerrik* (Etxahun).
- (19) Botigan badut nik *kaliitate finik*, Parisetik jinik, zuentzat eginik (J. Moulier, *Lan orhoitgarri zorbait*, 205).

Batzuetan sintagmako ardatza isildua izanik, sintagma adjektibala bakarrik agertzen da; hori perpaus erlatiboekin ere maiz gertatzen da:

- (20) Horretarako *biguinagorik* behar da (Mitxelena, *Idazlan Hautatuak*, 253).

Joera hori ikusirik, zenbait gramatkarik, hala nola Lafittek (§ 160), erran izan dute izen xoil batez osatu izen-sintagmetan partitiboa ezin erabil daitekeela baiezko

perpausetan. Alabaina, gutiagotan bada ere, sintagma partitiboak agertzen dira zenbaitetan baiezko perpausetan, inolako izenondorik ez izenlagunik izan gabe ondoan:

- (21) Iratin eta Arbotin hik baduk *lagunik* (Etxahun).
- (22) Entzuleen artean *komentariorik* izan zen (Erkiaga, *Irribarrea galtzen danean*, 68).

Sintagma partitiboak helburuzko perpaus bati lotuak direnean errazkiago agertzen dira izenak bakarrik haien barnean:

- (23) Badauka *lanik* konjuruak egiten (*F. Bilbao, Ipuin barreka*, 231).

Kontuan har bedi, halere, horrelakoetan izena bakarrik agertzen den arren, izenondo bat ondoan balu bezala ulertzen dela: *lagun onik, komentario txarrik...* balute bezala ulertzen ditugu goiko perpausak. Badirudi izena soilik utzi nahi bada, horrelako interpretazioei bidea irekitzen dieten izenak behar direla. Adibidez, ondoko adibideko perpausean *beste* kentzen bada sintagma partitibotik, perpausa trakeski moldaturik gelditzen da (edo oso testuinguru berezia asmatu beharra da interpretazio egokiari leku egiteko):

- (24) Gatu horrek badu *bertze buztanik!*
- (25) ?? Gatu horrek badu *buztanik*.

Ikus daitekeenez, baiezko perpausetan partitiboa erabil badaiteke, ez da nolana hika egiten. Horregatik ez da egokia itzuli hori enfasi-beharrik gabe eta izen soilkin erabiltzea.

Komeni litzateke baiezko perpausetako sintagma partitiboen erabilera zaintzea, eta tradizioaren arabera enfasi jokoetara mugatzea, komunzki izenaren ondolan zenbait sintagma adjektibal ere erabilirik.

Gainera dezagun, aurretik esana osatuz baina gauzei beste aldera behatuz, guziz baztergarria dela batzuetan, sintagma balio generikoa duenean alegia, ezezkaiko perpausetan partitiboaren ordez artikulua erabiltzea. Har dezagun adibide bat.

- (26) *Papera* bada.
- (27) *Paperik* ez da / Ez dago *paperik*.
- (28) (Ez naiz ezkondua baina) *haurrak* baditut.
- (29) (Ez naiz ezkondua eta) *haurrik* ez dut.

Beraz, egia bada perpaus zenbaitetan bai artikulua eta bai partitiboa zilegi direla, ez da beti horrela gertatzen:

- (30) \**Lana* ez dago →
- (31) *Lanik* ez dago
- (32) \*Ez ditut gehiago *lagunak* →
- (33) Ez dut gehiago *lagunik*

Horrenbestez, hau da Euskaltzaindiaren erabakia: baiezko perpausetan partitiboa erabil badaiteke ere, enfasi mugatuetara bakarrik mugatu behar da, testuinguru berezietara, alegia, tradizioan beti egin izan den gisa. Halakoetan, normalean, izenak sintagma adjektibal bat behar du ondoan.

## 11. EHUNEKOEN DEKLINABIDEA: *EHUNeko BOST ALA EHUNEKO BOSTA?*<sup>56</sup>

### I.

A) Izen-sintagman agertzen diren elementuetatik, determinatzailea zenbatzailea denean mugagabea da (Ikus *EGLU-I*, 78).

- (1) a. *Bost liburu* irakurri behar dituzue ikastaroan zehar.
- b. *Bost* erosi ditut.

Zenbatzailea «ehunekotan» ematen denean ere mugagabea da:

- (2) a. Liburu haueetatik *ehuneko bost* euskarazkoak dira.
- b. Gizonen artean *ehuneko hiru* oso altuak dira.
- c. Bankuan jarri izan banitu *ehuneko sei* emango zizkidan.

Hauetan, ikusten denez, aurretik esana edo ezaguna izan ohi da zenbatzaileari dagokion izena (*liburu haueetatik, gizonen artean...*).

B) Aldiz, mugatzailea eramanen du: izen zenbakariak izanik, ezagunak direnean aldeztu aurretik aurkeztu zaizkigulako, hau da aipatutako kopuru jakin batez ari garelako (Ikus *EGLU-I*, 60):

- (3) Aipatutako frantziar horietatik *ehuneko lau* ongi bizi dira, gelditzen diren *laurogeita hamasei* gaizki.

*Beste* izenordaina bigarren perpausuan agertzen denean ere, aurrekoari kontrajartzen zaiolarik, mugatua da (Ikus *EGLU-I*, 60):

- (4) *Ehuneko hoge* txuriak dira; *beste laurogeiak* beltzak.

### II.

Bestalde unitate zenbatzaile hori, izen moduan jokatzeko duenean, mugatua da (Ikus *EGLU-I*, 129):

- (5) a. Bankuan eman dizun *ehuneko bost* gutxi da.
- b. Etxeko errentari igo dioten *ehuneko hoge* hori asko da.

Euskaltzaindiko Gramatika Batzordearen gomendio horietaz gain, kontuan hartzekoak iruditzen zaizkigu Egunkariak plazaratu dituen hurrengoak<sup>57</sup>.

Gorago azaldutako (3-5) testuinguruetan izan ezik, ehunekoak mugagabea deklinatzen dira, marratxorik gabe zenbaki eta kasu-markaren artean. NOR kasuan, hutsean idazten dira zenbakiak: % 1, % 2. NORK kasuan: % 1ek, % 4k, % 3k. Deklinatzeko, kontuan izan behar da zenbakiaren itxura: % 1ek, baina % 2k.

<sup>56</sup> Hitzek hitz aldatu dut hona Euskaltzaindiko Gramatika Batzordearen arau-proposamena (Euskaltzaindia, 1998: 4).

<sup>57</sup> Egunkaria (1995: 89).

- (6) a. Prezioek % 7 egin dute gora.
- b. Inkestaturen % 12k baietz erantzun dute.
- c. \*Prezioek % 7an egin dute gora.
- d. \*Inkestaturen % 12ak baietz erantzun du.

Ehunekoan zenbaketa jarraian datorrenean, nekagarria izan daiteke. Horregatik, formula hau ere erabil daiteke:

- (7) a. Lortutako emaitzak honelakoak dira ehunekotan: PSOEk 32, CiUk 22, ERCK 10 eta PPK 6.

Bestalde, badaude ehunekoak esaldian txertatzeko formula erosoak: aukeran, beheko bigarren egitura (8b) egokiagozat joko genuke.

- (8) a. *Enpresako langileen % 30 kalean geratuko dira.* (ONDO)
- b. *Enpresako % 30 langile kalean geratuko dira.* (HOBETO)

## 12. -A / BAT<sup>58</sup>

Iritzi desberdinak jasoko genituzke euskaldunen artean, atal honetako adibideen zuzentasunaz galdezka hasiko bagina. Izan ere, behin baino gehiagotan entzuten dugu erdaren eraginez larregi erabiltzen dugula *bat*, edota artikulua erabiltzen dugula. Hala da. Baina egia da, orobat, oso zaila dela *bat* hitzaren esparrua behar den moduan zedarritzea, eta are zailagoa haren erabileren inguruko adostasun erabatekoa lortzea: beheko 12.1 azpiataleko 2. eta 4. puntuetako egiturak lirarteke, zalantzarik gabe, desadostasun gehien sortuko luketenak.

Iritziak iritzi, Euskaltzaindiak ez du erabakirik hartu gai honen inguruan, eta ikerketa xeheago eta sakonagoak egiten ez diren bitartean nahikoa zaila dirudi zorrotzegi jokatzeko. Nekez onar daiteke, esate baterako, *bat*-ek zenbatzaile soila izan behar duela aldeztuz duen teoria «estua» (alegia, «bakar bat» esapidearen baliokidea, *bat / anitz* aurkaritzen arabera), artikulua indeterminatu gisa erabiltzeko aukera ukatzea bailitzateke hori, edo gauza bera dena, tradizioa ukatzea<sup>59</sup>. Bistan denez, arau «estu» horrek kanpoan utziko lituzke tradizioko erabilera asko eta asko.

<sup>58</sup> Atal hau egiteko, Azkarateren lanean oinarritu gara batik bat (Azkarate, 1995), eta baita Iñaki Ugarteburu irakasleak (Euskal Herriko Unibertsitatea) prestatutako apunte batzuetan ere. Orobat, kontuan hartu ditugu *EGLU*-n emandako irizpideak eta oharra (Euskaltzaindia, 1985: 173-183; 1991: 108-115; 1993: 91-92) eta Garate (1988: 44-45).

<sup>59</sup> *OEH*-n azaltzen denez, «[bat] General en todas las épocas y dialectos, y usado indistintamente como numeral y artículo indeterminado, no existiendo ninguna marca formal para distinguir estas funciones (v. Wilbur apuntes policopiados c. 1970). Diversos gramáticos contemporáneos (v. por ej. *EGLU* 177ss) han expresado repetidamente la idea de que en textos modernos se da una tendencia a emplear *bat* allí donde anteriormente se utilizaba el determinante *-a*. De todas formas, da la impresión que esta afirmación no vale para autores antiguos como Leizarraga y otros, difíciles de precisar, que parece que han utilizado *bat* en contextos que según los tratadistas citados exigirían *-a*.» (*OEH*, «bat» sarrera, 159. or.).

### 12.1. Izen zenbakarriekin (*liburu, pezeta, gizon, erloju, ate, etab.*)

1. Agramatikalak dira hurrengo egiturak, izen zenbakarriekin joan arren:

a) *Edozein* erabiltzen denean, ezin da *bat* erabili:

- (1) \*X izanik *edozein elementu bat*      (2) X izanik *elementu bat, edozein,...*

b) *-tzat* kasu-markarekin ere ezin da *bat* erabili: askotan *-tzat* erabili ordez *-taz* erabiltzen da, eta hori ere ez da zuzena:

- (3) \**Halako pertsona batetaz* eduki      (4) *Halako pertsonatzat* eduki

2. Gramatikaltasunaren muga, izen zenbakarriekin joan arren. Tradiziorik gabeak dira, nahiz eta gaur euskaldun batzuek onartuko lituzketen (hobe ez erabiltzea):

a) Atributu funtzioko izenekin:

- (5) ?Haurrak bere ingurunearekin erlazioanatu behar du eta *esploratzaile bat* izan behar du.<sup>60</sup>      (6) Haurrak bere ingurunearekin erlazioanatu behar du eta *esploratzaile* izan behar du.

b) Izenondoen maila adierazten duten markekin eta maila-aditzondoekin (*oso, txit, hain, askoz(az) ere, izugarri, hain, izugarri, sekulako...*) ez da *bat* erabili izan:

- (7) \*Hau printzipioz, *lan oso zail bat* iruditzen zait.      (8) Hau printzipioz, *oso lan zaila / lan oso zaila* iruditzen zait.

*Bat* jarri beharra baldin badago, bereizi gradu-marka eta *bat* sintagma desberdinetan<sup>61</sup>:

- (9) a. *Oso zaila den lan bat* agindu didate  
b. *Lan bat oso zaila* agindu didate (aposizioan)  
(10) *Zailtasun handiko lan bat* agindu didate

3. Gramatikala eta zalantzarik gabekoa da izen zenbakarriekin, beste zenbakiekin aurkaritzan dagoenean («arau estua»):

a) «Bakar bat» esanahiarekin, beste zenbakiekin aurkaritzan dagoenean (*bat / anitz*):

<sup>60</sup> Tradizioan ez dira falta, hala ere, «kontradibideak»: «*Zara gizon aberats bat, zuaz zeure bidian, baña diru бага.*» (Astar II 061).

<sup>61</sup> Ikus *EGLU-V*: 302-303 orr.

- (11) *Liburu bat* eta lau lapitz erosi ditut.
- (12) Joan den astean *aspaldiko lagun bat* ikusi nuen.
- (13) Galdera askoren artean *batek* kezkatu izan nau... (Mitx. 16)

b) Izenlagun gisan *beste* elementua daramaten sintagmetan:

- (14) *Beste ipuin bat* kontatu zion.
- (15) Bai, zerbait badira, baina galdera horrek *beste bat* zor du (Mitx. 77)

4. Gaur egun, maiz erabiltzen dugu *bat* artikulua indeterminatu gisa. Baina ez dirudi joera hori guztiz berria denik, idazle klasikoen lanetan ugari baitira halakoa. Bestalde, ez dirudi batere erraza denik erabilera hori erabat mugatzea eta are gutxiago debekatzea (zerbait murriztu litekeen arren):

- (16) Gaur arratsaldean *pelikula bat* ikusi dut
- (17) Nik *kafesne bat* hartuko dut.
- (18) Don Kixote *liburu bat* da.

Hona hemen, idazleengandik jasoriko adibide batzuk:

- (19) (...) eta zelan bakotzak emon *deklarazino zuzen ta garbi bat* bijotza esaminau baga? (Mg *CO* 14)
- (20) Da presondegi, ta *toki ilun itsal ikaragarri bat*, zeinetan dagoz madarikatuak estu esturik, kateaz loturik, memento bateko bake, ta atseginik baga. (Añ4n *EL'* 050)
- (21) Nok esan lei, ukusi baga, zeinbat neke ta arazo artu biar dirian aziereiteti *al-kandora bat* janzi artian? (Mg *PAb* 140)
- (22) Baña biak eben maitte Mari Jesus, da zelan egongo zirean alkarregaz batu baga, biak joan ezkerro jai-arratsaldietan Demikura, euren maitteagana *agerraldi bat* egittera? (Echta *Jos* 054)
- (23) Piarres, joandakoari lur eman bear zenioke eta *bizimodu berri bat* egiten asi, esan zion etxeoandreak Piarresen irakiñaldia itzali nairik. (Etxde *JJ* 186)
- (24) Baina nekerik gabe egiazta daiteke, nekerik gabe, gramatika *jakite enpiriko bat* denez gero, testuetatik atera behar dena, ez inoren burutik (...) (MIH 084)
- (25) (...) «diot»etik «nion»era pasatzeko era ederki erakutsiko genioke, buru hauste gogorrik gabe, *oraingo makina kalkulatzaille bati*, eta oro bat «deutsat»etik «neutsan»era, eta «diot»etik «deutsat»era (MIH 113)
- (26) Egoera honi eskerrak, Gales-herri osoan barrena ibil daiteke *ingeles bat* merkataritzan, erostunen hizkuntzaz arduratu gabe. (MIH 185)
- (27) Ez zizaiokeen orduan *euskaldun berri batek* begiramen handirik ekar euskaldun jator bati, hots, euskaraz debekurik gabe mintzatzen denari. (MIH 347)
- (28) Badakizki, inon ikasi gabe, *nobelagile batek* jakin behar dituen gauzarik nagusienak. (MIH 359)
- (29) Nobel saria urrutitik ere ikusi gabe, ordea, zerbait ikusi dut, beste gehiegik ere betaurrekorik gabe ikusi dutena: *haur batek*, alegia, zeharo eta erabat gal dezakeela bere lehen hizkuntza, bestetan hazi dutelako gero. (MIH 400)
- (30) Zalantzarik gabe, lurra galdu zen, Akitania euskaldunean adibidez edota, ekialdera, Pirinio hegoaldean, baina dirudienez *zabaltze bat* ere gertatu zen hegomendebaldean, lurralde pobre eta soberasko bete hauetatik zihozen jendakiek hizkuntza bertara zeramatela. (MIH VI 033)



Hala ere, zenbait testuingurutan *bat* horren aldamenean, *-a* eta *-(r)ik* (galdera-perpausetan eta ezezkoetan) artikulua ere baditugu aukeran: hurrengo adibideetan, esaterako, gomendagarriagoa litzateke partitiboa erabiltzea<sup>62</sup>:

- (31) *Zergatik horrelako adierazpen bat eskatu ez?*
- (32) *Zergatik horrelako adierazpenik eskatu ez?*
- (33) *Erantzun zehatz bat eman gabe.*
- (34) *Erantzun zehatzik eman gabe.*
- (35) *Ez dago estilo garai bat.*
- (36) *Ez dago estilo garairik.*

Balio generikoa adierazi nahi denean, adibidez, lehian sartzen dira *bat* eta *-a*. Eta gaurko joera hedatuena *bat*-en aldekoa bada ere, oso kontuan izan beharko genuke artikulua erabiltzeko aukera<sup>63</sup>:

- (37) *Bat arratsean azeria / azeri bat etorri da.*
- (38) *Elorgakoek traktorea / traktore bat erosi dute.*
- (39) *Pasatu da berriz ere abioia / abioi bat.*
- (40) *Nik kafesnea / kafesne bat hartuko dut.*

Era berean, *EGLU-I*-ean esaten zaigunez, «uste baldin badugu aipatzen ari garen entitatea bat bakarra dela, orduan ez dugu *bat* erabiliko, artikulua baizik.» Horrenbestez:

- (41) (?) *Buruan txapel bat zeraman*
- (42) *Buruan txapela zeraman*
- (43) (?) *Eguzki eder bat azaldu da*
- (44) *Eguzki ederra azaldu da*

Hona hemen, dudazko kasuetarako *EGLU-I* liburukian ematen zaigun gomendioa<sup>64</sup>: «Badirudi beste kasu anitzetan ez dagoela arrazoi garbirik noiz *-a* noiz *bat* erabakitzeke. Hala ere, aipatzen den entitatea ezezaguna denean eta, batez ere, *bat* horren orde *edozein* edo antzekoren *bat* sar badaiteke adierazkizuna gehiegi aldatu gabe, *bat* jartzen da»:

- (45) *Gaurko euskaldun batek uler ditzake horrexegatik (MIH 86)*
- (46) *Egun edo bihar (...) «naiza, haiza, eizan» idazten has banadi, alde zurretik ematen diot edozeini esku ero-etxe batean ongi estekaturik sar nazan. (MIH 82)*
- (47) *Erakus diezazkiogun orain hiru paradigmatok ofizioko gizon bati (MIH 82)*
- (48) *Horrelaxe artzain edo ikazkin bati ezartzen badizkiogu teologiaren edo fisikaren izkutu sakonak, jabetuko da gure hitzen mamiaz; ez, ordea, erdaldun ezjakin bat, erdaraz sail horietan erabili ohi diren hitzak badarabilzkigu (MIH 87)*

<sup>62</sup> *EGLU-I* (Euskaltzaindia, 1991: 115; Euskaltzaindia, 1993a: 92). Ikusi, orobat, Garate (1988: 44-45).

<sup>63</sup> *EGLU-I* (Euskaltzaindia, 1991: 111).

<sup>64</sup> *EGLU-I* (Euskaltzaindia, 1991: 113-114).

## 12.2. Izen zenbakaitzekin (*haize, ohore, diru, hizkuntzalaritza, ardura, etab.*)

1a) Desegokia izen zenbakaitz eta abstraktuekin:

- (49) (?) *Gorroto bat* sentitu nuen! (50) a) *A zer gorrotoa* sentitu nuen!  
b) *Nolako gorrotoa* sentitu nuen!  
c) *Zein gorroto handia* sentitu nuen!
- (51) (?) *Demokrazia batean* bizi gara (52) a) *Demokrazian* bizi gara /  
b) *Erregimen demokratiko batean* bizi gara
- (53) \**Entzulego tinko bat* dauka Loiolako irriatiak. (54) a) *betiko entzuleak* ditu Loiolako irriatiak  
b) *betiko entzuleria* du (...)  
c) *entzule berak* ditu (...)
- (55) (?) *Umiltasun handi batekin* esan zuen: (...) (56) *Umiltasun handiz* ...

Harridurazko «Badut *buruko min bat!*» tankerako esaldi adierazkorrek direla eta, honela mintzo dira EGLU-n<sup>65</sup>: «Gaizki dagoenik esan gabe gure esateko modu jatorrak zaindu behar direla uste dugu: *nik dudan buruko mina, hau buruko mina, etab.*»

1b) Desegokia da orobat atributu funtzioko izen zenbakaitz eta abstraktuekin:

- (57) (?) Gizakien klonazioak gaur egun *fikzio bat dirudi*... (58) Gizakien klonazioak gaur egun *fikzioa dirudi*...
- (59) (?) Txirrindularien istripuen larritasuna *errealitate latz bat da*. (60) Txirrindularien istripuen larritasuna *errealitate latza da*.

2. Gramatikaltasunaren mugan:

a) «Izen abstraktua + izenondoa + *bat*»: onargarria.

EGLU-ren arabera<sup>66</sup>, «Hala ere, badirudi adjektibo bat sartzen dugularik tartean, norma hau [izenbakaitzekin artikulua soilik erabiltzeko arau orokorra] ez dela hain hertsia»:

- (61) (...) erraten darot *boz izigarri batekin*: Nongoa haiz? (Eliss. 5)
- (62) Espantu handirekin mintzo zen bere sudurraz eta *ohore handi bat* zitzaion (Eliss. 6)
- (63) *Interes berezi bat* erakutsi du gai horren gainean.
- (64) Gogoratuta beste bagarik, emoten dau *enbidija santu bat*, kristinau guztiak onan alkar ameean, ta alkarri lagunduten bizi izatiak. (fB *Ic I* 189)
- (65) Bijotza aldatu baga gaistakeriati onera, pekatu mortal guztien damu baga Jangoikuaren ofensia dalako; artu baga *borondate sendo bat* ez geiago pekatu-rik egiteko, deritxagu erakarriko dogula pekatuben parkazinua? (Mg *CO* 5)
- (66) Indazu, Jauna, argia, ezagututeko neure bekatuak; *damu oso bat*, negar-egiteko neure erru guztiak; (Añ4n *EL*<sup>1</sup> 148)
- (67) Laugarrena: Alargunak gelditzen badira umeakin, izan bear due oen *kontu andi bat*. (AA III 398)

<sup>65</sup> EGLU-I (Euskaltzaindia, 1991: 115).

<sup>66</sup> EGLU-I (Euskaltzaindia, 1991: 109).

(68) O ta bagenu guk *Fede bizi bat, amore andi bat, ta konzienzia garbi bat* eldu-  
tzeko grazia guzieren Iturri bizira! (Mg CC 204)

b) Gradu-markekin eta maila-aditzondoekin ez du tradizioirik: dudazkoa (hobe ez erabiltzea).

(69) ?? *Gorroto askoz ere handiago bat* piztu zitzaion.

3. Tradizio handikoak (salbuespenak), izen zenbakaitzekin izan arren.

a) «Izena + *bat* + izenondoa (mugatua)»: tradizio handikoa da eta balio enfati-  
koa du

(70) Egiten zuen *haize bat izugarria*

(71) Piztu du *interes bat, sekulakoa!*

b) Erdarazko «un cierto» adierazteko, izen abstraktuekin:

(72) *Halako kezka bat* izaten dut gogoan (MEIG VII 129)

(73) Badu horrek *halako gaitzespen kutsu bat*

### 12.3. Esaera eta egitura bereziak

(74) *Errege batek* ba omen zituen hiru alaba (kontakizunen hasieran)

(75) *Arbola bat* zen Bizkaian, zeinen azpian egoten ziren asabak... (existentzia-esa-  
pideak)

(76) *Axular batek* ez luke horrela esango.

(77) *Hamar bat etxe / Hamarren bat etxe*<sup>67</sup>

(78) *Oinazeren bat* badu (Hegoaldean)<sup>68</sup>

(79) Guri, gainera, zein ere bestetara ahalegindu, egunoroko hizkeraren herdoi-man-  
txak hizkera idatzian isurtzen bazaizkigu, orobat gertatzen zitzaion, dudarik  
gabe, *denbora bateko* edozein idazleri. (MEIG VI 163) (= «iraganeko»)

(80) (...) Zoritxarrean, orain ez dago *garai bateko* konturik. (Basarri 155)

(81) Bada *galdera-mota bat*, erantzunik gabe geldituko dena.

(82) *Hosto-sorta bat* ekarri du.

(83) *Batek daki*...

(84) Ez gaitu, ez, *kritika pixka batek, edo puxka batek*, geure burua ukatzera era-  
karriko (Mitx.)

(85) Ni ere *bat natorkie* horretan...

(86) ...*ariñeketa baten* joan zan bera be (Bustinza)

(87) *Negar bate(a)n* etorri zen neskatoa

(88) *Lagunekin batean / batera* azaldu zen

(89) Ez da su ahul *bat besterik*

(90) *Gutako bat / Gutariko bat* gailendu bada...

(91) *Handieneta(ri)ko bat / handienetarik bat / ...*

---

<sup>67</sup> OEH-k zehazten duenez («bat» sarrera, 160. or.), *hamar bat etxe* egitura Iparraldean zein Hego-  
aldean aurkitzen da; *hamarren bat etxe* egitura, ostera, Hegoaldean bakarrik.

<sup>68</sup> «Precedido de sust. o sintagma nominal con gen. con el sentido de «algún», la construcción del  
tipo *oinazeren bat badu* es sólo meridional, sept. *zerbait oinaze du* (OEH: «bat» sarrera, 160. or.).

#### 12.4. Aztertzeo adibideak

- (92) (? \*) Pentsatu behar dugun lehen gauza, beraz, (?) *haur bat* eduki nahi dugun da. Honek bi pertsonen arteko (\*) *erabaki bat* izan behar du eta ez batena bakarrik.
- (93) *-haur bat*: esanahia «bakar bat» baldin bada, onargarria da; agian hobeto «*haur bakar bat* eduki nahi dugun». Bestela, «*haurrik* eduki nahi dugun».  
*-erabakia*
- (94) (?, ?) *Begi bati* ondo erakusten badiogu beste edozein animalia-  
ren *begi bat* baino azkarragoa izango da.
- (95) *begiari - begia* [balio generikoa]
- (96) (\*) Gure belaunetan eseri eta ipuinak irakurriko dizkiogu; honela haurrari *interes bat* sortuko diogu.
- (97) *interesa* [izen zenbakaitza]
- (98) (\*) Izan bedi X *edozein elementu bat*...
- (99) Izan bedi X *elementu bat, edozein*,...
- (100) (\*) *Edozein estatu europar batean*...
- (101) *edozein estatu europarretan*
- (102) (\*) *Hurrengo urrats historiko bat* hauxe izango da.
- (103) *hurrengo urrats historikoa*
- (104) (?) *Garrantzi askoz handiago bat* eman beharko litzaioke bakardadean egiten den lanari.
- (105) *Garrantzi askoz ere handiagoa*
- (106) (\*) Pentsatzekoa denez, muturreko bi jarrera horien artean *definizio-sorta oso zabal bat* daukagu, denak bata bestearen atzetik segidan kokatzen direnak, bi hizkuntzen ezagutza-maila graduz igozten joaten den heinean.
- (107) *definizio-sorta oso zabala / definizio-sorta zabal-zabala*
- (108) (\*) Osasun, elikagai eta abarrez irakurtzea atsegin dudana *pertsona batetaz* dut neure burua.
- (109) *pertsonatzat* daukat neure burua
- (110) Stillman doktoreak hau eta beste esan arren, *oihartzun izugarri bat* lortu duela ukaezina da.
- (111) a. onargarria [iz. + izond.+ bat] /  
b. *oihartzun izugarria*
- (112) (?) Ezin da *era hain zorrotz batean* jokatu
- (113) *hain era zorrotzean / hain zorrotz*
- (114) *Erokeria bat* da!
- (115) onargarria / *erokeria da!* / *erokeria hutsa da!* / *erokeria baino ez da!* / ...
- (116) (?) *Esperimentu oso garrantzitsu baten* berri eman ziguten.
- (117) a. *oso garrantzitsua den esperimentu baten* berri  
b. *garrantzi handiko esperimentu baten* berri
- (118) (?, ?) Klonazioak gaur egun *errealitate bat* baino gehiago *fikzio bat* dirudi, baina ez dakit noiz arte irau dezakeen ideia honek.
- (119) *errealitatea - fikzioa* [atributua]

- (120) (\*) Askok plan berrian sartzeko errepikatu behar izaten dute, lehen mailan *masifikazio bat* sortuz.
- (121) *masifikazioa*
- (122) (?) Lana utzi zuen, etxea eta haurrak zaintzeko, *etxeoandre bat* izateko.
- (123) *etxeoandrea*
- (124) (?) GIBa uste baino hedatuago dagoen *birus bat* da.
- (125) *onargarria / birusa*
- (126) (?) *Espezialitate bat bezala* kontsidera daiteke.
- (127) *Espezialitatetzat har daiteke.*
- (128) Ez dakit zer esan etxera eskean datorren *haur bati*.
- (129) *ongi / haurrari*
- (130) *Adiskide bati* idatzi diot behar ditudan liburuak eskatuz.
- (131) *ongi*
- (132) *Liburu gotor eta sendo baten* aurrean gaude.
- (133) *ongi*
- (134) Aurkeztu dizuegun liburu hau tar-teka-marteka eta aldian-aldian *irakurtzeko moduko liburu bat* da.
- (135) *ongi / liburua*
- (136) (...) Europako lege-araudiari *gainbegiratu bat* eman diogu, (...)
- (137) *ongi / gainbegiratua*
- (138) Gertaera historikoak zuzeneko esperientziatik ezagutu beharrean *bitarteko mundu bati* esker, hau da, dokumentuen bidez ezagutzen dira maiz.
- (139) *ongi*
- (140) ABC Madrilgo *egunkari bat* da.
- (141) *ongi*
- (142) (\*) (...) ez baita mugatzen errealitatea den horretan soilik aurkez-tera, baizik eta saiatu gara orobat, ahal izan dugun puntuetan, *gure ikuspuntu pedagogiko bat* ekar-tzen ere, hau da, ...
- (143) *gure ikuspuntu pedagogikoa*
- (144) Alderdi horietako bakoitzari bu-ruzko legerien *azterketa sakon bat* egin dugu.
- (145) *ongi (iz. + izond. +bat) / azter-keta sakona*
- (146) (?) Eta horrela, *ikerlan horien berrikuspen bat* egiten dugu az-ken kapituluan.
- (147) *ikerlan horien berrikuspena*
- (148) (?) Gizabanakoaren ikuspegitik begiratuta, elebiduna da, H2ko hizkuntz trebetasunetako bakoit-zean gaitasun-maila handiago edo txikiagoa erakutsiz gai dena *nolabaiteko komunikazio-maila bat* lortzeko hizkuntza horretako hitzune-kin.
- (149) *nolabaiteko komunikazio-maila / (?) halako komunikazio-maila bat*
- (150) (?) (...) euripean denbora luzez egoteak *hotzeri bat* eragin dieza-guke.
- (151) *hotzeria*

- |  |  |
|--|--|
| (152) (?) (...) baizik eta baita <i>senti-<br/>mendu bat, afektu bat, sentikera<br/>estetiko bat</i> kanporatzeak es-<br>kaintzen duen aukera ere. | (153) <i>sentimendua, afektua, sentikera<br/>estetikoa</i> |
| (154) (?) <i>Aurkezpen mugatzaile bat</i><br>egiten du...  | (155) <i>aurkezpen mugatzailea</i>                         |
| (156) (?) Eta horrek <i>balio semantiko<br/>bat</i> ematen dio.  | (157) <i>balio semantikoa</i>                              |
| (158) (?) Aberri Eguna <i>herri oso ba-<br/>ten</i> jaia da.   | (159) <i>herri osoaren</i>                                 |
| (160) (?) Lehen partida irabazi ondo-<br>ren, <i>bigarren batean</i> zer gertatu-<br>ko da?  | (161) <i>bigarrean</i>                                     |

### 13. -A BEREZKOA DUTEN HITZEN DEKLINABIDE OKERRA: \*ZENBAIT PERTSONENTZAT...<sup>69</sup>

Mitxelenak Arantzazuko txostenean (1968) ohartarazi zuenez, «deklinabide» mugagabea behar bezala erabiltzeko ezinbestekoa da jakitea zein diren bukaeran -a berezkoa duten hitzak. Hona hemen, lehendabizi, halako atzizkien eta izenen zerrenda bat (osatugabea, noski):

#### (1) -A BEREZKOA DUTEN ATZIZKI IZEN-SORTZAILEAK:

A. -ANTZA	F. -GINTZA	J. -KUNTZA
B. -DURA	G. -KADA/-TARA	K. -TZA
C. -(K)ERA	H. -KERIA	L. -XKA
D. -ERIA	I. -KETA	M. -(T)ZIA
E. -EZIA		

#### (2) -A BEREZKOA DUTEN IZEN BATZUK

A				
abadia	abzisa	aizkora	animalia	arrosa
abantaila	adaxka	akabera	antsia	asaba
abangoardia	adiera	akura	arantza	aska
abarka	afera	alaba	arbola	ateka
abelazkuntza	ahizpa	aldaketa	ardura	atorra
abeltzaintza	aingura	aldapa	area	ausardia
abentura	aintza	alegia	arma	axola
abesbatza	aintzira	alkandora	arnasa	aza
abiada	aita	alproja	arraz	azienda
abiadura	aitaginarreba	ama	arreba	azoka
abilezia	aitona	amaginarreba	arreta	aztarna
abokatutza	aitortza	amona	arroa («pisua»)	azterketa
absentzia	aitzakia	anaia	arropa	

<sup>69</sup> Atal hau egiteko hurrengo iturriak erabili ditut: Euskaltzaindiko Gramatika Batzordea (Euskaltzaindia, 1994c: 911-916), Euskaltzaindia (1987: 107-108) eta Euskaltzaindia (1993: 519-520).

**B**

baba	bela	beta	bizitza	bukaera
bailara	berba	bezpera	borda	burdina
balea	berna	bilduma	borroka	
bandera	berriketa	birjina	bortxa	
bazka	besarkada	bista	bortxaketa	

**D**

dardara	dema	distira	dotrina	
defentsa	denbora	domeka	duda	

**E**

egia	epaiketa	erreminta	eskailera	ezaguera
egintza	era	errenta	eskaintza	ezagutza
egitura	erasia	erreserba	eskola	ezkila
egoera	erdara	erresuma	eskopeta	ezkontza
ekintza	eroskeria	erromeria	esperantza	ezpata
eliza	erregela	errota	estropada	eztabaida
enara	erregina	esaera	etsamina	
enparantza	erreak	esamesa	euskara	

**F**

falta	familia	festa	finka	froga
fama	feria	finantza	forma	

**G**

ganbara	gatazka	gela	gona	gutizia
ganora	gauza	gerla	gramatika	
garizuma	gaztaina	gerra	grazia	
galdera	gaztanbera	gertaera	grina	
galera	gazteria	giltza	gupida	

**H**

habia	harridura	herentzia	hizkera	hobekuntza
hanka	hasiera	heriotza	hizketa	hontza
harea	hedadura	hezkuntza	hizkuntza	horma

**I**

ibilera	ikerketa	imajina	irrika	itxura
ideia	ilara	inbidia	iseka	izara
ikara	iloba	irakaskuntza	iskanbila	

**J**

jabetza	jakintza	jela	joera	justizia
jaka	jarduera	jendetza	jokaera	

**K**

kaiola	kanika	kartzela	konponketa	korta
kaliza	kanta	kezka	kontzientzia	koska
kalumnia	kapa	kipula	kopeta	kutxa
kamamila	karga	koilara	korda	kutxatila
kandela	karta	kondaira	koroa	

L				
labana	langa	laranja	leka	lotura
laguntza	lanperna	legegintza	lekukotza	lukainka
laia	lapa	legeria	lizentzia	
landa	lapurreta	leihatila	lotsa	
M				
maila	maratila	marruma	meta	mizpiria
makila	marka	mataza	meza	mota
makina	marra	matraila	mika	muga
malezia	marranta	maula	mila	
N				
nahaspila	natura	nekazaritza	neskatila	norgehiagoka
narda	nazka	neska	neskatxa	
O				
obra	oilanda	ontza	ordenantza	orkatila
ofentsa	okela	onura	oreka	osaba
ohitura	ola	ordena	orga	ostia
P				
parrasta	pila	politika	probidentzia	punta
pena	pilota	polizia	probintzia	purga
penitentzia	pipa	premia	profeta	puska
pertsona	piztia	presa	protesta	puxika
pezeta	plaza	proba	prozedura	
S				
sakela	salda	sega	seta	sorta
sala	salmenta	segurantza	soka	
salaketa	saltsa	sehaska	sona	
salakuntza	sama	serora	sorrera	
T				
taberna	tema	tipula	tripa	tutoretza
tankera	testigantza	traba	tristura	
teila	testigutza	tresna	trufa	
TX				
txalupa	txara			
txanda	txozna			
U				
uda				
X				
xerra				

Beraz, horrelako hitzek bukaerako *-a* bokalari eusten diote izenondo eta determinatzaileekin batera erabiltzen ditugunean: *eliza ederra, edozein gauza,*



*anaia bat, gaiztakeria hori, bidegabekeria handia, gauza hori, baldintza eskasak, etab.*

Ondoko aldaketa morfonologikoak hartu behar dira kontuan:

- (3) a + a > a (gela + -ak > gelak)  
a + e > e (gela + ek > gelek)  
a + o > o (gela + ok > gelok)

Bereziki ergatibo pluralari dagokion forma *-ek* dela gogoratu behar da:

- (4) Hasierako eztabaidek porrot egin zuten (\*hasierako eztabaidak porrot egin zuten).

Era berean, kontuz jokatu beharra dago maileguz hartutako hitzekin (*-ncia, -logia, etab.*); izan ere, erdal jatorriko hitzetan maiz kentzen da bukaerako *-a*, mugatzailea delakoan edo:

- (5) a. erreferentzia funtsezkoa (\*erreferentzi funtsezkoa)  
b. inportantzia izugarria (\*inportantzi izugarria)  
c. zientzia zehatzak (\*zientzi zehatzak)  
d. independentzia mugatua (\*independentzi mugatua)  
e. diferentzia handia (\*diferentzi handia)  
f. esperientzia baliagarria (\*esperientzi baliagarria)

Hona hemen, *-a* berezkoa duten erdaratiko hitz batzuk:

- (6) -A BEREZKOA DUTEN ERDAL JATORRIKO IZEN MAILEGATUAK  
GAZT. -NCIA: *absentzia, abstinentzia, alternantzia, diferentzia, disidentzia, esperientzia, eszedentzia, herentzia, independentzia, inportantzia, jurisprudentzia, koherentzia, komenentzia, lizentzia, probidentzia, zientzia...*  
-ALGIA: *nostalgia...*  
-ARQUÍA: *anarkia, autarkia...*  
-CARDIA: *takikardia...*  
-CRACIA: *aristokrazia...*  
-DOXIA: *ortodoxia, heterodoxia...*  
-FAGIA: *antropofagia...*  
-FILIA: *nekrofilia, bibliofilia...*  
-FOBIA: *xenofobia...*  
-GLISIA: *diglosia...*  
-GRAFÍA: *bibliografia, biografia...*  
-LOGIA: *analogia, ideologia...*  
-METRÍA: *hidrometria...*  
-TERAPIA: *erradioterapia...*  
-TOMÍA: *anatomia...*  
GAZT. -IA: *abangoardia, aberia, burgesia, demagogia, entziklopedia, harmonia, industria, justizia...*

Beste hutsegite bat, Euskaltzaindiko Gramatika Batzordeak salatu duena, deklinabide mugatu plurala eta mugagabea behar bezala ez bereiztea da: *bi pertsonak*

*galdu dute bizia* esan eta idazten da maiz «bi pertsonak galdu dute bizia» adierazteko. Horra hor, adibide batzuk:

(7) MUGATU PLURALA	# MUGAGABEA
<i>bost pertsonak</i> hartuko dute parte	# <i>bost pertsonak</i> hartuko dute parte epaimahaian
<i>berrehun pertsonen</i> aurrean	# <i>berrehun pertsonaren</i> aurrean
<i>bi pertsonentzako</i> bidaia	# <i>bi pertsonarentzako</i> bidaia
<i>hiru enpresek</i> botatzen dituzte zaborrak ibaira	# <i>hiru enpresak</i> botatzen dituzte zaborrak ibaira
* <i>zenbait pertsonen</i> iritzia →	<i>zenbait pertsonaren</i> iritzia
* <i>hainbat eskoletako</i> jantokietan →	<i>hainbat eskolatako</i> jantokietan

Errakuntza horiek *-a* bokalaz amaitzen diren hitzekin gertatzen dira maiz, baina ez dirudi hutsegitearen arrazoa *-a* berezkoa duen hitzaren forma zuzena ez ezagutzea denik: izan ere, erabilera jasoan inor gutxi esan edo idatziko litzuzke \**person bat*, \**enpres bat* modukoak; alegia, absolutiboan, behintzat, ez dago inolako zalantzarik. Beraz, mugagabetasunaren erabilera behar bezala ez menderatzea da halako hutsen arrazoa: «*zenbait*, *bi*, *hiru* eta horrelakoak semantikoki pluralak direnez, deklinabidean ere plurala «markatzeko» eta «agerian jartzeko» joera izaten dugu askotan —inguruko erdaren eraginez edo bestela—, mugagabetasunaren ikuspegia galduta»<sup>70</sup>. Dena dela, kontu eta arreta berezia izan behar dugu azken buruan *-a* daramaten hitzekin, horietan nahasten baikara maizenik.

ZUZENTZEKO ADIBIDEAK

(8) Ikuskapen-funtzioa <i>hiru mailatan</i> bete daiteke.	(9) ... <i>hiru mailatan</i> ...
(10) Ez dute ahalmen hau langileen <i>beste edozein ordezkaritza-egiturak</i> , adibidez, ...	(11) Ez du ahalmen hau langileen <i>beste edozein ordezkaritza-egiturak</i>
(12) <i>Bi pertsonak</i> galdu zuten zuten <i>bizia</i> istripuan.	(13) <i>Bi pertsonak</i> ...
(14) <i>Berrehun pertsonen</i> aurrean eman zuen hitzaldia.	(15) <i>Berrehun pertsonaren</i> aurrean...
(16) <i>Zenbait pertsonen</i> iritzi ez da komeni txertoa mundu guztiari ematea.	(17) <i>Zenbait pertsonaren</i> iritzi...
(18) <i>Bi pertsonentzako</i> bidaia oparitzen du bidaia agentzia horrek.	(19) <i>Bi pertsonarentzako</i> bidaia...
(20) <i>Hiru enpresek</i> kaleratu dituzte langileak azken hiruhilekoan.	(21) <i>Hiru enpresak</i> ...
(22) Itolarrian daudela ohartarazi dute Errioxako <i>hiru ikastolek</i> .	(23) ... <i>hiru ikastolak</i> .
(24) Konstituzioa <i>zenbait askatasun basikoen</i> babeslea da.	(25) ... <i>zenbait askatasun oinarritzoren</i> ...

<sup>70</sup> Euskaltzaindiko Gramatika Batzordea (1994c: 913).

- |  |  |
|--|--|
| (26) <i>Bost neskek</i> osatzen dute taldea.   | (27) <i>Bost neskek...</i>                   |
| (28) <i>Hamabi atletek</i> positibo eman dute.   | (29) <i>Hamabi atletak...</i>                |
| (30) <i>Bizkaiko bi enpresek</i> egin dute gaur greba.   | (31) <i>Bizkaiko bi enpresak ...</i>         |
| (32) <i>Bi sozialisten</i> ustez, proiektua ez da bideragarria.  | (33) <i>Bi sozialistaren</i> ustez...        |
| (34) Orain <i>bi erakusketen</i> berri eman-go dizuegu   | (35) ... <i>bi erakusketaren</i> berri...    |
| (36) Hori <i>bi enpresen artean</i> egingo dute  | (37) ... <i>bi enpresaren artean...</i>      |
| (38) <i>Bi artistei</i> egingo dieten omenaldia komentatuko dizuegu.                                   | (39) <i>Bi artistari...</i>                  |
| (40) <i>Hiru asignaturetan</i> porrot egin du.   | (41) <i>Hiru irakasgaitan...</i>             |
| (42) <i>Hamasei enpresetan</i> egin dute proba.  | (43) <i>Hamasei enpresatan...</i>            |
| (44) <i>Hamar mila pertsonetik</i> gora hartu zuten parte.   | (45) <i>Hamar mila pertsonatik</i> gora...   |
| (46) <i>Hirurehun bat presoe</i> k egin dute salaketa hori.  | (47) <i>Hirurehun bat presok...</i>          |
| (48) <i>Bi egunkari</i> en aipamena egingo dugu.   | (49) <i>Bi egunkari</i> ren aipamena...      |
| (50) <i>Zenbait ekintzetan</i> parte hartzera doaz.  | (51) <i>Zenbait ekintzatan...</i>            |
| (52) <i>Edozein sindikatu</i> an afiliatutako langileek sekzio sindikalak sor ditzakete. <sup>71</sup> | (53) <i>Edozein sindikatu</i> tan...         |
| (54) <i>Beste hainbat zerbitzuetarako</i> eskakizunak zorrotzagoak dira.                               | (55) <i>Beste hainbat zerbitzuetarako...</i> |
| (56) <i>Espezialistak</i> behar dira <i>zenbait arloetarako</i> .                                      | (57) ... <i>zenbait arloetarako</i> .        |
| (58) <i>Bere zenbait idatzietan</i> ageri da ideia hori.   | (59) <i>Bere zenbait idatzitan...</i>        |

#### 14. HIRU KILOKO HAURRA, LAU HANKAKO MAHAIA (Euskaltzaindiaren 34. araua)

##### **Tradizioa, irizpideak...**

*Hiru kiloko haurra* eta *hiru kilotako haurra* bezalako forma bikoitzak aurkitzen dira euskal testuetan, eta entzuten ahozko mintzairan. *-ko* eta *-tako* bi atzizki-forma ditugu, beraz, «eutea» edo posesiboa adierazten duten izenlagunak sorrarazteko. Kontuan harturik literaturan ageri den erabilera, ordea, ez da dudarik *-ko* atzizkia duen forma hobetsi behar dela, hori baita eskuarki erabilia.

*-ko* atzizkia, betetzen duen funtzioaren arabera, hiru egitura-motatan ager daiteke:

<sup>71</sup> Adibide honetan eta hurrengoetan mugagabearen arazoa dago (mugagabea ez erabiltzea, alegia) eta ez *-a* berezkoaren arazoa.

### 1. Izena + *-ko* → izena (*masaileko, gerriko, belarritako...*)

Baina hemen ez gara *-ko/-tako* forma hartzen duen *-ko* erator-atzizki honetaz arituko.

### 2. Adizlaguna + *-ko* (*mendiko, mendietako, menditako...*)

—Hala ere, batzuetan ez du inesiboa oinarrian, destinatiboa baizik. Hori gertatzen da *-ko /-tako* formak elkarren ordeko agertzen direnean zenbatzailerik gabeko izen-sintagma bati atxikirik:

- (1) a) zuen *kaltetako/kalteko* izango da hori
- b) bere *onetako/oneko* esan diot egia
- c) artistaren *ohoretako/ohoreko* jarri dute oroitarri hori

Euskaltzaindia ez da ariko hemen egitura hauetaz.

—Kontuan hartzekoa da, halaber, *gerizpetako / gerizpeko, ilunpetako / ilunpeko, eguzkitako / eguzkiko* bezalako bikoteen arteko diferentzia formala, eta inoiz semantikoa ere. Euskaltzaindia ez da egitura hauetaz ariko hemen.

### 3. Izen-multzoa + *-ko*

«Adizlaguna + *-ko*» egiturak ez bezala, egitura hau erakusten dutenek ez dute oinarrian inesibo kasuko izen-sintagmarik, ez mugatzailerik ez eta, beraz, numero-markarik:

- (2) a) *buru argiko* irakaslea dugu unibertsitatean
- b) *beso luzeko mutilak* hobe arraunketako
- c) *lau eta hiru hankako mahaiak* ezagutzen ditugu
- d) azken *hamarrekoa* jaso ondoren, museko lagunei *bostekoa* emanez bukatu genuen musaldia
- e) gerra aurretik ezagunak ziren zilarrezko *errealbiko, pezetako, bi pezetako eta ogerlekoak*
- f) *hirurehun kiloko harria* jaso du Perurenak
- g) *hirurogei ontzako hogeitabi enbor* ebaki zituzten atzo aizkolariek
- h) *zenbat kilometroko bidea* dago Baionatik Donostiara?
- i) «Beldurra diot *liburu bakarreko gizakiari*», esan zuen Santo Tomasek
- j) *kantari askokolanitzeko taldea* da Donostiako Orfeoia
- k) *zazpi eguneko epea* dugu azterketa prestatzeko
- l) *urte gutxiko haurrak* zer egin lezake gurasorik gabe?

Ikusten denez, *-ko* edo *-tako* atzizki-forma adjektibatzailea har dezaketen izen-multzoak edo oinarriak mota askotakoak izan daitezke:

—Batzuetan izena da oinarri:

- (3) a) *edadeko* pertsonari begirunea zor zaio
- b) *hitzeko* gizona errespetagarria da
- c) *itxurako* lanik egin al duzue?

—Beste batzuetan partizipioa + *behar*:

- (4) a) *ondo egin beharreko* lana da hori
- b) euskaldunek *jakin beharreko* hizkuntza da euskara.

Bi kasu horietan *-ko* atzizkia bakarrik erabili izan da: ez da, beraz, lekurik *-tako* formarentzat:

—Izena + izenondoa:

Oro har, *-ko* atzizkia erabili izan dute idazleek:

- (5) a) *Negurri gaitzekoa* zuen (Elissamburu, *Piarres Adame*, 6)
- b) *Ago oneko kafea* (*Cancionero Vasco*, I, 23)
- c) Ergela da jende hori, *eta jite txarrekoa* (J. Etchepare, *Buruxkak*. 126)
- d) *Sudur handiko* gizona (Elissamburu, *Piarres Adame*, 30).

Badira, noski, *-tako* daramaten zenbait adibide ekialdeko testuetan («Aurkiturik, bada, perla bat *balio handitakoa*»).

—Zenbatzailea + izena (+ izenondoa).

Zenbatzaileak zehaztuak edo zehaztugabeak izan daitezke: oinarriko izena, berri, adina, prezioa, neurria, pisua, tamaina eta denbora adierazten duena izan ohi da gehienbat. Hauek sortzen dituzte bikoiztasun gehienak eta hauetan komeni da batasuna egitea.

*Orotariko Euskal Hiztegia*-k eskaintzen dituen datuak kontuan hartuta, ez da zalantzarik idazle gehienek *-ko* aukeratzen dutela halakoetan, eta ez *-tako*. Horrela, *gutxi/gutit/gitxi* zenbatzailea daramaten izen-sintagmetan ikusten denez, 167 adibide dira *-koren* aldeko (*neurri gutxiko gauza* bezalakoak alegia), euskalki guztietakoak, eta 19 bakarrik *-takoren* aldeko (*balio gutitako lanak* bezalakoak). Gauza berttua gertatzen da *asko* eta *anitz*-ekin ere.

Zenbatzaile zehaztuekin ere, oro har, adina, neurria, pisua, tamaina eta denbora adierazten duten izenekin *-ko* da erabiliena, inolako dudarik gabe. Adinaren kasuan 120 adibide ageri dira *-koren* aldeko eta 6 adibide bakarrik *-takoren* aldeko. Gauza bera neurriarekin (33 eta 1), pisuarekin (adibide bi bakarrik *-takorekin*), balioarekin eta denborarekin (forma bat bakarra *-takorekin*):

- (6) a) *Berrogei ta bi urteko mutilla* zen; oraindik ezkongai, eta bakarrik bizi zen munduan (*Izeta, Dirua Galgarri*, 049)
- b) Batxin langosuak bere beiñ baiño sarriago esan eutsan (...) *amazortzi urteko mutilak* eztabela *berrogei urteko mutil zaarraz* batu bear (*Azkue, Batxi Guzur*, 118)
- (7) a) *Amar kilometroko bide berri bat* egiten ari gara (*Izeta, Dirua Galgarri*, 036)
- b) Batez ere, *bi metroko itsas-huntzi zoragarri bat* (*Oskillaso, Kurloiak*, 143)
- (8) a) Errosarioa bukatzearekin bat jarri zuan etxeko-andre gazteak maia zapi zuri batekin, onen erdian plater aundi bat, ertz batean *sei libranko ogi erre-berria* (*Zabala, Gabon gau bat...*, 048)
- b) Donostiako plaza izanik garestienetako bat, egunik geienetan erosiko da bertan *zortzi edo amar libranko azaburu bildua* sei edo zazpi koartoa (*Iz-tueta, Guipuzcoaco provinciaren condaira*, 155)

- (9) a) Doi doia burua makurtzen duela: (...) emozue Marianari *hogoi liberako paper bat*, eta ez bertzerik (Barbier, *Supazter xokoan*, 090)  
 b) Han nuen beraz nere panpina, paparoa zabalik, *berrogoi'ta hamar libera-ko galtzerkisedak* zangoetan (...), besoak sorbaldetarik beheraxago doi doia kukutuak (Barbier, *Supazter xokoan*, 907).
- (10) a) Ordun *iru orduko tartea* eman nion Santa Kruzi, ta errenditu zan, firmatuko zula (Orixe, *Santa Cruz apaiza*, 116)  
 b) Azkenik agerian, (...): arrapatzen zutenetik *bi orduko beta* emateko, ondo iltzeko prestatu zedin (Orixe, *Santa Cruz apaiza*, 090)

Hau da, hortaz, Euskaltzaindiaren erabakia: *buru argiko neska, adineko pertsona, hiru hankako mahaia, bost orriko txostena, lau laguneko taldea, ondo egin beharreko lana, neurri txikiko oinetakoak, fede apurreko jendea, e.a.* bezalako sintagmetan, alegia *nolako* galderari erantzuten diotenean, *-ko* hobesten da.

Horregatik, tradizioak erakusten duen bezala, eta idazle gehienek segitu duten bidetik, *-ko* atzizki-forma da hobesten dena, eta ez *-tako*.

Oinarrian zenbatzailearen bat ageri denean eta adina, prezioa, neurria, pisa... adierazten duten izenlagunak osatzen direnean ere, *-ko* da hobesten dena. Idatz bedi, hortaz, *bi urteko umea, bost liberako egunkaria, hiru kilometroko bidea, hamar metroko garaiera, hiru asteko egonaldia, e.a.* Baina *-ta-* atzizkia erabili beharrekoa izan daiteke zenbaitetan. Adibidez, nongo galderari erantzuten zaionean: *hiru etxetako haurrak etorri zaizkit; hiru etxeetako haurrak etorri zaizkit; \*hiru etxeko haurrak etorri zaizkit, e.a.* Zenbaitetan *-ko/-tako* bikoteaz baliatzea ezinbestekoa izan dezakegu bereizketak egiteko: *zazpi urteko ardoa* (botilan dagoen ardoak zazpi urte ditu), *zazpi urtetako ardoa* (ardoak zazpi urtetan, ez zortzitan bildua izan da) eta *zazpi urteetako ardoa* (aldeaz aurretik ezagutzen ditugun zazpi urte diferenteetan zehar bilduriko ardoa. Azkeneko zazpi urteetan, esaterako).

Honek erakusten digu batzuetan *-tako* beharrezko dela, baina ez urte haue-  
tan erakutsi izan den bezain sarri.

### Aztertzeko adibideak

EGITURA OKERRA	EGITURA ZUZENA
(11) zazpi erreinuetako sailkapena	(12) zazpi erreinuko sailkapena
(13) hiru dimentsiotako telebista	(14) hiru dimentsioko telebista
(15) bost erreinutako sailkapena	(16) bost erreinuko sailkapena
(17) 300 miliboltatoko redox-potentzial bat...	(18) 300 miliboltako redox-potentzial bat...
(19) hiru dimentsiotako soslaiak	(20) hiru dimentsioko soslaiak
(21) bost urtetako haurra	(22) bost urteko haurra
(23) hogeit hamar kilometrotako bidea	(24) hogeit hamar kilometroko bidea
(25) hamar herrialdeko haurrak bildu dira...	(26) hamar herrialdeko haurrak bildu dira...
(27) mila pezetatoko liburua	(28) mila pezetako liburua

15. *-(R)EN / -KO: IKASTOLAREN ZUZENDARIA ALA IKASTOLAKO ZUZENDARIA?*<sup>72</sup>...

15.1. *-(r)en eta -ko bereizteko erabili ohi diren irizpideak*

Atzizki hauetako bakoitzaren esparrua mugatzerakoan aipatu ohi den irizpide bat, atzizkia eransten zaion izenaren izaera biziduna edo bizigabea da. Ezaugarri horri bagagozkio nabaria da *-ko* atzizkiaren izaera markatua, haren erabilere-mua izen bizigabeetara<sup>73</sup> mugatzen baita (1d).

- (1) a. etxearen jabea
- b. gizonaren etxea
- c. etxeko jabea
- d. \*gizoneko jabea

Beste irizpide lagungarri bat atzizki bakoitzaren balio edo esangura desberdina da. Izan ere, sarritan *-(r)en* atzizkiaren bidez nolabaiteko «jabetza» adierazten dugu; *-ko* atzizkiaren bidez, ordea, «kokapena» edo adierazi ohi da. Gauzak horrela, *-(r)en* atzizkiaren parafra-si gisa «-k duen» itzulia onartu ohi da eta *-ko* atzizkiaren azalpen gisa «-n dagoen/bizi den/jaio den...» itzul-ingurua.

- (2) a. Euskal Herriaren adiskideak = «Euskal Herriak dituen adiskideak»
- b. Euskal Herriko adiskideak = «Euskal Herrian dauden/bizi diren/ditugun... adiskideak»

Morfologiari bagagozkio, alde nabarmena dago bi atzizkien artean: *-(r)en* atzizkia izen-sintagma mugatzaile-dunari baino ezin zaio lotu (3a/3g); *-ko* atzizkia, berriz, adizlagunei (3b, 3c, 3d) edota adberbioei (3e), eta izen-multzoari (mugatzaile gabeko izen-sintagmari) lotzen zaie (3f):

- (3) a. Euskal Herriaren adiskideak [Euskal Herri + -a + *-(r)en*]
- b. Euskal Herriko adiskideak [Euskal Herri + -a + -n + *-ko*]
- c. Euskal Herriarekiko adiskidetasuna [Euskal Herri + -a + *-(r)ekin* + *-ko*]
- d. Euskal Herrirako bidaia [Euskal Herri + (-a) + -ra + *-ko*]
- e. hemengo, atzoko, nahitaezko, hitzez hitzeko, eguneroko, gerra ondoko, erositako...
- f. ospe handiko herria [ospe + handi + *-ko*]
- g. \*Euskal Herriraren adiskideak, \*Euskal Herritikaren...

---

<sup>72</sup> Atal hau prestatzeko batez ere Zabalaren ekarpenaz (Zabala, 1999: 119-133) baliatu naiz, hango azalpen batzuk neure erara egokituz eta datu berriren batzuk gaineratuz. Beste iturri nagusi hauek ere erabili ditut: Euskaltzaindia (1993a: 151 eta hurr.); Petrirena (1994); Egunkaria (1995: 51-52).

<sup>73</sup> «Lekua edo denbora» adierazten duen *-ko* atzizkiari bagagozkio, behinik behin. Zeren, *-ko* atzizkia izen bizidunei ere lot dakieke izenlagun deskribatzaileak sortuz (ik. Euskaltzaindia, 1987: 56):

- a) *Laurehun arimako* herri txiki bat.
- b) *bi ugazabako etxea*, kaltea
- c) *bi etxeoandreako sukaldea*, gazte betetako eltzea

Bestalde, Euskaltzaindiak (1987: 49-60) goiko (3b) moduko eta (3f) moduko arteko desberdintasuna azpimarratu du: lehenengok (tokia edo denbora adierazten dutenek) mugatzailea dute beti *-ko* atzizkiaren azpian (4); bigarrenak, oster, azpian ez dute inesibo kasuko izen-sintagmarik, ez eta numero-markarik ere (5).

- (4) a. *Euskal Herriko* seme naiz [< Euskal Herri + -a + -n + -ko]  
 b. *zein herritako* seme zaitugu [< determinatzailea + herri + -n + -ko]  
 c. *gure mendietako* zuhaitzak ihartzen ari dira [< gure mendi + -ak + -n + -ko]  
 (5) a. *hanka luzeko* mahaia [< hanka luze + -ko]  
 b. \**hanka luzeetako* mahaia  
 c. \**zein hanka luzetako* mahaia?  
 d. \**bi hanka hauetako* mahaia

Dena den, (3f, 5a) adibideetan ageri den *-ko* horren bidez beti adierazten dira izakien ezaugarriak edo sailak, atzizkiak izenlagun «deskribatzaileak» eratzeko balio duelako. «X + *-(r)en*» tankerako izenlagunak, berriz, ez dira deskribatzaileak; alegia, ez dituzte ezaugarriak edo sailak adierazten, ezpada bestelako erlazioak. Bestalde, gramatikariek nagusiki «jabetza» adiera aipatu ohi duten arren, jabetza ez ezik bestelako erlazioak ere<sup>74</sup> adierazten dira atzizki honen bidez (6): egilea, jaisailea-objektua, jabea, oso(tasun)a, joskerazko lotura hutsa... Gainera, inoiz gerta daiteke sintagma berean erlazio horietako asko metatzea (6g).

- (6) a. *Andoniren* sarrera / *Andoniren* sinesmena... (EGILEA-ekintza)  
 b. autoaren erosketak (OBJEKTUA-ekintza) / autoaren eroslea (OBJEKTUA-egilea)...  
 c. *Andoniren* hilketak (OBJEKTUA-ekintza / EGILEA-ekintza)  
 d. *aitaren* etxea (JABEA-objektua)  
 e. *liburuaren* azala (OSOA-zatia)  
 f. *langabeziaren* arazoa (JOSKERA-LOTURA HUTSA)  
 g. *Monzonen* [JABEA] *Leizarragaren* [EGILEA-AGENTEA] *bibliaren* [OBJEKTUA-JAISALEA] itzulpena<sup>75</sup>

Zabala (1999: 128-133) harantzago doa, bi atzizkien arteko hurrengo desberdintasuna azpimarratuz: *-ko* atzizkiak ez du inoiz numero-aldaketarik, ezta leku-denborazko adiera hartzen duenean ere (4), horrelakoetan numero-aldaketa azpiko adizlagunarena delako; *-(r)en* atzizkiak, ordea, beti du numero-aldaketa. Eta hain zuzen ere, *-ko* atzizkia numerorik gabekoa izateak, hau da, generikoa izateak, espikatuko luke beheko adibideen arteko aldea: *-ko* atzizkia duen izenlagunak irakurketa generikoa onartzen duen bitartean (7a/i), irakurketa generiko hori ezinezkoa da *-(r)en* atzizkiarekin (7b/i). Arrazoi beragatik du (8a)-k balio generikoa («era edo klase bateko argazkia»), (8b)-k nahitaez erreferentzia zehatza («ministrotok osatzen duten familia» nahiz «ministrotok familiak» dira argazkiaren gaia edo edukia) behar duen bitartean.

<sup>74</sup> Euskaltzaindia (1985: 421-422).

<sup>75</sup> Izenlagunen egiturari buruzko xehetasun gehiagotarako, ikus Eguzkitza (1993) eta Alberdi et alii (2000b).



- (7) a. *baserriko* produktuak
  - i. mota bateko produktuak, jatorria edozein baserritan dutenak (GENERIKOA).
  - ii. baserri jakin batean jatorria duten produktuak
- b. *baserriaren* produktuak
  - i. Ø (ezinezkoa da irakurketa generikoa)
  - ii. baserri jakin batean jatorria duten produktuak
- (8) a. Europako ministroen *familiako* argazkia = Europako ministroen *familia*-argazkia
- b. Europako ministroen *familiaren* argazkia ≠ Europako ministroen *familia*-argazkia

### 15.2. **Zalantzarik gabe -(r)en eskatzen dutenak**

Postposizioen (*gainean, ondoan, aldamenean...*; *arabera, pean...*) aurreko izenekin *-(r)en* genitibo edutezkoa baizik ez da erabiltzen:

- (9) a. *Auzitegiaren* ondoan, *Parlamentuaren* aurrean...
- b. *Legearen* arabera, *legearen* pean, *legearen* bidez...

Genitibo edutezkoa erabili behar da, noski, «jabegoa» (baita intelektuala ere) adierazteko:

- (10) a. *Lapuraren* autoa...
- b. *Coulomb-en* legea

Era berean, jabegoaren kasu berezizat har daitekeen «osoa-zatia» erlazioa dagoenean ere *-(r)en* erabili behar da:

- (11) a. *liburuaren* azala
- b. *zelularen* mintza
- c. *Lurraren* erradioa

Orobat, *-(r)en* erabiltzen da irudikapenezko izenen (*argazki, irudi, erretratu...*) «edukia» adierazteko (12a, 12b, 12c) eta argumentu-egitura duten izen batzuen argumentuak adierazteko (12d-12i):

- (12) a. *mutilaren* erretratua
- b. *animaliaren* argazkia
- c. *Lurraren* irudia
- d. *infernuaren* beldurra («infernuari dioten beldurra»)
- e. *gizon gaiztoen* beldurra («gizon gaiztoei dioten beldurra»/«gizon gaiztoek duten beldurra»)
- f. *diruaren* premia / beharra / egarria...
- g. *lapurretaren* errua / erantzukizuna...
- h. *zure lagun minaren* aita
- i. *Mikelen* heriotza / hilketa...

Norbaiten edo zerbaiten pisua, neurria, etab. adierazteko ere genitibo edutezkoa erabiltzen da:

- (13) a. *langaren* garaiera
- b. *animaliaren* luzeera
- c. *Lurraren* masa

Ekintza- eta ondorio-izenen egilea eta jasailea adierazteko ere *-(r)en* erabili behar da:

- (14) a. *magistratuen* jarduera (magistratuek lanean jarduten dute)
- b. *poliziaren* atxiloteta (poliziak norbait atxilotu du / norbaitek polizia atxilotu du)
- c. *lapurraren* atxiloteta (norbaitek lapurra atxilotu du)
- d. *kontratuaren* iraungipena (kontratua iraungi egiten da)
- e. *elektroien* garraioa (elektroiak garraiatzen dira)
- f. *errektorearen* erabakia (errektoreak erabaki du)

Inguruko erdaretan aurreko testuinguruetao erlazioak adierazteko erreferentziako izenondoak erabiltzen badira ere (*manto terrestre, membrana celular, radio terrestre, decisión rectoral...*), ez dago esan beharrik horrelakoetan euskaraz soberan dagoela mailegutza<sup>76</sup>.

### 15.3. Zalantzarik gabe *-ko* eskatzen dutenak

Leku-denborazko kokapena adierazten duten izenlagunek *-ko* atzizkia behar dute. Oro har, parafraasian inesibo (NON, NOIZ) kasuko adizlagun bat agertuko da.

- (15) a. *Europako* Parlamentua = «Europar dagoen parlamentua»
- b. *mende-hasierako* legeria = «mendearen hasieran zegoen legeria»

Era berean, gorago erakutsi denez, *-ko* erabiltzen da adizlagunak edo adberbioak izenlagun bihurtzeko:

- (16) a. *lurralde pobreekiko* elkartasuna
- b. *eguzkitiko* energia
- c. *lehengo* legeria
- d. *langabeziari buruzko* jardunaldiak
- e. *gerra aurreko* literatura
- f. *literaturaren inguruko* eztabaidak
- g. *benetako* arazoa; *ohiko* eztabaidak; *batez besteko* kopurua; *antzeko* arauak; etab.

Gorago azaldu denez, *-ko* atzizkia erabiltzen da izenlagun deskribatzaileak eratzeko:

- (17) a. *ile luzeko* espeziea
- b. *10 metroko* haga
- c. *20 kilometroko* bidea
- d. *10 kiloko* harria
- e. *eroapen handiko* gizona
- f. *bista laburreko* gizona

<sup>76</sup> Ikus bedi beherago erreferentziako izenondoei eskainitako 23. atala.

#### 15.4. *-ko* zein *-(r)en* onar dezaketen izenak eta zalantzazko kasuak

Izen batzuk testuinguruaren arabera bizidun edo bizigabetzat har ditzakegu. Hortaz, horrelakoekin bi atzizkiak dira zilegi, nahiz eta esanahiak edo irakurketak desberdinak diren:

- (18) a. *Elizaren* isiltasuna («Eliza erakundearen isiltasuna»)
- b. *Elizako* isiltasuna («Eliza eraikinean dagoen isiltasuna»)
- (19) a. *Herriko etxea / plaza / taberna...* («Herrian dagoen etxea / plaza / taberna...»)
- b. *Herriaren etxea / plaza / taberna...* («Herriarena —gizaki-multzoarena— den etxea / plaza / taberna...»)

Mitxelena (1986:537) azpimarratu duenez, *herriko plaza* gaizki erabilia dago «la place du peuple» adierazteko, horren esangura «la place de la ville» baita. Hau da, *-ko* atzizkia erabiltzean toki bati buruz ari gara eta jende-multzo bati dagokiona adierazteko *-(r)en* atzizkia erabili behar da: ondorioz, sozialisten egoitzen aurrean ageri den *herriko etxea* oker horren ordeztu —esapide horrek «udaletxea» adierazten baitu Iparraldean— *herriaren etxea* jarri beharko litzateke. Gauza bera esan daiteke HBkoen *herriko taberna* eta antzerako beste *herriko* batzue buruz<sup>77</sup>.

Zenbaitetan, izenlagunaren eta izenaren artean dagoen erlazioa bi erataratu uler daiteke. Horrelakoetan kasuan kasuko atzizkia erabili behar da: «jabetza» adierazi nahi bada, *-(r)en* erabiliko da; «leku-denbora» adierazi nahi bada *-ko* erabiliko da.

- (20) a. *etxearen* jabea («etxeak duen jabea»)
- b. *etxeko* jabea («etxean dagoen jabea»)
- c. *komunioko* oroitzapena («jaunartze-eguneko oroitzapena»)
- d. *komunioaren* oroitzapena («jaunartzeaz dugun oroitzapena»)<sup>78</sup>

Hurrengo adibideetan bi atzizkien arteko kontrajarpena ageri zaigu: baina behereko *-ko* hori ez da leku-denborazkoa, izenlagun deskribatzaileak sortzekoa baizik; bestalde, azpiko egituraren objektuaren betekizuna duen izenlagunari *-(r)en* dagokio inolako zalantzarik gabe.

- (21) a. *birtute handiko* predikaria («predikariak birtute handiak ditu»)
- b. *birtute handien* predikaria («predikariak birtuteak ditu mintzagai bere predikuetan»)

Beste batzuetan, aurreko irizpideekin nekez azaldu daitezkeen zalantzazko kasuak daude. Idazlanetan ere —are idazle berarengan— ez dira falta halako gorabeheren eta zalantzen lekukotasunak (22).

<sup>77</sup> Ikus Sarasola (1997: 102-103, «herriko etxea» sarrera).

<sup>78</sup> Ik. Lafitte (1944: 420):

- a) saildu hori ene *komunione*ko orhoitzapena da
- b) gogoan daukat *urhats* horren orhoitzapena

- (22) a. *azken kontuetako egunean / azken kontuen egunean* (AA)  
 b. *arimako kontuak* (Ax 350) / *nere animaren kontuak* (Arr May 32)  
 c. *kontzientziako etsamina* (CatJauf 15) / *konzienziaren examena* (CatLan 109)  
 d. *kontzientziako garbitasuna* (CatJauf 114) / *konzienziaren garbitasuna* (Ax 287)  
 e. *kontzientziako harra* / *kontzientziaren harra*  
 f. *bekatuko eskola* / *bekatuaren eskola*

Hona hemen, zalantza ohikoenak:

- (23) MULTZO BATEN / BATEKO ELEMENTUAK:  
 a. *familiaren / familiako burua*  
 b. *3. artikulua / artikuluko 5. zenbakia*  
 c. *5. zenbakiaren / zenbakiko 2. paragrafoa*  
 d. *Elhuyarren / Elhuyarreko lankideak*  
 e. *Lehendakaritzaren / Lehendakaritzako idazkaria*  
 f. *Estatuaren / Estatu Kontseilua*  
 g. *Unibertsitateko / -aren errektorea*  
 h. *Fakultateko / -aren dekanoa*  
 i. *Kontseiluko / -aren burua* (buruzagia)  
 j. *Bizkaiaren / -ko hiriburua*  
 k. *Elizako / -ren gurasoak*
- (24) *Euskal Herriaren / -ko historia*
- (25) ERAKUNDE ETA GISAKOEN EKINTZAK AIPATZEAN:  
 a. *Euskaltzaindiaren / Euskaltzaindiko bilera*  
 b. *Alkatetzaren / Alkatetzako bandua*  
 c. *Udalaren / Udaleko aurrekontuak*  
 d. *Eusko Jaurlaritzaren / -ko ikerketa-proiektuak*
- (26) BATZUETAN AZPIAN EZ DAGO EZ INESIBO EZ ERGATIBORIK:  
 a. *latineko / latinare / latinezko / latin eskola* (liburua/irakaslea)  
 b. *morfologiako / -aren / -zko / ø kasuak*  
 c. *Zuzenbide Kanonikoko / -aren / -zko Kodea*  
 d. *Filosofiako / -aren / -zko / ø Fakultatea*

Goiko (23) bezalakoetan badirudi bi irakurketak («osoa-zatia» eta «kokape-na») direla zilegi. Beraz, gramatikaren ikuspegitik bi atzizkiak (-en zein -ko) dira zuzenak. Hala ere, (23) modukoetan erabilerazko gomendiorik ematekotan, behar-bada, -ko atzizkiaren alde makurtuko ginatke<sup>79</sup>; izan ere, [+/-bizidun] tasunari

<sup>79</sup> Horixe bera da, hain zuzen ere, Egunkariak (1995: 51-52) eta Petrirenak (1994) egin duten hautua.

Dena dela, bi izenen artean azpiegituran uler daitekeen erlazioa ere kontuan hartu beharko litzateke. Hau da, gure ustez, beheko (2) adibideko *zuzendari* izenarekin, *zuzendu*-tik eratorria den heinean, «tema-agentea» erlazioa datorkigu gogora eta lotura horrek zilegiztatzen du, agian, (2b)-ren aldeko apustua. Beraz, lehen adibidean -ko bultzatzearen aldekoak bagara ere, bigarren eta hirugarren kasuan (2b) eta (3b)-ren alde egingo genuke. Laugarren adibidean, berriro ere, lehen adibidean bezalatsu joka daitekeela uste dugu.

- (1) a. herriko buru(zagi)a  
 b. herriaren buru(zagi)a  
 (2) a. filmeko zuzendaria  
 b. filmaren zuzendaria

begira *-ko* atzizkia markatua bada ere, bestelako testuinguruetan<sup>80</sup> badirudi hiztunek alderantzizko joera dutela, *-ko* atzizkiaren aldekoa, alegia. Hain zuzen ere, (23)-ko zalantza horiek direla eta, hauxe dio Euskaltzaindiak bere gramatikan (1993a:153): «aukeran, naturalagotzat hartzen da bat bestea baino» eta honako egiturak jotzen dira naturalagotzat:

- (27) a. Bizkaiko hiriburua  
 b. Unibertsitateko Errektorea  
 c. herriko alkatea  
 d. Historiako Fakultatea  
 e. Elizako mandamenduak (*Elizaren mandamenduak* ere ageri da, baina ez du horrenbesteko maiztasunik)  
 f. penitentiako sakramentua (literaturan ez da agertzen *penitentiaren sakramentuak* bezalakorik<sup>81</sup>)  
 g. etxeko nagusia  
 h. etxeko gizona  
 i. etxearen jabea

Ez da ahaztu behar, gainera, *-ko* atzizki horren azpian balio desberdin ugari biltzen direla: besteak beste, *nongo*, *noizko* eta orain arte aipatu gabe geratu den *zertako* galdekariei dagozkienak<sup>82</sup>. Nolabait sinkretismo hori —alegia, forma beraren itxurapean balio ugari bat egitea— *-ko* atzizkiaren izaera markatugabearen alde mintzo da. Hona hemen, *EGLU*-ko eta idazleen adibide «bitxi» batzuk, *nongo* eta *noizko* galdekarien erantzun gisa nekez azaldu daitezkeenak:

- (28) a. *igeritako* galtzak (*EGLU*-I, 371)  
 b. *laneko* tresna (ibid.)  
 c. *mezatako* liburua (ibid.)  
 d. *lotako* txanoa (ibid.)  
 e. *kontzientziako* etsamina (*CatJauf* 15);  
 f. *mattimonioko/ezkontzako / komunioko* sakramentua (AA)  
 g. *konfesiñoko* sakramentua (Mg *CO* 271)  
 h. *Elizako* aginduak (Mg *CO* 211)  
 i. Jangoikoaren *zerbitzuko* trabajua (LE *Prog* 114)  
 j. zeure *gustuko* jaki, ta kopaua (Añ4 *El-I* 55)  
 k. *fedeko* gauzetan (*CatBus* 17)  
 l. *jostetako* gauza (ES 181)  
 m. *euskerako* kontubetan (Mg *PAb* 173)  
 n. *pestako* apanak (Uzt *Sas* 44)

- (3) a. tesiko zuzendaria  
 b. tesiaren zuzendaria (MEIG VIII 88)  
 (4) a. kontseiluko zuzendaria  
 b. kontseiluaren zuzendaria

<sup>80</sup> Bistan denez (Mitzelena, 1986: 537), «objektua-ekintza/egilea» harremanak adierazteko *-(r)en* erabili behar da: *kristauren salaketa*, *artoaren ereilea*, *kateen birrintzaila*, etab.

<sup>81</sup> «*-ko sakramentua*» segida ageri da ia beti (*ezkontzako / komunioko / aldareko / konfesioko / aitortzako / extremazinoeko / Elizako / oleazioko / bataioko ... + sakramentua*), baina *gorputzaren eta odolaren sakramentua* edo *Eliza Ama Santearen sakramentuak*.

<sup>82</sup> Euskaltzaindia (1985: 368 eta hurr.).

- ñ. andre dena Mariaren *ohoretako* zenbait othoitz gabe (Dh 265)
- o. *heriotzako* ordua
- p. *juizioko* eguna (AA III 455)
- q. *governamenduko* eskolak (HU Zez 42)
- r. *hizkerako* gauzetan (Ag Kr)
- s. *euskarako* mintzatze molde guztietara (Ax)
- t. *proiektuko* bilera

(24) eta (25) gisakoetan bi atzizkiak izan daitezke zuzenak, hiztunak kasuan-kasuan egiten duen kontzeptualizazioaren arabera: horrelakoetan «egilea edo jabea» eta «kokapena» dira irakurketak.

- (29) a. *Euskal Herriaren* historia («Euskal Herriak duen historia»)
- b. *Euskal Herriko* historia («Euskal Herrian gertatu den historia»)
- (30) a. *Euskaltzaindiaren* bilkura («Euskaltzaindiak egin duen bilkura»)
- b. *Euskaltzaindiko* bilkura («Euskaltzaindiaren egoitzan egin den edo egitekoa den bilkura»)
- (31) a. *Eusko Jaurlaritzaren* proiektuak («Eusko Jaurlaritzak egin/egiteko dituen proiektuak»)
- b. *Eusko Jaurlaritzako* proiektuak («Eusko Jaurlaritzatik datozen proiektuak»)

(26)ko adibideen modukoetan, oinarri edo azterketa sendorik ez badugu ere<sup>83</sup>, uste dugu tradizioko eta hizkuntza mintzatuko erabileran *-ko* eta hitz-elkarketa —debekurik ez bada, behintzat (32e, 32f/g)— nagusitzen direla.

- (32) a. *latineko* eskola (liburua/irakaslea) / *latin(-)*eskola
- b. *morfologiako* kasuak / *morfologia(-)*kasuak
- c. *Filosofiako* Fakultatea / *Filosofia* Fakultatea
- d. *Zuzenbide Kanonikoko* Kodea
- e. \**Zuzenbide Kanoniko(-)*Kodea
- f. *harrera-zenbakia* / *harrerako* zenbakia
- g. *harrera pertsonaleko* zenbakia / \**harrera pertsonal* zenbakia

IDAZLEEN ADIBIDEAK

- h. «*Dretxo*»-ko eskola handiek (Ardoy SFran 44)
- i. *Jesusen Biotzeko* eskola onetan (Cb Jus 16)
- j. *desonestidacedo* esolaan atzijac (fB)
- k. *egako lezioak* (It Fab 148)
- l. *pekatuko* eskolia, *pekatuko* lagunak, *pekatuko* bidiak, ta *pekatuko* okasinoiak (fB Ic I 318)
- m. *sofako* eskolan (Mokoroa 7714)

Behin *musika(-)eskola* / *musikako* eskola modukoen erabilera-nagusitasuna azpimarratuta, zalantza sortzen zaigu horrelako izenlagunek numero-aldaketarik onartzen ote duten. Hau da, *lan-eskola* eta *laneko* eskola sintagma ongi eratuen

<sup>83</sup> Goragoko (7) eta (8) adibideez esandakoa argigarria gerta daiteke erabilera hau azaltzeko (Zabala, 1999: 130); izan ere, *latineko irakaslea* gisakoetan «latineko» izenlaguna generikotzat hartu behar da: haren bidez ez da adierazten erreferentzia zehatza duen objektua, ezpada «irakasle-mota bat».

aldamenean, zein lotura-marka *-(r)en*, *-(e)tako*, *-(e)tarako*) erabili behar ote da *lan-harremanak* izen-elkarte plurala *eskola* izen bakunari lotzeko?

- (33) a. *lan-harremanen* eskola
- b. *lan-harremanetako* eskola
- c. *lan-harremanetarako* eskola

(33)-ko hiru irtenbideak dira zuzenak seguruenik. Baina hemen bereziki (33b) modukoan egokitasuna azpimarratu nahi dugu, are gehiago kontuan hartzen badugu *-etako* atzizkian balio askoren —eta batez ere balio destinatiboaren— sinkretismoa gertatu dela<sup>84</sup>. Beraz, hitz-elkarketan arazoak ditugunean *-ko* atzizkia bultzatzen genezake<sup>85</sup>. Hona hemen, literaturako adibide interesgarri batzuk<sup>86</sup>:

- (34) a. Onelan liburu desonesto, ta *kontu zantarretakuak* (Mg CO 120)
- b. [ez dugu] *emazteetako* bekhaturik egiten (Ax)
- c. *begietako* bista (Ax 123, 256...)
- d. *Begietako* ikuste bat, beingo bateko begirada bat ta askotan iragote uste bageko arin batek ostuten dau biotza (Añ4 GGero 267).
- e. Badakizu umeak izaten direla maizenik aita-amak iduriak; zezen eta behi *seinale beretakoek* ere eginen dituzte beren iduriko umeak. (Dv Lab)
- f. Nola bada munduan Ama Birjiñaren aiñ izen, eta imajiña asko, eta diferenteak arkitzen dira? Errosariokoa, Karmengo: *Merzedetako*: Guadalupekoa: Almudenakoa: Atotxakoa: Aranzazukoa: Monserratekoa: Konzeptziokoa: *Doloretako*: Soledadekoa, eta beste ezin kontatu ala? (Gco)
- g. O *Iainko ahal guztietako* eta kurrikalmendutsua (EZ Eli@8c 203)
- h. (...) da billatuten ditut emakume bi *eskuetako lanetan* zeregindurik dagozala (Ag AsL 10)
- i. *ordu luzietako* bidian (Ag Kr 70)
- j. *Datuetako*, *kartetako* eta bertze horrelako iokoak (SP Phil 368)
- k. agertzeko *kontuetako* egunean Jesu-Kristoren aurrean (AA III 274)
- l. *adin guztietako presunek* (JesBih 392)
- m. *mueta guztietako* jendiak (Bv AsL 191)
- n. egundaino izan ezteularikan *gramatikako*, eta *zientzietako* laguntzarik (ES 107)
- ñ. *gerletako* imintzionerik eta nekherik batere gabe (Lg I 189)
- o. *elekzionetako* denboretan (Elsb Fram 184)
- p. *Kultuetako*, *konzienziako*, *inprentako*, *gogorazinoeko* edo *pensamentuko* libertadeak, (Itz Azald 053)
- q. *Abemarietako* ordua edo joaldia (EH)
- r. Jainkoaren *itsasoetako* agintaritzia (EH)

Ondorioz, Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batua*-n ageri diren *hortzetako eskuila* eta *hortzetako pasta* esapideen ildotik, hurrengoan modukoak bultzatzen genezake:

<sup>84</sup> *Bilboko tren*a izan daiteke: a) «Bilbon dagoen tren»a; b) «Bilbora doan tren»a; c) «Bilbotik dato-ren tren»a...

<sup>85</sup> Beti ere, argumentu-egiturak edo izenen arteko erlazioak *-(r)en* atzizkia erabiltzera bultzatzen ez gaituen bitartean. Esate baterako, azpiko egituran izenlagunari objektuaren zeregina dagokionean eta antzerako kasuetan *-(r)en* erabili beharko da: *kimikako eskola*, baina *kimikaren irakaskuntza*.

<sup>86</sup> Egunkariak (1995: 52) eta Petrirenak (1994) *Informazio Zientzietako Fakultatea* eta *Arte Ederretako Museoa* modukoak aldeztzen dituzte.

- (35) a. *Lan Harremanetako* Eskola  
 b. *barne-arazoetako* ministroa  
 c. *Europako aferetako* estatu-idazkaria  
 d. *Arte Ederretako* Museoa (*Arte Ederren* Museoa)  
 e. *Zientzia Politikoetako* Fakultatea (*Zientzia Politiko*en Fakultatea)  
 f. *Hauteskunde Sindikaletako* Batzorde Nazionala (*Hauteskunde Sindika*len Batzorde Nazionala)

Beste batzuetan atzizki hauen zeregina lotura hutsa gauzatzea da (36, 37) eta aposizioen antzeko zeregina betetzen dute; are gehiago, zenbaitetan lehiari sartzen dira aposiziozko egiturarekin (36c/36e; 37; 38; 39).

- (36) a. *langabeziaren* arazoa / gaia / auzia...  
 b. \**langabeziako* arazoa / gaia / auzia...  
 c. *arau* kontzeptua  
 d. \**arauko* kontzeptua  
 e. *arau fiskalaren* kontzeptua / *arau fiskal* kontzeptua  
 f. \**arau fiskaleko* kontzeptua
- (37) *PASAIA HERRIA = PASAIA*  
 a. *Pasaiako* herria  
 b. *Pasaia* herria  
 c. \**Pasaiaren* herria  
 d. *Pasaia*
- (38) *UNAMUNOREN PLAZA # UNAMUNO*  
 a. *Unamunoren* plaza  
 b. \**Unamunoko* plaza  
 c. ?*Unamuno* plaza<sup>87</sup>
- (39) *FELIPE EDERRAREN PLAZA # FELIPE EDERRA*  
 a. *Felipe Ederraren* plaza  
 b. \**Felipe Ederreko* plaza  
 c. \**Felipe Ederra* plaza  
 d. # *Felipe Ederra*
- (40) *AURREKO BI EGITURAK*  
 a. *Santa Maria* eliza (*Santa Maria* elizaren izena da)  
 b. *Santa Mariaren* eliza (*Santa Maria*-k Ama Birjinari egiten dio erreferentzia)  
 c. *Santa Mariako* eliza (*Santa Maria*-k tokia adierazten du)  
 d. *Santa Maria*

Inoiz edo behin aditz-izenarekin ere gertatu ohi dira zalantzak: *-t(z)earen* ala *-t(z)eko*? Dena dela, gehienetan banaketa aski argia dela dirudi: *-(r)en*, beste edozein izeni lotuko litzaiokeen inguruneetan lotzen zaio aditz-izenari —alegia, gorago adierazitako erlazioetako bat adierazteko— eta forma markaduna da (41); *-ko* da izenaren eta aditz-izenaren arteko lotura ohikoa edo markagabea (42).

<sup>87</sup> Ikus Euskaltzaindia (1993: 154).



(41) -T(Z)EAREN

- a. *kolonizatzearen* ondorioak / *eritasunaren* ondorioak
- b. Wolframaren *bakartzearen* 200. urteurrena (EH, «bakartze») / *jaiotzearen* urteurrena
- c. Egiazko *baketze eta bateratzearen* alde (EH, «baketze») / *bakearen* alde
- d. Euskal gizartea *abertzaletzearen* erakusgarriak (EH, «erakusgarri») / *pizkudearen* erakusgarriak
- e. *Orkestratzearen* jabe zen... (EH, «jabe») / *bere buruaren* jabe zen
- f. *kutsatzearen* eragilea (EH, «kutsagarri») / *kutsaduraren* eragilea
- g. *hitzen eratzearen* arloan (EH, «eratze») / *hitzen eraketaren* arloan
- h. Nafarroaren *erdalduntzearen* urratsak (EH, «erdalduntze») / Nafarroaren *hazkudearen* urratsak
- i. Jainkoaren Semearen *haragitzearen* misterioa (EH, «misterio») / ...*pizkudearen* misterioa
- j. *indar-neurtzearen* epailea (EH, «neurtze») / *indar-neurketaren* epailea
- k. mintzatu gara jadanik lurraren barnatasunaz eta *barnatzearen* onaz (EH, «barnatze») / ...*goldaketaren* onaz
- l. Sozialismoak *indar hartzearen* errua... (EH, «erru») / Sozialismoaren *indarraldiaren* errua
- m. Zure anaiaren *hiltzearen* berria (EH, «hiltze») / ... *heriotzearen* berria
- n. Argiaren *islatzearen* legeak (EH, «islatze») / ...*islapenaren* legeak

(42) -T(Z)EKO

- a. *partitzeko* tenorea / denbora / ordua...
- b. *jostatzeko* lekua / tokia / ...
- c. *galtzeko* bidea / erremedioa / konponbidea...
- d. *egiteko* erabakia / burubidea / deliberamendua / burubidea...
- e. *debekatzeko* agindua / manamendua / ordenantza / promesa...
- f. *mintzatzeko* moldea / modua / era / manera / tankera...
- g. *begiratzeko* premia...
- h. eskean *ibiltzeko* arriskua / perila...
- i. *hilobiratzeko* itxurak (egin) / seinalea / zantzua...
- j. *ihardukitzeko* parada / aukera / okasio...
- k. *ilkitzeko* eta Jainkoa baitan *pentsatzeko* desirkundeak
- l. *bizitzeko* esperantza / itxaropena / ustea...
- m. gogoan *edukitzeko* puntua / kontua...
- n. *jasateko* indarra / boterea / ahala...
- ñ. *ibiltzeko* gogoa / nahia / desira / borondatea / nahikundea / gogoa...
- o. *erabiltzeko* ohitura / usantza / usadio...
- p. *betetzeko* eskubidea / ...
- q. *egiteko* ustea / itxaropena / asmoa...
- r. *egiteko* ausardia / ...
- s. *saltzeko* debekua / eragozpena / aitzakia / ...
- t. *botatzeko* zorian...
- u. eske(an) *ibiltzeko* beharrik gabe
- v. *gorrotatzeko* arrazoiak ...
- w. *egiteko* beldurra...
- x. *agertzeko* kezkarik gabe
- y. *ahazteko* kontua / gaia...
- z. *heltzeko* poza / segurtasuna / ziurtasuna...

Alde horretatik, ez dirudi *kirola bultzatzearen erabakia* edota *kirola bultzatzearen beharra* moduko esapideak batere gomendatzekoak edota tradizioaren araberakoak direnik. Haien ordez, *kirola bultzatzeko erabakia* eta *kirola bultzatu beharra/kirola bultzatzeko beharra*<sup>88</sup> —nahiz perifrasi jokatua (infra 52)— erabiltzea gomendatuko genuke. Horrelakoetan, testuinguruaren eta izenaren arabera erabakitzen da egitura, eta berez goiko esapideak *-(r)en + izena* okerrak direla esan ezin badaiteke ere, ez dago dudarik tradizioan *-t(z)eko erabakia*<sup>89</sup> eta «partizipioa + *beharra*» izan direla nagusi<sup>90</sup>.

Hona hemen, «partizipioa + *beharra*» egituraren adibide banaka batzuk:

- (43) a. Oraindik orain idatzi nuen (...) izango nuela luzatu gabe Kerexeta jaunaren idazlanez berriro ere *mintzatu beharra*. (MEIG III 59).
- b. (...) lan eskergarri askoren ekarria *onartu beharra* zegoen ezbairik gabe (J.M. Lekuona)
- c. (...) damu dut horrela *mintzatu beharra* (MEIG I 242).
- d. (...) *aukeratu beharrak* sortzen dituela kezka... (MEIG VI 172).
- e. (...) hemendic *ioan beharraz* ardura pensatzen dugularic.
- f. (...) agertu zien gordanza ta agertu bage *egon beharra* (Mb IArg 316).
- g. (...) geldi-geldi eta txintik atera gabe *egon beharrak* ez du inor alaitzen (MEIG I 47).
- h. Usteak uste, oso gauza ezberdinak dira, zerbait herri usaina dariola eta besterik gabe *kontra egin beharra*, eta geldotasun nahiz hoztasunez ari izatea. (MEIG VI 40).

Izan ere, (41) eta (42)-ko adibide-zerrendek erakusten dutenez, bi atzizkietatik badirudi *-ko* dela forma markagabea aditza izenlagun bihurtzeko. Beste marka *-(t(z)earen)* benetako izenekin erabili ohi da, alegia izenetik aditzetik baino gehiago duten aditz-izenekin: horregatik agertzen zaigu (41)-eko adibideetan lexikalizatuturiko aditz-izenekin (*kolonizatze, bakartze, baketze, bateratze, kutsatze, eratze, erdalduntze...*).

Beste izen batzuekin (*arrazoi...*), hala ere, zalantza gehiago sortzen zaizkigu (44a/44b). Nolanahi ere, (44) gisakoetan ere, *-t(z)eko arrazoi* egitura ohikotzat hartu behar delakoan gaude eta (44a) egitura markatutzat.

<sup>88</sup> Ikus Euskaltzaindia (1987: 454-455). Hona hemen, zenbait adibide:

- a) (...) *ihardesteko beharrik* eztüzü (Mst III, 24, 1).
- b) (...) heien *justifikatzeko arrazoinak* aditu ere gabe (Elsb Fram 160).
- c) (...) hari barkhamendu *escatceco beharra* bethi badugula (*CatLav* 245).

<sup>89</sup> Alberdi et alii (2000b).

<sup>90</sup> *Behar* izenak genitibo edutezkoa eskatzen du izen eta izenordei lotzerakoan (*familiaren beharra, zure beharra...*), baina aditzekin oso bestela jokatu ohi da OEK-k («behar» sarrera, 265.or.) ongi erakusten duenez: «Las expresiones del tipo “necesidad de...” se realizan bien con genitivo (siempre, si se trata de un pronombre), bien con el sust. indet. antepuesto [*mediku-beharrik*]; la 2.ª posibilidad es algo más frecuente en los textos meridionales. (...). Si se trata de un verbo, lo general es usar el part., pero hay ejs. septentrionales desde mediados del s. XIX (de Hiribarren, Hiriart-Urruty, etc.) y tbn. alguno meridional más reciente (de Orixe, p. ej.) en los que se emplea el sust. vbal., con o sin gen.» Eta, genitiborekin, Hiriart-Urrutyren ondoko adibidea dator:

-Adiskideek ez dutela *erratearen beharrik*, hartaz eta haren lagunez oroitzeko. (HU Zez 17).

- (44) a. Edozein delarik gidabaimena *kentzearen* arrazoia...<sup>91</sup>  
 b. Ezozein delarik gidabaimena *kentzeko* arrazoia...

**Aztertzeo adibideak:** -T(Z)EKO / -T(Z)EAREN

- | DUDAZKOAK   | EGOKIAGOAK  |
|---|---|
| (45) Kirola <i>bultzatzearen erabakia</i> berretsi du Eskola Kontseiluak.   | (46) Kirola <i>bultzatzeko erabakia</i> berretsi du Eskola Kontseiluak.   |
| (47) Hala ere, kontuen ikuskaritza zehazki <i>arautzearen beharra</i> ekarri dute enpresa munduko bilakaerek.                         | (48) Hala ere, kontuen ikuskaritza zehazki <i>arautu beharra</i> ekarri dute enpresa munduko bilakaerek.                            |
| (49) kontrolako ahultasunak <i>jakin-araztearen betebeharrari</i> buruzko Ikuskaritzarako Arau Teknikoa...                            | (50) kontrolako ahultasunak <i>jakinarazteko betebeharrari</i> buruzko Ikuskaritzaarako Arau Teknikoa...                            |
| (51) (...) enpresa konkretu batzuek kontuen auditore independente batek berrikusitako kontuak <i>aurkeztearen beharra</i> dutelako... | (52) (...) enpresa konkretu batzuek kontuen auditore independente batek berrikusitako kontuak <i>aurkeztu behar dituztelako</i> ... |

16. ETA, EDO / ALA<sup>92</sup>...

16.1. **Izen-sintagmak ala izenak juntatu?: \*etxeA eta kaleAN > etxeAN eta kaleAN...**<sup>93</sup>

*Eta* emendiozko juntagailuaren bidez kasu-marka bereko izen-sintagmak, nahiz sintagmaren barneko osagaiak junta ditzakegu, hurrengo bi adibideek erakusten duten bezala, hurrenez hurren:

- (1) a. *Lagunez, adiskideez eta etxekoez* mintzatu ziren.  
 b. *Lagun, adiskide eta etxekoez* mintzatu ziren.

Bigarren adibidean, izenak juntatzen ditu *eta* juntagailuak, ardatz anitzeko sintagma osatuaz.

Literatura-tradizioan bi egitura horiek nola erabili diren azaltzea eta gaurko erabilera okerrak saihesten ahalegintzea da arau honen helburua. Hona hemen, Euskaltzaindiaren 111. araua («Izen-sintagmen arteko juntadura dela eta»).

<sup>91</sup> Goenagak (1980: 362) ematen duen (a) adibidea baino ohikoagoak dira beste biak (b, c):

- a) Zuregana *etortzearen* arrazoiak.  
 b) (...) pekatu mortala *gorrotatzeko* edo *aborrezitzeko arrazoi* aundiak ondotxo kontsideratu itzazue (Geo II 11)  
 c. (...) heien *justifikatzeko arrazoinak* aditu ere gabe (Elsb *Fram* 160).

<sup>92</sup> Atal honetan, ia hitzez hitz jaso dugu Euskaltzaindiko Gramatika Batzordearen 1994ko gomen-dio-azalpena (EUSKALTZAINDIA, 1994b: 903-905). Era berean, *EGLU-IV* liburuaren azalpen xeheak laburtzen saiatu gara (ik. Euskaltzaindia, 1994a). Adibideetarako, Azkarate (1995)-etik abiatu gara, adibide berriren batzuk gehituz.

<sup>93</sup> Euskaltzaindiaren 111. araua («Izen-sintagmen arteko juntadura dela eta») jaso dugu azpialat honetan.

### **Euskaltzaindiaren araua:**

1. Kasu-marka bera dakarten sintagmak beti junta daitezke:

- (2) a. *Bilboko jokalariek eta Bermeoko arraunlariek* batzarra egin dute.  
b. *Zure etxeaz eta gure lanbide berriaz* mintzatu dira.  
c. *Baionatik, Bilbotik eta Gasteiztik* omen datoz ikasle horiek.  
d. *Zuri, niri eta beste askori* gertatu zaigu hori.

2. Areago, juntagaiak erakusleak edo pertsona-izenordainak direnean, nahita-ezkoa da sintagma osoak juntatzea:

- (3) a. *Zuk eta guk* egingo dugu (eta ez *\*zu eta guk* egingo dugu).  
b. *Niri, zuri eta beste lagunei* gertatu zaigu (eta ez *\*ni, zu eta beste lagunei* gertatu zaigu).  
c. *Gutaz eta zuetaz* mintzo dira (eta ez *\*gu eta zuetaz* mintzo dira).  
d. *Honekin eta harekin* mintzatu zen (eta ez *\*hau eta harekin* mintzatu zen).

Gainera, bai *eta*, bai *edo/ala/nahiz/zein* juntagailuekin honako joerak ikusten dira literaturan:

3. Singularreko sintagmetan, kasu-markadun sintagmak juntatzea gomendatzen da:

- (4) a. *Etxean eta kalean* nonahi berdintsu jokutzen du  
b. *Aitari edo amari* esaiotzu nirekin hitz egitera etortzeko  
c. *Itsasoan eta lehorrean* bizi diren narrastiak.  
d. *Alkateak eta idazkariak* sinatu dute akordioa.

Dena den, errazagoa da izenak juntatzea izenak oso hurbilekoak direnean (a, b), edo izenlagunaz (c, d) nahiz izenondoaz (e) lagundurik doazenean, ardatz anitzeko sintagma osa daiteke, kasu-marka amaieran ezarriaz<sup>94</sup>:

---

<sup>94</sup> Orobat, juntagaiak izen propioak direnean, errazago gertatzen da izenak juntatzea (Euskaltzaindia, 1994c: 903-904):

- (1) *MARI ETA JOSETXOK* lagundu zioten bide erdira arte

Zenbaitetan zalantzak sor daitezke izenondoaren (eta izenlagunaren) hedaduraz, hau da, ez da argi ikusten izenondoa (eta izenlaguna) bi izenei dagokien ala bakar bati bakarrik (ik. 111. araua, 1082. or.):

- (2) *Unibertsitateko kargudun eta langile berriek* bihar bildu behar dute.  
a. [unibertsitateko kargudun berriek] eta [unibertsitateko langile berriek]...  
b. [unibertsitateko kargudunek] eta [langile berriek]...  
c. [unibertsitateko kargudunek] eta [unibertsitateko langile berriek]...  
d. [unibertsitateko kargudun berriek] eta [langile berriek]...

Anbigutasunak gorabehera, goiko (2) egokia izan daiteke (2a) irakurketa lortu nahi bada. Baina (2b) irakurketa lortu nahi bada, egokiagoa da —nahiz ez den anbiguotasuna erabat desagertzen— kasu-marka bi juntagaietan agerraraztea:

- (3) *Unibertsitateko kargudunek eta langile berriek* bihar bildu behar dute.

Bestalde, izen ardatz bakar bati dagozkion bi izenondo direnean, izenondoaren zuzeneko juntabidea hobetsiko da kontrako arrazoirik ez bada testuinguruan:

- (4) a. euskaltzale ZINTZO ETA LEIALARI (hobestekoa)  
b. euskaltzale ZINTZOARI ETA LEIALARI (markatua: indar emateko edo)

Gauza bera gertatzen da izenlagunekin:

- (5) a. *FAKULTATEKO ETA HIRIKO kargudunen* aldeko hitzak (hobestekoa)  
b. *FAKULTATEKO KARGUDUNEN ETA HIRIKOEN* aldeko hitzak (korapilatsua)

- (5) a. GORPUTZ ETA ARIMATIK atera den oihua.  
 b. BERE EMAZTE ETA ALABARI galdetu zien.  
 c. *Bizinahiak ematen duen* INDAR ETA ADOREZ...  
 d. Etxejabeak *gure* PATXIKO ETA LAGUNEI bazkaria ematen die.  
 e. LAGUNTZA ETA SARI ABERATSENAK jaso zituzten.

4. Pluraleko sintagmetan, izenak ere junta daitezke, kasu-marka amaieran emanaz. Kasu-sintagmak juntatzea (ekialdeko joera) edo izenak juntatzea (mendebaldeko joera), aukeran izaten da orduan<sup>95</sup>:

- (6) a. *Itsaso, mendi eta basamortu*ETAN ibili da.  
 b. Maite ditut *lagun eta ahaide*AK.  
 c. *Adiskide eta lankide*EI kontatu diet.  
 d. *Meatz eta lantegi*ETATIK atera da oihua.  
 e. Maite ditut *eguzki, zero eta izar*rak.

5. Determinatzailea duten kasu-markarik gabeko izen-sintagmak ezin junta daitezke kasu-markadun sintagma batekin:

- (7) a. \**Mendia eta itsaso*TIK heldu da ura.  
 b. \**Adiskide*AK eta *lagun*EZ mintzatu zara.  
 c. \**Buru*A eta *zango*EI behatu nien.  
 d. \**Bihotza eta buru*AK horretaratzen nau(te).  
 e. \**Gizon* HAU eta *emakume* HARK *esango* dizute.  
 f. \**Ingelesa eta frantsesari* buruzko iritziak.  
 g. \**Itxaropena eta esperantzari* bidea eginez.

Genitibodun sintagmetan ere ez da zilegi sintagma mugatu soila eta genitiboko sintagma juntatzea<sup>96</sup>:

<sup>95</sup> Hala ere, juntagailu hautakariekin (*edo, ala, nahiz, zein*-ekin) joera handiagoa dago izen-sintagma osoak juntatzeko.

<sup>96</sup> Postposizio modukoak diren *-gan, -gana, -tzat* edo *-gatik* bezalako atzizkiak genitiboarekin ager daitezke (*Maddalen-engana, Maddalen-entzat...*) eta orduan genitiboaren mailan moztuz izenlagunak junta daitezke (EGLU-IV, 43-46):

- (1) a. PiarresEN eta MaddalenENGATIK.  
 b. AuzoAREN eta alkateARENGANA joan nintzen.  
 c. AuzapezaAREN eta zinegotziENTZAT ere hori esan dezakete.  
 d. Haren arima saildua joan zen zerurat bere birjinitateAREN eta martiriuAREN *gatik* hartzen zuen bethiereko zorionaz gozatzera (Jnn *SBi* 141).  
 e. *illen* eta *bizi*ENGATIK Jaungoikoari otoitz itia (Ultzamako apeza, *Kristau Dotriñe*).  
 f. Arrazoirik onenak aurkitzen ditu batzuen eta besteENTZAT (*MIH* 315)

Postposizioak sintagma absolutua onartzen badu osagai moduan, joko berak egin daitezke noski:

- (2) a. ZU eta NI baitan  
 b. MADDI eta PiarresGANA

Normalena, hala ere, orain arte aipatutako joeren arabera, kasu-sintagma osoak eta izen soilak —pluralean— juntatzea da; eta singularreko sintagmak direnean, kasu-markadun sintagmak juntatzea gomendatzen da:

- (3) a. EmazteARENGAN eta semeARENGAN konfiantza osoa dut.  
 b. Hiria itsu(ENTZAT) eta ezinduentzat egokitu beharra dago.  
 c. ??Emazte eta semeARENGAN konfiantza osoa dut. (bakanago)

- (8) a. \*Ikastolak eta gobernuAREN arteko bilerak.  
 b. \*Irakaslea eta ikasleAREN arteko harremana.

## 16.2. *Edo / ala: (?) hil ala biziko kontua... > hil edo biziko kontua*

Bi juntagailu horien arteko desberdintasuna aukera inklusibo edo eksklusiboari lotua dagoela irakatsi izan da askotan azken urteetan. Horregatik, batek baino gehiagok uste du «aukera inklusibo ala eksklusiboa» esan behar dela, bietatik bat izan behar baitu, ezin dira biak batera izan. Ez da hori izan baina literaturako erabilera. Bi juntagailuen arteko desberdintasuna azaltzeko, bi puntu hartu behar dira kontuan: zein motatako perpausuan azaltzen diren juntagailuok eta zein motatako aukera adierazten duten:

Bi puntu horiek uztartuaz eta literaturako erabilerean arabera, honako gomendioak eman daitezke:

1. Beti da zilegi *edo* erabiltzea, hori baita juntagailu hautakari markatugabea.
2. *Edo* eta *ala* bereizi nahi badira, *ala* juntagailuaren erabilerean finkatzea da errazena, gainerakoetan *edo* izango da-eta erabiltzekoa:

a) *Ala* galde-perpausetan, zuzeneko nahiz zeharkakoetan<sup>97</sup>, erabiltzea gomendatzen da, galdegai diren sintagma osagaiak juntatzeko:

- (9) a. Zer nahi duzu, *ura ALA ardoa*?  
 b. *Aitarekin ALA amarekin* joango zaren jakin nahi dut.

Perpaus sintagmak ere junta daitezke, bien artean galdera bakarria osatzen dutenean:

(10) *Etxean geldituko zara ALA gurekin etorriko zara sagardotegira?*

Baina *ala* juntagailua ez da galde-hitzak juntatzeko erabiltzen:

- (11) a. Zerk EDO nork ikaratu zaitu?  
 b. \*Zerk ALA nork ikaratu zaitu?

b) Bereziki Iparraldean adierazpen-perpausetan ere erabiltzen da, askotan antonimoak diren osagaiak juntatuaz, baina ez du aukera eksklusiboa adierazten, bai zik «orobatasuna», hor aipatzen direnak parekoak zaizkigula alegia; berdintsu zaigula bata nahiz bestea. Pare-pareko balioa dute *nahiz* eta *zein* juntagailuek:

(12) Hizkuntza bat edo bestea jakiteak, *ongi ALA gaizki*, hala nahiz honela mintzatzeak (...) larru-azaleko koloreak baino gehiago batzen eta bereizten gaitu (K. Mitxelena, *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*).

3. Hortaz, *edo* erabiltzea gomendatzen da adierazpen-perpausetan balio eksklusiboa adierazi nahi denean:

- (13) a. *Hil EDO biziko auzia*  
 b. *Salbazioko EDO kondenazioko* epaia ematen dute irakasleek ere kurso-amaieran

<sup>97</sup> Ikus bedi *EGLU-V* (112-113).

### 16.3. Komunztadura

*Eta*-k sintagma gramatikalak —komunztadura eragiten dutenak— juntatzen dituenean, normalena aditzak pluraltasunaren marka hartzea izaten da:

- (14) (a) Idazkariak eta alkateak sinatu *dute* akordioa  
(b) Idazkaria eta alkatea ez *ziren* azaldu...

Dena den, badira salbuespenak. Komunztadura singularrean egiten da, esaterako, juntagaiak perpaus osoak direnean (a), sinonimoak direnean (b, c), izen abstraktuak juntatzen ditugunean (d) eta zenbait esapidetan (e, f):

- (15) a. Niri bazkaldu ondoren zerbait irakurtzea eta musika entzutea gustatzen *zait*.  
b. Gu estutzeak eta ernegatzeak hutsa balio *du*.  
c. Umorea eta gogoia ez *zaigu* falta.  
d. Hemen erabili *den* arreta eta zehaztasuna.  
e. *Hau eta hura* esango *didazu*.  
f. *Hori eta bestea* esan *dezakezu*.

Aditza aurrean jartzen denean (16a) eta izen zenbakitzak direnean (16b) ere komunztadura singularrean egiten da maiz:

- (16) (a) Nik *badaukat* etxe bat, auto bat, familia bat eta beste.  
(b) Ura eta olioia bota behar *zaio*.

### 16.4. Osagaien ezabaketa

Izenlagunaz eta izenaz osatutako bi kasu-sintagma juntatzean izenlagunak errepikatzen direnean, eskuinekoa bakarrik ezaba daiteke, egitura anbiguoak sortuz:

- (17) Kanpoko autoak eta autobusak  
a. [Kanpoko autoak] eta [Ø autobusak]  
b. [Kanpoko autoak] eta autobusak

Goiko adibidean, anbiguotasuna desegin eta «a» irakurketa egitea nahi badugu, izenak juntatzea da irtenbidea:

- (18) Kanpoko auto eta autobusak = [[Kanpoko auto] eta [Ø autobus]]ak

Errepikatzen den osagaia izena denean ere bi aukera ditugu, a) kasu-sintagmak juntatu, izena eskuinekoan ezabatuz; b) izenlagunak juntatu:

- (19) a. Kanpoko autoak eta hemengoak  
b. Kanpoko eta hemengo autoak

Aurreko kasuetan ez dirudi idazleen artean juntabide baten edo bestearen aldeko joera berezirik dagoenik. Izenaz eta izenondoaz osatutako sintagmetan, berriz,

izenak errepikatzen badira, izenondoak juntatzea (a) da aukera neutroa (ohikoa) eta kasu-sintagmak (b) juntatzea aukera markatua (hanpadura berezikoa):

- (20) a. Gizon argi eta indartsuak etorri dira  
b. Gizon argiak eta indartsuak etorri dira  
a'. Etxe zahar eta ederrak ikusi ditugu  
b'. Etxe zaharrak eta ederrak ikusi ditugu

Halakoetan anbiguotasunak sor daitezke gainera. Goiko (a, b) adibideetan gizonen multzo bakar bat («argi eta indartsuak diren gizonen multzoa») edo multzo desberdin bi («gizon argien multzoa» alde batetik eta «gizon indartsuena» bestetik) ditugula pentsa daiteke, ohikoena lehen interpretazioa (multzo bakarrarena) bada ere. Multzo-bitasuna batez ere adjektibo antonimoak (a', b') ditugunean gerta daiteke; eta orduan ere bi multzo desberdin aipatu nahi baditugu, normalena sintagmak juntatzea da (b').

Juntagaiak perpausak direnean, aditz osoa eskuineko juntagaien ezabatzea da joera nagusia; horretarako aditzoin eta aspektu bera izan behar ditugu bi perpausetan:

- (21) (a) Gizonak makila hartu zuen eta haurrak harria  
(b) Zuk Parisa joatea hautatu duzu eta guk hemen gelditzea  
(c) \*Nik atzo erosi nuen eta zuk bihar [aspektua #] →  
(d) Nik atzo erosi nuen eta zuk bihar erosiko duzu

Aditz laguntzailea ezabatzean, azkenik, bi joera ageri dira literatura-tradizioan: a) aditz laguntzailea ezkerreko juntagaien ezabatzea (mendebaldean), ezkerreko aditz nagusia ia beti partizipio burutuaren forman agertuz; b) aditz laguntzailea eskuineko juntagaien ezabatzea (euskalki guztietan), gehienetan aditz nagusiak aspektu-marka gordeaz:

- (22) a. Zer egingo zenuke zuk, gurdi bat *banatu*, gurpilak *lokatu* eta aizkora bat *emango* balaitzaizu?  
a'. Egunero lanetik irten ondoren, etxera *igo* eta dutxa eder bat *hartzen* du.  
b. Etxera *joango* naiz eta afari ederra *prestatuko*.  
b'. Irrifarrez *etorriko* zait eta dirua *eskatuko*.

Aspektu-markaren ezabaketa oso arrunta da aditz nagusiak (eta aditz-izenak) juntatzen direnean (a); ekialdeko idazleen artean ez, ordea (b):

- (23) a. Horrela *lan egin* eta *aberastuko* ez den gizonik ez dago.  
a'. Gaur *hasi* eta gauerako *amaitzea* espero dut.  
a''. Gogoa daukat etxera *heldu* eta ohean *sartzeko*.  
b. Ez da harritzeko horrelakoak gazterik *zahartzen* eta *hiltzen* badira.

Bi perpaus baino gehiago elkartzen direnean, aditz laguntzailea lehen perpaus baten (b) edo azkenean (a) gordeko dugu, inoiz ez erdikoetan (c):

- (24) (a) Egunero lanetik *atera*, etxera *igo*, eta dutxa *hartzen* du.  
(b) Egunero lanetik *ateratzen da*, etxera *igo/-tzen*, eta dutxa *hartu/-tzen*.  
(c) \*Egunero lanetik *atera*, etxera *igotzen da*, eta dutxa *hartu*.



Juntagaiak ezezko perpausak direnean, aukera bat baino gehiago dugu laguntzailea ezabatzeko:

- |  |                |
|--|----------------|
| (25) (a) Ez dut ogirik jan (eta) ez ardorik edan | (markatugabea) |
| (a') Ez dut ez ogirik jan (eta) ez ardorik edan  |                |
| (b) Ez ogirik jan (eta) ez ardorik edan dut      | (mendebaldean) |
| (b') *Ez ogirik jan eta ez dut ardorik edan      |                |
| (c) Ez ogirik jan dut (eta) ez ardorik edan      | (markatua)     |

### 16.5. Aztertze adibideak

- |   |   |
|---|---|
| (26) *Gobernua eta Konfederazioaren arteko elkarriketak   | (27) <i>gobenuaren eta konfederazioaren...</i>  |
| (28) *Gurasoak eta ikastolen arteko bilerak   | (29) <i>Guraso(en) eta ikastolen arteko...</i>  |
| (30) *Hirikoak diren gure hurrei, mendia, baserria eta lurrari atxikitzen zaion lana ikusaraziz.  | (31) ... <i>mendiari, baserriari eta lurrari ...</i>  |
| (32) *Ultimatuma eman dio Jaurlari-tzak EHUri: <i>garbitu ala campusa itxi.</i>   | (33) <i>garbitu EDO campusa itxi</i>  |
| (34) *Iraultza ala hil  | (35) <i>iraultza EDO hil</i>  |
| (36) *Beldurrarekiko borrokarekin lortutako poza. <i>Izan ala ez izan.</i>  | (37) <i>Izan EDO ez izan.</i>   |
| (38) *Programaren baitan ez dago borrokarik, ez dago ihes egin beharrik, ezer bilatu beharrik. Jokoa, hasi baino lehen, <i>irabazia dago, ala galdua.</i> | (39) <i>irabazia dago, EDO galdua</i>   |
| (40) Haurrak bere fantasiak izan behar ditu, izango du astia errealtatea ikusteko <i>edo</i> eta egia jakiteko.   | (41) (zuzena)   |
| (42) *Seme-alaba bat izaterakoan aukera bat emakumeak lanean jarraitu eta umea zaintzeko beste pertsona bat hartzea da.                                   | (43) <i>Seme EDO alaba bat izaterakoan (bestela: seme-alabak ...)</i>   |
| (44) *Nafarroan <i>hirugarren seme-alaba</i> izateko laguntza eman du gobernua.   | (45) Nafarroan <i>hirugarren semeA EDO alaba</i> izateko laguntza eman du gobernua.                               |
| (46) *Eguneroko lana eta ikasgai guztiekiko garrantziaz ohartu nintzen.   | (47) <i>Eguneroko lanaz eta ikasgai guztien garrantziaz ohartu nintzen.</i>                                       |
| (48) *Eguraldia eta errepideari buruzko informazioa.  | (49) <i>Eguraldiari eta errepideari buruzko informazioa.</i>  |
| (50) *Kritika gogorak jaso ditu diskurtsoak, sozialistak, Partidu Popularrak eta IUREn aldetik.   | (51) Diskurtsoak kritika gogorak jaso ditu <i>sozialisten, Partidu Popularraren eta IUREn aldetik.</i>            |
| (52) *Bere buruari tiro egin ala dakien <i>guztia kontatu</i> , hori dela duen alternatiba deklaratu du Roldan-ek.  | (53) <i>Bere buruari tiro egin EDO dakien guztia kontatu</i> , hori dela duen alternatiba deklaratu du Roldan-ek. |

- (54) \*Euskararen erabilera ere saritu behar da: idazkari batek *erabiltzea ala ez erabiltzea*.
- (55) Euskararen erabilera ere saritu behar da: idazkari batek *erabiltzea EDO ez erabiltzea*.
- (56) \**NagusiA eta langileEI* mintzatu zitzairen.
- (57) *NagusiARI eta langileEI* mintzatu zitzairen.
- (58) 1979ko Oinarritzko *Akordioa, UGT eta CCOOren artekoa*.
- (59) a. (zuzena: izen bereziak + postposizioa)  
b. *UGTREN eta CCOOREN artekoa*.
- (60) ??1984ko Akordioa, Kontseilu Ekonomiko eta Sozial, gobernu, CEOE eta UGTren artekoa.
- (61) ... *SozialAREN, gobernuAREN, CEOE-REN...*
- (62) Aurrerapen hau *ona ala txarra* izango den eztabaidatzen ari dira.
- (63) (zuzena)
- (64) \*Lan-utzialdia (eszedentzia) *borondatezkoa ala nahitaezkoa* izan daiteke.<sup>98</sup>
- (65) Lan-utzialdia (eszedentzia) *borondatezkoa EDO nahitaezkoa* izan daiteke.

## 17. HURA / BERA. HAI EK / ? BERAIEK

Lehendabizi, arazoaren alderdi «formala» aurkeztuko dugu. Alegia, zein da euskara batuan *bera* izenordainari dagokion kideko forma plurala? Azken urteotako testu batzuk irakurrita, batek baino gehiagok pentsa lezake *beraiek* dela euskara batuko izenordain plurala. Uste hori, ordea, nahikoa funsgabea da; izan ere, testuak arretaz arakatuz gero, berehala ohar gaitezke gutxienez ondoko hiru aldaerak ageri zaizkigula: *beraiek, berak eta eurak*. Ikus dezagun zein den arazoaren iturburua.

Euskaraz ez dago hirugarren pertsonako izenordain garbirik eta normalean erakusleez (*hau, hori, hura / hauek, horiek, haiek*) baliatzen gara hirugarren pertsonari erreferentzia egiteko. Hala ere, erakusle horien ondoan badira forma «indartu» batzuk (*berau, berori, bera / berauek, beroriek, berak*)<sup>99</sup>, izenordain gisa lehendik aipatutakoari erreferentzia egiteko erabil daitezkeenak. Arazo nagusia pluraleko formen aniztasun dialektalak sortzen du, izan ere, euskalkien arabera *bera-ri* plural desberdina dagokio:

- (1) a. *berak* (forma zabalduena)      b. *eurak* (hego-mendebaldekoa)      c. *beraiek* (zubererazkoa batik bat)

Kontua da azken urteotako euskara batuan hiru horietatik tradizio apurrena duena, baina serie indartuaren pluraleko paradigmaren «araberakoena» (*hauek, horiek, haiek / berauek, beroriek, beraiek*) bultzatu dela, *beraiek*, alegia. Euskaltzaindiak

<sup>98</sup> Edozein kasutan *ala* horren bidez «orobatasuna» adieraziko genuke, hau da, «bata nahiz bestea» eta ez bi aukeren arteko aurkakotasuna edo aukera eskusiboa.

<sup>99</sup> «Indartu» da *berau, berori, bera...* sailekoak izendatzeko *EGLU*-n erabili den terminoa. Dena dela, deiturak deitura, «lehenago aipatuari erreferentzia egitea» da halakoen zeregin edo funtzio nagusia, hots, funtzio anaforikoa.

honetaz gomendio edo araurik eman ez badu ere, badirudi oraingo hau une egokia izan daitekeela *beraiek* formaren aldeko «joera» berri hori berraztertzeko.

Beharbada, hautua ildo honetatik joan liteke: *berak* proposatu forma estandar gisa, eta *eurak* (?euskalki-mailako) forma markatu gisa<sup>100</sup>. Hona hemen, idazleen-gandik jasoriko zenbait adibide:

- (2) Baina zertako sartzen naiz ni zure laudorioen aipamenetan? *Berak* (*eurak*) dira bere buruz aski gora mintzo. (EH: «bera»)
- (3) Alkate eta Etxenagusia al dira? Bai, *berak* (*eurak*) dira. (EH: «bera»)
- (4) Nola baliatzen zituen haurrak, hauei manatuz *berek* (*eurek*) gogoz ikasi otoitz eta egiak gero etxean gurasoei errepika ziezaizkieten. (EH: «bera»)
- (5) Nehork ere bortxatu gabe, *berek* bere borondatez, agertu zuten eta aithortu hanbat denboraz estalirik eduki zuten gaixtakeria. (Ax 286)
- (6) Arpegiz-arpegi jarririk gero Kardinalari esan zion: Nere Jauna, orrako jakintsu berorren Jauntasunak laudatzen dituan oriek, beren iritziko prestutasunarekin, Jaungoikua ta berorri nai lituzkie engaña; bañan *berak* dira engaña-tzen, desegin nairik gure Jaungoikuak, ni beraren serbitzari ezerez-utsaren bitartez, agintzen duana, beren animen onerako. (Bv AsL 198)
- (7) *Berak* dira egiz gaizto, ola uste ukaitean eta *berak* ditezke ere on, egia idukitze badute (...) (Or Aitor 201)
- (8) Galda zozuete framazonei eta heiekilakoei; galdata gabe bardin *berek* beren baitarik erranen dautzute gezurra, xutik doan gezurra: Aita Sainduaren falta dela. (HU Zez 155)
- (9) Joan, joan berriz ere, eta, ilhun-nabar gorri batez, bas-herri batetako etxe garbiño batean, *berek* ongi jakin ere gabe nola, hunan non aurkhitzen diren. (Barb Sup 165)
- (10) Batzu herriaz orroit, euskaraz ahantzi; bertzek euskara maita, herria gaitzetsi; hizkuntza ta herria berex ez doatzi, *berek* nahi daukute konpreniarazi bata bertzea gabe ez daizkela bizi. (Xa Odol 180)
- (11) Ez dute jakin, dirudienez, oraintsu arte, badirela linguistikak ez bezalako egiturak dituzten jakiteak, matematikoak buru direla: hauek ez baitute inongo egiturei begira egon beharrik, *berek* sortzen dituztelako, inon aurkitu edo idoro gabe, nahi dituztenak, nahiaren neurrikoak. (MIH 194)
- (12) Kezka bat ere bai, *berek* aitortu didatenez: nola adieraz ote daitezke gauzak hitzak gabe? (MIH 328)
- (13) Ekusi zuten odeiak eta aditu zuten hitzak erdi illak utzi zituen S, Pedro ta aren lagunak eta an bertan erori ziran auspez; ta auspez etzandu ziran Jesusek jo ta beldurrik bage jaiki zitezela *berei* esan arte guzian. (Mb IArg I 236)

Hona hemen, *berak*, *eurak* eta *beraiek* izenordainen paradigmatik<sup>101</sup>:

---

<sup>100</sup> Besteak beste, *berak* pluralaren aldeko hautuaren aldera makurtzen direnen artean honako hauek aipa ditzakegu: Azkarate (1995), Sarasola (1996: ik. «bera», «beraiek» eta «eurak» sarrerak), Garzia (1997: 479-484). Dena dela, *Hiztegi Batua*-n «eurak» forma euskalki-markarik gabe dator, ondoren «haiek berak» azalpena duela.

<sup>101</sup> *EGLU-I* (Eranskina), 135-137. orr.

(14) (NOR)	berak	eurak	beraiek
(NORK)	berek	eurek	beraiek
(NORI)	berai	eurei	beraiei
(NON) (NORENGAN)	beretan berengan	eurengan	beraietan beraiengan
(NONGO)	beretako bere(n) baitako		beraietako beraien baitako
(NORA) (NORENGANA)	beretara berangana(t)	eurengana	beraietara beraiengana(t)
(NORANTZ) (NORENGANANTZ)	beretarantz berenganantz	eurenganantz	beraietarantz beraienganantz
(NORAINO) (NORENGANAINO)	beretaraino berenganaino	eurenganaino	beraietaraino beraienganaino
(NONDIK) (NORENGANDIK)	beretatik / beretarik berengan(d)ik	eurengan(d)ik	beraietatik/beraietarik beraiengan(d)ik
(NOREN)	ber(e)n	euren	beraien
(NOREKIN)	berekin	eurekin	beraiekin
(NORTAZ)	beretz	beraiez	
(NORENGATIK)	ber(e)n(g)atik	eurengatik	beraie(n)gatik
(NORENTZAT)	berentzat / berendako	eurentzat / eurendako	beraientzat / beraiendako

Forma alde batera utzirik, erabileran ez datoz guztiz bat Iparraldeko eta Hegoaldeko tradizioak:

a) Aurrekaria perpaus berean duenean: euskalki guztietan *bera*.

(15) Peruk, esan digu *berak*, egingo duela

(16) Peruk, esan digu *hark*, egingo duela (\*Peruk, esan digu *hark*, egingo duela)

b) Aurrekaria aurreko perpaus batean duenean: Hegoaldean *bera*; Iparraldean *hura*<sup>102</sup>.

(17) HEGOALDEAN: Mikel, aurkitu dugu kalean. *Berak*, esan digu...

(18) IPARRALDEAN: Mikel, aurkitu dugu kalean. *Hark*, esan digu...

Praktikan, azalekoa dirudien desberdintasun aipatuak (17 # 18) oso ondorio nabarmenak ditu testuen itxuran, eta are gehiago itzulpengintzaren ikuspegitik

<sup>102</sup> Lafittek (1944: 84) dioen bezala «C'est aussi *hura* qui sert à traduire le pronom français de la troisième personne *lui*.»

begiraturaz gero: hots, azken urteotako Hegoaldeko testuetan ikaragarri ugaritu zaizkigu hirugarren graduko forma indartuak (*bera, beraiek...*); hainbeste ugaritu zaizkigu, non ematen baitu erakusle soil edo arruntek (*hura, haiek...*) ezin dutela balio anaforikorik hartu edota nahitaez «erakusletasuna» agerian eduki behar dutela.

Hurrengo adibideetan, esaterako, iraganeko kontuak aipatzeko (19-22) edota erakusleen arteko kontrajarpena (23) markatzeko erabili da hirugarren graduko erakusle plurala, erakusletasuna galdu gabe, alegia:

- (19) Joan zitzaigun damurik Muxika eta joan zitzaizkigun hain gogoko zituen gizon *haiek* ere. (MEIG III 086)
- (20) Hemen ageri zaizkigun Euskalerriko seme-alabak Iburguen Cachopin'ek hain gogozko *zituzten haiek berak* dituzu: «Bere bazter librotan deusen, Beldurrik gabe haziak, irrintzinaz gudura oldartzen, Gero han ezin heziak.»<sup>103</sup> (MEIG III 044)
- (21) Arakistainez gero, zurrumurru zital bat barreatu da bazter guztietan; gure arbasoek, alegia, *erromarrei* gogor egin beharrean, ez omen ziren *haiekin* gaizki konpondu, kantauriar basatien kaltean. (MEIG III 044)
- (22) Sinai berrian ikasi duten agindu bakarra, hau da xelebrekeria, ez da *donostiar alaiak* jaietan kantatzen zuten harako hura baizik, eta txantxetan ari zirelakokan kantatzen zuten axolakabe *haiek*. (MIH 374)
- (23) *Lizarragaren mutillak* eta nereak bateratu ziran, *aiek* armadun eta nereak gabe. (Or *SCruz* 117)

Baina beste batzuetan balio anaforikoarekin erabiltzen dira hirugarren graduko erakusleak eta ez bakarrik ipar-ekialdeko idazleen testuetan:

- (24) Bada *dantzan dabiltzan emakumeetati, banakaren batzuk* geratuten badira gorputz osuagaz; pornikau bagarik, *areek* bere arimako kastidadia galduta, loituten dira. (fB *Olg* 082)
- (25) Ez da gauza barrija, guraso askok *eureen seme alabeen* lotsa gaistua, ta esker txaarra ikusita, *areek* eskura, ta errazoera ekartiagaz desesperauta, eureen burubai purijaz illtia opa izatia, beste munduban zer ikusirik ez balego legez. (fB *IcI* 308)
- (26) Orduan Jesus'ek adierazo zien, Jainkoak aberatsari erakutsiko diola, *ondasunakkin* zer egin bear duen, eta *oietan* biotza geiegi sartu gabe, nola bizi bear dan, *aiek* betiko ondamenerako bideak izan ez dakizkion. (Lard 422)
- (27) Txalupa ontzat juzgatu eta nai bagenduen artzeko, esan ziguten Zarautza joan ta geren puntuan jartzeko; *zumaiatarrak* izan zirala gure kontra jokatzeko, beldur ziraden *aiek* baño len premiyua ekartzeko. (Xe 281)
- (28) (...) *nexka mutil bik* masustondo edo edozein zugatzetan kabia arkitzen dutetik ez dela urte bete igarotzen *aiek* Elizaz elkartu gabe. (Or *Mi* 022)
- (29) ara, ta une antantxe txerri-zai bat, bere *zerri-taldea* sastraka-tartetik bilduaz zebillena, iñoren lotsarik gabe zerriak alakoxe izena izaki; onek bada dei-adarra jo zuan, dei ortara biltzen bait-dira *aiek* (...) (Berron *Kijote* 045)

<sup>103</sup> Barruko aipamena Zalduby-rena da (Zby *RIEV* 1909, 399).

- (30) Ordutik Bernardo Jaunaren biotza irebazi zuan Franziskok, eta goizian goiz egin zion Santuari galdera au: Baldin artu balitu morroi batek bere nagusiaren eskutik *ondasun aundiyak* urte batzuetarako, eta morroiak urtiak bete baño lenago, naiko balu *ondasun aiek* gabe bizi, zer deritzaio egin biar lukiala aiezaz? (Bv AsL 060)
- (31) Goizegi da dudarik gabe *igaro berria dugun mende erdia* aztertzeke eta epaitzeke, geurok ere, etsai nahiz aldeko, *haren* ume eta iloba baikara, orduko haizeak sortu zituen *olatuetan* baikabiltza igeri, nahiz eginahalean *haiekin* borroka ari. (MIH 061)
- (32) Neskamea baizik ez zuten aurkitu etsean; oraindik nagusiaren hasarrearen beldur baitzatekeen, *ezer ez* zien esan, baina begirada gaizto bat eman zien *biei* eta sukaldean sartu zen berehala, *haiekin* agitu nahi izan ez balitz bezala, izurrite batek joak izan balira bezala. (Mde HaurB 044)
- (33) Egia ere da horratik *inguruko baserritarrek*, berberak harri eta belarri eginik aitortzen digunez, *ez* ziotela haren euskal-saioei halako harrera ona egiten, farre ere egiten omen zuten lotsagabe *haiek*, baina ez zen horregatik asko larritu. (MIH 362)
- (34) *Gazteek*, bestalde, hau pentsatu behar lukete: guztiok, *haiek* eta gu, beste Estatu baten zerbitzari izateko ustean gabiltzala. (MEIG IX 033)
- (35) *Euskal autore gailenak* ditu eredu eta, *haiei* buruzko iritziak denborak gutxi edo gehiago aldatzen baditu ere, badu hor oinarri sendoa.
- (36) Esate baterako, deklinabidean eta hitz barnean eta aditz jokoan lehen seinalatu ditugun *aldakuntzen* ondoan bertso pilo handia aipa daiteke, horrelako aldakuntzarik gerta zitekeelarik, «de facto» gertatzen ez eta *haiek* gabe zuten eta oso denik. (PAlt)

Beraz, izenordain indartuak erabiltzen diren testuinguruetan, indartu gabeak ere erabil daitezke<sup>104</sup>. Hain zuzen ere, forma indartuen (*bera*, *beraiek*, *beroriek*, *berauek*...) erabilera gehiegizkoa edo premiarik gabea izan daiteke zuzendu beharreko beste desbideratze bat.

- (37) Etekinak lortzeko lehiaketa horretan *telekomunikabideek* funtsezko papera betetzen dute, *haiek / horiek (?beraiek)* direla medio produktu bat ezagutzera eman baitaiteke.

Bide batez, hurrengo egituren arteko bereizkuntza (38 # 39) azpimarratu behar da:

- |   |   |
|---|---|
| <p>IDENTITATEA</p> <p>(38) a. <i>Euskaldun bera</i> etorri da #<br/>b. <i>Euskaldun berak</i> etorri dira #</p> | <p>INDARGARRIA</p> <p>(39) a. <i>Euskalduna bera</i> da erruduna<br/>b. <i>Euskaldunak berak (euskaldunak eurak)</i> dira errudunak</p> |
|---|---|

<sup>104</sup> Zabala (1996: 29).

18. HAREN, BERAREN, BERE. HAIEN, (?)BERAIEN, BEREN (EUREN)

Genitiboan gauzak nahasiagoak daude, singularreko sistema hirukoitzari eus-tea zail eta artifizial samarra delako. Singularrean hurrengo hiru erabilerak daude: a) *haren* genitibo soila (1a); b) *beraren* genitibo indartua (1b); c) *bere* genitibo bihurkaria (1c).

- (1) (a) Miren<sub>i</sub> *haren<sub>i</sub>* etxera joan da. (beste norbaiten etxera, alegia)  
(b) Miren<sub>i</sub> *beraren<sub>i</sub>* etxera joan da (lehen aipatutako norbaiten etxera, alegia)  
(c) Miren<sub>i</sub> *bere<sub>i</sub>* etxera joan da (Mirenen etxera, alegia)

(1c) erabili ahal izateko arau estuak — Iparraldeko idazle klasikoetan ageri de-nak — honela dio:

- (2) «Erabil bedi genitibo bihurkaria baldin eta izenordain horrek aurrekaria badu perpaus bereko beste *nor*, *nori* edo *nork* sintagma batean».

Honelako testuinguruetan, beraz:

- (3) Andoni *bere* etxera eraman nuen  
(4) Andonik *bere* etxera eraman ninduen  
(5) Andoniri *bere* etxea erosi nion

Arau estu horren arabera, (6, 7) aukeratu behar ditugu eta (8, 9) baztertu:

- (6) Itziar eta *haren* lagunak etorri zaizkigu etxera  
(7) Peru ezagutu? Sarritan izan naiz *haren* (*beraren*) etxean  
(8) Itziar eta *bere* lagunak etorri zaizkigu etxera  
(9) Peru ezagutu? Sarritan izan naiz *bere* etxean

Kontua da mendebaldeko euskalkietan (8, 9) modukoak guztiz normalak dire-la<sup>105</sup>. Hots, esan daiteke bi *bere* ditugula: bata (ekialdekoa), bihurkaria, (2)ko arau estu horren arabera; bestea (mendebaldekoa), erabilera laxoagokoa, bihurkari gisa erabiltzeaz gain (3-5), *beraren*-en ordeaz edo erabiltzen duguna (8, 9)<sup>106</sup>.

Batzuetan, hala ere, anbiguotasuna gertatzen da (10):

- (10) Koldok Miren *bere* etxera eraman du

Horrelakoetan, ekialdeko idazle zaharrek *bere* erabiltzen dute «Koldoren etxe-az» ari garela adierazteko (hots, subjektuari dagokiola adierazteko), eta *haren*, *ber-ri*z, «Mirenen etxeaz» ari garela argitzeko.

<sup>105</sup> *OEHN* zehazten denez («bere» sarrera, 741.or.), «Los autores occidentales (salvo alguna excep-ción como Ubillos), ya desde los textos más antiguos, utilizan *bere* no sólo en los casos en que éste es anafórico (...). En general, se puede decir que *bere* se ha ido extendiendo con el tiempo a usos no ana-fóricos (...).»

<sup>106</sup> Euskaltzaindia (1993a: 73).

Esanak esan, hizkuntza teknikoari begira —idatziari begira, batik bat—, goiko (1)ean ageri den banaketa hirukoitza (*haren/beraren/bera*)<sup>107</sup> iruditzen zaigu eredu gomendagarriena. Arazo nagusia hiruko sistema hori pluralera eramatean sortzen zaigu.

Batzuek<sup>108</sup> singularrekoaren —(1)en— pareko banaketa biribila proposatu dute pluralerako (11) eta proposamen horrek zabalkunde handia lortu du azken urteotako euskara batuan.

- (11) (a) Gure mutilak *haien* etxera joan dira (beste batzuen etxera, alegia)  
 (b) Gure mutilak *beraien* etxera joan dira (lehen aipatutako batzuen etxera, alegia) [indartua]  
 (c) Gure mutilak *beren* etxera joan dira (mutilen etxera, alegia) [bihurkaria]

Baina (11)-n ageri den sistemari, zeinak bere alde baitu anbiguotasunak desegiteko abantaila, artifizialtasuna egotz dakioke. Arrazoi birengatik. Alde batetik, singularrean mantendu nahi den aurkaritza (*beraren / bere*) pluralean are lausotuago dagoelako: *beren* —*bera* bezalaxe— funtsean forma bihurkaria bada ere (12a-c), indartua ere izan daiteke Hegoaldeko euskalkietan (12e-g), eta beste hainbeste gertatzen bide da *euren* (12h / 12i) aldaera dialektalarekin<sup>109</sup>. Beste alde batetik, (11)-ko irtenbidea artifiziala iruditzen zaigu, indartu gisa erabiltzeko proposatzen den forma (*beraien*) bazterreko eremu batekoa delako (zubererazkoa)<sup>110</sup> eta,

<sup>107</sup> Edo, bestela, gutxienez *haren/bera* aurkaritzari eusten diona. Villasanteren hurrengo adierazpe-na aldatuko dugu hona, bereizkuntza horren aldeko azalpen argigarria delakoan: «Pero como en castellano se usa para todo el “su” indistintamente, dando lugar a grandes anfibologías, los vizcaínos y guipuzcoanos, olvidando su propia tradición, echan también mano del *bera* en todos los casos. Sería de desear la vuelta a la tradición general, que tan bien guardan los navarros y vascofranceses. (...) La vuelta a la genuina tradición que un día fue universal y que aún hoy está viva en una parte importante del país, parece exigirla el impulso unificador.» (Villasante, 1972: 86-88). Garatek bildutako lekukotasunen arabera (1988: 53-54. «bere.../haren...» sarrera), bizkaieraz eta mendebaldeko euskaran ere ondo bereizten dira bihurkaria eta indartua: «Amak *bera* umea maite du, *bera(re)n* laguna, baña, ez du maite» (EL=Elgoibar).

Hala eta guztiz ere, aukera desberdinak daude idazleen eta hiztunen arabera (Morales, 1995: 86).

Idazle batzuk sistema hirukoitzaz baliatzen dira:

- a) *haren* (arrunta), *beraren* (indartua), *bera* (bihurkaria) (esaterako: *Elizen arteko Biblia*).  
 b) *haren* (arrunta), *beraren* (indartua), *bera* (indartua zein bihurkaria).

Batzuek sistema bikoitza erabiltzen dute:

- c) *haren* (arrunta), *bera* (bihurkaria). *Beraren* inoiz ere ez (esaterako: *Otto Pette*).  
 d) *haren* (arrunta), *bera* (indartua zein bihurkaria). *Beraren* inoiz ez.

Beste batzuek, azkenik, hizkuntza mintzatuan batik bat eta alboko erdararen eraginez, *bera-bera...* hartu dute hirugarren pertsonaren izenordain bakartzat:

- e) *bera* (arrunta, indartua zein bihurkaria). *Haren* eta *beraren* inoiz ere ez.

<sup>108</sup> Ik. Zabala (1996a: 30) antzerako proposamen baterako.

<sup>109</sup> Hona hemen, Garatek (1988: 53-54) jasotako lekukotasun batzuk: «Amak *auren* umeak maite daurez. Baña *aurren* (*auren*) lagunak eztaurez maite» (IN=Zeanuri). «Amak *euren* umeak maite dituzte, baña *eurren* laguna gaixorik dago» (EL=Elgoibar).

<sup>110</sup> *OEH*ren arabera, XVIII-XIX mendeetan zubererazko testuetan eta XX. mendean Hegoaldeko idazle batzuen testuetan ageri dira *beraiek* formaren lekukotasunak (Inza, Orixe, Zaitegi...). Sarasolak ere (1996) «gutxi erabilia» eta bigarren mailako lekua aitortzen dio bere hiztegian.



batez ere, forma indartuak gutxien baliatzen dituen eremukoa delako (Iparraldea). Beraz, (11)-ren arriskua honetan datza: bazterreko forma<sup>111</sup> baten aldeko hautua egitea eta forma horri inoizko maiztasunik altuena ematea<sup>112</sup>.

- |   |                            |
|---|----------------------------|
| (12) (a) Goiz guztiek dute <i>beren</i> arratsaldea.  | (a) [bihurkaria]           |
| (b) Ez diete <i>beren</i> buruei atsekaberik eman nahi.   | (b) [bihurkaria]           |
| (c) <i>Beren</i> buruari ederretsiz, harrotasunean igeri dabilta...   | (c) [bihurkaria]           |
| (d) Eta urratzen dituzte, <i>beren</i> nahigabe latzak hartaritzen dituela, <i>beren</i> soinekoak.   | (d) [indartua; bihurkaria] |
| (e) Haien bihotzetatik <i>beren</i> hizkuntzarekiko maitasuna ezabatu zuten.  | (e) [indartua]             |
| (f) <i>Beren</i> [indartua] hizkuntzak asko aberastu, trebatu eta gaitu ziren garai hartan.   | (f) [indartua]             |
| (g) Ez da irudipena: azpietatik zulatu dituzte [mendiak] alderdi batetik besteraino; <i>beren</i> [mendien] hegaletatik tontorretara bide zabalak egin dituzte; <i>beren</i> [mendien] harrizko eta burdinezko erraiak eguzkitara ateratzen ari dira... | (g) [indartua]             |
| (h) Denok larri, eta hor dator hiru eta erdiak jota autobus bat Beideko kamino zuzenetik. Kolore batekook, ba, <i>euren</i> botoa botatera.   | (h) [bihurkaria]           |
| (i) Lehen, denok beharrea, eta batzuk Jaungoikoren hurrengoak <i>euren</i> ustez, kartetan, jan-txakurtxo batzuk izan arren.  | (i) [indartua]             |

Aukerak aukera, gogoratu beharra dago (ik. aurreko atala) Iparraldean forma indartuak aski gutxi erabiltzen direla eta forma indartugabeek balio anaforikoa-edo izan dezaketela perpaus desberdinetan agertuz gero (13-40).

- (13) Beraz hunelatan arrazoinekin edukiko dugu guk ere fidantzia handia eta esperantza beroa *geure Iainkoa* baithan eta *haren* miserikordian. (Ax 84)
- (14) Hola, adiskidea, orai zuk soiñean darabiltzatzun arropa horiek, zuk baiño lehen erabili zituen bere bizkarrean *ardiak*, zeren *haren* illeaz eginak baitira. (Ax 270)
- (15) *Iesu-Kristo gure Iauna* da gida, gure gehiena, gure kapitain handia, eta gu oro gira *haren* soldadoak, *hura* ioan da gurutzia eskuan, gure aitzinian, gu oro kumitatzen gitu, ioan giten *haren* ondoan, gure buriak arnega ditzagun, eztezagun egin eta konpli gure borondate propria, baina bai *harena*, har dezagun nork gure kurutzia, eta gero *haren* hatzari iarrairikik *hura* segi dezagun, hala, ebanjelistak dio. (Tt *Onsa* 112)
- (16) Eta ardiatz ezazu galde *dudan dohaña*, *haren* aithortzeko Iaunak fin gabe du moiana. (EZ *Man II* 024)

<sup>111</sup> Ikus bedi *OEH*, «beraiek» sarrera.

<sup>112</sup> Euskaltzaindiaren (1993a: 73) gramatikako iruzkina aldatuko dugu hona: «aipa dezagun hemen, bide batez, *beraien* eta halako formak ikaragarri ugaltu direla azken aldiotan, oso tradizio eskasekoak direnak».

- (17) Zezena badohako saltoz *gizonari*, Beldur guti ekharriz *haren* bultuari (...) (Hb *Esk* 225))
- (18) Bainan *norbaitek* bidegabe egin, edo egin-gogo badarot, uste nuke laguntza ona izanen dudala *haren* aldetik. (Dv *Lab* 309)
- (19) Uste gabeko eta ezin ukhatuzko letra horren entzutean, durduzutzen da *Migel*; ahalez hurtua, zerbait nahi luke erran eta ez dezake; *haren* ahotik ez da atheratzen murmurika bat baizik. (Laph 179)
- (20) Hartü nin emaztia *aitak* desiratia, Ustez ükhenen nian halaz *haren* bakia; (...) (Etch 140)
- (21) *Antiochusek* uste ukhan zuen, *haren* jeneralek ezin egina, berak eginen zuela (...) (Zerb *IxtS* 077)
- (22) Hura behar zen izan, uraren gainean pilotariei beha egonen zena, uste izaiteko *Kaskoina deitu pilotari handiaren* eta *haren* lagunen pilotan ari ikusteak haizatuko zuela gaitza. (HU *Aurp* 162)
- (23) Erabakitzen bazuen jakintza-gairen bat edo beste *alaba besoetakoari* handik aurrera berak irakatsiko ziola, aitzakia bat ba zukeen *harekin* bakar bakarrik egoteko, bibliotekan edo *haren* gelan, Isabelarekin ezkondu ondoren ere (...) (Mde *HaurB* 028)
- (24) Hain xuxen, uste gabetarik xokolet-tintta bat hunkitu baitu eriak, nola orai ez milika *eri-mutur hori*, ez balitz ere *haren* garbitzeko baizik? (Lf *Murthuts* 065)
- (25) *Obra hilak* dira, qq, zeren ezpaitira karitatian ez grazian eginak, egiten duzu barur, erraiten duzu orazione, emaiten duzu amoina, ala baina *haien* egitian bekhatu mortalian zira (...) (Tt *Arima* 021)
- (26) *Zonbait bekhatü* uste gabian kofesatzeko baratüririk ere, ükhenen dü *haien* pharkamentia, orotzaz ontsa dolü badü; bena oro Kofesatüririk ere ontsa dolü ezpadü etzeitzo pharkatiak izanen. (UskLib 84 9)
- (27) Ez othe ginduen bada *errhorik* aski gure herritan, *heien* emendatzerat hari gabe? (Lg I 285)
- (28) Joannes Paulo Marat, bigarrenak, galdegiten zituen *lau ehun mila gizon buru*, dudarik gabe errepublikaren fundamentetan emaiteko, nola *heien* odola zimenduetarat aurthikitzeo. (Elsb *Fram* 105)
- (29) Itsuskiago izan dire oraino gabetuak beren tratamenduaz *erretor batzu*, estatururik arinenez, eta *heien* yustificatzeko arrazoinak aditu ere gabe. (Elsb *Fram* 160)
- (30) Ama biziotsua, *hire haurrentzat* Mundurat sortu hintzen, *heien* kaltentzat, Dudarik gabe. (Elzb *Po* 218)
- (31) Oi ez banaki *Aingerutxoak* gorphutzik gabe daudela, Erran niro bai *heien* odolez arrosa bethea dela! (Ox 174)
- (32) *Erromano eta bertze*, batere *heien* kutsurik hartu gabe, oro iragaiterat utzi ditugun bezala lehenagoko mendeetan, utz iragaitera oraiko kabaleria hoi, bertze norapeit, agian, joan diteken artean. (Barb *Sup* 906)
- (33) Han kausituko dituzte herri anitz, eta *herri handiak* apez bakar batekin; *heien* aldean bertze frango, apezik batere gabe; (...) (HU *Zez* 31)
- (34) *Hok* ardura dute elgarretarat biltzea plazaren erdirat, onhartua delarik bizkitartean bethi *heien* errana, nehork hitzik athera gabe. (JE *Bur* 30)

- (35) Ez dugu *ofiziale ohoragarri hoitarik* bihirik ezagutzen; ez dugu hoi en artean ahaide ez adixkiderik; badakikete bertzela, engoitik, nola iharduk etsaiari; bainan ez gaudezke, hemen, *heien* alde gure mintzo xumea zuzen den bezala adiarazi gabe. (JE *Bur* 192)
- (36) *Bizpahiru orreagatarrek* ihardesten daukute ez dakitela; *bertze batzuek*, hitzik erantzun gabe, beren sorbalden goiti-beheititzeaz eta begien harritze larriaz, erakusten daukute beren ez-jakinarekin batean halako ahalge izi bat, guretzat berdin bitxia segur nola baita gure galde pikor tupustadakoa *heientzat*. (JE *Ber* 15)
- (37) Hamar gudari zoro gure endaren eskubide, gure herriaren indarrekin, *Frantziatarren* eta *haien* morroien herrarekin, hamar gudari txiro ikurrin tutik gabe bagenbiltzan karrika hotzetan gaindi. (Mde *Pr* 287)
- (38) Joan gabe aitona *frantses gudarien* jolastoki azpian bizi dela, jakin dut... askotan *haien* artean egonki. (Peillen)
- (39) Handik harat ez zuen aski laudorio *Inazioarentzat*; *haren* ezintasuna, *haren* umiltasuna, *haren* karitatea, mihian zituen beti.
- (40) Sainduak bere eza erran zioneko, beraz, pausatu bere *bi eskuak* mahaiaren gainean, eta gorde zuen begitartea, *haien* barnean, hobeki otoitz egiteko.

Hain zuzen ere, Iparraldeko joerarekin (13-40) ondo uztartzen den beste irtenbide bat honako hau izan daiteke: aurreko atalean iradoki dugun ildotik (*berak* formaren aldeko hautua), *beren* genitiboaren proposatu forma bakar gisa (eta *euren* aukera markatu gisa) eta, ondorioz, erabilera bihurtuaren eta indartuaren arteko sinkretismoa (12) onartu pluralerako<sup>113</sup>.

Jakina, hizkuntza teknikoaren ikuspegitik, (12)-n ageri den sistemari, berezkoaren duen anbiguotasun gramatikalaren eragozpena egotz dakioke. Nolanahi ere, benetako testuetan uste baino anbiguotasun-maila apalagoa erakuts dezake (12)-k, baldin eta —ekialdeko joerari jarraituz— izenordain soilei (*haren*, *haien*...) lehenetsua ematen bazaie eta indartuen erabilera gutxitzen bada<sup>114</sup>. Bestalde, anbiguotasun-maila murrizten duten bi faktore hauek ere kontuan hartu behar dira: a) izenordain plurala (*haien/beren*...) azaltzeko probabilitatea edo maiztasuna apalagoa da; b) maizenik, testuinguruak eta gaiari buruz dugun ezaguerak edo jakintzak argitu ohi dituzte anbiguotasun gehienak.

Bukatzeko, hona hemen, laburbilduta, gai honi buruzko zenbait gomendio<sup>115</sup>:

a) Esaldia, ez *haren/haien* ez *bere/beren* gabe ematerik badago, hainbat hobe. Kontuan izan, gainera, euskaraz inguruko erdaretan baino errazago ezabatzen direla izenordainak (genitiboak barne): euskaraz *bere* bakanago erabiltzen da, «bere # bestearena» aurkaritza adierazteko ezartzen da eskuarki<sup>116</sup>.

<sup>113</sup> Horixe da, hain zuzen, Garziak (1997: 480) aldezen duen aukera.

<sup>114</sup> Izenordain indartuen erabilera gutxitu eta forma soilak bultzatzearen aldeko ahots bat baino gehiago zabaldu da azkenaldi honetan. Honakoak, beste batzuen artean: Euskaltzaindia (1993a: 73), Morales (1995: 87); Garzia (1997: 429-488) eta (1998), eta Zabala (1996: 29).

<sup>115</sup> Ik. Morales (1995: 89-90) eta Garzia (1997: 484).

<sup>116</sup> Garate (1988: 54-55, «bere» sarrera).

- (41) Eta gizakiak ez du *bere aurrean* bera baizik aurkitzen. (42) Eta gizakiak ez du *aurrean bere burua* baizik aurkitzen.
- (43) Eta *haren* izena santua da. (44) Eta santua du (*bere*) izena.
- (45) *Haien* kezka nagusia *beren* lana da. (46) (*beren*) lana dute (*haiek*) kezka nagusi.
- (47) Koldo Bilbon bizi da. *Haren/beraren* etxea alde zaharrea dago. (48) Koldo Bilbon bizi da. Alde zaharrea dauka etxea.
- (49) *Haren/beraren* ondoan eseri zen. (50) Ondoa eseri zitzaion.
- (51) Irudi bat egin behar dute *beren* eskuekin. (52) Irudi bat egin behar dute (*beren*) eskuekin.
- (53) Beribilak *bere* abiadura murriztu egin du. (54) Beribilak abiadura murriztu (egin) du.
- (55) Lope de Vegak *bere* arerioa Cervantes izan zuen. (56) Lope de Vegak Cervantes izan zuen arerio.
- (57) Horrek *bere* arriskuak ditu. (58) Horrek badu arriskurik / Horrek arrisku handiak ditu.
- (59) Malentxok *bere* erabakia hartu zuen. (60) Malentxok erabakia hartu zuen.
- (61) Arazo horrek baditu *bere* eragozpenak. (62) Arazo horrek badu eragozpenik /...baditu eragozpenik.
- (63) Aitorrek alde egin zuen *bere* gurasoen babesetik. (64) Aitorrek alde egin zuen etxetik /...gurasoen etxetik.
- (65) Hori hartu zuen *bere* helburutzat. (66) Hori hartu zuen helburutzat.
- (67) *beren* emozio negatiboak *beraientzat* mesedegarriagoak izango diren beste emozio batzuetan bilakatzeko... (68) *haien* (*beraien*) emozio negatiboak emozio mesedegarriago(ak) bilakatzeko...
- (69) Baina jadanik zalantzarik gabe kontsidera daiteke ezen, Fisika atomikoak esparru honetan izango duen eboluzioak esparru filosofikoan *bere eragina* izango duela. (70) Baina jadanik zalantzarik gabe kontsidera daiteke ezen, Fisika atomikoak esparru honetan izango duen eboluzioak esparru filosofikoan *eragina* izango duela.
- (71) Gizabanakoen arteko elkarlanak *beren* ikuspuntuak aldi berean *bere* autonomia eta *bere* kohesioa segurtatzen duen elkarrekikotasunean koordinatzen dituen neurrian (...) (72) ? Gizabanakoen arteko elkarlanak (*haien*) ikuspuntuak elkarrekikotasunean —aldi berean banakoen autonomia eta kohesioa segurtatzen dituen elkarrekikotasunean— koordinatzen dituen neurrian (...)

b) Egitura bihurkaririk kanpo gaudelarik, *haren/haien* erabili zein *bere/beren* erabili, bietara berdín ulertzen baldin bada, hobe *haren/haien*.

- (73) Bi hizkuntzak ofizialak diren kasuan ere, EAEn bezala, *beren* erabilpen instituzional eta publikoak markatzen du *beren* ofizialtasun-maila, (...)
- (74) Bi hizkuntzak ofizialak diren kasuan ere, EAEn bezala, *haien* erabilpen instituzional eta publikoak markatzen du *bakoitzaren* ofizialtasun-maila, (...)
- (75) *beren* emozio negatiboak *beraientzat* mesedegarriagoak izango diren beste emozio batzuetan bilakatzeko...
- (76) *haien* (*beraien*) emozio negatiboak emozio mesedegarriago(ak) bilakatzeko...

- (77) Gorputz baten pisua 50 kg-koa da, 3,5 m/s<sup>2</sup>-ko grabitatea duen planetan, eta *bere* dentsitatea 2.500 kg/m<sup>3</sup>-koa da. (78) Gorputz baten pisua 50 kg-koa da, 3,5 m/s<sup>2</sup>-ko grabitatea duen planetan, eta *haren* dentsitatea 2.500 kg/m<sup>3</sup>-koa da.
- (79) Ohartzen omen gara geure jokae-*rez* eta *beren* ondorioez. (80) Ohartzen omen gara geure jokae-*rez* eta *haien* ondorioez.
- (81) Biologia Zelularren adarrak eta *beraien* edukia. (82) Biologia Zelularren adarrak eta *haien* edukia.

c) Hobe *bere* bihurkari gisa soilik erabiltzea.

- (83) Ardatz bertikaleko turbina hidraulikoa dugu eta *bere* ardatza koroa zirkularreko forma duen kojinete lau bati esker zintzilikatuta dago. (84) Ardatz bertikaleko turbina hidraulikoa dugu eta *haren* ardatza koroa zirkularreko forma duen kojinete lau bati esker zintzilikatuta dago.
- (85) (...) eta bestetik, hizkuntza bakoitzak *berarekin* daukan eduki kultural guztia adierazten duela. (86) (...) eta bestetik, hizkuntza bakoitzak *berekin* daukan eduki kultural guztia adierazten duela.

d) Singularrean, genitiboaren gainean eraikitako forma bihurkariak eta indartuak bereizi behar dira<sup>117</sup>:

- |                     |                           |
|---------------------|---------------------------|
| (87) BIHURKARIA     | INDARTUA                  |
| bere                | beraren                   |
| beretzat / beretako | berarentzat / berarendako |
| berekin             | berarekin                 |
| beregatik           | bera(ren)gatik            |
| beregan             | bera(ren)gan              |
| (bere baitan...)    |                           |
| beregan(d)ik        | bera(ren)gan(d)ik         |
| (bere baitatik...)  |                           |
| beregana            | bera(ren)gana             |
| bereganantz         | bera(ren)ganantz          |
| bereganaino         | bera(ren)ganaino          |
| bereganako          | bera(ren)ganako           |
- (88) Gauzarik begi-bistakoena, behar-bada (Mackey 1976), zera da: elebitasunaren errealitateak, alde batetik funtsezko arazo bat, hau da, bi hizkuntza edo gehiagoren arteko kontaktuan jartzea, eta bestetik, hizkuntza bakoitzak *berearekin* daukan eduki kultural guztia adierazten dituela.
- (89) Gauzarik begi-bistakoena, behar-bada (Mackey 1976), zera da: elebitasunaren errealitateak bi alderdi adierazten ditu; alde batetik funtsezko arazo bat, hau da, bi hizkuntza edo gehiagoren arteko kontaktuzko harremana, eta bestetik, hizkuntza bakoitzak *berekin* darman eduki kultural guztia.

<sup>117</sup> EGLU-I (Eranskina, 135-36.orr.).

- (90) (?) Eta azkenik, bi hizkuntza kultur arau edo portaera jakin batzuekin erlazionatuak daudenean eman daiteke elebitasun bikulturalako kasua, hau da, hizkuntzetako batek *berarekin* kultura desberdina daramanekoa.
- (91) (?) Eta azkenik, bi hizkuntza kultur arau edo portaera jakin batzuekin erlazionatuak daudenean gerta daiteke elebitasun bikulturalako kasua, hau da, hizkuntzetako batek *berekin* kultura desberdina daramanean gertatu ohi dena.
- (92) Greziarren lanak irakurtzeak (...) aritzea dakar *berarekin*.
- (93) Greziarren lanak irakurtzeak (...) aritzea dakar (*berekin*).

Aurreko paradigmagan ageri ez diren gainerako kasu-markek, aldiz, ez dute zer ikusirik genitiboarekin:

- (94) \*Eskalar *bereaz* biderkatzen burutzen da.
- (95) Eskalar *beraz* biderkatuz egiten da.

d) Egitura bihurkaria denean, gramatikaz kanpokotzat jo behar da *beraren* izenordaina erabiltzea.

- (96) \*Gizakiak *beraren* adimena garatzen duen espazioak (...)
- (97) Gizakiak *bere* adimena garatzen duen espazioak (...)
- (98) \*Zehapenen preskripzioak lege bakoitzean agertzen dira, lege bakoitzak *berarena* baitu.
- (99) Zehapenen preskripzioak lege bakoitzean agertzen dira, lege bakoitzak *berea* baitu.

e) Pluralari dagokionez, lehenengo eta behin, *bere* (singularra) # *beren* (plurala) bereizkuntzaren abantailak gogoratu behar dira (100/101). Bigarrenez, *beren* formari eustea gomendatuko genuke (102-105), batez ere bihurkari gisa erabiliz (eta gutxiagotan —ahalik eta gutxien— indartu gisa)<sup>118</sup>.

- (100) Eskertu nahi diet, bide batez, *bere* konfiantza eta bere bihotz-zabalatasuna.
- (101) Eskertu nahi diet, bide batez, *bereren* konfiantza eta bere bihotz-zabalatasuna.
- (102) (...) Herri honen orainaz eta geroaz ardura edo kezka bat dutenek, Arizmendiarieta nor zen *beraien buruari* itauntzeko gutxieneko urratsa eman behar lukete.
- (103) (...) Herri honen orainaz eta geroaz ardura edo kezka bat dutenek, Arizmendiarieta nor zen *beren buruari* itauntzeko gutxieneko urratsa eman behar lukete.
- (104) Fusio: *Beraien* aktibo eta pasiboak batuz, bi sozietate edo gehiago sozietate bakar bihurtzea.
- (105) Fusio: *Beren* aktibo eta pasiboak batuz, bi sozietate edo gehiago sozietate bakar bihurtzea.

f) Erabilera edozein delarik ere (indartua zein bihurkaria), anbiguotasunik sortzen baldin bada, hobe bestela adieraztea: erreferentea errepikatuz, haren ordain

<sup>118</sup> Nahiz eta *beraien* genitiboa erabiltzea txartzat ezin eman daitekeen.

gisa balia daitekeen hitz neutroa erabiliz, egitura biltzaileak (goiko 44 eta 46) erabiliz, etab.<sup>119</sup>

- |   |   |
|---|---|
| (106) Maiz esan ohi da, demokrazia-<br>ren teorian, iritzi publikoaren<br>arrazionaltasuna <i>haren</i> ezagu-<br>tzen menpe dagoela.   | (107) Maiz esan ohi da, demokrazia-<br>ren teorian, iritzi publikoaren<br>arrazionaltasuna <i>jendearen</i> eza-<br>gutzen menpe dagoela.   |
| (108) Zelularen zientziaren aurrera-<br>kuntzak mikroskopiaren aurre-<br>rakuntzen atzetik joan direla<br>esan genezake, <i>beraiei</i> esker<br>egin direlarik.              | (109) Zelularen zientziaren aurrera-<br>kuntzak mikroskopiaren aurre-<br>rakuntzen atzetik etorri direla<br>esan genezake, haietako gehie-<br>nak <i>mikroskopiaren aurrera-<br/>kuntzei</i> esker egin dira eta. |
| (110) «Erribosoma» prokariotikoak<br>eukariotiko-ak baino txikiagoak<br>dira, <i>beraien</i> batez besteko masa<br>70 S (...) izanik.   | (111) «Erribosoma» prokariotikoak<br>eukariotikoak baino txikiagoak<br>dira. <i>Prokariotikoen</i> batez beste-<br>ko masa 70 S (...) da.   |
| (112) [Mekanika Kuantikoak] Emaizta<br>sinesgaitzak, eroak, auresaten<br>ditu, esperimientuek ezinbestean<br>berresten dituztenak (...), <i>bere</i><br>etsaien etsipenerako. | (113) [Mekanika Kuantikoak] Emaizta<br>sinesgaitzak, eroak, auresaten<br>ditu, esperimientuek ezinbestean<br>berresten dituztenak (...), <i>teoria</i><br><i>honen</i> etsaien etsipenerako.                      |

Gomendioak gomendio, Euskaltzaindiak gai honetaz araurik ematen ez duen bitartean, korapiloak askatu gabe segituko du.

## 19. LIBURU BERA(K) # LIBURU BERDINA(K) # LIBURUA(K) BERA(K) (APOSIZIOA)

### 19.1. *Liburu bera(k): identitatea*

*Bera(k)* erabiltzen dugu —edo haren forma berrindartua *berbera(k)*— behin eta berriro agertzen den, ERREPIKATZEN DEN gauza, leku, garai, pertsona... batez (edo batzuez) ari garenean. «Identitatea» adierazten du.

- (1) Gaur ere, liburu *beraz* mintzatu dira solaskideak.
- (2) Gaur ere, liburu *berez* mintzatu dira solaskideak.

Hona hemen, paradigmarik ohikoena<sup>120</sup>:

- (3) (sing.) bera, berak, beraren, berari, berean (bertan), bereko (bertako), beretik (bertatik), etab.
- (4) (plur.) berak (beraiek, eurak)<sup>121</sup>, berek, beren, berei, beretan, beretako, etab.

<sup>119</sup> Kontuan hartu behar da ezen, euskaraz genero-komuntadurarik ez dagoenez, areagotu egiten zaizkigula arazoak erdal testuetako erreferentzia-sareak xede-hizkuntzan behar besteko argitasunez berreñakitzeko: arazo latzenak izenordain eta erakusle anaforikoek sortzen dizkigute (ik. 57. atala).

<sup>120</sup> *OEH*ren arabera.

<sup>121</sup> Ik. gorago «*Hura / bera. Haiek / beraiek?*» atala.

Beraz, ondo bereizi behar da balio indartzailea duen egituratik:

- | BALIO INDARTZAILEA (APOSIZIOA)  | IDENTTATE-ADIERAZLEA  |
|---|---|
| (5) <i>EskaleA berA</i> etorri da haren bila                                    | (6) <i>Eskale bera</i> etorri da haren bila                                     |
| (7) <i>EskaleAK berAK</i> ( <i>eurak / beraiek</i> )<br>etorri dira haren bila. | (8) <i>Eskale berak</i> ( <i>*eurak / *beraiek</i> )<br>etorri dira haren bila. |

Zenbaitetan, bizkaierazko *bat* ere erabilgarria da, batez ere *bateko* esapidetan.

- (9) iritzi bereko = iritzi bateko

«Errepikatzen den» izen edo sintagmaren lehen agerraldia testuan edo testuinguruan egon daiteke.

- (10) Ez zen erraza izan Antxonek hautatu zuen bidea, eta nik ere *bide bera* hartu nuen geroxeago.  
(11) Besteek halakorik espero ez zuten arren, nik ere *erantzun bera* eman nuen.

## 19.2. *Liburu(a) bera(k)* (aposizioa): balio indartzailea

Aposizioan doanean (nolabait esatearren), aurreko sintagmaren kasu-marka eraman ohi du eta balio indartzailea ematen du, bereziki azpimarratuaz aurreko sintagmako izenak adierazten duenaz ari garela, eta ez bestez.

- (12) *F. Gonzalez bera* izan da Kongresuan hitz egin duena.  
(13) *F. Gonzalezek berak* hitz egin du Kongresuan.  
(14) *F. Gonzalezek berari* zuzendu zaio oposizioko bozeramailea.  
(15) *F. Gonzalezek beraren* mintzaldia izan da polemika eragin duena.  
(16) *Liburu(a) bera* da izango da biltzarreko mintzagaia.  
(17) *Liburuak berak* eragin zuen aldaketa.  
(18) *Liburuari berari* zor zaio aldaketa.  
(19) *Liburuaren beraren* gaia aztertuko da biltzarrean.  
(20) *Gizakiak berak* (*eurak / beraiek*) dira gaurko desberdintasunen erantzule nagusiak.  
(21) *Gizakiek berek* (*eurek / beraiek*) dute errua eta ez armek.  
(22) *Gizakiei berei* (*eurei / beraiei*) egotzi behar zaie miseriaren erantzukizuna.  
(23) Bada hor egiazki gauza bat, *Erlijione gabekoen beren* begietarat dohana (Lap 323)  
(24) *Gizon hark berak* ekarri zuen.  
(25) *Gizon horrek berak* ekarri du.  
(26) *Neska koxkor honek berak* egin dezake.

Lekuzko kasuetan (hots, *-n*, *-ra*, *-tik*) *bera* beste izen-sintagma batekin aposizioan doanean, ez datoz bat ekialdeko eta mendebaldeko joerak:

- | MENDEBALDEKO JOERA                             | EKIALDEKO JOERA   |
|--|---|
| (27) <i>Han bertan</i> bizi da.                | (28) <i>Han berean...</i>                                 |
| (29) <i>Hemen bertan</i> bizi da.              | (30) <i>Hemen berean...</i>                               |
| (31) <i>Etxetik bertatik</i> ekarri behar da.  | (32) <i>Zertako ez mement huntarik bertatik?</i> (Dh 210) |
| (33) <i>Etxean bertan</i> dantzatzen ari dira. | (34) <i>Etxean berean...</i>                              |



Marka errepikatzea da joera nagusia<sup>122</sup>, nahiz eta literaturan bestelako adibideak ere badiren (batez ere *Jaïnkø berak emana...* egituran). Ez da berariazko araurik eman euskara baturako, baina bitartean, literaturan nagusi izan den joerari eustea (marka errepikatzea) izan daiteke gomendiorik zuhurrena.

### 19.3. *Liburu berdina(k)*

*Berdin* erabiltzen da BI gauza, pertsona... (EDO GEHIAGO) ditugunean mintzagai, inolako desberdintasunik ez dutenak.

- (35) *Plater beretik* jango dugu (plater # (36) *Plater berdinetatik* jango dugu  
bat) (plater bi)

Hona hemen, idazleengandik jasotako adibide batzuk:

- (37) Ezen lehenago, iguzkia sar zedinetik ilkhi arterano, gaua *laur parte bardineta* partitzen zutén (Lç *Decl a 7r*)  
 (38) Hala zorigaitzean, nola onean, gauza guziak *pisu berdinez* pisatzen tutzula (SP *Imit III 25, 3*)  
 (39) Atsegina eta atsekabea *bihotz kasik berdin* batez hartzen du (SP *Phil 9*)  
 (40) Ak Jangoikoa dan aldez, *gloria bardina* eukitea: eta Gizona dan aldez, beste iñok baño andiagoo (Cb *CatV 27*)  
 (41) Eta ala lenago eman bear zaie, *premia berdiñetan*, obligazio gehiago diegun personai. (Gco II 37)  
 (42) *Agin zuriak eta bardinak*, / Guzarateko perlak lez (Azc *PB 122*)  
 (43) *Umetxo bardin bi* egozan bakarrik burditxo baten (Echta *Jos 357*)  
 (44) *Senar emazte berdiñagorik*, gizon-emakume apalagorik! (Ag *G 290*)  
 (45) Segari mardulak *aurrera-kiñu berdiña* egiten dute ebaki-ala (Or *Mi 108*)  
 (46) Gure etxean laurentzako / gaur sei sardiña, / bañan ez dute egin / *partizio berdiña* (Tx *B 72*)  
 (47) Bakalderritik bera ta bera / Edur-malutak ugari, / [...] *Soñeko zuri eder bardina...* / Janzten dautsie danari (Enb 107)  
 (48) Parisen kurritzen da *ipuin berdina* (Mde *Pr 126*)  
 (49) Nork eztaki *abagune bardineta*n solas gozo bigun sarkorra kutunarengan isurtzen? (Erkiag *Arran 101*)  
 (50) Marra ditzagun onen eduko *lau lerro berdin* (Zait *Plat 65*)  
 (51) *Zati berdineta*n zatitu (EH: «berdin»)  
 (52) Berez *aukera berdina* behar dute denek (EH: «berdin»)  
 (53) Eriek gaitza berbera izanik, ez dela *bi eri berdinik...* (EH: «berdin»)  
 (54) *Hiru orri berdin-berdinak* (EH: «berdin»)  
 (55) *Erraztasun berdinez* mintzatzen da euskaraz nahiz erdaraz (EH: «berdin»)  
 (56) Anizkun: *Hainbat osagai berdin* edo berdintsuz osatua (EH: «anizkun»)  
 (57) *Bi alde berdin* dituen hirukia (EH: «hiruki»)

<sup>122</sup> Ikusi *OEH*, «bera» sarrera, 679-680 orr.

#### 19.4. Zalantzakoak: *iritzi bera* / *iritzi berdina*...?

Izaki konkretuekin (*plater...*) *bera* # (*plater...*) *berdina(k)* bereizkuntza nahikoa garbi badago ere, beste izen batzuekin —izen abstraktu batzuekin, batik bat— muga zertxobait lausotzen da (ik. beheargoko adibideak). Nahasgarri gerta daitezkeen artean hurrengoak ditugu:

- (58) *iritzi bera* / *iritzi berdina*
- (59) *emaitza bera* / *emaitza berdina* (matematikari)
- (60) *erantzun bera* / *erantzun berdina*
- (61) *luzera bera* / *luzera berdina*
- (62) *zabalera bera* / *zabalera berdina*
- (63) *balio bera* / *balio berdina*
- (64) *eduki bera* / *eduki berdina*
- (65) *kolore bera* / *kolore berdina*
- (66) *indar bera* / *indar berdina*

Dudazko kasu horietan *bera* da orain arteko erabileran nagusitu dena. Hona hemen, muga lauso hori ispliatzen duten idazleen adibide batzuk:<sup>123</sup>

- (67) Bijak badira *odol bardinekuak*, gitxi gora beera *euki bardinekuak*, *kleitu bardinekuak*. (fB Ic III 334)
- (68) Biak batera, ta *neurri bardinean* (Añ LoraS 176)
- (69) Ez da izaten *mantenimentu bardiña* erri guztietan (JJMg BasEsc 205)
- (70) Ikusirik, beti urteten ebalu ondo Dabiden *balore bardiñik* ez eukanak (JJMg BasEsc 178)
- (71) Ez dire ithurriak *dohain bardinekin*, / Burdin eta sufrea sortzen zenbeitekin (Hb Esk 97)
- (72) Gaizki nai digutenakin, ongilliakin bezela *amorio bardiña* agertu dezagun (Bv AsL 67)
- (73) Guztientzat *bardiña* daukana *legea* (AB AmaE 242)
- (74) Guziak ama berekoak, *ohantze berdinekoak*, seaska batekoak (Zub 103)
- (75) Egizute orain kontu, ta duarik demagun, gure ta zuen arrazoeak dirala *indar bardiñekoak* gai onetan; ikasi bear dezute baña, *ondoreak* ez tirala *berdinak*, (...) (Ajuria)
- (76) Ez dauke *indar bardiña*, edozein gizonek nai emakumek egiten dituzean erreguak eta eskariak? (Itz Azald 169)
- (77) Mariatxo zanaren begiak eta lore aiek *kolore bardiña* dutelako (Urruz Zer 118)
- (78) Joan naz gero inpernuko atietara, ta *itaun bardiña* egin dot an be. (Bilbao IpuB 218)
- (79) Guzien zorion gaia *berdina* izango da; *atsegingai berak* izango dituzte; baño ez zorion edo *atsegintasun bardiña* (Inza Azalp 114)
- (80) Guztiok ez dogu izaten *borondate bardiña* (SM Zirik 6)
- (81) Gure azeria ez zan beintzat *iritxi bardiñekoa* (Bilbao IpuB 217)
- (82) Ez da guzien *iritxi berdina* jakiteko zenbat denporaren buruan desegiten dan hostia konsagratu edo ogi itxura (Mg CC 239)
- (83) *Neurri ta balio bardiñean* ez ezik, geiagoan ere naiago dutela artoa, garia baño (Itz C 28)

<sup>123</sup> Beharbada, mendebaldeko euskalkietan (bizkaieraz batik bat) joera handiagoa dago *berdin* erabiltzeko.

## 19.5. Gaur egungo adibideak<sup>124</sup>

- |  |  |
|--|--|
| (84) * <i>Hezkuntza beraren</i> ideologizazioak eragin du...   | (85) <i>Hezkuntzaren beraren</i> ideologizazioak... / <i>Hezkuntzak berak</i> izan duen ideologizazioak eragin du...       |
| (86) * <i>Kooperatibismo bera</i> izan da aldakuntza horien eragilea.  | (87) <i>Kooperatibismoa bera</i> izan da...  |
| (88) * <i>Irakasle beraiengan</i> nabari da jarrera-aldaketa.  | (89) <i>Irakasleengan berengan (beraiengan/eurengan)</i> ... (balio indartzailea) # <i>Irakasle berengan</i> (identitatea) |
| (90) *Bizi zaren <i>hiri bertan</i> ondo patszeko aukera baitago.  | (91) ... <i>hirian bertan</i> ... (balio indartzailea) # ... <i>hiri berean</i> ... (identitatea)                          |
| (92) *Agian gure herrialdeko canpu-sean ez dago ikasketa hori, baina bai <i>hiriburu berdinean</i> , hau da pribatuan.                                       | (93) ...bai <i>hiriburu berean</i> ...   |
| (94) *Lehen mobilizazioa, Eusko Jaurlaritzara egin zuten manifestazio bat izan zen eta bigarrena, gogorragoa, <i>fakultate bertan</i> itxialdi bat izan zen. | (95) <i>fakultatean bertan</i>   |
| (96) *Nafarroari dagokionez, 1992an <i>Nafarroako Gobernu berak</i> dekretu bidez legezatu zuen itzularoko ehiza.  | (97) <i>Nafarroako gobernuak berak</i>   |
| (98) *Bizkaiaren edertasuna <i>Bizkaia bertatik</i> begiratuta ikus daiteke ondoen.  | (99) <i>Bizkaitik bertatik</i>   |
| (100) Nire alabek <i>soineko berdinak</i> dituzte  | Ongi   |
| (101) <i>Belarritako berdinak</i> erosi ditugu.  | Ongi   |
| (102) * <i>Egunkari berdinak</i> dioenez...  | (103) <i>Egunkari berak</i> dioenez...   |
| (104) * <i>Lapur berdinak</i> ebatsi du hiru toki horietan   | (105) <i>Lapur berak</i> ebatsi du hiru toki horietan  |
| (106) *Nik beti <i>saltzaile berdinari</i> erosten diot  | (107) Nik beti <i>saltzaile berari</i> erosten diot  |
| (108) *Beste guztiak <i>harmaila berdinean</i> jartzen ziren.  | (109) <i>harmaila berean</i>   |
| (110) * <i>Ordu berdinean</i> beste ikastaro bat dugu.   | (111) <i>Ordu berean</i> ...   |
| (112) *Lehen urtean euskaldun guztiak <i>gela berdinean</i> geunden.   | (113) ... <i>gela berean</i> ...   |

<sup>124</sup> Adibide asko, Azkarate (1995)-etik jasoak dira, nahiz eta esaldi batzuk epaitzean eskuzabalagoak izan garen: zenbaitetan, <\*> ikurraren ordean, zalantza adierazten duen ikurra <?> erantsi diegu abiapuntuak esaldiari. Bestalde, «*hezkuntza beraren* ideologizazioak...» modukoei <\*> ikurra ezarri diegu, nahiz eta berez arautu gabeko auzia den (badira-eta literaturan halako adibideak).

- (114) \*Eta toki askotan, *euskalki berdina* egon arren ere, herri batetik bestera gauzak asko aldatzen direla iruditzen zait.
- (115) ...*euskalki bera*...
- (116) \*Arau bera aplikatzen da *auzotartasun berdina* duten gurasoek adoptatu dituzten adingabeko seme-alabeen kasuan.
- (117) ...*auzotartasun bera*...
- (118) \*Akura-eskualdarena hartzen duena obligatzen da bertan mantentzen, *negozio berdinarekin* beste urtebete gutxiendik.
- (119) ... *negozio berarekin*...
- (120) \*Bizirik dauden neba-arrebei *izen berdina* ipintzea ez da onartzen.
- (121) ... *izen bera*...
- (122) \*Baina Barandiaran beti *berdina*. Positibista bat izaki, nekez ase-bete zezakeen Ataungo jakintsuak besteren apeta hori.
- (123) *Barandiaran beti bera*
- (124) Etxebizitza urtean 6 hilabetez okupatu gabe egon balitz, edo negozio-tokia itxita egon balitz *epe berdinean*...
- ongi
- (125) Honekin batera, joera liberalako egunkari bat argitaratzeko lanetan aritu zen Oviedon eta, beranduago, *gauza bera* egin zuen Madrilan.
- ongi
- (126) Titulu eratzailleak zehaztuko du bakarreko osagaien *jabeen kuota berdina* edo desberdina diren.
- ongi

Beste batzuetan, aldiz, gauzak ez daude hain garbi:

- (127) ? (...) hilezkortasun moduko bat lortuz. Historian behin eta berriro *pertsona berdina* (kanpoko itxuraz behintzat) errepikatu ahal izango litzatekeelarik.
- (128) ? *pertsona berdina(k)*... / *pertsona bera*
- (129) ?*Iritzi berdineko* dira.
- (130) ? / *Iritzi bereko* / *iritzi bateko*
- (131) ?*Erantzun berdina* eman dute.
- (132) ? / *erantzun bera* eman dute.
- (133) ?Edozein gizarte ezinbestean zenbait balore eta desbaloretan oinarritzen da eta jarrera sozialak balore horiekiko zehazten dira. Balore guztiek ez dute, ordea, *balio berdina*, inola ere.
- (134) ? / *balio bera*
- (135) K.Z. 1166. art. «Zordunak ezin du behartu hartzekoduna ezberdin den gauza bat hartzeko, nahiz eta agindutakoaren *balio berdineko* edo gehiagokoa izan».
- (136) ? / *balio berekoa*

- (137) Gure erantzunak *tamaina berdinekoa* edo gogorra goa izan beharko luke.
- (138) ? / *tamaina berekoa*
- (139) ? Bera neskatoa denez, bere erroa eta gustuak, azaltzen diren neskatoengandik hartuko ditu. Kontrako kasuan, mutikoa-renean, *prozedura berdina* gertatuko da.
- (140) ? / *prozedura bera / beste horrenbeste gertatuko da*
- (141) ?Eta horrela behintzat, espainolek dituzten *eskubide berdinak* izango genituzke, irakasleak edukitzea eta baita testu liburuak ere.
- (142) ? / *eskubideak / eskubide berak (berberak)*
- (143) ?Momentuan, Gipuzkoako in-tsumisoak ari dira epaitzen eta hauek ere, aurrekoen *suerte berdina* ari dira jasaten.
- (144) ? / *zortea / zorte bera (berbera)*
- (145) ?Ezkontzako eta ezkontzaz kanpoko seme-alabatasunak, eta baita adopzio osoak ere, *efektu berdinak* sortzen dituzte Kode honen xedapenei jarraiki.
- (146) ? / *Efektu berak*
- (147) Administrazio publiko bat ere harreman pribatuaren subjektua izan izan liteke, baina betiere, hiritar arruntak izango dituen *eskubide eta ahalmen berdinekin*.
- (148) ? / *...eskubide eta ahalmen berekin.*
- (149) Jakina denez, pisu edo lokal guztiek ez dute *zabalera berdina* izaten.
- (150) ? / *zabalera bera...*
- (151) Izan ere, ezgaitze-epai guztiek ez dute *eduki berdina*, (...)
- (152) ? / *eduki bera...*

## 20. -EKIKO ATZIZKI KONPOSATUA<sup>125</sup>

Jakina denez, forma hau bi atzizkiren metaketaren ondorioz sortua da: *-ekin* sozilatiboa dugu oinarrian eta haren gainean *-ko* atzizki izenlagun-sortzailea gehitu da. Formari bagagozkio, *-ekiko* aldaera zabalduena bada ere, baditu beste aldaera dialektal batzuk, hala nola, *-ekilako* (ipar-ekialdekoa), *-gazkoa* (bizkaierazkoa), eta gutxiagotan agertzen diren *-ekingo* eta *-ekinko* aldaera bitxiagoak.

Beraz, sozilatiboaren gainean *-ekiko* itxurako izenlagunak sortzen dira, hurrengo adibideetan ikus daitekeenez:

<sup>125</sup> Atzizki konposatu honen erabileraz funtsezkoak dira hurrengo lanak: Oyharçabal (1994), Azkarate (1995) eta batez ere Makazaga (1999).

- (1) *Gurasoekiko harremanak* erabat aldatu dira
- (2) *Tradizioarekiko etena* gertatu zen gure artean
- (3) *Gizonezkoekiko hitanoari* deitzen zaio «toketa»
- (4) Etxekoek eta erbestekoek *elkarrekiko harremanetan* aitzinatu behar dugu
- (5) *Lagun haiekiko harremanak* hautsi ditut
- (6) *Elkarrekiko adiskidetasuna* erabat hoztu zen
- (7) *Izakien inguruarekiko harremana* aztertzen duen jakintza
- (8) Ez zuten egundaino *elkarregazko tratu* edo *itunik* egin
- (9) *Afiliatuekiko harremanak* bultzatu behar dira
- (10) *Enpresaburuaren erabakiekiko adostasuna* erakutsi dute
- (11) *Besteren iritziekiko begirunean* hezi behar ditugu haurrak
- (12) Norbait tratatzeko era edo *harekiko jokaera* da trataera
- (13) *Lanarekiko jarrera* aldatu behar du
- (14) *Drogarekiko atxikimendua* duenari esaten zaio «drogazale»
- (15) *Biziarekiko atxikimendua* da bizinahia
- (16) Hala sendatzen zen *euren Josegazko maitasuna*
- (17) Funtzionarioaren administrazioarekiko *erantzukizuna...*

Atzizki honen inguruan bi eratako zalantza eta arazoak sortzen zaizkigu: a) alde batetik, murriztapen sintaktikoak daude (adizlagun gisa ere erabil ote daiteke?); b) beste aldetik, murriztapen semantikoak daude (zein ote dira forma konposatu honen balioak edo adierak?). Aurrera baino lehen, esan dezagun Euskaltzaindiak ez duela gai honi buruzko arau edo irizpenik plazaratu.

Kontua da azken bolada honetan —bai hizkuntza estandarrean, bai teknikoan— gehiegi zabaldu dela *-ekiko* atzizki konposatuaren erabilera, goraxeago aipaturiko murriztapen sintaktiko eta semantikoak batere kontuan hartu gabe. Baina gaurko erabilera dudazkoak jorratu baino lehen, ikus dezagun zein izan den tradizioaren erabilera.

## 20.1. *-ekiko*-ren tradizioaren erabilera<sup>126</sup>

Laburbilduta, hona hemen, *-ekiko*-ren TRADIZIOKO erabilera:

### *Izenlagun erabilera*

1a) «Bi norabideko erlazioa» adierazten duten izenak mugatuz (oinarrian *-ekin* kasu-marka): *elkar, harreman, lotura, lokarri, tratu, jardun, elkarriketa, solas, bizitza, adiskidetasun, batasun, guda, borroka, batzar, ibilaldi, mintzo, elealdi, elkargo, elkarganatze, batze, ahaidetasun, elkarrekintza...*

- (18) Ezen zure konsolazioneak eztira gizonen *elkarrekiko solhasak* bezalakoak (SP *Imit* 216)
- (19) *Filistin'tarrekiko gerrak* bukatu ziranean, Dabid'ek iñoren ere bildurrik etzukan (Lard 376)

1b) «Norabide bakarreko erlazioa» adierazten duten izenak mugatuz (gatzelaniazko «para con ...», «en relación a ...» preposizio-sintagmen pareko izan daitekeena):

<sup>126</sup> Ik. Makazaga (1999).

*eginkizun, obligazio, ardura, errespetu, eginbide, miseriakordia, zor, pena, estimazio, obedientzia, amodio, debozio, jaiera, behar, eskubide, kreditu, gurari, zitalkeria, esker, karitate, bihozperatasun, itzal, ondra, egiteko, egintza, lanbide, beldur...* Destinatio-kutsuko erlazioa adierazten duten izenekin agertzen da, eta erabilera berriagoa da (XVIII. mendetik aurrerakoa eta Hegoaldekoa).

- (20) Erein dezu *Jesusen biotzarekiko jaiera* Euskalerrietan; (...) (Lar *Carta aMb* 280)
- (21) Zenbat birtutetan dago Erljioa edo Kristauaren *Jainkoarekiko egin bide*, ta *egiteko* guzia? (Ub 123)

1c) Izen konkretuak mugatuz (sarritan, deskribapenetan).

Erabilera hau XIX. mendetik aurrera dokumentatzen da eta zenbait autoreren gan bakarrik. Iparraldean erabili da gehien, eta Hegoaldeko euskaran ohikoagoak diren egitura batzuen baliokidea litzateke (-*dun/-ko* nahiz *edun/ukan* aditzaz baliatuz egindako perpaus erlatiboak).

- (22) *Zaldi bakarrekiko gurdia* zan, gañean oial zuria estalgarriz itzalean egoteko (Anab *Aprika* 27)
- (23) Bat-batean agertzen zaizkigu, gizotsoak iduri, *hiru begiekilako mamu beltz larri batzu*, beren larru leuna dirdir (JE *Bur* 92)
- (24) Han, ezkaratz-barneko athe hartan, ene lehenbiziko ikustaldian zitzaitan bada agertu *apez-jauntziarekiko gizon ttipi gaztesko* bat, Jesuita batendako hartu nuena. (JE *Ber* 57)

1d) -(*r*)i *buruzko* postposizioaren ordain gisa, «gaia» adieraziz.

Erabilera hau berri samarra da (XX.ean hedatua). *Kontu, auzi, xehetasun, iritzi, kontakizun, eztabaida, jakintza, literatura...* moduko izenak mugatuz agertzen da -*ekiko*.

- (25) Ez dira txantxetakoak *osasurekiko gauzak*, jardetsi zun osaba Martinek (TAg *Uzt* 120))
- (26) *Xenpelarren bizitzarekiko berri bat*, 18gn. orrialdean, ez dakit zuzen dagoen (MEIG 107)
- (27) Eta Iztueta ez zen, oraingoz ikusten dugunez, arras oker ibili bere *etorkizunarekiko usteetan* (MEIG 72)

Aurreko sailkapenetik ondoriozta daitekeenez, egia bada ere -*ekiko* gehien oinarrian sozietibo kasua (-*ekin*) dagoela, ez da pentsatu behar sozietibo guztietatik -*ekiko* atzizki konposatua erator daitekeenik. Esate baterako, bi norabideko erlazioa dagoenean, bai; baina ez laguntza fisikoa adierazten denean<sup>127</sup>:

- (28) a. *lagunekin egin dugun lana* → b. *lagunekiko lana*
- (29) a. *lagunekin datorren gizona* → b. *\*lagunekiko gizona*

<sup>127</sup> Gogoratu, hala ere, deskribapenak egiteko erabilera (tradizioko 1c kasu gorago aipatua): *Zaldi bakarrekiko gurdia*, etab.

## **Adizlagun erabilerak (Hegoaldekoak<sup>128</sup>)**

### **2a) Pertsona-izenordainekin**

Tradizio luzekoa da erabiler hau (XVIII. mendearen hasieratik gaur arte). Pertsona-izenordainekin erabiltzen da (*berekiko*, *nirekiko*...) eta *pentsatu*, *esan*, *ari izan*, *jardun*... moduko aditzekin<sup>129</sup>.

- (30) Bere bidean bazijoan, ta *berekiko*: onela bagoaz, zion, nere botoi guziak laster dijoaz emendik (Cb *Eg* III 391)
- (31) Etxe otza dek au, ostatu legorra dek au —zion *berekiko*— (Ag *G* 328)

2b) Psikologiazko edo sentimenduzko kutsua duten zenbait izen nahiz izenondorekin.

Gaztelaniazko «para con ...», «en relación a ...» eta antzeko preposizio-sintagmen ordain gisa agertzen da XVIII. mendearen hasieratik. Goragoko 1b-ko izenekin (*obligazio*, *eginkizun*, *eginbide*, *miserikordia*, *jaiera*, *zor*...) erabiltzen da, eta egitura hartatik eratorria dirudi (*Jaungoikoarekiko obligazioa*... → *Jaungoikoarekiko dugun obligazioa*...). Maiz —gehienetan ez esatearren— «*ekiko* + *dugun/duen*... + *izena*» egitura errepikatzen da. Hala ere, maiztasunaren aldetik izenlagun gisa agertzen da askoz ere maizago, adizlagun gisa baino.

IZENEKIN: *-ekiko* (+ *dugun*...) + *obligazioa*...

- (32) Bat dirudi izatez, baña *Jaungoikoarekiko daukan garra* milloi bat betetzeko diña bada, eta geiago (Lar *SAgust* 14)
- (33) Zure *Jaungoiko arekiko dezun obligazio* au ondo ezagutu, ta orri ondo erantzun nai badiozu... (Cb *EBO* 29)
- (34) (...) eskerrak sarri eman bear diozkagu *gurekiko izan duan miserikordia* miragarriagatik... (Cco I 400)
- (35) Jauna, gurasoari esaten badiot, galduko du urliak *bere izen ona*, edo *fama gurasoarekiko* (AA III, 487)
- (36) Onela bizi zan anima doakabe au, munduaren begietan ongi baña *Jainkoarekiko* txit gaizki (AA III 532)

IZENONDOEKIN: *-ekiko* + *zintzo*, *lotsagarri*, *on*, *errugabe*, *sentibera*, *erai-le*, *mutu*... + *izan*

- (37) Ordea baldin hitzak zer erran nahi duen ez baldin-badakit, *barbaro izanen naiz mintzo naizenarekiko*, eta halaber... (ES 396)
- (38) S. Basiliok (...) bada dio: *Zein ona* ta *zein urrikaltia gaizto galduekiko* Jaungoiko-gizon maitagarria! (Mb *IArg* I 120)

## **20.2. -ekiko-ren gaur eguneko erabilera dudazkoak eta okerrak**

Tradizioa aztertzean ikusi ditugun 1b eta 2b erabileretatik eratortzen dira gaurko zalantzazko kasuak. Izan ere, bi eratako desbideratzeak agertzen zaizkigu gaurko hizkuntzan: a) alde batetik, lerradura semantikoa gertatu da, zenbait testu-motatan

<sup>128</sup> Iparraldeko testuetan izenlagun erabilera da *-ekilako* atzizkiak duen bakarra.

<sup>129</sup> Bizkaierazko eta Iparraldeko euskalkietako idazlanetan ez dago era honetako baliorik. Bizkaierazkoetan, gainera, *-ekiko* erabiltzen dute esanahi hau adierazteko.



*-ekiko* atzizkia gaztelaniazko «en relación a ...» eta «con respecto a ...» *guztiak* ordezkatzera igaro baita; b) beste aldetik, lerradura sintaktikoa gertatu da, hots, adizlagun erabilerak (2b), orain arte murrizta eta Hegoaldera mugatua izan dena, neurririk gabe hedatu da tradizioko testuinguru mugatuetatik kanpora.

a) *Adizlagun erabilerak*

Zenbaitetan, *-ekiko* adizlagun modura erabiltzeko gutxieneko baldintzak betetzen ez direlarik (destinatibo-kutsuko izen edo izenondo aipatuetariko baten eraginpean egotea), beste kasu-marka bat erabiltzea izan daiteke irtenbide erosoena eta txukunena. Hona hemen, horrelako zenbait adibide:

- |   |   |
|---|---|
| <p>OKERRA</p> <p>(39) Pantanik ez zuen behar adinako alderik atera, bereziki lehen postuan zegoen <i>Indurainekiko</i>.</p> <p>(41) <i>Zullere</i><i>ekiko</i> hamar minutura pasatu da Olano Aubisqueko mendatean.</p> | <p>ZUZENA</p> <p>(40) Pantanik ez <i>zien</i> behar adinako alderik atera (gainerakoei), bereziki lehen postuan zegoen <i>Induraini</i>.</p> <p>(42) <i>Zulle</i>(<i>ren</i>)<i>gandik</i> hamar minutura pasatu da Olano Aubisqueko mendatean.</p> |
|---|---|

Zenbait testuingurutan, konparazioak egiteko *-ekiko* baino itzuli egokiagoak dira *-ekin konparatuz* eta *-en aldean*:

- |   |   |
|---|---|
| <p>OKERRA</p> <p>(43) Dolarra jaitsi egin da <i>markoarekiko</i> azken egunotan.</p> <p>(45) Bost jokalaria berri ditu Errealak <i>iazko denboraldiarekiko</i>.</p> | <p>ZUZENA</p> <p>(44) Dolarra, <i>markoarekin konparatuz</i>, jaitsi egin da azken egunotan.</p> <p>(46) Bost jokalaria berri ditu Errealak <i>iazko denboraldiarekin konparatuz / denboraldiaren aldean</i>.</p> |
|---|---|

Beste batzuetan postposizio-itzulien bidez adieraz daiteke, gaur *-ekiko*-ren bidez adierazi nahi dena:

- |  |   |
|--|---|
| <p>OKERRA</p> <p>(47) Apustu indartsu bat egin nuen <i>makrobiotikarekiko</i>.</p> <p>(49) Gure alderdiak aspalditik dauka plazaratuta bere iritzia <i>gai honekiko</i>.</p> | <p>ZUZENA</p> <p>(48) Apustu indartsua egin nuen <i>makrobiotikaren alde</i>.</p> <p>(50) Gure alderdiak aspalditik dauka plazaratuta <i>gai honi buruz duen iritzia / gai honi buruzko iritzia / gai honekiko iritzia</i>.</p> |
|--|---|

Tradizioko datuen argitan, ondorengo adibidea onargarria izan daiteke, baina egitura hori baino erabiliagoa izango litzateke sozietibo soilak:

- |  |  |
|--|--|
| <p>ONARGARRIA</p> <p>(51) <i>AEKrekiko zabaldu diren komunikazio kanal berriek</i> hori adierazten dute.</p> | <p>ERABILIAGOA</p> <p>(52) <i>AEKrekin zabaldu diren komunikazio kanal berriek</i> hori adierazten dute.</p> |
|--|--|

Bestalde, psikologiazko izen batzuekin (*errespetu*, *begirune*, *estimu*, *gorroto*, *kezka*, *maitasun*, etab.) Hegoaldean *-ekiko* adizlaguna zerbait erabili bada ere, baliio destinatiboa adierazteko badira tradizioan erabiliagoak izan diren beste itzuli batzuk, hala nola, *-i buruz*, *-en aldera*, *-en eretzean* postposizioak edo destinatiboa (*-entzat*) eta adlatiboa (*-gana*) kasuak (Oyharçabal 1994)<sup>130</sup>:

DUDAZKOAK	GOMENDAGARRIAGOAK
(53) ?Errespetu handia du zurekiko	(54) Errespetu handia du zuregana/zure aldera/zureztat/errespetua dizu/...
(55) ?Bere maitasuna hizkuntzarekiko	(56) Bere hizkuntzaren alderako maitasuna/bere hizkuntzarenaganako maitasuna...
(57) ?Bere grina emakumeekiko	(58) Bere emakumeenganako grina...
(59) ?Begirunea zuen gurasoekiko	(60) Begirunea zuen gurasoen aldera / ... gurasoengana / ...zien gurasoei/...
(61) Leialtasuna erakutsi du gurekiko	(62) Leialtasuna erakutsi du guregana(ko)/gure aldera/...erakutsi digu / ...

Hona hemen, idazleengandik jasoriko adibide batzuk, erakusgarri gisa:

*-(r)en aldera* (adlag.) = «-(r)engana, -(r)i buruz»:

- (63) Bañan hanbat naizelarik zordun *zure aldera*, / Gehiago atrebitzen natzaitzu eskatzera(EZ Man I 36)
- (64) Esker onekoak izatea, ala *Jaungoikoaren aldera*, nola on egiten diguen *proximoen aldera* (Gco II 29)
- (65) Ezagutu behar bidean zordun dela *Dabiden aldera*... (EH: «sumindura»)
- (66) *Jainkoaren aldera* osoki desleiala izan dena (EH: «desleial»)
- (67) Damurik gara euskaldunak hain ezaxol eta hain zozo gure arbasoen *mintzaireren aldera* (EH: «zozo»)
- (68) Miragarria eta laudagarria da haren *karra Jainkoaren aldera* (EH: «laudagarri»)
- (69) *Gure aiten aldera* bere errukia erakusteko (Ir YKBiz 27)
- (70) Gogoan har dezagun Salbatzailearen ontasun miragarria *bere dizipulu fedegalduaren aldera* (EH: «ontasun»)
- (71) Bere izate guztiko lehiarik minena *emaztearen aldera* baizik ez dezakeela erakuts gizonak (EH: «min»)

*-(r)en alderako / alderat(e)ko* (izlag.) = «-(r)i buruzko»:

- (72) Bihotzeko humiltasuna, girstino *lagunaren alderako amorioa eta karitatea* (Mat 290)
- (73) Eta Jangoikoaren eta *proximoaren alderako egiazko karidadea* (Gco I 429s)

<sup>130</sup> *Egunkariakoan Estilo Liburuan* (1995: 40) erabat gaitzesten dira *Estimu handia du gurekiko* edota *Errespetu handia zuen lehendakariarekiko* tankerakoak, *-ekiko* atzizkiari izenlagun funtzioa bakarrik dagokiola argudiatuz.

- (74) Itsusiak eta ezin-kondatauak dira nere gaizkiak eta *zure alderako hobenak* (Dv *LEd* 149)
- (75) Garbiki erraiteko, ez du maite Donostia. Aspaldiskoan, urthetik urthera ttipitu zait, ez bakarrik *hiriarentzat naukan amodioa*, baina oraino *tokiaren berearen alderakoa*. (JE *Ber I* 84)
- (76) Arbasoen *hizkuntzaren alderako maitasuna* (EH: «maitasuna»)
- (77) *Jaungoikoaren alderako maitetasuna*, beragango esperantza (Añ *EL*<sup>2</sup> 82)
- (78) Ezta asko zeure konzientzian barrena kasto, garbi eta onhest izaitea, baiña kanpoan ere, eta *munduaren alderakotzat* ere, hala behar duzu izan: qq. (Ax 262)

-(r)i *buruz* = «-en aldera...»

- (79) Nortaz eginak garen, zer eginbide dugun gure *kreatzaileari buruz* (Lap 41)
- (80) (...) ahoa betez bazerasazuten: etzutela xede gaixtorik *erlisioneari buruz*; baizik eta zera zela... (HU *Zez* 110)
- (81) (...) alabaiña, usteak ustel jo zizkioten, Piarresek *neskari buruz* amor eman baitzun... (Etxde *JJ* 083)

Dena dela, beharbada, hitzez hitz aztertu beharko litzateke zein diren izen bakoitzak onartzen dituen erregimenak. *Zor* bezalako hitz batek, adibidez, erraz onartzen du *-ekiko* (*Latinarekiko zorra / lagunekiko dudan zorra...*), baina *maitasun*, *begirune* edo *zaletasun* modukoek bakanago edo nekezago onartuko dute halakorik. Ondoren, *maitasun*, *begirune* eta *zaletasun* izenen erregimenak erakusten dira, gaingiroki bada ere.

*Maitasun* hitzaren erregimena kutsu destinatiboa adierazteko (idazleen adibi-deak):

- (82) *Jaioterriarenganako ongina eta maitetasun* txit biotzekoa (Aran *SIgn* 13)
- (83) *Bata bestientzako maitxetasun* geidxau dauela (Ort *Oroig* 61)
- (84) Jainkoaren *guganako maitasun* neurrigabea (EH: «maitasun»)
- (85) *Maidereganako maitasuna* (Etxde *JJ* 265)
- (86) Arbasoen *hizkuntzaren alderako maitasuna* (EH: «maitasun»)
- (87) *Arrantzaleentzat maitasun* berezia agertu du (Munita 127)
- (88) *Norbere buruarentzat* daukagun maitetasun itsu, arro eta okerretik (Ag *AL* 121)
- (89) Zer nolako *maitetasuna zion* Markiñako ibarrari (Etxeg *Itzald* II 86)

*Begirune*, hitzaren erregimena kutsu destinatiboa adierazteko (idazleen adibi-deak):

- (90) *Gurasoenganako begirunea* (EH: «begirune»)
- (91) Besteren *iritziekiko begirunea* (EH: *ibid.*)
- (92) Berez lotsagabe ta edandakoan txit ausarta, Odolkik *inoren begirunerik* etzuan (Ag *AL* 312)
- (93) *Gurasoentzat etzuen begirunik ta errespetorik* (Ub 14)
- (94) *Eriotzearen aurrean* oi dan ixiltasun da *begiruneagaz* (Ag *AL* 100)
- (95) Itzetan ausarta eta *iñorentzat begirunerik gabea* (Etxde *JJ* 87)
- (96) Sekula *inoren eretzean* senditu ez zuen begirune bat nabaitzen zuen *haur aratzaren aldera* (Mde *HaurB* 50)
- (97) Gizonak *izan bear diola* emakume erbalari (...) laguntza eta *begiruna* (EE 1882c, 584)

- (98) Jaugoiko benetako zan eta alanbere beti beti *euki eutsen gustizko begiraune* edo erreberenzija andi bat bere Amari eta Aita Ordeko San Joseperi. (Astar II 83)  
 (99) *Begirunia* euki biar da daukanagaz (EE 1881a 161)

*Zaletasun* hitzaren erregimena kutsu destinatiboa adierazteko (idazleen adibideak):

- (100) Ikusi banu bizkaitarretan gipuzkoarretan nekusan *euskararen zaletasuna* (EH: «bizkaitar»)  
 (101) *Abestaldean zaletasuna* gutxiduz doa gure artean (EH «abestalde»)  
 (102) *Ehizerako/ lanerako / letretarako / gaitzerako... zaletasuna* (EH)  
 (103) *Irakurtzeko zaletasuna* (EH)  
 (104) *Emakumearenganako zaletasuna* (EH)  
 (105) *Liburu(-)zaletasuna / droga(-)zaletasuna / zuhaitz(-)zaletasuna* (EH)  
 (106) *Euskararekiko atxikimendu eta zaletasuna* (EH)

### b) *Izenlagun erabilerak*

Tradizioan oso gutxi erabili dira *-ekiko + beldur / maitasun / joera / hurbilketa* moduko esapideak. Haien aldean, askoz arruntagoak dira ondorengo egiturak.

BAKAN	ERABILIAGOA
(107) Espazio <i>itxiekiko beldurra</i>	(108) Espazio <i>itxiei diegun beldurra / Espazio itxien beldurra</i>
(109) <i>Herriarekiko maitasunak</i> eraman zuen hiria utzi eta jaioterri- ra itzultzera.	(110) <i>Herriari zion maitasunak... / Herria(ren)ganako maitasunak...</i>
(111) <i>Mendiarekiko joera</i> handia dugu.	(112) <i>Mendirako joera</i> handia dugu / <i>Mendira joateko joera</i> handia dugu.
(113) HIESaren <i>gaiarekiko hurbilketa</i> bat egin nahi izan du hizlariak.	(114) HIESaren <i>gaira hurbildu</i> nahi izan du hizlariak.

Oraintsuko erabilera berri baten arabera *emakumearen diskriminazioa* («emakumeak norbait diskriminatzen du») # *emakumearekiko diskriminazioa* («emakumea diskriminatzen dute») bereizkuntza egitea proposatzen da, lehenengo egituraren anbiguotasuna («emakumeak diskriminatzen du?» ala «emakumeak jasaten du diskriminazioa?») saihesteko. Dena dela, ez diogu arazorik ikusten bi esanahietarako *emakumearen diskriminazioa* erabiltzeari, erabiliagoa delako eta testuinguruak anbiguotasuna argitu ohi duelako.

Bestalde, orain arte *-ekiko* atzizkiaren erabilera gehiegizkoa eta sustraitu gabea salatu badugu, berdin-berdin salatu behar da haren ordeztasun *-ekin* sozietibo soila erabiltzea izenlaguna behar den inguruneetan, ondoko adibidean ikus daitekeenez:

(115) Gizakiok <i>elkarrekin</i> harremanetarako dugun joera sexualki bideratzen da.	(116) Gizakiok <i>elkarrekiko harremanetarako</i> dugun joera sexualki bideratzen da.
(117) <i>elkarmenpekotasun</i>	(118) <i>elkarren menpekotasun / elkarrekiko menpekotasun / interdependentzia</i> (Elh.)

### 20.3. -*ekiko* hizkuntza teknikoetan

Tradizioarekin bat datozen erabilerak aitzakiarik gabekoak dira, jakina. Hala, «bi norabideko erlazioa» adierazten duten izenak mugatuz agertzen denean, guztiz zuzena eta egokia da -*ekiko* atzizkia erabiltzea. Hurrengo adibideetan, esaterako:

-*EKIKO* + *harremana, lotura, erreakzioa, elkarreagina, menpekotasuna...*

- (119) Gizakiaren animaliekiko *harremanak* / Gizakiaren eta animalien arteko harremanak  
(120) Entzimaren substratuekiko *lotura*  
(121) Organismoen tenperaturarekiko *menpekotasuna*

Aurreko adibideetan izenlagun modura ageri zaigu -*ekiko*. Adizlagun erabilerari dagokionez, printzipioz, izenlagun bezala erabil badaiteke, hala egitea gomendatuko genuke (bestea txartxat eman gabe, noski):

#### ADIZLAGUN ERABILERA

- (122) Gizakiak *naturarekiko dituen betebeharrak*

#### IZENLAGUN ERABILERA

- (123) Gizakiaren *naturarekiko betebeharrak*

Batzuetan, ordea, premiarik gabe erabiltzen da -*ekiko*, edo behintzat, zaila da haren bidez adierazi nahi den ñabarduraz jabetzea. Esate baterako, hurrengo adibideetan ez dirudi -*ekiko* atzizki konposatuaren premiarik dagoenik:

- (124) ...harreman juridikoa, arau juridiko batek zehazten duen pertsona batek *bestearekiko* duen harremana da.  
(125) ...harreman juridikoa, arau juridiko batek zehazten duen pertsona batek *beste batekin* duen harremana da.  
(126) ...*sinfisiarekiko* albora eta bentralki kokatua.  
(127) ...*sinfisiaren alboan* eta alde bentranean kokatua.  
(128) ...fazialaren *adarrekiko* barrutik kokatua.  
(129) ...fazialaren *adarren barruan* kokatua.  
(130) (...) hots, mineralen abiadura handienaren norabideak *elkarrekiko kontrakoak edo ezberdinak* izaten badira, anisotropia murriztu egiten da.  
(131) (...) hots, mineralen abiadura handienaren norabideak *elkarren kontrakoak edo ezberdinak* izaten badira, anisotropia murriztu egiten da.

Zenbaitetan adizlagun gisa agertzen zaigu -*ekiko*, gaztelaniazko *respecto de X* sintagma itzultzeko. Horrelakoetan, aukeran, kasuan kasuko erlazioa hobekien adieraz dezakeen postposizio-sintagma bilatzea gomendatuko genuke, itsu-itsuan -*ekiko* esapidera jo gabe.

- (132) ...*irakurketarekiko* erakusten duten interesa.  
(133) *irakurketarako* / *irakurtzeko* erakusten duten interesa.  
(134) ?Auzibideen metaketa erabakitakoan, ondorerik gabe utz daiteke berau, *haietako batekiko edo zenbaitetikiko* «Acordada la acumulación de autos, podrá ésta dejarse sin efecto *respecto de* uno o varios de ellos»] (LPL, 34.3 art.)  
(135) Auzibideen metaketa erabakitakoan, ondorerik gabe utz daiteke berau (?) auzibide *haietako bati edo gehiagori buruz* «Acordada la acumulación de autos, podrá ésta dejarse sin efecto *respecto de* uno o varios de ellos»] (LPL, 34.3 art.)

- (136) Garbi ikusten dugu haur bakoitz desberdina dela *besteekiko*...
- (137) Garbi ikusten dugu haur bakoitz desberdina dela *besteen aldean*...
- (138) ... pentsamolde hau arrotza da *zientziarekiko*.
- (139) ... pentsamolde hau arrotza da *zientziarentzat / ... arrotz zaio zientziari / ... arrotza da zientziaren ikuspegitik / ...*

Batzuetan, «-ekiko + izenondoa + izan» tankerako egiturak (...*penizilinarekiko alergikoak badira*...) agertzen zaizkigu hizkuntza teknikoan. Egitura horrek Hegoaldeko tradizioaren babesa du bere alde<sup>131</sup>, baina ez da ahaztu behar zenbaitean postposizio-egiturak ere eskueran ditugula (...*penizilinaren aurrean alergikoak badira*). Hots, lehia horretan hauxe da gure gomendioa: besterik ezean — beste itzulpen-biderik aurkitu ezean — baizik ez da jo behar «-ekiko + izenondoa + izan» tankerako esapideetara.

- |   |   |
|---|---|
| <p>-EKIKO [adizlaguna] + izenondoa + izan</p> <p>(140) Gaixoak penizilinarekiko <i>alergikoak badira</i>...</p> <p>(142) Auzibide hauen tramitazioak presazko izaera izango du ondorio guztietarako, eta <i>lehenepenezkoa izango da</i> epaitegian edo auzitegian erabiltzen diren <i>guztiekiko</i>. [«La tramitación de estos procesos tendrá carácter urgente a todos los efectos, siendo preferente respecto de todos los que se sigan en el Juzgado o Tribunal.»] (LPL, 177.1 art.)</p> | <p>POSTPOSIZIOA [adizlaguna] + izenondoa + izan</p> <p>(141) Gaixoak penizilinaren aurrean <i>alergikoak badira</i>...</p> <p>(143) ??Auzibide hauen tramitazioak presazko izaera izango du ondorio guztietarako, eta <i>lehenepenezkoa izango da</i> epaitegian edo auzitegian erabiltzen diren <i>auzibide guztien aldean</i>. [«La tramitación de estos procesos tendrá carácter urgente a todos los efectos, siendo preferente respecto de todos los que se sigan en el Juzgado o Tribunal.»] (LPL, 177.1 art.)</p> |
|---|---|

Arazoak; erdaretako [izena + preposizioa + izena] egituraren ordainak ematean agertzen zaizkigu batik bat. Preposiziodun sintagma horiek (*resistencia a X* modukoak) ugariak izaten dira hizkuntza teknikoetan eta ez da erraza haien ordainetan erabil daitezkeen itzuliak finkatzea. Hona hemen, horrelako esapide batzuk eta haien hitzez hitzeko itzulpen okerra:

- |                                    |                                    |
|------------------------------------|------------------------------------|
| (144) alergia a los antibióticos   | (145) *antibiotikoei alergia       |
| (146) tratamiento con antibióticos | (147) *antibiotikoekin tratamendua |
| (148) resistencia a la penicilina  | (149) *penizilinari erresistentzia |

Bistan dagoenez, irtenbidea ez da hitzez hitzeko itzulpena (\**antibiotikoei alergia*, etab.), jakina baita ez direla onargarriak adizlagunak izen-sintagmaren barnean. Gramatikaren ikuspegitik, horien ordez izenlagunak (-ko / -(r)en) behar ditugu,

<sup>131</sup> Gogoratu gorago aipaturiko literaturako adibideak: ...*barbaro izanen naiz mintzo naizenarekiko*...

edo bestela, adizlagunak direnez gero, aditza eman (*alergia die antibiotikoei / antibiotikoei dien alergia*, etab.).

Dena dela, arazo gramatikalaz gainera (izenlagunezko ala adizlagunezko egitura behar dugu?), arazo semantikoa dugu: zein da erdarazko esapide horietako bakoitzean izenen arteko erlazioa? Ez ote dugu euskaraz bestelako baliabiderik erlazio horiek adierazteko? Dударik gabe, askotan erlazio horiek postposizioen bidez (*-en aurreko*, *-en kontrako*, *-en arabera*, *-en gaineko*, *-en bidezko*...) askoz zehatzago eta egokiago adieraz daitezke, *-ekiko* atzizki konposatua erabili gabe.

Hona hemen, aipaturiko izen horiek onar dezaketen postposizio-egitura:

*-EN ARABERAKO + ordenazioa, aldageta, sailkapena, mugimendua...*

(150) Ordenación por niveles	(151) Mailaren arabera ordenazioa (antolamendua)	(152) *-ekiko
(153) Cambio del metabolismo según la estación	(154) Metabolismoaren urtaroen arabera aldageta	(155) *-ekiko
(156) Clasificación por orden alfabético	(157) Ordena alfabetikoaren arabera sailkapena / ...	(158) *-ekiko
(159) Movimiento con respecto al eje X	(160) X ardatzaren arabera mugimendua	(161) ?-ekiko

*-EN GAINEKO + eragina, nagusitasuna*

(162) Influencia de la temperatura sobre los animales	(163) Tenperaturaren animalien gaineko eragina	(164) *-ekiko
---	--	---------------

*-EN BIDEZKO + asistentzia, tratamendua, profilaxia...*

(165) Asistencia por ordenador	(166) Ordenagailu bidezko asistentzia	(167) ?-ekiko
(168) Tratamiento con antibióticos	(169) Antibiotiko(en) bidezko tratamendua	(170) ?-ekiko
(171) Profilaxis mediante antibióticos	(172) Antibiotiko(en) bidezko profilaxia	(173) ?-ekiko

*-EN AURREKO (-EN KONTRAKO) + erantzuna, jokaera, joera, alergia, hipersentzibilitatea, erresistentzia...*

(174) Alergia a salicitatos	(175) a. Salizitaten aurreko alergia /	(176) ?-ekiko
(177) Resistencia a los antibióticos	b. ??-en kontrako...	
	(178) a. Antibiotikoen kontrako erresistentzia /	(179) ?-ekiko
	b. Antibiotikoen aurreko erresistentzia	

-ENGATIKO («kausa») + *hepatitisa, toxikotasuna*... (ikus 21. atala)

(180) Hepatitis por salicatas (181) Salizitotoengatiko he- (182) \*-*ekiko*  
patitisa

Beste batzuetan *-dun, -ko* eta perpaus erlatiboen gainean eraikitako izenlagu-  
netara jo beharko dugu, eta nekez baliatuko gara *-ekiko* atzizkiaz<sup>132</sup>:

(183) Pacientes con ten- sión alta	(184) a. Tentsio garaiko gaixoak / b. Tentsio garaia <i>duten</i> gaixoak	(185) ?Tentsio garaiare- kiko gaixoak
(186) Pacientes con tras- tornos hepáticos	(187) ...asaldurak <i>dituz-</i> <i>ten</i> gaixoak	(188) ?... asaldurekiko gaixoak
(189) Reptil con patas largas	(190) a. Hanka luzeako narratzia / b. Narrazti <i>hanka</i> <i>luzeduna</i> / c. Hanka luzeak di- tuen narratzia	(191) ?Hanka luzeekiko narratzia

Bukatzeke eta ondorio gisa, bi alderdi azpimarratu nahi genituzke. Alde bate-  
tik, gaur egun ikusten ditugun *-ekiko* askok eta askok ez dute zerikusirik tradizioan  
erabili izan diren adizlagun erabilerekin, eta zabarkeriak eta analogiaren indarrak  
eragindakoak dira; gogorazi behar da, gainera, badirela beste egitura batzuk gaur  
egungo *-ekiko*-ren erabilera asko baino jatorragoak, ohikoagoak, eta zergatik ez  
esan, zehatzagoak izan daitezkeenak. Beste alde batetik, *-ekiko* atzizkiaren inguru-  
ko auziak sintaxitik terminologiaren eremura garamatza, eta hor ez dago dudarik  
*-ekiko* atzizkia oso emankorra gertatzen ari dela erdal preposizio-sintagma luzeen  
ordainak —izenlagunak— emateko orduan; hona hemen, *Euskalterm* datu-basetik  
atera dugun adibide-sorta laburra:

(192) *elkarrekiko* ezadostasun/desadostasun (Zuz. «mutuo disenso»)  
(193) *elkarrekiko* obligazio (Zuz. «obligación recíproca»)  
(194) *hirugarrenekiko* aseguru (Admin. «seguro a terceros»)  
(195) *Administrazioarekiko* auzien jurisdikzio (Admin. «orden (jurisdiccional)  
contencioso-administrativo»)  
(196) *Administrazioarekiko* auzi-errekurtso (Admin. «recurso contencioso-admi-  
nistrativo»)  
(197) *ingurunearekiko* erreakzio (Psikol. «reacción al medio»)  
(198) *munduarekiko* irekitasun (Psikol. «apertura al mundo»)  
(199) *urarekiko* sobresaturazio (Biol. «sobresaturación con respecto al agua»)

Zenbaitetan, gorago aipatu dugun bikoiztasuna ageri da hautuetan:

(200) *legearekiko* berdintasun / lege(aren) aurreko berdintasun  
(201) peritu-gastuak / *adituekiko* gastuak

<sup>132</sup> Nahiz eta, Iparraldeko tradizioan batez ere, halako itzuliak erabiliak izan.



Esanak esan, espezialitate-hiztegiatarako bagoaz, arloan arloko eta kasuan kasuko proposamenen aurrean aurkituko gara: hau da, nahi baino gehiagotan, tradizio-ko erabilerekin guztiz bat ez datozen proposamen terminologikoak finkatuko dira seguru asko.

## 21. -GATIKO ATZIZKI KONPOSATUAREN ERABILERA MIMETIKOA

Atal honetan, batik bat gaztelaniaren eraginez gertatu ohi den *-gatiko* atzizki konposatuaren erabilera mimetiko gehiegizkoa salatu nahi dugu. Gramatikaren ikuspuntutik guztiz zuzena da *-gatiko* izenlagun gisa erabiltzea, baina beste alde batetik egia da oso gutxi erabili izan dela literatura-tradizioan: hortaz, tradizioaren eta premia berrien arteko tirabiraren aurrean gaude kasu honetan. Kontua da premia berriak ez direla beti uste bezain premiazkoak: batzuetan erdal egituraren —maizenik gaztelaniazko egituraren— («A por B») kalko hutsa egiten da («B*gatiko* A»), *-ko* erlazio-atzizki soilaren bidez, hitz elkartuen bidez edo bestelako bidez ederki esan daitekeena adierazteko.

Hurrengo terminoetan, adibidez, ez datoz bat inguruko hizkuntza nagusiak:

GAZTELANIA (A)	FRANTSESA (B)	INGELESA (C)
(1) subsidio por defunción	aide pour cause de décès	death assistance
(2) discriminación por razón de edad	discrimination fondée sur l'age	age discrimination
(3) discriminación por razón de sexo	discrimination fondée sur le sexe	sex discrimination
(4) permiso por fallecimiento	congé de décès / congé de deuil	bereavement leave / funeral leave
(5) permiso por lactancia	congé d'allaitement	nursing leave
(6) permiso por maternidad	congé de maternity	maternity leave
(7) permiso por matrimonio	congé de mariage	marriage leave / wedding leave
(8) permiso por paternidad	congé de paternité	paternity leave

Beraz, horrelakoetan zer dela eta makurtu behar du euskarak gaztelaniazko egituraren aurrean, beste egiturak (hitz-elkarketa ingelesez eta «izena + *de* + izena» frantsesez) berezkoagoak zaizkionean? Horrelakoetan arrazoizkoagoa litzateke gaztelaniazko egitura ahaztu, eta beste hizkuntzetako ereduaren arabera jotzea. Gure iritziz, (9)-ko terminoa itzultzeko egokiagoak dira (10b) eta (10c) ordainak, gaztelaniaren kalko hutsa den eta euskarari nahikoa arrotz zaion (10a) egitura baino.

- (9) a. (gazt.) discriminación por razón de sexo
- b. (fr.) discrimination fondée sur le sexe
- c. (ingel.) sex discrimination

- (10) a. sexuagatiko bereizkeria/diskriminazio
- b. sexuan oinarrituriko bereizkeria/diskriminazio
- c. sexu-bereizkeria/diskriminazio

Ondorioz, *-gatiko* horren erabilera benetako premietarako mugatzea gomendatuko genuke. Hurrengo kasuetan, adibidez, erraz saihets daiteke *-gatiko*-ren erabilera:

EGITURA KALKATUA	HOBESTEKO EGITURA
(11) amatasunagatiko alta («alta por maternidad»)	(12) amatasuneko alta
(13) berraseguratzegatiko diru-emate («aportación por reaseguro»)	(14) berraseguratzeko diru-emate
(15) aitatasunagatiko baimena («licencia por paternidad»)	(16) aitatasuneko baimena / aitatasun-baimen
(17) antzinatasunagatiko igoera («ascenso por antigüedad»)	(18) antzinatasun bidezko maila-igoera
(19) heriotzgatiko sorospen («auxilio/subsidio por defunción»)	(20) heriotzako sorospen / heriotza-sorospen
(21) amatasunagatiko baja («baja por maternidad»)	(22) amatasuneko baja
(23) amatasunagatiko atsedeen («descanso por maternidad»)	(24) amatasuneko atsedeen
(25) krisialdiagatiko eszedentzia («excedencia por crisis»)	(26) krisialdiko eszedentzia (lan-utzialdi)
(27) seme-alaben zaintzogatiko eszedentzia («excedencia por cuidado de hijos»)	(28) seme-alabak zaintzeko eszedentzia
(29) kaleratzeagatiko/iraizpenagatiko kalte-ordain («indemnización por despido»)	(30) kaleratzearen/iraizpenaren kalte-ordain
(31) berandutzeagatiko gainordain («recargo por mora»)	(32) berandutze-gainordain
(33) kalte-galerengatiko erreklamazio («reclamación por daños y perjuicios»)	(34) kalte-galeren erreklamazio
(35) kaleratzeagatiko/iraizpenagatiko erreklamazio («reclamación por despido»)	(36) kaleratzearen/iraizpenaren aurkako erreklamazio
(37) zereginagatiko/egitekoengatiko soldata («salario por tarea»)	(38) zereginen/egitekoen araberako soldata
(39) zuzendari-funtzioagatiko osagarri («complemento por el ejercicio de labores directivas»)	(40) zuzendari-funtzioen osagarri
(41) kontzeptu honengatiko diru-kopurua («cuantía por este concepto»)	(42) kontzeptu honi dagokion diru-kopurua
(43) gaixotasunagatiko lizentzia («licencia por enfermedad»)	(44) gaixotasuneko lizentzia / gaixotasun-lizentzia

## 22. INSTRUMENTALAREN (-Z) ZENBAIT ERABILERA OKER<sup>133</sup>

Azken bolada honetan, komunikabideetan eta administrazioan batez ere, -z instrumentalaren erabilera asko ugaltu da edo ari da ugaltzen behar ez den kasuetan. Dударik ez da zertaz kasua denean beti instrumentala erabili behar dela; baina mendebaldean, ekialdean ez bezala, erabilera urria duela eta, batzuek erabilera hori ugaltzera jo dute azken urteotan. Hori dela eta, Euskaltzaindiaren gramatikak dioten bezala<sup>134</sup>, «anitzetan erabili beharko ez litzatekeen» tokietara ere hedatu da -z instrumental horren erabilera.

Erabilera okerrak, labur bilduta, honako kasu hauetan egiten dira batik bat:

### 22.1. Modua adierazten denean: \*zazpietako trenez etorri da

Zuzen erabiliak dira, noski, ondorengo adibideotan ageri diren *oinez*, *eskuz*, *trenez*, *autoz*, *itsasontziz* bezalako sintagmak:

- (1) (a) *Trenez* joan naiz Donostiara.
- (b) Erromara *autoz* joateko asmoa du.
- (c) *Itsasontziz* egin genuen Palmako joan-etorria.
- (d) *Euskaraz* ari dira.
- (e) *Oinez* askotan egin dut Tolosako bidea
- (f) *Eskuz* ari dira pilotan jokatzeko

Markaturik eman ditugun *trenez*, *autoz*, e.a. bezalako aditzondoak kasu instrumental mugagabeen doaz batere zehaztasunik gabe. Moduzko aditzondo hutsak dira horiek<sup>135</sup>.

Baina aditzondo horien antzera instrumental mugagabeen doazen izen-sintagmak ere ikusten dira eta entzuten, hala nola:

- |  |   |
|--|---|
| (2) (a) *Zazpietako trenez joan naiz Donostiara.               | (a') Zazpietako trenean joan naiz Donostiara.                   |
| (b) Erromara *bere autoz joateko asmoa du.                     | (b') Erromara bere autoan joateko asmoa du.                     |
| (c) *Bartzelonako itsasontziz egin genuen Palmako joan-etorria | (c') Bartzelonako itsasontzian egin genuen Palmako joan-etorria |
| (d) *Euskara batuz ari dira.                                   | (d') Euskara batuan ari dira.                                   |

Baina hauek oker erabiliak dira, (1)-eko egiturak itxiak baitira, adberbioak hain zuzen, forma eta kontestu horretan bakarrik erabiliak. Hala, (1)-eko aditzondoak ez bezala, (2)-ko adizlagunak, mugatuak eta zehaztuak dira. Horrenbestez, mugatzailea eskatuko dute eta, gainera, inesiboan joango dira: *zazpietako trenean*, *bere autoan*, *Bartzelonako itsasontzian*, *euskara batuan*, e.a.<sup>136</sup>

<sup>133</sup> Ia bere osotasunean aldatu dugu hona Euskaltzaindiko Gramatika Batzordeak (1994c: 916-919) gai honetaz prestatu zuen txostena.

<sup>134</sup> Euskaltzaindia (1993a: 483).

<sup>135</sup> Euskaltzaindia (1993a: 485).

<sup>136</sup> Euskaltzaindia (1993a: 485).

## 22.2. Denbora adierazten denean: *\*Joan zen igandez iritsi zen*

Denbora adierazten duten aditzondoak ere badira: *egunez, gauez, garaiz/tenorez*, e.a. bezalakoak.

Hala ere, egunen eta hilen izenak ez dira era horretara instrumental kasu mugagabeen erabiltzen. *Igandez, astelehenez, martxo, abuztu...* bezalakoek ez dute tradizioz. Horien ordez, *igandean/igandeetan, astelehenean/astelehenetan, martxoan, abuztuan...* inesiboko forma mugatuak erabiltzen dira. Eta gauza bera gertatzen da *arratsez, arratsaldez, goizez* bezalakoekin ere. Ahozko eta idatzizko tradizioan *arratsaldean, arratsean, goizean...* adizlagunak erabili baitira.

Denborazko aditzondoaren modura instrumental mugagabeen eratzeko izen-sintagma ere badira maizegi gure artean:

- (3) (a) *\*Joan zen igandez* Urbian izan ginen familia osoa  
(b) *\*Hitzaldi garaiz* iritsi al zinen biltzarrerara?  
(c) *\*Datorren astez* etxetik kanpo izango naiz  
(d) *\*Astelehen goizez* etxean egiten du lan, eta *\*astearte arratsez* kanpoan  
(e) *\*Ostiral gauez* bertsotara joaten naiz

Horien ordez besteok lirateke egokiak:

- (4) (a) *Joan zen igandean* Urbian izan ginen familia osoa  
(b) *Hitzaldi-garaian* iritsi al zinen biltzarrerara?  
(c) *Datorren astean* etxetik kanpo izango naiz  
(d) *Astelehen goizetan* etxean egiten du lan, eta *astearte arratsetan* kanpoan  
(e) *Ostiral gauean* bertsotara joaten naiz

Horren arrazoia, goiko (1)-ean, moduz aritu garenean eman duguna da, hots, denbora adierazten duen adizlagun batek, nolabait zehazturik baldin badator, mugatzailea behar du, eta inesiboaren kasu-marka ere bai<sup>137</sup>.

## 22.3. *-ekin* sozietiboaren ordez *-z* instrumentala: *\*Bigarren doa, hamar puntuz*

*-ekin* eta *-z*, hurrenez hurren kasu-marka sozietiboa eta instrumentala direla eta, bada nahikoa nahasmen bi horien ahozko eta idatzizko erabilera. Azken urteotan, batasunaren izenean, *-z* instrumentalaren erabilera bultzatu dugu, batzuetan egitura okerrak ere sortuz. Gramatika Batzordearen iritziz, ordea, *-z* eta *-kin* parekoak dira zenbaitetan, biak zuzenak eta onargarri:

- (5) a) *Aizkorarekin* moztu zioten burua Maria Antonietari  
b) *Aizkoraz* moztu zioten burua

Ohar gaitezen, nolani ere, sozietibo mugatua izan ohi dela, eta instrumentala ez: *aiztoarekin / aiztoz*.

<sup>137</sup> Euskaltzaindia (1993a: 471).

Azken urteetan hedatu zaizkigun instrumentalaren erabilera okerrak aztertzean, berriz, oharzten gara erabilera oker horiek bi iturri dituzketela: lehen, batzuetan halabeharrez eta besteetan agian beharrik gabe, erdaratik asko itzultzen denez, gaztelerazko *con* preposizioaren kasuan kasuko balio eta esanahi desberdinak ez bereiztea edo kontuan ez hartzea. Honako adibide hauek bezalakoak ditugu horren lekuko:

- (6) (a) Athletic hirugarren doa *\*hogeita bi puntu(z)* eta *\*lau positiboz*
- (b) X bertsolaria doa lehenengo *\*zazpiehun puntuz*
- (c) *\*Horrenbeste kiloz* ezin hartu aurea
- (d) Gasteiz izan da, *\*hiru graduz*, Euskal Herriko hiribururik hotzena

Adibide horietan izartxo markatutako sintagmek instrumentalaren kasu-marka daramate, baina soziationa *-ekin* behar litzazieke atxiki eta *hogeita bi puntu(rekin)* eta *lau positiborekin*, *zazpiehun punturekin*, *horrenbeste kilorekin*, ... *gerriko gorriarekin* eta *gerriko urdinarekin*, *hiru gradurekin* esan edo idatzi.

Nahastearen bigarren iturria<sup>138</sup>, bizkaierazko *-gaz* atzizki soziationa izan daiteke. Izan ere, «[...] nahasketa fonetikoaren bidez, jatorrizko soziationa (singularrean *-a(ga)z = arekin*) instrumentaltzat (singularrean *-az*) jotzen dute batzuek...». Hala nabari da ondorengo etsenpluotan:

- (7) (a) Lasa ezker hegaletik doa *\*baloiaz < baloiagaz*
- (b) Neuk bere egingo neuke hori *\*zure sasoiuz < sasoiagaz*
- (c) Ehizera doa *\*eskopetaz < eskopetagaz*

Baina, bai gaztelerazko «*con*» preposizioaren kasuan kasuko funtzioa ongi ez bereiztetik, bai *-gaz* atzizkiaren laburtze fonetikotik sortu bide diren erabilera okerreko sintagma horiek ez dute «norbait horietaz *baliatu dela*» esan nahi, «norbaitek *dituela*» horiek baizik. Beraz, azpiegituran *ukan* aditza baldin bada, *-ekin* deklinabide-atzizkia erabili behar da. Esate baterako, (7a) adibideak, azpiegituran, «Lasa ezker hegaletik doa *baloia duela*» esan nahi badu, horren ordezkoa gainegituran «Lasa ezker hegaletik doa *baloiarekin*» izango da. Eta *-ekin* soziationa erabili beharrean, *-z* instrumentala erabiltzen dutenek berek sendesten dute diogun hau, «... *Lau positiboz*» forma erabili ondoren, «... *edo lau positibo dituela* « formula erabiltzen baitute askotan.

Eta, aitzitik, «zerbait X-z *baliatuz* burutua» dela adierazi nahi bada, orduan *-z* kasu-marka instrumentala erabili beharko da gainegituran.

#### 22.4. *-z / -taz: \*Gaurko arazoETAZ mintzatu dira > Gaurko arazoEZ mintzatu dira*

Akats hau formari dagokio eta euskara batuaren arautzearekin lotuta dago, analogiaz zabaldutako diren *\*semeetaz (mintzatu da)*, *\*lau gizonetaz (mintzatu da)*... bezalako formak ez baitira onartu euskara idatzian. Beraz, instrumentalaren

<sup>138</sup> Euskaltzaindia (1993a: 483).

alomorfoen banaketa osagarria eta *-taz* aldaeraren izaera markatua azpimarratu behar da: (8)-an ikus daitekeenez, *-taz* atzizkia pertsona-izenordainen eta erakusleen esparrura mugatzen da gehienbat eta hortik kanpo ez dago halako formentzako lekurik euskara batuan<sup>139</sup>.

(8) *-z* / *-taz* aldaeren banaketa<sup>140</sup>

<b>-z</b>			<b>-TAZ</b>
<u>Mugagabea</u>	<u>Singularra</u>	<u>Plurala</u>	1a. nitaz, hitaz, gutaz, zutaz, zuetaz.
-(e)z (*-taz)	-az (*-ataz)	-ez (*-etaz)	1b. neutaz/nihaurtaz/neronetaz (nihaurez/nihaurzaz/neronez, neronezaz)...
semez	semeaz	semeez	heutaz, zeutaz, geutaz, zeuetaz
gizonez	gizonaz	gizonez	...
batez	bataz		2a. honetaz (honezaz)/honexetaz (honexezaz), horretaz (horrezaz)/horrexetaz (horrexezaz), hartaz / harexetaz; hauetaz (hauzezaz)/hauexetaz (hauexezaz), horietaz (horiezaz)/ horiexetaz (horiexezaz), haietaz (haiezaz)/haiexetaz.
zeinez/zeintaz	zeinaz [erlat.]	zeinez [erlat.]	3. zertaz, nortaz, zeintaz (zeinez)
<u>Forma mugagabea hartzen dutenak:</u>			4. gizonotaz [pl. hurbila]
Koldoz	batzuez	deusez / deusetaz	5. zerbaitetaz /zerbaitez, deusetaz / deusez, ezertaz.
Kattalinez	norbaitez	zeinez / zeintaz	6. hortaz [lokailua].
Bilboz	zenbaitez	zerbaitez / zerbaitetaz	
Eibarrez	nomahiz		
honez (honez gain), horrez (horrez gain), harez, hauez (hauez gain), horiez (horiez gain), haiez...			

Ondorioz, beheko adibideak arautik kanpo geratzen dira:

- (9) (a) \*Koldotaz > Koldoz  
 (b) \*Lau gizonetaz (mintzatu da) > Lau gizonez  
 (c) \*batzuetaz > batzuez  
 (d) \*norbaitetaz > norbaitez  
 (e) \*zenbaitetaz > zenbaitez  
 (f) \*batzuetaz > batzuez  
 (g) \*batetaz > batez  
 (h) \*hirutaz > hirurez (mugagabea/mug. pl.)  
 (i) \*berataz > beraz  
 (j) \*beraietaz > beraiez / berez (< berak)  
 (k) \*Cabo Ortegaletaz (ohar batzuk egin zituen...) > Cabo Ortegalez

Bestalde, erakusleen deklinabidean instrumentalerako marka bat baino gehiago (*-taz=-zaz...*) onartu dela gogoraraztea komeni da:

<sup>139</sup> Ik. Euskaltzaindia (1993a: 483) eta Euskaltzaindia (1994c: 953-954).

<sup>140</sup> Euskaltzaindia (1987)-ren arabera osatu dugu beheko taula (ik. «deklinabideko taulak» izeneko atala, 77-202 orr.).

(10) ERAKUSLEEN INSTRUMENTALA:

honetaz / honezaz / honez	hauetaz / hauezaz / hauez
horretaz / horrezaz / horrez	horietaz / horiezaz / horiez
hartaz / harez	haietaz / haiezaz / haiez
honexetaz / honexezaz / hone(t)xez	hauexetaz / hauexezaz / hauexez
horrexetaz / horrexezaz / horre(t)xez	horiexetaz / horiexezaz / horiexez
harexetaz / harexezaz/hare(t)xez	haixetaz / haixezaz / haixez

22.5. (?)*-tazko* (\**benetazko* > *benetako*...)

*-taz* atzizkiaren esparrua mugatu ondoren, bide batez, hurrengo berrikeriak zuzendu behar dira:

- |   |   |
|---|---|
| (11) (a) * <i>Benetazko</i> (? < * <i>benetaz</i> )       | (b) <i>Benetako</i> (< <i>benetan</i> )       |
| (12) (a) * <i>txantxetazko</i> (? < * <i>txantxetaz</i> ) | (b) <i>Txantxetako</i> (< <i>txantxetan</i> ) |
| (13) (a) * <i>Egiatazko</i> (? < * <i>egiataz</i> )       | (b) <i>Egiatzko</i> (< <i>egiaz</i> )         |
| (14) (a) * <i>Olgetazko</i> (? < * <i>olgetaz</i> )       | (b) <i>Olgetako</i> (< <i>olgetan</i> )       |

23. IZENONDO ERREFERENTZIALAK: \*INTELEKTUAL MAILAN...<sup>141</sup>

23.1. **Izenondo kalifikatzaileak / izenondo erreferentzialak**<sup>142</sup>

Izenondoaren artean bi mota nagusi bereizi ohi dira: alde batetik, izakien ezaugarriak adierazten dituzten «izenondo kalifikatzaileak» eta bestetik, izakiei berei erreferentzia egiten dieten «izenondo erreferentzialak». Izenondo erreferentzialak izenetatik —gaur eguneko nahiz antzinako izenetatik— eratorritakoak izan ohi dira (*político* < *política*, *económico* < *economía*, *laboral* < *labor*, *universitario* < *universidad*; *renal* / *riñón*, *ocular* / *ojo*, *cardíaco* / *corazón*, etab.)<sup>143</sup>. Kalifikatzaileen artean, berriz, badira asko eratorriak ez direnak (*pequeño*, *rojo*, *cruel*, *ancho*, etab.), baina izenetatik eratorritakoak ere badira ([*comportamiento*] *cívico*). Gaztelaniazko adibide baten bitartez erakutsiko dugu izenondo kalifikatzaile eta erreferentzialen arteko bereizkuntza.

- |  |  |
|--|--|
| (1) a) <i>comportamiento cívico</i> [izenond. kalifikatzailea] |  |
| b) <i>derecho civil</i> [izenond. erreferentziala]             |  |

Ondoko hiru ezaugarriek bereizten dute izenondo erreferentzialen jokaera sintaktikoa: a) ez dute graduatzaile edo mailakatzailerik onartzen (2b); b) ez daukate balio predikatiborik, alegia, ezin txerta daitezke eraikuntza predikatibo batean (3b); c) haien gainean ezin da eraiki ezaugarri bat adierazten duen izen abstrakturik (4b).

<sup>141</sup> Atal hau idazteko hurrengo lan oinarritzakoak izan ditut gidari: Azkarate (1995), Euskaltzaindia (1993b), Ensunza (1989), Loinaz (1995) eta batez ere Zabala (1997).

<sup>142</sup> Azpial honetan eta hurrengoan orpoz orpo jarraitu diot Zabalaren lanari (Zabala, 1997).

<sup>143</sup> Loinaz-ek dioenez (Loinaz: 1995), erreferentzia hori adierazteko zenbait formula erabiltzen dira lexikografian: gaztelaniaz, adibidez, «perteneciente o relativo a» gisa definitu ohi dira izenondo erreferentzialak, eta euskaraz «x-ri dagokiona» tankerako esapideen bitartez.

- (2) a) un comportamiento *muy cívico* [izond. kalifikatzailea]
- b) \*un derecho *muy civil* [izond. erreferentziala]
- (3) a) este comportamiento *no es cívico* [izond. kalifikatzailea]
- b) \*este derecho *no es civil* [izond. erreferentziala]
- (4) a) el *civismo* de su comportamiento [izond. kalifikatzailea]
- b) ?la *civilidad* de su comportamiento<sup>144</sup> [izond. erreferentziala]

Bereizkuntza hau korapilatu egiten da batzuetan, zeren forma beraren azpian bi sail desberdinei dagozkien izenondoak egon baitaitezke. Adibide bat ematearren, *constitucional* izenondoa kalifikatzailea da (5) adibidean, (6)-ko froga sintaktikoez agerian jartzen duten bezala:

- (5) ley *constitucional* [izond. kalifikatzailea]
- (6) a) esta ley es *plenamente constitucional*
- b) la *constitucionalidad* de esta ley es innegable

Hurrengo adibideak, ordea, bi irakurketa izan ditzake, hain zuzen ere, *constitucional* izenondoak erabilera kalifikatzailea (7a) ez ezik, erreferentziala (7b) ere izan baitezake:

- (7) reforma *constitucional*
- a) Konstituzioaren araberakoa den erreforma [izond. kalifikatzailea]
- b) Konstituzioaren erreforma [izond. erreferentziala]

Beste era batera esateko, izenondo erreferentziales erreferentzial-izaera horretaz gainera, badute gehienetan izaera predikatiboa (kalifikatzailea-edo) ere. Begiratu besterik ez dago erdarazko edozein hiztegi orokor, konturatu ahal izateko nola erreferentzial gehienak predikatiboak ere badiren. Are gehiago, lehen adieran erreferentzial gisa definitu arren, ondoren adiera predikatiboak eman ohi dituzte hiztegiek. Are gehiago, izenondo «erreferentzial» horietako batzuk batez ere predikatibo gisa erabiltzen dira (*fisiko, historiko*). Nolanahi ere, ugariak dira erreferentzial hutsak zenbait zientzia-alorretan, adibidez, anatomian<sup>145</sup>. RAEren hiztegian ikus daitekeenez, *histórico* izenondoaren lehen adiera baino ez da erreferentzial hutsa, hurrengoetan oso nabaria baita kutsu predikatiboa edo kalifikatzailea (ik. beherago 52-53).

- (8) HISTÓRICO, CA: 1. Perteneciente o relativo a la historia. // 2. Averiguado, comprobado, cierto, por contraposición a lo fabuloso o legendario. // 3. Digno, por la trascendencia que se le atribuye, de figurar en la historia. // ... // ... (RAE).

<sup>144</sup> Galdera-marka gorabehera, *civilidad* hitza «sociabilidad, urbanidad» edota «civismo» hitzen esanahiarekin jasota dago erdal hiztegiatan. Dena dela, *civil* izenondoaren bigarren adiera nominalizatu-tik («persona que se comporta con civismo») eratorria dirudi *civilidad* berri horrek; hau da, ez du zerikusirik gizartearen sektore jakin batekin, ezta zuzenbidearekin ere (ik. RAEren *Diccionario de la lengua española* —Madrid: Espasa-Calpe, 1992—, eta M. Seco-ren *Diccionario del español actual* —Madrid: Aguilar, 1999—).

<sup>145</sup> Loinaz (1995: 1).



Kontua da inguruko hizkuntzetatik euskarara itzultzean irakurketa egokia egin behar dugula, izenondo beraren azpian adiera bat baino gehiago ezkuta daitezkeelako: zenbaitetan, beste hizkuntza batean forma bakar batez adierazten dena, euskaraz baliabide batzuen bitartez adierazi beharko da.

- (9) a) *marginal note* [izond. erreferentziala]
- b) *marginal case* [izond. kalifikatzailea]
- (10) a) *albo-ohar* [hitz-elkarketa]
- b) *bazterreko kasu* [izenlaguna]

### 23.2. Izenondo erreferentzialen motak: tematikoak eta sailkatzaileak

Izenondo erreferentzialak bi eratakoak izan daitezke, modifikatzen duten izenarekin ezartzen duten erlazio-motaren arabera.

Modifikatzen den izena aditz batetik eratorritakoa denean, izenondo erreferentzialak aditz horren argumentu bat (subjektua edo osagarri zuzena) adieraz dezake, hurrengo adibideetan bezalaxe:

- (11) a) transporte *electrónico* [«elektroiak garraiatzen dira»: «elektroiak» = objektua edo «gaia»]
- b) infección *vírica* [«birusek eragindako infekzioa»: «birusak» = subjektua edo «egilea»]

Horrelako izenondo erreferentzialei (11a, 11b) IZENONDO TEMATIKOAK deituko diegu, modifikatzen duten izenaren —aditzetikako izenaren— argumentuak edo parte-hartzaileak (subjektua edo «egilea» eta objektua edo «gaia») adierazten dituztelako.

Tematikotzat har daitezke era berean «jabegoa» adierazten duten izenondoak, mota guztietako izenekin ager daitezkeenak.

- (12) radio *terrestre* [«radio de la Tierra]

Beste batzuetan, ordea, izenondo erreferentzialak ez dira aditz batetik eratorritako izen baten argumentuak, baizik eta modifikaturiko izena sailkatzeko erabiltzen dugun eremu bat sartzen dute. Halako izenondoei IZENONDO SAILKATZAILAK deituko diegu. Hona hemen, zenbait adibide:

- (13) a) *acrobacias aéreas* LOKATIBOA (BIDEA)
- b) *calor solar* LOKATIBOA (ITURRIA)
- c) *viaje estelar* LOKATIBOA (XEDEA)
- d) *poblado lacustre* LOKATIBOA (TOKIA)
- e) *discriminación racial* KAUSA
- f) *literatura infantil* XEDEA / BENEFAKTIBOA
- g) *crema dental* BENEFAKTIBOA
- h) *curación manual* INSTRUMENTAL
- i) *residuos industriales* ITURRIA
- j) *material quirúrgico* ERABILERA

Ikus daitekeenez, izenondo sailkatzaile hauek askotan agertzen dira argumentu-egiturarik ez duten izenekin, objektu-izenekin adibidez (13a, 13b, 13c, 13d,

13e, 13f, 13g, 13h, 13i, 13j). Bide batez, euskal izen elkartuetako osagaien artean antzeko erlazio logikoak («helburua»: *haur-literatura*; «edukia»: *elektroi-sorta*; «iturburua»: *eguzki-energia*; «-i buruz»: *literatur kritika*; etab.) egon ohi direla azpimarratzea komeni da: izan ere, —beherago ikusiko denez— euskaraz hitz-elkarketa izango da askotan erdal izenondo erreferentzialek sortzen dituguten arazoaren konponbidea.

Beraz, erdal izenondo erreferentzialaren euskal ordain egokia eman ahal izateko, modifikaturiko izenaren eta izenondo erreferentzialaren arteko erlazioa aztertu behar da lehenik. Gauzak horrela, kasuan kasuko erlazioaren arabera euskal ordaina aldatu egingo da: kasu askotan gertatuko zaigu izenondo erreferentzial tematikoetarako ordain bat eta izenondo erreferentzial sailkatzaileetarako beste bat eman behar izatea, eta areago, izenondo sailkatzaileen artean ere izenaren eta izenondoaren artean dagoen erlazioaren arabera ordain bat edo beste bat eman behar izatea.

- |                                |   |                             |
|--------------------------------|---|-----------------------------|
| (14) a) limpieza <i>dental</i> | IZOND. TEMATIKOA («GAIA») =                 | <i>hortz-garbiketa</i>      |
| b) hilo <i>dental</i>          | IZOND. SAILKATZAILEA («XEDEA») =            | <i>hortzetako hari</i>      |
| c) clínica <i>dental</i>       | IZOND. SAILKATZAILEA («JARDUERA») =         | <i>hortz-klinika</i>        |
| d) consonante <i>dental</i>    | IZOND. SAILKAT. («INSTRUMENTALA/ITURRIA») = | kontsonante <i>horzkari</i> |

### 23.3. Erdal izenondo erreferentzialen ordainak

1. Erdal izenondo erreferentzialen ordainak euskaraz honakoak izan daitezke:

Ezkerreko hedabideak: a) izenlaguna (15), eta b) izena elkarketaren bidez (16).

- (15) *munduko txapelketa*  
 (16) *energi maila (energia-maila)*

Eskuineko hedabideak: c) izenondo eratorria (17), eta d) mailegatua (18):

- (17) teoria *darwindarrak*  
 (18) kontrol *automatikoa*

Aitortu beharra dago, hala ere, euskaraz izenondo erreferentzialak sortzen dituen atzizki gutxi dituela: beharbada, *-(t)ar* atzizkia izan daiteke salbuespen ia bakarra.

2. Arazoak maileguekin agertzen dira bereziki (ez haiekin bakarrik), bi aukera nagusi ditugulako:

- (19) *energi maila (energia-maila)*  
 (20) *maila energetikoa*

Bietatik elkarketarena da gaurkoz —eta «ahal den guztian»— Euskaltzaindiak hobetsi duena<sup>146</sup>. Hala ere, auzia uste baino korapilatsuagoa da, ez baitugu beti hitz-elkarketaz baliatzeko aukerarik.

<sup>146</sup> Hitz-elkarketaren hobespena hitz hauen bidez adierazi du Euskaltzaindiak: «Bide honi [hitz-elkarketari] eutsi behar litzaioke orain ere, *ahal den guztian*, erdal hitz-moldaera arrotzen menpekoegi bihurtu nahi ez badugu.» Ik. 25. araua («Hitz elkartuen osaera eta idazkera») eta *Hitz elkartuen Osaera eta Idazkera* (Euskaltzaindia, 1993b: 37-45).

Lehenengo eta behin, hitz elkartu ilun eta ulergaitzei buruz Euskaltzaindiak egin duen beste gomendioa ere gogora ekartzea komeni da:

- (21) «Askotan eta egoki balia daitekeen hitz-elkarketak ere baditu, ordea, berezko mugak. Osagaien arteko erlazio ilunak direla medio, mezu-hartzailearentzat ulergaitz gerta daiteke hainbat kasutan hitz elkartua; ezer gutxi aurreratuko dugu irakurlea hitz-andana horiek erdarara itzultzera behartzen badugu, edo testuinguru zabal bihurriagoen zain uzten. Forma elkartuen sortzaile-idazleak hobeko du kasu hauetan eraikuntza sintaktiko libreetara jo, argitasunaren mesedetan: hobe dugu halakoetan *unibertsitateko soldatak, merkatuaren bilakaera, udaletxeen antolamendua, larrialdiko irteera* edo *elizbarrutiko museoa* esan eta idatzi, *unibertsitate-soldatak, merkatu-bilakaera, udaletxe-antolamendua, larrialdi-irteera* edo *elizbarruti-museo* modukoetara lerratu gabe.» (Euskaltzaindia (1993b: 38).<sup>147</sup>
- (22) «Badira esapideak, azkenik, hitz-elkarketaren bidez ez argi eta ez ilun eman daitezkeenak: gaztelaniazko *música rockera* esateko aukera eroso eskaintzen digu euskal elkarte-bideak, *rock-musika* eginaz. Erosoa bezain mugatua da, ordea, baliabide hori: «*una música muy (bastante, demasiado...) rockera*» esateko, izan ere, alferrik saiaturako gara *rock-musika* elkartearekin.» (Ibid.: 38).<sup>148</sup>

Ondoren, beste irizpide lagungarri batzuk eskainiko ditugu<sup>149</sup>.

a) Hasteko, badira izenondo erreferentzial baten itxura edo forma bera duten baina kalifikatzailetzat hartu behar diren izenondoak. Horrelakoak, askotan mailegatu beharko ditugu, euskaraz pareko esangura duen izenondorik ez badugu behintzat<sup>150</sup>. Konparatu hurrengo adibide-bikoteak:

- |                                     |                          |   |
|-------------------------------------|--------------------------|---|
| (23) a) Ciencias <i>Naturales</i>   | (IZOND. ERREFERENTZIALA) | a') <i>Natur Zientziak</i>  |
| b) sidra <i>natural</i>             | (IZOND. KALIFIKATZAILEA) | b') sagardo <i>natural</i><br>b'') * <i>natur-sagardo</i>         |
| (24) a) categoría <i>gramatical</i> | (IZOND. ERREFERENTZIALA) | a') <i>gramatika</i> -kategoria                                   |
| b) oración <i>gramatical</i>        | (IZOND. KALIFIKATZAILEA) | b') perpaus <i>gramatikal</i><br>b'') * <i>gramatika</i> -perpaus |

b) Beste muturrean, izenondo erreferentzial tematikoak ditugu. Horrelakoen ordaina emateko nekez mailegatuko ditugu euskaraz izenondo erreferentzialak: izen elkartuak edota izenlagunak erabiliko ditugu.

- |                                       |                        |   |
|---------------------------------------|------------------------|---|
| (25) a) transporte <i>electrónico</i> | (ERREF. TEMATIKOA)     | a') <i>elektroi-garraio</i><br>a'') ? <i>garraio elektronikoa</i> |
| b) microscopio <i>electrónico</i>     | (ERREF. SAILKATZAILEA) | b') mikroskopio <i>elektroniko</i>                                |

<sup>147</sup> Ikus orobat 56. atala («Berrelkarketaren mugak»).

<sup>148</sup> Dena dela, mailakatzaileak onartzeko zailtasun edo ezintasunarena argudio ahula da hitz-elkarketaren aurka egiteko: lehenik, mailakatzaileak hartzeko zailtasuna erreferentzia-izenondoan bereizgarria delako (*central nuclear* / \**central muy nuclear*); bestetik, ingelesez-eta izenondorik gabe ere oso ongi moldatzen direlako.

<sup>149</sup> Zabala (1997:545-548).

<sup>150</sup> Edo Loinaz-en (1995) hitzez esateko: «zenbat eta indar handiagoa duen erreferentzial-izaerak, orduan eta errazago ordeztzen dira erreferentzialak hitz-elkarketarekin; eta, alderantziz, zenbat eta pisu handiagoa duen izaera predikatiboak, orduan eta errazago mailegatzen dira erreferentzialak.»

- (26) a) reforma *constitucional* (ERREF. TEMATIKOA) a') *Konstituzioaren erreforma*  
 a'') ? erreforma *konstituzional*  
 b) ley *constitucional* (ERREF. SAILKATZAILEA) b') lege *konstituzional*  
 (27) a) membrana *celular* (TEMATIKOA: «JABEGOA») a') *zelula*-mintza

Hala ere, izen propioetan oinarrituriko izenondo tematikoen ordainak emateko, izenlagunetara joko dugu eta nekez izen-elkarketara:

- (28) a) decisión *presidencial* (TEMATIKOA: «JABEGOA») b) *lehendakariaren* erabaki  
 c) ???*lehendakari*-erabaki  
 (29) a) radio *terrestre* (TEMATIKOA: «JABEGOA») b) *Lurraren* erradioa  
 c) ???*Lur*-erradioa

c) Zalantza gehien sortzen dizkigutenak izenondo erreferentzial sailkatzaileak dira, batzuetan euskararen baliabideak erabiliz eman baditzakegu ere beste batzuetan mailegatu egin beharko ditugulako.

c1) Batzuetan izenondoa eratortzeko erabili den izenaren eta modifikaturiko izenaren arteko erlazioa oso iluna edo urruna da: ez dirudi, esate baterako, balio semantikoari begira, gaztelaniazko *normal* izenondo erlazonala *norma* izenaren bidez azal daitekeenik; era berean, *ariketa fisikoa* aipatzean, gorputzari egiten zaio erreferentzia eta ez fisikari. Konparatu hurrengo adibideak:

- (30) a) estructura *nuclear* (ERREF. TEMATIKOA) a') *nukleo*-egitura  
 b) central *nuclear* (ERREF. SAILKATZAILEA) b') zentral<sup>151</sup> *nuklear*  
 b'') \**nukleo*-zentral

c2) Batzuetan itxura bera duten izenondoek ez diote erreferentzia egiten izen berari.

- (31) a) transporte *electrónico* (ERREF. TEMATIKOA) a') *elektroi*-garraio  
 a'') ? garraio *elektroniko*  
 b) medidor *electrónico* (ERREF. SAILKATZAILEA) b') neurgailu *elektroniko*  
 b'') \**elektroi*-neurgailu

c3) Batzuetan izenondo erreferentzialak kultura-erro baten gainean eraikita daude eta esangura berezia bereganatu dute. Orduan zail samarra gertatzen da gaur egun pareko izen bat bilatzea mailegu bidezko izenondotik ihes egiteko.

- (32) a) factores *bióticos*  
 b) faktore *biotikoak*  
 c) \**bizitza*-faktoreak  
 (33) a) ciclo *vital*  
 b) *bizitza*-ziklo

<sup>151</sup> Bide batez, *central eléctrica/nuclear* espasideetan *central* hitza nazioartekoa ez dela kontuan harturik, hobe litzateke «indarretxe» (Sarasolak bere *Euskara-Gaztelania, Castellano-Euskara Vox Hiztegia*-n egiten duen bezala) edo antzekoren bat erabiltzea mailegu gordina (*zentral*) erabiltzea baino.

Hona hemen, orain arte emandako irizpideetan oinarrituriko hobespenei batzuk:

- (34) a) (?) txapelketa mundiala /  
b) munduko txapelketa
- (35) a) (?) lan manuala /  
b) eskulana / eskuzko lana
- (36) a) (?) museo diocesanoa /  
b) elizbarrutiko museoa
- (37) a) (?) eremu tenporala /  
b) denbora-eremua
- (38) a) kontrol automatikoa /  
b) (?) automatika-kontrola
- (39) a) nihilismo terapeutikoa /  
b) (?) terapeutika-nihilismoa /  
c) terapeutikako nihilismoa
- (40) a) arazo legalak / arazo juridikoak  
b) lege-arazoak /
- (41) a) funtzio esponenziala /  
b) (?) esponente-funtzioa
- (42) a) egoera normala /  
b) (?) arau-egoera /  
c) (?) arauko egoera

Eta halakoetan maiz gertatzen da nahastea. Hots, erdal izenondo erreferentzialaren ordaina (*político* [*< política*], *económico* [*< economía*], *religioso* [*< religión*], *monetario* [*< moneda*], etab.) euskaraz izenondo mailegatua (eskuineko hedabidea: 43c, 44c, 45b) edo izen elkartua izan daitekeenez (ezkerreko hedabidea: 43b, 44b), maiz nahi egiten dira bi egiturak, izenondoa izenaren ezkerrean jarritz (43a, 44a, 45a):

- (43) a) \*politiko arazoak  
b) politika-arazoak  
c) arazo politikoak
- (44) a) \*ekonomiko ikerketa  
b) ekonomia-ikerketa  
c) ikerketa ekonomikoa
- (45) a) \*automatiko kontrola  
b) kontrol automatikoa

Gainera beste arrazoi batzuek ere eragin dezakete aukera bat edo bestearen aldera egiteko (osorik mailegatzea, oinarriko izena euskaraz erabiltzeko ohiturarik izan ez delako, etab.)

Analogiak ere eragiten du halako nahasteetan:

- (46) a) euskal hizkuntza,  
b) \*merkatal konpetentzia  
c) \*nazional hizkuntza
- (47) a) (?) lagunarteko hizkuntza mintzatuan) filosofi(a)tik, filosofi(a)ko... /  
b) \*filosofiko arazoak  
c) filosofiako arazoak

Arazoa areagotu egin daiteke gaztelaniazko bi izenondo erreferentzial edo erlazional koordinatuak euskaraz eman behar ditugunean. Arazoak izango ditugu, baldin eta izenondo erreferentzialen ordainak bat ez badatoz hedapenari dagokionez: adibidez, batak elkarketa (ezkerraldeko hedapena: 48c) eskatzen duen bitartean besteak izenondo mailegatua (eskuineko hedapena: 48b) eskatzen badu; ezin koordinatuzkoak dira orduan (48d, 48e). Halakoetan bi sintagma eratu beste irtenbiderik ez da geratzen (48f).

- (48) a) muebles clásicos y juveniles
- b) altzari klasikoak
- c) gazteentzako altzariak
- d) \*gazteentzako eta klasiko altzariak
- e) ?altzari klasiko eta gazteentzakoak
- f) altzari klasikoak eta gazteentzakoak

Demagun, esate baterako, *educación física y deportiva* esapidean, *hezkuntza fisiko* ordaina proposatzen dugula «educación física» itzultzeko. Hala egitera, arazoak sortuko zaizkigu (49d)-n, kategoria sintaktiko desberdineko osagaiak juntatu nahi ditugulako (*fisiko* izenondoa eta *kirol-* izena). Horrelakoetan, bi juntagaietan kategoria bera erabiltzera jo beharko genuke (49e), eta hori ezinezkoa denean, sintagma desberdinak juntatu beste irtenbiderik ez zaigu geratzen.

- (49) a) educación física y deportiva
- b) educación física = hezkuntza fisiko [Euskalterm: *heziketa fisiko*]
- c) educación deportiva = kirol-hezkuntza / kiroleko hezkuntza
- d) \*hezkuntza fisiko eta kirolekoa
- e) *gorputz- eta kirol-hezkuntza* [*Hezkuntza Administrazio*ko *Hiztegia*]

Aurreko adibidetik ondoriozta daitekeenez, erdarazko «educación físico-deportiva» modukoetan izenondo elkartuaren (*físico-deportivo*) ordaina emateko hitz elkartuen mugatzaileak juntatu behar ditugu, euskaraz ez baitago (50c) moduko izen elkarturik:

- (50) a) educación físico-deportiva
- b) *gorputz- eta kirol-hezkuntza*
- c) \**gorputz-kirol-hezkuntza*

Horrelako izenondo elkartuen ordaina eman behar denean, errazago onartuko dugu mailegutza:

- (51) a) proceso físico-químico
- b) prozesu físico-kimiko
- c) *fisika- eta kimika-prozesu / fisika(ko) eta kimikako prozesu*

Eta zenbaitetan mailegutza izango da biderik artezena. Hurrengo esapidean, adibidez, *monumento histórico-artístico*-ren ordaintzat nekez onartuko genuke (53c), *histórico* horrek balio predikatiboa duelako eta haren erreferentzia urrun samar geratzen delako: testuinguru horretan *historiko* ez da bakarrik «historiari da-

gokiona» —(52)ko lehen adiera—, baizik «historia aldetiko balioa duena» edo antzeko zerbait —(52)ko hirugarren adiera—<sup>152</sup>:

- (52) HISTÓRICO, CA: 1. Pertenciente o relativo a la historia. // 2. Averiguado, comprobado, cierto, por contraposición a lo fabuloso o legendario. // 3. Digno, por la trascendencia que se le atribuye, de figurar en la historia. // ... // ... (RAE)
- (53) a) monumento *histórico-artístico*  
b) monumentu *historiko-artistiko*  
c) ?*historia- eta arte-monumentu*

Beste batzuetan testuaren sintaxia izango da elkarketa alboratzera behartuko gaituena. Hurrengo testuan, adibidez, sintaxia —izenondo erreferentzialen metaketa eta juntadura— da izenondo mailegatuak (*sozial, kultural*) erabiltzera bultzatzen gaituena, oso nekeza baita halakoetan elkarketaz baliatzea.

- (54) 3. kapituluaren taldearen definizio-rantz goaz, taldearen analisi maila desberdinak bereiziz: *indibiduala, pertsonartekoa, taldeartekoa edo soziala eta kulturala*.
- (55) a) (??)... analisi maila desberdinak bereiziz: *indibiduala, pertsonartekoa, taldeartekoa edo gizarte-? eta kultura-?*  
b) ... analisi maila desberdinak bereiziz: *indibiduala, pertsonartekoa, taldeartekoa edo gizarteari eta kulturari dagozkionak*.

Horregatik —izen-elkarteen erabilera neurrigabeagatik eta maileguen erabilera urriagatik— egiten zaizkigu hain zail eta ulergaitz Gerra aurreko eta 1970eko hamarkadako administrazio-aldizkari ofizialak.

Bestalde, izenondo erreferentzialen juntadurak asko zailtzen du euskal testua, batez ere izen elkartuen bidea hautatzen bada:

- (56) a) derecho *administrativo* = *administrazio-zuzenbide*  
b) derecho *laboral* = *lan-zuzenbide*  
c) derecho *penal* = *zigor-zuzenbide*  
d) derecho *constitucional* = *konstituzio-zuzenbide*
- (57) a) derecho *administrativo, laboral, penal y constitucional* =  
b) *konstituzio-, zigor-, lan- eta administrazio-zuzenbide*

Zer esanik ez, *socioeconómico, psicosocial, psicolingüístico, psicosociológico, sociolingüístico*... moduko erdal izenondo erreferentzial elkartuen kasuan errazago onartuko dugu mailegutza. Konparatu, bestela, hurrengo adibideak:

---

<sup>152</sup> Dena den, terminologiaren eremura lerratu garenez gero —Ibon Sarasolari zor diot ohar hau—, esan beharra daukagu gaztelaniaren ereduaz gainera bestelako hizkuntzetako esapideak ere kontuan hartzea komeni dela. Oraingo honetan, esaterako, ingelesez *conservation area* edo *listed building* moduko esapideak ere badira, izenondo erreferentzialik erabili gabe eraikiak. Era berean, gaztelaniazko *monumento nacional* terminoaren ordain gisa, frantsesez eta ingelesez, hurrenez hurren, *immeuble inscrit, monument classé* eta *listed building, protected monument* gisakoak ditugu, *nacional*-en pareko erreferentzialik inon ere ageri ez dutenak.

- (58) a) nivel *cultural*  
 b) *kultura*-maila  
 c) ?maila *kultural*
- (59) a) nivel *sociocultural*  
 b) *gizarte*- eta *kultura*-maila  
 c) maila *soziokultural*

Hain zuzen ere, zenbaitetan ezinbestean joko dugu mailegutзара:

- (60) a) estudio *lingüístico*  
 b) *hizkuntza*-azterketa  
 c) azterketa *linguístico*
- (61) a) estudio *sociolingüístico*  
 b) \**gizarte*- eta *hizkuntza*-azterketa  
 c) azterketa *soziolingüístico*

Ondorioz, hitz-elkarketaren lehenespena-edo onartuta ere (eta, hortaz, Euskaltzaindiak emaniko gomendioaren arabera, *gizarte-politika* modukoak hobetsi behar ditugula onartuta ere), garbi eduki beharko genuke ez dagoela beti era horretan jokatzetik, ezta izenondo edo forma beraren aurrean gaudenean ere: hasieran esan dugun bezala, kasuan kasuko ordain egokia bilatu ahal izateko, lehendabizi, izenondo erreferentzialaren eta modifikaturiko izenaren arteko erlazioa argitu beharko da; ondoren, testuaren eta sintaxiaren eskakizunen arabera moldatu edo egokitu beharko da proposaturiko ordaina. Bestalde, mailegutzarari ateak zabaltzeko orduan, goragoko irizpideekin batean, nazioarteko erabileraren irizpidea — nazioartekotasuna — eta erreferentzialaren emankortasuna — eratorbideak, etab. — ere kontuan hartu beharko ditugu.

**Adibideak:**

- |  |  |
|--|--|
| (62) *Prestakuntza ez da bakarrik <i>intelektual mailan, etikoki, moralki, pertsonala da ere.</i>                              | (63) Prestakuntza ez da intelektuala bakarrik, etikoa, morala eta pertsonala ere bada.   |
| (64) *Haur hauek «heltzen» diren eran « <i>sedentario</i> » <i>mundu batera</i> edo <i>bizimodu batera</i> murgilduko dira.    | (65) Haur hauek «heltzen» diren eran <i>mundu edo bizimodu «sedentario»</i> batean murgilduko dira.                                |
| (66) *Aipatutako eztabaida, <i>etiko-moral ikuspuntutik</i> sortzen dena da.   | (67) ... <i>ikusuntu etiko-moraletik...</i>  |
| (68) * <i>Gazte eta klasiko altzariak</i> dau-de salgai.   | (69) a) <i>altzari klasikoAK eta gazteen-tzakoak</i>   |
| (70) Lan-talde berezi bat prestatu da <i>lege-, mediku- eta psikologi laguntza</i> emateko Jugoslavian bortsatutako emakumeei. | (71) a) gramatikala<br>b) <i>laguntza juridiko, mediko eta psikologikoa</i>  |
| (72) *Gizaki batek bizitzen dituen <i>sentsazio guztiak</i> garunetik <i>hormonal sistemara</i> pasatzen dira.                 | (73) Gizaki batek bizitzen dituen <i>sentsazio guztiak</i> garunetik <i>sistema hormonalera / hormona-sistemara</i> pasatzen dira. |
| (74) * <i>Toxina eritrogenikak</i> odolean eragiten du.  | (75) <i>Toxina eritrogenikoak</i> odolean eragiten du.   |



- |   |  |
|---|--|
| (76) *Kardiobaskular patologia azter-<br>tuko dute biltzarrean. | (77) Patologia kardiobaskularra azter-<br>tuko dute biltzarrean.                           |
| (78) *Farmakologiko baliabideak mu-<br>gatuak dira beti.        | (79) Baliabide farmakologikoak (?far-<br>makologiako baliabideak) muga-<br>tuak dira beti. |
| (80) *Homo eta heterosexual harre-<br>manak.                    | (81) Harreman homo eta heterosexual-<br>ak   |
| (82) *Gizakientzako bakterio patoge-<br>noak.                   | (83) Gizakientzat patogeno diren bak-<br>terioak / Bakterio gizakientzat pa-<br>togenoak.  |

## 24. AHAL ETA EZIN ADITZ MODALAK: JOATEN AHAL NAIZ, EZIN DUT IRAKURRI...<sup>153</sup>

Euskarazko *ahal* eta *ezin* elementu modalak erabilera ezberdin askotan ager-  
tzen dira euskalkiz euskalki eta hizkeraz hizkera, horrexegatik, hemen Gramatika  
Batzordeak hizkuntza baturako egokituz jotzen dituen moldeak besterik ez dugu  
aipatuko.

*Ahal* eta *ezin* aditz nagusi batekin (eta haren osagarriekin) agertu ohi dira mai-  
zenik, eta aditz nagusi hori da elementu modal horien ostean agertzen den aditz la-  
guntzaile-mota erabakitzen edo mugatzen duena. Hortaz, aditza iragankorra bada  
(*erosi*), laguntzaile *du/dezake* izanen da (1a, 1b, 2a, 2b), eta iragangaitza bada, al-  
diz, *da/daiteke* (1c, 1d, 2c, 2d, 2e):

- (1) a. Ezin dezaket asma<sup>154</sup>  
b. Ezin sinets dezakegu  
c. Ezin izango naiz ezkondu  
d. Ezingo naiz ezkondu / Ezin izango (izanen) naiz ezkondu
- (2) a. Liburuak erosten/erosi ahal izan ditu<sup>155</sup>  
b. Egin ahal dezakegu<sup>156</sup>

<sup>153</sup> Ia hitzez hitz jaso dut hemen Euskaltzaindiko Gramatika Batzordearen arau-proposamena (Eus-  
kaltzaindia, 1998).

<sup>154</sup> Ezezko perpausetan hurrenkera bat baino gehiago agertzen zaizkigu (Euskaltzaindia, 1993a:423):

- a. ezin ikasi izan dugu
- b. ezin ikasi dugu [aspektu burutugabea] # ezin ikasi izan dugu [aspektu burutua]
- c. ezin dugu ikasi
- d. ezingo dugu ikasi
- e. ezin izango dugu ikasi
- f. \*ezin ikasten dut > ezin ikasi dut

<sup>155</sup> Gramatika batzuen arabera, mendebaldeko joera partizipioaz baliatzea bide da (*joan ahal  
gara*); nolana ere, baliteke joera hori gramatikariek eragindakoa izatea. Ekialdeko joera, —joera  
zabalena, nolana ere— aditz-izena erabiltzea da (*joaten ahal gara*) ekintza burutugabea adierazte-  
ko; ekintza burutua adierazteko, noski, partizipioa baliatzen da nonahi (*joan ahal izan gara; egin  
ahal izan dugu*).

<sup>156</sup> Euskaltzaindiaren arabera (1993a: 421), «-kedun aspektugabeko formetan ere erabiltzen da  
*ahal*, nahiz ez den garbi *ahal* erabiltze horrek esanahia aldatzen duen ala ez. Ez dirudi halakorik gerta-  
tzen denik».

- c. Joaten/joan ahal gara
- d. Aski goiz etorri/etortzen ahal izan da<sup>157</sup>
- e. Etorri/etortzen ahalko (ahal izango/ahal izanen) naiz<sup>158</sup>

Ekialdeko euskalkietan sarritan *ezin*-en ordeaz, «*ez* + laguntzailea + *ahal*» erabiltzen da. Forma horiek ere ontzat jotzen dira euskara batuan:

- (3) a. Goizean ez dut liburua erosten ahal
- b. Ez gara joaten ahal

Esan dezagun azkenez, elementu modal hauek aditz beregain gisa agertzen direnean (forma inbertsonaletan izan ezik, jakina) *dut* laguntzailea baliatu behar dela:

- (4) a. Laborariak *ahal badu*, ez du lur alferrik eduki behar.
- b. —Etorriko zara bihar? —Ez, *ezin izanen dut*.
- c. —Gero kalera aterako haiz? —Bai, *ahal badut*.

## 25. NAHI(AGO) IZAN/GURA(GO) IZAN ETA BEHAR IZAN ADITZ MODALAK: JOAN BEHAR DUT...<sup>159</sup>

*Nahi(ago) izan/gura(go) izan eta behar izan* aditzekin beti *du* laguntzailea erabiltzea gomendatzen da<sup>160</sup>:

### BEHAR IZAN

- (1) a. *Ez dut* laguntzarik behar
- b. Aditzen dut *ez dugula* nehor *hil* behar
- c. *Ez duzu* Bilbora joan behar?
- d. Baina egundo ere *ez duzu pentsatu* behar...
- e. Indabak luze *egosi* behar dituzu

<sup>157</sup> Euskaltzaindiaren gramatikaren arabera (1993a: 421), «*ahal* hau hartzen bada kontuan, aspektu aldetik, *ahal* hau burutua izan daiteke, ez-burutua edo geroaldikoa. Burutua denean *izan* edo *ukan* partizipioak hartu behar ditu eta perifrasiaren aditz nagusia normalean partizipioa da (nahiz euskalki batzuetan aditz izena ere izan daitekeen).»

<sup>158</sup> Geroaldia adierazteko hurrengo bost aukeren artean lehen biak (a, b) bide ditugu ohikoena (Euskaltzaindia, 1993a: 422): hau da, aditz nagusiak *-tu* edo *-tzen* formak hartzen ditu.

- a. Etorri ahalko (ahal izango) gara.
- b. Etortzen ahalko (ahal izango) gara.
- c. Etorriko ahalko gara.
- d. Etorriko ahal gara.

<sup>159</sup> Ia hitzez hitz jaso dut hemen Euskaltzaindiko Gramatika Batzordearen arau-proposamena (Euskaltzaindia, 1998).

<sup>160</sup> Perpaus inbertsonal edo pasiboetan izan ezik, jakina (Euskaltzaindia, 1987:450):

- a. Hala *egin behar da* bada bekhatuetan...? berri direino *egotzi behar dira* (Ax 85).
- b. Eta etorkizunekoak *behar dira egin* (Ax 172).
- c. *Behar eztanen* bat egingo dok ik ondiño (Azkue, *Euskal-erriaren... III*, 279).
- d. *Behar da iñan* Jaincoac hartara *deithua...* (*CatLav* 236)

- f. Liburu hori lurrera *erori behar zaio*<sup>161</sup>
- g. Eztuzu pentsatzen, zuk bezala, hark ere bere denboran *gozatu nahiko duela? Nahiko nian*, Pello, muthil traste horrek eman balio... (Elz PAd 27)
- f. Bekien lengo bidetik asi bear zala ta amaren aurretik *joan bear ko ebiela* ikastetxe ateraño (Ag Kr 65)
- g. Beti *juan biar dogu* comulguetara gracion (Moguel, *Echeco Escolia*, 30)
- h. *Ez dugu* gerotik gerora *ibili behar* (Ax 234)
- i. Eta desberdintasun onec... *izan bear dabela* ain andiac... (Itz Berb I, 73)
- j. Bainan, ethortekotz, orai *etorri behar zuen* (Barb Piar, 241)

NAHI IZAN

- (2) a. Ez baduzue horrelakorik nahi, zoazte ohera!
- b. Ez nuke nahi joan betiko
- c. Ez nioke neure usteari eutsi nahi
- d. Eta pagoak ez zuen beratu eta makurtu nahi
- e. Uste duzu gurako dutela nirekin ezkondu?

NAHIAGO/GURAGO IZAN

- (3) a. ...apurtu baino mila bider *gurago dut* beroni osorik ematea
- b. Handiagoko zerbait *egin nahiago zuen*: ...

Erabilera orokor horietaz gain baina, alde batetik mendebaldean (Bizkaiko hainbat eskualdetan) eta Iparralde gehiengan *behar izan* erabiltzeko modua, eta Iparraldean halaber *nahi izan* erabiltzekoa ere aipatu behar dira eta literatura-erabilera berezi gisa utzi, bai batean eta bai bestean aditz horiek *ahal* eta *ezin* elementu modalen antzera jokatzeko baitira, laguntzailearen forma markatzen duena aditz nagusia izanik:

BEHAR IZAN ETA NAHI IZAN ADITZEN LITERATURA-ERABILERA BEREZIAK

- (4) a. (...) desertiala *juan nahi bazira*, arren... («Prima eijerra» kantua)
- b. Semea *ez zara bestaldera itzuli behar*
- c. *Ez gara* beraz *harritu behar*
- d. *Ez zara* *ikaratu behar*
- e. Ez zuan dudarik Pello, muthil hori *izan behar zela* atsoak helatu zuen Manuel (Elzb PAd 24)
- f. *Etzare* hola *izan behar* (Dy Lab 124)
- g. (...) joan gura nenque, *joan bear nintzateque*:baña ecin joan naz; urreratu gura neunque, *urreratu bear nintzateque*, baña ecin urreratu naz (Itz Berb 49)

Baina *behar izan* aditzaren osagarria iragangaitza bada eta forma datibodunekin erabiltzen badugu, *du* laguntzailearen ordeztu, *zaio* erabiliko dugu laguntzaile gisa:

- (5) a. Kortesia handiarekin *mintzatu behar gatzazkie*
- b. Ikasbide zahar horiei *jarraiki behar zatzazkie*
- c. Eta *joan behar gatzazkio* aitaren partez mintzatzera
- d. Halakotz *behar natzazu* maiz *hurbildu*...

<sup>161</sup> Euskaltzaindiaren gramatika azaltzen denez (1993a: 418), «Mendeko perpausean datiboa ageri denean, aditzak ere dagozkion markak hartu behar ditu (mendeko aditza iragangaitza denean, ikusten denez, *izan* aukeratzen da)».

26. *IRAUN, BALIO/KOSTA, LUZATU, NEURTU, PISATU...: HAMAR ORDU  
IRAUN DU / \*DITU...*<sup>162</sup>

Izenburuko aditz horietako batzuk *du* aditzak dira batzuetan (alegia, nor-nork laguntzailea hartzen dutenak), baina horrek ez du esan nahi osagarri zuzena eraman behar dutela nahitaez. Azken urte hauetan oker erabiltzen hasi da jende askotxo eta merezi du hitz bi egitea.

26.1. *Iraun: Hamar ordu iraun du bizirik / \*Hamar ordu iraun ditu bizirik*

Beheko (1) moduko esaldietan *hamar ordu*, *hogei egun* eta *urteak eta urteak* sintagmak ez dira osagarri zuzentzat hartu behar: sasiobjektuak dira osagarri zuzenak diruditen horiek eta ez da horiekin pluraleko komunztadurarik egin behar. Horregatik, ez da harritzeko aditz honek batzuetan osagarria inesiboan (2a, 2b) edo instrumentalean (2f) ere eramaten badu.

- (1) a. *Hamar ordu* iraun du/\*ditu bizirik
- b. *Hogei egun* iraun zuen/\*zituen jan gabe
- c. *Urteak eta urteak* iraun du/\*ditu erdi hilik
- (2) d. *Zenbait denboran* iraun zuen.
- e. *Egun bitan* iraun zuen.
- f. Egoitza hartan iraun zuen *bi urtez*.

26.2. *Balio izan; kosta(tu): lau milioi balio du/ditu etxeak*

*Balio* aditzaren kasuan (3a)-ko bi erabilerak (*lau milioi balio du/ditu*) onartu behar direla dirudi literatura-tradizioa eta gaur eguneko erabilerak kontuan hartzen badira. Dena den, konplementua mugatu plurala denean (3b/3c) ez da dudarik komunztadura egin behar dela.

- (3) a. Lau milioi balio du/ditu etxeak
- b. MilioiA balio du
- c. MilioiAK balio ditu

Bestalde, ez dira nahastu behar *balio izan* (*du* aditza) eta *kosta(tu)* (*zaio* aditza), aditz horietako bakoitzak bere esanahi berezia baitu.

- (4) a. balio DU # kosta ZAIO
- b. \*Zenbat kosta dezakeen jakin nahi dut > Zenbat balio dezakeen jakin nahi dut.
- c. \*1.500 milioi balio dizkigu > 1.500 milioi kosta zaigu (edo *1.500 milioi balio du/ditu*).

---

<sup>162</sup> Atal honetan Euskaltzaindiko Gramatika Batzordearen txostena (Euskaltzaindia, 1994c: 930-940) laburtu dut.

**26.3. Luzatu: bost metro luzatu du katea; ordubete luzatu ditu hitzaldiak**

Ezin esan daiteke hau lehengo beste bi aditzak bezalakoa dela. *Luzatu* aditza iragankorra da eta osagarri zuzena eramaten du maiz (5a). Hala ere, *zenbat luzatu?* galderari erantzunez, (5b) gisakoak erabili behar dira, komuntadura osagarri zuzenarekin (*katea*) eginez eta ez *zenbat* konplementuarekin (*bost metro*).

- (5) a. Amak luzatu dizkio *galtzak*
- b. Bost metro luzatu du *katea*
- c. Bost minutu (ordubete...) luzatu ditu *hitzaldiak*

**26.4. Neurtu: tunelak 200 metro neurtzen du/ditu > tunela 200 metro luze da [hobestekoa]...**

Aditz honek ere antz handiagoa du *luzatu*-rekin, aurreko biek (balio, iraun) baino. Beti neur baitaiteke zerbait, luzatu bezalaxe.

- (6) a. Aitarekin neurtu zituen indarrak
- b. Aizkolariak Tolosako zezen-plazan neurtuko dira [erabilera berria]

Baina beheko (7)-ko erabilerak berria dirudi eta gaztelaniak kutsatua:

- (7) a. ?Zenbat neurtzen duzu? [erabilera berria]
- b. ?Zenbat metro neurtzen du/ditu makila honek? [erabilera berria]

*Hiztegi Batuak* ez ditu baztertzen (7) gisakoak, baina haien ordez (8)-ko egiturak hobesten ditu:

- (8) a. Enbor hau bi metro luze/zabal da.
- b. Soro hau ehun metro da luzean/zabalean.
- c. Soro honek ehun metro ditu luzean/zabalean.
- d. Mutil hau metro bat eskas da.
- e. Tunelak 200 metro ditu.

Bestalde, galdera egiteko honako moldeak ditugu:

- (9) a. Zenbat luze (zabal, handi) da hori?
- b. Zenbat zara luzean (zabalean)?
- c. Ze(r) zabalera (luzera) du horrek?
- d. Zenbateko zabalera du pilotalekuak?
- e. Ze(r) neurri du?
- f. Ze(r) neurri du/ditu angelu honek?
- g. Zein da angelu honen neurria?

**26.5. Pisatu: Zenbat pisatzen duzu? 80 kilo pisatzen dut/ditut**

*Zenbat pisatzen duzu?* gisakoak eta haien erantzunak (*laurogei kilo pisatzen ditut/dut*) ongi esanak daude *pisatu* aditzarekin (10/11). Komuntadurari dagokionez, bi aukerak (*du/ditu*) dira zilegi.

- (10) a. Zenbat pisatzen duzu?
- b. Ze(r) pisu duzu?
- (11) a. Etxekoandreak oilaskoa pisatu du.
- b. Oilaskoak bost kilo pisatzen ditu/du.

Bestalde, zenbaitetan, testuinguruak argitzen badu neurri jakin batez ari garela, *zazpi arroa da (oilaskoa)* modukoak ere erabiltzen dira (12).

- (12) a. Zazpi arroa bazen bakoitza.
- b. Badira hamalau libra gutxienez (oilaskoak).

## 26.6. *Garestitu: \*ehun pezetatan garestitu da > ehun pezeta garestitu da*

Beheko adibideetan ageri da *garestitu/merkatu* bezalako aditzen erregimena.

- (13) a. Zenbatean erosi duzu? / -Hiru milioitan.
- b. \*Zenbatean garestitu da?
- c. Zenbat garestitu da?
- d. Patata bost pezeta garestitu da.
- e. Patatak hiru pezeta garestitu dira.
- f. Ogia bost pezeta garestitu du okinak.
- g. Gobernuak bost pezeta garestitu dute gasolina.
- h. Zerk garestitu du bost duro tabakoa?
- i. Zenbat garestitu du gobernuak gasolina?

## 27. EGITURA PASIBOAK: ?IDAZKARIA LEHENDAKARIAK IZENDATUTA IZANGO DA...<sup>163</sup>

Ikaragarri zabaldu da pasiboa erabiltzeko joera azken urteetan, gaztelaniaren eta inguruko hizkuntzen eraginez eta itzulpen zaindugabeen eraginez batik bat; izan ere, gaztelaniaz maila jasoan eta hedabideetan bereziki (ingelesaren mailara iristen ez bada ere) biziki erabiltzen da egitura pasiboa (ik. 1.22 azpiatala).

Gainera, hutsegiteak egiten dira gaztelaniak agentea adierazteko darabilen «por» preposizioaren euskal ordaina ematean.

### 27.1. Azalpena

Esan bezala, gaztelaniaren ezaugarrien artean, maila formal batean behintzat, egitura «pasiboen» erabilera dugu:

- (1) El Fiscal General del Estado ha de ser nombrado por el presidente

Askotan, «osagarri agentea», espainolez *por* preposizioaren bidez adierazten dena, ez da agertzen. Ondoko adibidean, esaterako, ez da zehazten nork behartu zuen soldadua tankea hartzera.

<sup>163</sup> Azkarate (1995) eta Azkarate (1993) jaso ditut atal honetan. Ikus bedi orobat 1.22 azpiatala.

(2) Un soldado fue obligado a conducir un tanque

Horrelako egiturak, «osagarri agenterik» gabeak, *se*-ren bidez ere adierazten dira sarri; (3) adibidean *han sido tratados-en* kide da *se han tratado*:

(3) En esta reunión se han tratado los siguientes puntos

Euskaraz, berriz, (1) bezalako egitura pasibo argia honela eman daiteke, (4b) zaharkituagotzat hartuko genuke dena den:

- (4) a. Estatuko Fiskal Orokorra *presidenteak izendatua izango* da
- b. Estatuko Fiskal Orokorra *presidenteaz izendatua izango* da

Hau da, izenondo bihurturiko partizipioa, *izendatua*, atributu gisa erabiltzen dugu. Beste bi adibideak ere modu berean eman daitezke euskaraz:

- (5) Tanke bat gidatzera *behartua izan zen* soldadua
- (6) Bileran honetan hurrengo puntuak *izan dira aztertuak*

(6) adibidean ikus daitekeenez, partizipioak komunztadura du subjektuarekin: *puntuak-aztertuak*.

Ez da ahaztu behar, hala ere, euskaraz, batez ere Hegoaldean, egitura pasiboetarako baino joera handiagoa izan dugula aktiboetarako eta goiko erdal perpausak erraz asko eman daitezkeela beste modu honetan ere:

- (7) Presidenteak izendatuko du Estatuko Fiskal Orokorra
- (8) Tanke bat gidatzera behartu zuten soldadua
- (9) Bileran honetan hurrengo puntuak aztertu dira / aztertu dituzte

Espainieraz osagarri agenterik ezak dakarren inperpersonaltasuna adierazteko hirugarren pertsona pluralaz (11) edo nor motako laguntzaileaz (10) baliatuz<sup>164</sup>. Horrela, *se han tratado* euskaraz hiru modutara itzul dezakegu:

- (10) aztertu dira,
- (11) aztertu dituzte,
- (12) aztertu ditugu (geu ere bileran izan bagara).

*Behartua izan zen* eta *behartu zuten* biak zilegi izanik, idazleak ikusi beharko du kasuan-kasuan zein izan daitekeen egokiena: zein lotzen zaion estuenik erdal testuari (hala eskatzen denean), zein izango zaion irakurleari ulertterazago (herri-tarrei zuzendatuko dokumentuetan), etab.

Bada, ordea, hain zuzena ez dirudien eta gaur egun zabaltzen ari den hirugarren aukera bat, *-ta izan*:

- (13) ?Estatuko Fiskal Orokorra *presidenteak izendatuta izango* da
- (14) ?Tanke bat gidatzera *behartuta izan zen* soldadua
- (15) ?Bileran honetan hurrengo puntuak *aztertuta izan* dira

---

<sup>164</sup> Ik. EGLU-2, 51-57. or.

Egia da Hegoaldean joera handia dagoela *-ta* eranstekeko partizipioari, baina batez ere *egon* eta *eduki* aditzekin<sup>165</sup>:

- (16) Garaiz etortzeko *esanda zaudete*
- (17) Hamaika horrelako *ikusita gaude* gure bizitzan
- (18) Jantziak dagoeneko *zintzilika jarrita ditu*

*Izan* aditzarekin, berriz, *EGLU*-n esaten den bezala (476. or.) «*-ta izan* aukera oso gutxi erabilia da eta gipuzkeraz bakarrik». Gainera ematen diren adibideak ez dira espainierazko pasiboaren parekoak:

- (19) Zain eta zain, bapo *aspertuta dira* honez gero
- (20) Lanean hasterako *nekatuta al zinen?*

*Izan* ere aspektu burutuko formekin ezin elkar daiteke *-ta* (\**-ta izan da*). Gainerakoekin ere, aztertzea litzateke *aspertuta izaten dira, aspertuta izango dira* zenbateraino diren ohikoak.

Ondorioz, hobe dugu euskara estandarerako (7)-(9) edo (4)-(6) egitura ohikoenak eta erabilienak bultzatzea, hedaduraz euskalki batekoak eta maiztasun urrikoak izateaz gain zalantzarazkoak diren (13)-(15) baino.

Beraz, laburtuz, honako gomendio hauek emango ditugu:

1. Osagai «agentea» adierazteko moduak:

— Okerrak: \**-tik*, \**-gandik*

— Okerra agentea adierazteko baina testuinguru batzuetan dudazkoa gerta daitekeena: ? *-gatik*

— Zuzena: *-k* (-z)

**Adibideak:**

- |  |   |
|--|---|
| (21) *Arazo hori <i>Osakidetzatik</i> ere kontsideratua izan da.   | (22) Osakidetzak ere kontsideratu du arazo hori.  |
| (23) *Herriko biztanle <i>guztiengandik</i> ikusia izan zen  | (24) a) Herriko biztanle <i>guztiek</i> ikusi zuten.<br>b) Herriko biztanle <i>guztiek ikusia</i> izan zen.           |
| (25) *Lan hori <i>zugatik</i> egina dago («zuk egin duzu» esateko)   | (26) Lan hori <i>zuk (zeuk)</i> egin duzu.  |
| (27) a) ?Langile <i>xeheengatik</i> salbatua izan da enpresa.<br>b) *Langile <i>xeheengatik</i> salbatu da enpresa («haiek salbatu dute»). | (28) a) [Onargarria kausa adierazteko: «haiek hala merezi zutelako»]<br>b) Langile <i>xeheek</i> salbatu dute enpresa |

2. Aditzaren forma. Aditzak berak forma hauek har ditzake:

Hobestekoak: *-a(k) izan, -rik izan/egon, -ta egon*

Hobe ez erabiltzea: ??*-ta izan*

Okerra: \**-tak izan, \*-tak egon*

---

<sup>165</sup> Ik. *EGLU-II*, 474.-478. or.



3. Hegoaldeko euskarak askoz joera handiagoa bide du egitura aktiborako. Beraz, pasiboa gaitzetsi gabe, estilo aktiboa bilatzea gomendatzen dugu<sup>166</sup>.

## 27.2. Aztertzeo adibideak

- |   |  |
|---|--|
| (29) *Euskal <i>telebistatik ikustera emango</i> zaigun filmea.   | (30) Euskal <i>Telebistak</i> emango digun filma.  |
| (31) * Euskadi <i>Irratitik entzutera emango</i> zaigun bertso saioa.   | (32) Euskadi <i>Irratiak</i> emango digun bertso saioa.  |
| (33) *Tontokeria horiek alde batera utzirik argi dago eta maila <i>guztietatik onartua</i> gainera Euskaltzaindiak duen egiteko nagusia eta zabala.                   | (34) Tontokeria horiek alde batera utzirik argi dago eta <i>maila guztietan onartua</i> / <i>?denek onartua</i> gainera Euskaltzaindiak duen egiteko nagusia eta zabala.   |
| (35) *Honetarako <i>desagertua edo hilda izan</i> den pertsonaren senideak telebistan agertzen dira.  | (36) Honetarako <i>desagertua edo hila izan</i> den pertsonaren senideak telebistan agertzen dira. / <i>...desagertu den edo hil duten...</i>  |
| (37) *Bahitu, bortxatu eta handik gutxira herritik hurbil <i>hilak ziren</i> neskak telebidenten <i>askok ziren ikusiak</i> Espainia <i>osotik</i> .                  | (38) a) Bahitu, bortxatu eta handik gutxira herritik hurbil <i>hilak izan ziren</i> neskak ikus-entzule <i>askok</i> [Ip. <i>askoz</i> ] <i>ikusiak izan ziren</i> Espainia <i>osoan</i> . /<br>b) <i>...hil zituzten neskak ikus-entzule askok ikusi zituzten</i> . |
| (39) *Umeen gustuak, telebistan agertzen diren <i>anuntzioengatik erabat manipulatua</i> k daude.   | (40) a) Umeen gustuak, telebistan agertzen diren <i>iragarkiek manipulatua</i> k daude.<br>b) Umeen gustuak, telebistako <i>iragarkiek manipulatzen dituzte</i> .  |
| (41) *Eskola-eremuan, ideologia <i>nazionalistatik kritikatuak</i> izango dira eskola ofiziala eta irakasle <i>erdaldunak</i> .                                       | (42) a) Eskola-eremuan, ideologia <i>nazionalistatik kritikatu zituen</i> / <i>kritikatu ditu</i> eskola ofiziala eta irakasle <i>erdaldunak</i> .<br>b) <i>...ideologia nazionalistatik kritikatuak izango dira...</i>  |
| (43) *Bestalde 140ko CIA baino altuagoa izango duten haurrak hartuko ditu, baina hauek bere <i>gurasoengandik ez dira superdotaduak bezala kontsideratuak</i> izango. | (44) a) <i>...gurasoek ez dituzte superdotatu (?gaindohatu) kontsideratuko</i> .<br>b) <i>gurasoek ez dituzte superdotatuztat (gaindohatuztat) hartuko/edukiko</i> .   |

<sup>166</sup> Kontuan har bedi egitura aktiboen aldeko gomendio hori inguruko kultura-hizkuntzetarako ere proposatu dela azken hamarkadetan. Alegia, gomendio hori latinetik hizkuntzetarako ez ezik (Cas-sany, 1993: 114-119; MAP, 1991: 150-151), pasiboa barra-barra erabiltzen duen ingelesarentzat ere proposatu izan da, batez ere «Plain Language» mugimenduari esker (Bailey, 1990: 93; Eagleson: 1990: 47). Bistan dagoenez, pasiboen gehiegizko erabilera da inguruko hizkuntzotan salatzen dena.

- (45) \*Bigarrenak, berriz, lasaiak eta inongo arazorik ematen ez duten *haurrak bezala kontsideratuak* izango dira.
- (46) ?...*ez duten haurrak direla usteko du jendeak.* / ? ... *ez duten haurrak kontsideratuak izango dira.*
- (47) \*NB<sup>167</sup>Eren kasko urdinek gatazkan parte hartzeari ondo neritzon. Baina, aldiz, Salbadorreko gudan Estatu Batuetako armadarenak, bortitza eta begirune ezaz izan zena, *ez dauka onarpenik inorengandik.*
- (48) ... *armadarena, bortitza eta begirune gabekoa, ezin du inork onartu.*
- (49) \*Bide demokratikoa, *ejertzitoo-rengatik* alde batetik, eta *integrismoarengatik* bestetik, *hautsita* izan da.
- (50) a) Bide demokratikoa, *armadak (gudarosteak)* alde batetik, eta *integrismoak* bestetik, *hautsi dute.*  
b) ...? -*gatik* eta -*gatik* *hautsi da.*
- (51) \*Baina kaleko emakumeon *ordezkaritza ez zen entzunda* izan.
- (52) Baina kaleko emakumeon *ordezkaritza ez zen entzuna* izan
- (53) \*Haur bat erahila beste haur *batzuegandik.*
- (54) Haur bat *beste haur batzuek* erahila.
- (55) \*Joan den ostegunean, Arte Ederretako fakultateko sei ikasle atxilotuak izan ziren *Ertzantzagaitik.*
- (56) Joan den ostegunean, Arte Ederretako fakultateko sei ikasle *atxilotu zituen Ertzaintzak.*
- (57) \*Halere, normala da *neskatxa bati* kotxeekin jolasten ikustea, bere «garajea»kin adibidez, edota *mutilari* «bazkaria» prestatzen.
- (58) Halere, normala da *neskatxa bat* kotxeekin jolasten ikustea, bere garajearekin adibidez, edota *mutila* «bazkaria» prestatzen.
- (59) \*Beren lagun guztiak zer edo zer eskuratzen dutenez, *ezin zaie* errurik ez duten umetxoei jostailurik gabe *utzi.*
- (60) Beren lagun guztiak zer edo zer eskuratzen dutenez, *ezin dira* errurik ez duten *umetxoak* jostailurik gabe *utzi.*
- (61) \*Ezin *zaigu* txapela eta kaikua jantziz *guztiori* batu.
- (62) Ezin *gaituzte* txapela eta kaikua jantziz *guztiok* batu.
- (63) \*Jantokitik irteteko baimena ez dutenak, egun horretan irten nahi badute, *gurasoengandik sinatuta* baimena ekarri behar dute.
- (64) Jantokitik irteteko baimenik ez dutenak, egun horretan irten nahi badute, *gurasoek sinaturiko baimena* ekarri behar dute.
- (65) \**Guztion ezaguna da* nolako korrupzio-kasuak ari diren azaltzen azken hilabeteotan.
- (66) *Guztiok dakigu* nolako ustelkeria-kasuak ari diren azaltzen azken hilabeteotan.

## 28. ?KANPO-MINISTROAK DIMITI LEZAKE<sup>167</sup>

Atal honetan ahalezko adizkien (1)-eko erabilera dugu aztergai: (1a) modukoak zuzenak ote dira? Horrelakoan ordez ez ote dira egokiagoak (2a) gisakoak?

<sup>167</sup> Euskaltzaindiko Gramatika Batzordearen txostena (Euskaltzaindia, 1994c: 956-957) jaso dut atal honetan.

- (1) a. Kanpo-ministroak dimiti lezake.  
b. Bagdad berriro bonbarda dezakete/lezakete.  
c. Euria egin dezake.  
d. Hamar urte izan ditzake.  
e. Egia izan daiteke.
- (2) a. Baliteke kanpo-ministroak dimititzea/dimisioa aurkeztea.  
b. Gerta daiteke Bagdad berriro bonbardatua izatea.  
c. Litekeena da euria egitea.  
d. Daitekeena da berak irabaztea.

...

*EGLU-II*-ren arabera *dimiti lezake* bezalako adizkerak posibilitatea adierazten dute. Baina bi posibilitate-mota daude: bata epistemikoa da (2), eta bestea epistemikoa ez dena (3, 4). Epistemikoa ez den posibilitateak subjektuak duen gaitasuna, baimena edo potentziala adierazten du, eta *-ke* aspektugabeaz (3) nahiz baliokide-edo diren beste egitura batzuez (4) baliatzen gara nozio hori aditzera emateko.

POSIBILITATE EZ-EPISTEMIKOA

- (3) a. Miren Bilbora joan daiteke, autoa dauka eta.  
b. Hemen erre dezakegu.  
c. Ez dezaket edan ardo hau.
- (4) a. Miren Bilbora joaten ahal da.  
b. Hemen ezin dugu erre.  
c. Ezin dezaket edan ardo hau.  
d. Ez dirot/diroket edan...  
e. Ez naiz edateko gauza.  
f. Ez daukat Bilbora joateko modurik.  
g. Ez daukat Bilbora joaterik.

Posibilitate epistemikoak (2), berriz, proposizio batek —hiztunaren ustez— egia izateko edo gertatzeko duen posibilitatea adierazten du. *Litekeena da, daitekeena (da), baliteke...* formulaz balia gaitzke posibilitate epistemikoaren aurrean gauden egiaztatze. Euskaldun berri batzuek posibilitate epistemikoa adierazteko (5) gisakoak erabiltzeko zaletasuna badute ere, hori ez da euskara idiomatikoa.

- (5) ?*Posible da* ministroak dimititzea.
- (6) *Litekeena/daitekeena da* ministroak dimisioa aurkeztea (ematea).

Posibilitate epistemikoa adierazteko lokuzio ugari daude euskaraz. Aipagarriak dira, besteak beste, hurrengoak:

POSIBILITATE EPISTEMIKOA

- (7) a. Hamar urte *dituzke*. (Ekialdeko baliabidea, estilistikoki markatua)
- (8) a. Hamar urte *izango ditu*. (Aski zabaldua Mendebaldean hizkuntza mintzatu, ez guztiz literarioa)  
b. Nora doa autobus hori? -Ez dakit, ba; Baionara *joango da*.
- (9) a. Bagdad berriro bonbardatuko *omen (ei)* dituzte. (bigarren eskuko informazioa emateko)  
b. Egia *ote* da? (Galderetan).

- (10) a. *Beharbada (agian/apika/menturaz/dohaika...)* kanpora joan zen.  
 b. Euria egingo du, *antza*.
- (11) a. Kanpora *joango zen*. (iraganeko ustea)
- (12) a. Kanpora joan da *edo*.
- (13) a. *Nire ustez*, berriro bonbardatuko dute Bagdad.  
 b. *Dirudienez*, berriro bonbardatuko dute Bagdad.  
 c. *Diotenez*, berriro bonbardatuko dute Bagdad.
- (14) a. *Uste dut* Bagdad berriro *bonbardatuko dutela*.  
 b. Bagdad berriro *bonbardatuko dutelakoan nago*.  
 c. *(ba)Nago* Bagdad berriro *bonbardatuko dutela*.  
 d. *Nago* Bagdad berriro *ez ote duten bonbardatuko*.  
 e. *Badirudi* Bagdad berriro *bonbardatuko dutela*.  
 f. *Beldur naiz* Bagdad berriro *bonbardatuko dutela*.
- (15) a. *Baliteke/badaiteke* Bagdad berriro *bonbardatzea (bonbardatua izatea)*.  
 b. *Gerta daiteke/liteke* Bagdad berriro *bonbardatzea (bonbardatua izatea)*.

Eta *izan daiteke* gisakoak ere zentzu epistemikoan erabiltzerik ba al dago?  
 Bai, adibidez:

- (16) a. Hori egia *izan daiteke*. (zentzu epistemikoa)  
 b. Kontuz! Euria *egin dezake* berriro! (zentzu epistemikoa)

Baina kontuan izanda *-ke* aspektugabeak maizago nozio ez-epistemikoa adierazteko erabiltzen dela, eta euskarak bide berezi franko dituela posibilitate epistemikoa adierazteko, estilo aldetik ez da komeni sistematikoki *-ke* aspektugabea (*har lezake*) balio epistemikoarekin erabiltzea.

Posibilitate ez-epistemikoa adierazteko beste bide gehienak —goiko (4)— ezin daitezke zentzu epistemikoan erabil, baina batzuk bai, *ezin* adibidez (17). Lafittek<sup>168</sup> dioenez *ahal* ez da inoiz epistemikoa izaten.

- (17) *Ezin ditu izan* hamar urte!

## 29. \*EZ DAUKAZU ZERTAN NEGAR EGIN BEHARRIK<sup>169</sup>

Beheko bi zutabeetako egiturak (1/2) ondo bereizi behar dira. Ezkerreko zutabeko adibideetan galde-hitza beti ondoko aditzaren argumentuari ongi datorkio: alegia, galde-hitza zuzenean aditzak har ditzakeen argumentuetako bati dagokio («NONDIK sar(tu), ZER har(tu), ZER pentsa(tu), NONDIK hasi...»). (1)-eko egitura aditzoina erabiltzen da ekialdean (1a, 1b, 1c), eta partizipioa (1d, 1e, 1f...) —are artikulua (1e, 1j, 1n) nahiz partitiboa (1f, 1k, 1m) erantsia duela ere— mendebaldean.

Eskuinaldeko adibideetako egitura bestelakoa da; izan ere, *Ez du zertan/zer apurtu burua* perpausean *zertan* galde-hitzak ez du «tokia» adierazten

<sup>168</sup> Lafitte (1944:349).

<sup>169</sup> Atal honetan, gehienbat, Euskaltzaindiko Gramatika Batzordearen (1994c: 941-946) txostena laburtzera mugatu naiz, adibide berriren batzuk gehituaz.

(«NON/ZERTAN apurtu?») edota *zer* galde-hitzak ez du *apurtu* aditzaren objektua adierazten («ZER apurtu?»). (2)-ko adibideetan «ekintza baten premiarik eza» edo adierazten da: ohararazteko da, hain zuzen ere, eskuinaldeko perpaus guztiak ezezkoak direla. Eta ideia hori adierazteko bi egitura nagusi ditugu: (2a), euskalki guztietakoa; eta (2b), mendebaldean inesiboarekin (*zertan*) gauzatua eta ekialdean absolutiboaren bidez (*zer*) gauzatua. Atal honen izenburuko egitura (2c) okerra da eta aurreko bi egituren (2a, 2b) nahasketaz sorturiko iratxoa da.

- |  |   |
|--|---|
| <p>(1) EZ DU BURUA NON PAUSA/PAUSATU/<br/>PAUSATURIK</p> <p>a. Ez dakit nondik sar</p> <p>b. Badakigu zer har</p> <p>c. Badugu zer pentsa eta zertaz grina</p> <p>d. Badugu guk nondik hasi</p> <p>e. Badugu guk zer esana</p> <p>f. Badugu guk zer esanik</p> <p>g. Ez du burua non pausa / pausatu / pausaturik</p> <p>h. Ez dute aurkitu dantzara nork eraman</p> <p>i. Dantza galduek nork zaindu asko dauzkate</p> <p>j. Bertan daukagu zer jana eta non lan egina</p> <p>k. Nork zaindurik ez du eduki eta</p> <p>l. Etxean zeukan nori begiratu</p> <p>m. Ia zer janik ez daukagu</p> <p>n. Non erosia badugu</p> <p>o. Badegu zergatik negar egin (Otag 236)</p> | <p>(2) a. EZ DUZU NEGAR EGIN BEHARRIK</p> <p>b. EZ DUZU ZERTAN/ZER/ZERGATIK NEGAR EGIN</p> <p>c. *Ez daukazu zertan negar egin beharrik</p> <p>d. Ez dauka inork zertan pentsatu estuak garela</p> <p>e. Ez da bada zertan esan...</p> <p>f. Ez dauka inork zertan burua nekatu...</p> <p>g. Ez dago zertan esan zelakoak diren...</p> <p>h. Ez da zertan harritu...</p> <p>i. Ez da zertan ametsik egin...</p> <p>j. Telebistari ez dago zertan itxirik bere bideak</p> <p>k. Ezta heben zer duda (E, III, 26)</p> <p>l. Ez da zuk zer erantzun (Mb 72)</p> <p>m. Ez da zuek zer penatu (Mb 109)</p> <p>n. Ez da zer nere haurragatik horrenbat neke zuk hartu (Mb 186)</p> <p>ñ. Ez dugu zer bildur izan (Otag 417)</p> <p>o. -Eskerrik asko / -Ez da zergatik (zeren)</p> <p>p. Ez duzu etxean zer gelditu/gelditurik</p> <p>q. Ez du zer egon/egonik egun osoan bakarrik</p> <p>s. Ez zen zer xahutu/xahaturik hainbeste diru</p> |
|--|---|

Zenbaitetan perpaus anbiguoak (3) sor daitezke, nahiz eta testuinguruari esker anbiguotasun hori gutxitan gertatzen den (4):

- (3) Ez du zertan jardun
- a. «Ez du zer/zergatik jardun», «ez du jardun beharrik»
- b. «Ez du non jardun», «ez du jarduteko arlo edo eremurik»
- (4) Ez du zertan jardun gaizki esaka

Bestalde, esan gabe doa ondo bereizi behar ditugula «ekintza baten premiarik eza» (5a) eta «zerbait ez egiteko eskakizuna» (5b):

- (5) a. Ez du horrelakorik egin beharrik / Ez du zertan horrelakorik egin.  
 b. Ez du horrelakorik egin behar.

### Aztertzeko adibideak

#### EGITURA ZUZENA

- (6) (...) interlokutoreek *zertan elkar ezagutu beharra* eduki barik
- (8) ...judizio apriorizko baten ukazioak *ez du zertan izan behar* kontraesan bat.
- (10) Oro har, perpaus batek proposizio bat adierazten du, baina proposizio guztiek *ez dute zertan adieraziak izan behar*.
- (12) eta, bestetik, ordezkariak ere, *ez du zertan kudeatzen jarraitu behar* oinordekoen ondarea...
- (14) Askotan edukitza eta titulartasuna bat datoz, baina *ez du zertan horrela izan behar*...
- (16) Hala bada, titulua eta modua *ez dira zertan une berean eman behar*.
- (18) Salgai den gauzak *ez du zertan existitu behar* kontratua eratzerakoan...

#### EGITURA OKERRA

- (7) (...) interlokutoreek *elkar ezagutu beharrik* eduki barik. / interlokutoreek (solaskideek) *ez dute zertan elkar ezagutu*.
- (9) judizio apriorizko baten ukazioak *ez du zertan izan* kontraesan bat / *ez du kontraesan bar izan beharrik*
- (11) Oro har, perpaus batek proposizio bat adierazten du, baina proposizio guztiek *ez dute zertan adieraziak izan / ez dute adieraziak izan beharrik*.
- (13) eta, bestetik, ordezkariak ere, *ez du zertan kudeatzen jarraitu oinordekoen ondarea...* / *ez du oinordekoaren ondarea kudeatzen jarraitu beharrik*.
- (15) Askotan edukitza eta titulartasuna bat datoz, baina *ez du zertan horrela izan / ez du horrela izan beharrik*...
- (17) Hala bada, titulua eta modua *ez dira zertan une berean eman*. / Hala bada, *ez dago titulua eta modua une berean eman beharrik*.
- (19) Salgai den gauzak *ez du zertan existitu* kontratua eratzerakoan...

### 30. \*BAZKARIA ETA GERO > BAZKALDU ETA GERO<sup>170</sup>

Txartzat eman behar dira esaera hori eta egitura bereko guztiak inongo dudarik gabe:

- (1) a. \*klaseak eta gero  
 b. \*zinea eta gero  
 c. \*hitzaldia eta gero  
 d. \*bilera luze bat eta gero

<sup>170</sup> Atal honetan hitzez hitz jaso dut Euskaltzaindiko Gramatika Batzordearen (1994c: 951-952) txostena.

Arrazoa: *eta gero* ezin ipin daitekeelako partizipio burutuaren ondoan baizik.  
Alegia:

- (2) bazkaldu eta gero

edo nahiago bada,

- (3) a. bazkariaren ondoren  
b. bazkalondoan  
c. bazkaldu ondoren

### 31. ??HITZALDIA MEDIO > HITZALDIA DELA MEDIO<sup>171</sup>

Esapide honi adizkia zor zaio, zuzena izango bada. Badira beste esapide batzuk, adizki jokaturik gabeak, aditza eliditua dutenak, hauen antzekoak norbaiti irudi dakizkiokeenak, hala nola,

- (1) a. joanak joan  
b. besteak beste  
c. Jainkoa lagun  
d. esanak esan

Agi danean (1)-ekoen nolabaiteko antzak bultzatzen du zenbait jende titulu-koaren gisakoetan ere adizkia kentzera. Baina baliabide hori ez da erabat zilegi, hizkuntzaren molde jator baten kontrakoa baita. Hala hurrengoak berrikeriak dira eta hobe dugu betiko esamoldera itzuli, *medio*-ren aurrean *dela* edo *direla* sartuz.

- (2) a. ??euskara idatziaren urria medio  
b. ??alferkeria eta arduragabekeria medio  
c. ??idatzi zituen euskal hitzak medio

Gure literaturan sekula ez da agertzen *\*hitzaldia medio* bezalako egiturarik, baizik beti *hitzaldia dela medio* bezalakoak. Hala OEH-n berroegi-edo aurki daitezke, Iparraldeko nahiz Hegoaldeko idazleenak: hala nola Elizanburu, Duvoisin, J.B. Etxepare, Txirrita, Mitxelena eta abarrenak. Hona batzuk:

- (3) a. *Eta hori dela medio*, nere hoben guziez damu hartzen dut (Dv *LEd* 78)  
b. Den baino ere hamar aldiz laburrago iduritu zitzaidan bide hori, *nere laguna zela medio* (J.B. Elizanburu).  
c. Horrexegatik nonbait, *argirik eza dela medio*, ez diot antzematen zer ikus-kizun duten oraindik... (Mitx).

---

<sup>171</sup> Atal honetan hitzez hitz jaso dut Euskaltzaindiko Gramatika Batzordearen (1994c: 952) txostena. Ikus orobat «medio» sarrera *Orotariko Euskal Hiztegia*-n.

## 32. KONPARAZIOAK<sup>172</sup>

Konparazio-perpausetan hainbat oker egiten dira. Hona hemen, bi.

### 32.1. ??*Euskal zinegile baino zinegile soila naiz*

Hona hemen, *Euskaldunon Egunkaria*-tik jasotako adibide batzuk:

- (1) a. Telebistak urdailera zuzendu behar du burura baino.
- b. Euskal zinegile baino zinegile soila naiz.
- c. Sentimentuei baino emozioei jaramon egin behar zaie.

Baina ongi ote daude esaldiok? Euskal literatura zaharrean inoiz horrelakorik auri badaiteke ere (Etxepare, adibidez) ez du bide honek oso gomendagarria ematen.

*Baino* eta *-ago*, jakina denez, konparazioetan erabiltzen ditugu. Biak batera. Hala ere, *-ago*-dun izenondo nahiz aditzondo *baino*-rik gabe erabil daiteke, tes-tuinguruak bide ematen duenean. Adibidez:

- (2) Ni zaharragoa naiz

esan daiteke, nor baino zaharragoa naizen esan gabe.

*Baino* elementua sartzen badugu, ordea, *-ago*-dun izenondoa edo aditzondo behar dugu nahitaez. Ezin dugu onartu, adibidez,

- (3) a. \*Ni Peru baino naiz.
- b. \*Ni Peru baino bizi naiz.

Konparazioa zertan egiten dugun esan behar da. Adibidez:

- (4) Ni Peru baino maltzurragoa naiz

Hizpidea eman diguten goiko adibideetan, hain zuzen, oker horixe dugu: ez zaigu esaten zertaz egiten dugun konparazioa:

- (5) a. Telebistak urdailera zuzendu behar du
- b. Telebistak burura zuzendu behar du

Bi baieztapen horietan zer da konpara dezakeguna? Bien arteko gradua, nolaba-it. Alegia, telebistak urdailera zuzendu behar du *maila batean*, baina burura ere zuzendu behar du *beste maila batean*. Bi maila horietaz egin nahi da konparazioa eta, horrela, esaten da *urdailera gehiago burura baino*. Hortaz, honela esan behar-ko genuke:

- (6) a. Telebistak urdailera zuzendu behar du *burura baino areago/gehiago*.
- b. Euskal zinegile *baino areago* zinegile soila naiz.
- c. Sentimenduei *baino areago* emozioei egin behar zaie jaramon.

---

<sup>172</sup> Atal honetan hitzez hitz jaso dut Euskaltzaindiko Gramatika Batzordearen (1994c: 963-965) txostena. Ikus orobat «baino» sarrera *Orotariko Euskal Hiztegia*-n eta *EGLU-V* (407 eta 409 orr.).



Horrela esaten ez badugu, perpausa herren gelditzen da, ez baitugu adierazten zertan egiten dugun konparazioa.

Jakina, maila alderatu orde, egin liteke perpaus bat baieztu eta bestea ukatu:

- (7) a. Telebistak urdailera zuzendu behar du eta ez burura.
- b. Ez naiz euskal zinegile, zinegile soila baizik.
- c. Sentimenduei ez, emozioei egin behar zaie jaramon.

Baina, jakina, horrela eginez gero, ez dugu inolako mailakaterik, baieztapen bat eta ukapen bat baizik. Beste aukera bat, nolnahi ere.

### 32.2. *Nahiago # nahien; gehiago # gehien*

Ongi ote daude honako esaldiok?:

- (8) a. Zein da nahiago duzun jakia?
- b. Egin ezazu gehiago gustatzen zaizuna.

Badirudi horrelakoek superlatiboa eskatzen dutela —ik. beherago (11)—. Alegia, horrelako galderetan egiten den galdera gauza guztietarik zein duzun gogokoen izango litzateke. Ez gauza jakin bat baino nahiago zein duzun. Horrela, hurrengo perpausa ez legoke ongi:

- (9) \*Gauza guztietarik NAHIAGO dudana ezer ez egitea da.

-AGO-dun konparazioak, eta *nahiago* eta *gehiago* halakoak dira, bigarren konparazio-buru bat eskatzen du. Adibidez:

- (10) Zinera joan baino nahiago dut etxean geratu.

Baina erlatibozko perpausa tartean delarik, neke egiten zaigu konparatiboa erabiltzea. Superlatiboa behar dugu:

- (11) a. Zein da nahien(a) duzun jakia?
- b. Egin ezazu gehien gustatzen zaizuna.

## 33. PERPAUS OSAGARRIAK (I): *-(E)LA*, *-(E)NA*, *-(E)NIK*...<sup>173</sup>

### 33.1. **Aditz baten mendeko perpausak**

Gai honen gainean honako puntuak hartu behar dira kontuan:

a) *-(e)la*, *-(e)na*, *-(e)nik* atzizkien banaketa ez dago batere garbi<sup>174</sup>. Ez da egia, adibidez, behin baino gehiagotan entzun eta azaldu duguna: «perpaus nagu-

<sup>173</sup> Azkarate (1995) da atal honen iturria. Dena dela, *EGLU-V* (Euskaltzaindia, 1999:58-59; 94-95) liburuan ere ideia bertsuak azpimarratzen dira.

<sup>174</sup> Perpaus osagarrietan bizkaieraren eremu batean erabiltzen den *-ena* menderagailuari buruz *EGLU-V* (67-69 orr.) ikus dezake irakurleak.

siko aditza ezezkoa denean, *-(e)nik* erabili behar da». Hori ez da beti hala (infra 35. atala).

Dena den, datuak hobeto aztertu beharko ditugu gomendio zehatzagorik eman ahal izateko.

b) *ez -(e)la*, *ez -(e)na* (perpau konpletiboak osatzen dituenari) eta *ez -en* (zehargalderakoari) atzizkiei, ezin zaie kasu-markarik erantsi<sup>175</sup> (ikus hala ere 34. atala). Aditz batek, esaterako, izan dezake *-z* erregimena, baina izen-sintagma hartzen duenerako bakarrik. Perpau osagarri edo konpletiboa hartzen badu, aukera bakarra *-(e)la* atzizki hutsa da, inoiz *-(e)laz* (\**Etorri direlaz ohartu da* > *Etorri direla ohartu da*).

Alde honetatik, *arduratuko direnaz* bezalakoak erabiltzeak ez du ezer konponzen. Horiek zuzenak izan daitezke erlatibo-balioan:

- (1) Auzi horretaz *arduratuko denaz* aritu ginen (= «arduratuko den pertsonaz»)

Ez da hori ordea beherago ditugun adibideen kasua. Hortaz:

(2) *Etorri direla* konturatu naiz

(3) Nolako astakeria *esan duten* konturatu naiz

(4) Ez dut ideiarik ere zer *egingo dudan* karrera amaitu ondoren

(5) a) Unibertsitatera etortzean zer espero nuen eta orain zer iruditzen zaidan, bi puntu horien arteko konparaketa egin behar omen dut.

b) Konparaketa egin behar omen dut unibertsitatera etortzean zer espero nuen eta orain zer iruditzen zaidan.

c) Aditz batzuek perpau osagarri jokaturia eskatzen dute —*irakurri* edo *idatzi* aditzek adibidez—. Beste batzuek perpau jokaturia —*gustatu*, *hasi*, *merezi izan*—. Hirugarren multzo batek, azkenik, bi moduetakoak onartzen ditu (*erabaki*, *agindu*...).

Hau dela eta, estandarrean aztertu beharreko beste puntu bat perpau jokaturia erabilera da. Erabat mendeko perpau jokaturia alde egiten dugu, baina hone-lakoetan perpau jokaturia behar dugula dirudi:

(6) ?Azken urte hauetan eginiko azkenetako aldaketa edo gehiketa kasu honetan Bilboko egoitza berria *zabaldu duela da*

(7) Azken urte hauetan eginiko azkenetako aldaketa, Bilboko egoitza berria *zabaltzea (zabaldu izana) da*.

(8) \*Haurrei gezurrik *esan behar ez zaienaren* aldekoa naiz.

(9) Haurrei gezurrik *ez esatearen* aldekoa naiz.

### 33.2. Aztertze adibideak

(10) \*Beraien aurpegiaren atalak gero eta zimurrago eta eroriago gelditzen *direlaz* oharreza.

(11) ...*gelditzen direla*...

<sup>175</sup> Ikus, besteak beste, *EGLU V*-eko hurrengo orrialdeak: 58-59 («Adierazpen-perpauak ez dira deklinatzen»); 94-95 («Zehargalderak ezin deklina daitezke»).

- (12) \**Gorroto zizunaz* ohartu nintzen. (13) *Gorroto zizula* ohartu nintzen.
- (14) \*Zergatik zaude zure aita nik *hil nuenaz* hain ziur (15) Zergatik zaude hain ziur zure aita nik *hil nuela*?
- (16) \*Klonazioaren gaia modan *dago-elaz* orain jabetu naiz. (17) Orain klonazioaren gaia modan *dagoela* jabetu naiz
- (18) ?Azken urte hauetan eginiko azkenetako aldaketa edo gehiketa kasu honetan Bilboko egoitza berria *zabaldu duela da*. (19) ... kasu honetan Bilboko egoitza berria *zabaltzea (zabaldu izana)* da.
- (20) \*Karrera bukatu eta gero *zer egingo dudana*z, bai ez daukadala ideiarik ere. (21) a) Karrera bukatu eta gero *egingo dudana*z, ez dut ideiarik ere.  
b) Karrera bukatu eta gero *zer egingo dudana*, ez dut ideiarik ere.  
c) Ez dut ideiarik ere karrera bukatu eta gero *zer egingo dudana*.
- (22) \*Unibertsitatera etortzean zer espero nuen eta orain *zer iruditzen zaidanaren arteko konparaketa* egin behar omen dut. (23) a) Unibertsitatera etortzean zer espero nuen eta orain *zer iruditzen zaidan, bi puntu horien arteko konparaketa* egin behar omen dut.  
b) Konparaketa egin behar omen dut unibertsitatera etortzean *zer espero nuen eta orain zer iruditzen zaidan*.
- (24) \*Gauzak honela, auzia Brusselak *zer erabakitzen duenaren zain* gelditzen da. (25) a) Gauzak honela, auzia *Brusselak zer erabakiko zain* geratzen da.  
b) Gauzak honela, auzia *Brusselak zer erabakitzen duen zain* geratzen da.
- (26) \*Egia esan ez dakit liburua bukatzeko gai *izango naizenik*. (27) Egia esan ez dakit liburua bukatzeko gai *izango naizen*.

### 34. PERPAUS OSAGARRIAK (II)<sup>176</sup>: OSAGARRI IZENLAGUNAK (\**ETORRIKO DELAREN BERRIA...*; \**ETORRIKO DENAREN BERRIA ZABALDU DA...*)

#### 34.1. Izenen osagarri diren adierazpen-perpauak: *Etorri delako berria zabaldu da. Etorriko den esperantza dugu...*

Perpau konpletiboak izen-sintagma baten mendeko ere egin ditzakegu, gazte-lerazko «la impresión de que», «la noticia de que» bezalako enbainak emateko. Horretarako, ordea, nahitaezkoa da *-(e)la* eta *-en* (zehargaldera) atzizkien arteko bereiztea.

<sup>176</sup> *EGLU-V* (Euskaltzaindia, 1999: 145-158) gramatika-liburuan eskaintzen den azalpenaren laburpena dakargu atal honetara. Horretaz gainera, Azkarate (1995) eta Alberdi et alii (1997, 2000a, 2000b) erabili ditugu.

a) Adierazpen-perpauzak izen baten mende jartzeko edo perpauk izenlagun bihurtzeko bi aukera ditugu: a) *-eLAKO*; b) *-eN*.

- (1) a. *Zatituta dagoeLAKO seinale*  
b. *Zatituta dagoeN seinale*

b) *-en* zehargalderetakoarekin ezin da horrelakorik egin (ik., dena den, infra 34.2). Ezinbestekoa da *-en* forma gordetzea, hurrengo adibidean ikus daitekeen bezala.

- (2) \**Karrera bukatu eta gero zer egin-go dudana* ez dut ideiarik. (3) *Ez dut ideiarik karrera bukatu eta gero zer egingo dudan.*

Dena dela, euskaraz perpauk osagarri izenlagun gehienak adierazpen-perpauk izaten dira. Eta funtsean, izenlagunek izan ohi dituzten atzizkietako bat hartzen dute: *-KO* (*-eLA* menderagailuari erantsita) (1a), edo *-eN* (1b).

(1b) modukoak *uste*, *susmo*, *beldur*, *esperantza* eta horrelako izenen mendeko perpausetan agertu ohi dira maiz<sup>177</sup>.

- (4) a. *Badira oraindik [lurra zapala den ustea] baztertu ez dutenak*  
b. *[Euskara Afrikatik datorren hipotesia] defendatu dute batzuek*  
c. *[Etsiko duen ustea] badu berak ere.*

(1a) gisakoetan («*-eLAKO* + izena») izen gobernatzaileak balio semantiko desberdinak izan ditzake, hala nola, esate baterako, komunikaziozkoa (*berria*, *zurrumurrua*, *hitza*, *kontua*...), iritizikoa (*ustea*, *susmoa*, *esperantza*, *aitzakia*...), balizkoa (*hipotesia*, *iritzia*...), edo arretazkoa (*kezka*...). Perpauk osagarriak, kasu hauetan, delako berriaren, ustearen, iritziaren edo kezkaaren edukia zein den ematen du aditzera. Hona hemen, beste adibide batzuk:

- (5) a. *[Printzesa hil delako berria] iritsi zaigu.*  
b. *[Euskara Afrikatik datorren hipotesia] agertu dute batzuek.*  
c. *[Koldo eta Maite banatu direlako zurrumurrua] zabaldu da.*  
d. *[Gauzak txukun egingo zenituelako hitza] ez duzu bete.*  
e. *Zer dakizu [Europa osoan euroa sartu nahi dutelako kontu horretaz]?*  
f. *Hori [sendatzen ari delako seinalea] da.*  
g. *[Nahimen hutsez zernahi erdiets dezakegulako ustea] hezur-muinetaraino sartua dugu. (Mitx. MIH, 393).*  
h. *Neri ere orretxek ematen dit [barkatuko didazulako uste osoa] (Argi Done Laburra, 36).*  
i. *[Jaungoikoak barkatuko didalako uste eta esperantzan] nago (G. Arrue, Mayetceco illa, 199).*

<sup>177</sup> Egiturari dagokionez, ondo bereizi behar dira perpauk osagarria eta erlatiboa: «Gogoan izan behar da, noski, menderagailu bera (*-eN*) izan arren perpauk osagarri hauek eta erlatiboek egitura desberdina dutela. Erlatiboetan, izen ardatzaren erreferentzia bera duen izena izaten da isilpean: [[*zurekin f, etorri den*] *gizona, maisua da*]. Osagarrietan ez dago horrelakorik: izen gobernatzailea perpauk nagusian baizik ez dago. Goiko (4b) adibideko osagarria, esate baterako, *euskara Afrikatik dator(ren)* da eta perpauk horren barnean ez dago lekurik, ezta isilpean ere, *hipotesia* izenarentzat». EGLU-V (146-147. orr.).

- j. [Gauetz zurekin biltzen naizelako susmoa] artu dute etxean (Y. Etxaide, *Jonak-joan*, 75).
- k. [Ideia ona zelako froga hoberena] hau: nehork ez duela ukatzen gehiago batasun handi haren beharra.»

Perpaus osagarri izenlagunetan bi menderagailuen artean *-eLAKO* da erabiliena literatura-tradizioan, beste atzizkiaren (*-eN*) erabilera Hegoaldeko euskalkietara mugatzen baita<sup>178</sup>.

Bestalde, euskararen orain arteko tradizio idatzian osagarri izenlagunak (*-eLAKO/-eN* + izena) bezainbeste edo are maizago erabili izan dira beheko perpaus osagarrien modukoak<sup>179</sup>:

- (6) a. *Seinale (da) zatituta dagoela*  
 b. *Elea zebilen eskuindarrek irabaziko zutela* oraingo honetan  
 c. *Irudipena daukat* okerren bat egin duzula  
 d. *Badut esperantza* aurtengo uda iazkoa baino hobea *izango dela*  
 e. *Susmoa dut* hemen zerbait arraro gertatzen ari dela

(6)-an ageri den egitura berezia da: horrelakoetan, predikatu-egitura konplexu bat —batzuetan, izen baten gainean eraikia— izaten da perpaus osagarriaren elementu gobernatzailea (*seinale izan, elea ibili, irudipena eduki, etab.*). Eta *-eLA* izaten da perpaus osagarriaren menderagailua adierazpen-perpausetan. Hona hemen, horrelako predikatu konplexu batzuk: *berria zabaldu, notizia etorri, elea ibili, agindu eman, esperantza izan, susmoa izan, jakitun egon, jakina izan, uste izan, ziur izan, beldur izan, gogoan izan, etsita egon...*<sup>180</sup>

Zentzu estuan, (6)ko perpausen tankerakoak ez dira perpaus izenlagunak, baina bai osagarriak. Erruz erabili izan dira literatura-tradizioan, eta gainera batzuetan perpaus osagarri izenlagunen ordean erabil daitezke; alderatu, bestela, hurrengo perpausak:

- (7) *Etorri delako berria zabaldu da* (perpaus osagarri izenlaguna: gobernatzaile = *berria*)  
 (8) *Berria zabaldu da etorri dela* (perpaus osagarria: gobernatzaile = *berria zabaldu*)

Hizkuntza teknikoan, sarritan (7) modukoetara jo ohi da, (8) gisakoak baztertua, beharbada erdal egitura hitzez hitz itzuli nahi izaten dugulako edo agian (7)-ko egitura maila jasoari hobeto doakiola uste dugulako. Dena den, euskal tradizioaren eta euskal sintaxiaren ikuspegitik, ez daukagu zertan muzinik egin (8) gisakoei; are gehiago, seguru asko, (8)-ko egiturari etekin handiagoa ateratzea mereziko luke, testu ulerterrazago eta arinagoak lortzeko.

<sup>178</sup> Eta, itxura batean, izen jakin batzuekin (*uste, susmo, beldur, esperantza...*) erabiltzen da batak bat.

<sup>179</sup> Hizkuntza mintzatua ispilatzen duen Garateren (1988:271) honako adibide honetan ikus daitekeen bezala: *ordainduko zutelaren segurantzak izateko -> ordainduko zutela seguro egoteko* (Goizueta eta Azpeitiako baserrietan jasotako esaldiak). Ikus orobat «itxaropen» sarrera (171.or.).

<sup>180</sup> Ik. *EGLU-V* (145.or.)

Batzuetan hiru egitura hauen artean egin beharko da hautua, hirurek baitute antzeko balioa (nahiz eta egitura aldetik desberdinak izan):

- (9) *Zatituta dagoen* seinale(a) (da).
- (10) *Zatituta dagoelako* seinale(a) (da).
- (11) *Seinale(a) (da) zatituta dagoela*.

Baztertekoak dira literatura-tradizioan oinarri sendorik ez duten zenbait erabilera trakets, oraintsu —xx. mendean batik bat— zabaldu eta behar baino gehiagotan erabiltzen direnak<sup>181</sup>. Horrela, esandako *-eLAKO* eta *-eN* atzizki zuzenen lekuan, *\*-eLAREN*, *\*-eLAZKO*, *\*-eNAREN* edo are *\*-eNEKO* okerrak erabiltzen dituzte<sup>182</sup>.

- (12) *\*Datorren urtean ezkonduko zareLAREN berria* hedatu da.
- (13) *\*Hori harritu deLAREN seinale* da.
- (14) *\*Haurra jaio zeLAZKO berria* ekarri zigun.
- (15) *\*Lekuko denek ezetz esan zuten, edonon hil egingo zituzteNAREN beldur* zirelako.
- (16) *\*Gauzak hobetzen ari direNAREN seinale* da hori.
- (17) *\*Kontratua sinatuko duteNAREN hitza* eman diote elkarri.
- (18) *\*Jesus etorri zeNEKO berria* zabaldu zen.
- (19) *\*Erraz irabaziko zuteNEKO ustea* zabaldu zen.

#### 34.2. **Izenen osagarri diren zehargalderak: ?Gaindituko ote duen galderari erantzun nahirik dabil...**

Euskaraz, esan dugun bezala, perpaus osagarri izenlagun gehienak adierazpenekoak izaten dira. Zehargalderekin, ostera, nekez gertatzen dira halako egiturak. Konparatu hurrengo perpausak:

- (20) a. [*Autoa zenbat ordaindu genuen*] galdetu digu.
- b. [*Autoa zenbat ordaindu genuen galdera*] ez zitzaidan oso egokia iruditu.

(20b) bezalako egitura badaezpadakoen ordez, nahiago izaten dugu bestelako zenbait itzulingerutara jotzea, zehargalderak aditzaren esparrutik atera gabe<sup>183</sup>. Adibidez:

- (21) a. *Autoa zenbat ordaindu genuen* galdetzea ez zitzaidan oso egokia iruditu.
- b. *Autoa zenbat ordaindu genuen* galdetu zigun eta galdera hori ez zitzaidan oso egokia iruditu.

Nolanahi ere, badira euskaldunak zehargalderak izenaren osagarritzat emateko arazorik ez dutenak. Hots, hiztun batzuek onartu egiten dituzte *galdera*, *duda*, *zailantza*, *kezka*, *auzia* eta horrelako izenen osagarri diren zehargalderak:

<sup>181</sup> Ik. Alberdi, García eta Ugarteburu (1997).

<sup>182</sup> Ik. EGLU-V (151-152. orr.).

<sup>183</sup> Ik. EGLU-V (153-154. orr.).

- (22) a. ?[Noiz hilko naizen beldurra] askotan sentitu dut.  
 b. ?Behin eta berriz egin didate [non bizi naizen galdera].  
 c. ?[Kurtsua gaindituko duen zalantzak] kezkatzen du gure mutila.  
 d. ?[Lagunek onartuko ote nauten kezka] urduri nauka.  
 e. ?[Etorriko den dudak] higatu du gizagajoa.  
 f. ?[Nola biziko den ikara] sartu zaio gorputzean.  
 g. ?[Nork zer egin behar duen auzia] berehala konponduko dugu.

Nolanahi ere, esamolde hauen tankerakoak ez dira euskaldun gehienon gogobetekoak, han-hemenka entzun eta irakur badaitezke ere. Literaturan ere nekez aurkituko ditugu horrelakoak, oraintsuko autoreetara jotzen ez badugu. Eta ez bakarrik hori, testuetan aurki daitezkeenak oso esamolde jakinetan ageri dira: ez zuzenean izen baten osagarri gisa, baizik izen horrek aditz batekin osatzen duen nolabaiteko predikatu baten osagarri gisa. Hots: *zalantzan jarri, kezka eman, kezka bete, susmoa izan, zalantzan ibili, zalantzaz egon* eta horrelako predikatu-egituren osagarri gisa. Ikus, bestela, honako adibide hauek:

- (23) a. Era onetako jardunean egon ziran arrantzaleak luzaro, euren lagunakaz zer gertau ete zan kezkaz beterik (D. Agirre, *Kresala*, 23).  
 b. Noiz zuen mingain oiek askatuko ote diran zalantzaz nago (T. Alzaga, *Ramuntxo*, 122).  
 c. ... bigarren mallako jantokira aldatzen utziko ote zioten galdera egin zue-nean, zerbait ordain eta utzi zioten (J. Irazusta, *Bizia garratza da*, 21).

Horregatik, goiko (22)-ko badaezpadako perpaus horien ordeaz, beste hauek, nolabait «erdibituak», askozaz onargarriagoak giten zaizkigu:

- |   |   |
|---|---|
| (24) a. ?[Noiz hilko naizen beldurra] askotan sentitu dut.        | a'. Askotan sentitu dut beldurra noiz hilko naizen.                       |
| b. ?Behin eta berriz egin didate [non bizi naizen galdera].       | b'. Behin eta berriz galdera egin didate /galdetu didate non bizi naizen. |
| c. ?[Kurtsua gaindituko duen zalantzak] kezkatzen du gure mutila. | c'. Kezka handia du gure mutilak kurtsua gaindituko ote duen.             |
| d. ?[Lagunek onartuko ote nauten kezka] urduri nauka.             | d'. Kezka handia dut lagunek onartuko ote nauten.                         |
| e. ?[Nola biziko den ikara] sartu zaio gorputzean.                | e'. Ikara sartu zaio gorputzean nola biziko (ote) den.                    |
| f. ?[Etorriko den dudak] higatu du gizagajoa.                     | f'. ? (Haren/Bere etorreraren inguruko dudak higatu du gizagajoa)         |

(24)-ko pareko perpausak alderatuz gero, berehala ohartuko gara ezin izan dugula bakoitzaren ordain erabatekorik bilatu: batez ere, arazoak ditugu ustez gobernatzaile den izena absolutiboan ez beste kasuren batean ematen saiatuz gero (24f').

### 34.3. Subjuntiboko perpaus izenlagunak: *Orok maita zaitzaten desirak galduko zaitu*

Maizenik subjuntiboko perpaus osagarria ez da agertuko izen soil baten mendean, predikatu-egitura konplexu baten (*baimena eman, nahia agertu, esperantzan*

*egon, beldurrak egon, beldurrez egon, beldur izan, etab.*) mendean baizik. Hurrengo kasuetan, adibidez:

- (25) Gaixoak sendo diton *esperantzan gaude* (M. Etchamendy, *Etchamendy bertsularia*, 216)
- (26) Bakandereak txarrik egin dagixun *bildur ete zara*, ba (Otxolua, *Bertolda eta Bertoldin*, 32)

Zenbaitetan, zalantza sor daiteke izenak berak zuzenean ote daraman osagarria (27b) ala hura predikatu-egitura baten zati den (27a). Ondoko adibidea, esaterako, bi eratara uler daiteke:

- (27) Hortakotz igorri dautzut jin zaitean galdea (P. Larzabal, *Senperen gertatua*, 116)
  - a. *Galdea igorri dizut* [(jin zaiten)]
  - b. *Igorri dizut* [(jin zaitean) galdea]

Edozein moduz, (27) gisako adibide bakanen ordeaz, ohikoagoa da *-TZEKO* atzizkia erabiltzea: *jiteko galdea* esatea, alegia.

Zalantzak zalantza eta bitasunak bitasun, ez dirudi erabat ezinak eta baztertzekoak direnik izenlagun subjuntiboak, bitxiak eta ezohikoak diren arren. Ikus, esate baterako, hurrengo perpausa, zein ez baita erraz *-TZEKO* atzizkiaren bitartez ematen:

- (28) *Orok maita zaitzaten desirak* galduko zaitu.

Zenbaitetan, azkenik, izenlagunek eraman ohi duten *-KO* atzizkia eta guzti ematen da subjuntiboko perpausa osagarria:

- (29) *Haren dizipuluak obitik gorputza ostu, ta eraman zezaelako bildurrez*, ifini zituenu obia zaitzeko guardak (J.A. Ubillos, *Cristau doctriñ berri-ecarlea*, 94).

#### 34.4. Aztertzeko adibideak

- (30) \*Zenbait boto-emailek atzera egin-go duenaren beldurrez
- (31) a) ... atzera egingo duen beldurrez  
b) atzera egingo duelako beldurrez
- (32) \*Ez dago ezer misteriozurik gertatzen denaren arrastorik.
- (33) a) Ez dago ezer misteriozurik gertatzen delako arrastorik.  
b) ?Ez dago ezer misteriozurik gertatzen den arrastorik
- (34) \*Zabal ezazu hemendik eraman dituztenaren albistea.
- (35) a) Zabal ezazu hemendik eraman dituztelako albistea.  
b) ?...eraman dituzten albistea.  
c) Zabal ezazu albistea hemendik eraman dituztela.
- (36) \*Honela inolako dudarik gabe eta egoera aldatuko zenaren esperantzarekin ikasketak euskaraz hasi nituen.
- (37) ... egoera aldatuko zen esperantzarekin ikasketak euskaraz hasi nituen.



- (38) \*Lehen perfila gainditu gabe dutenak, etorkizunean lana egiten duten lekutik *aldatuko dituztenaren susmoa* besterik ez dago.
- (39) a) ...*aldatuko dituztelako susmoa* ...  
 b) ...*aldatuko dituzten susmoa*...  
 c) Susmoa dago (...) *aldatuko dituztela*.
- (40) \*Euskara *aprobatuko zuenaren ustea* zuen, baina dirudienez *ustea* besterik ez zen.
- (41) a) ...*gaindituko zuelakoan zegoen*  
 b) ...*gaindituko zuelako ustea* zuen...  
 c) Uste zuen *gaindituko zuela* ...
- (42) \*Zuk erakutsi diozu agiri hori *benetako* zenaren *froga*.
- (43) a) ...*benetako* *zelako froga*  
 b) ...*benetako* *zen froga*  
 c) zuk erakutsi diozu *froga* agiri hori *benetako* zela.
- (44) \*Nigandik ihesi *zabiltzanaren irudipena* daukat.
- (45) a) *nigandik ihesi zabiltzalakoan nago*  
 b) ... ihesi *zabiltzan irudipena* daukat  
 c) ... ihesi *zabiltzalako irudipena* daukat.  
 d) *Irudipena daukat* *nigandik ihesi zabiltzala*.
- (46) \*Beste batekin *zaudenaren pentsamenduak* amorrarazten nau.
- (47) a) beste batekin *zabiltzalako pentsamenduak*  
 b) beste batekin *zabiltzala pentsatzeak*...
- (48) \*... zure lagunekin *afaldu nahiko zenuenaren ustetan*.
- (49) ... Zure lagunekin *afaldu nahiko zenuelakoan*.
- (50) \*Lan ona *egingo duzunaren zantalzarik* ez dut.
- (51) Ez dut *zantalzarik* lan ona *egingo duzula*
- (52) *Sospetxa daukat*, ikusiak ikusita. orduko mentalidade berberarekin *erabiltzen direla* makina hauek.
- (53) [zuzena]
- (54) \*Azterketak nahiko ongi *egin nituenaren inpresio horrekin*, unibertsitaterantzako atek zabalik izango ote nituelaren galderarekin aurkitu nintzen
- (55) a) Azterketak nahiko ongi *egin nituelakoan*, unibertsitateko atek *zabalik izango ote nituen* galde-tu nion neure (nire) buruari.  
 b) ?Ustez ... nahiko ongi *egin nituela*, Unibertsitateko atek zabalik izango ote nituen galderarekin aurkitu nintzen.  
 c) ? Ustez ... nahiko ongi *egin nituela*, *galderarekin aurkitu nintzen* Unibertsitateko atek zabalik izango ote nituen.
- (56) \*Munduan bakarrik *zaudelaren baieztapena*...
- (57) a) ... *zaudelako baieztapena*  
 b) ... *zauden baieztapena*  
 c) ... *zaudela baieztatzea*  
 d) *Baieztatzea* munduan bakarrik *zaudela*...

- (58) \*Gaeuan ohera sartu eta hurrengo goizean *azalduko zenaren ilusio hori*, niretzat oso atsegina izaten zen.
- (60) \*Alde batetik, hurrei gezurrik *esan behar ez zaienaren aldekoa* naiz.
- (62) \*Medikuek hasiera batean esan ziotena baino egun gehiago *egin beharko duenaren ustean* dago.
- (64) \*Ondoko haur bati, zeharka, erregeak gurasoak *zirenaren kontu hori* aipatzen ari zitzaizkiolarik...
- (66) Zer ilusionatua dagoen *Olentzero etorriko den esperantzarekin*.
- (68) \*Aurrerapen hau ona ala *txarra izango denaren galderari* erantzuterakoan ez dakit zer esan.
- (70) \*Burutzapen frogen helburua, auditoreari barne kontrolari buruzko prozedurak finkatu ziren bezala *aplikatzen direneko arrazoizko ziurtasuna* ematea da.
- (72) \*Ikasleak gutxi *ikasten ari direneko inpresioarekin* geratzen da irakaslea.
- (74) ??[aktualismoa] Iragan geologikoaren prozesuak gaur egun behatutako eruedetatik *ondoriozta daitezkeelako onarpena*.
- (76) (... Txosten Bereziak honako informazioa eduki behar du:...) Administratzaileek egindako txostenean biltzen diren datuak eta akzioen jaulkipen-tasa erabakitze-ko erabili dituzten metodoak egokiak *izan direneko ondorioa*.
- (78) Horrekin batera, erabakiaren burutzea dokumentatzen duen eskriturari, kreditua guztiz likidoa eta galdagarria *denaren aitortpena*, eta Batzarraren deialdiaren garaian administratzaileen txostena bazkideen eskura *jarri zenaren aitortpena* erantsiko zaizkio.
- (59) a) ... *azalduko zelako ilusio hori*  
b) ... *azalduko zen ilusio hori*
- (61) ...gezurrik ez *esatearen aldekoa* naiz.
- (63) ... *egin beharko duelakoan* dago.
- (65) a) ... erregeak gurasoak *zirelako kontu hori*...  
b) ...erregeak gurasoak *ziren kontu hori*...
- (67) [zuzena]
- (69) Aurrerapen hau ona ala *txarra izango den galderari* erantzuterakoan ez dakit zer esan.
- (71) a) Burutzapen frogen helburua, auditoreari arrazoizko ziurtasuna ematea da barne kontrolari buruzko prozedurak finkatu ziren bezala *aplikatzen direla*.  
b) ??...auditoreari (...) prozedurak finkatu ziren bezala aplikatzen direlako ziurtasun arrazoizkoa ematea da.
- (73) Ikasleak gutxi *ikasten ari direlako sentipenarekin* geratzen da irakaslea / Ikasleak gutxi *ikasten ari direlako irudipena* du irakasleak / ...
- (75) [aktualismoa] Iragan geologikoaren prozesuak gaur egun behatutako eruedetatik *ondoriozta daitezkeela onartzea / ondoriozta daitezkeela onartzen duen teoria*.
- (77) (... Txosten Bereziak honako informazioa eduki behar du:...) Administratzaileek egindako txostenean biltzen diren datuak eta akzioen jaulkipen-tasa erabakitze-ko erabili dituzten metodoak egokiak *izan direlako ondorioa / izan direla ondorioztatzea*.
- (79) Horrekin batera, erabakiaren burutzea dokumentatzen duen eskriturari, kreditua guztiz likidoa eta galdagarria *delako aitortpena*, eta Batzarraren deialdiaren garaian administratzaileen txostena bazkideen eskura *jarri izanaren aitortpena* erantsiko zaizkio.

- |  |  |
|--|--|
| (80) ...bermea eskeini edo kredituak ordaindu zaizkionaren aipamena.   | (81) ...bermea eskaini edo kredituak ordaindu izanaren aipamena.   |
| (82) Burutzapen-frogen helburua, auditoreari barne kontrolari buruzko prozedurak finkatu ziren bezala aplikatzen direneko arrazoizko ziurtasuna ematea da. | (83) Burutzapen-frogen helburua honako hau da, alegia auditoreari arrazoizko ziurtasuna ematea barne-kontrolari buruzko prozedurak finkatu ziren bezala aplikatzen direla. |

### 35. PERPAUS OSAGARRIAK (III): -(E)NIK ETA -(E)LA<sup>184</sup>

Euskal gramatiketan ontzat eman ohi den araua da perpaus nagusia ezezka doanean konpletiboari dagokion atzizkia *-ela* barik *-enik* izan daitekeela. Hots:

- (1) a. Aurrekontua murriztu egin behar DELA uste du oposizioak.

baina

- b. Aurrekontua murriztu behar DENIK inork ez dio.

Nolanahi ere, delako «lege» hau ez da erabatekoa, baditu debekuak. Debekua erabat bortitza izan liteke batzuetan eta, beste batzuetan, horrenbestera iritsi gabe, hobeto ematen duela dirudi *-ela*-k *-enik*-ek baino.

#### 35.1. **Beti *-enik* ezezkoetan?: arauak izan ditzakeen mugak** (ikus *infra* 35.4)

a) Perpaus nagusia ezezka eman arren, *-ela* atzizkia aurkituko dugu zenbaitean. Kasurik nabarmenena perpaus konpletiboa predikatu-osagarri baten (*egia*, *gezurra*, *dudazkoa*, *gauza jakina*, e.a.) subjektu gisa doanekoa genuke:

- (2) {Egia, gezurra, gauza jakina} da inflazioak behera egin duela.

(2) litzateke baiezka. Baina honen pareko ezezkaok *-ela* eskatzen du eta ez, *-enik*:

- (3) a. Ez da {egia, gezurra, ...} inflazioak behera egin duela.  
b. \*Ez da {egia, gezurra, ...} inflazioak behera egin duenik.

Debeku honen arrazoia aski argia da. *Gezurra*, *egia*, eta antzeko predikatuekin subjektuak ezin du *-enik* hartu, partitiboa baita. Izan ere, partitiboa, izen-sintagma «normaletan» ere debekatua dago izen-predikatuzko perpausetan:

- (4) \*Libururik ez da merkea.

<sup>184</sup> Hitzez hitz aldatu dut hona Euskaltzaindiko Gramatika Batzordearen azalpena (Euskaltzaindia, 1994c: 958-961), adibideren batzuk gehituaz. Ikus orobat *EGLU-V* (45-83).

Debekatua dago, halaber, aditz jokatu gabezko subjektu perpausetan ere:

- (5) a. \*Ez da bidezko gezurrak esaterik.
- b. Ez da bidezko gezurrak esatea.

(3b) eta (4) eta (5a) arrazoi beragatik izango lirateke okerrak. Horra, beraz, lehen muga.

b) Gainerako aditz predikatiboekin, ezezkakoetan *-enik* erabiltzeko arauak zenbateraino behartzen gaituen ere jakin beharko genuke. Hau dela eta, esan behar da delako erregela horrek tradizio labur samarra duela euskaraz, gure autore zaharrek —eta Iparraldeko oraingoek ere— ez baitute erabiltzen edo oso bakanka erabiltzen baitute (adibide nabarmenena Frai Bartolome izango genuke). Baina ustezko gramatika-arau hori geure egina dugunok ere zenbaitetan ez dugu bete beharrik ikusten. Adibidez, *ahaztu* aditzarekin, beti ere ezezkakoetan, ez dirudi *-enik* erabiltzen dugunik:

- (6) a. Ez ahaztu bihar bilera dugula.
- b. ??Ez ahaztu bihar bilera dugunik.

*Baizik* juntagailua tartean dela ere, perpaus nagusia ezezka joateak ez dakar, nahitaez, *-enik* erabilera, *-ela*-rena baizik:

- (7) Ez zidan esan etorriko zela ahaleginduko zela baizik.

(7)-an galdegai-mintzagai joko sartzen da tartean, dirudienez. Arrazoi bera legoke honako adibide honetan ere partitiboa ez erabiltzeko izen-sintagma «arrunt» batekin:

- (8) Ez zidan liburua eskatu, boligrafoa baizik

Batzuetan, aditza ezezka emanda ere, konplementuan baieztatzen dena egiazkotzat ematen dugu. (6)-an, adibidez, hori gertatzen dela dirudi. Agian horregatik ez dugu hain erraz onartzen partitiboa.

- c) *Ukatu* eta honen kidekoen arazoa

*Ukatu* eta honen kideko zenbait aditzekin ere joera dago *-ela* erabiltzeko. Aditz honek konpletiboa daramanean, gehienetan ezezko perpausa dugu. Eta horrelakoetan konpletiboa *-enik* (9) (XX. mendeko testuetan batik bat) nahiz *-ela* (10) atzizkiarekin agertuko zaigu. Etsenplurik ugariena, hala ere, *ezin ukatu* tankera-koak —10a, 10b— ditugu:

- (9) a. «Hobe bai, neretzat behintzat, euskaldun naizenik ez bailidakete ukatuko» (Mitxelena, *MIH*, 204)
- b. «Ez diñat ukatuko ori ditekenik» (*Orixe Mireio* 31)
- c. «Zuk andra irañez ezarten dautsezun akatsetarik zer bait euki legijenek eztautsut ukatuko» (Otxolua, *Berlolda eta Bertoldin* 21)

- (10) a. «Eziñ ukatu diteke, asko laguntzen duela liburu onak» (J.B. Agirre, *Erakusaldiak* I, 463)
- b. «Jaungoikua izanik gauza gustujeen egilla, ta jaubia, ezin iñok ukatu lei, daukala eskubidia emoteko, gura badau, ta ez emoteko, nai ezpadau» (J.J. Mogel, *Baserritar Nekezaleentzako Eskolia*, 202).
- c. «Etzuen batek ere ukatu emen arkitzen dela Kristo Jaun Jangoiko gizonaren gorputz eta odola» (Mendiburu, *Igande eta Festegunetarako Irakurraldiak* 389)

Horrelako itzuliak dira gehienak. Eta gehienetan, ezezko forma izan arren, ez da *-enik* inondik ere ageri *-ela* baizik. Arrazoia goian eman dena izan liteke, alegia, «ezin uka daiteke» dioenak esaten duenaren egia-balioa azpimarratu nahi du. Jakina, zenbait autore zaharrek — Agirrek, adibidez— bestela ere ez luke *-enik* erabiliko, ez baitu inoiz erabiltzen. Baina beste autore gehienek ere *-ela* erabiltzen dute kasu honetan. Hau litzateke, hortaz, *-enik* atzizkiaren erabilerari ezarri behar-ko litzaiokeen bigarren muga. Hots: zenbait aditzekin edo zenbait esamoldetan (ez dago *dударик*, ez *dut дударик*, ez *dut дударик egiten*, ez da *gauza jakina*, ez da *nabari*, ez da *bistakoa*, ez da *(go) bistan...*), perpau nagusia ezezkkakoa izan arren, *-ela* agertuko zaigu (11). Oraingoan haatik, debekua ez da lehen bezain zorrotza, zeren sarritan txandakatze bat bezala aurkitzen baitugu (alderatu Mitxelenaren (11a,i,j) eta (11k)).

- (11) *EZ DAGO DUDARIK, EZ DUT DUDARIK, EZ DUT DUDARIK EGITEN (...)-(E)LA*
- a. Baina gauza garbi *zegoela* ez dago *dударик*. (MEIG IX 67).
- b. *Ez dut, ordea, дударик*, gizon aundi ark itz auek ateratzean, naiz bere buruan olako zerbait iduki, naiz nik aipatzen ez dudan beste zerbait, egia *ikus* zula ta egoki *azaldu* zula. (Or *Aitork* 368).
- c. Aita-amarekin *dela* ez daite *dударик*. (Elzb *Po* 180).
- d. eta Azkaindarrek, yakin balute Piarres Adame han iragaten zela, ez da *dударик* segurki *ikhusi nahiko zutela*; beraz *behatuko zutela*. (Elzb *PAd* 31).
- e. *Ez ukan дударик*, egun hautan, bederen aste oso batez, espantuz beterik *agertu direla* kazeta guziak. (HU *Aurp* 77).
- f. *Ikasi duketela* garbitasuna geroztik hunat, ez *dut bizkitartean дударик*. (JE *Ber* 29)
- g. *Dударик* ez dago gaurko jolasetan garrantzirik audienetakoa duna zinea *dala*. (MATx *Gazt* 59).
- h. *Ez dago дударик* bigarrean alde ontara *artzen dula* geienetan. (Or *QA* 160).
- i. *Ez dut дударик egiten*, lehen esan bezala, honen kantu-lana ederlanda ere *badela* zatirik egokienetan, eta ez dira horrelakoak eskas. (MEIG IV 119).
- j. *Ezin dudan egin daiteke* biltze-lana *dela* gurean presakakoena.... (MEIG VIII 64).
- k. Swadesh hizkuntzalari trebe eta saiaturia *izan zenik* ez du inork *duda* egingo. (MEIG VI 121).

### 35.2. *-enik* baiezko perpauetan?

Orain arte ezezkkakoez aritu gara eta ustezko lege horrek mugak izan ditzake-ela ikusi dugu. Gaurko zenbait idazlek, ordea, eta, batez ere, komunikabideetan, *-enik* atzizkiaren erabilera murriztu beharrean hedatu egiten dute baiezko perpau-

setan ere *-enik* erabiltzea proposatuz. Ez dirudi, ordea, zenbait estilo-liburutan egin diren proposamen horiek zuzenak direnik, ez eta ere gomendio honen eraginez euskal komunikabideetan gero eta hedatzenago ari diren *-enik* guztiak.

Gure literaturan oso gutxitan ageri da *ukatu* baiezkak konpletibo batekin. Baina kasu gehienetan, *ukatu*-rekin *-ela* agertzen da eta ez *-enik*, bai baiezkotan bai ezezkoetan.

Hortaz, hemendik atera dezakegun ondorioa da *-enik* atzizkiaren erabilerari ezezko perpausetan mugak jar dakizkiokeela. Baina atzizki honen erabilera baiezkotara zabaltzea okerra dela esatea askotxo bada ere, bultzatu behar ez litzatekeen jokabidea litzatekeela behintzat esan daiteke. Beraz, *ukatu*-k, ezezka zein baiezkak doanean, bere konpletiboari *-enik* ezarri beharrean *-ela* ezartzea eskatzen duela dirudi (ikus *infra* 35.4).

### 35.3. Zehargalderetan *-en* atzizkia, baina ez *\*-enik*

Arau hau ere aski argia da, baina zenbaitek *-enik*-en erabilera ezezko aditz nagusi baten mende doanean urrutiegi eraman ohi dute. Zehargalderetara hedatzea da, hain zuzen, gehiegizko erabilera hau:

(12) Ez dizut esan nor esan duen

izango da zuzena eta ez

(13) \*Ez dizut esan nor esan duenik.

Okerrak, nolana ere, sarriago gertatzen bide dira zehargaldera bai-ez erakoa denean:

(14) Ez zekien etorriko nintzenik.

Perpaus hau zuzena da baldin eta aditzera eman nahi dena zehargaldera ez, beste honen antzeko zerbait bada:

(15) Ez zekien etorriko nintzela

Zehargaldera izanez gero, okerra litzateke, honako hau ere okerra den bezala:

(16) \*Ez zekien etorriko (ote) nintzenik.

Zehargaldera bada, atzizkia *-en* da, besterik gabe:

(17) Ez zekien etorriko (ote) nintzen = ez zekien etorriko nintzen ala ez.

Beraz, zilegi izan liteke testuinguru berean *-enik* eta *-ela*, biak, agertzea, esanahi berarekin ((14) eta (15) ditugu horren frogara), baina zehargaldera adierazi nahi badugu, adierazpen-perpaua adierazi nahi dugunean ez bezalako atzizkiaren baliatuko gara, *-en* eta *-enik* ez baitira gauza bera: batean zehargaldera adierazten dugu, bestean adierazpen-perpaua.

#### 35.4. *-enik menderagailua duten adierazpen-perpau osagarriak*<sup>185</sup>

Hegoaldean ezezkako perpau osagarri zenbaitetan *-enik menderagailu* konplexua erabiltzen da. Baina ez da pentsatu behar *-enik ezezkako* —eta are galderazko— perpau guzti-guztietan erabiltzen denik. Hona hemen, jokabide nagusiak.

a) Hasteko esan daiteke, gauzak oro har ikusita, predikatuak agintzen duela maiz zein den erabili beharreko menderagailua. Horrela, esate baterako, *uste* edo *iritzia* adierazten duten predikatuek —*uste izan, pentsatu, iritzi, iruditu, eman, go-goak eman...*— *-enik menderagailua* eskatzen dute.

- (18) a. Nikanor amarrutsuak *ez deritxa* orreri zuzen esana *danik* (Erkiag *BatB* 166).  
b. *Ez du ematen ezer dakitenik*.  
c. Kastillan mats-arbol bat *ez det uste danik* / aurtan orri aña ardo kendu di-yotenik (...) (Tx *B* III 131).

Beste predikatu batzuek, aldiz —hala nola, *ahaztu, duda egin, duda izan, egia izan...* edo denborazko erreferentzia ematen dutenak— *-ela osagarria* izaten dute normalean:

- (19) a. *Ez da ahaztu behar* baita ere gizona *dala* (RIEZU).  
b. *Ez da egia* lagunak zain *daudela*.  
c. *Ez da aunitz urte* galdua *dela* oitura au Euskalerrian (Or *Eus* 411).

Eta beste zenbait predikatuk, azkenik —*esan, entzun, ikusi, jakin...*—, menderagailu bat zein bestea erabil dezakete:

- (20) a. *Ez egidazu esan* zeregin andiak *daukazuezala* (Añ *LoraS* 37).  
b. *Ez egidazu esan* biotzik ez dodanik (Gand *Elorri* 179).  
c. *Ez dute ikusi nahi* bide horretatik amildegira *doazela*.  
d. *Ez dot ikusten* ori bakarrik *danik* gure ondasuna (BEnb *NereA* 218).

Kontuan izan behar da, edozein modutan, jokabide jakin bat duten predikatuek hura alda dezaketela, bere esanahia ñabartzen edo zehazten duen elementuren bat hartzen dutenean. Horrela, *jakin* aditzak menderagailu biak hartzen baditu ere, *ez daki asko* predikatuak *-ela* eskatzen duela dirudi:

- (21) *Ez daki asko* Nikanor'ek, polizi-gizonok orretan *emoten dituela* euren bizi-tzako ordurik asko (Erkiag *BatB* 191).

b) Normalean *-enik* eskatzen duten predikatuek ere *-ela* hartzen dute zenbait inguru eta egituratan.

Horrela, esate baterako, perpau nagusia galderazkoa denean ez da normalean *-enik menderagailua* erabiltzen, *-ela* baizik.

- (22) a. *Ez zaizu iruditzen* gerra ondorengo filologia gehiegi *mugatu dela* testueta-ra (...) (MEIG IX, 74).  
b. *Ez al zekin* apika guzti au *etor lekiokela* pozoitegi artatik? (Etxde *JJ* 72).

<sup>185</sup> Euskaltzaindiaren gramatikako azalpenak laburtu ditut azpiatal honetan (EGLU-V: 69-76).

Gauza bera gertatzen da perpaus osagarriak ondotik *besterik* murrizgarria daranean ere:

- (23) Gudariak ikusi zituztenean, Mateori bera lotzera *zetozela besterik* etzitzaion bururatu lenbizi (NEtx Antz 144).

Predikatu nagusia konplexua denean ere gauza bera gertatzen da, ondoko (24b-e) adibideek erakusten duten bezala<sup>186</sup>:

- (24) a. *Ez nuen uste Getxok irabaziko zuenik.*  
b. *Getxok irabaziko zuela uste ez bazenuen, zergatik egin zenuen apustu haren alde?*  
c. *?Getxok irabaziko zuenik uste ez bazenuen, zergatik egin zenuen apustu haren alde?*  
d. *Getxok irabaziko zuela uste ez zutenek asmatu zuten.*  
e. *?Getxok irabaziko zuenik uste ez zutenek asmatu zuten.*

c) Horiek horrela direla, galdegin behar da, azkenik, zer den erabilera horien azpian dagoena, hau da, zerk agintzen duen predikatu eta egitura bakoitzaren jokabidea den bezalakoa izatea. Eta, orobat esan, zer alde dagoen, aukerakoak diruditen kasuetan, menderagailu bat erabili edo bestea erabili. Ondoko lerroetan joskeraren eta esanahiaren berri ematen duen azalpen bat aurkezten saiatuko gara.

Gauzak erabat esanda, badirudi ezetzaren esparrua dela hemen jokoan dagoen auzia. Ezetza zeri dagokion dela kontua, alegia. Horrela, *-enik* daramaten perpausak ezetzaren esparruaren barnean daudela dirudi; eta *-ela* dutenak, berriz, ez.

Agerikoa da hori normalean *-enik* eskatzen duten *uste izan*, *iritzi*, *iruditu*, *pentsatu* eta horrelako predikatuak dituzten perpausetan. Horietan, hain zuzen, ezetza menpeko aditzari dagokiola esan daiteke eta honen aurrean zuen kokagunetik igo dela aditz nagusiaren aurrera: [*uste ez (-ela)*] → [*ez [uste (-enik)]*]. Hortaz, *ez dut uste etorriko denik* eta *uste dut ez dela etorriko* perpausak errankideak dira; eta berdin *ez dirudi diru asko duenik* eta *diru asko ez duela dirudi* perpausak ere.

Bestelako predikatuekin ez dago horrelakorik: *ez du esan etorriko denik* eta *esan du ez dela etorriko* bi gauza dira: hor ez da gertatu ezetzaren igoerarik eta, beraz, ez dago errankidetasunik. Edozein modutan, horietan ere *-enik* perpausa ezetzaren esparruan dagoela esan daiteke. Ikus dezagun honako adibide pare hau:

- (25) a. *Ez dute esan Mikel etortzekoa denik.* → <sub>ez</sub>[*ESAN PROPOSIZIOA(Mikel etortzekoa da)*]  
b. *Ez dute esan Mikel etortzekoa dela.* → *PROPOSIZIOA(Mikel etortzekoa da)* <sub>ez</sub>[*ESAN*]

*Mikel etortzekoa* da proposizioa ezetzaren esparruan dago (25a) adibidean, eta hartatik kanpoan, berriz, bigarrean (25b). Azken honetan, izan ere, ezetza *esan* predikatuari baizik ez dagokio.

<sup>186</sup> Testuetan ikusten dira, hala ere, han-hemen, horien antzeko egitura konplexu batzuk *-enik* menderagailua dutenak (EGLU-V: 73).



Hori horrela dela frogatzeko, ikus dezagun nola jokutzen duten ezezko polaritateak duten *ezer*, *inor*, *inon*, *inoiz*, *behin ere* eta horrelako elementuek egitura horrietan. (25a) adibidearen osagarrian sar daitezke horrelako elementuak, perpaus osagarria ezetzaren barruan baitago. (25b) adibidean, aldiz, ez:

- (26) a. Ez dute esan inor etortzekoa denik.  
 b. \*Ez dute esan inor etortzekoa dela.  
 c. Ez dute esan ezer galdu dutenik.  
 d. \*Ez dute esan ezer galdu dutela.

Zein da goiko (25)-eko perpaus bien artean dagoen aldea, esanahiari dagokionez? (25a) perpausan [<sub>prop</sub>(*Mikel etortzekoa da*) *esan dute*] adierazpena — adierazpen osoa— ezeztatzen da. Eta adierazpen osoa ezeztatzearekin batera proposizioa bera ere balio gabetua geratzen da erabat. Hortaz, hortxe amaitzen da proposizioari buruz planteatua zegoen guztia. Horixe da, bada, *-enik* menderagailua duten perpausok aditzera ematen dutena.

(25b) perpausan, aldiz, «Mikel etorri da» proposizioari dagokionez, [*esan*] predikatua besterik ez da ezeztatzen. Eta, beraz, aditzera ematen da predikatu hau ez dagokiola proposizio hari, baina —eta hau inportantea da— libre uzten da hura gainerako predikatu posible guztietarako, berariaz uzten baitira horiek guztiak ezeztapenetik kanpoan. Berariaz ematen da aditzera proposizio horri buruz ezeztatzen dena «haiek esan izana» dela, ez beste ezer. Gainerako predikatu posible guztiak —*bestek esan izana*, *haiek pentsatu izana*, *egia izatea*...— berariaz geratzen dira ezeztapenetik kanpoan.

Horrek esan nahi du *-ela* menderagailua duten perpausok esparrua libre uzten dutela presuposizioetarako. Hau da, presuposizio bat izanez gero, perpaus-mota hau erabiliko dela. Zenbaitetan esan izan da *-ela* perpausak egiaren presuposizioa daramala berekin beti. Izan daiteke, bai, hori presuposizioa, baina ez da nahitaezkoa horrela izatea; bestelako edozein presuposiziok ere izan baitezake hor leku.

### Adibideak

- (27) \*Lehen goan estetikako irakasle batek ondorengo planteatu zuen: nola jakin gu denok *klonak ez garenik?*  
 (28) ... nola jakin gu denok *klonak ez garelako?*

## 36. -(E)LA ATZIZKIAREN ZENBAIT ERABILERA OKER<sup>187</sup>

### 36.1. Ondoriozko perpausetan: \**Hain gaiztoa da ez duela inork maite*<sup>188</sup>

Oso zabalduak ditugu gaurko euskararen honelako esamoldeak:

- (1) \*Hain gaiztoa da *ez duela inork maite*

<sup>187</sup> Hitzez hitz aldatu dut hona Euskaltzaindiak emaniko azalpena (Euskaltzaindia, 1994c:962-963).

<sup>188</sup> Ikus *EGLU-V*: 450-453 eta hurr.

Euskaraz ondoriozko perpausak aski estatus iheskorra badute ere, hori esateko bide hoberik bada. Akatsa hor ageri den *-ela* horretan dago. Izan ere, euskaraz, *-ela* atzizkia edo konpletiboetan agertuko zaigu edo modu-denborazkoetan. Eta goiko adibidea ez da ez bata ez bestea.

Bi bide ditugu hori aditzera emateko: bata inolako juntagailurik gabe, bi perpausak elkarren ondoan jarritz:

(2) a. Hain da gaiztoa, *ez du inork maite*.

Edo, ordena aldatuz:

b. Ez du inork maite, hain da gaiztoa.

Agian, juntagailurik ezak deseroso sentiaraz gaitzake. Baina alborakuntzazko bidearen ordezen menperakuntza-bidea ere eskura dugu, *bait-* erantsiz aditzari:

(3) Hain da gaiztoa, *ez baitu inork maite*.

Bigarren atalaren buruan *non* edo *ezen* ezarrita ere antola ditzakegu ondoriozko esapide hauek:

(4) Hain urruti bizi da, {*ezen/non*} berandu *iritsi baita/iritsi den*.

Jakina, *bait-*en ordezen *-en* atzizkia ere erabil daiteke.

### 36.2. Erlatiboetan: *\*Neska batzuk agurtu ditut zu ezagutzen zaituztela*

(5) *\*Neska batzuk agurtu ditut zu ezagutzen zaituztela*.

Horra beste esaldi trakets bat. Ez du aurrekoak adinako arrakastarik baina ikastolakumeen artean eta, bereziki, euskaldun berrien artean, aski entzuten da. Perpaus hau erlatiboa dugu, osagaiak lekuz aldatuak dituen, baina erlatiboa hala ere. Ez legoke alde handirik beste era honetara esango bagenu:

(6) Zu ezagutzen zaituzten neska batzuk agurtu ditut.

Oraingoan ez litzaioke inori bururatuko *-en* atzizkiaren ordezen *-ela* eranstea aditzari. Lekuz aldatua dagoenean ere ez, hortaz:

(7) Neska batzuk agurtu ditut zu ezagutzen zaituztenak.

Hau litzateke bide zuzena.

### 36.3. Beste erdarakada bat: *\*Kontuz platerarekin, beroa dagoela!*

(8) *\*Kontuz platerarekin, beroa dagoela!*

Hona hemen beste esamolde trakets bat. Hemen ere erdarazko *que* juntagailua dagoela ematen du okerraren iturrian: *Cuidado con el plato, que está caliente*.

Baina hau ere ez da adierazpenezkoa, kausazkoa baizik. Euskaraz hori esateko bide egokirik bada. Adibidez:

- (9) Kontuz platerarekin, beroa dago eta
- (10) Kontuz platerarekin beroa baitago

37. *DENZ, DENENTZ, DENEZ ALA DENETZ: JAKIN NAHI NUKE EA HORI HORRELA OTE DENETZ*<sup>189</sup>

1. Zehargaldera guztien bereizgarria *-en* erlazio-atzizki soila izaten da<sup>190</sup>. Zehargaldera horiei kasu batzuetan —bereziki orokorrak direnean (hots, *bai / ez* era-koak direnean)— *ea* (edota *hea, ean, eian, ia, ian* aldaerak) edo *ote* (bizkaieraz *ete*) partikulak eransten zaizkie:

- a. Nork daki zuzen zer gerta daiteke*EN*.
- b. Ez dakit joango naiz*EN* ala telegrama bat bidaliko diod*AN*.
- c. Aitatu zenidan *ea* Azkue gureak frantses *ote* zekien.

2. Baina zehargaldera orokorra denean, *-en* soilari hizki indargarri bat gaineratzen zaio, euskalkien arabera forma desberdinak hartzen dituena: *-z, -entz, -ez* edo *-ez*. Tradizio zaharrea, Iparraldeko testuetan ez ezik, Bizkaiko batzuetan ere (hala nola Añibarrorenetan) aurkitzen da indargarri hori.

a) *-enz* forma Pouvreau, Axular eta XVII. mendeko idazleengan aurkitzen da, baina geroztik osoki itzaltzen da.

— Zer dakizu lehenbiziko eginen duzun bekhatuaren begira dagoenz Jainkoa zure egunen akhabatzeko (Ax 83).

b) *-enentz* forma guztiz berria da eta bereziki Bilbao, Zaitegi, Otxolua eta Hegoaldeko idazle bakan batzuek bultzatua.

— Ikusiko dozue Bartolo hori be beste edozein bestean bildurtia *danentz* (*Ipuib* 179).

c) *-enez* forma aski zabaldua da, Leizarraga, Pouvreau, Voltaire baitan XVI. eta XVII. mendeetan, Añibarrok ere erabili zuen ondoren, eta XIX. mendeaz geroz bereziki Iparraldeko Zalduby, Laphitz, Hiriart Urruty, Barbier, Constantin, Etchepare eta Oxobi idazleen baitan aurkitzen dugu. Bizkitartean nahasketa bat sor daiteke forma hone-tatik, zeren *-enez* atzizki berak perpaus modala (*amak erraiten zienez = amak erraiten zienaren arabera*) edo erlatibo hutsa (*joaiteko xedetan zirenez arta zuen*) adieraz bai-tezake, non ez duen *ea* edo *ote* partikulak zehargaldera espresuki adierazten.

— Iñok eztaki Salbatuko danez (*ELI*, 53).

— Utzak, dakusagun *eia*ethorriren denez Elias horren enparatzera (*Lç* 49).

<sup>189</sup> Atal honetan Euskaltzaindiaren proposamena (2000/12/22) jaso dugu, laburtuta.

<sup>190</sup> Ikus *EGLU V* (83-131 orr.).

d) *-enetz* forma ere nahiko berria da: XIX. mendeaz geroztik agertzen da. Baina lekukotasun asko dauzka bereziki Iparraldean (Duvoisin, Hiriart Urruty, Etchepare, Lafitte, Arradoy eta Oxobirekin), baita bestalde ere (Zaitegi, Erkiaga eta Mirandek baitarabilte). Gaur egun, forma hori da Iparraldean erabiltzen ohi dena.

— Zure senarra fleitean denetz nahi ginuke ba jakin (Ox 28).

Horiek oro ikusita, ondokoa da Euskaltzaindiaren gomendioa:

1. Zehargaldera guztietan bezala, zehargaldera orokorretan ere aditzak *-(e)n* forma hartzen du, eta aski da atzizki hura, zehargaldera ongi osatzeko, nahiz harekin batean *ea* edo *ote* bezalako beste zenbait indargarri ere erabil daitekeen:

- a) *Ez dakit zuzen mintzatu naizen*
- b) *Galdetzera noa ea norbait azaldu den*

2. Halere, zehargaldera orokorreko aditzari atzizki indargarria ere erantsi nahi bazaio, ambiguitasunik sortzen ez duen *-enetz* atzizkia erabiltzea gomendatzen du Euskaltzaindiak euskara baturako:

- a) *Begira iezaiozu ongi ea gaitzik ageri duenetz*
- b) *Askotan banago kokatzen ote duenetz besterik*
- c) *Ez dakit ikusi dugunetz*

### 38. *-ELARIK: ?TUTU ZILINDRIKO BAT DAUKAGU, MUTUR BAT ITXITA DUELARIK*<sup>191</sup>

Villasantek dioenez, *-(e)larik* —*-(e)la* menderagailuaren aldaera enfatikoa edo dirudiena— oso erabilia da ekialdeko euskalkietan. Indikatiboko orainaldiarekin edo iraganaldiarekin, erdal gerundioaren baliokide diren perpausak lortzen dira: denbora, modua, kausa... adierazten dutenak:

Denbora:

- (1) a. eztú deitunái vicitza, baizic eriótze perpétuoá, *escatzenduélaic* letanian «a morte... (Lizarraga, J., 1991:41)
- b. Oroibedí nitas, Jauna, *doaieláic* bere erreinuá (Ondarra, 1984:57.3)
- c. Eta hiltzera *zihoalarik*, haren inguruan zauden emaztekiek erran zioten: (Duvoisin, 1972: 270)
- d. bost urte irian neure gurasoek herriko eskolara *bidali nindutelarik* ez nekien frantses tutik. (Landart, 1982:15)
- e. Emaztètarik begiratu nahi duenak, begiratu behar du halaber emaztei behatzetik, behintzat bai, aiherkunde gaixtoz, eta handik kilikatzen dela, *senti-tzen duelarik* beha egoitetik. (Ax. 256)
- f. Bada Tiberio Zesar hamaborzgarren urteko Enperadore *zela* (...) Lisantias berriz Abileneko buruzagi *zelarik* (Haraneder)

<sup>191</sup> Atal honetan Elozegi (1996) izan dut oinarri eta hurrengoak osagarri: Azkarate (1995); Egunkaria (1995); Lafitte (1944); Villasante (1976).

### Modua:

- (2) a. Eta Saphanek... eta laneko berriak eman ziozkan, *zioelarik*:... (Duvoisin, 1972: 465)
- b. Lau orenak irian agertu ziren HazparneZelaitarrak, (...) neskato ile harrodun andana besoz beso *zerakartelarik*. (Etxepare, J., 1980:38)
- c. behinere bezain azkar lotzen dira guduari, hainbertze diruren gorabehera beien menean dela oroitzeak *berotzen dituelarik* aitzina. (Etxepare, J., 1980:43)
- d. Eta Iainkoaren ontasuna eta liberaltasuna hain da handi, non orai zuk dituzun on horiek Iainkoarenak berarenak, eta Iainkoak emanak *dituzularik*, guztiarekin ere, zuk horietarik probeari emaiten diozunean, zeuretarik emaiten biatzinio bezanbat estimatzen baitu Iainkoak. (Ax. 150)

### Kontzesioa (Maiz, *ere* partikula ondoan duela):

- (3) a. Euskal deitura *duelarik*, ez gaitu gehiegi maite euskaldunok (Mitxelena, Idazlan, 270)
- b. *Nahi ez nuelarik ere*, sartu behar nuelako ustetan abiatu nintzen (Mitxelena, Idazlan, 376)
- c. Sei urthe *dituelarik*, zer uste duzu ongi dakiela katixima («*quoiqu'il n'ait que six ans, vous n' imaginez pas comme il sait le catéchisme*») (Lafitte, 1944: 402)

### Kausa:

- (4) a. baña gañaracoóc *gareláic* campocoác generácios, arcengaitu caridádes... (Lizarraga, J., 1979: 34)
- b. Guizonarén azquén fin bacarra *delaríc* ellegatzea (...), ori berás izanbeárda gure inténciao, (Lizarraga, J., 1979:31)
- c. zuréa dá ceruétaco erreinua, zuregátic *pagatudueláic* aimberce Jesus ónac» (Lizarraga, J., 1984: 48)
- d. Hain ona *delarik*, nola ez maitha («*puisqu'il est si bon, comment ne pas l'aimer*») (Lafitte, 1944: 402)

Lafittek ere honako balioak ematen dizkio<sup>192</sup>: denbora, kontzesioa eta kausa. Zenbaitetan zail samarra da balioa bereiztea, balio bat baino gehiago batera agertzen zaizkigulako:

### Denbora/baldintza?:

- (5) baña nior ez (legoke seguró) bere búruas, *dabilaláic* aimberce peligro értéan. (J. Lizarraga)

### Hona zenbait adibide *Herria* astekaritik hartuak:

---

<sup>192</sup> Lafitte (1944: 402).

- (6) Bi hil, biak gazteak, biak gidari onak, lehena larunbatean entseguak *egiten zituelarik*. bigarrena igande arratsaldean, lasterkadaren hastapenean. [DENBORA]
- (7) Karrikara joan ziren, duela hamar urte, sozialistek gehiegongoa *zutelarik*, eskola pribatuetako ikasle, irakasle eta gurasoak. [DENBORA]
- (8) Amazoniako oihanetan ari direnak joak dira, torturatuak eta erahilak eskapatzera *entseatzen direlarik*... [DENBORA]
- (9) Esklavo berri horiek jasaiten dutena lehen bezain gogorra omen da, sari bakartzat *daukatelarik* mespretxua, zigorra, tortura, berdin herioa... [MODUA]
- (10) Ez naiz udaberriko arbolaren ikara daldaraz mintzo: zuhaitza *dagoelarik* oraino erdi-buluzia eta ahalgez gorritua bezala. bere izten luzeak ezin oraino gordez, haize zirimolen erdian, hosto bakar xuhailak daldaran *daudelarik*. [MODUA/DENBORA?]

Dena den, *-eLARIK* menderagiluaren balioaren auzia ez dago behar bezain ongi ikerturik. Batetik, ukaezina da menderagailu honen denborazko balioa, aditz perifrastikoekin ipar-ekialdeko euskalkietan baino aurkitzen ez dena (goragoko 1a, 1d, 1e, 6, 8 adibideak). Era berean, gramatikari gehienak-edo bat datoz egozten dioten moduzko balioari (2) eta balio kontzesiboari (3) buruz. Hala ere, batzuetan baldintza-kutsua edota kausa (4) ere adierazteko erabiltzen bide da. Are gehiago, zenbaitetan balio zirkunstantzial aski zehaztugabea edota balio askotarikoa izan dezake (esate baterako, denborazkoa eta moduzkoa uztarturik eta abar). Beharbada, zehaztugabetasun horretatik eta batez ere gaztelaniazko gerundioak —asko eta asko okerrak— imitatu nahi izatetik etorri dira mende honetako erabilera berri bezain dudazkoak —beheko (11), (12) eta (13), adibidez—.

Izan ere, Hegoaldean askotan erabiltzen da balio berri batean, aurretik esan denaren ondorioa adierazteko alegia.

- |  |   |
|--|---|
| <ol style="list-style-type: none"> <li>(11) a. ...elektroiaren orbita gero eta txikiagoa izango zen, azkenean nahitaez nukleoarekin talka <i>egingo zuelarik</i>.</li> <li>b. Oligoketoen sailkapenean nahasketa handia izan da, autore desberdinen arabera familia batzuk baztertu ala <i>sartu izan direlarik</i>.</li> <li>c. Gaur egun bakterioak programaturiko mikrofabrikak direla esan daiteke, bioteknologia eta bioindustriaren oinarri <i>bihurtu direlarik</i>.</li> </ol> | <ol style="list-style-type: none"> <li>a'. ...elektroiaren orbita gero eta txikiagoa izango zen, <i>eta</i> azkenean nahitaez nukleoarekin talka <i>egingo zuen/zukeen</i>.</li> <li>b'. Oligoketoen sailkapenean nahasketa handia izan da, <i>eta</i> autore desberdinen arabera familia batzuk baztertu edo <i>sartu izan dira</i>.</li> <li>c'. Gaur egun bakterioak programaturiko mikrofabrikak direla esan daiteke; <i>izan ere</i> bioteknologia eta bioindustriaren oinarri <i>bihurtu dira</i>.</li> </ol> |
|--|---|

Beste batzuetan, antzeko prominentzia duten gertaerak adierazten dituzten perpaus konposatuak («sasimendekoak») sortzen dira *-eLARIK* atzizkia dela medio:

- (12) a. Azpimarratutako elementuak izen-sintagmak ditugu, atalka aztertuz, ondoko ondorioak *aterako genituzkeelarik*.
- b. Bertako lehen Atalburua Herri Arduralaritzan euskera erabiltzeari buruzkoa da, (...) harremanetan euskera eta gaztelania erabiltzeko eskubidea *aitortzen delarik*.
- c. Bere ezarketa eta zaingoa Euskal Herriko Hauteskunde-Batzordeak egingo du, bere eginkizuna Arduratze-Batzordearen eta Artezkari nagusiaren bitartez *beteko duelarik*.
- a'. Azpimarratutako elementuak izen-sintagmak ditugu, *eta* atalka aztertuz, ondoko ondorioak *aterako genituzke*.
- b'. Bertako lehen Atalburua Herri Arduralaritzan euskera erabiltzeari buruzkoa da, (...); *bertan* harremanetan euskera eta gaztelania erabiltzeko eskubidea *aitortzen da*.
- c'. Bere ezarketa eta zaingoa Euskal Herriko Hauteskunde-Batzordeak egingo du, *eta* bere eginkizuna Arduratze-Batzordearen eta Artezkari nagusiaren bitartez *beteko du*.

Dударик gabe, (11) eta (12) bezalako egituren ordez askoz ere egokiagoa da *eta* juntagailua edo alborakuntza (juntagairik *ez*) erabiltzea, eta horixe da, hain zuzen ere, gure gomendioa. Zenbaitetan, -z gerundioa ere izan daiteke irtenbide baliagarria. Beste batzuetan, azkenik, erlatibo baten ordez erabiltzen da *-eLARIK* atzizkia:

- (13) a. Erabakia, 1995eko ekainaren 15ekoa, UPV/EHUarena, beronen bidez XX andreak jarritako errekurtoa *onartzen ez delarik*.
- b. Euskal Irrati-Telebistarako herri-zerbitzuak eraentzeko sor dadin Herri-Baltzu bakoitzak Eraentza-Batzorde bat sortzea ekarriko du honako hauek *osatu dutelarik*...
- c. Tutu zilindriko bat daukagu, mutur bat itxita *duelarik*...
- a'. Erabakia, 1995eko ekainaren 15ekoa, UPV/EHUrena, XX andreak jarritako errekurtoa *ez onartzea ebazten duena*.
- b'. Euskal Irrati-Telebistarako herri-zerbitzuak eraentzeko sor dadin Herri-Baltzu bakoitzak Eraentza-Batzorde bat sortzea ekarriko du, honako hauek *osatu duena*...
- c'. Tutu zilindriko bat daukagu, mutur bat itxita *duena*...

Beraz, badirudi ez dela oso gomendagarria *-eLARIK* atzizkia erabiltzea hurrengo kasuetan: ondorioa edo etorkizuneko ekintza adierazteko, juntaduraren ordez eta erlatiboen ordez. Halakoetan, juntadura soila (*eta*), -z gerundioa edota erlatiboa bera izan daitezke egitura garbiagoak.

Bukatzeko, tradizioko erabilerei eusteko gomendioa eman genezake. Ekialdekoa den atzizki hau erabili aurretik, beharbada, hurrengo aholkua eman dakieke Hegoaldeko hiztunei, Iparraldeko erabilera zerbait murrizten badugu ere: *-elarik* ipini baino lehen, aproba egin bedi *-ela* idatzita nola geratzen den; *-ela* onargarria izatera, ez legoke arazorik *-elarik* erabiltzeko, baina ezin balira trukatu hobe da beste egitura zehatzagoren bat bilatzea<sup>193</sup>.

<sup>193</sup> Horixe da, hain zuzen ere, Elosegiren (1996:190) eta Egunkariaren (*Estilo Liburua*: 46-47) gomendioa.

Oraindik ez da inolako gomendiorik eman *-(e)larik* atzizkiaren erabilera berri hauek direla eta. Baina komeni da horren inguruko kezka behintzat izatea.

**Aztertze adibideak:**

- (14) Jadanik bat aukeratu dudan arren, nire buruari bestea ez ote zen hobea galdetu besterik ez diot egiten, duda honek bakean *uzten ez naularik*.
- (15) Jadanik bat aukeratu dudan arren, nire buruari bestea ez ote zen hobea(goa) galdetu besterik ez diot egiten, *eta* duda honek *ez nau bakean uzten*.
- (16) Hirugarren mailaren bigarren zatian, lan handia egiten saiatu nintzen, nahiko fruitu onak *bildu ni-tularik*.
- (17) Hirugarren mailaren bigarren zatian, lan handia egiten saiatu nintzen, *baita* nahiko fruitu onak *bilduz ere*. / ... nahiko fruitu onak *bilduz*.
- (18) Arantzazuko kongresuan finkatu ziren euskara batuaren lehen oinarriak, oinarri hauek idazle gehienek *jarraitu zituztelarik*.
- (19) Arantzazuko kongresuan finkatu ziren euskara batuaren lehen oinarriak, *eta ondoren* idazle gehienek *jarraitu zituzten*.
- (20) «EUSKERA» izena onartuko zen era berean ere akademiari «EUSKALTZAINDIA» izena *emango zitzaiozlarik*.
- (21) a) «EUSKERA» izena onartuko zen, era berean akademiari «EUSKALTZAINDIA» izena *emanez*.  
 b) «EUSKERA» izena onartu *eta* era berean akademiari «EUSKALTZAINDIA» izena *eman zitzaion*.  
 c) «EUSKERA» izena onartu zen *eta* era berean akademiari «EUSKALTZAINDIA» izena *eman*.
- (22) Albiste edo iragarkiren batek bere magiazo maindirean biltzen gaitu eta geure iritziak bertan behera botatzeko gai izaten da, beti ere lana isilpean, oharkabean *burutzen duelarik*.
- (23) [zuzena da]
- (24) Ikastolekin hasitako berreskurapena nabarmena eta gogorra izan da, honek eragin handia *izan duelarik*.
- (25) Ikastolekin hasitako berreskurapena nabarmena eta gogorra izan da, *eragin handikoa / eta eragin handia izan du*.
- (26) Urte guztian zehar, telebista piztuz gero, jostailu-iragarkiak ikustea ezinbestekoa egiten zaigu, baina, badirudi Gabonetako garaian kopurua gehitu egiten dela, ikusten dituzun hiru iragarkietatik bi jostailuenak *direlarik*.
- (27) ? / *baitira / dira eta / izanik*.
- (28) Egun hauetan haur guztiak aztoraturik ibiltzen dira, Olentzero edo Erregeei zer opari eskatu *ez dakitelarik*.
- (29) [zuzena da]



- (30) Tentsio handia nabaritzen da, alderdikide bakoitza botoak ondo ote doazen arduratsu *dagoelarik*.
- (32) 10:30ak diren honetan boto denak zenbatu dira. Hauek *direlarik* geratu diren emaitzak
- (34) Mende honen hasieran, bidegabe-ko banaketa kolonial batek herri hau muga artifizialen bidez zatikatu zuen, ondorioz, azken ehun urte hauetan, ofizialki behintzat. Kurdistanek izaterik *ez duelarik*.
- (36) ... orduan (bateraezintasun-kasuan) abokatuak Kolegioaren Gobernu Batzari jakinarazi beharko dio aitzakiarik gabe, automatikoki lanbide-jarduna *utziko duelarik*.  
(El abogado (en caso de incompatibilidad) deberá comunicarlo sin excusa a la Junta de Gobierno del Colegio, CESANDO (→ y cesará) automáticamente en el ejercicio de la profesión).
- (38) Era berean, Ikastegi bakoitzean Kultur eta Kirol Jardueretarako Batzorde bana eratuko da, Dekanorde edo Zuzendariorde mahai-buru banarekin, bere aurrekontuaren gestioa *eramango dutelarik*.
- (40) Ikasketa-plana erreformatzeko eskaria egiterakoan, aldean akademi, zientzi eta gizarte-premiak justifikatzeko Memoria jarriko da, berorretan, halaber, aldaketa onartuz geroko ekonomi ondorioak ere *azalduko direlarik*.
- (42) Plaka finko batetik 0,5 m-ra kokaturik dagoen plaka bat 0,25 m/s-ko abiaduraz mugitzen da, abiadura hori mantentzeko azalera-unitateko  $2N/m^2$ -ko indarra *behar delarik*.
- (31) *dago eta / baitago / dagoelako*.
- (33) a) ...*eta hauek dira emaitzak / b) ? emaitzak hauek izanik*
- (35) ...*eta ondorioz (...) Kurdistanek ez du izaterik*.
- (37) ... aitzakiarik gabe, *eta* automatikoki lanbide-jarduna *utziko du*.
- (39) ...*eta* haiexek *eramango dute* batzordearen aurrekontuaren gestioa.
- (41) *eta* bertan, halaber, aldaketa onartuz geroko ekonomi ondorioak (ere) *azalduko dira*.
- (43) ? / mugitzen da, *eta* abiadura hori mantentzeko azalera-unitateko  $2N/m^2$ -ko indarra *behar da*.

-ELARIK ATZIZKIA HARTUZ DOAN «OROTARAKO» BALIOAREN ERAKUSGARRI BAT:

«(...) Urriaren bigarren astean ospatu zen Koadrilen Astearen egitarau osoa beraiek prestatu zuten, bertan zenbait berrikuntza *ikusi ahal zitezkeelarik*, zaraztar koadrilen arteko festa hau sendotzearren.

Batzorde berria herriko zazpi koadrilek osatzen dute, koadrila bakoitzeko ordezkari pare bat *daudelarik*, gaztetasuna *izanik* hauen ezaugarri nagusia.

Aldaketa bakarra festaren filosofian nabaritu da. Aurten festak beti bezala urriaren 9an hasi eta 17an amaitu dira, egun nagusia azken hau *izan delarik*. Aste barruko egitaraua gutxigorabehera ohizkoa izan arren, Koadrilen Egunean berrikuntza ugari ikusi ahal izan genuen, batez ere ekitaldi kopuruan eta jendearen partaidetzan, goiz partean hasi eta hurrengo eguneko goizaldeak sokamuturrak *jarri ziotelarik* amaiera. Adierazgarria izan da egitarau honen barne herri bazkariak lortutako oihartzuna, ehundaka gazte *bildu zirelarik*.

(...) Debate interesgarri bat ere izan zen Koadrila eta Zarauzko tabernarien artean «Edarien prezioa Zarautzko tabernetan» gaia *jorraitu zelarik*.

ZUBIMENDI eta ESNAL (1993)-tik hartua, (192-193. orr.).

### 39. HARTUZ GERO # HARTZEKOTAN<sup>194</sup>

Izenburuko bi egiturak dira baldintza adierazteko erabiliak, biak dira baldintza jotatugabeak gainera. Baina antzekotasunak hor bukatzen dira, ez baitira erabat baliokideak. «Partizipioa + -z gero» tankerako perpausetan «lehen zatiak» (-z gero) ezartzen duen baldintza bete behar da «bigarrena» bete dadin; hau da, hizkuntza-mailan nahiz logika-mailan «baldintza-ondorioa» segida betetzen da: (1) adibidean «euria egitea (baldintza) → autobusa hartzea (ondorioa)» katea betetzen da maila bietan. Baldintza errealarren edo hipotetikoaren baliokidea da.

Bigarren egituran (2), ostera, perpausaren «lehen zatia» (-tzekotan) bete dadin «bigarrena» bete behar da lehenik<sup>195</sup>; hau da, hizkuntza-mailan baldintzaren itxurapean azaltzen den zatiak —*t(z)ekotan* zatiak— baldintza barik helburua edo asmoa adierazten du logika-mailan; eta alderantziz, bigarren zatiak —hizkuntza-mailan baldintza-markarik gabe azaltzen den arren— lehena betetzeko ezinbesteko baldintza adierazten du logika-mailan<sup>196</sup>: (2) adibidean, «goiz jaikitzea da autobusa hartzeko baldintza», hau da, ez datoz bat hizkuntza-mailako baldintza eta logika-mailakoa.

- |  |   |
|--|---|
| (1) Euria eginez gero, autobusa hartuko dut<br>«Euria egiten badu, autobusa hartuko dut»   | HIZKUNTZA-MAILA: BALDINTZA-ONDORIOA<br>LOGIKA-MAILA: BALDINTZA-ONDORIOA |
| (2) Autobusa hartzekotan, goiz jaiki beharko dut<br>«Autobusa hartu nahi badut / hartu behar badut /<br>hartzeko asmoa badut (hartzeko), goiz jaiki beharko dut» | HIZKUNTZA-MAILA: BALDINTZA-X<br>LOGIKA-MAILA: ASMOA...-BALDINTZA        |

Hurrengo lau egiturak (3a, 3b, 3c, 3d) baliokideak dira gutxi gorabehera:

<sup>194</sup> Ikus Rey (1995) eta Egunkaria (1995: 53).

<sup>195</sup> Ikus Goenaga (1980b:364).

<sup>196</sup> Hemen baldintza-kutsua duen *-t(z)ekotan* atzizkiaz ari gara, bestelako balioak ere bai baititu atzizki honek. Hurrengo adibideetan, esaterako, *-t(z)eko asmotan* esapidetaren forma laburtua dirudi eta «asmoa» adierazten du:

a. *Geroago egitekotan gelditu gara.*

b. *Argitaratzekotan nintzen beti, eta beti gerorako uzten nuen.*

- (3) a. Autobusa *hartzekotan*, goiz jaiki beharko dugu.
- b. Autobusa *hartzez gero(tan)*, goiz jaiki beharko dugu.
- c. Autobusa *hartuko badugu*, goiz jaiki beharko dugu.
- d. Autobusa *hartzekotz*<sup>197</sup>, goiz jaiki beharko dugu.

-T(Z)EKOTAN: IDAZLEEN ADIBIDEAK

- (4) a. Markolbe'k, *bakerik ixatekotan*, egin egin-biar eutsazan gaztain-opillak mutillari... (Otx 168)
- b. Irekin *bizitzekotan*, i untzak bezala *laztanzekotan*, pozik edanen nitek bide-iturrietan, eta ire musuak nitikek yanari! (Or *Mi* 98).
- c. Goizetik itzal *jagitekotan*, naiago bizi nire etxian ta errian... (Zubk 9)
- d. Benetan egoan ondo, ta *neskame izatekotan*, ez eukean egundo etxe atatik beste batera urtengo. (Ag G)
- e. Ixi-ixillik atrapa biar da, *atrapatekotan*, nire dirubekana eldu dan azeri zarra... (Kk *Ab I* 102)
- f. Zoroasterrek agindu zuen zaldiaren sendatzea, bainan profetatzat *ezagutzekotan* errege, erregina eta ghortesano guziek. (Hb *Egia* 76).
- g. Baiñan nagusiak esan zidan urtean ordainduko zidala, eta ala egin genduan tratua berrogei ta amar duro *ordaintzekotan*. (Salav 34)
- h. Hizkuntzaren biziari dagozkion zenbait erabaki, izan ere, iker-lanaren ondorioetan funtsa daitezke bakarrik, inon *funtsatzekotan*. (MEIG VIII 105).
- i. Obe da izatea eskale do pobre, *bizi izatekotan* amarikan gabe (BEnb *NereA* 264)
- j. Forma-kontu hutsean ere, alde gehiegi dago batetik bestera: *batzekotan*, berea utzi beharko lukete askok, amore eman ta besterenera makurtu. (MIH 112).
- k. Iñola *ateratzekotan*, bada, egunkaria, askoen alkar-arte ta laguntzaz bear bide-da, nik uste. (Ldi *IL* 73).
- l. Argia, edo ilunbea, sortaldetik *etortzekotan*, ez ote zaigu Txinatik etorriko? (EH, «sortalde»).
- m. Istorio honi oztoporen bat *jartzekotan*, egilearena litzateke, arabiarra baita berez... (EH, «sorterritar»).
- n. Atze-atzeka sartu naiz, ezer txarrik *hartzekotan* hobe delako bizkarraren azkenaz hartu buruaz baino. (EH, «2atzeka»).
- ñ. Ikaratu egin ziren agindu hori *betetzekotan* egin behar zen harakintza izugarriaz (EH, «harakintza»).
- o. Nik, apustutan *abiatzekotan*, lehenbizikoaren alde egingo nuke trabes, eta ehun bati. (EH, «trabes»)
- p. Nik *zertzekotan* zer hori hobeto zer ezazu. (EH, «zertu»).
- q. *Ez betetzekotan*, ez berba. (EH, «berbatu»).
- r. Izena *hautatzekotan*, Euskara eta euskal literaturaren lekukoak edo horren antzeko deituraren bat nahiago nuke. (EH, «deitura»).
- s. nik zer kantatu nezake, aiek *ez laguntzekotan* (si es que no me han de ayudar aquéllos) (Mokoroa, 11283)

Ikus daitekeenez, *-t(z)ekotan* formaren bidez «beharra, nahia, asmoa...» ña-bardurak aditzera ematen dira. Eta zenbait testuingurutan —(4q), (4s)...— «parti-

<sup>197</sup> Atzizki hau (*-t(z)ekotz*) Iparraldean erabiltzen da (Lafitte, 1944: 457):

- a. *Egitekotz*, berehala egizu.
- b. Apez horrek egin ditu, batek *egitekotz*, bere ahal guziak, onez onean gobernamenduko gizonekin bakean bizi nahiz. (EH, «onez onean» azpisarrera).

zipioa + *-(ez) gero/ezik-ezean*» egiturarekin truka daitekeela badirudi ere, ez dira inoiz guztiz trukagarriak; are gutxiago, beheko testuinguruetan. (5)-ean ikus daitekeenez, *-t(z)ekotan* atzizkiak nekez har dezake baldintza «arruntaren» (erreala zein hipotetikoa, jokatu zein jokatugabea) lekua; eta orobat gertatzen da alderantzizko zentzuan (6):

- (5) a. Euria *eginez gero*, autobusa hartuko dugu.
- b. ??Euria *egitekotan* autobusa hartuko dugu.
- (6) a. Autobusa *hartzekotan*, goiz jaiki beharko dugu.
- b. ??Autobusa *hartuz gero*, goiz jaiki beharko dugu.

Eta hain zuzen ere, (5)-eko ordezkatzeko hori da gaur eguneko euskara idatzian gero eta maizago ageri den akatsa: *-t(z)ekotan* erabiltzen da maiz baldintza erreal edo hipotetiko arruntan —jokatu nahiz jokatugabeen— ordezkatzeko.

Hona hemen, bukatzeko, antzeko balioa duen «partizipioa + *-ko ba-*» egituraren ale banaka batzuk:

- (7) «... *EGINGO BADA*»
  - a. Neurri hauek behar-beharrezkoak ditugu gure gorputza indartu eta osasuntsu *egingo bada*. (EH, «beharrezko»)
  - b. Ez ditut ukatuko utopiaren ondorio miresgarriak; nahiago nuke, ordea, ezer *egingo bada* beti beharrezkoak diren ametsak eta berotasun suharrak lagun eta aitzindari kalkulua izango balute. (EH, «utopia»).
  - c. Gogamenak, *lan egingo badu*, materiazko baldintza batzuk behar ditu. (EH, «materia»).

#### **Aztertzeke adibideak:**

- |   |   |
|---|---|
| <ul style="list-style-type: none"> <li>(8) ?Francoren erregimena laikoa <i>izatekotan</i>, erlijioaren egoera askoz hobeia izango litzateke gaur egun.</li> <li>(10) ?Hondamendirik <i>gertatzekotan</i>, gu guztion bizia arriskuan legoke.</li> <li>(12) ?Zelula ostalaririk <i>ez aurkitzekotan</i>, kristalizatu egin daitezke.</li> <li>(14) ?Ingurune-aldaketak <i>egotekotan</i>, hiltzeko arriskua du izaki horrek.</li> <li>(16) ?Xedapen legal berezirik <i>ez egotekotan</i>, balantzearen eta galdu-irabazi kontuaren egitura arauz onartutako erduetara egokituko da.</li> <li>(18) ?Gatazkarik <i>egotekotan</i>, auzitegi bidez konpondu beharko da.</li> <li>(20) ?Argitu behar da urteko kontuek emaitzen irudi fidela erakusten duten ala <i>ez</i>, eta horrela <i>ez izatekotan</i>, horren zergatia ere bai.</li> <li>(22) ?Kontuen Auditoreen Errolda Ofizialak, interesa daukanak horrela <i>eskatzekotan</i>, (...) zerrenda eguneratua emango du.</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>(9) Francoren erregimena laikoa <i>izan balitz</i>, erlijioaren egoera askoz hobeia izango litzateke gaur egun.</li> <li>(11) Hondamendirik <i>gertatuz gero</i>, gu guztion bizia arriskuan legoke.</li> <li>(13) Zelula ostalaririk <i>aurkitu ezik/ezean</i>, kristalizatu egin daitezke.</li> <li>(15) Ingurune-aldaketak <i>izanez gero</i>, hiltzeko arriskua du izaki horrek.</li> <li>(17) Xedapen legal berezirik <i>egon ezik / ezean</i>, balantzearen eta galdu-irabazi kontuaren egitura arauz onartutako erduetara egokituko da.</li> <li>(19) Gatazkarik <i>egonez gero/gertatuz gero</i>, auzitegi bidez konpondu beharko da.</li> <li>(21) Argitu behar da urteko kontuek emaitzen irudi fidela erakusten duten ala <i>ez</i>, eta horrela <i>ez bada / ez izatera</i>, horren zergatia ere bai.</li> <li>(23) Kontuen Auditoreen Errolda Ofizialak, interesa duenak hala <i>eskatzuz gero</i>, (...) zerrenda eguneratua emango du.</li> </ul> |
|---|---|

## 40. PERPAUS ERLATIBOAK<sup>198</sup>

### 40.1. Zein da perpaus erlatiboa?

Perpaus erlatiboak funtzio adjektibala duten perpaus menderatuak dira. Izenlagunen moduan agertzen ohi dira, eta haien ezaugarria da barnean badutela izen bat izen ardatzaren erreferentzia duena, eta euskaraz komunzki agerian ezin ager daitekeena.

Perpaus erlatiboa IS baten barruan txertatuta ageri den elementua dugu; zehazkiago mintzatuz, ISren ardatza den izena modifikatzen duten osagaietako bat da perpaus erlatiboa. Hiru dira izenari ñabardura edo zehaztapenen bat eransten dioten elementu adjektibatzaileak: izenondoa (1a); izenlaguna (1b); eta nolabait izenlagun berezizat har ditzakegun perpaus erlatiboak (1c) eta perpaus izenlagunak (1d).

- (1) (a) uste OKER hori [deuseztaturik geratu zen]
- (b) OKERREKO uste hori [deuseztaturik geratu zen]
- (c) OKERRA ZEN uste hori [deuseztaturik geratu zen]
- (d) OKER ZEGOELAKO uste hori [deuseztaturik geratu zen] (jakina, semantikoki:  
1a=1b=1c # 1d)

Izenondoen bitartez (1a) eskuinaldera hedatzen da IS eta gainerako baliabideen bitartez (1b, 1c, 1d) ezkerraldera: desberdintasun sintaktiko hori alde batera utziz gero, funtsean lau hedabideok funtzio adjektibatzaile berdintsua betetzen dute, ISren izen ardatzaren erreferentzia mugatzea edo zehaztea, alegia. Horregatik —duten funtzio adjektibatzaileagatik— «adjektibozkoak» ere deitu izan zaie erlatibozko perpausiei.

Hitz arruntekin honelaxe definituko genuke erlatiboa edo erlatibatzea: erreferentzia bereko IS bat —*uste hori* beheko (2) adibidean, *legea* (3)-an, eta *dekretua* (4)-an— duten bi perpaus, delako IS «errepikatu gabe» elkartzeko prozedura sintaktikoa.

- (2) (a) uste hori okerra da
- (b) uste hori deuseztaturik geratu zen
- (c) [(uste hori), okerra den] uste hori, deuseztaturik geratu zen
- (3) (a) Gobernuak legea onartu du
- (b) Legea datorren urtean sartuko da indarrean
- (c) [Gobernuak (legea), onartu duen] legea, datorren urtean sartuko da indarrean
- (4) (a) Dekretuak lehengo arauak derogatzen ditu
- (b) Dekretua datorren hilean sartuko da indarrean
- (c) [(deketuak), lehengo arauak derogatzen dituen] dekretua, datorren hilean sartuko da indarrean

(4c) tankerakoetan, mendeko perpaus erlatiboan den —baina gorderik edo isildurik dagoen— ISri (*dekretuAK*) izen-sintagma «erlatibatua» deituko diogu. Eta erlatiboak lagundua edo modifikatua ageri den erreferentzia bereko ISri (*dekretuA*)

---

<sup>198</sup> Atal honetan *EGLU-V* (Euskaltzaindia, 1999: 173-270) izan dut oinarri, eta hurrengoak osagarri: Alberdi eta Garcia (1996), Biguri (1994), Garcia (1996). Ikerketa monografikoen artean aipagarriak dira Oyharçabal (1985, 1986, 1987).

«ardatza» deituko diogu<sup>199</sup>. Bide batez, azpimarratzekoa da adibide horretan —(2) eta (3) adibideetan ez bezala— kasu-marka desberdina dagokiela IS erlatibatuari (ergatiboa: *dekretuAK*) eta IS buruari edo ardatzari (absolutiboa: *dekretuA*). Beraz, erlatiboak modifikatzen duen izenak («izen ardatz» delakoak) perpaus erlatiboaren barneko elementu isil baten («izen erlatibatu» delakoaren) erreferentzia izan behar du; edo bestela esateko, perpaus erlatiboak «ardatzarekin» korreferentea den hutsune bat (goiko adibideetan parentesien artean emana) behar du izan bere baitan.

Ondoko hauek dira euskarak dituen erlatiboazko egitura nagusiak:

- (5) (a) Kontratua deuseztatuz gero langileak eska lezake, egin dueN lana dela eta, baliozko kontratu bati dagokioN ordainketa. [ERLATIBO ARRUNTAK]
- (a') 1/1995 Errege Dekretua, Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bategina onesten dueNA. [ERLATIBO ARRUNT APOSATUA]
- (b) Jurisdikzio eskudunak, ZEINEK, alderdi batek hala eskaturik, kontratuaren zati baten deuseztasuna adieraz BAITezake, ondorengo honi buruzko epaia eman beharko du. [ZEIN ERLATIBOAK]
- (c) Egun batzuk iragan ditugu, luzaz haietaz oroituko BAIKara [BAIT- ERLATIBOAK]
- (d) NOR ere ikusiko baituzu, HARI emaiozu. [ERLATIBO KORRELATUAK]
- (e) Langileen borondatez burutuTAKO iraungipena. [ERLATIBO JOKATU GABEAK]

#### 40.2. Perpaus erlatibo arruntten (-n) balioa: murrizgarriak (mugagarriak/ez-murrizgarriak) eta ez-murrizgarriak<sup>200</sup>

Oso ezaguna da ondoko hizkuntzetan perpaus erlatiboetan egiten den bereizkuntza: erlatibo murrizgarriak ditugu alde batetik, eta erlatibo ez-murrizgarriak beste aldetik; bestalde erlatibo murrizgarrietan zenbait mugagarri dira, eta besteak ez.

Bereizketaren oinarrian ideia hau dago: zenbaitetan perpaus erlatiboek ardatzaren erreferentzia murrizten dute, besteetan ez; lehen kasuan, batzuetan erreferentzia hori, murriztu ez ezik, mugatu edo bereizi ere egiten dute, eta beste batzuetan, ez: edo sintagmaren erreferentzia ez delako mugatua, edo mugaketa hori berezkoa delako, esan nahi baita ez erlatiboaren bidez lortua.

Bereizketa horrek ba ote du eraginik edo ondoriozko euskarazko perpaus erlatibo arruntetan? Hori da orain ikusiko duguna.

Kontsidera ditzagun lehenik bederazka ondoko lau adibide hauek (6-9):

- (6) Goizean etxe aurrean zurekin mintzatu den gizonak esango zizun hori

(6)-an perpaus erlatiboak murrizten eta zehazki mugatzen du izen-sintagma subjektuaren erreferentzia. *Gizona* ez da edozein *gizon*, baina *goizean zurekin mintzatu den* hura. Erreferentzia mugatua du sintagmak, perpaus erlatiboari esker hain zuzen. Perpaus erlatiboak nahitaez balio murrizgarri eta mugagarria du (6)-an.

- (7) Aspaldi ezagutzen duzun Maddi nire arrebak esango dizu hori

<sup>199</sup> Oyharçabal (1986:133).

<sup>200</sup> Ik. *EGLU-V*: 200-201.

(7) perpausean, izen ardatzak berezko erreferentzia du, ezen izen berezia da (*Maddi*), eta gainera aposizioan *nire arreba* agertzen da. Perpaus erlatiboak ezin izan dezake balio murrizgarri hor, ez eta balio mugarririk ere, sintagmako izen ardatzaren erreferentzia berez baita mugatua (izen berezien ezaugarri nagusia dugu hori). Perpaus erlatiboak informazio bat gaineratzen du izen ardatz hartaz, baina ez du informazio horrek haren erreferentzia murrizten, ez mugatzen.

(8) Etorri ziren aspaldi ezagutzen nituen lagun batzuk

(8) perpausean sintagmaren determinatzailea mugagabea da (*batzuk*). Perpaus erlatiboak gisa batez *lagun batzuk* sintagmaren erreferentzia zerbait itxuratzen du eta, beraz, murrizten (lagun aipatuek aspaldi ezagutzen nituen lagunak izan behar dute). Ordean, lagunak multzoa murriztuz, ez da aski, halere, erreferentzia haren zehazki identifikatzeko eta mugatzeko. Bestela determinatzailea ez litzateke mugagabea. Beraz, (8)-ko perpaus erlatiboa, murrizgarria izanik, ez da mugagarria.

(9) Zuk ongi ezagutzen dituzun euskal liburu zaharrak irakurri behar nituzke

(9)-an bi erataria uler daiteke perpaus erlatiboa. *Zuk ongi ezagutzen dituzun euskal liburu zaharrak* izen-sintagmak balio generikoa bada, orduan perpaus erlatiboa ez da murrizgarria (eta ez, beraz, mugagarria). Hiztunak dio irakurtzeko dituela euskal liburu zaharrak, hauek orokorki harturik, eta haietan bereizkuntzarik egin gabe. Esaten du, bestalde, solaslagnak ongi ezagutzen dituela obra horiek, baina xehetasun hori emanez, ez du zehazki mugatzen sail berezi bat euskal liburu zaharren artean.

Aitzitik sintagma mugatua bada egiazki (artikuluak balio generikoa izan gabe, hots), murrizgarria da perpaus erlatiboa, eta mugagarria: hiztunak irakurtzeko dituen obrak, ez dira euskal liburuak orokorrean, baizik ere solaskideak ongi ezagutzen dituenak, izen-sintagmaren erreferentzia zehazki mugatua delarik.

Lau adibide horien bidez, ohar gaitezke kontestu batzuetan perpaus erlatibo arruntek nahitaez mugagarri eta murrizgarri izan behar dutela (6), beste batzuetan murrizgarri baina ez mugagarri (8), zenbaitetan ezin izan daitezkeela murrizgarri (eta beraz ez mugagarri) (7), eta beste batzuetan (9) bi erataria interpreta daitezkeela.

Halere seinaltzekoa da perpaus erlatibo arruntetan agertzen diren balio desberdin horiek ez dutela ondorio zuzenik erlatibo arruntetan erabidean berean. Adibidez, erlatiboak berdín moldatzen dira, ardatza izen arrunta izanik, murrizgarri eta mugagarri direnean, edo ardatz gisa izen berezia dutenean (azken kasu honetan nekez erlatibo batek balio murrizgarria eta mugagarria izan dezakeelarik). Bestalde, izenlagunen edo izenondoan ohiko lekuan joanik (izen ardatzaren ezker edo eskuin aldean), balioak desberdinak, libroki, har ditzakete erlatibo arruntek.

#### 40.3. Euskal erlatibo «arruntaren» (-n) murriztapenak: zein diren erlatiba daitezkeen sintagmak

Gai hau azaltzean, gutxienez, bi neurri edo arau erabili izan dira. Arau estuaren arabera, baldintzapen morfologikoa (izen erlatibatuaren kasu-marka) da erlatibatzea noiz den posible eta noiz ez erabakitzen duen ia irizpide bakarra; alegia,

arau estuak, izen erlatibatuaren kasu-markaren arabera erabateko murriztapenak edo debekuak ezartzen ditu erlatibatzeari dagokionez. Arau zabalak, aipatu baldintzaren morfologikoen eragina ukatu gabe, lexikoaren eta testuinguruaren garrantzia azpimarratzen du: kasu-marken irizpide soilaren arabera ez dago debeku zorrotzik ezartzerik; izan ere, testuinguruari eta lexikoari esker (erlatibozko perpauseko aditzaren eta bere ardatzaren arteko erlazio semantikoari esker), sarritan arintzen edo altxatzen dira arau estuak ezarritako debekuak.

Gauzak horrela, erdibidea hautatzea iruditzen zait egokiena: eskuzabaltasun gehiegia, interpretazio-arazoak sor ditzakeen neurrian, ez da gomendagarriena hizkera teknikorako; arau estua ere —erlatibatzea ia kasu gramatikaletara soilik murrizten duena—, murriztegia iruditzen zait hizkuntzaren benetako funtzionamenduaren berri emateko.

*EGLU-V*-en arabera, kontu horietan gehienetan zirt-edo-zarteko legerik ematerik ez den arren, oro har, esan daiteke, erlatibatzeako eskala horretan hiru maila bereiz daitezkeela, eta mailakatze horretan, semantikazkoez aparte, faktore sintaktikoak eta morfologikoak ere kontuan hartzeko direla:

1) Lehen mailan, errazkienik, arazorik gabe, erlatiba daitezkeen izen-sintagma ditugu: subjektuak eta objektu zuzenak, erran nahi baitu kasu ergatiboa (NORK) eta absolutiboa (NOR) dakartenak. Sintagma datiboak (NORI) doi bat zailago dira erlatibatzeako, baina halere sail berean ezar daitezke.

- (10) (NOR) (a) [Lege honek (eremuA) araupetzen duen] eremutik kanpo ondorengo hauek guztiak geratzen dira  
 (a') [(LegeA) indarrean sartuko den] legea argitaratu da  
 (NORK) (b) Lan-eremutik at izango da [(pertsoneK) garraio-zerbitzua ematen duten] pertsonen jarduera  
 (NORI) (c) [(espedienteARI) Sarrera eman zaion] espedienteak bere bidea segitzen du

Dena dela, hiru kasu gramatikalen artean, agian, halako hierarkia egin liteke. Ergatiboa eta absolutiboa beti eta edozein testuingurutan erlatiba daitezke; baina datiboa ez da aurreko kasuak bezain aise erlatibatzen: testuinguru gehiago zehaztu ezean, (11)-ren interpretazio normalenak (11a) eta (11b) dira; (11c)-k testuinguru zehatzagoa beharko luke. (11d)-n ikus daitekeenez, predikatu osagarri diren izenak ere erraz erlatiba daitezke.

- (11) Aipatu dion gizonarenagana jo behar dugu  
 (NOR) (a) [(GIZONA) Aipatu dion] gizonarengana jo behar dugu  
 (NORK) (b) [{Datu hori} (GIZONAK) aipatu dion] gizonarengana jo behar dugu  
 (NORI) (c) [{Peruk datu hori} (GIZONARI) Aipatu dion] gizonarengana jo behar dugu  
 (NOR) (d) [(euskaldun kaxkarra) Naizen euskaldun] kaxkarrari ez horrelakorik galda!

2) (A) Bigarren mailan, aditzaren argumentu edo osagarri hurbilei dagozkien sintagma adberbialak ditugu, solas-inguramen egokietan bereziki aski errazki erla-



tibatzen direnak, baina kontesturik gabe hiztun anitzi franko bitxi iduritzen zaizkienak. Gutiz gehienetan, izen-sintagma hauen kasu-markak morfologikoki bakanak edo arinak dira: instrumentala (ZEREZ), eta, bizigabeekin, inesiboa (NON), adlatiboa (NORA) eta ablatiboa (NONDIK).

Beraz, izen erlatibatuak *-z*, *-n*, *-ra* edo *-tik* marka baldin badarama, daitekeena da perpaus erlatiboak sortzea (12a, 12b, 12c, 12d).

(B) Edozein kasutan, izen erlatibatuak eta izen ardatzak kasu-marka berbera eramateak beti errazten du erlatibo bidezko txertaketa: 12a', 12b', 12c' eta 12d' «naturalagoak» iruditzen zaizkigu 12a, 12b, 12c eta 12d baino.

(C) Esanak esan, baldintzapen morfologiko soila —izen erlatibatuaren kasu-marka— ez da aski erlatibatzearen mugak erabat argitzeko; hots, lexikoak (izen ardatza, perpaus erlatiboko aditzak eska dezakeen osagarrietako bat izatera, errazago onartuko dugu erlatibatzea: *bizi/herria...*) eta testuinguruak (12c) zeresan handia dute auzi honetan; horregatik, 12a'', 12b'', 12c'' eta 12d'' adibideek zalan-tza handiagoak sorrarazten dizkigute.

- |            |       |   |
|------------|-------|---|
| (12) (NON) | (a)   | [Ni (herriAN) bizi naizen] herriA oso ederra da   |
|            | (a')  | [ni (herriAN) bizi naizen] herriAN biziko zarete zuek ere   |
|            | (a'') | * [(erlojuAN) Zikenkeria handia aurkitu duzuen] erlojuAK beti ordu bera ematen du                     |
| (NORA)     | (b)   | [hura dagoen edo (tokiRA) doan] tokiA, denik ere, beste zenbait baino gutixeago jo du lur-ikarak      |
|            | (b')  | [hura (tokiRA) doan] tokiRA joango zarete zuek ere  |
|            | (b'') | * [Eskabidea (bulegoRA) zuzendu duzuen] bulegoa itxita dago   |
| (NONDIK)   | (c)   | Baina zertako sartzan naiz ni itsaso hondargabe honetan? [(oihaneTIK) Ezin atera naitekeen] oihanEAN? |
|            | (c')  | [Espedizioa (lekuTIK) abiatu zen] lekuTIK abiatuko gara gu ere  |
|            | (c'') | * [zuk argazki-makina (herrialdeTIK) ekarri duzun] herrialdea oso ederra da                           |
|            | (d)   | [zuek (herriTIK) igaro zareten] herriA oso itsusia da   |
|            | (d')  | Ibaia igarotzen da [zuek (herriTIK) igaro zareten] herriTIK   |
|            | (d'') | * [gizona (ateTIK) sartzan ikusi duen] ateA apurtuta dago   |
| (ZEREZ)    | (e)   | Aurkitu ote dute [(krimenaz) akusatu ninduten] krimenaren egilea?                                     |

Sail berean eman daitezke genitibo edutezkoan diren zenbait lokuzioren (*bila ibili, zain egon, galdez egon...*) osagarriak, objektu bati dagozkionak:

- (-EN BILA) (a) [Oihanean (haurREN) bila ibili ginen] haurrak azkenean agertu ziren

3) Hirugarren mailan erlatibagaitzak diren sintagmak ditugu, esan nahi baitu aditzaren argumentu edo osagarri hurbil bati ez dagozkion sintagma adberbialak. Postposizio bat barneraturik daukaten kasu-marka konplexuak edo pisuak, horrelakoak izaten dira maizenik: soziatiboa (*-ekin*), bizidunen toki-denborazko kasuak

(-*en*)gan / -*(en)*gana / -*(en)*gan(*d*ik...), eta ia beti destinatiboa (-*entzat*) eta motibatiboa (-*(en)*gatik).

Salbuespenak salbuespen, izen-sintagma hauek arras nekez erlatibatzen dira. Hala ere, (10b)-n esanak honako ere balio du; hau da, izen erlatibatuak eta ondo-koak kasu-marka berbera eramateak asko laguntzen du aipatu eragozpenak gainditzeko (\*13a/13a'). Bestalde, ez dago irizpide morfologikoetan oinarritutako debeku zorrotz eta erabatekorik ematerik, testuingurua (13b'', 13c'') eta lexikoa (13d'/\*13d'') lagun, sarritan gaintitzen baitira eragozpenak.

- |                       |       |   |
|-----------------------|-------|---|
| (13) (- <i>EKIN</i> ) | (a)   | *[Ni (lagunAREKIN) bizi naizen] lagunARI beka bat eman diote  |
|                       | (a')  | [(lagunAREKIN) Bizi naizen] lagunAREKIN joango naiz zintera   |
| (- <i>EN</i> )        | (b)   | *[(GizonAREN) txakurrak aginka egin didan] gizonAK asko estimatzen nau  |
|                       | (b')  | ?[(GizonAREN) txakurrak aginka egin didan] gizonAREN etxean bizi naiz   |
|                       | (b'') | [(norbaitEN) Izena ahantzia dudan] norbaitek erranik...   |
| (- <i>Z</i> )         | (c)   | *[(erlojuAZ) Hitz egin genuen] erlojuAK beti ordu bera ematen du  |
|                       | (c')  | [gu (arriskuAZ) konturatu ginen] arriskuAZ jabetu izan bazinete...  |
|                       | (c'') | Zuek ez zenuten [gu (arriskuAZ) konturatu ginen] arriskuA ikusten   |
| (- <i>ENGATIK</i> )   | (d)   | *[zu (ijitoARENGATIK) beldurtu zinen] ijitoa ona da   |
|                       | (d')  | [Bere burua (arrazoi harENGATIK) hil nahi zuen] arrazoiak ez da gogoratzen  |
|                       | (d'') | *[Bere burua (emazteARENGATIK) hil nahi zuen] emazteAZ ez da gogoratzen   |
| (- <i>ENGAN</i> )     | (e)   | *[(lagunENGAN) konfiantza duzun] lagunEK ez dizute huts egingo  |
|                       | (e'') | Goraki erranen diet nire gurasoei, [konfiantza osoa (apaizaRENGAN) ezarri zuten] apezA, nolako gizona den egiazki |

Ikus daitekeenez, aditzaren argumentu edo osagarri hurbil gisa agertzen direnean, erlatibatzeak errazkiago egiten ahal dira horrelako kasu-markak dituzten sintagmekin. Adibidez, ondoko adibide-pareetan, erlatiboen onargarritasuna ez da maila berekoa, morfologia bertsua duten arren:

- |                       |     |   |
|-----------------------|-----|---|
| (14) (- <i>ekin</i> ) | (a) | Goiz honetan hain luzaz solas egin duzun lagunak erran bide dizu      |
| (- <i>ekin</i> )      | (b) | *Goiz honetan gosaldu duzun lagunak erran bide dizu.                  |
| (- <i>engan</i> )     | (c) | Konfiantza duzun norbaiti galdatu behar zenioke                       |
| (- <i>engandik</i> )  | (d) | *Lehenago ere datu hori lortu zenuen norbaiti galdatu beharke zenioke |

Jakina, ahal dela, hobe da izen erlatibatua kasu gramatikal batean ematea: 15a', 15b', 15c' eta 15d' gomendagarriagoak dira, 15a, 15b, 15c eta 15d baino.

- (15) (NOREN) (a) \* [(gurasoEN) semea gerrara joana den] gurasoak oso kezkatuta daude  
 (NORK) (a') [(gurasoEK) semea gerrara joana duten] gurasoak oso kezkatuta daude  
 (NOREKIN) (b) \*[bizi naizen] lagunak asko estimatzen nau  
 (NOR) (b') [(lagunA) Nirekin bizi den] lagunak asko estimatzen nau  
 (NONGO) (c) Nolatan bada guk entzuten ditugu batbedera jaio izan garen mintzaira propioan mintzatzen?  
 (NOR) (c') Nola aditzen ditugu mintzatzen bakoitzak sortzetik dugun mintzairan?  
 (NOREN) (d) Ni naiz zuek galdez zaudetena  
 (NOR) (d') Ni naiz zuek bilatzen duzuen

#### 40.4. Testuinguruaren garrantzia

Esan bezala, berebiziko garrantzia du testuinguruak erlatibazioan. Alabaina, kontestu egokirik gabe gramatikaren aldetik ongi eratuak diren perpaus erlatiboak, batzuetan franko gogorrek eta bortxatuak bezala idurituko zaizkio euskaldunari. *Bazkaldu dugun etxea, natorren eliza, ahalke naizen liburua...* bezalako perpausak arraroak kausiko dituzte euskaldun anitzek, horrela, besterik gabe ikusirik.

Bizkitartean, guziz jatorrak dira behar bezalako solas-inguramenean baliatzen badira. Hona autore zaharretarik atera zenbait adibide:

- (16) (a) Zertako sartzen naiz ni (...) *ezin athera naitekeien oihanean* (Ax, *Gero*, §5)  
 (b) Nekhazalerik baizen *ezten herria* dela herririk hoberena (Ax, *Gero*, §249)  
 (c) Zer fruitu izan zenduten orduan, orain *ahalkez* (...) *zaudeten bekhatu hetan* (Ax, *Gero*, §249)  
 (d) Zeren bere kontzientzian barrena, ediren baillezakete, eskiribaturik bezala, *galdez dauden guztiaren* errepuesta (Ax, *Gero*, §273)  
 (e) Ni naiz zuek *galdez çaudetena* (Lç, *Ap. Eg.*, 10-21)  
 (f) Hi *aicen lekua* lur saindua duc (Lç, *Ap. Eg.*, 9-17)  
 (g) Eta ecin phoroga citcaquéé ni orain *accusatzen nauten gauçac* (Lç, *Ap. Ag.*, 13-13)  
 (h) Petirik (...) *morroi zegoen ugazabari* erantzunik erregarrienak botatzen zizkien (Etxaide, *Joanak Joan*, 431)  
 (i) Arte hortan, *jabe ziren urreak* zer eman deien, habil hi! (J. Etchepare, *Buruxkak*, 117)  
 (j) (...) ez baitute erditan deusik, edo bederen zinkurinez *dauden mina* ttipienetarik baita (J. Etchepare, *Buruxkak*, 180)

#### 40.5. Erlatibakuntza errazteko bideak

Gorago ikusi denez, zailtasunak arintzen dira zenbaitetan, izen-sintagma erlatibatuari dagokion kasua, eta beraz funtzioa, zein den erakusteko bide bat agertzen denean. Hona hemen, horietako batzuk:

##### KASU PARALELISMOA

- (17) (1a) [Joseba kalean (neskarekin) dabilen] neskarekin ezkondu nahi luke Patxik  
 (1b) \*[Joseba kalean (neskarekin) dabilen] neskak Patxirekin ezkondu nahi luke

#### IZENORDAIN ERRESUNPTIBOAK

- (18) (2a) \*Ez da [bizia eman nezakeen] gizonik
- (2b) Ez da [beragatik bizia eman nezakeen] gizonik
- (2c) *Beragaitik* galdu nintzan laguna (*Erderismos*, §125)
- (2d) *Beretzat* lan egiten dedan ugazaba (*Erderismos*, §125)
- (2e) *Bere* lan guztiak irakurri ditudan autorea da hura (*Erderismos*, §125)

Bigarren adibidean, izen-sintagma erlatibatuaren lekuan *beragatik* izenordain erresunptiboa agertzen da eta orduan hiztunak badu sintagma erlatibatuaren kasua jakiteko bidea, eta perpausaren interpretazioak ez du dudarik uzten. Zenbait euskal gramatikariek (Etxaidek edo Altubek) mende honen hastapenean, euskararentzat ere egokiak izan zitezkeela pentsatu izan dute, sintagma erlatibatu adverbiala den kasuetan bederen. Badirudi erdarazko testuak itzuli behar direnean bereziki baliatua izan dela jokabide hau, ez euskararen beraren berezko joera bati erantzuteko. Alde horretatik ez da gomendatzekoa izenordain erresunptiboen erabilera hau, nahiz badirudien beste inguramen batzuetan, bereziki erlatibo apositibaetan errazkiago onesten direla erresunptiboak. Erresunptiboa baztertuz gero, arras bestela adierazi behar dira gauzak. Horrelakoa izan da dudarik gabe joera nagusia orain arte.

#### SINTAGMA ERLATIBATUAK ADITZ-KOMUNZTADURA DAKARRENEAN

- (19) (a) ??[Semeak gerlara joanak diren] gurasoak
- (b) [Semeak gerlara *joanak dituzten*] gurasoak
- (c) ?[Hitz egin dizudan] idazleak (IS erlatibatua instrumentalean)
- (d) [Aipatu dizkizudan] idazleak

Lehen adibidean, IS erlatibatua *seme* izenaren izenlagunari dagokio, eta perpau-sa ulergaitza eta traketsa da. Bigarren perpausean, itzuli biltzailea erabiliz, izen-sintagma erlatibatua IS ergatiboari dagokio, eta perpau erlatiboa guziz naturala da.

Zenbait kasutan, ordean, numero-komunztadurako marka modu irregularrean erabiltzen da (19f, 19h) IS erlatibatua aditzean agerrarazteko:

- (19e) Auzo herrikoak direla esan *duzun* haurrek egin omen dute
- (19f) Auzo herrikoak direla esan *dituzun* haurrek egin omen dute
- (19g) Hartu al dituzu eramateko esan *nizun* liburuak?
- (19h) Hartu al dituzu eramateko esan *nizkizun* liburuak?
- (19i) Bada [[gizonek zuei egin dietzazuen] nahi *dituzuen*]gauza guztiak egin ietzazue (Lç, *Mat.*, 7, 12)

Kontuan harturik maiztasun ttikikoa dela eraikuntza hori, hobe litzateke zuhurki jokatzea puntu honetan, eta, errejistro jasoan behintzat adizkera erregularrak baliatzea, hiztunaren hizkuntza-sena bortizkiegi kolpatzen ez denean oroz gainetik.

#### LEKU-DENBORAZKO IZEN ARDATZA DUTEN PERPAUS ERLATIBOEI -KO ATZIZKIA EMANEZ (-NEKO)

Izen erlatibatua lekuzko kasuetako batean dagoenean, zenbait idazlek *-eko* atzizkia lotzen diote perpau erlatiboari, nolabait sintagma erlatibatuaren funtzioa eta eremu semantikoa seinalatuz. Ardatza lekuari edo aldiari dagokien elementu bat izendatzen duenean bereziki gertatzen da jokabide hau:

(20) Zure izanen dela, eta ez eroririk datzaneko lurraren jabearen (Ax Gero, §143)

Gaur egun, mendebaldeko eta erdialdeko idazleek bereziki baliatzen dute jokabide hau:

(21) Zaldi egingo zaneko egunaren begira egozan danak (Bilbao, *Ipuin Barreka*)

(22) Ni nengoaneko plaza (Añabitarte, *Afrikako basamortua*, 89)

Leku-denborazko postposizioekin ere erabiltzen da *-eko* atzizkia:

(23) Kilimon iturriak erteten duaneko ondoan dago (A. Zavala, *Mendara Txirris-taka*, hitzaurrea, 14)

Badirudi halere, tradizio zabalenaren arabera deusetan ez dela beharrezko *-eko* atzizkiaren eranstea hau:

(24) Ez naiz gogoratzen semea jaio zen egunaz

(25) hi haiçen lekua lur saindua duc (Lç, *Ap. Eg. 9, 17*)

(26) hura dagon edo dohan tokia (...) gutixago jo du lur ikarak (J. Hiriart-Urruty, *Zezenak...*, 16)

Deskodifikazioa errazteko helburuarekin zabaldu bada ere, ez du ematen interpretazioa gehiegi errazten duenik (bestela ere ulertzen diren perpausak — 12a, 12b, 12c... — ez dute ezer irabazten *-eneko* hartuaz eta ulergaitzak direnek — 12a'', 12b'', 12c'', 12d'' — ulergaitz izaten segitzen dute *-eneko* hartuta ere); b) tradizio urriko eta tradizio berriko baliabidea dirudi.

- (27) (NON) (a) ? Ni bizi naizeNEKO herria ederra da  
(a'') \*Zikinkeria handia aurkitu duzueNEKO erlojuak beti ordu bera ematen du
- (NORA) (b) ?Hura doaNEKO tokiA, denik ere, beste zenbait baino gutixeago jo du lur-ikarak  
(b'') \*Eskabidea zuzendu duzueNEKO bulegoa itxita dago
- (NONDIK) (c) ? Baina zertako sartzen naiz ni ezin atera naitekeeNEKO oihanean?  
(c'') \*Argazki-makina ekarri duzueNEKO herrialdea oso ederra da  
(d) ? Igaro zareteNEKO herria ederra da  
(d'') \*gizona sartzen ikusi duzueNEKO atea apurtuta dago

#### GALDE-IZENORDAIN ADBERBIALA ERRESUNPTIBO GISA ERABILTZEA

Zenbaitetan, olerkigintzan, galdera-izenordain adberbialak baliatuak dira ize-nordain erresunptibo gisa. Guztiz markatua da eraikuntza hau, Altubek begi onez ikusten bazuen ere:

(28) Guztiaç betan nekhazke çure oinen azpira  
Aingeruz inguraturic non çauðecen alkira (Etceberri, *Manual debozioneko*, 2, 19)

Jokabide hau, euskal gramatikaren ohiko erregelatarik kanpokoa dena, ez ohi da aurkitzen euskal testuetan.

#### 40.6. Erlatibo «klasikoa» (*zein bait-/n... ; non bait-/n ...*)

Erlatibo honetan jatorriz galdetzaileak diren hitzak (*zein, non*) erabiltzen dira erlatibozko izenordain gisara, erdal egitura kalkatuz edo. Albo-hizkuntzen eraginez sortua dirudi<sup>201</sup> eta nagusiki erlatibo ez-murrizgarria adierazteko erabili izan da (ik. 40.2). XIX. mendearen bukaera arte erruz erabili izan da, Iparraldeko idazle-en artean ez ezik, baita Hegoaldekoen artean ere. Baina XX. mendearen lehen erdian (Azkuegandik hasi eta Arestirenganaino) eten erabatekoa izan zuen, harik eta 1970eko hamarkadan egitura hori maila idatzirako berreskuratzearen aldeko iriztiak zabaltzen hasi ziren arte. Euskara mintzatuan ez dirudi inon zabalkunde handia lortu duenik, baina hizkuntza idatzian —itzulpenetan eta hizkera teknikoan— aberasgarria ez ezik, saihesten zaila den baliabidea ere izaten da<sup>202</sup>.

- (29) Greban dauden langileek hitzarmena sinatu dute enpresako zuzendaritzarekin [MURRIZGARRIA/EZ-MURRIZGARRIA]  
 (30) Baina jainkoak, ZEINA bethi atzarria baitago bere elizaren gainean, sustatu zuen gizon bat eta jauntzi apostoluen izpirituz. (*MarII*) [EZ-MURRIZGARRIA]  
 (31) Langileek, ZEINAK greban baitaude, hitzarmena sinatu dute enpresako zuzendaritzarekin [EZ-MURRIZGARRIA]

Ondoko oharkizunak egin behar dira erlatibo klasikoari buruz.

• *Zein* izenordainaren deklinabideari dagokionez, bitariko erabilerak izan dira: mugagabea (32) eta forma mugatua (33A/33B) deklinatu izan da. Dena den, deklinabide mugatuaren aldeko hautuan lekuzko kasuetan ez da aurkitzen *zeineko, zeinetik, zeinera* bezalako forma mugaturik, bai ordea *zeinean* (edo *non*). Honetaz, ez dago erabakirik; dena dela, mugatua (A nahiz B) izan daiteke tradizio hurbile-neko eredurik zabalduena. Edozein kasutan, eredu baten arabera jokatzea gomen-datzen da, eredu bateko eta besteko formak nahasian erabili gabe.

(32) MUGAGABEA	(33) MUGATUA			
	A EREDUA		B EREDUA	
	Sing.	Pl.	Sing.	Pl.
zein	zeina	zeinak	zein	zeintzuk
zeinek	zeinak	zeinek	zeinek	zeintzuek
zeini	zeinari	zeinei	zeini	zeintzuei
zeinen	zeinaren	zeinen	zeinen	zeintzuen
...	...	...	...	...
zeinetan	zeinean	zeinetan	zeinetan	zeintzuetan
...	*zeineko	zeinetako		
	*zeinetik	zeinetatik/zeinetarik		
	*zeinera...	zeinetara	...	...

<sup>201</sup> Hala ere, bilakaera hori (galde-hitzak izenordain bilakatzea, alegia) ez bide da hizkuntza erro-manikoena soilik; aitzitik, badirudi Europako hizkuntza guztietan gertatu dela bilakaera hori, behin kultura-maila jakin bat erdietsi dutenean.

<sup>202</sup> Ik. Alberdi eta Garcia (1996).

- Ez da ahaztu behar perpaus erlatiboko aditzak menderagailua (*bait-* ekialdeko tradizioan eta *-n* mendebaldekoan) hartu behar duela.

- Aurrekaria (azpimarratua adibideetan) *zein* hitzetik ahalik eta hurbilen uztea komeni da gaizki-ulertutako bidea saihesteko: (34a) hobetsi behar dugu eta (34b) baztertu.

(34) (a) Espainiako ordenamenduan negoziaketa kolektiborako eskubideak perfil berezia dauka, ZEINETATIK alderdi hauek azpimarra daitezkeen: (...)

(b) ? Negoziaketa kolektiborako eskubideak perfil berezia dauka Espainiako ordenamenduan, ZEINETATIK alderdi hauek azpimarra daitezkeen: (...)

- Hor zehar hedaturik dabilen ustearen aurka, erlatibo klasikoa erabiltzean aditza ez dago zertan bukaeran ipini (*zein ... baita*); are gehiago, idazleetan «*zein baita ...*», «*zeinek baitu ...*» dugu hurrenkerarik erabiliena.

- Itzulpenetan, erdal erlatibo perifrastiko batzuen helburua galdegaia markatzea denean, hobe erlatibo klasikoa ez erabiltzea. Aski izan daiteke fokalizatu nahi dugun elementua aditzaren aurrean jartzea: (35c) da hobestekoa eta (35b) baztertzekoa.

(35) (a) ESTE {= galdegaia} es el proceso mediante el cual se elige a los representantes

(b) ??Hau(xe) da prozedura, zeinaren bidez hautatzen baitira ordezkariak

(c) Ordezkariak HONELAXE hautatzen dira

- *Zein bait-/n* egitura aproposa izan daiteke goraxeago aipaturiko murriztapen edo eragozpenak gainditzeko, batez ere erlatibo ez-murrizgarriak badira.

(36) Kontsiderazio berezi bat merezi du sindikatuak enpresan duen jarduerak, ZEINEN zilegitasuna, nahiz eta espreski KEren 28. art.an aitortu ez, eztabaida ezina baita.

- Esan bezala, ZEIN-erlatiboa balio ez-murrizgarria eta ez-mugagarria emateko erabili da nagusiki (37a, 37b). Batzuetan balio murrizgarria baina ez-mugagarria (supra 40.2) izan dezake (38). Azkenik, esan behar da interpretazio mugagarria ere izan dezakeela, baldin eta izenordain erlatiboa kasu-marka adberbial batekin (*zeinetan*, *zeinetarik*...) erabilia bada (39); dena dela, (40) gisakoetan —determinatzaile mugagabea (40a), berezko erreferentzia (40b), artikulua generikoa (40c)— interpretazio murrizgarria baina ez-mugagarria egin behar da<sup>203</sup>.

(37) a. Samuelek ikhusi zuenean *Eliab*, haurridetarik zaharrena, *zeina* baitzen gizon handi eta iduri ederreko bat, erran zioen Jainkoari (Lg I 274)

b. baña balitz *garizuman zeinetan* ezin egon leitekian lexibia egin бага, orduban agindu leijo... (Astar I 274).

(38) Nik, gibelaxago gelditua nindagon lekhitik, ikhusten ditut orduan sasitik at heratzen, (...), *bi gizon bizardun, zeinek* gutiago izitu baininduten, batean ezagutu nuelakotz nere anaya (*Pad* 52).

(39) ... ethorria zela *orena zeinetan* gizonaren semeak utziko baitzuen bere burua etsaien eskutarat Jainkoari (Lg II 257).

<sup>203</sup> Ik. EGLU V: 235-240.

- (40) a. badiat beldurra ez dakikan, behar bada, zein abilki yokatu zen behin *Sarako yaun hauz' aphez bat*, *zeinak* izena baitzuen Erremundegibehere (*Pad* 71).  
 b. Zeren bekhatua baita *Iainkoaren* kontra, *zein* baita infinitu. Beraz gazti-gua ere eman behar zaika infinitua eta akhabatuko eztena (*Ax* 391).  
 c. Purgatorio handi eta sendagarri bat du *gizon pazienzitsuak*, *zeinak* bidegabertzatua denean damu geiago baitu bertzeren maliziaz bere atsekabez baino (*SP* 68).

Hona hemen, idazleengandik jasotako zenbait adibide:

- (41) (...) hau da athea zeinetarik iragan behar baita: (...) (ES)  
 (42) (...) eta elduko da eguna, zeinetan irakurriko yatan guztia erabatera. (Añ *EL* 2))  
 (43) (...); etoria zela orena zeinetan gizonaren semeak utziko baitzuen bere burua bere etsaieen eskutarat. ... (Lg)  
 (44) (...) zeren hura baita eguna, zeinetan Jesu-Kristo gure gure jauna bere phizteaz edo resurrezioez shartu izan baita bere errepausu eternalean (*Arbel Igand*)  
 (45) (...) jaun handi hura zeinaren aintzinean zeruak eta lurak ikharatzen baitira, zankapetan ibili dut ostikoka (*Dv, LEd*) [EZ-MUGATZAILEA]  
 (46) (...) da gura zeineki guziok jaiotzen beikira, (...) (*CatAe*)  
 (47) (...) bekatu hura zeintaz kutsaturik sortzen baikara Adam gure lehenbiziko aitaren bekatua dela kausa (*Mat*)  
 (48) (...) profetek erakusten dute eliza mendixken gaineko hiri bat bezala, argitu eta bildu behar dituen nazione guziak, mendi gora bat bezala zeinetarat etorriko baitire populuak ostez. (*Hb Egia*)  
 (49) (...) Maria sortzen da jainkoarentzat, haren zerbitzatzeko, haren maitatzeko haren ama izateko, sartzeko haren xede guzietan, zeinentzat egin izan baita gizon. (*Jaur*)  
 (50) (...) esperanza da berthute bat zeinek emaiten baiterauko fidanzia handi bat iainkoaren faborearekin batean zeruko loriaren ardiesteko. (*Mat*)  
 (51) (...) ekhar daitezke bertze hainitz exemplu zeinek erakhusterat emaiten baitute, denbora eta lekhu guzietan, (...) (*MarII*)  
 (52) (...) baldin ezagutzen baginu, birjina sainduak bezala, gaztigu horren handitasuna, urrikalmendu ekhar ginezokete hainbertze populuei, zeinek galdu baitute fedea, hainbertze bekhatorsei zeinek galdu baitute grazia; (...) (*Jaur*)

Gauzak horrela, *EGLU-V*-en arabera, (53b) itzulpena (erlatibo mugagarria) onargarria izango litzateke, izenordain erlatiboa kasu adberbial batekin dagoelako; baina horrelakoetatik kanpora, ez da batere gomendagarria *zein* erlatiboa balio mugagarriarekin erabiltzea (54).

- (53) «También habrán de señalarse de manera suficiente para que sean identificados, los documentos o pericias en que se base el motivo de la revisión de los hechos probados que se aduzca.» (*Ley de Procedimiento Laboral*, 193. art. 3.)  
 (a) ?? «Aipatzen den egitate frogatuen berrikuspenaren zioaren oinarri diren agiri eta peritu-lanak ere adierazi behar izango dira, eurak identifikatzeko behar adina hedapenez.» (*Lan Prozedurako Legea*).  
 (b) «Era berean, identifikatu ahal izateko moduan adierazi beharko dira agiriak edo peritu-lanak (.) ZEINETAN oinarritzen baita egitate frogatuak berrikusteko (aipatutako) zioa.»  
 (54) ¿\**Gizonek*, *zein* baitira gure aurrean mintzatu, elkar errespetatu behar lukete. [=gure aurrean mintzatu diren gizonek],



- Aldi berean, erdal erlatiboak itzultzeko dauden beste bide edo estrategia batzuk ere hartu behar dira kontuan, erlatibo klasiko delakoa arazo guztien «giltza» bihur ez dadin. Esate baterako, (53)-an beste aukera bat (55) izan liteke; eta (34)-an (56) (ik. 40.9 azpiatala).

(55) «Era berean, identifikatu ahal izateko moduan adierazi beharko dira *agiriak edo peritu-lanak, egitate frogatuak berrikusteko (aipatutako) zioa haietan oinarritzen baita.*

(56) ? Negoziaketa kolektiborako eskubideak perfil berezia dauka Espainiako ordenamenduan; *perfil horretatik* alderdi hauek azpimarra daitezke: (...)

- Batzuetan, Iparraldeko tradizioan batik bat, erlatibo klasikoaren egitura osoa erabili beharrean, haren forma laburtua (*bait-* soila, *zein* izenordainik gabe) erabiltzen da, balio ez-murrizgarria (57a) nahiz murrizgarria (57b?) izanik:

(57) (a) Eta Katonek (printzipaletarik bat *baitzen*) erran zuen guztiak desegin, plaundu eta lurrarekin berdindu behar zuela (...) (Ax. 18)

(Y Catón (que era uno de los más principales) dijo que había que deshacerla toda [la ciudad de Cartago], allanarla e igualarla con la tierra)

(b) Badira ur putzuak, berariaz eginak, zimenduan ithurria *baitute* (Ax. 156) (Hay pozos de agua, construidos expresamente, que tienen un manantial en su base)

(c) Las referencias normativas de este derecho se completan con la Ley Orgánica 11/1985, de 2 de agosto, de Libertad Sindical (LOLS), que ha venido a delimitar los ámbitos subjetivo y objetivo del mismo y a precisar sus garantías.

Eskubide honen arau-erreferentziak abuztuaren 2ko Askatasun Sindikaleko Lege Organikoarekin (ASLO) osatzen dira, *etorri baita* eskubide horren alor subjektiboa eta objektiboa mugatzera eta horren garantiak zehaztera.

- Batzuek uste dute *non bait-* egiturak denerako balio duela (\*58c''), baina egitura horren bidez lekua baizik ezin da adierazi (beraz, «zeinetan bait-» egituraren parekoa litzateke). Orobat esan behar da *zein* dela izenordain erlatibo gisa balia daitekeen galde-hitza eta *ez nor* (58d)<sup>204</sup>:

(58) (a) Hazi batzuk erori ziren leku harritsueta, NON ez baitzuten lur askorik.

(b) Eta ez da leku gorderik, NON ez den han tentagarririk.

(c) 19/1977 Legea, apirilaren lekoa, zeinak enpresaburuei eta langileei elkarte profesionalak eratzeko eskubidea aitortu baitzuen.

(c') 19/1977 Legea, apirilaren lekoa, enpresaburuei eta langileei elkarte profesionalak eratzeko eskubidea aitortu ziena.

(c'') \*19/1977 Legea, apirilaren lekoa, NON enpresaburuei eta langileei elkarte profesionalak eratzeko eskubidea aitortu baitzien.

(d) \*Orduan agertu zen gizon bat, *NORI* (→ *ZEINI*) beso ezkerrean falta baitzizaion.

<sup>204</sup> Euskaltzaindiaren gramatikan azaltzen denez, *nor* eta *zer* izenordainak ez dira erabiltzen aurreraria duten perpaus erlatiboetan; korrelatuetan (*Nor ere bizi baita etxe hartan, hark pagatu beharko du haren konponketa*), ordea, bai (*EGLU-V: 221. or.*).

#### 40.7. **Burua isildua duten erlatiboak: -(e)na(k)**

Erlatibo hautsi edo perifrastiko honetaz (59b, 59c adibideak) bi aholku eman-go ditugu: a) «GOBERNUA da eztabaida piztu dueNA» tankerakoen ordez, hobe da galdegai-sistema arruntaz («GOBERNUAK piztu du eztabaida») edo estilo zuzenaz baliatzea, galdegaia aditzaren aurreko lekuan jarritz; b) erlatibo hautsi honek perpaus luzeetan predikazioaren gunea den aditza urrunegi —bukaera-bukaeran— ipintzera eramaten gaitu eta hori abantaila baino areago traba izan daiteke komunikaziorako (60a).

Hala eta guztiz ere, erlatibo-mota honek baditu abantaila batzuk. Lehenengo «izen ardatza» eta ondoren, aposizioan edo, izen horri buruzko murriztapena ematen dugu (59b, 59c) eta ez alderantziz, euskal erlatibo arruntarekin (59a) gertatzen den legez. Beheko (59a), (59b) eta (59c) adibideak konparatzen baditugu, berehala ohartuko gara (59a) aukera askoz «astunagoa» edo buru-nekagarriagoa dela, erlatibo hautsia (59b, 59c) baino; aldi berean, (59b)-ren arriskua predikazioa (aditza) bukaerarako uztea izan daiteke (60a adibidean bezalatsu) eta alde horretatik, (59c) aukeraren alde makurtuko ginateke. Jakina, (59c)-ren egiturak alboko erdaren ordenara eramaten gaitu: (59a)-tik (59c)-ra dagoen aldea, euskal erlatibo arruntaren sintaxitik erdal erlatiboaren syntaxira (59) dagoen berbera dateke. Zenbaitetan, (59c) modukoak ezinbestekoak izango zaizkigula iruditzen zait, askok halakoen jatoritasuna zalantzan ipintzen badute ere.

(59) Por otro lado, esta Ley Orgánica contiene también reglas que tienden a fortalecer la posición jurídica de las principales organizaciones sindicales y, por consiguiente, a estabilizar el modelo de negociación social centralizada

- (a) Lege Organiko honek organizazio sindikal nagusien posizio juridikoa sendotzea eta beraz negoziazio-eredu sozial eta zentralizatua egonkortzea bilatzen duten erregela batzuk ere baditu.
- (b) Lege Organiko honek erregela batzuk ere baditu, organizazio sindikal nagusien posizio juridikoa sendotzea eta beraz negoziazio-eredu sozial eta zentralizatua egonkortzea BILATZEN DUTENAK.
- (c) Lege Organiko honek erregela batzuk ere baditu, BILATZEN DUTENAK organizazio sindikal nagusien posizio juridikoa sendotzea eta beraz negoziazio-eredu sozial eta zentralizatua egonkortzea.

(60) DESEGOKIA (perpaus luzea)  
a. Gainerako partiduak PP konbentzitzen saiatuko dira, ALDERDI HAU izan baita HBren eta EAJren arteko elkarriketek Ajuria Eneko Ituna bera kolokan jarri dutela *kritikatu duena*.

EGOKIA  
b. Gainerako partiduak PP konbentzitzen saiatuko dira, ALDERDI HONEK *kritikatu baititu* HBren eta EAJren arteko elkarriketak, Ajuria Eneko Ituna bera kolokan jarri dutela esanez.

Definizioetan ere, uste dut egitura hau oso lagungarria izan daitekeela: definizio laburretan (61) ez dago aparteko arazorik definizioaren muina bukaeran, bigarren mailako informazioaren ostean emateko; baina perpaus luzeetan zenbaitetan nahitaez aurreratu behar izaten da informazio-gunea, izen ardatza, alegia (62b).

Ordena sintetikoa —(62a) modukoena— antikomunikatibo eta antiinformatibo bilakatzen da<sup>205</sup>.

- (61) Baja: Langileak zerbitzuari uzten dionean, enpresaburuak Gizarte Segurantzari egin behar dion JAKINARAZPENA.
- (62) (a) Baliogabezia: ??? Akatsen batek jota aurkitzen diren egintza edo negozio juridikoak Zuzenbide osoz deusez edo deuseztagarri bihurtzen dituen (egintza edo negozio juridikoen) IZAERA.
- (b) Baliogabezia: Akatsen batek jota aurkitzen diren egintza edo negozio juridikoen IZAERA, egintza edo negozio juridikook Zuzenbide osoz deusez edo deuseztagarri bihurtzen dituena.

Bide batez, (62b) tankerakoetan adi ibili behar da komuntadura behar bezala egiteko. Hots, (63) modukoak okerrak dira:

- (63) Baliogabezia: Akatsen batek jota aurkitzen diren egintza edo negozio juridikoen IZAERA, egintza edo negozio juridikook Zuzenbide osoz deusez edo deuseztagarri bihurtzen \*DITUENAK / \*DUTENA / \*DUTENAK.

Beste akats bat, geroago eta gehiago zabaltzen ari dena, (62b) bezalakoetan bigarren zatian *-na(k)* erlatiboaren ordez *-la* konpletiboa erabiltzea da<sup>206</sup>: beheko (64) eta (65) agramatikalak dira<sup>207</sup>.

- (64) Baliogabezia: Akatsen batek jota aurkitzen diren egintza edo negozio juridikoen IZAERA, egintza edo negozio juridikook Zuzenbide osoz deusez edo deuseztagarri bihurtzen \*dituELA (→ dituENA).
- (65) Neska batzuk agurtu ditut zu ezagutzen \*zaituzteLA (→ zaituzteNAK)

• **Erlatibo generiko edo askeak: *-na; nor ere ... bait-***

Aurreko egitura aurrekaririk gabe ere erabil daiteke; orduan erlatibo generikoaz mintzatuko gara. Ekialdeko euskalkietan zenbaitetan «*nor ere ... bait-*» egitura korrelatiboa ere erabiltzen dute, aurreko erlatiboaren ordez. Erlatibo generikoak dira biak:

- (66) (a) Dohatsua da NOR ERE prestuki bizi izan eta ongi hil BAITa.  
(a') Dohatsua da prestuki bizi izan eta ongi hiltzen deNA.  
(b) NORK ERE galduko BAITu bere bizia ene kausaz, edirenen du hura.  
(b') Niregatik bere bizia galduko dueNAK, aurkituko du hura.  
(c) NOR ERE BAITzara, adiskidea, barka iezadazu ene bizitasuna.  
(c') ZareNA zarella, adiskidea, barka iezadazu nire bizitasuna.

Ardatzik gabeko perpaus erlatibo generikoen badute ardatza dutenek ez duten berezitasun formal bat: artikularekin agertzen direnean, haien barneko adizkera jokatuak (*-na(k)*) ez du nahitaez azkenean agertu beharrik. Horrela, perpaus erlatiboaren barneko osagai bat, edo gehiago, perpaus erlatiboari lotzen zaion hondarkiaren eskuinean eta honen segidan ager daiteke. Hona zenbait adibide:

<sup>205</sup> Ik. Kaltzakorta (1997: 16) eta Zabala (1996:116).

<sup>206</sup> Ik. 36.2 azpiatala.

<sup>207</sup> Euskaltzaindia (1994c: 962-963).

- (67) (a) [Andaluztarrak ixil-mixil esan dautsona *markiñarrari*] da, alkar ilten ibili barik, baratoa erdi bana artzia obeto ez ete deritxon, eta bestiak baitz ba (D. Agirre, *Kresala*)
- (b) Zuk esan biar etzenduban ondo acija bacengoz, [esan deustazuna *aurquez aurque, edo neure musu garbijetan*]; guzurra dinodala, asto andi bat nasala. (Moguel, *Peru Abarka*, 49)

Ardatzik gabeko perpaus erlatibo generikoetan are gogorrago gertatzen dira erlatibatze eskalari dagozkion zailtasunak: esan daiteke haietan osagarri gramatikalak bereziki erlatiba daitezkeela, eta oroz gainetik subjektuak, objektu zuzenak, eta osagarri datiboak:

- (68) (a) Behin ebatsi duenak bitan egin dezake [ergatiboa]  
 (b) Biziko denak ikusiko du [absolutiboa]  
 (c) Sagarrak gustatzen ez zaizkionik ez da [datiboa]  
 (d) \*Bizi naizena ederra da [inesiboa]  
 (e) \*Joaten naizena urrun da [adlatiboa]

Perpaus erlatibo apositiboetan, ordea, erlatibatze murrizketa ez da hain urrun joaten: aditzondo diren sintagmak ere erlatiba daitezke:

- (69) (a) Ba ote da bazter bat ez naizena izan? [inesiboa] (Villasante, 1976: 96)  
 (b) Ethorriko da denbora, deabruak laguntzarik eginen *ezteraukuna* [inesiboa] (Ax, §333)

Ekialdeko euskalkietan ageri den «*nor ere ... bait-*» egiturak, zenbaitetan, *hura/haina* korrelatua du perpaus nagusian; hain zuzen ere, horregatik deitzen zaie «korrelaziozko perpausak» edo «perpaus korrelatiboak». Hona zenbait adibide:

- (70) (a) NOREKIN ERE BAITzabiltza, HURA meziprezatzen duzu.  
 (zurekin dabilena meziprezatzen duzu)  
 (b) Ezen NORK ERE BAITu, HARI emanen zaio.  
 (=Duenari emanen zaio)  
 (c) NORK ERE begiratuki ateratzen BAITitu solasak, HAINA umoa da eta jakina.  
 (solasak begiratuki ateratzen dituena da umoa eta jakina)

#### 40.8. Erlatibo jokatu gabeak

Erlatibo jokatu en aldamenean, erlatibo jokatu gabeak edo erlatibo laburuak ditugu. Hiru aukera nagusi ditugu: a) partizipio soila (71a/71b); b) *-tako* atzizkiak jantzi-tako partizipioa (72a/72b); c) *-(r)iko* atzizkiak jantzi-tako partizipioa (73a/73b).

- (71) (a) Goizean etorri gizona (b) Zuk itzuli liburua ez da inolaz ere ulertzerik
- (72) (a) Goizean etorritako gizona (b) Zuk itzulitako liburua ez da inolaz ere ulertzerik
- (73) (a) Goizean etorriri(ka)ko gizona (b) Zuk itzuliri(ka)ko liburua ez da inolaz ere ulertzerik

Hala ere, ekintza burutueterako bakarrik balio dute. Eta izen erlatibatua absolutiboan egoten da maizenik (74), bakanago ergatiboan (75) eta oso nekez datiboan. Inoiz anbiguotasun-arazoak sortzen dira (76, 77).

- (74) Gizonak egindako mintzaldia irri egingarria zen
- (75) Mintzaldia egindako gizona irri egingarria zen
- (76) Otsoak jandako azeria ikaragarri handia zen
  - (a) Otsoak jan zuen azeria ikaragarri handia zen
  - (b) Otsoak jan zituen azeria ikaragarri handia zen
- (77) Neskak agurtutako mutilak pozik ikusi ditut
  - (a) Neskak (NOR) agurtu dituen mutilak pozik ikusi ditut
  - (b) Neskak (NORK) agurtu dituen mutilak pozik ikusi ditut

Hona hemen, hizkera juridikoko zenbait adibide:

- (78) (a) *Aipaturako* agindu horiek betez...
- (b) *Lortutako* akordio horrek balioa eta eraginkortasuna izan dezan
- (c) Akordioan *ezarritako* baldintzen esanahia eta irispidea...
- (d) Legezko oporraldian ezin da *ordaindutako* lizentzia edo baimenik hartu.
- (e) ...bidegabeki *eskuratutakoa* itzuli egin beharko du
- (f) ...baldin eta utzi egiten badu *ordaindutako* lan oro
- (g) Mailegu-eskabideak aurkezteko epea, arrazoitzat *hartutako* gertaeratik hasi eta bi hilabetekoa izango da.
- (h) Akordio hau berez eta besterik gabe amaitutzat joko da aurreko atalean *aipaturiko* mugaeguna iritsitakoan.
- (i) Hitzarmen honetako arauak, batetik ... Kutxari eta bestetik *aipaturiko* erakunde horietan lanean ari den pertsonalari aplikatuko zaizkio.

#### 40.9. Erdal erlatiboak itzultzeko beste bide batzuk

Testuinguruaren arabera, erdal erlatiboaren ordez beste egitura batzuk ere erabil ditzakegu euskarara itzultzean. Erlatibo ez-murrizgarrien kasuan batik bat, balioari erreparatu behar zaio itzulpen mimetikoa egin baino lehen, erdal erlatibo ez-murrizgarriak —euskal *bait*- soilak bezalaxe— balio ugari hartzen baititu testuinguruaren arabera. Hona hemen, estrategia horietako batzuk<sup>208</sup>.

##### • PERPAUSAK ZATITZEA:

Sarritan aurrekariari erreferentzia egiten dion erakusleak (*hori...*) edo adberbioak (*horrela...*) bete dezake izenordain erlatiboaren zeregina.

- (79) (a) La regulación de la libertad sindical se inició en la etapa preconstitucional, en un proceso paralelo al de la transición política, *cuyos principales eslabones normativos fueron* ...
- (b) Konstituzio aurreko etapan hasi zen askatasun sindikalaren erregulazioa, transizio politikoaren prozesu paralelo batean; *HORREN arauzko pauso nagusienak izan ziren...*

<sup>208</sup> Garcia (1996:185-193).

- (80) (a) La posible impugnación de la legalidad del sindicato ante la autoridad judicial no exime, por consiguiente, a la Administración de disponer la publicación de sus estatutos, *lo que significa una solución legislativa mucho más acorde con el principio de libertad que la que prevé la Ley de Partidos Políticos de 4 de diciembre de 1978.*
- (b) Sindikatuaren legezketasuna autoritate judizialaren aurrean aurkatu ahal izateak, beraz, ez du libratzen Administrazioa haren estatutuak publiko egiteak. *Lege-konponbide hau askoz ere adosago dago askatasun-printsipioarekin, 1978ko abenduaren 4ko Alderdi Politikoen Legeak aurreikusten duena baino.*

• *ETA JUNTAGAILUA:*

- (81) (a) Por otra parte, el Tribunal Constitucional ha realizado una interpretación extensiva del derecho a no afiliarse, *en virtud de la cual, hay que entender prohibidas no sólo la imposición o la obligación de sindicarse, sino también las presiones indirectas para hacerlo...*
- (b) Bestalde, Auzitegi Konstituzionalak interpretazio zabala egin du ez afiliatzeko eskubidearena, *ETA HORREN arabera debekaturik gelditzen dira, ez bakarrik inor sindikatuzera behartzea edo obligatzea, baizik eta horretarako zeharkako presioak ere bai, ...*

• *ZEHARGALDERA:*

- (82) (a) Para comprender *la razón por la cual los resultados son erróneos* hay que tener en cuenta los siguientes indicadores...
- (b) *Emaitzak zergatik diren okerrak* ulertu ahal izateko hurrengo indikadoreak hartu behar dira kontuan...

• *PERPAUS ARRUNTA:*

- (83) (a) La pena puede ser mayor o menor, *lo cual depende de dos factores...*
- (b) Zigorra handiagoa edo txikiagoa izan daiteke, *ondoko faktoreen arabera...*
- (84) (a) No obstante, la Constitución ha prohibido la sindicación de los jueces, magistrados y fiscales en activo (art. 127.1), y ha previsto también que mediante ley pueda limitarse o exceptuarse el ejercicio de este derecho en el caso de los miembros de las Fuerzas o Institutos armados o de los demás cuerpos sometidos a disciplina militar (art. 28.1); *excepción que efectivamente ha sido establecida por la LOLS* (art. 1.3).
- (b) Hala ere, Konstituzioak debekatu egin du jardunean dauden epaile, magistratu eta fiskalen sindikazioa (127.1 art.), eta berebat aurreikusi du, ezen lege bidez mugatu edo salbuetsi daitekeela eskubide honen egikaritzea Indar edo Institutu armatuetako kideentzat edo diziplina militarra segitu behar duten beste gorputzentzat (28.1 art.); *salbuespen hau ASLOk ezarri du benetan* (1.3 art.)

• *GALDEGAIAREN ERABILERA EGOKIA:*

- (85) (a) *Esta es la razón por la que el Tribunal Constitucional ha confirmado* la validez de esta limitación...
- (b) *Arrazoi horregatik konfirmatu du* Auzitegi Konstituzionalak mugapen honen balioa...

• *BAIT-* MARKA SOILA:

- (86) (a) Orduan lurrean datzanak, *herstura handian baitago*, erraiten dio bere etsaiari...  
 (b) Entonces el que está derribado en tierra, *que se halla en gran apuro*, dice a su enemigo...  
 (87) (a) Pero en el caso de los pequeños detalles, la atmósfera, *que está siempre en movimiento*, lo enturbia todo.  
 (b) Baina detaile txikiei dagokienez, atmosferak, *etengabe mugitzen baitabil*, dena uhartzen du.

• *PERPAUS KONTZESIBOA*:

- (88) (a) El elefante —*que es un animal grande*—, cuando es joven tiene las rodillas y demás articulaciones bien flexibles, con facilidad de dobla y pliega.  
 (b) Elefanteak —*animalia handia baita / animalia handia bada ere*— bere gazte-denboran belaunak eta gainerako beste junturak zalu ditu, errazki doblatzen eta pligatzen ditu.

41. KOMUNZTADURA APOSIZIOETAN: ??*DONOSTIAKO ALKATEAK, ELORZA JAUNA, AURKEZTU DU...*<sup>209</sup>

41.1. *Aposizio-motak*

Aposizioetan honako mota bi hauek bereiz daitezke, besteak beste:

a) Batzuetan, mugatzaile-hondarkiak aposizio-egituraren azken buruan baizik ez dira ageri:

- (1) a. Irungo alkate Alberto Buen Lacambrak esan duenez [...] ari  
 b. Andoni Zubizarreta Valenciako atezainari saria eman diote  
 c. Gu gazteon alde ez da inor mintzo

Horrelakoetan aposizioa izen-sintagmaren *barnean* egiten dela esan daiteke, nolabait. Ikus testuetan ageri diren batzuk:

- (2) a. Guzikko Andre Noble Ioanna Albrete Nafarroako Reguina Bearnoko Andre gehién &c, denari (Lç \*v)  
 b. Ioannes Etcheberri Doctor Theologo, eta Manual hunen eguilleari bere adiskideak (EZ *Man* A1v)  
 c. Dedikationea ene Iaun Claudius de Rueil, Baionako Iphizpiku digne, Erregueren Conseillerari, eta Parizko semeari (Ibid. A3v)  
 d. Aita Prai Bartolome Santa Teresa, Markinako Karmen Ortozeko predikadoriak prestatuba (fB *Olg* azala)  
 e. Jesu-Cristo geure Jaun curutzian josiari (fB *Olg* 3)  
 f. Mur de Abadi, Arraztoi jauregiko jaun, jakintsuen baldernako ihardesdunari (Dv *Lab* aurk)  
 g. Don Beltramo Oñez Loiolako Jaunak Bizkaitarra zuen Andrea (Laph 1)

<sup>209</sup> Euskaltzaindiaren 109. araua.

b) Beste batzuetan, berriz, lehen elementua bera ere mugatzaile-hondarkiak eta guzti ageri da, sintagma aposatua bezala:

- (3) a. Irungo alkateak, Alberto Buen Lacambrak, hitz bi esan ditu ospakizunaren hasieran.
- b. Txalo artean egin diote agur Andoni Zubizarretari, Valenciako atezain handiari.

Hauetan, bada, aposizioa izen-sintagmen *artean* egiten dela esan daiteke, aurrekoetan ez bezala. Hona horrelako batzuk idazle zaharretan:

- (4) a. [...] bere zerbitzari guzizko xipiak eta guzizko obedientak, Joannes Leizarraga Beraskoizkoak (Lç \*v).
- b. Niġ Joannis de Hariztegi Ziburuko erretor eta theologian professorak irakurri dut [...] (Hm 7)
- c. Don Beltramoren ahaide hurbil batek, Naierako dukiak itsutuki maite zuen ñiazio (Laph 2)
- d. Berorren Gortasunari, gure Jaun eta Printze Bizar Luis-Luziano Bonaparteri (Dv Lab az)

Aposizio batzuk lehen modura egiten dira beti: *Urola ibaitik, Axular ikastolara...* Beste batzuk, berriz, bietara egin daitezke: *Campion, euskaltzale fin hark* nahiz *Campionek, hainbeste aldiz gogoratzen dugun idazle fin hark*. Badirudi, hala ere, etena handia denean bigarren mota erabiltzeko joera nagusitzen dela (ik. *EGLUI*, 312).

Esan gabe doa egitura konplexuagoak ere era daitezkeela, aposizio-mota biak metatuaz:

- (5) Koldo Moralesek, Euskal Herriko Unibertsitateko Errektoreorde, Akademi Ordenamendurako arduradunak baiezkua eman dio plan berriari.

Horrelako aposizioan, bada, kontua eskema laburrera ekarriz, honako egitura hau dugu:

(6)  $IS [ ] IS [ [ ] ]$

Aposizioa ez ezik juntadura ere erabil daiteke horrelako egitura konplexuetan, goiko (4b) eta (4d) adibideetan eta ondoko honetan ikus daitezkeen bezala:

- (7) Chaban-Delmasek, Bordeleko auzapez eta Pariseko Diputatuen Biltzarreko ki-deak, utzi egin ditu kargu guztiak.

Horrelakoetan eskema honako hau da:  $IS [ ] IS [ [ ] ]$  eta  $[ ]$

Egokiak gerta daitezke horrelako egiturak izen-sintagma askoren arteko aposizio jarraituak berarekin izan ohi duen pisua zerbait arintzeko.

## 41.2. Komuntadura

1. Lehen motako aposizioan ez dago komuntadura-arazorik, mugatzailea eta hondarkiak ez baitira azken buruan baizik ageri. Gogoan izan behar da, hortaz, lehen elementuak ez duela, horrelakoetan, mugatzailerik hartzen.



- (8) a. \*Irungo Alkatea Alberto Buen Lacambra [...]
   
b. \*Zure laguna Dublinen bizi denari sari bat eman diote

Zuzenak izango lirateke horiek aposizioaren lehen elementua *Irungo alkate* eta *Zure lagun* balira, hurrenez hurren.

Mugatzaile eta guzti eratuak diren izen bereziek, hala ere —*Paulo VI.a, Antso Azkarra, Pernando Amezketarra* eta horrelakoek—, bere horretan gordetzen dute mugatzailea aposizioetan ere:

- (9) a. Paulo VI.a Erromako Aita Santuak (\*Paulo VI. Erromako Aita Santuak).
   
b. Antso Azkarra errege ausartari (\*Antso Azkar errege ausartari).

2. Bigarren motako aposizioan, berriz, sintagma bien arteko komuntadura egitea da ohikoena, mugatzaile-hondarkiak sintagma bietan ipiniz, goiko (3) eta (4) adibideetan ageri den bezala. Hori da ohikoena eta bitxi egiten da sintagma hondarkiaz gabetua ematea:

- (10) a. ??Irungo alkatea, Alberto Buen Lacambra\_hitz bi esan ditu bileraren hasieran
   
b. ??Txalo artean egin diote agur Andoni Zubizarretari, Valenciako atezain handia

Bigarren motako aposizio hauen artean badira batzuk maiztasunagatik-edo be-  
rriaz aipatzea merezi dutenak.

Horrela, esate baterako, lehen sintagmaren buruan *bat* mugagabea dutenak:

- (11) a. Orduan esan zezan haren diszipuluetarik batek, Iudas Iscariot Simonen semea, hura tradituren zuena (Lç 187)
   
b. Begietako bista batek, behingo behatzea [...] arrotzen du bihotza (Ax 256)
   
c. Millen artean hautatuko duzun gizon xoil batek, zure kofesora, ezagut detzake (Mih 36)
   
d. Donostiako irakasle entzutetsu batek, Jose Manterolaa, oraintxe hamasei urte argitaratu ebazan [...] (Azc PB3)
   
e. Fonetista trebe batek, Navarro Tomas jauna, gauza asko eta asko erakutsi zigun (MEIG VI 101)
   
f. Gero eta larriagoa da euskaldunok langile argi eta porrokatu bati, A. Manzidor jesulagunari, diogun zorra (MEIG II 122)

Beste bat, sintagma aposatuan erlatibo arrunta duena. Hona zenbait adibide, erlatiboen txostenean aipatuak:

- (12) a. Zure ttipia, oraiño errorrik ez tutena, ezin athera ditzakezu
   
b. Zoazte [...] su eternalera, akhabatuko ez denera (ibid. §375)
   
c. Jende gazte arinena, zenzuz baino zangoz fidago direna ofizioa da dantza (ibid §268)

Sarritan biak batera ageri dira, hau da, lehen sintagma mugagabea eta bigarrena aposatua:

- (13) a. Hetarik batek, Cleofas deitzen zenak, ihardetsi zion (Lg II 288)  
 b. Ikasletako batek, Yesusek maite zuenak, bere burua Yesusen bular gañean etzanik zeukan (Ir YKBiz 443)  
 c. Gero Lapurdiko idazle batek, d'Arambilaga zeritzanak, itzuli zituen Imitazioenaren bi azken zatiak (Zerb *Azk* 59)  
 d. Hetarik batek, nik ongi ezagutzen dutanak, [...] Juan zuen izena (Elsb *Fram* 72)  
 e. Asma dezaket, gainera, gutti gora-behera zer esan nahi luketen 1978ko euskaldun batentzat, mintzatzen zaizuenarentzat esaterako (MEIG IV 81)

Goiko adibide horietan guztietan aposizioan dauden sintagma biak elkarren segidan ageri dira, bata bestearen ondo-ondoan. Zenbaitetan, hala ere, sintagma aposatu erlatiboa atzeratu egiten da sintagma bien artean perpausaren beste osagai batzuk sartuz.

- (14) a. Gizon batzuk [etorri ziren] aspaldi ikusi ez nituenak  
 b. Hainbertze lan mota [baitauka lurra] begi ala eskuak xuxen jarraitzea galdatzen dutenak (JE *Bur*)  
 c. Debru franko [badela] saindu itxura hartzen duenik (Els *PAD* 11)

Horrelako gibeleratzea, hala ere, sintagma absolutiboa edo partitiboa denean bakarrik egin daiteke, ez gainerako kasuetan:

- (15) a. \*Gizon bati [mintzatu zitzaion] ongi ezagutzen duzunari  
 b. \*Etxe batean [bizi zen], leihorik ez zuenean

3. Gorago esan bezala, aposizioan dauden sintagma bien artean komuntadura egitea da ohikoena. Horixe da joerarik ohikoena eta ia gutzitzaia<sup>210</sup>.

Zenbaitetan badirudi bigarren sintagma aposizioa ez baina perpausaren egituratik aparte erantsitako tartekia edo parentesi moduko zerbait dela. Horrela, esate baterako, perpausaren hondarrea doanean, haren azalpen aske bezala edo:

- (16) a. [...] bere sehi zahar batentzat, aspaldian ezindua, bainan Nagusiak maite zuena bere haurride bat bezain osoki (Arb *Igandk* 89)  
 b. Diotenez, ezkontzeko asmoetan ibilli bear zuen, Lasarteko gazte batekin, peletari bikaña, Aprikara joan zana, nola deitzen diote bada? (Alz *Ram* 111)

Perpausaren barnean ere gerta daiteke hori, parentesi izaera agerian dela. Lagungarri izan daiteke horrelakoetan marratxoak erabiltzea:

- (17) a. Gure herriko alkateak —musikazale amorratua bera— begi onez ikusi du kontzertu-gela berria egiteko proiektua.  
 b. Haren etxean —aski zabala, ene ustez— erraz kabituko gara denok.  
 c. Datorren larunbatean —hilak zortzi— hasiko da ehiza-garaia.

<sup>210</sup> Erabilera lasaiagoan, hala ere, absolutiboan ager daiteke inoiz sintagma aposatua lehenak beste-lakoak izanda ere —euskara mintzatu gertatzen da hori inoiz, gutxiagotan idatzian—. Dena dela, perpaus baruan komuntadurarik gabeko aposizioa duten kasuak guztiz bakanak dira. Hona etsenplu gutxi horietatik batzuk:

- (1) a. Gure Jainkoak, beti xuxen dabilana, ongi gidatzen baitu (M. Ariztia, *Amattoren uzta*, 16)  
 b. Hunek dote eraman Philip ederrari / Frantziako tronuan behar zena jarri (Hb *Esk* 1448)

Erabilera lasai hori, esan bezala, areago gertatzen da etenak, tartekiak eta horrelakoak maiz samar izaten dituen euskara mintzatuan, jardun egituratuagoa izan ohi duen idatzian baino.

### 41.3. Araua

1. Aposizioa izen-sintagmaren barneko izenen artean egiten denean ez da komunztadura-arazorik sortzen, hondarkia ez baita sintagma osoaren azken buruan baizik ageri:

- (18) a. Unibertsitateko Errektoreorde Edurne Mendiluzek aurkeztu du txostena.
- b. Edurne Mendiluze Unibertsitateko Errektoreordeari aurkeztu diote txostena.

Horrelakoetan, bistan da, lehen izenak ez darama mugatzailerik:

- (19) a. Unibertsitateko Errektoreorde(\*a) Edurne Mendiluzek aurkeztu du txostena.
- b. Zure lagun(\*a) Dublinen bizi denari sari bat eman diote.

Mugatzailea izenaren beraren osagai egina duten izen bereziek, ordea —*Paulo VI.a, Antso Azkarra* edo *Pernando Amezketarra* bezalakoek, alegia—, gorde egiten dute hura aposizioan ere:

- (20) a. Paulo VI.a Erromako Aita Santuak (\*Paulo VI. Erromako Aita Santuak).
- b. Antso Azkarra errege ausartari (\*Antso Azkar errege ausartari).
- c. Pernando Amezketarra bertsolari ezagunaren ibilerak (\*Pernando Amezketar bertsolari ezagunaren ibilerak).

2. Izen-sintagma osoak aposatzen direnean, berriz, komunztadura egitea da ohikoena, hondarkia sintagma aposatueta ere ipiniz:

- (21) a. Nire lagun Ferminnek, piano-jole trebeak, kontzertu asko eman ditu aurtan.
- b. Fermin Garro irakasleari, lizentziatura egin berri duenari, eman diote lanpostu hori.
- c. Zure lagunarekin, Unibertsitateko irakaslearekin, mintzatu naiz gaur.

Komunztadurarik gabeko aposizioak lekukotasun urriagoa du tradizioan, batez ere perpaus barruan kokatua dagoenak, eta, hortaz, ez da gomendatzekoa:

- (22) a. ??Nire lagun Ferminnek, piano-jole trebea, kontzertu asko eman ditu aurtan.
- b. ??Fermin Garro irakasleari, lizentziatura egin berri duena, eman diote lanpostu hori.
- c. ??Zure lagunarekin, Unibertsitateko irakaslea, mintzatu naiz gaur.

Zenbaitetan, perpausaren joskeratik aparte, eranskin edo tarteki aske gisa ematen da bigarren sintagma eta ez sintagma aposatu gisa. Areago gertatzen da etenak, tartekiak eta horrelakoak maiz samar dituen euskara mintzatuan, jardun egituratuagoa izan ohi duen idatzian baino. Horrelakoetan, jakina, benetako aposiziorik ez dagoenez, ez da komunztadura egiten.

Errazago onartzen dira horrelakoak, tarteki-izaera argia denean:

- (23) a. Gure herriko *alkateak* —musikazale amorratua bera— begi onez ikusi du kontzertu-gela berria egiteko proiektua.
- b. Haren *etxean* —aski zabala, ene ustez— erraz kabituko gara denok.
- c. Datorren *larunbatean* —hilak zortzi— hasiko da ehiza-garaia.

42. *BI URTEAN EGON ZEN # BI URTETAN JOAN ZEN. LAU URTEAN BEHIN; \*LAU URTERO...*<sup>211</sup>

42.1. **Iraupena adierazteko**

Absolutiboaz (1b) eta instrumentalaz (1a) gainera inesiboa (2a, 2b) erabiltzen da maiz iraupena adierazteko sintagmetan.

- (1) a. Jonas *iru egunez egon* izan bai zan balearen erraietan, beronelaxe Gizase-mea, Jesus bera, *iru egunez egongo* da lurraren baiten, esan izan zuan Jesus-ek aurretik (Inza *Azalp*, 174).
- b. Ezen hala nola Ionas balearen sabelean *hirur egun eta hirur gau* izan baitzen: hala izanen da gizonaren Semea lurraren bihotzean, *hirur egun et hirur gau* (Lç 22).
- (2) a. Erroman *bi urtean egon* zan (Lard, *Test. Zar. Berr. Condaira*, 531).
- b. (...) *bi urtetan* bukatuko nuke idazlana (MEIG, 95).

Aurreko adibideetan ikusten denez, instrumentalean eta absolutiboan iraupena mugagabearen bidez ematen da aditzera (1a, 1b).

Inesiboko sintagmei dagokienez, mugagabea erabiltzea zilegi izanagatik (2b), mugatu singularra (2a) erabiltzea hobesten da honako kasu honetan: zenbatzaile-dun sintagma horrek adierazten duen denbora etengabeko unitate bakar gisa hartzen denean, hots, inesiboaren bidez prozesu edo gertaera baten iraupena adierazten denean. Adibidez,

- (3) a. *Hiru astean* asko hazi da haurra.
- b. *Hiru urtean* ikasi du euskara.
- c. *Lau urtean* lan egin du Afrikan.

Hauetan denetan iraupena adierazten da.

Iraupenik adierazten ez denean, noski, mugagabeak ohiko lekua izango du. Hiru urteko iraupena adierazi beharrean hiru urte desberdinetan gertatu den zerbait adierazi nahi bada, mugagabea beharko da:

- (4) *Lau urtetan antolatu dute tanborrada.*

---

<sup>211</sup> Euskaltzaindiaren 110. araua («Iraupena eta maiztasuna adierazten duten sintagma zenbatzaile-dunetan mugatu singularra noiz erabil daitekeen»).

## 42.2. Maiztasuna adierazteko

Maiztasuna adierazteko ereduen artean, mugagabeko erabilerekin batera, hots:

- (5) a. *Lau urtez behin* elkartzen dira senitartekoak.
- b. *Lau urtetarik behin* elkartzen dira senitartekoak.
- c. *Lau urtetarik lau urtetara* elkartzen dira senitartekoak.
- d. *Lau urterik behin* elkartzen dira senitartekoak.

Formaz mugatu singularra dena ere aukeran dugu:

- (6) a. *Lau urtetik behin* elkartzen dira senitartekoak.
- b. *Lau urtetik lau urtera* elkartzen dira senitartekoak.

Inesiboaren kasuan, berriz, forma mugatua da erabili behar dena honelakoetan:

- (7) *Lau urtean behin* elkartzen dira senitartekoak.

Maiztasuna adierazteko egituren artean, [izena + *-ero*] gisako esamoldea onartzekoa da:

- (8) [*Astero, hilero, ordulaurdenero...*] etortzen da.

Baina bada hedatuxea den egitura bat, ez euskal literaturan ez eta ahozko erabileran ere inongo tradizioarik ez duena eta, beraz, gaitzestekoa dena: *-ERO* atzizkiaren bidez osatua den \*[zenbatzailea + izena + *-ero*] sintagma:

- (9) a. \**Bi urtero* egiten dute bilera batzordekoek.
- b. \**Hamabost egunero* etortzen zait bisitan.

*Hamabostero*, ordea, onartzekoa da, *hamabostean behin* nahiz *hamabosterik behin-en* parean.

## 43. PERPAUS-EGITURA / IZEN-EGITURA NOMINALIZATUA: ?*SINDIKATU BATEN SORKUNTZARAKO BALDINTZA BAKARRA* > *SINDIKATU BAT SORTZEKO BALDINTZA BAKARRA*<sup>212</sup>

Arazoa funtsean honetan datza. Alboko erdaretan —hizkuntzaren maila jasoan, eta administrazio eta zuzenbideko hizkeran batik bat— joera handia dago nominalizaziora jotzeko (hau da, aditzetatik eratorritako izenak erabiltzeko: *reaparición, exposición, expansión, asimilación, apertura, cierre, logro, análisis...*). Are gehiago, joera izaten da halako izenak («izen-egitura nominalizatua») elkarren segidan metatzea, izen-sintagma luze-luzeak osatuz (beheko (1) adibidea). Berezko

---

<sup>212</sup> Atal honetan Azkarate (1995) eta Garzia (1997:489-517) izan ditugu bide-erakusle eta gidari. Ikus, orobat, Egunkaria (1995:36-37) eta HAEE (1994: 51-52).

euskal testuetan, ostera, askozaz ere gutxiagotan gertatzen da halako izen-meta-  
ketarik —(2) adibidea nahiko artifiziala da—, izen-egituraren ordezkari-egitura  
edo perpaus-egitura baliatzeko joera nabaria dagoelako (3, 4).

- (1) Subvenciones para la *creación* de textos para el *aprendizaje* de la *lectura* y la *escritura* en euskara
- (2) Euskarazko irakurketaren eta idazketaren ikaskuntzarako testuen sorkuntzara-  
ko diru-laguntzak
- (3) Euskaraz irakurtzen eta idazten ikasteko testuen sorkuntzarako diru-laguntzak
- (4) Euskaraz irakurtzen eta idazten ikasteko testuak sortzeko diru-laguntzak

Nolanahi ere den, bi egiturak (izen-egitura zein perpaus-egitura) guztiz grama-  
tikal eta zuzenak dira. Beraz, arazoa ez da gramatikaltasunaren mailan planteatzen,  
estiloarenean baizik. Kontua, ordea, hauxe da: izen-egitura behar dugu, perpaus jo-  
katugabeena nahikoa jasoa ez delako, ala perpaus jokatu gabeen bidea da bultzatu  
beharrekoa? Jakina, kontua ez da beti egitura-modu bat, eta hori bakarrik, erabil-  
tzea. Biek izan dezakete beren lekua, izen-egiturek eta perpaus-egiturek. Baina be-  
netan sinesten al dugu batzuen eta besteen arteko aldea maila «jasoaren» eta «apa-  
lagoaren», «arruntagoaren» artekoa dela? Ala erdaren morrontzak garamatza atal  
honetako (2) adibidea bezalakoak erabiltzera?

Euskal tradizioaren ikuspegitik begiratura, ez dago dudarik izen-metaketa-  
asko zailtzen edo iluntzen duela esaldiaren ulergarritasuna, estilo abstraktuagoa  
eta pisuagoa sortuz. Baina arazo hori ez da euskararena bakarrik. Hain zuzen ere,  
hizkuntza argiaren aldeko mugimendu guztiek azpimarratu dute (gehiegizko) nomi-  
nalizazioak dakarren zailtasuna<sup>213</sup>: aukeran, ulergarritasunaren izenean, hobe  
da zeinahi hizkuntzatan perpaus-egitura izen-egitura nominalizatua baino. Eta  
izen-egitura erabat ezin ordezkari daitekeenean, partez behintzat sintagma pixka  
bat arintzea gomendatu ohi da: hau da, erdibidea bila daiteke, goragoko (3) mo-  
dukoen bidetik.

Kontuan hartu behar da, bestalde, izen-egitura nominalizatua edozein hizkun-  
tzatan egitura eratorria dela: lehenik, perpausa dugu, aditzaren inguruan eraikia,  
eta hizkuntza-eragiketa baten ondorioz —alegia, nominalizazioaren ondorioz—  
bakarrik eratortzen da hartatik izen-egitura, askoz ere trinkoago eta abstraktu-  
agoa den egitura. Hain zuzen ere, perpaus bat ordezkatzeko duen izen-sintagma ho-  
rri deituko diogu hemen «nominalizazioa» edo «izen-egitura nominalizatua».  
Gainera, beheko (5)-eko sekuentzietan ikus daitekeenez, inguruko erdaretako  
izen-egitura erraz hedatzen da (eskuinaldera nagusiki, baina baita ezkeraldera  
ere behar izanez gero), perpaus-mailako osagaiak bere baitan egokituz edo barne-  
ratuz: osagarri zuzena (5a), adjuntuak (5b, 5c), subjektua (5d)... erraz sartzen dira  
izen-egituran. Bistan dagoenez, euskaraz (5b)-ko egituraraino erraz iritsi gaitzake,  
baina hortik gora nekez jo dezakegu, eta (5d) moduko izen-sintagma —sakone-  
ko perpaus baten itxuraldaketa bihurriez sortuak— (zorionez) ezinezkoak dira  
euskaraz.

---

<sup>213</sup> Ikusi, erakusgarri modura, hurrengoak: Cassany (1993: 111-112); MAP (1991: 140-141); Eagle-  
son (1990: 63).

- (5) a. La construcción de un polideportivo
- b. La construcción de un polideportivo para los alumnos
- c. La construcción de un polideportivo para los alumnos en el campus de Ibaeta
- d. La construcción de un polideportivo para los alumnos en el campus de Ibaeta por parte de la Diputación
- e. <sub>IS</sub>[[La construcción] [de un polideportivo nuevo] [para los alumnos] [en el campus de Ibaeta] [por parte de la Diputación]]<sub>IS</sub> *ha sido duramente criticada por algunos sectores universitarios.*

Bestalde, (5e) adibidean ageri denez, inguruko erdaretan izen-egitura hautatzeak maiz egitura pasiboak (*la construcción... ha sido criticada*) erabiltzera eramaten gaitu (pasiboari buruz ikusi 1.22 eta 27. atalak).

Bide batez, euskaraz *haren/beraren/bere* genitiboekin sortzen zaizkigun zalan-tzetako asko eta asko erdal izen-egitura nominalizatuen kalkoak eragindakoak izaten dira<sup>214</sup>: beheko esaldian, esaterako, (6c) egokiagoa da (6b) baino; baina, dudarik gabe, nominalizatorik gabeko (6d) egitura da aurrekoen azpian dagoena eta, beti ere, eskura eduki ohi duguna.

- (6) a. El juez ha ordenado *SU ingreso en prisión.*
- b. Epaileak ?*BERE kartzelaratzea* agindu du >
- c. Epaileak *HAREN kartzelaratzea* agindu du.
- d. Epaileak *HURA kartzelaratzeko* agindu du.

Zer esanik ez, erdal egitura nominalizatuan erraz txertatzen dira adjektiboak, sakoneko perpauseko adberbioetatik eratorri ditugunak (*inmediatamente —ahora mismo— → inmediato*); baina euskaraz nominalizazio-adjektiboen hiztegi urriarekin egiten dugu topo<sup>215</sup>:

- (7) a. El juez ha ordenado *SU INMEDIATO (ESPERADO...) ingreso en prisión*  
(< *El juez ha ordenado que ingrese INMEDIAMENTE (AHORA MISMO) en prisión.*)
- b. Epaileak *haren ?BEREHALAKO kartzelaratzea* agindu du >
- d. Epaileak *hura BEREHALA kartzelaratzeko* agindu du.

Ondorioa begien bistan dago. Goiko (5e)-n ageri den nominalizazio-bidea desbidea da euskararen ikuspegitik: lehenik, euskarazko nominalizazioetan izen-sintagmaren hedapena oso mugatua delako; bigarrenik, egitura pasiboak erabiltzera behartzen gaituelako; eta, hirugarrenik, perpaus nagusian aditz «hutsak» (eduki semantiko eskasekoak: *izan da, gertatu da, jasan da...*<sup>216</sup>) erabiltzera bultzatzen gaituelako. Beraz, euskaraz idaztean estiloaren ikuspegitik arrazoi ugari ditugu —eta auzo-erdaretatik itzultzean are gehiago— nominalizazio eta perpaus-egiturekin tentu handiz ibiltzeko.

Bukatzeko, euskaraz nominalizazioak dakarren arazo lexikoa gaineratu beharra dago: euskaraz, aditzetatik ekintza- edo ondorio-izenak sortzen dituzten

<sup>214</sup> Garzia (1997: 491–492).

<sup>215</sup> Garzia (1997: 496 eta hurr.).

<sup>216</sup> Ikusi, bide batez, bigarren zatiko «Zalantzen Hiztegian» *eman* eta *burutu* sarrerak.

erator-atzizkien sistema ez dago inguruko hizkuntzetan bezain garatuta, eta, horregatik, maiz euskal hiztegian hutsuneak eta zalantzak (-*kuntza/-ketal-tze...*, ik. 46.2 azpiatala) izaten ditugu erdal pieza lexiko nominalizatuen ordain beteak bilatzerakoan<sup>217</sup>.

Ondorioz, goiko (5e) moduko nominalizazioak taxuz euskaratzeko, lehenik «desmontatu» egin beharko ditugu, oinarriko perpausak agerrarazteraino<sup>218</sup>. Hala-koetan, Itzulpenaren Teoriak esplizituki aholkatzen duenez, itzulgaiaren hizkuntzaren beraren barruan parafrasi-itzulika jardun beharko dugu, itzulpenaren xede-hizkuntzan formulatzen hasi aurretik<sup>219</sup>.

### **Aztertzeo adibideak:**

- | IZEN-EGITURA   | PERPAUS-EGITURA  |
|--|--|
| (8) Langileentzako <i>jakinarazpena eztabaiden eta kontsulten epearen irekiduraz</i> ( <i>Comunicación a los trabajadores de la apertura del período de discusión y consultas</i> ).                               | (9) Langileei <i>jakinerazten zaie eztabaidak eta kontsultak egiteko garaia irekitzen dela</i> .   |
| (10) Estatu-mailako eskola-sistematik at egongo diren eskola-erakundeen <i>sorkuntzara</i> joko da.  | (11) Estatu-mailako eskola-sistematik at egongo diren eskola-erakundeak <i>sortzera</i> joko da.   |
| (12) Gauza guzti hauek beharrezkoak ikusten ditu Jacsonek haur osasuntsu <i>baten sorkuntzarako edo jaiokuntzarako</i> .   | (13) Gauza guzti hauek beharrezkoak ikusten ditu Jacsonek haur osasuntsu <i>bat sortzeko edo jaiotzeko</i> .   |
| (14) Azkenaldian arrakasta berezia lortu dutenak gertaera misteriotsu edo <i>gatazkatsuen argiketara bideratuak</i> dauden dira.   | (15) Azkenaldian arrakasta berezia lortu dutenak gertaera misteriotsu edo <i>gatazkatsuen argitzeko helburua</i> dutenak dira.   |
| (16) Iragakien bidez haurrari jostailu-nahia edo desira sortzen diogu, gero honek bere gurasoei erosteko eskatuko die, eta horrela <i>jostailu horren erosketa</i> ziurtaturik gelditzen da.                       | (17) Iragakien bidez haurrari jostailu-nahia edo desira sortzen diogu, gero honek bere gurasoei erosteko eskatuko die, eta horrela <i>jostailu hori erosiko dutela/dela</i> ziurtatzen da.   |
| (18) Beraiek prestaturiko programazioan ez da kalitatea kontutan hartzen, bai aldiz <i>ikusle goaren erakargarritasuna</i> lortzea, ahalik eta ikuslego kopururik handiena lortu programazioaren edozein eremutan. | (19) Beraiek prestaturiko programazioan ez da kalitatea kontuan hartzen, bai aldiz <i>ikusleak erakartzea</i> , ahalik eta ikusle kopururik handiena lortu programazioaren edozein eremutan. |

<sup>217</sup> Pieza lexikoen arazoak hizkuntzaren bilakaerarekin edo garapenarekin izan dezake zerikusia. Hain zuzen ere, Europako beste hizkuntza batzuek ere lehenago aurre egin behar izan diote gabezia horri eta nolabait konpondu dute arazoa. Dena dela, pieza lexikoen arazoa konponduta edukiko bagenu ere, egitura-mailako arazoak bere horretan iraungo luke, euskal izen-sintagmak ez baitu biderik ematen bere baitan perpaus-mailako argumentu guztiak egokitzeo: hots, arazo lexikoa gaitziteko balitz ere, perpaus-egitura izango litzateke gomendagarriena.

<sup>218</sup> Ik. Garzia (1997: 489-517).

<sup>219</sup> Garzia (1997: 501).



- (20) Behin eta berriz, muga *hauen erorketa* aldarrikatu arren, oraindik bizirik dirautela iruditzen zait.
- (21) Behin eta berriz, muga *hauek erori direla* aldarrikatu arren, oraindik bizirik dirautela iruditzen zait.
- (22) Erakusketaren *zaindaritzaz* arduratu ziren.
- (23) *Erakusketa zaintzeaz* arduratu ziren.
- (24) Aktak debekatu egiten du *armadaren sarrera* serbiarren lurraldean.
- (25) Aktak debekatu egiten du *armada* serbiarren lurraldean *sartzea*.
- (26) Herri-administrazioek behar diren jardueri ekingo diete iturrietako uraren *bilketarako*, us-sarearen *antolaketarako* eta bai etxeetako, bai industrietako *ur-hornidurarako* ere; hau da, uraren *kudeaketaren* eta *erabilpenaren hobekuntza* orokorrerako.
- (27) Herri-administrazioek behar diren lanak egingo dituzte iturrietako ura *biltzeko*, ur-sarea *antolatzeko* eta etxeak nahiz industriak urez *hornitzeko*, hau da, ura ahalik eta ondoen *aprobatzeko eta erabiltzeko*.
- (28) Jatorrizko naziokotasuna galtzeko arrazoiak: (...) *beste naziokotasun baten borondatezko eskuraketa* (...)
- (29) Jatorrizko naziokotasuna galtzeko arrazoiak: (...) *borondatez beste naziokotasun bat eskuratzea* (...)
- (30) Adingabeek eta ezgaituek ere gauzen edukitza lor dezakete, baina *bere kudeaketarako* beharrezkoa izango dute euren legezko ordezkarien laguntza.
- (31) Adingabeek eta ezgaituek ere gauzen edukitza lor dezakete, baina (*gauza*) *horiek kudeatzeko* beharrezkoa izango dute beren (euren) legezko ordezkarien laguntza.
- (32) Konstituzioak prozesu hori burutu du, aldarrikatzean *sindikatuaren (eta enpresaburuen elkartearen) sorrera* eta hauen *lanaren egikaritzea* libreak direla.
- (33) Konstituzioak prozesu hori burutu du, aldarrikatzean *sindikatuak (eta enpresaburuen elkarteak) sortzea* eta *hauek beren lana egikaritzea* libre(a) dela.
- (34) 511/1985 Errege Dekretua, otsailaren 20koa, Asilo *Eskubidearen Lege Erregulatzailearen Aplikaziorako* Erregelamendua onesten duena.
- (35) 511/1985 Errege Dekretua, otsailaren 20koa, Asilo *Eskubidea Erregulatzen duen Legea Aplikatzeko* Erregelamendua onesten duena.
- (36) (...) sindikatu *baten sorkuntzarako* baldintza bakarra, sindikatuaren sustatzaile edo zuzendariek *estatutuaren gordailapena* egitea da.
- (37) (...) sindikatu *bat sortzeko* baldintza bakarra, sindikatuaren sustatzaile edo zuzendariek estatutuak *gordailatzea (gordailuan uztea)* da.
- (38) Kontratuko fede *onaren urrapena* eta konfiantza-abusua *lanaren egikaritzan*  
(la transgresión de la buena fe contractual, así como el abuso de confianza en el desempeño del trabajo)
- (39) Kontratuko fede *ona urratzea* eta konfiantza-abusua *lan egitean*.
- (40) (...) eta horrek esan nahi du, mugarik gabe langile guztiei dagoen eskubidea dela hori, direla horiek espainiar nahiz atzerritar, direla lan-harremana daukatenak edo funtzionario publikoak, azkenengo *hauen sindikazio-eskubidearen egikaritzaren berezitasunen* kalterik gabe.
- (41) (...) eta horrek esan nahi du, mugarik gabe langile guztiei dagoen eskubidea dela hori, direla horiek espainiar nahiz atzerritar, direla lan-harremana daukatenak edo funtzionario publikoak, azkenengo *hauen sindikatuzko eskubidearen egikaritzak izan ditzakeen berezitasunen* kalterik gabe.

- (42) Sindikatu baten eraketarako betekizun bakarra (...)
- (44) (...) nahiz eta ezin presiotzat jo *sindikazioaren* edozein *susperketa-neurri*.
- (46) Eremu nazional osorako *ordezkari-tza* nagusiaren *ezagutzarako exigentzia* legala da (...)  
(«para el reconocimiento de la mayor representatividad en todo el ámbito nacional, la exigencia legal es que...»).
- (48) Konstituzio Auzitegiak sustraitik deuseza kontsideratu du *langilearen irai-zpena bere afiliazioagatik* edo *jar-duera sindikalagatik*.
- (50) (...) interesatzen zaigu *delegatu*en hauteskunde-*prozedurari* erreferentzia egitea («... interesa referirse al procedimiento electoral de los delegados»).
- (52) (...) Gaitasun profesionalaren azterketak, hautagaia *kontuen ikuskaritza jar-duera* burutzeko gai den edo ez aztertzerazuzenduta egonik, ...
- (54) (...) *Legearen garapenerako baimena*
- (56) (...) Ekonomia eta Ogasun Ministroak proposaturik, Gobernuari eskuespena ematen zaio honako *Legearen garapenerako beharrezkoak diren arauen sorrerarako*.
- (58) Auditoreak era ulergarri eta zehatzean adieraziko du urteko kontuek egoera finantzarioaren irudi fidela ematen dutela eta *beraien ulerkuntza egokirako* beharrezkoa den informazio nahikoa biltzen dutela.
- (60) Urteko kontuen ikuskaritza-txostenaren *publizitatea*.
- (62) kanpoko *bazkideen babespen-mekanismoak*
- (64) Ekonomia eta Ogasun Ministroak proposaturik, Gobernuari eskuespena ematen zaio honako *Legearen garapenerako beharrezkoak diren arauen sorrerarako*.
- (43) Sindikatu bat sortzeko/eratzeko *betekizun* bakarra (...)
- (45) (...) nahiz eta presiotzat ezin jo (daitekeen) *sindikatzeara/sindikazioa* sustatzeko edozein *neurri*.
- (47) Eremu nazional osoan *ordezkari-tza* nagusia aitortzeko, *legeak galdatzen duena* da (...)
- (49) Konstituzio Auzitegiak sustraitik deuseza kontsideratu du *langileak beren afiliazioagatik* edo *jar-duera sindikalagatik enpresatik kalera-tzea / irai-ztea*.
- (51) (...) interesgarria da *delegatuak (ordezkariak)* hautatzeko *prozedurari* erreferentzia egitea.
- (53) (...) Gaitasun profesionalaren azterketak, hautagaia *kontuak ikuskatzeko jar-duera* burutzeko gai den edo ez aztertzerazuzenduta egonik, ...
- (55) (...) *Legea* garatzeko *baimena*
- (57) (...) Ekonomia eta Ogasun Ministroak proposaturik, Gobernuari eskuespena ematen zaio honako *Legea garatzeko/ Legearen garapenerako beharrezkoak diren arauak sortzeko*.
- (59) Auditoreak era ulergarri eta zehatzean adieraziko du urteko kontuek egoera finantzarioaren irudi fidela ematen dutela eta *haien behar bezala ulertu ahal izateko behar adinako informazioa* biltzen dutela.
- (61) Urteko kontuen ikuskaritza-txostenaren *publiko egitea*.
- (63) kanpoko *bazkideak babesteko mekanismoak*
- (65) Ekonomia eta Ogasun Ministroak proposaturik, Gobernuari eskuespena ematen zaio honako *Legearen garapenerako beharrezkoak diren arauak sortzeko*.

- (66) (...) eta Asia edo Ipar Amerikako faunekin baino, Tethys itsasoaren ingurukoekin kidetasun gehiago dituzte. *Beronen azalpenerako*, (...) pentsatu da.
- (67) (...) eta Asia edo Ipar Amerikako faunekin baino, Tethys itsasoaren ingurukoekin kidetasun gehiago dituzte. *Hori (fenomeno hori) azaltzeko*, (...) pentsatu da.
- (68) Laneko jarduerari buruzko Ikuskaritzarako Arauen helburua, kontuen auditore independeteez urteko kontuen *ikuskaritzaren jardueran* erabili eta aplikatu behar dituzten baliabide eta ekintzak zehaztea da.
- (69) Laneko jarduerari buruzko Ikuskaritzarako Arauen helburua, kontuen auditore independeteez urteko kontuen *ikuskaritzan jardutean* erabili eta aplikatu behar dituzten baliabide eta ekintzak zehaztea da.

#### 44. \*FUNTZIOTAN LEHENDAKARIA ETA IZENBURUAK EDO IRUDIEN OINAK (PAULOREN LEHEN GUTUNA TESALONIKARREI...)<sup>220</sup>

Euskaraz, oro har, adizlagun bat izen-sintagma batean txertatu ahal izateko izenlagunaren itxura hartu behar du lehenik (1a/1b). Hau da, salbuespenak salbuespen, adizlagunek ez dute lekuri izen-sintagma baten barnean (1c)<sup>221</sup>. Beraz, izen-sintagma perpaus baten barruan txertaturik dagoenean, sintagmaren buru modura jokatzeko duen izenaren modifikatzaile edo laguntzaile guztiak — izenondoak alde batera utzita — haren ezkerrean gauzatu ohi dira.

- (1) a. Jainkoak bere maitasuna erakutsi du *gizakien aldera*.  
 b. Jainkoaren *gizakien alderako* / *gizakienganako* maitasunak ez du mugarik.  
 c. \*Jainkoaren *gizakien aldera* / *gizakiengana* maitasunak ez du mugarik.

Hala ere, badira testuinguru markatu eta berezi batzuk, goraxeagoko lege orokorra (harako «adizlagunek ez dute lekuri izen-sintagma baten barnean» hura) hausteak zirela gertatzen direnak. Horixe gertatzen bide da, esaterako, izenburuetan edota irudi eta taulen oinetan. Horrelakoetan, modifikatzaileak adizlagun baten itxura har dezake (2a), beti ere izenaren eskuinaldean ematen bada (2a/2b). Salbuespenezko izaera duten testuinguru horietan, izen-sintagma ez dago perpaus batean sartua, ezpada oso ingurune berezi batean: batetik, ez dago aditzik; bestetik, delako izen-sintagma kasu absolutiboan egon ohi da (konpara bitez 2a eta 2c, 2d).

- (2) a. Jainkoaren maitasunA *gizakien aldera*.  
 b. \*Jainkoaren *gizakien aldera* maitasuna.  
 c. ?Jainkoaren maitasunAZ *gizakien aldera*.  
 d. ?Jainkoaren maitasunAREKIN *gizakien aldera*.

Batzuetan, batez ere buru den izena aditz batetik eratorria denean, aditzik gabeko izen-sintagma berezi hauek baino askoz irtenbide txukunagoa izaten da

<sup>220</sup> Puntu honetaz ikus Zabala (1999: 117-119) eta Goenaga (1994).

<sup>221</sup> Hala ere, *-rako* atzizkia duten modifikatzaileak izenaren ezkerrean nahiz eskuinaldean ager daitezke. Bestalde, *-ekiko* atzizki konposatuari dagokionez, ikus bedi gorago eskaini diogun 20. atala.

perpau-egiturara jotzea (*atxikipen* > *atxikitze*): beheko adibideetan, esaterako, (3c) askoz egokiagoa da (3b) baino.

- (3) a. \*Kontuen Auditore Azterlari Zineginen Institutuko *kideei funtzioen atxikipena*.
- b. ? Funtzioen atxikipena Kontuen Auditore Azterlari Zineginen Institutuko kideei.
- c. Kontuen Auditore Azterlari Zineginen Institutuko *kideei funtzioak atxikitzea*.

Beheko (4b) gisako izen-sintagmek («-*gatico* + *izena*»), guztiz zuzenak eta gramatikaren araberakoak badira ere, ez dute tradizio handirik hizkuntza idatzian eta ez da komeni premiarik gabe eta neurritz kanpo erabiltzea. Esate baterako, tesuinguru berezi hauetan (izenburu eta irudien oinetan, alegia) erraz saihestu daiteke «-*gatico* + *izena*» sintagma astuna, haren orde (4c) modukoak erabiliz. Sintagma perpau batean sartuta dagoenean, aldiz, aditza sartuaz arindu daiteke esapidea (4d). Beraz, gure iritziz, ahal dela sintagma arintzera jo beharko genuke.

- (4) a. \*arau-hauste arinengatik zehapena.
- b. arau-hauste arinengatiko zehapena
- c. zehapena arau-hauste arinengatik
- d. arau-hauste arinengatik *emaniko/emateko/eman beharreko*... zehapena.

#### **Aztertzeko adibideak:**

- | EGITURA OKERRA EDO DUDAZKOA   | HOBESTEKO EGITURA   |
|---|---|
| (5) *Tesalonikarrei Pauloren lehen gutuna   | (6) a. Pauloren lehen gutuna Tesalonikarrei<br>b. Paulok Tesalonikarrei idatzitako lehen gutuna.  |
| (7) *Pauloren lehen gutunaz Tesalonikarrei mintzatu dira.   | (8) Paulok Tesalonikarrei idatzitako lehen gutunaz mintzatu dira.   |
| (9) *Erroldan baja («baja en el registro»)  | (10) Erroldan baja sortzea  |
| (11) *Ikuskaritza-elkarteei aplikazioa  | (12) Ikuskaritza-elkarteei atal hau aplikatzea  |
| (13) *Kontuen Auditoreen Errolda Ofizialean behin-betiko baja egoeretan, <i>dokumentazioaren babesa</i> . | (14) Kontuen Auditoreen Errolda Ofizialean behin betiko <i>baja sortzen den egoeretan/bajako</i> egoeretan, <i>dokumentazioa babestea</i> .               |
| (15) *Arau-hauste arinengatik zehapena  | (16) a. Zehapena arau-hauste arinengatik<br>b. Arau-hauste arinengatiko zehapena  |
| (17) *Bestelako ikuskaritza-prozedurekin elkarlotura.   | (18) a. Bestelako ikuskaritza-prozedurerekin lotura / ...prozedurerekin duen lotura / ...<br>b. Lotura bestelako ikuskaritza-prozedurerekin.              |
| (19) *Aplikaturako kontabilitate-printzipio eta arauetan aldaketak  | (20) a. Aplikaturako kontabilitate printzipio eta arauetan <i>izandako</i> aldaketak.<br>b. Aldaketak aplikaturako kontabilitate printzipio eta arauetan. |

- (21) \*Informazio ezagatik salbuespena
- (22) a. Salbuespena informazio ezagatik  
b. Informazio ezagatiko salbuespena.
- (23) \*Ikuskaritza-txostenean eragina
- (24) a. Ikuskaritza-txostenean *duen / ... eragina*.  
b. Eragina ikuskaritza-txostenean.
- (25) \*Ikuskaritza-txostenean adituaren aipamena.
- (26) Ikuskaritza-txostenean adituaren aipamena *egitea*.
- (27) \*Akziodun arruntei *dibidenduen banaketa*.
- (28) Akziodun arruntei *dibidenduak banatzea*.
- (29) \*Sozietate-azpitaldeen bateratzeko *betebeharretik salbuespena*.
- (30) Sozietate-azpitaldeak bateratzeko *betebeharretik salbuestea*.
- (31) \*Errolda ofizialean baja.
- (32) Errolda ofizialean *baja sortzea*.
- (33) \*Langileen enpresan partaidetza.
- (34) Langileen parte-hartzea / partaidetza enpresan
- (35) ?Langileen enpresako partaidetza.
- (36) Langileek enpresan duten (izan behar duten...) parte-hartzea.
- (37) ??Langileen partaidetza enpresan berandu arautu zen.
- (38) Langileek enpresan duten (izan behar duten...) parte-hartzea berandu arautu zen (37 # 38).
- (39) \*Langileen enpresan ordezkari-tza
- (40) a. Langileen ordezkari-tza enpresan  
b. Langileek enpresan duten ordezkari-tza
- (41) Langileen ordezkari-tzak enpresan salatu duenez...
- (42) Langileek enpresan duten ordezkari-tzak salatu duenez... (41 # 42)
- (43) \*EHUko langileentzat ikastaroa
- (44) a. Ikastaroa EHUko langileentzat  
b. EHUko langileentzako ikastaroa
- (45) \*Funtziotan lehendakariak honako adierazpen hauek egin ditu.
- (46) a. Jardunean (funtziotan) den lehendakariak...  
b. Jarduneko (funtziotako) lehendakariak...
- (47) \*Udaletxearen aurrean protestek ez zuten gure alkatea iritziz aldarazi.
- (48) a. Udaletxearen aurreko protestek...  
b. Udaletxearen aurrean egindako protestek...
- (49) \*Ustez ETAko bi lagun atxilotu dituzte.
- (50) a. Ustez ETAkoak diren bi lagun...  
b. Ustezko ETAko kide bi...
- (51) \*Langabeen herri langileari gutuna
- (52) a. Langabeek herri langileari zuzendutako gutuna  
b. Langabeen gutuna herri langileari
- (53) \*Langabeen herri langileari gutunak zabalkunde eskasa izan du.
- (54) Langabeek herri langileari zuzendutako gutunak...
- (55) \*Euskadin Gerra Zibilaren ondorioak
- (56) a. Gerra Zibilak Euskadin izan zituen/izandako ondorioak.  
b. Gerra Zibilaren ondorioak Euskadin.  
c. Gerra Zibilaren Euskadiko ondorioak.
- (57) Gerra Zibilaren ondorioak Euskadin aztertu dituzte.
- (58) Gerra Zibilak Euskadin izan zituen ondorioak aztertu dituzte. (57# 58)
- (59) a. Gerra Zibilaren Euskadiko ondorioak #  
b. Euskadiko Gerra Zibilaren ondorioak. (59a # 59b)

45. ??INDARREANGO LEGERIA, ??JARDUNEANGO MAGISTRATUA...

Goragoko atal batean azaldu denez, *-ko* atzizkia duen izenlaguna inesiboaren (*-n*) gainean eraikia denean, *-n* markaren galera izaten da aldaketa morfonologiko ohikoa (*mendian + -ko > mendiko*, *mendietan + -ko > mendietako*, *zenbait menditan + -ko > zenbait menditako*...). Hala ere, bizkaierazko idazleen artean eta ekialdeko zenbait euskalkitan badira esaera batzuk, izenlagunean inesiboa atxiki dutenak<sup>222</sup>:

- (1) a. egin bearko dituala *egunean eguneango baraurrak*... (Mg CC 147)
- b. (...) emongo deuskuzula barriro bere *gure eguneango ogia ta yanaria* (Añ EL2 247).
- c. *Eguneango zereginen* bigarren zatia da, oera baiño len egitea konzienziako billakuntza (Añ LoraS 129)
- d. *egunean eguneango premiei* aurre emateko («eguneroko...») [EH, «premia»]
- e. (...) Herriaren antzeko astekari bat, *egunean eguneango berriak* euskara argi eta garbian dakartzana... (MEIG I 119).
- f. *astean-asteango diruek* poztute... (AkesIpiñ 22)
- g. *illean-illeango lanak* (Mokoroa 50669).
- h. *egunean eguneango gure ogia* («eguneroko ogia»)
- i. *berban berbango guzurtegi hori* (fB Ic II 175)
- j. *egunean eguneango egitekoak* (A MorfI 345)
- k. *astean asteango*... (A MorfI 345)
- l. *urtean urteango*... (A MorfI 345)

Bestalde, gaztelaniazko beheko egituren modukoak emateko bi eratako okerbideak hartu dira oraingo euskarari: zenbaitetan (2), egitura erabat kalkatu da (*Jose Antonio Ardanazak, funtziotan lehendakariak, esan du...*), adizlagunari (*funtziotan*) izenlagunaren zeregina betearaziz —«lehendakari» izenarekin baitoa hor— eta euskal gramatikaren muga bortxatuz (ik. 44. atala); beste batzuetan (3), aipatu berri dugun izenlagun zaharkitura (*-ango*) jo da, inesiboa berreskuratzeko, alegia, erdarazko *-en* preposizioa kalkatzeko.

- (2) a. presidente en funciones  
a'. ??funtziotan/jardunean lehendakaria
- (3) a. legislación en vigor/vigente  
a'. ??indarreango legeria  
b. magistrado en activo  
b'. ??jarduneango magistratua  
c. trabajo en equipo  
c'. ??taldeango lana

(3)-ko euskal ordain horiek aski badaezpadakoak dira, (1)-eko adibideen eredutik aski urrun daudelako. Ondorioz, (2) eta (3) bezalakoetan bi dira irtenbideak: izenlagunaz baliatzea (4a, 5a, 6a) edo erlatiboaz baliatzea (4b, 5b, 6b).

<sup>222</sup> Ik. Azkue (1923-25, I: 345) eta OEH («egunean eguneko» azpisarrera, 475. or.).

- (4) a. Jose Antonio Ardanazak, funtziotako/jarduneko lehendakariak, esan du...
- b. Jose Antonio Ardanazak, funtziotan/jardunean den lehendakariak, esan du...
- (5) a. Indarreko legeriaren arabera...
- b. Indarrean den/dagoen legeriaren arabera...
- (6) a. Jarduneko magistratuak ezin dira afiliatu...
- b. Jardunean diren/dauden magistratuak ezin dira afiliatu... (aktiboan dauden magistratuak...)

46. ADITZETIKO IZENAK: *-LE/-TZAILE, -ERA, -KETA, -KUNTZA, -PEN, -KARI, -KIN...*<sup>223</sup>

46.1. *-le / -tzaile atzizkien banaketa*

Bi atzizkien arteko banaketa oro har Azkuek markatutakoa dela esan daiteke: *-le* eransten zaie sudurkariz amaitutako aditzoinei (forma bereko partizipioa dute-nei) (1), eta dardarkariz nahiz txistukariz amaiturikoei, baldin eta *-i* badute partizipio burutuaren marka (2):

- (1) a. eman > emaile
- b. jasan > jasaile
- (2) a. ekarr(i) > ekarle
- b. eros(i) > erosle
- c. irakats(i) > irakasle
- d. hauts(i) > hausle (Hiztegi Batuan *hausle* hobesten da eta ez *haustaile*).
- e. hez(i) > hezle / hezitzaile (biak ageri dira Hiztegi Batuan)

Gainerakoei, berriz, *-tzaile* eransten zaie (3):

- (3) a. jaso > jasotzaile
- b. sala(tu) > jasotzaile
- c. erabaki > erabakitzaile
- d. maitatu > maitatzaile / maitale

Bereizketa hau gehienetan hala egiten den arren, badira salbuespen ezagunak euskal lexikoan:

- (4) a. eska(tu) > eskale # eskatzaile
- b. begira(tu) > begirale / begiratzaile
- c. jo > jo(i)le = jotzaile [Hiztegi Batuan *jotzaile* hobesten da, *joile* eta *jole* aldaeren gainetik]

Egilea adierazten duten izen berriak sortzean ere, Azkuek egindako bereizketaren arabera jokatzea gomendatzen da.

Dena den, Hiztegi Batuko batzordeari dagokio salbuespenak finkatzea. Esate baterako, *-tu* partizipio-marka izanik txistukariz amaitzen diren aditzoinekin dudak

<sup>223</sup> Euskaltzaindiko LEF Batzordearen txostenean esaten dena jaso dut atal honetan (Euskaltzaindia, 1994d: 1045-1047).

sortzen zaizkigu: *-le*, *-taile* ala *-tzaille*? Hiztegi Batuak banan-banan erabaki ditu horrelako auziak:

- (5) a. *zorrotzaille* (eta ez *zorroztaile*).  
 b. *nahasle* hobesten da, *nahastaile* bigarren mailan utziz.  
 c. *tolestaile*

#### 46.2. *-era*, *-keta*, *-kuntza*, *-pen*...

Aditzak adierazten duen horren «gertatzea» adierazten duten atzizkiek sortzen dizkigute buru-huasterik larrienetakoak. Noiz erantsi *-era*, noiz *-keta* edo noiz *-men/-pen*? Zaila da galdera honi asebeteko erantzuna ematea. Nolanahi ere, hiru gomendio eman daitezke argi apurren bat bat egin dezaketenak:

1. *-zio* atzizkia (euskal oinarriei erantsirik ere aurki dezakeguna *amorrazio*, *burutazio*, *asmazio*, *segizio*...) onartu eta bultzatu maileguetan. Ez dugu uste (6)-koen modukoak esanez ezer irabazten dugunik; hobe genuke *instalazio* eta *integrazio* onartzea (7), Hegoaldean behintzat.

#### BADAEPZADAKO ERAKETA

- (6) a. ?instalakuntza,  
 b. ?integrapen,  
 c. ?ebaluaketa...

#### HOBESTEKO EGITURA

- (7) a. instalazio  
 b. integrazio

#### HIZTEGI BATUA: *-ZIO* ATZIZKIA DUTEN HITZ MAILEGATUAK

abiazio	deklinazio	erredakzio
absoluzio	dekorazio	erudizio
abstrakzio	deportazio	espedizio
administrazio	desesperazio	esplikazio
akzio <i>Ekon.</i>	deskripzio	federazio
akusazio	determinazio	fikzio
aleazio <i>Heg.</i>	difrakzio <i>Fis.</i>	formazio
amortizazio	diputazio	fotokonposizio (*fotokon-
aplikazio	direkzio 1 «autoarena»	posaketa)
apozizio <i>Gram.</i>	disekzio <i>Anat.</i>	frakzio
artikulazio	disimilazio	fundazio
asimilazio	diskrezio	funtzio
atrizio <i>Sin.</i> beldur(-)damu	disoluzio	irradiazio <i>Sin.</i> irrada
azelerazio	ebanjelizazio	erreboluzio h. iraultza; bi-
bizio 1 «ohitura txarra»	eboluzio	ra, itzuli
bokazio	edizio	errefrakzio <i>Fis.</i>
botazio	edukazio 1. h. heziketa,	espekulazio <i>Ekon.</i>
debozio	hezikuntza; 2. h. jende-	esplotazio h. ustiapen
dedikazio h. arduraldi	tasun	esportazio
dedukzio	ekuazio	hidratazio
definizio	emozio h. zirrara	ilustrazio
degenerazio	erlazio	imajinazio «irudimena»
deklarazio	erreakzio	imitazio



immunizazio	konspirazio	palatalizazio
inaugurazio	konstelazio <i>Sin.</i> izar(-)mul- tzo	palazio <i>g. er.</i> «jauregia»
indukzio	konstituzio	paramezio
infekzio <i>Med.</i>	kontrizio <i>Sin.</i> maite-damu	perfekzio
inflazio <i>Ekon.</i>	kontsakrazio <i>Erl.</i> h. saga- ra	pertsekuzio
informazio	kontserbazio	pigmentazio
injekzio	kontsolazio	polinizazio
inportazio	kontzentrazio	populazio
inposizio	kontzepzio	posizio <i>Tekn.</i>
inskripzio	koordinazio	postposizio <i>Gram.</i>
instalazio	korporazio	preposizio
instituzio h. erakunde	korrelazio	produktzio «ekoizpena»
intentzio <i>Herr.</i>	kotizazio	profanazio
interjekzio	kreazio <i>Erl.</i>	programazio
interpretazio	maldizio	proporzio
intuizio	manifestazio <i>Sin.</i> (kale) agerraldi	prostituzio
judizio <i>Jas.</i> «epaiketa»	meditazio	puntuazio
juizio <i>Heg.</i> «epaiketa»	motibazio	sakrifizio
jurisdikzio	munizio	salbazio
kalifikazio	murmurazio <i>Zah.</i> h. mar- mar	satisfazio <i>Zah.</i>
kapitulazio	mutazio <i>Biol.</i>	sektzio 1 <i>Zientz.</i> eta <i>Tekn.</i> 2.* e. atal
koalizio	nabigazio <i>Sin.</i> itsasketa	selektzio
kolektibizazio	nazio	sinplifikazio
komertzio h. merkatalgo, merkataritza	negoziazio	soluzio 1 <i>Fis.</i> eta <i>Kim.</i> 2 <i>Mat.</i> 3 «konponbidea, irtenbidea»
komunikazio	normalizazio	superstizio «sineskeria»
konbinazio	objektzio	telekomunikazio
kondenazio	obligazio <i>Ekon.</i>	tentazio
kondizio 1 «baldintza» 2 «egoera, izaera; izate- ko modua»	okupazio	tradizio
konfederazio	oleazio «oliadura»	trakzio
konfirmazio 1 h. berres- pen 2 <i>Erl.</i> h. sendotza	operazio	transformazio
kongregazio	oposizio	transkripzio
konnotazio	organizazio	translazio <i>Geom.</i> <i>Astron.</i>
konparazio	orientazio	trantsizio
konposizio (konposaketa h. konposizio)	oxidazio	zibilizazio
	oxigenazio	zirkulazio

2. *-tzel-te* edozein aditzoinek har dezakeen atzizkia dela gogorarazi, eta bazuetan baliagarri gerta dakigukeela: (8) baino askoz samurragoa litzateke (9) gaztelaniazko «cumplimiento» adierazteko. (Izen balioan gogoratu, nahitaez, aurretik genitiboa eskatzen duela).

BADAEZPADAKO ERAKETA

(8) a. ?lanaren beteketa / betepena

HOBESTEKO EGITURA(K)

(9) a. lanaren betetzea (Iparraldeko joera)

b. lana betetzea

3. Nor motako aditzekin, hau da, *da* laguntzailea hartzen dutenekin, *-era* edo *-tze* atzizkiak erabiltzea gomendatzen du batzordeak, aditzak adierazten duenaren gertatzea edo gauzatzea adierazi nahi denean. Hobe (11a), (10a) baino (perpaus-egitura ere, jokatua nahiz jokatugabea, beste batzuetan oso egokia izan daitekeela ahan-tzi gabe, *bihotza gelditzea*, *bihotza gelditu zitzaion*). Edo (11b) hobe, (10b) baino. Bide beretik, (11c) hobetsiko genuke, eta ez (10c).

BADAEZPADAKO ERAKETA

- (10) a. ?bihotzaren geldiketa  
b. ?Titanic-en hondoraketa  
c. ?damuketa

HOBESTEKO EGITURA

- (11) a. bihotzaren geldiera /gelditzea  
b. Titanic-en hondoratzea  
c. damuera / damutzea

HIZTEGI BATUA: *-KETA\**

ehizketa\*/ihizketa\* e. ehiza  
fotokonposaketa\* e. fotokonposizio  
lapurketa\* e. lapurreta  
liseriketa\* e. digestio

### 46.3. *-kari, -kin*

Aditzoinari erantsiz izen bizigabeak sortzen dituzten atzizki hauek «ondorioa» adierazten dute oro har:

- (12) a. gertakari: «gerta(-tu, -tzen, -tuko) dena»  
b. opari: «opa izan/izaten dena»  
c. eskari: «eska(-tu, -tzen, -tuko) dena»  
d. aurkikari: «aurki(-tu, -tzen, -tuko) dena»

Alde honetatik (13a) eta (13b) baino egokiagoak lirateke, hurrenez hurren, (14a) eta (14b):

- (13) a. ?hilkari «pestizida»  
b. ?garbikari «detergente»  
(14) a. hilgarri «pestizida»  
b. garbigarri «detergente»

Era berean, (15a) baino egokiagoa litzateke (15b) edo ezer asmatzen ibili gabe Iparraldekoen *lisaburdina* (15c)<sup>224</sup>. Bestalde, eraketaren ikuspegitik (16b) egokia den arren, tradizioaren izenean bi aldaerak (16a, 16b) ontzat hartu dira *Hiztegi Batua*-n.

- (15) a. ?lisakin «plancha»  
b. lisagailu  
c. lisaburdina  
(16) a. errekin  
b. erregai

<sup>224</sup> *Hiztegi Batua*-n *lisaburdina* besterik ez da jaso.

#### 47. -(T)AR ATZIZKIA

Oinarriaren kategoria eta hitz eratorriaren adierak kontuan harturik, hiru azpisail bereiz ditzakegu. Lehenik, leku-izen propioei erantsita, «jatorria» adierako izenondo eratorriak sortzen dituen *-(t)ar* atzizkia dugu (1). Bigarrenik, batik bat gizaki-izen propioei erantsita, «jarraitzailea» adierako izenondoak sortzen ditugu atzizki honen bidez (2). Azkenik, izen arruntei erantsita, «jatorria» nahiz «zalea» adierako izenondoak sortzen dira (3).

- (1) albaniar, amerikar, andaluziar, arabiar, azpeitiar, babiloniar, bizkaitar, donostiar, erromatar, eskoziar, feniziar, gipuzkoar, oñatiar, zarauztar...
- (2) axulartar, chomskytar, luterotar, mahomatar, frantziskotar, sabindar, karlostar, gutar, eliztar...
- (3) kanpotar, zerutar, mundutar, goiztar, atzeritar, kaletar, hiritar, baseritar, itsatar, menditar...

Hiruretatik lehena da hedatuena, eta haren erabilerari gagozkiola, zenbait ohar garrantzitsu egin beharrean gaude.

Lehen oharra erator-atzizkiaren aldaeren (*-ar*, *-tar*, *-dar*) arteko banaketari dagokio. Oro har, (4)-ko gomendioa eman daiteke, gainerako kasuetarako «libre» utziaz *-ar/-tar* aukera<sup>225</sup>: Dena den, arlo honetan ez dago erregela finkorik ematerik; horregatik, zalantzak argitzeko Euskaltzaindiaren *Euskal Herriko Udalen Izendegia* eta azken aldiko araugintza (batik bat 38, 51, 53 eta 57. arauak) ikustea da irtenbiderik ziurrena eta zuhurrena.

- (4) a. *-ia + -ar*  
b. *-n / -l + -dar*

Bigarren oharra edo gomendioa egiturari dagokio. Gramatikaren arabera «*X + -(t)ar*» tankerako eratorriak izenaren ezkerrean (5a) nahiz eskuinean (5b) erabil daitezkeen arren, literatura-tradizioa nabarmenki makurtzen da (5a) egituraren alde<sup>226</sup>.

- (5) a. bizkaitar idazleak [tradizioaren arabera]  
b. idazle bizkaitarrak

Beraz, aukeran, tradizioaren arabera jokatu behar genuke, (5a) egitura bultzatuaz alegia. Hala ere, gomendio hori halako malgutasun batez aplikatu behar genuke; izan ere, «izenaren aurreko aldea oso kargatua datorrenean *-(t)ar* hauek atzealdean izenondo gisa ematea komeni da»<sup>227</sup>: hau da, beheko adibideen modukoetan

<sup>225</sup> Euskaltzaindiko LEF Batzordea (1994d: 1044-1045). Bertan ikus daitezke Euskal Herriko herriarren izenak (1050-1058).

<sup>226</sup> Hona hemen, *EGLU*ko iruzkin jakingarria: «Badirudi *dirudun mutila* bezalako itzuliak ez zirela gehiegi erabiltzen Azkuek bere lanak egin zituen arte. Aldiz, *frantses hizlaria* bezalakoak oso hedatuak izan dira literatur tradizioan bai ekialdean bai mendebalean. Mitxelenak ere sistematikoki izenaren aurrean jartzen ditu halakoak. *Estatu frantziarra* eta tankera honetako esaldiak batez ere komunikabideen joeragatik zabaldu dira azken urteotan» (Euskaltzaindia, 1993a: 155).

<sup>227</sup> Sarasola (1997: 88-89).

eta salbuespen gisa, (5b) bultza genezake, baina, beti ere, salbuespena erregela bihurtu gabe eta sistematikoki *idazle estatubatuarra* egiturara lerratu gabe.

- (6) a. joan den mendeko gipuzkerazko bizkaitar idazleak
- b. joan den mendeko gipuzkerazko idazle bizkaitarrak

Hirugarren oharra atzizkiak hartu ohi duen oinarriari dagokio. Batez ere, leku-izen propioei eta izen bizidunei erantsi zaie atzizki hau. Beraz, oinarriak leku-izena izan behar du (7b), ez maileguz hartutako jentilizioa (7a)<sup>228</sup>:

- (7) a. \*arabear, \*europar, \*musulmandar...
- b. arabiar (arabe), europar...
- c. musulman...

Laugarren oharren helburua hau da: *-(t)ar* bukaerako eratorria zein eratako izenekin erabili izan den edo erabil daitekeen argitzea. Tradizioko erabilera ohikoenean, *-(t)ar* bukaerako eratorria izen [+gizakia] ezaugarridunei dagokie (8a) eta, gainera, izena isilpean utzi ohi da izenondoa bera izen bilakatuz (8b). Alde horretatik, badirudi muga batzuk jarri behar dizkiogula gure atzizkiari, (8c) tankera-koak baztertuaz<sup>229</sup>, eta (8d) dudazkoen ordez (8e) gisakoak bultzatuaz<sup>230</sup>, nahiz *Espainiar* eta *Espainiako* ez izan beti sinonimoak<sup>231</sup>.

- (8) a. nafar soldaduak, jerusalemдар fariseoak, israeldar gizonak, elorriotar gizon done bat...
- b. arranondotar guztiak, espainiarrak, italiarra...
- c. \*kale eibartarrak > Eibarko kaleak
- d. ?konstituzio espainiarra, ?gazta holandarra, ?espainiar parlamentua, ?frantziar iraultza...
- e. Espainiako Konstituzioa, Holandako gazta, Espainiako parlamentua, Frantziako Iraultza...

Era berean, hizkuntza teknikoan erreferentziazko erdal izenondoen ordain gisa proposatu diren eta orain arteko tradizioarekin bat ez datozen *barnetar* eta *bertatar* moduko berrikuntzak (9) ez dira batera gomendagarriak<sup>232</sup>. Batetik, ezinbestekoak ez direlako<sup>233</sup>; bestetik, oinarriaren edota adieraren aldetiko desbideratze nabarmenak ekartzen dituztelako. Esanak esan, badira *hamartar* gisako eratorriak, eraketa aldetik salbuespen direnak baina arrakasta edo onarpena lortu dutenak.

<sup>228</sup> Euskaltzaindiko LEF Batzordea (1994d: 1045).

<sup>229</sup> Ikus Egunkariaren 80. idaztaraua (1995: 34-35).

<sup>230</sup> Euskaltzaindiko LEF Batzordea (1994d: 1045).

<sup>231</sup> Azkenaldi honetan hizkuntza teknikoan termino ugari sortu dira ohiko erabileratik urrundu; urruntze hori bai esangurari (a) bai oinarriaren kategoriari (b) dagokie (Zabala, 1999: 141-142).

- a. angeluar (abiadura), nepertar (logaritmoa)
- b. bitar (sistema), hamartar (zenbaki)

<sup>232</sup> UZEIren 1990eko *Zuzenbide Hiztegia*-tik atereak dira zerrendako terminoak.

<sup>233</sup> *Elhuyar euskara-gaztelania/castellano-vasco* hiztegi gaurkotuan, esate baterako, gaztelaniazko *fo-rens*-ren ordain gisa *auzitegiko*, *auzitegi(-)* proposatzen dira eta ez *auzitegitar*; era berean, *territorial*-en ordaintzat *lurraldeko*, *lurraldearen* eta *lurralde(-)* ematen dira eta ez *lurraldetar* sortu berria; etab.

(9) (??)

auzitegitar «forense», auzotar «vecinal», barnetar «interno», bertatar «nativo», bereiztiar «disidente», erakundetar «institucional», erregistrotar «registral», eskualdetar «comarcal», estatuar «estatal», gremiotar «gremial», katastrotar «catastral», landatar «rural», lurraldetar «territorial», ondaretar «patrimonial», sorterritar «nativo»...

Beraz, orain arte esandakoa kontuan hartuz, *-dun* eta *-(t)ar* bukaerako hitz eratorriak sintagma berean metatuz gero, (10a) egitura litzateke jarraitzeko eredu:

- (10) a. Atzerritar agintari eskudunek [hurrenkera ohikoa]  
b. Eskudun agintari atzerritarrek [ohiz kanpoko hurrenkera]

Atzizki hau dela medio sortutako adjektibo eratorriak ez dira kalifikatzaileak, erreferentziazkoak baizik. Gehiago zehaztuz, erreferentziazko sailkatzaileak dira, ez tematikoak<sup>234</sup>; izan ere, beheko (11)-ko adibideak —non «objektua», «subjektua» eta «jabea» interpretazioak bilatzen diren— ezinezkoak dira *-(t)ar* atzizkiarekin<sup>235</sup>.

- (11) a. \*elektroiarr garraioa > elektroi-garraioa  
b. \*birustar infekzioa > birus-infekzioa  
c. \*lurtar mantua > Lurraren mantua<sup>236</sup>  
d. \*newtondar legeak > Newtonen legeak  
e. darwindar teoria («Darwinen ideiei jarraituz asmatutako teoria» eta ez «Darwinen teoria»)

Hala ere, leku-izen propioak ditugunean, posible da batzuetan «egilearen» interpretazioa (12b), ez «jasailearena» (12c) ordea:

- (12) a. Israelen Palestinaren aurkako erasoa  
b. Palestinaren aurkako *israeldar* erasoa  
c. \*Israelen *palestinar* erasoa

Zatia adierazten duten adjektiboak ere ez dira posible leku-izen propioei loturiko *-(t)ar* atzizkiaren bidez (13a). Onargarriak dira, ordea, izakien kokapena adierazten duten adjektiboak (13b, 13c).

- (13) a. \*europar mendabaldea > Europaren mendabaldea  
b. errusiar ertia / Errusiako ertia  
c. errusiar formalismoa / Errusiako formalismoa

Zenbait kasutan gaztelaniaz erreferentziazko izenondoa erabiltzen bada ere, egokiagoa da euskaraz leku-izen soila (14b) edota aposizioa (14c):

- (14) Continente europeo  
a. ?Europar kontinentea  
b. Europa  
c. Europa kontinentea

<sup>234</sup> Ikus gorago erreferentzia-izenondoei eskainitako 23. atala.

<sup>235</sup> Ohar hau eta hurrengoak Zabala (1999:143-146)-tik jaso ditut.

<sup>236</sup> «Mantua» hitza gaztelania hutsezkoa da.

Bestalde, *-ar* bukaerako erdal izenondo erreferentzialak mailegatuz gero, argi eduki behar da izenaren ondoren bakarrik ager daitezkeela (15b, 15c).

- (15) a. europar espezieak / espezi europarrak  
 b. \*nuklear errektoreak > errektore nuklearrak  
 c. \*zirkular orbita > orbita zirkularra

**Aztertzeko adibideak:**

EGITURA EZ-OHIKOA, DUDAZKOA EDO OKERRA	HOBESTEKO EGITURA
(16) * <i>Europear</i> Elkarteko arauak	(17) <i>Europako</i> Erkidegoko arauak
(18) langabezia <i>urtesasoitar</i> «desempleo estacional»	(19) <i>urte-sasoiko</i> langabezia
(20) ...isabeldarrak arrunt <i>erdiarotarrak</i> iruditzen zaizkigu.	(21) ...isabeldarrak arrunt <i>Erdi Arokoak</i> iruditzen zaizkigu.
(22) ??autobide <i>urbanoak</i> / ?? autobide <i>hiritarrak</i>	(23) hiri-autobideak
(24) ??mapa <i>gautarrak</i>	(25) gaueko mapak / gau-mapak
(26) (...) Sozietate <i>atzerritarrak</i> ere bai, beren helbidea <i>lurralde espainiarrera</i> aldatzen badute.	(27) (...) <i>Atzerriko</i> (? <i>atzerritar</i> ) sozietateak ere bai, (beren) helbidea <i>Espainiako lurraldera</i> aldatzen badute.
(28) (...) bilera burutu den <i>lurralde nazional edo atzerritarreko</i> tokia eta data (zehaztu behar dira).	(29) (...) bilera egin den tokia, nazio-koa zein atzerrikoa, eta data (zehaztu behar dira).
(30) ?ingurune <i>urtarra</i>	(31) ur-ingurunea / uretako ingurunea
(32) linguistika <i>txino-tibetanoa</i>	(33) txinatar-tibetar linguistika / Txina eta Tibeteko linguistika
(34) (...) ? <i>uhin</i> <i>hiritarraren</i> eraginez zabaldu ziren horrelako jokamoldeak.	(35) <i>hiri-uhinaren</i> / <i>hiritako uhinaren</i> eraginez...
(36) ?moneta atzerritarra	(37) atzerri-moneta...
(38) ?inbertsio atzerritarrak	(39) atzerri-inbertsioak / atzerriko inbertsioak (? <i>atzerritarren</i> inbertsioak)
(40) ?kapital atzerritarra	(41) atzerri-kapitala
(42) ?kapitalismo herritarra («capitalismo popular»)	(43) herri-kapitalismoa
(44) ?ekonomia hiritarra («economía urbana»)	(45) hiri-ekonomia
(46) jurista erromatarrak	(47) erromatar juristak
(48) hiritartasun erromatarra	(49) erromatar hiritartasuna
(50) Hitzarmenaren eremua: alderdi negoziatzaileei tokaten zaie hori libreki erabakitzea, eta horiek formularik desberdinenak aukera ditzakete, hala nola, «banda»ko hitzarmenak, enpresakoak, sektorekoak, <i>eskualdetarrak</i> , probintzialak, Komunitate Autonomoetakoak, edo estatalak.	(51) Hitzarmenaren eremua: alderdi negoziatzaileei tokaten zaie hori libreki erabakitzea, eta horiek formularik desberdinenak aukera ditzakete, hala nola, «banda»ko hitzarmenak, enpresakoak, sektorekoak, <i>eskualdekoak</i> , probintziakoak, autonomia-erkidegoetakoak, edo estatukoak.

- |  |  |
|--|--|
| (52) Horietako gehienak (b, c, d, e eta g letrak) ASLOan bertan (7.2 art.) airtortzen zaizkie sindikatuei, hauek « <i>eremu lurraldetar</i> eta funtzional espezifikoko batean» ordezkaririk ez zuten %10a lortu dutenean... | (53) Horietako gehienak (b, c, d, e eta g letrak) ASLOn bertan (7.2 art.) airtortzen zaizkie sindikatuei, hauek « <i>lurralde- eta jardute-eremu</i> espezifikoko batean» ordezkaririk ez zuten %10a lortu dutenean... |
| (54) Askatasun sindikalaren alor subjektiboa oso zabala da <i>ordenamendu espainiarrean</i> .  | (55) Askatasun sindikalaren alor subjektiboa oso zabala da <i>Espainiako ordenamenduan/sistema juridikoan</i> .  |
| (56) Konstituzio Espainiarra   | (57) Espainiako Konstituzioa (?Espainiar Konstituzioa)   |
| (58) zuzenbide lurraldetar («derecho territorial»)   | (59) lurralde-zuzenbide  |
| (60) parke natural eskualdetarra («parque natural regional»)   | (61) eskualdeko parke naturala   |
| (62) faktore urtarotar («factor estacional») [Mat]   | (63) urtaroko faktore [Mat]  |
| (64) izen herritarra («nombre popular»)  | (65) herri-izena   |
| (66) mediku auzitegitarra («médico forense»)   | (67) auzitegiko medikua  |

#### 48. -ARI (-LARI) ATZIZKIAZ<sup>237</sup>

##### *Tradizioa, irizpideak...*<sup>238</sup>

Bi puntu dira atzizki honen inguruan arautu beharrekoak: formari dagokiona bata —noiz *-ari* eta noiz *-lari*—, eta oinarriaren kategoriari buruzkoa bestea —nola behar du: *ikerlari* ala *ikertzaille*?—.

##### 1. *-ari* eta *-lari* formen arteko banaketa:

Gaur egun auzia *-ari* eta *-lari* formen arteko banaketan dugu, *-lari* aldaera nagusitzen ari baita: *segari* forma zaharraren ondoan *segalari* nagusitu zaigu; *jokari* eta *jokalari* ere hor ditugu lehian, e.a. Hitz berriak eratzeko orain arteko jokabidea eredu hartzen badugu, gomendioa hau izango litzateke:

a) *-a + -ari*: izen oinarria *-a* bokalaz amaitzen denean, eta batez ere bi silaba edo gehiagoko oinarrietan:

<sup>237</sup> Euskaltzaindiaren araugintza berriko 49. araua laburtu dut atal honetan.

<sup>238</sup> Txosten honetan eztabaidatzen dena *-ari* eta *-lari* atzizkien erabilera da, ez besterik. Horrela eraturiko izenak dira eztabaidagai. Badira beste hitz asko beste modu batera ere sor daitezkeenak: *filosofo*, *teologo*, *biologo*, *pianista*, *armagin*, *musikagile*, etab. Hitz hauek guztiak Euskaltzaindiko Hiztegi Batuko batzordeak aztertuko ditu eta ikusiko batasunerako onargarri diren ala ez.

(1) *dantzari, tabernari, pilotari, dendari, errotari...*

e.a. bezala, berrietan ere. Hortaz:

(2) *fisikari, politikari, gramatikari, kritikari.*

Halakoa izan da azken urteetako jokabidea ere. Honek ez du esan nahi, jakina, oso sartuak dauden *hizkuntzalari, pentsalari* bezalakoak aldatzen hasi behar denik.

b) *-ia* bukaerako oinarrietan *-a* galdu gabe emango da:

(3) *zientzialari, historialari...*<sup>239</sup>

Gainerakoetan ez dirudi gomendio orokorrik eman daitekeenik, baina oro har *-lari* da nagusitzen ari den forma: *txotxongilolari...*

## 2. Oinarriaren kategoria:

*-ari* atzizkiaren oinarria izen-kategoriakoa izan da, eta aditzoin-kategoriako oinarriari *-le* edo *-tzaile* erantsi izan zaio. Izena izateaz gainera, arrunta eta bizigabea tasunak izaten ditu *-ari*-ren oinarriak. Hala ere, honek ez du esan nahi edozein izen arrunt, bizigabek har dezakeenik *-ari*: guztiok baitakigu *\*mahaiari* edo *\*ardolari* bezalakorik ez dela sortzen. Bidezko dirudi, beraz, hala egitea aurrerantzean ere eta *ikertzaile, hezle* edo *hezitzaile* esatea, ez *ikerlari* edo *hezilari*<sup>240</sup>. *Aurkezle* hobe, *aurkezleri* baino, etab. Erabat sartua dugun *gidari, pentsalari*<sup>241</sup> eta besteren bat ere bere horretan utz daitezke, noski<sup>242</sup>.

Dena dela, badira aditzoin berari bi atzizkiak, *-le* eta *-ari*, erantsiz sortutako izen bikoteak ere, esanahi desberdina dutenak. Horrelako kasuetan zilegi da aditzoin berari *-le* edo *-tzaile* eta *-ari*, biak eranstea:

- (4) a. *zuzendari / zuzentzaile*  
b. *idazkari / idazle*  
c. *zaindari / zaintzaile*  
d. *administrari / administratzaile*  
etab.

---

<sup>239</sup> Arauari dagokion txostenean *ekonomialari* ere agertzen den arren, *Hiztegi Batua-n ekonomista* baizik ez da ageri.

<sup>240</sup> Hala ere, *Hiztegi Batua-n ikerlari* forma ere jasota dago bigarren mailako aldaeratzat: *ikertzaile* forma hobesten da, jakina.

<sup>241</sup> Bi hitz hauekin bikoteak sortzen zaizkigu: *gidari/gidatzaile; pentsalari* (ohikoa) / *pentsatzaile* (gutxi erabilia).

<sup>242</sup> Dena den, *ikuskari/ikuskatzaile* hitz-bikotearen kasuan, *ikuskari* ezin da txartzat eman, haren oinarria *ikuska* aditzondoak baita (Euskaltzaindia 1994d: 1041). *Hiztegi Batua-n* ere badago jasota *ikuskari* izena, lehen adiera «ikuskizuna» eta bigarrena «ikuskatzaile» izanik.



Hau gutzia kontuan izanik, hauxe erabakitzen du Euskaltzaindiak:

1. Erabil bedi *-ari* forma, *-a* bokalaz amaitzen diren izen oinarriei eransteke, batez ere bi silabatik gorakoak direnean. Beraz, *gramatikari* edo *politikari* erabil bitez batasunerako (eta ez *gramatikalari* edo *politikolari*).

*-ia* amaierako izenekin, *-ialari* hobesten da: *historialari*, *zientzialari*.

2. Era berean, erants bekio *-ari* atzizkia izenari, eta *-le* edo *-tzaile* atzizkiak, berriz, aditzei. Hortaz, *hezle*, *hezitzaille* edo *ikertzaille* dira batasunerako formak, *hezi* eta *iker(tu)* aditzak baitira.

Aditz batek adiera bat baino gehiago izan dezakeenean, zilegi izan daiteke adiera batean *-le* edo *-tzaile* eranstea, eta *-ari* beste adieran: *idazle / idazkari*, *zuzentzaille / zuzendari*.

HIZTEGI BATUA: *-LARI* ATZIZKIA DUTEN HITZAK

abeslari	gorulari	korrikalari	segalari
argazkilarri	gudulari	krosolari	sendalari«sasi-medi- kua»
arraunlari	haxelari	legelari	sermolari
aurrelari	hegazkinlari	margolari	soinulari
atzelari	historialari	marrazkilarri	taxilari (taxista*)
aurrekulari	hizkuntzalari	marrumalari	tenislari
auskilarri	hizlari	mezulari	teorialari
auzilari	idazlari	miaulari <i>izond.</i>	testulari <i>Bizk. (...)</i>
bakarlarri	igerilarri	mintzalari	tratulari
berinalari	ikerlarri h. ikertzaille	misiolari	trikitilari
bertsolari	iheslarri	mitinlarri	trinketlarri
braolari	industrialari	muslarri	trontzalari
bogalarri	ipuinarri	oihularri	txerpolari
borrokalari	irrintzilari	orrolari	txiolari <i>izond.</i>
boxeolari	irristalarri	ostalari	txistularri
ditxolari <i>Ipar.</i>	itaurlarri	ostikolarri	zantzolari
errugbilari	jauzilari	otoizlarri	zergalarri
ertilari	jokalarri	pentsalarri	zientzialari
eultzilari	jostalarri	pregoilarri	zirtolari
garraiolari	kontalarri	probalari	
goldelari	kontularri	prosalari	

HIZTEGI BATUKO *-ARI\** (*-ARITZA\**) OKERRAK:

artxibari\* e. artxibozain  
 berunkari\* e. iturgin  
 elektrikari\* e. argiketari  
 erlojari\* e. erlojugile, erloju(-)konpontzaille, erloju(-)saltzaille  
 igeltsari\* e. igeltsero  
 igeltsarritza\* e. igeltserotza  
 ministrari\* e. ministro  
 ministrarritza\* e. ministerio  
 nabigari\* e. nabigatzaile  
 notari\* e. notario  
 solidarritza\* e. solidaritate

**Tradizioa, irizpideak...**

Joera nabarmena izan da azken urteetan, lanbidea adierazten duten erdal maileguak (batez ere erdaraz atzizkia dutenak direnean), *-ari* amaieraren bidez egokitzeko. Behin baino gehiagotan entzun eta irakurri ditugu: *enpresari, komisari, tripulari, unibertsitari, funtzionario...*<sup>244</sup> Ez da erabateko jokabidea izan ordea, *unibertsitario, funtzionario* edo *mertzenario* ere ez dira-eta zeharo arrotzak.

Bestalde, erdaraz *-ario* atzizkiak izenak eta izenondoak sor daitezke: goiko adibideen ondoan, *humanitario, hipotecario, (grupo) parlamentario...* ere badira. Izenondo hauekin ere jokabide bikoitza izan da, bietara entzuten baitugu *talde parlamentario* nahiz *talde parlamentari*. Egia da *-ari*-rekin osatzen ditugun hitzak behin baino gehiagotan izenondo modura-edo erabiltzen ditugula; aspaldikoak dira, gainera, halako adibideak (ikus Axularren *esku trabailari* eta *hitz jokolari*). Erdal *-ario* izenondoak, ordea, izenondo erreferentzialak direnez, urrun samar geratzen dira (askotan behintzat) euskal *-ari* atzizkiaren esanahitik. Zer zentzu dute *borroka proletari* edo *sistema planetari-k*? «Proletan ari den borroka» eta «planetan ari den sistema»? Betiko erabileretan, aldiz, *gizon bertsolari* «bertsotan ari dena», *hitz jokolari* «jokotan ari dena», *zakur zaunkari* «zaunka ari dena», etab. bezala uler daitezke.

-ARIO /-AIRE ATZIZKIEZ OSATUTAKO IZENONDOEN MAILEGATZEAZ:

*-ari / -ario* auzian, beraz, hau litzateke lehen gomendioa: erdal *-ario/-aire* atzizkiez osatutako izenondoak *-ario* forman mailegatu:

*autoritario, estatutario, finantzario, frakzionario, hipotekario, humanitario, komunitario, monetario, parlamentario, primario, sektario, sekundario, solidario, unitario...*

Nolanahi ere, ahal denean, maileguz hartutako erdal izenondoen orde, hobe euskal egituraren araberrako ordainak erabiltzea: *talde parlamentario* esan beharrean, *parlamentu(ko) talde*, edo *kreditu hipotekario* esan beharrean, *hipoteka-kreditu*; *aldizkari unibertsitario* baino, hobe *unibertsitate(ko) aldizkari*.

-ARIO /-AIRE ATZIZKIEZ OSATUTAKO IZENEN MAILEGATZEAZ:

Horrelako erdal maileguak euskal literatura-tradizioan nola ageri diren aztertuz gero, *OEHko* eta *EEBSko* (*Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematikoko*) corpusek erakusten dute *-ario* forma dela ia bakarra Hegoaldean (azken urteak kenduaz, jakina). Iparraldean ere ez da ezezaguna. Egia da, bestalde, izen gutxi direla —dozena-erdi bat

<sup>243</sup> Euskaltzaindiaren araugintza berriko 50. araua laburtu dut atal honetan.

<sup>244</sup> Gaur egun, zerrenda honetako izen guztiak okertzat hartu behar direla dirudi; izan ere, *Hitzegi Batua*-n *enpresaburu, komisario, unibertsitario* eta *funtzionario* datoz eta berriaz gaitzesten dira *ministrari\**, *notari\**, *nabigari\** gisakoak. Agian duda gehixeago sor daiteke *enpresari* hitzaren inguruan, eraketa aldetik zuzena baitirudi (*enpresa*-tik *enpresari* sortu da, *pilota*-tik *pilotari* sortu den era berean). Arazoa beste bat da (Sarasola, 1997: 65-66, «enpresari»): Iparraldean ulergaitza da *enpresari* hitza, han *enplegatzaileak /kudeatzaileak* baitaude. Hau da, gaztelaniaren eraginez sortua dirudi eta batasuna errazago bidera daiteke *enpresaburu* edo *enplegatzaile (enplegu-emaile)* hitzen bidez.

inguru— tradizioan ditugunak (*bikario, botikario, boluntario, komisario/komisari, notari* (ipar.)/*notario* (heg.), *sekretario/sekretari*). Datu hauen aurrean, garbi samar ikusten da, *-ario* izan dela Hegoaldeko joera nagusia eta baita Iparraldekoa ere behin baino gehiagotan. Batasunerako gomendioak ematean erabiltzen dugun irizpidea hartuz gero, ez legoke zalantzarik *-ario*-ren aldeko gomendioa emateko.

Orain arte esanak gogoan izanik, honako arau hau ematen du Euskaltzaindiak: Erdal *-ario/-aire* atzizkiez osatutako izen-izenondoak *-ario* forman, eta ez *-ari* forman, mailega bitez:

- izenen artean *notario, komisario, unibertsitario, funtzionario, kortsario, mertzenario*, etab. (salbuespenik balego, hiztegi batuan zehaztuko dira salbuespen hauek bere garaian);
- izenondoetan, (*talde*) *parlamentario, (sistema) planetario, (jokabide) sektario*, etab. Baina ahal dela, maileguz hartutako erdal izenondoen orde, hobe euskal egituraren arabera ordainak erabiltzea: *talde parlamentario* esan beharrean, *parlamentu(ko) talde*, edo *sistema planetario* esan beharrean, *planeta-sistema* edo *planeta sistema* esatea egoakiagoa da. Gauza bera *aldizkari unibertsitario*-ren kasuan ere, egokiagoa baita *unibertsitate(ko) aldizkari* erabiltzea.

#### HIZTEGI BATUA: -ARIO ATZIZKIA DUTEN HITZAK

##### IZENONDOAK

arbitrario	parlamentario (parlamentari iz)	sektario
autoritario		solidario (baina <i>solidaritate</i> )
boluntario (bolondres*)	planetario	
kontzesionario	primario	totalitario
literario	proletario	unibertsitario

##### IZENAK: «EGILEA» ADIERAKOAK

beterinario* e. al baitari	komisario	notario (notari*)
bikario	kontrario <i>Herr.</i> «aurkaria»	proletario
boluntario (bolondres*)	kortsario	sekretario h. idazkari
funtzionario	mertzenario	

#### 50. -GAILU ATZIZKIA<sup>245</sup>

Atzizki honen oinarria aditz kategoriako da eta atzizkiak «baliabidea» adierazten du. Lehen osagaia izena denean, ostera, «izena + *makina, tresna, ontzi*» moduko izen elkartuen ondoan, *supizteko, bizarra kentzeko makina, belarra ebakitzeko makina* nahiz *belar moztekoa, bizar moztekoa, babea eta artoa ehotzeko traman-kulua*, etab. ere ezagunak eta tradiziodunak dira euskaraz.

<sup>245</sup> Euskaltzaindiko LEF Batzordearen txostenean esaten dena jaso dut atal honetan (Euskaltzaindia, 1994d: 1042).

Azken urteetako *irratigailu*, *telebistagailu*, *elektrogailu* edo *ortopediagailu* bezalako adibideak direla eta, batzordeak gogorarazten du *-gailu*, aditzoinari eransten zaion atzizkia dela, «baliabidea» adierazten duena. Beraz, *-gailu* izen gisa erabiltzea —adibide horietan egiten den bezala— ez da onartzekoa. *Irratigailu*-ren orde, esaterako, *irradi-aparatu* nahiz *irradi* hutsa aski da (*aparatu* esatea ez baita beti beharrezko)<sup>246</sup>.

HIZTEGI BATUA: *-GAILU* ATZIZKIA DUTEN HITZAK

aldagailu	igorgailu	metagailu
azeleragailu	ikusgailu	neurgailu
berdagailu	ikuzgailu	ongailu
berogailu	inprimagailu	ordenagailu
bizigailu	irabiagailu	oroigailu <i>g.er.</i>
edergailu	iratzargailu	pizgailu
entzungailu	isolagailu <i>Fis.</i>	plater-ikuzgailu
etengailu	itxigailu	proiektagailu
euri-neurgailu	jaurtigailu	puregailu
eztigailu	jogailu	puzgailu
gantzugailu <i>Jas.</i>	jostailu	saltagailu
garbigailu	juntagailu	sendagailu
gozagailu <i>Ipar.</i>	kalkulagailu	txigorgailu
hargailu	karburagailu	xurgagailu
harrapagailu	konputagailu	zalgailu
hesgailu	kontagailu	zartagailu <i>Ipar.</i>
ibilgailu	lehergailu	zulagailu
igogailu	menderagailu <i>Gram.</i>	

51. *-GARRI* ETA *-KOR* ATZIZKIAK<sup>247</sup>

51.1. *-garri*

Atzizki hau bi argumentu dituzten aditzei (aditzoineri) eransten zaie eta izenon-  
doak sortzen ditu modu produktiboan<sup>248</sup>. Hiru adiera izan ditu, funtsean bitara bil  
daitezkeenak. Lehena, historian zehar nagusi izan dena; bigarrena, azken urteetan  
lehenari nagusitu zaiona<sup>249</sup>:

<sup>246</sup> *Hiztegi Batua*-k onartu duen *puregailu* eratorriaren kasua bestelakoa da: \**irratigailu* moduko-  
etan ez bezala, *puregailu*-ren oinarrian «pure egin/bihurtu» aditz-esapidea dugu, eratorria zilegiztatzen  
duena.

<sup>247</sup> Atal honetan, funtsean, Euskaltzaindiko LEF batzordearen txostena (Euskaltzaindia 1994d:  
1047-1048) eta Azkarate (1993b) laburtu ditut. Ikuspegi teknikoago baterako, ikus Azkarate (1990),  
Artiagoitia (1995) eta Gràcia et al. (2000: 466-478; 484-489).

<sup>248</sup> Hala ere, badira argumentu bakarria duten salbuespenezko oinarri batzuk, hala nola, *distiratu*  
(*distiragarri*), *barre egin* (*barregarri*), etab. Xehetasun gehiagorako, ik. Gràcia et al. (2000: 473-475).

<sup>249</sup> Artiagoitiaren (1995) arabera, funtsean atzizki bakarria dugu eta oinarriko aditzen izaera desber-  
dina da itxurazko edo azaleko bikoiztasuna eragiten duena.

1. Azkuek «productor de» bezala definitu zuena, balio aktiboa, eragilea duena. Halakoak dira: *aspergarri, barregarri, galgarri, harrigarri, hinguigarri, mingarri, nazkagarri, negargarri, penagarri, pozgarri...*

- (1) a. jokabide harrigarri = jokabideak harritzen du (norbait)
- b. liburu aspergarri = liburuak aspertu egiten du (norbait)
- c. film beldugarri = filmak beldurtu egiten du (norbait)
- d. berri pozgarri = berriak poztu egiten du (norbait)
- e. erantzun mingarri = erantzunak mindu egiten du (norbait) / min ematen dio (norbait)
- f. egoera negargarri = egoerak negar eragiten dio (norbait)
- g. jokabide lotsagarri = jokabideak lotsatzen/lotsarazten du (norbait)

Axularrek *alferkeria arimaren galgarri* dela dioenean, «alferkeriak arima galtzen du» ematen du aditzera. Ohar gaitezen atzizki honek aditzoina hartzen duela oinarri<sup>250</sup> edo aditz-esapideko izena (*negar egin* → *negargarri, barre egin* → *barregarri*)<sup>251</sup>. Iparraldean, berriz, aditz-esapide osoa izan ohi da oinarri *irri egingarri, pena egingarri* modukoak sortuz.

2. Balio pasiboa dei dezakeguna, bi azpisail bereiziaz:

2a. «Digno de ser...» edo «zertzea/zertua izatea merezi duena»: *maitagarri, gogoangarri, aipagarri, ikusgarri, jakingarri, miresgarri...*

- (2) a. mutil maitagarri = maitatzea/maitatua izatea merezi duen mutila
- b. gertakizun gogoangarri = gogoan izatea merezi duen gertakizuna
- c. datu aipagarri = aipatua izatea merezi duen datua
- d. jokabide miresgarri = miretsia izatea merezi duen jokabidea
- e. berri jakingarri = jakitea merezi duen berria

2b. «Que puede ser» edo «zertu daitekeena»: *barkagarri, baztergarri, jasangarri, ulergarri, zenbakarri...*

- (3) a. izen zenbakarri = zenbatu daitekeen izena (zenbatu daitekeen zerbait adierazten duena)
- b. bekatu barkagarri = barka daitekeen bekatua
- c. azalpen ulergarri = uler daitekeen azalpena
- d. datu baztergarri = bazter daitekeen datua

---

<sup>250</sup> Oinarriak gehienetan bi argumentu izan ohi ditu (Gràcia et al., 2000: 472-474): a) kausa, tema (1); b) kausa, esperimintazaille (2). Baina ez du onartzen agentea-tema irakurketa (3).

1. a. Eztiak mina gozatzen du.
- b. Eztia janari gozagarria da.
2. a. Heriotzak jendea beldurtzen du.
- b. Heriotza gertaera beldugarria da.
3. a. Jonen hutsunea bete du.
- b. Jon izan da hutsunearen \*betegarria

<sup>251</sup> Hala ere, oinarritzat aditzoina hartzen ez duten salbuespenen batzuk ere badira (Artiagoitia, 1995): *onuragarri, zirrargarri, xarmagarri...*

*Azalpen ulergarria* «uler daitekeen azalpena» da. Hauxe da hain zuzen erdal *-ble* atzizkiaren adiera nagusia gaur (nahiz erdaraz ere badiren *admirable* «digno de ser admirado» edo *terrible* «productor de» adierako adibideak).

Lehen euskal testuetatik gaur arte aurki ditzakegun *maitagarri*, *miresgarri*, *miragarri* eta antzekoak zubi modukoak lirakeke balio aktiboaren eta pasiboaren artean.

Erdal *-ble* atzizkiaren parekorik ez dugunez, asko ugaldu da azken urteetan hirugarren adiera (*eraikigarri* moduko hitz berrietan agertzen dena, alegia «zertu daitekeena»). Ez genuke baina ahaztu behar *-garri* atzizkiaren adiera nagusia zein izan den. Bestela, *-garri* erdal *-ble* adierazteko, eta horretarako bakarrik, gordetzen badugu, balio aktiboa adierazteko atzizkirik gabe geratuko gara. Hobeto esan, beste atzizki batez, inoiz halako baliorik izan ez duenaz, ari gara baliatzen balio eragileko izenondoak sortzeko, *-kor* atzizkiaz hain zuzen. Bide horretatik behin baino gehiagotan okerreko berdinketa (eusk. *-kor* = gazt. *-ivo*) geratzen zaigu. Jokabide horren makurra ulertu ahal izateko, *-kor* atzizkiaren erabilera nolakoa izan den ere ikusi beharko dugu.

## 51.2. *-kor*

Aditzoin kategoriako oinarria hartzen duen atzizki honek «joera, erraztasuna» adierazten duela esan dute Azkuek eta Villasantek. Oinarriko aditzoina<sup>252</sup> askotan *da* motakoa izan ohi da<sup>253</sup>, eta ezkerreko izena ez da inoiz objektua, baizik beti subjektua eta subjektu «jasailea» («ekintza jasaten duena») gainera, ez «eragilea»:

- (4) a. arbola betekor = arbola (erraz) betetzen da
- b. eguraldi aldakor = eguraldia (erraz) aldatzen da
- c. partikula higikor = partikula (erraz) higitzen da
- d. beira hauskor = beira (erraz) hausten da
- e. irakasle haserrekor = irakaslea (erraz) haserretzen da
- f. gizon hilkor = gizona hiltzen da
- g. pertsona sineskor = pertsonak (erraz) sinesten du
- h. krisi iraunkor = krisiak irauten du

Atzizki bien (*-garri*, *-kor*) balio eta erabilerak gogoan izanik, bi modutako oposizioak aurki ditzakegu:

- a) Subjektu e(ra)gilea (*-garri*) # subjektu jasailea (*-kor*)<sup>254</sup>
- (5) a. berri pozgarri # pertsona pozkor
- b. ume lotsagarri # ume lotsor
- c. pozoin hilgarri # pertsona hilkor
- d. ahots liluragarri # pertsona lilurakor

<sup>252</sup> Salbuespen batzuetan bestelako oinarriei erantsita agertzen da: *baikor*, *ezkor*, *orokor*, *berankor*.

<sup>253</sup> Oinarri «iragankorrek» —hobeki esan, bi argumentu dituztenak— salbuespenak dira (Gràcia, 2000:487): *maitakor*, *sineskor*. Horrelakoetan, *-kor* atzizkiak kanpoko argumentua (esperimentatzailea edo agentea) «xurgatzen» du eta ez barruko argumentua (tema edo objektua): *ume sineskorra* ez da «sinesten duten (dioten) umea», baizik «erraz sinesten duen umea», hots, hor «umea» esperimentatzailea da eta ez tema; *gezur sinesgarria*, ostera, «sinets daitekeen gezurra» da, non «gezurra» tema (objektua) baita.

<sup>254</sup> Beste oposizio bat hurrengoa dugu: *-kor* / *-gaitz*, *-ezin*. Alde honetatik *aspergaitz* edo *asperrezin* bezalako izenondo baten kontrakoa *asperkor* genuke. Baina *aspergarri* modukoek ez dute kontrakorik, ez behintzat beste atzizki baten bidezko kontrakorik.

b) Objektua (-garri) # subjektu jasailea (-kor)

- (6) a. azalpen ulergarri # pertsona ulerkor  
b. gezur sinesgarri # pertsona sineskor

Beraz -kor atzizkiak ez du -garri-k bezalako balio agente edo eragilerik izan. Gaur ordea halako balioa ematen diogu askotan, honako adibideetan esaterako:

- (7) a. ?neurri murrizkor  
b. ?substantzia hilkor  
c. ?giro erasokor  
d. ?gramatika araukor  
e. ?bilera erabakior  
f. ?erabaki onurakor

Neurria, ordea, ez da murrizten, sustantzia ez da hiltzen, ez eta giroa erasotzen; ezer egitekotan, neurriak (zerbait) murrizten du, bilerak (zerbait) erabakitzen du, substantziak (norbait) hiltzen du eta giroak norbait/zerbait erasotzen du (norbaiti eraso egiten dio). Guztietan -garri (edo -tzaille<sup>255</sup>) beharko luke, beraz:

- (8) a. neurri murrizgarri (murriztaile)  
b. substantzia hilgarri (hiltzaile)  
c. giro erasogarri (erasotzaile)  
d. gramatika arautzaile  
e. bilera erabakigarri  
f. erabaki onuragarri

Bestetik, -kor atzizkia aditzoinari eransten zaiola gogorarazi beharko genuke eta, horrenbestez, *bihozkor* edo *anaikor* ez direla erabat zuzenak. Dagoeneko behin baino gehiagotan esan dugun bezala, adibide pare bat geratzeak ez du garrantzi handirik; bide horretatik aurrera egitea litzateke larriena.

Batzordearen iritziz, jarrera hauxe izan daiteke: -garri atzizkia bada erdal -ble-ren pareko. Baina honek ez digu ahantzarazi behar zein izan den historian bere balio nagusia. Ezinbestean -garri-ren balioa bikoiztera garamatza bide honek, baina uste dugu ez dagoela beste aukerarik. Ez genuke gainera erori behar erdal

---

<sup>255</sup> Argumentu-egiturari dagokionez, Artiagoitiaren (1995) arabera -le/-tzaille atzizkiak (agentea-tema) eta -garri aktiboak (kausa-tema) banaketa osagarria dute:

- (1) a. Jonek emaztea hil zuen.  
b. Jon izan zen emaztearen hiltzailea  
c. Jon izan zen emaztearen \*hilgarria.  
(2) a. Substantzia honek jendea hiltzen du.  
b. Substantzia hau hilgarria da.  
c. Substantzia hau \*hiltzailea da.

Dena den, gaur egungo lexiko berrian bederen —eta are zaharrean ere— (Gràcia et al., 2000: 473) ez dira falta (2c)-ren arabera sortutako esapideak (*tresna ebakitzaile*, *substantzia disolbatzaile*...), «kausa-tema» argumentu-egitura dutenak. Hala ere, tradizioan badirudi -tzaille batez ere pertsonen buruz mintzatuz eta -garri batez ere gauzei buruz mintzatuz erabili direla. Horrela ulertu behar bide ditugu hurrengo aurkaritzak (ik. EH): *garbigarri* # *garbitzaile*; *salbagarri* # *salbatzaile*; *zikingarri* # *zikintzaile*; *berogarri* # *berotzaile*...

eta euskal atzizkien parekatze sistematiko arriskutsuan. Hauxe da esan nahi duguna, oro har egia da *-ble* = *-garri*; baina hala ere,

- (9) a. sustancia oxidante = substantzia oxidagarri  
 b. sustancia oxidable = substantzia oxidakor  
 c. norma restrictiva = arau murrizgarri (eta ez arau murrizkor)

Azken gomendio batek ere ez luke kalterik egingo: *-garri* erdal *-ble* atzizkiaren pareko izan arren, horrek ez du esan nahi erdaraz *-ble* erabiltzen duten bakoitzean euskaraz ere *-garri* atzizkiuz baliatu behar dugunik. *Ur edangarri* ipini beharrik ez dago, nahiz gaztelaniaz *agua potable* izan.

HIZTEGI BATUA: *-KOR* ATZIZKIA DUTEN HITZAK

adierazkor	hurbilkor	minkor
ahanzkor	igarokor	mozkor
ahazkor	iheskor	mudakor
aldakor	ikarakor	mugikor
apurkor	ikuskor* e. ikusgai	oharkor
baikor	ilunkor	oldarkor
berankor	iragankor	onurakor* e. onuragarri
betekor	iragazkor=irazkor	orbankor
bihurkor	iraungikor	orokor
birakor	iraunkor	pairakor
bizkor	irazkor = iragazkor	pasakor
bizikor	irrikor	pentzakor
egonkor	irristakor	pozkor
ekarkor	irudikor	saminkor
elkarkor <i>Mat.</i>	isurkor	samurkor <i>Ipar.</i>
emankor	itsaskor	sarkor
eraginkor	itzalkor	sentikor
eramankor	itzurkor	sineskor
eranskor	izerdikor	sukor
erikor	izukor	suminkor
erorkor	jasankor	suntsikor
etenkor	jauskor	toleskor
ezilkor	jeloskor	trukakor <i>Mat.</i>
ezkor	kaltekor h. kaltegarri	ugalkor
fidakor	kilikor	ukakor
gaitzikor <i>Ipar.</i>	kilimakor <i>Gip.</i>	urkor
galkor	kiribilkor	urrakor
gizenkor	kutsakor	urrikalkor <i>Ipar.</i>
goibelkor	labainkor	urrunkor
haserrekor	lerrakor	urtukor* e. urkor
hauskor	lilurakor	ustelkor
hazkor	limurkor	uzkurkor
hedakor	lotsakor	zabalkor
herdoilkor	lurrunkor	zalantzakor
higikor	luzakor	zatikor
hilezkor	maitakor* e. maitekor	zutikor
hilkor	maitekor	



HIZTEGI BATUA: OKERRAK

ikuskor\* e. ikusgai  
kaltekor h. kaltegarri  
onurakor\* e. onuragarri

## 52. -GO ATZIZKIA ETA IZEN MULTZOKARIAK<sup>256</sup>

### *Tradizioa, irizpideak...*

Batez ere Iparraldeko euskalkietako den atzizki honek *-a* organikoa izan du garai batean eta oraino ere badu zubereraz. Hala ere, azken garaietan, *-go* forma nagusitu baita, honela onartuko da euskara batuan. Bi adiera nagusi izan ditu tradizioan zehar:

1. «Lanbidea, ofizioa» adierazten du (Hegoaldeko euskalkietan *-tza* atzizkiarekin adierazten dena):

«Adam eta Ebaren lehen bi haurrak Kain eta Abel izan ziren. Lehena laborantzari eman zen, bigarrena *artzaingoari*». (Zerbitzari)

2. *-tasun* atzizkiaren kide da beste adibide hauetan:

«Egia heiek elgarrekin duten *ahaidegoa* eta batasuna». (Laphitz, *Bi Saindu Hescualdunen Bizia*, 46)

Azken 20/25 urte hauetan, ordea, beste balio bat eman zaio *-go* atzizkiari bate-tik, eta pertsonen multzoa edo taldea adierazteko hartu *irakurlego*, *ikaslego*, *irakaslego*, *ikuslego*, *biztanlego* edo *euskaldungo* bezalako izenetan. Tradizioaren arabera, hauetako batzuk ulertezin gertatzen dira, *biztanlego* ezin baita lanbidetzat hartu, eta nekez uler daiteke «biztanletasun» bezala ere. Beste batzuk, aldiz, oso bestelako esanahia lukete, *irakaslego* «irakasleen lanbidea» bailitzateke, edo *euskaldungo* «euskalduntasuna», ondoko adibidean argi ikusten den bezala:

«Idatzi du nonbait bost axola zaigula non dagokeen orain eta egun *euskaldungoaren* haberik sendoena». (Mixelena: *Mixelenaren Idazlan Hautatuak*, 392)

Pertsona-multzoa adierazteko, *-eria* atzizkia baliatu izan dugu:

«Zahartzera goazinei darraikigula *gazteria*». (Hiriart-Urruty, *Aurpegia, Mintzaira, Gi*  
«Dendari arek, aituna zan bere tratuan, eta *bezerixa* aundixa eukan». (T. Etxebarria).

Beste alde batetik, oso sarri erabiltzen dira gaur *-go* atzizkiarekin sorturiko eta pertsona-multzoa adierazten duten izenak: hitzetik hortzera erabiltzen dugu *ikaste-ixe bateko irakaslegoa* edo *ikaslegoa*; *ikaslegoaren kopuruak gora egin du* esaten

<sup>256</sup> Euskaltzaindiaren araugintza berriko 73. araua laburtu dut atal honetan.

da gehienetan, etab. Tradizioan, aldiz, ez da izen multzokari gehiegi azaltzen; plurala erabiltzen da askotan. Hortaz, konponbidea ez da *-go* atzizkia dagoen lekuan besterik gabe *-eria* atzizkia jartzea, gehienetan plurala erabiltzea baino: *herri honetako biztanleak, ikastetxe honetako irakasleak, irratiko entzuleak...* Eta balio multzokaria behar denean, *-eria* atzizkiak sortu izenak.

Hau da, beraz, Euskaltzaindiaren erabakia:

1. Euskaraz askotan ez dago izen multzokariaren beharrik, nahikoa da plurala erabiltzea: *ikastetxe honetako irakasle eta ikasleak, herri bateko biztanleak, hizkuntza bateko hiztunak*, etab.
2. Hala ere, izen multzokaria beharrezkoa denean, *-eria* atzizkia erabil bedi: *langileria, gazteria, biztanleria* edo *bezeria*.
3. *-go* atzizkia erabil bedi:
  - ofizioa, lanbidea adierazteko: *artzaingoa, zurgingoa*, etab.
  - tasuna adierazteko: *euskaldungoa, ahaidegoa*, etab.

#### HIZTEGI BATUA: *-GO* ATZIZKIA DUTEN HITZAK

ahaidego	itzaingo	notalgo <i>Ipar.</i>
artzaingo	jaurgo	ohoingo
batxilergo	kardinalgo	oihanzaingo
bekaizgo	langilego 1. «langiletasuna», 2* e. langileria,	samurgo <i>Ipar.</i>
doktorego	langileak	soldadugo
ebasgo («ohointza»)	lankidego	udaltzaingo
elkargo	merkatalgo	xalantzaingo
gehiengo	mugazaingo	zaingo
gotzaingo	nagusigo	
gutxiengo (minoria*)	nekazalgo <i>Naf.</i>	
hegigo <i>Zah.</i>		

#### HIZTEGI BATUKO *-GO\** OKERRAK:

entzulego\* e. entzuleria, entzuleak

#### HIZTEGI BATUKO *-ERIA* MULTZOKARIAK:

argiteria	irakasleria	sataneria
beirateria	irakurleria	terreterria
bezeria	jauneria <i>Ipar.</i>	tresneria
biztanleria	kordeleria	umeteria <i>Bizk.</i>
entzuleria	langileria	urreria
estolderia	legeria	xeheria <i>Ipar.</i>
gazteria	litxarrerria	zaborrerria
girgileria	makineria	zakarrerria
gizateria <i>Bizk.</i>	mihiseria	zilarrerria
hoditeria	ontziteria	zureria

### 53. -KO/-DUN ATZIZKIAK

Gaur egun, bi atzizkiok izenondoak sortzeko erator-atzizkien artean sailkatu ohi dira. Eta, oro har, «jabegoa» adiera dutela esan daiteke, nahiz eta *-ko* atzizkiaren adiera zerbait zabalagoa ere baden.

Erator-atzizkiak direla onartuta ere, *-ko* eta *-dun* atzizkiek badute ezaugarri bat, gainerako erator-atzizkietatik bereizten dituen: beste erator-atzizkien (*-tasun*, *-keria*, *-kor*, *-garri*, etab.) oinarria hitz soila edo kategoria lexikala (izena, adjektiboa, aditza, etab.) izaten da (1); *-ko* eta *-dun* atzizkiek, ostera, hitz soila ez ezik, goragoko sintaxi-kategoria ere har dezakete oinarritzat (2b, 2c; 3b, 3c).

- (1) amatasun, harrokeria, hauskor... (izena/adjektiboa/aditza oinarri)
- (2) a. itxurako, edadeko, hitzeko... (izena oinarri)  
b. azal zuriko, jenio txarreko, bihotz oneko... (izen-multzoa oinarri)  
c. hanka biko, kanioi biko, hiru urteko (haurra)... (izen-sintagma oinarri)
- (3) a. ugaztun, zentzudun, bizardun, dirudun, arimadun... (izena oinarri)  
b. bizar gorridun, atorra dotoredun, azal ederdun, estalki zuridun... (izen-multzoa oinarri)  
c. edozein irabazpidedun, lau zango luzedun, hogeitx edun... (izen-sintagma oinarri)

Bestalde, nahiz eta bi atzizkiok izenondoaren pareko funtzioa duen kategoria osatu, izenondoarekin koordinazioan ere ager daitekeena (4a), ez dute ondoren edozein izenondok onartzen duen erator-atzizkia hartzen (4b)<sup>257</sup>:

- (4) a. bihotz onekoa eta sotila, neska garaia eta atorra zuriduna...  
b. \*bihotz onekotasun, \*atorra zuriduntasun...

Dena dela, arazo nagusia *-ko* eta *-dun* atzizkien artean maiz gertatu ohi den lehia edo alternantzia izaten da; izan ere, askotan, oinarriari dagokionez, lehian ikusten ditugu bi atzizkiak (5).

- (5) a. aurpegi ederdun/ederreko, atorra doredun/dotoreko, begi argidun/argiko...  
b. (mutil) bihotz garbidun/bihotz garbiko (mutil)...  
c. (oinetako) zoru sendodun/ zoru sendoko (oinetako), etab.

Auzia argitzeko, adiera-ñabardurekin batera, badirudi atzizki bakoitzak hartu ohi dituen oinarriak banan-banan aztertzea komeni zaigula.

#### 53.1. Izena oinarri: izena + *-ko/-dun*

Oro har, izen soilarekin ez zaigu zalantzarik sortzen. Izan ere, izen soilari *-dun* atzizkia erantsi ohi zaio, izenondo nahiz izen kategoriako hitz berriak sortuz (6).

---

<sup>257</sup> Hala ere, beheko (a) sailekoen moduko salbuespenak aurki daitezke, bai eta *-ko* bukaerako izenlagunen gainean eraikiak ere (b):

- a. erruduntasun, euskalduntasun, ahalguztiduntasun, eskuduntza (hitz sortu berria eta badaezpadako eraketa eta tradizioa duena)...
- b. gaurkotasun, egunerokotasun, bestelakotasun...

Hain zuzen ere, batez ere oinarri horrekin gertatzen da emankor *-dun*, are gaurko euskal hiztegi sortu berrian ere (7).

- (6) a. IZENONDOAK: ahalguztidun, arantzadun, arimadun, armadun, bihoztun, bitzdun, bitxidun, bizardun, bizidun, dirudun, ertzdun, eskoladun, fruitudun, hegaldun, hegodun, hobendun, karedun, odoldun, ogendun, zentzudun...
- b. IZENAK: abeldun, eledun, hartzekodun, kargudun, oskoldun, txapeldun, zaldun, zordun...
- c. IZENONDOAK/IZENAK: abarkadun, ahaldun, elebidun, erdaldun, errudun, euskaldun, fededun...
- (7) a. IZENONDOAK: alkoholdun, baimendun, fosforodun, gasdun, mentoldun...
- b. IZENAK: akuradun, akziodun, berrakuradun, diplomadun, emakidadun, erretirodun, ihesdun, errekoradun, harpidedun, katedradun, lizentziadun, pensiodun, tituludun...
- c. IZENONDOAK/IZENAK: bekadun, minbizidun, ornodun...

Beste atzizkia (*-ko*), goragoko sintaxi-kategoriari (izen-multzoei eta izen-sintagma zenbatzaileei) lotu ohi zaie gehienetan eta izenlagun deskribatzaile edo kalifikatzaileak sortzen ditu (*beso luzeko pilotaria, bi ugazabako etxea, hamar urteko umea...*). Hala ere, salbuespen diren hitz banaka batzuetan [izena + *-ko*] tankerako eramoldea aurkitzen dugu (8)<sup>258</sup>.

(8) itxurako (pertsona), edadeko (pertsona), hitzeko (emakumea)...

Euskaltzaindiak (1987:52) azpimarratu duenez, izen abstraktuekin bakarrik agertzen zaizkigu (8)-koen moduko salbuespenak; izan ere, «hanka duen mahaia» adierazteko, ez dugu \**hankako mahaia* esango, *mahai hankaduna* baizik. Beraz, izena oinarri delarik, Euskaltzaindiaren arabera nahiko garbi azaltzen zaigu bi atzizkien arteko banaketa:

- (9) a. [izen abstraktua] + *-ko* → izenlagun kalifikatzailea (*hitzeko (emakumea)...*)
- b. [izen konkretua] + *-dun* → izenondoa (*mahai hankaduna...*)

Dena den, Azkaratek eta Altunak (1992:99) ohartarazi dutenez,

- (10) «abstraktu/konkretu bereizketaz gain, kontutan hartzekoa da *-dun* atzizkiaren «eute», posesio-adiera, *-ko* atzizkiaren kasuan hain indartsua ez dena. Horrela ulertu beharko genituzke oinarrian izen abstraktua duten *arimadun, fededun* bezalakoak (espezie batek *duen* ezaugarriaren adierazle direnak Altubek dioenez eta horrexegatik gabezia adierazten duten *arimagabe(ko), fedegabe(ko)*-ren aurkako direnak). Bide beretik, *bihoztun*, kontrako *bihozgabe* duena; edo *hiztun/hitzeko* bikotea, izen bihurtua lehena; «hitza duena»/«hitza betetzen duena».

Era berean, eta salbuespenekin jarraituz, *itxurako (gizona)* tankerakoen aldean badira *egia-itxuradun (koxka)* modukoak ere. Nolanahi ere, salbuespenak salbuespen, joera nagusia (9)-an adierazten dena da.

<sup>258</sup> Hala ere, guttiz ohikoa da *egin beharreko (lana)* moduko izenlagunetan («partizipioa + izena + *-ko*»).

Bestalde, Zabalak (1999: 134) argitu duenez, (8)-ko adibideetan nolabaiteko lexikalizazioa gertatu bide da, izen horietako bakoitzak beharko lukeen izenondoa «isilaraziz»-edo:

- (11) a. edade handiko pertsona > edadeko pertsona  
 b. itxura oneko gizona > itxurako gizona

Hori dela eta, Zabalak —(10)-eko oharraren ildotik— bi atzizkien arteko balio edo adierazko desberdintasuna nabarmentzen du: *-dun* atzizkiak «edutea» edo «jabe goa» adierazten du, eta haren bidez sorturiko hitzak «X duena» parafraasia onartu behar du; *-ko* atzizkiak, ostera, adiera zabalagoa du («nolakotasuna») eta horregatik izenlagun deskribatzaile edo kalifikatzaileak sortzen ditu. Hau da, *edadeko pertsona* edo *itxurako gizona* ez da «edozein edade» edo «edozein itxura» duen pertsona, «edade handia» eta «itxura ona» duena baizik.

### 53.2. «Izen-multzoa» oinarri: [izena + izenondoa] + *-kol-dun*

ALTUBEREN (1929) AZALPENA:

Altuberen arabera (1929), *-dun* atzizkia jabeari nahitaezko ez zaizkion objektuak kalifikatzen dituzten izenondoei eranstean omen zaie (12a); beraz, ez omen da egokia gorputz-ataleki dagozkien izenondoei eranstea, horiek ezin kenduzkoak baitira (12b). Beste atzizkia (*-ko*), ordea, norbaitek zera abstraktua edo ez-gauzazkoa duela adierazteko erabiltzen omen da (12c), edota objektu materiala izan arren, zentzu figuratua edo ez-gauzazkoa hartzen duenean (12d); ez omen da egokia pertsonaren atal edo zati handi samarra adierazteko (12e).

- (12) a. bizar gorridun, giltza berridun, betaurreko beltzdun...  
 b. ??beso luzedun, ??hanka biribildun...  
 c. osasun ederreko mutila  
 d. bihotz biguneko andrea  
 e. ??gorputz astuneko gizona

EUSKALTZAINDIAREN (1987) AZALPENA:

Euskaltzaindiak (1987: 52-55), berriz, ez du onartzen Altuberen bereizkuntza (*-dun* = aldi bateko objektuak / *-ko* = pertsonak bere-bereak dituenak eta materiari gabeko izaera dutenak). *EGLU-I (eranskina)*-ren arabera, oro har, izen-multzoak *-ko* atzizkia hartzen du, izenak abstraktuak nahiz konkretuak direlarik (13a). Horrela, oinarri honekin nekez erabiltzen omen da izenondo elkartua —Bahuvrīhi elkarteak— (13b), ezta *-dun* atzizkia ere; hala ere, (13c)-koen moduko kontradibide batzuk badirela aipatzen da.

- (13) a. gorputz handikoa<sup>259</sup>, jite txarreko jendea, hots handiko festa, neurri gaitzekoa, gatz gutxiko emakumea...  
 b. \*emakume gorputz handi, \*jende jite txar, \*festa hots handi  
 c. teilatu gorridun etxea, leiho gorridun txabola [«kontradibideak <»]

<sup>259</sup> Konpara bedi Altubek (12e) modukoez dioenarekin.

Bestalde, izen-multzoko izenak gorputz-atala edo jantzia adierazten badu (edo jatorrizko esanahia gordetzen badu), *-ko* atzizkiaz balia gaitzeko izenlagun kalifikatzailea sortzeko (14a). Nolanahi ere, onartzen da *-dun* (14b) edo izenondo elkartua (14c) ere baditugula aukeran, baina ondoren honako iruzkin hau gehituz «halere, euskalki gehienetan *-ko* erabiltzen da, *-dun* atzizki horren orde» (53. or.).

- (14) a. sudur handiko gizona, beso luzeko pilotaria, buru handiko gizona, alkon-dara zuriko mutila<sup>260</sup>...  
 b. neska begi urdinduna, bizar gorridun anaia/anaia bizar gorriduna...  
 c. gizon sudur handia, pilotari beso luzea...

Aldiz, gorputz-atala adierazten duen izena, zentzu ez-gauzazkoan edo aldatuan erabiltzen bada, edota ohiturazko tasunak adierazten dituzten *argi*, *eder*, *bizkor*, *on*, *txar*, *gaizto*, *gaitz* eta antzeko izenondoren bat badarama, *-ko* erator-atzizkia —Altubek ontzat ematen zuen egitura bakarra— erabiltzen da gehien (15a), nahiz eta Bahuvrīhi elkarteaz ere balia gaitzekoen (15b).

- (15) a. bihotz gaiztoko gizona, bihotz oneko emakumea...  
 b. gizon mihi gaiztoa, jende mihi zorrotza, (mutil) moko fina...

Beraz, alde batetik, hasierako baieztapena (*-ko* atzizkiaren nagusitasunari buruzkoa) nahikoa leunduta geratzen da (13c)ko salbuespenekin eta (14b, 14c)ko adibideekin. Bestetik, argi ikusten da Altuberen teoria —(12b) eta (12e) modukoak gaitzesten dituen— euskalki guztiak kontuan hartuz estuegia dela.

#### AZKARATE ETA ALTUNAREN (1992) OHARRAK:

Hizkuntzalari hauen ustez, izen-multzoko izena abstraktua denean *-ko* hartzeko joera gailentzen da (16a), baina ez dute garbi ikusten izen-multzoko izena konkretua denean joera nagusia *-ko* denik (16b). Bestalde, Bahuvrīhi elkarteak ere aurki ditzakegu, oinarrian izen konkretua nahiz abstraktua delarik (16c). Hala ere, bistan denez, azken baliabide honek muga argiak ditu, ez baitugu beti eskura (16d).

- (16) a. itxura gaiztoko fabrika, iraupen laburreko mintzoa, jenio txarreko neska, zori oneko amesgileak...  
 b. eguraldi sargaritsu edo eguzki berodunak, etxe margo zuriduna, senargai piper zahar mindun, oinetako zoru sendoduna, eguraldi oskarbi eta kolore biziduna, seme-alaba azidun gurasoak...  
 c. gizon bizi-labur, leize aho meharra, hizkuntza *grauzkio*-motza, etxe aitzin xuri bat, pipa kirten motz bat, (gizon) adimen laburrak...  
 d. ???fabrika itxura-gaizto, ???mintzo iraupen-laburra, ???neska jenio-txarra

<sup>260</sup> Forma honen orde, *-a(re)kiko* eta *-a(re)kilako* atzizki konposatuak ere ibiltzen dira soinean darماغun «jantzi-izena + izenondoa» egiturari atxikirik:

- a. jantzi gorriko gaztea  
 b. jantzi gorria(re)kiko gaztea  
 c. jantzi gorria(re)kilako gaztea

Bestalde, izen-multzoko izena gorputz-atalei edo jantziei dagokienean, bi atzizkien arteko lehia gertatzen da, eta —mendebaldeko euskalkietan, bederen— *-dun* nagusitzen da (17a/b). Bahuvrñhi elkartearen zilegi da, noski (17c).

- (17) a. Aho lasaidun (AA), atorra dotoredun (Mitx), azal ederdun (Kir), azkazal garbi gorritzadun (Ldi), begi-argidun (Arr), begi bitxidun (Etxde), begi urdin ederdun (Bitaño), estalki zuridun (Apaol), hegal biribil eta luzedun (Mg), ile harrodun (JE), etab.
- b. Sudur handiko gizona, beso luzeko pilotaria, buru handiko gizona, hanka luzeko korrikalaria, txima luzeko gaztea, begi urdineko gaztea, bizar gorriko gizona...
- c. Aurpegi-luze, begi-luze, begi-ilun, begi-alai, begibakar, begibeltz, okotz-zorrotz, begi-urdin, belarri-motz, hanka-motz, bizar-beltz, bizar-gorri, bizar-luze, praka-zabal, gona-motz, ile-harro, ile-kizkur, ile-motz, izter-nagi, titi-handi...

Gorputz-atala zentzu aldatuan erabiltzen denean ere, badira *-dun* atzizkiaren lekukotasunak (18b), nahiz eta ez dirudi hori joera nagusia denik. Bahuvrñhi elkartearen zilegi da, noski (18c).

- (18) a. bihotz garbiko kristaua, bihotz gogorreko jendea, bihotz oneko mutila, etab.
- b. bihotz garbidun ezjakina, bihotz gogorduna, etab.
- c. begi eder, bihotz ilun, bihotz-zabal, buru-bero, etab.

#### Laburbilduz:

a) Izena abstraktua denean, *-ko* da aukera nagusia, eta emankortasun urriagoz izenondo elkartua.

b) Izena konkretua denean *-ko* eta *-dun*, biak ditugu aukeran. Agian euskalkien araberako bereizketaren bat egon daiteke, *-ko* ekialdean ugariago izanik, eta *-dun*, aldiz, mendebaldean; izenondoak ere baldintza dezake aukera, *eder*, *gaizto*, *on*, *txar*... bezalako ondoren *-ko* agertzeko joera gailentzen da eta. Bahuvrñhi motako elkarteak ere erabil daitezke (*leize aho-meharra*, *etxe aitzin-zuria*), batez ere izenak jantziak eta gorputz-atalak adierazten dituenean (*ile harro*, *begi beltz*...).

Bukatu baino lehen, bi ohar garrantzitsu egin beharrean gaude.

1) *-ko* atzizkiak duen izenlagun deskribatzaileak sortzeko ahalmenari dagokionez, haren emankortasun mugatua nabarmendu behar da (Euskaltzaindia, 1987: 55); izan ere, gure baitan edo gure soinean ez (19a), baizik gugandik kanpo dauden objektuak adierazten dituzten izenekin ezinezkoa da *-ko* atzizkia erabiltzea (19b).

- (19) a. bihotz oneko mutila, kolore ederreko aurpegia, alkandora zuriko neska...
- b. «auto gorria duen mutila» → \*auto gorriko mutila

2) Sarasolak (1997: 89<sup>261</sup>) ohartarazi duenez, *-dun*-en bidezko eratorrietan (20a) joskerak (20b)-k baino tradizio nabarmen hobea du. Beraz, tradizioari jarraituz

---

<sup>261</sup> Hona hemen, «frantziarra» sarreraren egiten duen iruzkina: «Harrigarria bada ere, *dun*-en bidezko eratorrietan, *aulki besoduna* joskerak *besodun aulkia*-k baino tradizio nabarmen hobea du. Hala ere, egungo joera, are *pintore estatubatuarra*, «atzerakarga» dela-eta etengabe idazten dutenena, *besodun aulkia* «(etimo)logikoa» erabiltzekoa da. Euskara batuaren misterioak.» (Sarasola, 1997: 89).

—ikus (21)-eko adibideak—, ahal dela, *aulki besoduna* joskera bultzatu beharko litzateke.

- (20) a. aulki besoduna (hobestekoa)
- b. besodun aulkia

IDAZLEEN ADIBIDEAK

- (21) a. Beste itxaso orri, paratu zionean Jainkoak ondarrean bere marra eta esia, esan zion: To; ona noraño elduko aizan, aurrera igaro gabetanik; emen porrokatu eta ausiko dituk *ire бага-jaso apardunak*. (Lar *SAgust* 10)
- b. Zuk *zeure soñoko bitxidunok* baño, nik geijago estimeta dot buruko ule trenza gerriraño elduten jatana, ta zapi бага nun nai erabilli daikedana. (Mg *PAb* 70)
- c. Andia zan benetan bere Jauntasuna, Alan arrotu *Adan doe askoduna*, Agaitik egin eban oker aiñ astuna... (AB *AmaE* 351)
- d. Esan gurotzut, Eladik amabost urte dituala, eztala *ume gona laburduna*... (Echta *Jos* 153)
- e. Yokoan, saldu-erosietan, ta artu emonetan zindo ta garbi ibili ezpazara; pisuan ta neurrian gazago ta laburrago emon; edo *gauza kaltetua*, edo *atxakia-duna*, esan bagarik ontzat sartu; (Añ *EL2* 151)
- f. Gabeko ta egunaren zati andiak eraman oi ditu aika ta eztulka, ta oatze leun batean ta oial mezkoan egonagatik, ezin egon da geldirik; iraulka ta bein alde batera ta bein bestera dabill, bein ere arkitu bage billatzen duen *atsegin-tegi soseguduna*. (Mb *IArg* I 185)
- g. Artu zuen gero beste gaizto bat eta hau zen, *andre bekatudunaren* senarra, ezpaliz bezala ta nior ohartu bage, gerra bizian illik uztea. (Mb *IArg* I 246)
- h. Berrogei urte egin zituzten israeldarrak Egyptotik atera ta Canango erri bazterretan sartu baño len, ta *odeiezko pillare argidunak* bidea erakutsiagatik, ... (Mb *IArg* I 270)
- i. Aingeru batek dama iantzita nauko gaur atsegin barik, *bere gomuta gozo-mindunak* ezteust emoten bakerik. (Azc *PB* 121)
- j. (...) ziñoan *atso gerri lodi*, *gonamotz*, *esku zikindun* batek,... (Ag *Kr* 12)
- k. Arribil aonan bake-bakian geratu zan, *bertako notin zentzundunak* ezeben asko biar egun artako odol-ixurtzia ija bedeinkatzeko ... (Kk *Ab* I 040)
- l. Ori diño Aita Santuak; eta ori esanaz argiro adierazten dausku *langille zur eta neurridun* bakotxari,... (Eguzk *GizAuz* 175)
- m. Beretako bat ezagutu izan det Ginitzenea esaten zaiona, orain dalarik irurogei urte, alogerarako zaldi bat bakarra beste abere muetarik izaten etze-bana; zeñetan ikusi izan diozkadan bertako maizter Jose Gil de Etxaberi milla zortzi eun ogei ta amabostgarren urtean, uztar idi galanta soro lanetarako, urte biñako zekor pare salmentarako, *iru bei txaaldun*, bat anzua, eta bi zerri gizenduak; (...) (Izt *C* 181)
- n. Handik atera beharra zen bihotz eskualdun suhar bat, eroi gure elea maite zuena, eta liburuaren egiteko xedea aitzina eremaiteko bere elbururaino ezindua izanikan, etsitu gabe, azkenian atzemaiten du *gizon dirudun bat* bere laguntza emaiten dakona, moltsa idekirik! (Zub 17)
- ñ. Atze-aldean zeuden lo-gelak: sarrera aterik gabe, eskubitara jo ta ezker-aldean bata bestearen urren errenkadan zeuden *gela atedunak*. (Anab *Aprika* 43)



- o. Ostera zein ain buru-ernai, neke aundi gabe bereizteko soiñua nola dan lenago kanta baiño, kantua *soiñu eiteduna* baita... (Or *Aitork* 372)
- p. Berriz bad diot, zer arrazoin iduri du *arima bihotzdun batek* atsegin har dezan bere Iainkoari atsekabe egiteaz... (SP *Phil* 84)
- q. *Gure gizon biozdunak* bi suen artean zauden, urbilena, ustez azpikoa 25 bat metrora, gañekoa ere eken ondolik gordeka baño urbiltzenago. (F*Ir* 145)

### 53.3. Izen-sintagma zenbatzaileduna oinarri: [zenbatzailea + izena + (izenondoa)] + *-ko/-dun*

Zenbatzailea (nahiz zehaztua nahiz zehaztugabea) ageri den heinean *-ko* da oro har baliatzen dugun atzizkia, Euskaltzaindiaren gramatikak (1987: 56) dioen bezala (22a). Hala ere, Azkaratek eta Altunak (1992: 110) ohartarazi dutenez, mendebaldeko testuetan *-dun* atzizkiaz osatutako adibideak ere badira (22b)<sup>262</sup>.

- (22) a. bost behatz ederreko eskua, 50 liberako amanda, hamar urteko umea, hitz gutxiko gizona, bi hankakoak, axola gutxikoak, mila kiloko harria...
- b. hogeitxedun (jabea), edozein irabazpidedun euskaltzale, (arraultza) bi gorringodunak...

Dena den, adina, prezioa, neurria, pisua, tamaina... adierazteko (ik. 14. atala), tradizioaren arabera *-ko* da gomendagarriena, bai zenbatzailea daramaten sintagmetan (23a), bai izenondoaz osaturikoetan ere (23b):

- (23) a. hiru urteko umea, lau libranko ogia, hiru mila pezetako gazta, hiru kilometro bidea, kantari askoko/anitzeko taldea, urte gutxiko haurra, ehun arimako herria, bi ugazabako etxea, bi etxeoandrekoko sukaldea, ehun ardiko artaldea...
- b. pisu handiko ganadua, gorputz handiko gizona...

Nolanahi ere, gogoan izan behar da *-ko* edo *-dun* atzizkien arteko aukera ez dela ezinbestekoa izen-sintagma zenbatzailedunetan<sup>263</sup>. Beti dugu eskueran erlatibo-egitura: ondoko adibidean *diru asko duen jendea* idatzi zuen Mitxelena, *diru askoko/diru askodun* hautura makurtu beharrik gabe<sup>264</sup>.

- (24) «Bibliografia alde batetik zaletasun edo afizio bat da, *diru asko duen jendea-ri* dagokion zaletasuna (Mitxelena).

<sup>262</sup> Horrela sortu dira *elebidun* eta *hirueledun* gisako salbuespenak. Bestalde, Azkaratek eta Altunak (1992: 110) gaineratzen dute *-ko/-dun* atzizkien banaketan, izenondo horiek kalifikatzen duten izenaren nolakotasunak (bizigabea/biziduna izateak) ere baduela eragina hautuan, mendebaldeko erabileran bederen. Izena bizigabea denean errazago litzateke *-ko* aukeratzea (a); izen hori biziduna denean, aldiz, *-dun* atzizkiaz baliatuko ginatke (b).

- a. lau langako atea, bi gorringoko arraultza, etxe biko etxaguntza...
- b. «Ogei sementzat nor ogei-etxedun?» (Orixe)

<sup>263</sup> Azkarate eta Altuna (1992: 103).

<sup>264</sup> Gainera dezagun «zenbatzailea + izena» egiturako Bahuvrīhi elkarteak ere badirela (*hamarratz, hiru hortz, ehunzango, lauburu...*), baina izen kategoriakoak izan ohi dira, ez izenondoak (Azkarate, Altuna; 1992: 103).

#### 53.4. *-(r)en + izena + -ko; -ko + izena + izenondoa + -dun*

Izenburuko lehen egitura dugunean *-ko* eransten zaio abstraktua (*antz, itxura, iduri, neurri, hein, modu, tankera...*) izan ohi den izenari (25a); batzuetan aposiziozko egituran (25b).

- (25) a. erbiaren heineko ihiziño bat, azeriaren iduriko mutur luze batzuk, afrikarren itxurako aurpegia, ene adineko beste mutil batzuk, haren gogoko laguna...  
 b. «Xumai» izeneko eskalea, «Urki» izeneko zuhaitza...

Egitura honen ondoan, Azkaratek eta Altunak<sup>265</sup> *-ko + izena + izenondoa + -dun* egituraren adibide bi aurkitu dituzte —bietan izen konkretua agertzen da— (26a). Eta, hain zuzen ere, egitura horretan oinarrituz Zabalak<sup>266</sup> (26b) moduko egiturak ematen ditu. Dena dela, guk geuk, ahal dela goragoko gomendioa (24) aplikatuko genuke horrelakoetan, hots, (26c) bezalakoak bultzatzearen alde makurtuko ginateke.

- (26) a. buruko ile luzedunak (Zubillaga), edurrezko esku zuridun (Bitaño)  
 b. 300 m<sup>2</sup>-ko azaleradun/azalerako etxea, 22 C-ko temperaturadun/temperaturako ganbera  
 c. 300 m<sup>2</sup>-ko azalera duen etxea, 22 C-ko temperatura duen ganbera

#### *Aztertzeko adibideak:*

- |  |   |
|--|---|
| (27) eramaile hori <i>animatua edo inanimatua</i> izan daiteke.  | (28) eramaile hori <i>biziduna edo bizigabea</i> izan daiteke.  |
| (29) ... <i>esanahidun unitate</i> minimoetan bana daitezke.   | (30) (...) <i>unitate esanahidun</i> minimoetan bana daitezke.  |
| (31) <i>landun biztanleria</i>   | (32) <i>biztanleria landuna</i>   |
| (33) (...) beste <i>elebakardun</i> batekin ezkondu delako.  | (34) (...) beste <i>elebakar</i> batekin ezkondu delako.  |
| (35) Alde honetatik, bada, askoz errazagoa da <i>ingurune soilik kalatandunak</i> aurkitzea, <i>ingurune edo giro soilik euskal hiztunak</i> topatzea baino. | (36) a) Alde honetatik, bada, askoz errazagoa da <i>katalanez soilik mintzatzen den inguruneak</i> aurkitzea, <i>euskaraz bakarrik mintzatzen den inguruneak</i> topatzea baino.<br>b) Alde honetatik, bada, askoz errazagoa da <i>katalanez soilik mintzatzen den inguruneak</i> aurkitzea, <i>euskaldun huts diren inguruneak</i> topatzea baino. |
| (37) <i>5 m-ko lodieradun izotz-geruza</i> egin daitekeela kontuan izanik, ondokoa eskatzen da:  | (38) <i>5 m-ko lodiera duen izotz-geruza (5 m-ko lodierako izotz-geruza)</i> egin daitekeela kontuan izanik, ondokoa eskatzen da:   |
| (39) <i>bizidun eraikitzaileak</i>   | (40) <i>eraikitzaile bizidunak</i>  |
| (41) <i>eskudun organoen</i> arabera...  | (42) <i>organo eskudunen</i> arabera  |

<sup>265</sup> Azkarate eta Altuna (1992: 102).

<sup>266</sup> Zabala (1999: 138).

- (43) *Salbuespenezko eta denborazko eremudun lege penalak ez dira aplikatuko beraietan espreski aurrikusitako supostu eta aldiz kanpo.*
- (44) *Lege penal, salbuespenezko eta denborazko eremudunak ez dira aplikatuko haietan espreski aurrikusitako supostu eta aldietatik kanpo.*
- (45) *Konstituzioak babestu eta onartzen ditu forudun lurraldetako eskubide historikoak.*
- (46) *Konstituzioak babestu eta onartzen ditu lurralde forudunetako eskubide historikoak.*
- (47) *onuradun elkarteak zein diren jakiteko...*
- (48) *elkarte onuradunak zein diren jakiteko...*
- (49) *lurdun aristokrazia gai zen...*
- (50) *aristokrazia lurduna gai zen...*
- (51) *Jabetza inori ezin zaio kendu eskudun Agintaritzaren bidez eta onura publikoko justifikatutako kausagatik ez bada...*
- (52) *Jabetza inori ezin zaio kendu Agintaritzaren eskudunaren bidez eta onura publikoko justifikatutako kausagatik ez bada...*
- (53) *Eskudun epaileak ofizioz hartuko ditu...*
- (54) *Epaile eskudunak...*
- (55) *akastun kontratua*
- (56) *kontratu akastuna*
- (57) *(?) Baina bi hizkuntzaren ezagutzak eraman dezake lehen hizkuntzako edo bigarren hizkuntzako egoera kulturabakarrera, edota bietako ezeinekin identifikatzen ez den anomiatasun kultural moduko praktika kultural batera.*
- (58) *Baina bi hizkuntzaren ezagutzak eragin dezake lehen hizkuntzako edo bigarren hizkuntzako egoera kulturabakarra, edota bietako ezeinekin/edozeinekin identifikatzen ez den (?) anomia kultureko praktika kultural batera eraman dezake.*
- (59) *aldebakarreko irudia*
- (60) *alde bakarrek irudia / irudi alde bakarra*
- (61) *aldibereko soinuak*
- (62) *aldi bereko soinuak*
- (63) *aldebiko proposamena*
- (64) *alde biko proposamena*
- (65) *antzeko gai bazterkoiak*
- (66) *bazterreko antzeko gaiak / bazterreko gai antze(ra)koak*
- (67) *bi zentzutako bidea*
- (68) *bi norabideko bidea*
- (69) *elkarrizketa bi zentzutako komunikazio-araua da.*
- (70) *elkarrizketa bi norabideko komunikazio-araua da.*
- (71) *14 urtetako zaleak*
- (72) *14 urteko zaleak*
- (73) *berrindustrializazio urgente zona*
- (74) *berrindustrializazio urgenteko alde / presako berrindustrializazio-ko alde*
- (75) *Mailegu hutsa, doakoa zein interesak ordaintzeko hitzarmenarekin izan daiteke.*
- (76) *Mailegu hutsa, doakoa zein interesak ordaintzeko hitzarmenduna izan daiteke.*
- (79) *forudun errejimenaren gaurkotze orokorra...*
- (80) *errejimen forudunaren gaurkotze orokorra...*
- (81) *Kontratu baten klausulek elkar interpretatzen dute, zalantzadun direnak, beste guztiekin interpretatuz.*
- (82) *Kontratu baten klausulek elkar interpretatzen dute, zalantzazko direnak/zalantza eragiten dutenak, beste guztiekin interpretatuz<sup>267</sup>.*

<sup>267</sup> Kasu honetan, *-ko* da *zalantza* bezalako izen abstraktuekin erabili ohi den atzikia, nahiz *baliodun* bezalako salbuespenak ere badiren *baliozko*-ren aldamenean. Dena den, Altuberen harako bereizkuntza hura (*neurritzadun liburua* = «zenbait neurritz dituen liburua» # *neurritzeko liburua* = «erabat neurritzez osaturiko liburua») bere egiten duenak, seguru asko, egokiagoa iritziko dio *zalantzadun* (*artikulu*) esamoldeari.

- |  |   |
|--|---|
| (83) altzaridun etxebizitzak   | (84) <i>etxebizitza altzaridunak</i>  |
| (85) ...epaileak <i>kaudimendun eta aurrekari ondun pertsona</i> izendatuko du.  | (86) ...epaileak <i>pertsona kaudimendun(a) eta aurrekari oneko(a)</i> izendatuko du.   |
| (87) Kontuen ikuskaritza txostenak, ondoren adierazten diren iritzi teknikoetatik bat adierazi behar du: aldekoa, <i>salbuespendun iritzia</i> , aurrakoa, ukatua. | (88) Kontuen ikuskaritza txostenak, ondoren adierazten diren iritzi teknikoetatik bat adierazi behar du: <i>aldekoa</i> , (aldekoa baina) <i>salbuespenduna</i> , aurrakoa, ukatua. |
| (89) <i>agiridun egintza juridikoa</i>   | (90) <i>egintza juridiko agiriduna</i>  |
| (91) <i>interes ekonomikodun elkarketak</i>  | (92) <i>interes ekonomikoko elkarketak</i>  |
| (93) <i>pertsonal gastuak</i>  | (94) <i>pertsonaleko gastuak</i>  |
| (95) <i>salbuespendun irizpena</i>   | (96) <i>?irizpen albuespenduna</i>  |

#### 54. -TEGI ATZIZKIA<sup>268</sup>

Bi puntu dira aipatzekoak atzizki honen inguruan:

1. Oinarriaren kategoriari dagokionez, «izena + *-tegi*» (1) askoz ugariago izan da historian zehar «aditzoina + *-tegi*» (2) baino. Egia da *garbitoki/garbitegi*, *ikas-tegi/ikastetxe* moduko bikoteak ez direla falta euskaraz. Baina gogoan izan behar-ko genuke aditzoinari izena erantsi eta izen elkartua sortzea (*jarleku*, *egongela*) ere baliabide indartsua izan dela gure historian (3). Gainera ekialdean «aditzoina + *-gia*» egitura ere bada: *sargia*, *bilgia*...

(1) HIZTEGI BATUA: IZENA + -TEGI

abeltegi	beirategi	erlojutegi	hezurtegi
apaizgaitegi	belartegi	esnetegi	hiltegi
arautegi	belartegi	euskaltegi	hiztegi
armategi	berotegi	fitxategi	ikaztegi
aroztegi	bihitegi	gaixotegi	inurritegi
arroztegi	bitxitegi	garagargotegi	itegi
artegi	bizartegi	garautegi	izartegi
auzitegi	edaritegi	goroztegi	izozkitegi
auzotegi	egutegi	gozotegi	izoztegi
aztarnategi	epaitegi	harategi	janaritegi
banetegi	eritegi	haustegi	etab.
baxerategi	erlategi	hazitegi	

(2) HIZTEGI BATUA: ADITZA + -TEGI

biltegi	hiltegi	iragaztegi / iraztegi	mintzategi
bizitegi	hornitegi	irakastegi	salerostegi
erretegi	ikastegi	jantegi	saltegi
garbitegi	ikuztegi <i>Ipar.</i>	kofesategi <i>Ipar.</i>	tindategi
gordetegi	inprimategi	kontserbategi	

<sup>268</sup> Euskaltzaindiko LEF Batzordearen txostenean esaten dena jaso dut atal honetan (Euskaltzaindia, 1994d: 1042).

- (3) a. abesbatz, aldagela, abiaburu, antzezlan, bizigirot, borragoma, egongela, ez-konbidaia, ezkonsari, gidabaimen, gidaliburu, helburu, helmuga, idazmakina, idaztarau, idazpuru, ikaslagun, mintzapraktika, nahaspila, pasagiri, salneurri, sorterri, ziurtagiri...
- b. aberaspide, adibide...; agerraldi, argitaraldi...; adigai, aldagai...; dantzaleku, eserleku...; agertoki, biltoki...; ikasmolde, jokamolde...; aztergune, bilgune...; azterlan, idazlan...
- (4) zapategi\* e. zapata(-)denda [Hiztegi Batua]

2. Maileguz dagokienez, azken urteetan inoiz erdal *-torio*, *-terio*, *-eria* atzizkiak dituzten hitzen ordainak *-tegi* atzizkiaren bidez eman diren arren (*monastegi\**, *?anbulategi*), hobe da aurrerantzean halako egokitzapenik ez egitea, euskal oinarririk ez badugu behintzat (*santutegi*, *kafetegi*). Gainera *monastegi*-k *monasterio* formak (Iparraldeko eta Hegoaldeko autoreek erabili dutenak) lortua zuen batasuna hautsi besterik ez du egin (5). Hala ere, *laborategi* izena bere horretan onartu da *Hiztegi Batua*-n, nahiz eta gaizki eratua egon (6).

- (5) *monastegi\** e. *monasterio* [Hiztegi Batua]
- (6) a. *anbulategi* [ez da ageri *Hiztegi Batua*-n]
- b. *laborategi* [Hiztegi Batua]

## 55. *-TU / -IZATU: NORMALDU ALA NORMALIZATU?*<sup>269</sup>

Nola esan behar da *formaldu* ala *formalizatu*, *normaldu* ala *normalizatu*, *sistematu* ala *sistematizatu*? LEF batzordearen iritziz ez dago inolako eragozpenik *-izatu* batasunerako gomendatzeko, Europako hizkuntzen bide orokorrari jarraituz. Beraz, batasunerako (1) modukoak gomendatzen dira:

- (1) a. liofilizatu  
b. sistematizatu  
c. normalizatu  
d. industrializatu

Zenbait kasutan, hala ere, badira bikoteak (2a/2b, 3a/3b). Horrelakoetan biak gordeko dira, bakoitza bere adieran.

- (2) a. *formalizatu* («forma edo eredu jakin baten arabera egin»)  
b. *formaldu* («zintzotu»)
- (3) a. *normalizatu* («norma batera ekarri»)  
b. *normaldu* («normal izatera iritsi»)

Argi dago bestalde beti ere maileguz ari garela; euskal oinarri bati ez baigeanioke *-izatu* erantsiko. Adibidez, *sabaikaritu* litzateke forma egokia eta ez *sabakarizatu*.

<sup>269</sup> Euskaltzaindiko LEF Batzordearen txostenean esaten dena jaso dut atal honetan (Euskaltzaindia, 1994d: 1042-1043).

(4) HIZTEGI BATUKO -IZATU ADITZAK:

amortizatu	helenizatu	martirizatu	profetizatu
analizatu	immunizatu	monopolizatu	sintetizatu
autorizatu	industrializatu	nazionalizatu	sozializatu
h. baimena eman	ionizatu	neutralizatu	tapizatu
bernizatu	kanonizatu	normalizatu	tiranizatu
ebanjelizatu	kapitalizatu	organizatu	traumatizatu
espezializatu	katalizatu	palatalizatu	urbanizatu
estandarizatu	kolektibizatu	polimerizatu	zentralizatu
esterilizatu	kolonizatu	polinizatu	zibilizatu
formalizatu	kotizatu	profesionalizatu	

56. -XKA (-SKA), -XKO (-SKO) ATZIZKIAK<sup>270</sup>

Atzizki txikigarri edo diminutibo hauen lema finkatu beharko genuke. *Orotariko Euskal Hiztegia*-k eta *Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematikoa*-k ematen dutenari begiratu bat eman ondoren LEF batzordearen ustez, izenetan *-xka* eta *-xko* aldaerak har daitezke lematzat, salbuespenak salbuespen (*oilasko* adibidez). Eta salbuespenak hiztegiak finkatu beharko litzuzke.

Esate baterako, ia *herrixka* edo *liburuxka* besterik ez da azaltzen. *Mendixka* nabarmen nagusitzen zaio *mendiska* formari. Bestalde, XX. mendera arte Ipar-Ekialdean *-sko* eta *-xko*, *-ska* eta *-xka* nahikoa parekatuak bazeuden, mende honetan euskalki guztietan *-xko* eta *-xka* nagusitu direla esan daiteke.

Izenondoetan datuak ez dira erabatekoak, baina badirudi hauetan ere *-xka* forma adierazkorra bultzatuta daitekeela: beraz, *gorrixka*, *horixka*, etab.

Bestalde, *-xko/-sko* eta *-xka/-ska* formen arteko auzia konpondu nahi dugu hemen. Honek ez du esan nahi *-zta* atzizkia baztertzekoa denik: *horizta*, *gorrizta*...

HIZTEGI BATUA: -XKA ATZIZKIA DUTEN HITZAK

adaxka	horixka (izond.)	pixka (pixka bat...)
aldaxka <i>Sin.</i> kimu	kuluxka	sardexka
belaxka (izond.)	kurrixka	urdinxka (izond.)
berdexka (izond.)	liburuxka	zamaxka
bidexka	mailuxka	zatixka <i>Ipar.</i>
buruxka	mendixka	zoroxka (izond.)
gelaxka	mordoxka	zuhaixka
gorrixka (izond.)	ontzixka	zuhamuxka <i>Ipar.</i>
harrixka	otarrainxka	zurixka (izond.)
herrixka	pilixka <i>Ipar.</i> «pixka»	

HIZTEGI BATUA: -XKO ATZIZKIA DUTENAK

aspaldixko	handixko	ongixko <i>Ipar.</i> eta <i>Naf.</i>
gehiegixko	harroxko	ontsaxko <i>Ipar.</i>
gogorxko	ilunxko	urruxko
goraxko	lodixko	urritixko
gutixko	luzexko	zaluxko <i>Ipar.</i>

<sup>270</sup> Euskaltzaindiko LEF batzordearen txostena (Euskaltzaindia 1994d: 1048-1049) jaso dut atal honetan.

57. BERRELKARKETAREN MUGAK: ?LAN-BILERA MAHAIA, ??EUSKAL  
ALDIZKARI-ZUZENDARI-BILERA...<sup>271</sup>

Atal biko sintagma izan ohi da, normalean, euskal hitz-elkartea: *zuzen-zuzenean, seme-alabak, muturzikin, meza-emaille, diru eske, ikasgela, zikin-fama, baratxuri-zopa, ardi-gaztia* edo *bibliografi ohar* elkar-teek, horrela, bina hitz dituzte. Hitz biko eramolde hau da eredugarrien eta erabiliena euskal hitz-elkarketan.

Hitz-elkartezko sintagma horiek parez pareko osagaiak izaten dituzte batzuetan: bi hitzetako bat ez da, horrelakoetan, bestearen menpeko. Hori gertatzen da, aski arrazoi desberdinengatik bada ere, *ardo-ogiak, afari-merienda* edota *Bidasoa ibaia* moduko adibideekin.

Edozein modutan ere, hitz-elkarte gehienek ez dituzte buru biko sintagmak osatzen, burubakarrak baizik: *esne-behia behia* da (hori da, hortaz, sintagma-buru), ez *esnea. Behi-esnea*, aitzitik, *esnea* da eta ez *behia*.

Menpekotasunezko elkar-teak nagusi direnez, bigarren osagaia izan ohi da euskaraz, gehienetan, sintagma-buru. «Mugakizun» esan ohi zaio buru den horri, semantika aldetik lehen osagaiak mugatzen duelako: *esne-mota* posible guztietatik *esne-mota* jakin mugatu batera pasatzen gara, horrela, *esne-tik behi-esne-ra* pasatzean. Lehen osagai horri «mugatzailer» esan ohi zaio.

Horago esan denez, bai mugatzailea eta bai mugakizuna hitz bakarrak izan ohi dira euskaraz: *oilo-lapur = oilo + lapur...*

Ezinbestekoa al da, ordea, bai mugatzailea eta bai mugakizuna hitz bakarrak izatea? Debeku al dugu, alegia, hurrengo moduko berrelkarketak egitea?

- |                              |                                       |
|------------------------------|---------------------------------------|
| (1) a. lan-bilera mahaia,    | i. pinu-adar muturrak,                |
| b. bide-laguntza elkar-tea,  | j. udal musika-eskola,                |
| c. dantza-talde mota,        | k. gurdi-ardatz aldaketa,             |
| d. harri-jasotze txapelketa, | l. administrazio-hiztegi batzordea,   |
| e. landare-izen zerrenda,    | m. ganadu lehiaketa-erakusketa,       |
| f. lansari-igoera,           | n. esne-hauts saltzailea,             |
| g. esku-langintza feria,     | ñ. euskal aldizkari-zuzendari-bilera, |
| h. mendi-portu izenak,       | o. soinu-uhin-hedapen-abiadura.       |

Bi ikusmolde dabilta, gure artean, berrelkarketari buruz elkarren lehan. Behin eta berriro errepika daitekeen prozedura da elkarketa lehenengo ikusmoldearentzat: gramatikaltasunaren aldetik ez dago horretarako inolako debekurik; irizpide hau azken muturrera eramanez, zilegi genituzke *pentze-larre-behi-esne-elkar-tea* moduko sintagmak. Arras kontrakoa dio bigarren ikusmoldeak: hitz bi, eta bi bakarrik, dituela elkar-teak (mugatzailer-hitza batetik eta mugakizun-hitza bestetik). Hizketarako onargarritasuna da, gramatikaltasuna gorabehera, ikuspegi honek azpimarratzen duena.

Eguneroko mintzajarduna ez da erraz sartzen ez lehenengo, ez bigarren ikusmoldean, erdibideko ikusmolde batean baizik.

<sup>271</sup> Atal honetan, Euskaltzaindiko LEF Batzordearen (1994d: 1049) txostena jaso dut.

Irizpide nagusi gisa, eta batez ere menpekotasunezko hitz-elkarteak gogoan izanik, badirudi honako puntuok direla gaur-gaurkoz seguruentzat eman daitezkeenak:

1. Atal biko sintagma da hitz-elkartea, lehenik eta behin. Beharrik ez dagoenean, ez gaitzen, beraz, (2)-koen modukoak sortzen ibil; hobe da horrelakoetan sintagma-erabide desberdinak konbinatuz, osatzea (3).

- |                                       |   |
|---------------------------------------|---|
| (2) ELKARTE ASTUNAK (DESEGOKIAK)      | (3) HOBESTEKO EGITURA                         |
| a. ?euskal aldizkari-zuzendari-bilera | a. euskal aldizkari(etako) zuzendarien bilera |
| b. ?Mendibilgo udal-kirol-patronatua  | b. Mendibilgo udalaren kirol-patronatua       |
| c. ??soinu-uhin-hedapen-bidea         | c. soinu-uhinen hedapen-bidea                 |

2. Goiko arau hori are sendoagoa da mugatzaile-izenari muga jakineko adjektiboren bat eransten zaionean: (4)-ko egitura okerren ordez (5)-ekoak erabili behar dira.

- |  |                                 |
|--|---------------------------------|
| (4) ELKARTE OKERRAK  | (5) EGITURA ZUZENA              |
| a. *hautagai berri zerrenda (baina, <i>hautagai-zerrenda</i> ) | a. hautagai berrien zerrenda    |
| b. *lan gogor eguna (baina, <i>lan-eguna</i> )                 | b. lan gogorreko eguna          |
| c. *Aralarko artzain borda (baina, <i>artzain-borda</i> )      | c. Aralarko artzain(ar)en borda |
| d. *landare-izen-zerrenda (baina, <i>izen-zerrenda</i> )       | d. landare-izenen zerrenda      |
| e. *ur astun erreaktorea (baina, <i>ur-erreaktorea</i> )       | e. ur astuneko erreaktorea      |

3. Badira, ordea, berrelkarketa errazago onartzen duten eramoldeak. Ondoko hauek dira, itxuraz, ezagunenak:

3.1. Mugatzailea *euskal, erdal, frantses...* dutenak:

- (6) a. euskal musika-taldea  
 b. euskal kultur mintegia  
 c. euskal liburu-sorta  
 d. erdal joskera-moldea  
 e. frantses lege-araudia

3.2. Aposizioak. Inon baino sarriago ageri dira hemen, agian berrelkarteak:

- (7) a. Elai Alai dantza-taldea  
 b. Ama Lur filma  
 c. Joanak Joan eleberria  
 d. Urola-kosta eskualdea  
 e. Bilbo-Behobia autobidea  
 f. Goiz Argi aldizkaria



3.3. Mugatzailearen koordinazio-hedapenak:

- (8) a. emakume- eta haur-taldeak
- b. ebazpen- eta jarraipen-batzordea
- c. edari- eta izozki-saltzailea
- d. galdera- eta harridura-markak
- e. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

3.4. Aurrerago ikusiko diren *irizpen-*, *multzo-*, *zati-* eta *mota-*elkarteak:

- (9) a. butano-saltzaile itxura
- b. oliba-olio usaina
- c. zakar-biltzaile taldea
- d. orein-haragi zatia
- e. hitz-elkarte motak

3.5. *Jarleku* moduko hitz elkartuak ere sarritxo agertzen dira mugatzaile gisa:

- (10) a. deklinabide-atzizkia
- b. geltoki-garbitzailea
- c. aztergai-zerrenda
- d. ikasliburu-saltzailea
- e. logela-aldaketa

4. Mugatzailea edo mugakizuna (edo biak) berez hitz-andana ihartu direnean, berrelkarketaz ezin hitz egin badaiteke ere, hiru hitz edo gehiago suertatzen dira elkarren ondoan. Zenbat eta hitz-andanaren ihartze-maila handiagoa izan, hainbat eta errazagoa izango da elkarte-modu hori. Horrela:

a) mugatzailea edo mugakizuna erabat iharturiko hitz-andana denean:

- (11) a. galeper-zakurra
- b. akelarre-eguna
- c. baserri-bidea
- d. borroka-oilarra
- e. zorion-agurra
- f. udaberri-gaitza
- g. txakurtxiki-bilketa
- h. eguraldi-aldaketa

b) osagai bietako bat hitz-andana ihartu samarra denean:

- (12) a. urbedeinkatu-ontzia
- b. trenbide-konponketa

c) ihartze-kontua hasi baizik egin ez zaien hitz-andanazkoak dira onesten edo gaitzesten okerrenak.

Beraz, ahal den guztian, bi hitzetik gorako elkarteak egin ordez hobe da sin-tagma-erabide askatuagoetara jotzea. Horrela, hobe da (14)-ko egiturak erabiltzea

(13)-koak baino. Are sintagma askatuagoetara ere jo daiteke noski, hartarako modurik eta egokierarik ikusten denean (14d).

- |   |  |
|---|--|
| <p>(13) ELKARTE ASTUNAK</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>a. lanbide-heziketa-ikastetxea</li> <li>b. muga-zerga-taula</li> <li>c. meategi-ikerketa-zerbitzua</li> <li>d. meategi-ikerketa-zerbitzua</li> </ul> | <p>(14) HOBESTEKO EGITURA</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>a. lanbide-heziketako ikastetxea</li> <li>b. muga-zerg(ar)en taula</li> <li>c. meategi-ikerketen zerbitzua</li> <li>d. meategiak ikertzeko zerbitzua</li> </ul> |
|---|--|

Berrelkatea erabiltzekotan, berrelkarketa horren muin-muineko bikotea zein den garbi adierazteko, bereziki, hobe izango da bikote hori marraz lotzea eta bestea bereiz ematea:

- |   |   |
|---|---|
| <p>(15) ELKARTE NAHASGARRIAK</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>a. kafe garbiketa zerbitzua</li> <li>b. gizarte segurantza saila</li> <li>c. foru informatika elkarteak</li> <li>d. Kaliforniako adimen heldutasun testa</li> </ul> | <p>(16) MARRATXO LAGUNGARRIA</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>a. kafe-garbiketa zerbitzua</li> <li>b. gizarte-segurantza saila</li> <li>c. foru informatika-elkarteak</li> <li>d. Kaliforniako adimen-heldutasun testa</li> </ul> |
|---|---|

### *Aztertzeo adibideak*

- | ELKARTE DESEGOKIAK EDO OKERRAK                         | HOBESTEKO EGITURA   |
|--|---|
| (17) *Osasun Mental Zentroa                            | (18) Osasun Mentaleko Zentroa   |
| (19) *Lan Prozedura Legea                              | (20) Lan Prozedurako Legea  |
| (21) *harrera pertsonal zerbitzua                      | (22) harrera pertsonaleko zerbitzua   |
| (23) *bake sindikal klausulak                          | (24) bake sindikaleko klausulak   |
| (25) *gatazka kolektibo neurriak                       | (26) gatazka kolektiboko neurriak   |
| (27) ?sindikatu-prestakuntza ikastaroak                | (28) prestakuntza sindikaleko ikastaroak  |
| (29) ?Enplegu Oinarrizko Legea                         | (30) Enpleguaren/Enplegu(ra)ko Oinarrizko Legea   |
| (31) ?Hitzarmen negoziazio-alderdiak                   | (32) a. Hitzarmenaren alde(rdi) negoziatzaileak<br>b. Hitzarmena negoziatzeko alde(rdi)ak     |
| (33) giza baliabide administrazioa                     | (34) giza baliabideen administrazioa  |
| (35) berrindustrializazio urgente zona                 | (36) berrindustrializazio urgenteko zona  |
| (37) telebista programazio-eredua                      | (38) telebistako programazio-eredua   |
| (39) digestio intrazelular aparatua                    | (40) digestio intrazelularre(ra)ko aparatua   |
| (41) lazo irekiko polo ezegonkor kopurua               | (42) lazo irekiko polo ezegonkorren kopurua   |
| (43) kontabilitate barne kontrol sistemen helburuak    | (44) kontabilitatearen barne-kontrolerako sistemen ...  |
| (45) aukera berdintasun agenteen eskaria hazten ari da | (46) a. aukera-berdintasunerako agenteen...<br>b. aukera-berdintasuna bultzatzeko agenteen... |
| (47) merkataritza flota ministroa                      | (48) merkataritza-flotako ministroa   |

## 58. PERPAUSETIK TESTURA: KOHESIO-MEKANISMO BATZUK<sup>272</sup>

### 58.1. Perpaua eta testua: zuzentasun gramatikaletik testura

Perpaua, aditza duen egitura sintaktiko autonomoa dela esan izan da. Hala ere, argi dago perpauak ez daudela testu batean irla modura, besteengandik bananduta: perpausek testuinguruaren beharra dute esanahia osatzeko, testuinguru baten barruan bakarrik izango dute erabateko zentzua. Beraz, perpauaren «autonomia» delako hori aski mugatua da: perpaua esanahi erlatiboki osoa duen gramatikaren unitatea da eta alboko perpauekin eta testuinguruarekin dituen erlazioei eskerrak bakarrik lortuko dugu perpau bakoitzaren zentzu osoa.

Perpau bat hartzen dugun bakoitzean, perpaua baino goragoko maila batera bidaliko gaituzten egitura edo elementuak izango ditugu askotan: elementu anaforikoak (erakusleak eta izenordainak: *hori, bera...*), lokailuak (*hala eta guztiz ere, bestalde, gainera...*) eta abar. Elementu hauek perpauaren mugak gaintzen dituzte. Ondorioz, beharrezko egiten zaigu perpaua baino goragoko unitate batera jotzea. Unitate zabalago hori testua da: alegia, testua perpausez «gauzatutako» batasuna (osotasuna) da.

Paragrafoen nahiz perpauen arteko erlazio semantiko eta formalen bitartez osatuko dugun sare nagusia da testua. Erlazio hauek ugariak eta sendoak izaten dira normalean eta testuaren sarea edo ehuna osatzen dute. Esanahi aldetik osotasuna du testuak. Komunikazio-mailarik altuena litzateke. Informazioaren bat falta denean edo erlazioaren bat ilun dagoenean, osotasun hori apurtu egiten da.

Aurreko gogoetak ikuspegia aldatzera eraman behar gaitu: perpauetan oinarritzen den gramatikatik testuaren gramatikara igarotzea komeni zaigu orain. Perpaua gramatikaren unitatea da. Eta orain arte, batik bat unitate horretan oinarritu dugu azterketa: izen-egitura, aditz-egitura, juntagailuak, perpau konpletiboak... Horrela, gramatikak esaten digu perpau jakin bat ondo eratua dagoen ala ez (gramatikala den ala ez). Baina perpau gramatikalak konbinatuz testu desegokiak sor daitezke eta horri buruz ohiko gramatikek ezer gutxi esaten digute. Ondorioz, perpauetik harago joan beharra daukagu, testu egokiak sortuko baditugu: bestela esateko, zuzentasun gramatikala gutxieneko baldintza izango da testu egokiak sortzeko baina ez baldintza nahikoa.

Beraz, alderdi hauek guztiak hartu beharko ditugu kontuan kalitatezko testuak sortzeko:

1. TESTUAREN EGOKITASUNA: hurrengo puntuak hartu behar dira kontuan.
  - a) Igorlea (igorlearen egoeraren eta eginkizunaren araberako hizkera)
  - b) Hartzailea (hartzailearen ezaugarrien araberako hizkera)
  - c) Idatziaren helburua (idatziko ideien eta idatziaren helburuen arteko adostasuna dago?)
  - d) Diskurtso-mota (hautaturiko diskurtso-motaren ezaugarri formalak errespetatu dira?)

---

<sup>272</sup> Atal hau idatzeko hurrengo lanez baliatu gara nagusiki: Zabala (1996a); Makazaga (1996); Idiazabal eta Larrigan (1998).

- e) Hizkuntza-maila (hizkuntza jasoa, estandarra edo lagunartekoa?)
- f) Edukia... (informazio nahikoa? beharrezkoa ez den edukirik ematen da?)
2. TESTUAREN KOHERENTZIA: «Koherentzia» terminoa intenzionalitateari lotuta dago eta testuari dagokion zentzuzko edo intenzionalitatezko efektua da. Koherentziak bermatzen du hartzaileak zentzua aurkituko diola testuari. Koherentzia testuala testu baten laburpena egitean agertuko zaigu: sorburu-testuaren (T) laburpena (t) egitean, T eta t baliokideak izan behar dutela esaten da, edota koherentzia bera behar dutela izan<sup>273</sup>. Koherentzia pean, zentzua testuan nola banatzen den ere araka daiteke. Hona hemen, kontuan hartu beharreko zenbait puntu:
- a) Idatziaren tesia
- b) Paragrafoa (ideia nagusi bat paragrafo bakoitzeko, lehen eta bigarren mailako ideien arteko lotura, paragrafoaren batasuna...)
- c) Paragrafo, atal eta azpiatalen hurrenkeria eta egituraketa (kronologikoa, induktiboa, deduktiboa, psikologikoa... Sarrerako eta bukaerako paragrafoek berebiziko garrantzia izango dute).
3. TESTUAREN KOHESIOA: Kohesio-mekanismoak testualizazio-mekanismoak ditugu, eta beren funtzio nagusia gaiaren garapena eta azpigaien artikulazioa gauzatzea da. Beste hitzez esanda, testuaren harilkatzea gauzatzea<sup>274</sup>. Elementuak eta kontzeptuak identifikatu ahal izatea da kohesioaren eragiketarik garrantzitsuenetako bat. Elementu kohesio-emaileen artean hurrengoak ditugu: izenordainak, erakusleak, artikulua mugatua, adberbioak, junta-gailuak, menderagailuak, testu-antolatzaileak (lokailuak eta esapideak)...<sup>275</sup> Bereizki hurrengo alderdiak zaindu beharko ditugu:
- a) Testu barruko loturak (perpausak ongi loturik daude ala telegrama-antza hartzen zaie?).
- b) Testu-antolatzaileen (lokailu, esapideen eta abarren) erabilera egokia.
- c) Paragrafoen arteko loturak eta trantsizioak (erreferentzia-kateak, inferentzia-kateak...).
- d) Progresio tematikoa (informazio ezaguna kontuan hartzen da informazio berria sartzeko? Sarrera egokia ematen zaio informazio berriari?...).
4. TESTUAREN ZUZENTASUN GRAMATIKALA: hizkuntzaren «arauak» (ortografia, hiztegia, marratxoaren erabilera, deklinabidea, aditza, sintaxia, puntuazioa, Euskaltzaindiaren gomendio eta erabakiak...) zaindu beharko dira.

Hurrengo azpiataletan, itzultzerakoan batik bat arazoak sortu ohi dituzten kohesio-mekanismo batzuk aztertuko ditugu, gaingiroki bada ere.

<sup>273</sup> Larringan (1998: 81-82).

<sup>274</sup> Larringan (1998: 82).

<sup>275</sup> Hemen multzo berean sartu ditugu kohesio-mekanismo guztiak, kohesioa/konexioa bereizkuntza egin gabe. Bereizkuntza horri buruz, ikus Idiazabal eta Larringan (1998: 83-84)

## 58.2. Kohesio-mekanismoak: pronominalizazioa, erlazio anaforikoak eta kataforikoak

Testu batean agertzen diren izenak, izen-sintagmak edo bestelako elementuak ordezkatzeari deitzen diogu pronominalizazioa. Ordezkapen hau izenordain eta erakusleen bitartez egiten dugu. Erakusle eta izenordainok, ordezkatzen duten erreferentearen ondoren agertu ohi dira maiz. Horrelakoetan elementu ordezkatuari «aurrekari» deituko diogu eta elementu ordezkatzaileari «elementu anaforikoa»: halakoetan erlazio anaforikoez mintzatuko gara. Hona hemen, adibide bat:

- (1) *Enpresaburuak*, segurtasun eta higienaren gaineko heziketa praktikoa eta ego-kia eman beharko die *berak*, kontratatzen dituen langileei.

Beste batzuetan —*hau, hauxe, honako hauek*... erakusleen kasuan batik bat— elementu pronominala bere erreferentearen aurretik ematen dugu, geroago datorrenaren hitz iragarle gisa: horrelakoetan erlazio kataforikoez mintzatuko gara. Gehienetan, enumerazioak eta zerrendak ematen ditugunean jokutzen dugu horrela. Hona hemen adibide bat:

- (2) ...horrelako kasuetan gizarte-babesaren eskubideek *honako kasu hauek* baino ez dituzte beteko: lanean izandako istripu eta gaixotasunen kontingentziak; kontingentzia arruntei dagokien osasun-laguntza; amatasunari dagozkion atse-denaldiak eragindako prestrazio ekonomikoa, bai eta Alokairua Bermatzeko Fonda ere.

Beraz, erlazio anaforikoetan elementu batek —elementu anaforikoak— testuan lehenago aipatu dugun elementu bati egiten dio erreferentzia. Lehenik aurrekaria dugu eta honi erreferentzia egiten dion anafora ondoren. Elementu anaforikoen artean ondokoak aipatu behar ditugu:

- (3) BALIO ANAFORIKOAREKIN ERABILTZEN DIREN ELEMENTU BATZUK:
- a) elkar
  - b) bata bestea
  - c) hau, hori, hura; hauek, horiek, haiek
  - d) berau, berori, bera; berauek, beroriek, beraiek/berak/eurak
  - e) honenbeste, horrenbeste, hainbeste...
  - f) honen, horren, hain
  - g) hemen, hor, han, bertan...

Bistan dagoenez, (3)-ko elementuetarik batzuek ez dute beti balio anaforikoa. Erakusleetan, esaterako, hiru funtzio bederen gainezartzen dira: deixi arrunta (4a), anafora (4b) eta testu barneko deixi modukoa edo «diskurtso-anafora» (4c)<sup>276</sup>.

- (4) a. Eraman hori (deixi arrunta)  
b. Mikeli esan zioten, eta *hark*... (erreferente baten anafora arrunta)  
c. Konforme nago, baina *horrek* ez du esan nahi... (diskurtso-anafora)

<sup>276</sup> Garzia (1997: 430).

Goiko (3)-ko zerrendan ageri diren elementu anaforikoen artean zalantza gehien sortzen dutenak hurrengoak dira:

A) LEHEN GRADUKO ERAKUSLEA: HAU-HAUEK

Lehen graduko erakuslea (*hau*) erlazio kataforikoetarako bakarrik gorde behar ote dugu?<sup>277</sup> Gaiak ikerketa sakonagoak behar dituen arren, uste dugu —hizkuntza idatzian, behinik behin<sup>278</sup>— funtzio anaforiko nahiz kataforikoarekin erabili izan dela eta erabil daitekeela. Balio anaforikoa duten lehen graduko erakusleen (*hau/hauek*) adibideak ugariak dira literatura-tradizioan (5), hala anafora arrunte-tan (5a-5h) nola diskurtso barruko anaforetan (5i).

HAU ERAKUSLEAREN ERABILERA ANAFORIKOAK:

- (5) a. Ezagunik baztertu baldin bazen usuario horretatik 1850 arte, *Iztueta*<sub>i</sub> izan zen hori. *Honek*<sub>i</sub> harako Oiartzungo apaizaren arabera, ezinesanezko gosez ekin baitzion arbola erdi-debekatuaren fruituei ez ezik, baita hosto eta adaxkei ere: ... (Mitx.)
- b. Bazterrak ongi arakatuz gero, *Iztueta*<sub>i</sub> ez legoke hain bakarti. *Hau*<sub>i</sub> izan zen, halaz guztiz, Larramendiren bidea saiatu zuena inork baino lehenago eta areago... (Mitx.)
- c. Aski genuke, adibidez, «batze» edota nik neronek usatu izan dudana «*bateratze*<sub>i</sub>». *Honek*<sub>i</sub> ere badu, ordea, bere koska: ... (Mitx.)
- d. (...) baña azkenean ezagutzen dute gaizto galgari berak ona dela *ongia ta birtutea*<sub>i</sub>, ta *hau*<sub>i</sub> dela, S. Ambrosiok dion bezala, bataitu guziak billatu behar dutena... (Mb *IArg* I 163)
- e. Gald-egiezu noiz, ta eranzunen dizute beste egitekoak bukatu ta *dagoten bide on bat arzen duten aldian ta horduan*<sub>i</sub>; ta ekusiko dezu *hordu hau*<sub>i</sub> ekusi bage joaten zaiela hastea, illa ta urte guzia, (Mb *IArg* I 093).
- f. Nere esnea saldu eta harrek eman dirutik Aroltze dozena zenbait erosiko ditut nik: Xitotarik, axeriak nahi edo ez nahi, Urdetto bat erosteko geldituko zait aski: Ene urdea ya ttarroa, yangabe haiñitz bihi Arthatur ongi, zait niri egiñen *urde handi*<sub>i</sub>; *Hau*<sub>i</sub> saltzearekin aldi enbrazu handi gabe, Umedun behi baten naiz betan egiñen yabe (...) (Gy 15)
- g. Bertan gora, atzekaldean ditugun karaitzezko mendi gailurren altura erdia hartu inguruan, mendebaleruntza bihurtu, Haitzabalek dituen jarraipenezko bizkarrak bukatzen diren *lepo aldera*<sub>i</sub>, eta *hau*<sub>i</sub> igaroaz, bideak, urratsik galdu gabe eramango gaitu aintzinako kaltzada bateraino. (SM 3)

<sup>277</sup> Lafittek (1944: 83) *hau* erakusleari balio deiktikoa eta kataforikoa egozten dizkio: «*Hau désigne celui qui parle, ou l'objet le plus rapproché, ou sert à annoncer ce qui suit: zure alde giren hauk, (...) et-che huntan, (...) hitz hauek erran ziozkan (...)*»

<sup>278</sup> Bestelako kontua da ea gauza bera gertatzen den euskara mintzatuan. Gaztelaniaz beheko esaldietako bakoitzari hizkuntza-maila jakin bat dagokio: bistan da (a) gisakoek ez dutela lekurik hizkuntza mintzatuan. Ez dirudi euskara mintzatuan (2a) gisakoek tradiziozko dutenik (Garzia, 1997:435).

1. a. Le dio un abrazo a su amigo, y *éste* le miró como extrañado (hizkuntza idatzia)  
b. Le dio un abrazo a su amigo, y *su amigo/él/él otro*... le miró como extrañado (hizkuntza mintzatua)
2. a. (...) eta han aldegin du bere lagunengana, eta *hauek*, lotsaturik, beste gela batean sartu dira berehala.  
b. (...) eta han aldegin du bere lagunengana, eta *haiek/berak/eurak*, lotsaturik, beste gela batean sartu dira berehala.

- h. *Gure buruez ez fida izatea*, orai irakutxi dugun bezala, baitezpadako *bertute bat*<sub>i</sub> den arren gudu Izpiritualean; *hau*<sub>i</sub> bakharrik bada eta bertze lagun-tzarik gabe, ihes lauster egiñen dugu, edo etsaiak armak eskuetarik arrapatuko darozkigu, eta bentzutuak izanen gare. (He *Gudu* 44)
- i. (...) Ez ordea eskuarak, eta *hau* heldu da, zeren bertze hitzkuntza hauk ganbiarazi tuzten etsajak ezbaitira aski botheretsu izan eskuararen ganbiarazteko, eta hunen iraupenaren ethentzeko; (ES 108)

Beraz, anaforiko gisa *hori* zein *hau* erabili izan dira; baina kataforiko gisa *hau* da erabiltzen den erakusle bakarra. Horregatik, balio anaforikoa duen erakuslea galdegaia denean, *hori* forma erabiltzea da egokiena (6a); *hau* erabiliz gero (6b), zalantza izan dezakegu lehenago aipatuari erreferentzia egiten dion (anaforikoa) ala ondoren datorrenari dagokion (kataforikoa)<sup>279</sup>.

- (6) a. Lehenago *faktore batzuk*<sub>i</sub>, aipatu ditugu. *Faktore horiexek*<sub>i</sub>, dira hemen aztertu nahi ditugunak.
- b. Lehenago *faktore batzuk*<sub>i</sub>, aipatu ditugu. *Faktore ?hauexek*<sub>i</sub>, dira hemen aztertu nahi ditugunak.

Esanak esan, *hau* erakuslearen erabilera anaforikoa (5) gaitzetsi gabe, estilo aldetik (unibertsitateko testu teknikoetan, adibidez) guztiz zilegi litzateke argitasunaren izenean *hau*-ren erabilera anaforiko horri hesiak ipintzea: proposamen murritzaila horren arabera, *hau* erakusleari balio kataforikoa bakarrik emango genioke (7b) eta bigarren graduko erakuslea (*hori-horiek*) erabiliko genuke erlazio anaforikoak (7a) adierazteko<sup>280</sup>.

- (7) a. Lehenago *faktore batzuk*<sub>i</sub>, aipatu ditugu eta (*faktore*) *horiexek*<sub>i</sub>, dira hemen aztertu nahi ditugunak.
- b. Lehenago *faktore batzuk*<sub>i</sub>, aipatu ditugu, baina (*faktore*) *hau(ex)ek*<sub>j</sub>, dira hemen aztertu nahi ditugunak: ...
- c. ??Lehenago *faktore batzuk*<sub>i</sub>, aipatu ditugu eta (*faktore*) *hau(ex)ek*<sub>j</sub>, dira hemen aztertu nahi ditugunak.

Edozein modutan, (7)-ko estilo-proposamenak ez litzuzke kanpoan utziko diskurtso barruko anaforak, testu barruan halako balio deiktikoa dutenak, alegia:

- (8) Egungo eguneko den apurrenik gutietsi gabe, ez da *hau* eraman duen lehen saria eta ez da, Jauna lagun, azkena izango. (MEIG VIII 57)

<sup>279</sup> Zabala (1996: 38).

<sup>280</sup> Horixe da, hain zuzen, Garziaren apustua (1997: 427-441), nahiz eta berak ez duen gomendio hori proposamen gisa aurkezten, ezpada «lege» gisa.

Lafitte-ren (1944: 83-84) deskripzioa ere bat dator Garziaren proposamenarekin. Izan ere, *hau* erakusleari balio deiktikoa eta kataforikoa izendatzen dizkion bitartean, *hori* erakusleari balio deiktikoa eta anaforikoa ematen dizkio: «*Hori désigne celui à qui l'on parle, ou un objet moins rapproché, ou sert à rappeler ce qui précède: guri beha zaudezten hoik, (...) etche hortan (...), hitz hoik erran-eta jaiki zen...*». Makazagak, ostera, bestelako iritzia agertzen du: «Erakusleetan, berriz, lehenengo graduko delat esango genuke gehien erabiltzen dena testuetan balio anaforikoarekin.» (Makazaga, 1996: 60).

Bestalde, (7)-ko proposamenaren aldekoek gogoko ez duten arren<sup>281</sup>, bi aurrekari posible daudenean maiz erabiltzen da *hau... hura...* segida, edo antzekoak (*azken hau... hura...*; *bigarrena... lehenbizikoa...*; *bigarren hau... lehenbiziko hura...*) balio anaforikoarekin:

(9) HAU... HURA...

- a. (...) *adei* eta *dedu* (...) har ditzaket Olabidegandik<sub>j</sub>. *Orixek<sub>i</sub>* ere bazuen ixuri hori, baina *honek<sub>i</sub>* entzunak sartzen zituen eta *hark<sub>j</sub>*, berriz, irakurriak, hiztegieta gehienbat. (Mtx.)
- b. Eta *jendeak<sub>j</sub>* ez ziola *predikariari<sub>i</sub>*, eragiten hizkera moduan, *honek<sub>i</sub>* *hari<sub>j</sub>* bai- zik edo, are zehazkiago, elkar-lanean zebiltzala *bata bestearekin*, XVIII. men- deko FLV-en argitara zen Gesalaz aldeko dotrinak azaltzen digu. (Mtx.)

AZKEN HAU... HURA...

- c. (...) *guarda* ere eta *axuanta<sub>i</sub>*, guti edo aski kolpatuak, *azken hau<sub>i</sub>* zango ez- kerrean, *hura* eskuineko besoan, eta... (Lf *Murtuts* 72)

BIGARRENA... LEHENA... / LEHENA... BIGARRENA...

- d. Zamari desberdinak dira *astoa<sub>i</sub>* eta *mandoa<sub>j</sub>*. *Bigarrena<sub>j</sub>* *lehen<sub>i</sub>* baino ma- neiakorragoa da.
- e. Alan bekatari bi, *bata Kontriziñoaz<sub>i</sub>*, *beste<sub>j</sub>*, Atriziñoagaz, Konfesio baga ilgo balira, *lenengoa<sub>i</sub>* salbadu, ta *bigarrena<sub>j</sub>* kondenaduko litzateke. (Cb *CatV* 81)

BIGARREN HAU... LEHENBIZIKO HURA...

- d. Zamari desberdinak dira *astoa<sub>i</sub>* eta *mandoa<sub>j</sub>*. *Bigarren hau<sub>j</sub>* *lehenbiziko hu- ra<sub>i</sub>* baino maneikorragoa da.

Bistan da, nolana ere, (9)-an ageri diren baliabideak hizkuntza idatzi jasoari dagozkiola eta irakurleari nekagarri samarrak gertatu ohi zaizkiola. Beraz, argita- sunaren mesedetan hobe da (9) gisakoak ahal denik eta gutxien erabiltzea. Bestal- de, inguruko erdaretan hitzak errepikatzeko egon ohi den beldur hori ez bide dago hain justifikatuta euskararen kasuan; are gutxiago, ororen gainetik funtzionaltasu- na bilatu behar duen hizkuntza teknikoan.

B) BERAIEK / BERAK / EURAK?

Hirugarren graduko erakusle pluralerako zein forma (*beraiek/berak/eurak*) hau- tatuko da euskara batuan? Aspaldi honetan *beraiek* forma aski zabaldu da euskara batuan, baina orain *berak* aukeraren aldeko iritziak ere zabaldu dira (ik. Sarasolaren *Euskal Hiztegia*): erabakirik hartzen ez den bitartean, beharbada, *berak/eurak* biko- tea eskain dakioko idazleari, *eurak* aldaeraren izaera markatua (mendebaldekoa) az- pimarratuz (ik. supra 17. atala).

<sup>281</sup> Garziak (1996), esate baterako, beheko (a)-ko baliabideari «testu-prozedura bihurri-sofistikatu» deritzo eta (b), (c) edo (d) hobesten ditu:

- a. Zamari desberdinak dira *astoa* eta *mandoa*. *Hau hura* baino maneikorragoa.
- b. Zamari desberdinak dira *astoa* eta *mandoa*. *Bigarrena lehenbizikoa* baino maneikorragoa.
- c. Zamari desberdinak dira *astoa* eta *mandoa*. *Bigarren hau lehenbiziko hura* baino maneikorragoa.
- d. Zamari desberdinak dira *astoa* eta *mandoa*. *Mandoa astoa* baino maneikorragoa.



C) BERAIEIEN / BEREN / EUREN?

Aurreko puntuko zalantzak areagotu egiten zaizkigu kasu genitiboan (ik. supra 18. atala). Hizkera teknikoan irtenbide bat «*haien / beraien (indartua) / beren (bihurkaria)*» hirukoteari eustea izan daiteke: *beraien*, forma indartu gisa bakarrik bultza daiteke (*Agintariak eta beraien azpikoak dira erantzuleak*) eta *beren* balio bihurkaria duenerako bakarrik gorde (*Agintariak beren azpikoak gobernatu behar dituzte lehenik*). Beste aukera bat honako hau izan daiteke: genitiboan *haien / beren (euren)* bikoteaz baliatzea nagusiki eta —forma indartuen erabilera ahalik eta gehien murriztuz— anbiguotasun-arazoak testuinguruaren esku uztea (*Agintariak eta haien (beren) azpikoak dira erantzuleak; Agintariak beren azpikoak gobernatu behar dituzte*). Jakinaenez, tradizioan eta gaurko euskara mintzatuan *beren/euren* formak zeregin bietarako (indartu zein bihurkari gisa) erabiltzen dira.

D) HONEN/HONENBESTE; HORREN/HORRENBESTE; HAIN/HAINBESTE

Konparazioetan baliatzen ditugun *honen/honenbeste, horren/horrenbeste, hain/hainbeste* elementuei dagokionez, —konparazioaren bigarren burua agerian (10) egon («diskurtso-anafora») zein ezkutuan egon (11)— maizenik hirugarren graduko formaren aldeko neutralizazioa (*hain/hainbeste*) gertatzen dela aitortu behar da (11). Alde horretatik, ez dirudi egokia denik *hain/hainbeste* formen ordez *horren/horrenbeste* forma markatuak erabiltzea, batez ere bigarren pertsona gramatikalarekin zerikusirik ez duen eta testu-anafora ez den kasuetan (12)<sup>282</sup>.

- (10) Pozik egongo dira Luis Mariano bere guztizkotzat daukatenak; Garat-zaleak, beharbada, ez beste *hainbeste*. (MEIG I 166)
- (11) a. Zerk zakartza *hain* estu eta larri?  
b. Zuk *hain* ongi dakizunez.  
c. Ez nuen uste *hain* aberatsa nintzenik.  
d. Baina egia horrek *hain* egiazko ez den beste puntu bat zeraman ondotik.
- (12) ?...hor behean Baidarak ?*horren* (> *hain*) ur nahasia dakar, non ezin izango baitugu zeharkatu.

58.3. Kohesio-mekanismoak: erakusleak<sup>283</sup>

Lehen graduko erakusleak eta hauetatik eratorritako formak (*hau, hauek...*) eta esapideak dira erlazio kataforikoetan izen-sintagma, izen-sintagmen zerrenda —kasu honetan pluraleko formak erabiliz— edo perpauis bat ordezkatzeko erabiltzen diren elementuak. Literaturan, gehienetan —ez beti— bi puntuak erabiltzen dira egitura hauetan. Oso erabilgarriak dira galdegai-funtzioa betetzen duen osagaia oso luzea denean, testuari bestelako argitasuna ematen baitiote.

<sup>282</sup> Garzia (1997).

<sup>283</sup> Lehen graduko erakuslearen (*hau*) erabilera anaforikoari dagokionez, ikus bedi 58.2 azpiatala.

(13) ERLAZIO KATAFORIKOAK:

hau	hauxe	hauek
hauek	honako hau(ek)	honakoa(k)
ondorengo ... hau(ek)	hurrengo ... hau(ek)	ondoko ... hau(ek)
ondokoa(k)	ondokook	zera (hizkuntza mintzatuan <sup>284</sup> )

Edozein modutan ere, erakusleak izenordain gisa erabiltzen ditugunean (izena isilduta), segurtatu behar dugu irakurlea isildutako izena arazorik gabe berreskuratzeke gauza izango dela. Beheko (14a) testuan erraz igartzen da zein diren azpimarraturiko elementu anaforikoen aurrekariak («derecho a litigar gratuitamente» eta «el asunto principal», hurrenez hurren). Euskal itzulpenean (14b), ostera, *beste hori* hitzen aurrekaria ez dugu hain erraz identifikatzen: arazoa isildutako izena agerian utziz —errepikatuz— konpontzen da (14c). Era berean, (15a)-koa erlazio anaforiko ilunagoa da (15b)-koa baino, etab.

- (14) a. El reconocimiento del derecho a *litigar gratuitamente*, en los términos del artículo anterior se efectuará por el órgano judicial a quien corresponda el conocimiento del *asunto principal*, sin que *su*<sub>i</sub> solicitud produzca la suspensión de *éste*<sub>j</sub>.
- b. ?Aurreko artikulua eraberritzearen arabera *auzitan dohainik sartzeko*, eskubidea aitortzea, *arazo nagusia*<sub>j</sub> ezagutzeko eskumena duen epai-organoak egingo du, eta *hura*<sub>i</sub> eskatzeak ez du ?*beste hori*<sub>j</sub> etenaraziko.
- c. (...) eta *hura*<sub>i</sub> eskatzeak ez du *beste arazo hori*<sub>j</sub> etenaraziko.
- (15) a. ?Etorkizuneko lan-arauen<sub>i</sub> ezarpena osotasunean baloratu beharko da, Hitzarmen honetan itundutako baldintzek<sub>j</sub> konpentsatuak eta ordezkatuak geratuz, baldin eta ?*haiek*<sub>i</sub> osotasunean hartuta ?*hauek*<sub>j</sub> gainditzen ez badituzte.
- b. Etorkizuneko lan-arauen<sub>i</sub> ezarpena osotasunean baloratu beharko da, Hitzarmen honetan itundutako baldintzek<sub>j</sub> konpentsatuak eta ordezkatuak geratuz, baldin eta *lan-arau haiek*<sub>i</sub> osotasunean hartuta *hitzarmenekoak*?*baldintza hauek*<sub>j</sub> gainditzen ez badituzte.
- (16) a. Dietetika aldetik *elikagaiak*, *uraren*, *gatzen* (sodiozkoak, potasiozkoak, kaltziozkoak, burdinazkoak, eta abarren), *bitaminen* eta *substantzia organikoen* (gluzido, lipido eta proteinen) nahasketa dira. *Substantzia organiko horiek* oso tamaina handikoak izaten dira eta kimikoki elkartuak dauden osagai soilagoz daude eratuak (adib. azukrez, aminoazidoz eta gantz-azidoz).
- b. Bestetik badaude egiazko *guruinak*, ongi bakoiztuak, digestio-aparatuaren kanpoan kokatuak eta zenbait *jariaketa* mota edukitzeko espezializatuak; *jariaketa hauek* liseri-hodira hodi batzuen bidez jariatzen dira.

Halakoetan gaztelaniaz, generoaren aurkaritza dela medio, errazago deskodifikatzen ditugu esaldiak; baina euskaraz bestelako estrategiez baliatu beharko dugu (ordenaz, batik bat). Arazoak ditugu orobat erakusle soila (*hau*, *hori*) aurreko esaldian esandako guztiari dagokionean eta ez bakarrik aurreko izen-sintagmari: gaztelaniaz horrelakoetan genero neutroaz baliatzen dira (*esto*, *eso*); euskaraz izena agerian

<sup>284</sup> Sarasolak bere hiztegiaren (EH) behe-mailakotzat jotzen du.

uztea komeni da<sup>285</sup>. Hurrengo testuan (17a), adibidez, anbiguotasuna dago, *hauek* erakuslearen aurrekaria ez baita aurreko sintagma («jubilatua») bakarrik, aurreko sintagma juntatu guztiak baizik (alegia, «bere konturako langileak, langabeak eta jubilatua»). Bestalde, (17b) adibidean ere erlazio anaforiko iluna geratzen da ize-na gehitu ezik (*hau* > *inguruabar/zirkunstantzia hau*).

- (17) a. ?ASLOk berebat mugatu du sindikazio-eskubidea, bere kontura lan egiten duten langileena, langabeena eta jubilatuen; ?*hauek* > *horiek guztiak* badaitezke lehendik dauden sindikatuetan afiliatu, baina ez sindikatu berri-rik sortu...
- b. Demandatzaileak, abokatu batek lagunduta edo prokuradore edo elkargo-ko gizarte gradudun batek ordezkatuta, agertu nahi izanez gero judiziora, hala agerraraziko du demandan. Demandatuak ere idatziz jakinaraziko dio ?*hau* > *inguruabar hau* [«abokatu edo graduatu batek ordezkatuta agertzeko nahia»] epaitegiari edo auzitegiari...

Edozein kasutan, argi utzi behar da aurrekari baten ordezte semantikoa — anafora bidez, oraingoan — ez dela ezinbestekoa. Bestela esan, ordeztearen ondorioa erlazio anaforiko iluna bada, beste baliabide bat bilatu beharko dugu. Horrela, aurrekaria nahikoa urrun geratzen zaigunean errepikapenera joko dugu (18). Erdal eskolaren irakatsia bestelakoa bada ere, ez dut uste euskaraz errepikapena gaztelaniaz bezain gaizki ikusia egon behar denik, are gutxiago ondorioa gaizki-ulertua bada. Dena dela, horrek ez du esan nahi alferkeriazko errepikapen astunean erori behar denik: ez dago dudarik (19b) hobetsiko genukeela errepikapenez jositako (19a) erabili baino lehen<sup>286</sup>.

- (18) *Gehigarrien* erabilera gure mendeko gauza bezala kontsideratzen da eta teknologia berriekin erlazionatzen. Hala ere *produktu hauen* historia giza historiaren hasiera-hasierako denboretaraino iristen da, eta honen azpian zera dago: betidanik gizakiak bere biziraupenerako elikagaien kontserbazioari aurre egin behar izan diola. Horrela, gatza erabiltzen zen gazkietan, kea arrain eta haragiak ketzeko, eta legami eta hartzigarriak ogia, garagardoa, ardoa, gaztak, eta abar egiteko. *Gehigarri hauek* ez elikagaiak mantentzeko asmoz, baizik eta kontsumitzailea engainatzeko erabiltzea ez da hain gaurkoa, zeren eta ...
- (19) a. Lehendabizikoa medikuaren errezetarekin bakarrik lor daitekeen *botika da*. Bigarrena errezeta berezia behar duen *botika da*. Hirugarrena iraugitze-data berezia duen *botika da*. Azkena hozkailuan gorde behar den *botika da*.
- b. Lehendabiziko botika medikuaren errezetarekin bakarrik lor daitekeen arren, bigarrenak errezeta berezia behar du. Hirugarrenak, berriz, iraugitze-data berezia du eta, bukatzeko, azkena hozkailuan gorde behar da.

Bestalde, *hain/hainbeste* formekin gertatu den era berean (hirugarren gradu-ko formaren aldeko neutralizazioa-edo), badirudi erakusleetatik eratorritako testu-antolatzaile batzuekin ere halako neutralizazio edo murrizketa gauzatu dela gradu-erlazioan. Ikus ditzagun gradu-murrizketa jasan duten forma horietako batzuk<sup>287</sup>.

<sup>285</sup> Zabala (1996: 37).

<sup>286</sup> Makazaga (1996: 106).

<sup>287</sup> Azalpen honetarako Garzia (1997: 431 eta hurr.) hartu dut oinarri.

Kasu motibatiboan (-*gatik*) hiru graduak (*honegatik/horregatik/hargatik*) ez dira maiztasun berarekin erabiltzen: duarik gabe, *horregatik* —lokailu bihurtua— da erabiliena, bera baita estilo diskurtsiboaren oinarrietako bat; *honegatik* formak balio kataforikoa izango du gehienetan; eta hirugarren graduako *hargatik* oso gutxi erabiltzen da.

Era berean, *beraz*, *hau da*, *hortaz* esapideak —forman gradua ageri badute ere— erabat lexikalizaturik daude (ik. infra 62. atala).

*Honela*-k balio kataforikoa du gehienbat (20a) eta ez dirudi egokia denik bigarren edo hirugarren graduak erabiltzea balio horrekin (20b). Balio anaforikoarekin, hiztun eta idazle askoren hizkeran *horrela* (*hola*) nagusitzen ari da (21a), baina lehia dago bigarren eta hirugarren graduen artean (21a/b,c): erreferentearen urruntasunaren arabera erabakitzen da hautua, baina aurrekaria testu barruan badago edo bigarren pertsona gramatikalarekin zerikusia badu, errazago jotzen da bigarren graduako formara (22). Hala ere, iraganeko edo etorkizuneko kontakizunari berez *hala* dagokio (23). Azkenik, *horrela*-k eta *hala*-k testu-antolatzaile gisa (ik. 62. atala) funtzionatzen dute sarri (24).

- (20) a. Aurrerantzean *honela* (→) adieraziko dugu erlazio hori: ...  
 b. ??Aurrerantzean *horrela/hala* (→) adieraziko dugu erlazio hori: ...
- (21) a. *Horrela* esan zidan.  
 b. *Hala* esan zidan.  
 c. Ustè edo ez, *hala* dio. (HU Zez 105)
- (22) a. Nornahik aski harrigarri deritzo iraute etengabe horri, eta *horrela* iritzi behar ere. (MEIG VI 49)  
 b. eta bada zenbait jende hori baio goragoko mailan gauzak esplikatu nahi dituen, bueno orduan, nere ustez, ez, eta besterik pentsatzen duenak bar-ka beza, lehendabizi gauzak nola gertatzen diren jakin behar duzu eta gero saiatu gauzak *horrela* zergatik diren edo ez diren, horren arrazoiak aurkitzen. (MEIG IX 74)  
 c. Hego hil-sistuz, itsas marrumaz, oihan intzirez, dei minez, Euskal- Herria, Euskal- Herria, *horrela* otoi ez mintza. (Iratz 125)
- (23) a. Ez noski umil-itxuraka egiteko, *hala* uste zuelako baizik. (MEIG VIII 69)  
 b. Neska itsuak etzituan ohartzen bere maitalearen bihotz taupadak, edo *hala* uste zuan behintzat Joxe Pirrik. (Osk *Kurl* 184)  
 c. Bai *hala* da, saltsa xarra egin lezake norbaitek, horien mihiarekin nahas baleza uste gabetarik. (Barb *Sup* 109)  
 d. *Hala* faboratu eta begiratu zituen Israeleko semeak ere itsas-bazterrean, errege Faraonek alde guztietarik inguratuak, eta ezin ihesik zeidiketen be-za, ustez hartuak eta atrapatuak zedutzanean. (Ax 86)
- (24) a. *Horrela*, (1b) perpausean, «orain» hitzak seinalatzen duen ueña «kodatze unearekin», esan nahi baita, perpaus hau ahozkatzen edo idazten den momentuarekin, bat dator, edo honen inguruan kokatzen da bederen; (...) (EGLU-III)  
 b. *Horrela* ihizin nindabilalarik, aitak eman behar zaundan nahigabe handia. (JE *Bur* 17)

Zenbaitetan kontraste deigarriak gertatzen dira. Badirudi kasuaren arabera-edo gradu jakin bat hautatzen dela: beheko (25a) eta (25b) baliokideak dira, baina batean

hirugarren gradua nagusi den bitartean, bestean bigarrena da markatugabea; eta orobat gertatzen da (25c) eta (25d) adibideetan<sup>288</sup>.

- (25) a. *Hala (horrela)* esan zidan = b. *Hori (?hura)* esan zidan  
c. *Horregatik (hargatik)*, isilik geratu zen = d. *Hala (?horrela)*, isilik geratu zen

#### 58.4. Kohesio-mekanismoak: mugatzailea eta erakusleak

Elementu bat lehen aldiz aipatzen denean, *bat/batzuk* eta antzeko determinatzaile zehaztugabeak (*zenbait...*) erabili beharko ditugu. Baina behin aipatuz gero, hurrengoetan mugatzailea (-a) edo erakusleak erabiliko ditugu (26).

- (26) a. Ulertu beharko da *zerbitzu bat* ematen duenaren eta jasotzen duenaren artean lan-kontratua dagoela; horretarako, *zerbitzua* eman duenak beste baten kontura eta antolaketa eta zuzendaritzapean eman behar du eta *zerbitzua* jaso duenak ordainsaria eman behar dio *zerbitzuaren* emaileri.  
b. Kontratuaren ezbaliozko zatian ezarrita egon daitezke *zenbait kontraprestazio*; *kontraprestazio horiek* langileari baldintza edo ordainsari bereziak esleitzen diezazkieke...

Hala ere, mugatzaileek eta erakusleek ez dute berdin jokatzeko: erakusleek barne-kontrastea ezartzen dute sail bateko elementuen artean (27a); mugatzaileek sailen arteko kontrastea ere ezar dezakete (27b): (27a) adibidean «eskari guztien» artean eskari jakin bat aipatzen da; (27b) adibidean «langileak» eta «kapitalistak» sailen arteko kontrastea lortzen da.

- (27) a. Aurreko artikuluko kasuan, demandak mugabarru bereko Gizarteko epaitegi bitan edo gehiagotan egonez gero ebazkizun, orduan ere erabaki ahal izango da guztien metaketa, epailearen arioz edo alderdi baten eskariz. *Eskari hau*, Erregistroan lehenago sartu den demanda bururatzeko ari den epaileari egin beharko zaio.  
b. Langile batzuen eta kapitalista batzuen arteko lankidetzaren emaitza da enpresa hau. *Langileek* beren lan-indarra eta kualifikazioa jarri zuten eta *kapitalistek* dirua.

Erlazio kataforikoetan batzuetan erakuslea ematen da lehendabizi eta izen-sintagma mugatzaileduna ondoren:

- (28) Orobat, langileak *eskubide hau* edukiko du: benetan burutzen dituen funtzioei dagokien ordainketa jasotzeko *eskubidea*, salbu eta beheragoko funtzioak betetzea agintzen bazaio.

Aurrekaria plurala denean, plural hurbilaz balia gaitzetzeko:

- (29) Heziketa teorikoari dagokionez, enpresek *eginbehar batzuk* bete behar dituzte; *eginbeharrok* bete ezean langileari abonatu beharko diote honako kalteordain hau...

<sup>288</sup> Garzia (1997: 432).

## 58.5. Kohesio-mekanismoak: adberbioa

Aipatuez gainera, adberbioak ere erabiltzen ditugu testuko barne-erreferentziak adierazteko.

- (30) a. *lehen* esan dugun bezala
- b. *gero* aipatuko ditugu...
- c. *gorago* aipatu dugun bezala...
- d. *beherago* mintzatuko gara honetaz
- e. *geroago* aipatuko dugun bezala...

*Aurrerago* forma anbigua izan daiteke: espazioan lehenago aipatua izan daiteke eta denboran ondoren datorrena. Aditzaren aspektua dela medio (*aurrerago esan dugunez*) edo hitza aldatuz (*geroago*...) saihesten dira halako anbigutasunak.

Aurreko adberbioekin ez da zalantza gehiegirik sortzen, baina bada adberbio bat —adizlaguna— buruhauste ugari eman ohi diguna: *bertan*, *bertatik*, *bertara*, *bertako*... formez ari gara. Hirugarren graduko erakuslearen forma indartuari (*bera*-ri) dagozkion adizlagunak dira. Beheko (31) eta (32) adibideetan ez dugu arazorik; baina (33a)-n eta honen itzulpena den (33b)-n arazo handiak ditugu elementu azpimarratuen aurrekaria identifikatu ahal izateko. Horrelakoetan hobe izango da erreferentea agerian uztea, hitza errepikatu behar badugu ere.

- (31) Idazkariak, edo haren eginkizunetan diharduenak, idazki eta agirien aurkezpenaren eguna eta ordua agerrarazteko diligenzia ezarriko du eta, beti ere, *jasoagiria*<sub>i</sub> emango dio interesatuari *bertan*<sub>i</sub> horiek adieraziz.
- (32) Lekualdaketa dela eta, gerta daiteke ezkontideetarik batek egoitza aldatu behar izatea; orduan, besteak *herri berberera*<sub>i</sub> lekualdatzeko eskubidea izango du enpresa bereko langilea izanez *gero* eta *bertan*<sub>i</sub> lanposturik egonez *gero*.
- (33) a. Si los servicios se prestaran en lugares de distintas circunscripciones territoriales, el trabajador podrá elegir entre aquél de ellos [juzgados] en que tenga su domicilio, el del contrato, si hallándose *en él* el demandado pudiera ser citado, o el del domicilio del demandado.
- b. ?Zerbitzuak lurralde mugabarru ezberdinetako tokietan eginez *gero*, langileak, egoitza duen tokioa [epaitegia], kontratukoa —demandatua ?*bertan* [«kontratua duen tokian»] dagoela zitatu ahal izatera—, edo demandatuaren egoitzakoa aukeratu ahal izango du.
- (34) a. Los empresarios que contraten o subcontraten con otros la realización de obras o servicios correspondientes a la propia actividad de aquéllos deberán comprobar que dichos contratistas están al corriente en el pago de las cuotas de la Seguridad Social. Al efecto recabarán por escrito, con identificación de la empresa afectada, certificación negativa por descubiertos en la Tesorería General de la Seguridad Social, ...
- b. ?(...) Horretarako, lehendabiziko enpresaburu horiek Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiari idatziz eskatu beharko diote ?*bertan* [«Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusian»] zorpekorik ez dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria...

Bestalde, *hemen/hor/han* aditzondoei dagokienez, honako oharra egin behar da: badirudi nolabaiteko neutralizazioa gertatzen dela balio anaforikoarekin —tes-

tu barneko deixian, alegia eta ez deixi arruntean— erabiltzen direnean; alegia, ez da oso egokia *hemen* balio anaforikoarekin erabiltzea, (35) gisakoetan *han* baita forma markatugabea<sup>289</sup>.

- (35) Hamazazpi urterekin *Seminariora*<sub>i</sub> sartu zen. ?*Hemen*<sub>i</sub> (> *han*) bost urte pasatu, eta...

## 58.6. Kohesio-mekanismoak: errepikapena

Goraxeago ikusi dugu «IS mugagabea ... IS mugatua» erako errepikapena sarritan gertatzen dela. Sintagmen errepikapenak testuan hauen artean dagoen distantziarekin du erlazioa: zenbat eta gertuago egon erreferentzia bereko bi sintagmak, orduan eta nekezago egingo dugu errepikapena eta alderantziz. Perpausaren mailan elementu anaforikoak erabiliko ditugu. Erreferentzia bereko elementuak jarraian doazen perpausetan badaude aukera biak ditugu: anafora eta errepikapena. Bi elementuak urrutiago baldin badaude, normalean sintagmaren errepikapenera joko dugu<sup>290</sup>.

Zenbaitetan errepikapen hutsa egin beharrean, errepikapen inplizituak egiten dira (36a) edota erdi errepikapen direnak (36b):

- (36) a. *Merkatuan dauden botiken %20 onar daitezke inolako beldurrik gabe; beste %25 onartezinak dira. Multzo* ikaragarri horretatik %30ek bakarrik dute balioa orokorki, gainerantzekoa erdibidekoa edo eskasa da.  
b. Kooperatiben munduan beti *estimatu* izan da langilearen parte-hartzea; *estimazio* horren arrazoa honetan bilatu behar da...

Edozein modutan, erreferentzia bereko elementuen arteko lotura iluna baldin bada, hobe dugu errepikapenera jo edo erreferentzia agerian utzi. Ez dugu ahaztu behar hizkuntza teknikoak funtzionala izan behar duela; hortaz, iluntasuna ezin dugu justifikatu estiloaren edota ekonomiaren izenean. Aurreko azpiataleko (33b) eta (34b) testuak, adibidez, honela eman ditzakegu argiago:

- (37) (...) Langileak bere zerbitzuak lurralde-mugabarru ezberdinetako tokietan eginez gero, hurrengo epaitegi hauetako bat aukeratu ahal izango du: egoitza duen tokikoa; kontratukoa, demandatua *lantokian* /*kontratua duen tokian* dagoela zitatu ahal badute; edo demandatuaren egoitzakoa.  
(38) Horretarako, lehendabiziko enpresaburu horiek Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiari idatziz eskatu beharko diote ziurtagiria, *Diruzaintzan* zorpekorik ez dagoela egiaztatzen duena...

Gogoratu, era berean, izenordain gisa erabiltzen ditugun erakusleei buruz esandakoa: izena isilduta utzi baino lehen, segurtatu beharra dugu irakurlea gai izango dela testutik erreferentzia erraz berreskuratzeko.

<sup>289</sup> Garzia (1997: 434).

<sup>290</sup> Makazaga (1996: 65-68).

### 58.7. Kohesio-mekanismoak: sinonimoak

Sinonimia, hitzak errepikatu gabe lehen aipatuari erreferentzia egiteko erabil daitekeen beste baliabide bat da. Hurrengo terminoen artean, adibidez, baliokidetzako dago eta batzuetan bikoteaz balia gaitzke, lehenengo bata eta gero bestea erabiliz:

- (39) a. irazpen  $\approx$  kaleratze
- b. erosahalmen  $\approx$  erosteko ahalmen
- c. errenta  $\approx$  diru-sarrera
- d. ekoizpen-bideak  $\approx$  produkzio-bideak
- e. bozketa  $\approx$  botazio
- e. aparteko orduak  $\approx$  ordu estrak ...

Beste batzuetan, sinonimia ez da erabatekoa, gutxi gorabeherakoa baizik. Beheko (40)-ko testuan, adibidez, *zerbitzu* erabiltzen da *lan* hitzaren sinonimo gisa; eta (41)-ko lehen esaldian ageri den «lan-kontratua etetea», «neurria» da hurrengo esaldian.

- (40) Gehieneko iraupena ahitu ondoren edo kontratuari dagokion *lana* burutu ondoren, gerta daiteke langileak *zerbitzuak* ematen segitzea; ...
- (41) *Lan-kontratua enpresaburuaren ekimenaz eten ahal izango da* arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolamenduzkoak edo ekoizpenekoak direla-kausa eta, beti ere lege honen 51. atalean eta lege honen garapen-arauetan ezarritako prozedurari jarraituz (...). *Neurri hori* hartzeko baimena bidezkoa izango da, ...

### 58.8. Kohesio-mekanismoak: hiperonimoa/hiponimoa

Batzuetan, hitza ez errepikatzearen, hitz horri dagokion hitz generikoagoa (hiperonimoa) erabiltzen dugu: *ordezkari sindikal*, esaterako, *sindikatuordezkari* terminoaren hiperonimoa dugu, azken hau lehenengoaren posibilitateetako edo azpisailetakoa bat baita; testuinguru jakin batean bata bestearen ordez ager daiteke (*sindikatuordezkariak ...; ordezkari sindikalak ...*). Beste batzuetan, alderantziz gertatzen da: maila orokorrean ari gara eta esandakoa erakusteko-edo adibide konkretuagoetara (hiponimoetara) jotzen dugu (*Ordezkari sindikalak ... Sindikatuordezkarien kasuan, adibidez, ...*).

### 58.9. Kohesio-mekanismoak: perifrasiak

Beste baliabide bat lehen aipatuari erreferentzia egiteko lehenengo hitza errepikatu gabe perifrasiak dugu. Beheko testuan, adibidez, *ordezkariak (sindikalak)* aipatu dira lehendabizi, eta hurrengo perpausean «ordezkari» horiek nortzuk diren esplikatzeko duen perifrasiak (azalpena) erabili da.

- (42) ASLOk, efektu hauetarako, indikadore bakarra izan du kontuan: sindikatu bakoitzaren hauteskunde-oihartzuna, hau da, hauteskunde sindikaletan lortutako *ordezkarien* kopurua. *Pertsonalaren delegatuak, enpresa-batzordeko kideak edo Administrazio publikoetako organoetako dagozkien kideak* batuta %15 lortuz gero, ordezkariak nagusiko erakunde sindikalaz mintzatuko gara.



- (43) *Autoa* bertan behera utzia zegoen. *Traste zaharra* egoera onean zegoen oraindik.

Dena den, kontuz jokatu beharra dago perifrasiak aukeratzean; izan ere, batzuetan perifrasiak argitu beharrean, ilundu egiten du erreferentzia-sarea. Kazetaritzan, esaterako, sarritan aukeratzen da perifrasi-bidea eta batzuetan argitasunaren kalterako. Beheko testua (44) dugu joera oker horren lekuko: *Mayor Oreja* ≈ *PPko burukidea* ≈ *politikari eskuindarra* ≈ *Donostiako alkategaia* sekuentzia ez da batere egokia, irakurleak zertan jakinik ez duen informazio gehigarri berezia eskatzen duelako<sup>291</sup>.

#### OKER

- (44) EAJk Irlandako eredia proposatu izana gogor kritikatu du *Jaime Mayor Orejak*. «Ez dakit zertara datorren konparazio hori», esan zuen *PPko burukideak* Bilbon egindako ekitaldi batean. «Halako jarrerak lor dezaketen gauza bakarra gizartearen desmobilizazioa da», gehitu zuen *politikari eskuindarrak*. Hain zuzen ere, *Donostiako alkategaia*-ren iritziz, «bakea lortzeko bide bakarra dago: kontzientziazioa eta herritarren erantzuna».

#### HOBETO

- (45) EAJk Irlandako eredia proposatu izana gogor kritikatu du *Jaime Mayor Orejak*, *EAEko PPko buruzagi eta Donostiako alkatezarako hautagaiak*. «Ez dakit zertara datorren konparazio hori», esan zuen Ø Bilbon egindako ekitaldi batean. «Halako jarrerak lor dezaketen gauza bakarra gizartearen desmobilizazioa da» gehitu zuen Ø. Hain zuzen ere, *Mayor Orejaren* iritziz, «bakea lortzeko bide bakarra dago: kontzientziazioa eta herritarren erantzuna».

Adibide hauen haritik honakoa komeni da gogoraraztea: euskaraz ez da beharrezkoa subjektua —edo hobeki esan, mintzagaia— behin eta berriro eta esaldiz esaldi aipatzen ibiltzea; aitzitik, mintzagai-aldaketarik ez dagoen bitartean ohikoenak elipsia egitea da, (45)-ean egin den moduan. Jokaera hori oso nabarmena da Mitxelenaren hurrengo testuetan: (46a)-n «Larramendi» da mintzagaia lehen perpausuan, eta mintzagai horri dagozkion subjektua eta objektua isiltzen dira hurrengo perpausetan; (46b)-n, aldiz, mintzagaia aldatu ahala agertzen dira subjektu desberdinak («Hiribarren / Agirre Asteasukoa / orduko idazleek»).

- (46) a. Dena den, *Larramendik* aldiak eskatzen zuen baino gehiago opa zigun. Ø Estualdian zegoelako, noski, Mayans eta besteen akuiluari nondik itzuriko, baina premia horrek behartu zuen Ø elizako eta eguneroko auzietarik urruntzera. (Mitx.)
- b. Ez dakit zenbat jende baliatu zen *Larramendik* sortutakoez, ikerlana atzera baitabil hemen ere. Nolanahi ere, diodan bidenabar, *Hiribarren*, «Eskaldunac» poeman eta beste zenbait bertso-lanetan, ez zen segiziokoa izan; *Agirre Asteasukoa*, bere betiko neurri jakinean, berriz, bai: (...). *Orduko idazleek*, halaz guztiz, kontuz erabili zituzten hitz asmaberriak, sortzaileen oinatzetan, pozoitsu izan zitezkeelakoan, dirudienez, harraldi larrietan. (Mitx.)

<sup>291</sup> Egunkaria (1995: 18-19).

Horregatik, beheko (47) adibidean, subjektuaren elipsia egin daiteke, bigarren perpausuan ere subjektu bera («ikaslea») dugula adierazteko. Aldiz, (48) bezalako esaldi anbiguo bati errazago emango genioke (48a)-n egiten den irakurketa (*hura* = «zuzendaria»), (48b)-n egiten dena baino (*hura* = «ikaslea»): hots, pentsa daiteke bigarren perpausuko subjektua (*Hura*) agerian jartzeko arrazoia mintzagai-aldaketa izan dela<sup>292</sup>.

- (47) Ikasleetako batek zuzendariarengana jo zuen azterketa berriro zuzentzeko eskatzera, baina Ø [ikaslea] oso urduri jarri zen bulegoko atea itxi orduko.
- (48) a. Ikasleetako batek zuzendariarengana jo zuen azterketa berriro zuzentzeko eskatzera. *Hura* [zuzendaria] urduri jarri zen bulegoko atea itxi orduko.
- b. Ikasleetako batek zuzendariarengana jo zuen azterketa berriro zuzentzeko eskatzera. *Hura* [ikaslea] urduri jarri zen bulegoko atea itxi orduko.

#### 58.10. Kohesio-mekanismoak: erlazio metonimikoak

Zenbaitetan metonimia-tankerako erlazioetara jotzen da ordezkapen semantiko egiteko: a) alboko elementuak ditugunean, haietako bat erabil daiteke alboko elementuari erreferentzia egiteko (*bela* erabili *belaontzia* aipatzeko); b) gorago ikusitako hiperonimo/hiponimoen kasuan erlazioa zatia eta osotasunaren artekoa da (*gizona* erabili *giza espeziea* adierazteko; *Euskadi* erabili *Euskadiko Selekzioa* adierazteko...); c) kausa-ondoriozko erlazioa izan dezakete elementuek (*uzta*-k bildu den fruitu-kopurua adieraz dezake eta ez biltzeko ekintza bakarrik); d) edukitzaile/edukia erlazioa egon daiteke (*kopa* hitzak ontzia ez ezik, edukia ere adieraz dezake: *kopa bat hartu*...).

#### 58.11. Kohesio-mekanismoak: elipsia eta elementu isilak

Elipsia funtsean honetan datza: aurreko testuinguruan —esplizituki nahiz implizituki— aipatu den eta ezaguntzat jotzen den elementua isilduta uztea. Elipsia dugu testuari kohesioa ematen dioten baliabide nagusietariko bat. Dena den, garrantzitsuena halako oreka lortzea da anaforaren, elipsiaren eta errepikapenaren artean.

Gorago aipatu dugun pronominalizazioa ere, nolabaiteko elipsizat jo dezakegu: erakusleak izenordain gisa erabiltzen ditugunean izenaren elipsia egiten dugu (*Bere konturako langileek ere badute sindikatzeo eskubidea. Baina* [langile] hauek ezin dute sindikatu berririk sortu...). Eta errepikapen implizituan ere nolabaiteko elipsia egon daiteke (*Artikulua bi ikertzaileen artean idatzi dute*. [Artikuluaren] Eranskina, *berriz, bietako batek egin du*).

Elipsizat jo daitekeen beste fenomeno bat adjektibazioa da: izena isildu ondoren, izenlaguna (49a, 49b, 49c) nahiz izenondoa (50) gera daitezke agerian.

<sup>292</sup> Garzia (1998).

- (49) a. Legezko xedapenatarik batek behartzen duenean, lan-kontratuak idatziz agertuko dira eta, beti ere honako *kontratu* hauek: *praktikaldikoak* eta *ikastaldietakoak*, *lanaldi partzialekoak*, *nork bere etxean egin beharreko lanei buruzkoak*, *lan eta zerbitzu zehatz bat egitekoak*, *bai eta Espainian kontraturiko langileena* ere, baldin eta atzerrian den espainiar enpresa baten zerbitzupean badaude.
- b. Ondorio horietarako, honako *pertsona* hauek izango dira senide: ezkontidea, *ondorengoak*, *aurrekoak* eta, ezkon edo odol-ahaidetasuna izan dezaketen *gainerakoak*, *bigarren graduakoak* barne eta, hala denean, umeordetzan *hartutakoak* ere bai.
- c. *Lan-kontratu*a denbora mugagabekoa edo iraupen zehatzekoa izan daiteke. *Iraupen zehatzekoak* [lan-kontratuak] honelako guztietan egin ahal izango dira:
- (50) *Eskubideak* ekonomikoak edo sozialak izan daitezke. [Eskubide] *Ekonomikoak* alde batera utziko ditugu oraingoz...

Edozein modutan ere, argi eduki behar da gaztelaniaz zilegi diren elipsi guzti-guztiak ezin ditugula itsu-itsuan imitatu euskarazko itzulpenean. Esate baterako, euskaraz ez dago egiterik erdaraz erraz asko egin ohi den izenki-predikatuen elipsia, *lo* izenordainaren bidez gauzatzen dena: euskaraz *lo* izenordainaren parekorik ez dagoenez, nahitaez utzi beharko dugu agerian izenordain horri dagokion izen-sintagma; *lo* horren tokia hutsik geratuz gero, itzulpen trakets eta ulergaitza da ondorioa (51b).

- (51) a. Los contratos de trabajo pueden ser de duración determinada. No obstante, los de estos trabajadores *no lo son*.
- b. ??Lan-kontratuak iraupen mugatukoak izan daitezke. Hala ere, langile hauenak *ez dira*  $\emptyset$ .
- c. Lan-kontratuak iraupen mugatukoak izan daitezke. Hala ere, langile hauenak *ez dira iraupen mugatuakoak/horrelakoak*...

Bestalde, elipsia gauzatzeko aukera guztiz lotuta dago mintzagai-egiturarekin eta funtzio sintaktikoekin. Izan ere, elementu isilaren erreferentzia aurreko perpau-seko subjektuarekin edo mintzagaiarekin identifikatzeko joera izaten dugu (52a); beraz, erreferentzia-katea bestelakoa izatera, arazoak sortzen zaizkigu elementu isilaren erreferentzia berreskuratzeko (52b).

- (52) a. *Dibertsitatea* komunitateen egiturazko ezaugarri bat da, espezien kopurua, ugaritasun erlatiboa eta lagunen banaketa ematen dituena.  $\emptyset$  Zehazkiago aztertu aurretik, area minimoaz hitz egin behar dugu.
- b. ???Dibertsitatearen kontzeptua aztertu aurretik, *area minimoaz* hitz egin behar dugu.  $\emptyset$  Komunitatea karakterizatzen duten espezie guztiak bere baitan dauzkan hedadura txikiaren lagin-azalera da.

Aurrekariaren eta elementu isilaren arteko distantzia ere erabakigarria izango da askotan: distantzia areagotu ahala, elipsia gauzatzeko zailtasuna ere areagotu egingo da. Beheko (53b) testuko *hauei* ez da erraz deskodifikatzen; arazoa isildutako izena agerian utziz konpontzen da (*interesatu hauei*).

- (53) a. Los *autos* permanecerán en los Juzgados y Salas de lo Social bajo la custodia del Secretario, donde Ø [los autos] podrán ser examinados por los interesados que acrediten interés legítimo, a quienes deberá entregárseles testimonios, certificaciones o copias simples cuando lo soliciten.
- b. *Auzibideak* Gizarteko epaitegietan eta saletan egongo dira idazkariaren zaintzapean; bertan, legebidezko interesa egiaztatzen duten interesatuek aztertu ahal izango dituzte Ø [auzibideak], eta *?hauei* [→ interesatu hauei] lekukotasunak, ziurtagiriak edo aldaki bakunak eman behar izango zaizkie, eurek eskatutakoan.

Elipsiaren barruan sartzen dira egitura distributiboak (*bata ... , bestea ... ; batzuk ... , besteak ... ; batetik... , bestetik...*) eta enumerazio edo sailkapenen ondoren erabili ohi diren zenbatzaileak (*lehena ... , bigarrena;...*). Hona hemen, adibide batzuk:

- (54) Langileak urtean aparteko bi haborokin jasotzeko eskubidea dauka; haborokin bat Gabonetan jasoko du; *bestea*, aldiz, hitzarmen kolektiboan edo enpresaburuarren eta langileen legezko ordezkarien arteko itunean ezar daitezkeen hila batean.
- (55) Orobat, gerta liteke kreditu horien eta langileen esku egon daitezkeen beste kreditu batzuen arteko konkurrentzia egotea, ezen langileen esku dauden kreditu horiek dira Fondoak ordaindu ez dituenak; orduan, *kreditu batzuk* zein *besteak* proportzionalki abonatuak izango dira beraien zenbatekoei dagokienez.
- (56) Askatasun sindikaleko eskubidearen edukiak bi alderdi dauzka, bata indibiduala eta bestea kolektiboa. *Aurrenekoak* besarkatzen du edozein langilek daukan eskubidea, sindikatuak sortzeko, berak aukeratutako batean afiliatzeko, eta batere ez afiliatzeko.
- (57) Enpresaburuek beren jarduerari dagozkion lan edo zerbitzuak burutu ditzakete beste enpresaburu batzuekin batera, beti ere lan edo zerbitzu horien burutzapena kontratatzen edo azpikontratatzan dutenean beste enpresaburu horiekin batera; horrela bada, *aurreneko enpresaburuek* egiaztatu beharko dute ea *beste enpresaburuek* Gizarte Segurantzari dagozkion kuotak ordaindu dituzten ala ez.

Bukatzeko, gogora dezagun euskaraz genero-aurkartzarik ez egoteak zaildu egiten duela elipsi-bidea: gaztelaniaz, genero-komunztadurak direla medio errazago berreskuratzen da elementu isilaren erreferentzia. Horrelakoetan, euskaraz hobe da errepikapena erreferentzia-sare iluna baino.

## 59. EMENDIOZKO LOKAILUAK: *ERE, GAINERA, BESTALDE...*<sup>293</sup>

### 59.1. *Ere (bizkaieraz bere)*<sup>294</sup>

Lokailu hau beti ezkerreko aldean duen osagaiari lotzen zaio, honekin halako batasun bat eginez ([Peru(e)re], [Perube]...). Lokailuaren ezker aldean geratzen dena mintzagaitzat hartzen dugu; eta edozein osagai izan daitezkeenez mintzagai —aditza bera barne—, edozein osagaik eraman ahalko du *ere* bere eskuinetara.

<sup>293</sup> Lokailuei buruzko atal hauetan Euskaltzaindia (1990) laburtu dut.

<sup>294</sup> Gorago (4. atalean) ikus daitezke lokailu honen inguruko xehetasunak: tradizioko erabilerak, erabilera okerrak, etab.

Balioaren aldetik, lokailu honek zabaldu egiten du perpausaren erreferentzia-mundua. *Ere* lokailua ageri zaigun bakoitzean suposizio egin behar dugu, beraz, perpaus horren erreferentzia munduaz; halako balio anaforikoa du, aurreko zerbaitekin duen lotura adierazten baitu:

- (1) (a) Miren eta Koldo afaltzera joan ziren. Peru *ere* haiekin joan zen.  
 (b) Miren eta Koldo ez dira agertu gaur. Peru *ere* ez da agertu.

- (2) (a) Peru *ere* gaur Iruñera joango da  
 (b) Peru gaur *ere* Iruñera joango da  
 (c) Peru gaur Iruñera *ere* joango da

PRESUPOSIZIOA

[«ez Miren... bakarrik...»]

[«ez atzo... bakarrik»]

[«ez Bilbora... bakarrik»]

### 59.2. *Gainera*

FORMA: *gain* izenaz eta *-ra* kasu-markaz osatua dago. Postposizio bezala ere erabiltzen dugu (*Fonetikaz eta fonologiaz gainera*).

BALIOA: emendiozko lokailua izateaz gain («gehitze-zentzua»), *gainera*-k balio argumentatiboa du; hiztunak dioenaren bermagarri erabiltzen dugu aurretik aipatu zerbaiten ondoan:

- (1) Ez du balio orain harengana joan nadin. Akiturik nago eta oso berandu da.  
*Gainera* euria ari du.

TOKIA: gehienetan —aurreko adibidean bezala— perpaus-hasieran doa, baina azkenean edo perpausaren barnean ere bai:

- (2) (a) Zuk merezi baino txikiago izango da gaurko penitentzia; eta neronek la-gunduko dizut, *gainera*.  
 (b) Ez omen dio mutilak nahi lukeen bezala aurpegirik ematen Malentxok; ez omen daki hark, *gainera*, neskatxari non eta nola hitz egin liezaiokeen.

*Eta, baina* juntagailuen ondoan aurki daiteke, bai eta *ere* lokailuaren ondoan ere: *eta gainera, baina (...)* *gainera*, ... *ere (...)* *gainera*. Koma artean idazteko jora dago.

### 59.3. *Bestalde/bertzalde*

FORMA: hitz elkartua da berez (*beste/bertze + alde*), lokailu gisa erabilia (*bestaldetik* forma hartzen du batzuetan).

BALIOA: «lehen esandakoaz gainera, beste hau ere bai» adierazten du (*gainera* lokailuaren balioa).

TOKIA: ia-ia nonahi ager daiteke galdegaiaren ondoan salbu: perpausaren hasieran, amaieran edo mintzagai den edozein osagaiaren ondoren.

- (1) (a) Aita maitea, ez da egun arrain aro. *Bertzalde*, arrain guti da itsaso honetan...  
 (b) Beraz, batentzat on datekeena, galgarri gertatzen da bestearentzat. Bat bera da on eta txar, *bestalde*.  
 (c) Jakin behar da, *bestalde*, hori egia dela.

*Eta, baina* juntagailuekin batera ager daiteke, eta *ere, berriz* lokailuen ondoan. *Eta bestalde* perpaus hasieran doa orduan. Ahozkoan *gainera bestalde* bikotea ere aurkitzen da maiz.

- (2) (a) Eskuaraz mintza, *eta bertzalde* ikas euskara.
- (b) Arrazoi duzu. *Bestaldetik, berriz*, horrek zer edo zer aldatuko duela uste duzu?
- (c) Erakutsi dugu jadanik hori gezurra dela... *Bainan, bestalde*, nongo teologiak digu buruan sarrarazi...
- (d) ... aurkituren zutela han begitarte: segurantza *ere bertzalde* hortz eta hatzaparren kontra.

#### 59.4. *Halaber (orobat, berebat)*

FORMA: *Halaber* batez ere lapurteraz erabili izan da, gaur euskara batura he-datu bada ere. *Hala + ber* (*bera* bezalakoetan ageri den morfema) dateke osaera.

BALIOA: lokailu honek zuzenean eransten dio zerbait alde zurretik esanda-koari. «Gauza bera», «gisa berean», «modu berean» edo horrelako zerbait esan nahi du. Eta askotan *ere* lokailuaz ordezkatu daiteke:

- (1) Zorakeria da bizitza luzea desiratzea; zorakeria da *halaber* etorkizuneko bizi-tzaz ez oroitzea (= «... zorakeria da etorkizuneko bizitzaz ez oroitzea *ere*»)

TOKIA: normalean perpausaren hasieran ezartzen da, baina beste toki batzue-tan ere ager daiteke (perpaus-amaieran, mintzagai hanpatuaren ondoren, aditzaren ondoren...):

- (2) (a) Ezkurretik ezagun da haritz larrainekoa, bere fruiturik sagarra, bai beretik pikoa. *Halaber* da ezagutzen beretik herioa, ezen lastimagarria uzten du hatz ondoa.
- (b) Maite dut zure begitarte, maite zure boz ezta, *halaber* zure irri gozoa, zure izaite guzia.
- (c) Urruñarrak, beranduegi jakinik, ezin etorri dira; eta bertze frango *halaber*.
- (d) Errezibi ezazu, eta bete gaitzazu zure graziez (...) Oroit zaitez *halaber*, Jauna, purgatorioan diren arima gaixoez.

*Bai, ez* partikulekin ageri da, *eta* juntagailuarekin nahiz *ere* lokailuarekin (*bai halaber, ez halaber, eta halaber, baita ... halaber, eta bai halaber, ... ere halaber*). Zenbaitetan konparaziozko perpausetan agertzen da: *nola ... bait- ..., ha-laber ...*

*Halaber*-en parekoak ditugu *berebat* (Hegoaldean, XVIII.etik aurrera) eta *oro-bat* lokailuak. Perpaus-hasieran, nahiz barnean ezar daitezke eta juntagailuekin ba-tera ere bai (*eta berebat, eta ... orobat*).

- (3) (a) Zaharregia naiz agian, eta gazteegia *orobat*, etendura horren ondorioak epaitzeko.
- (b) Zerura igaten banaiz, zu han zara; infernura jausten banaiz, *orobat* han zara.
- (c) Oroit zaitez *berebat*, Jauna, hil ziren beste kristau zintzo guztiez.

### 59.5. *Behintzat* (mendebaldekoa) / *segurik* (ekialdekoa)

FORMA: *behin* adizlagunak eta *-tzat* kasu-markak osatua dago. Zenbait euskalkitan *behin* forma ere erabiltzen da.

- (1) Honek *behin*, ez dio berriz ere sartuko eskua zakurrari letaginetan

BALIOA: *ere*-k bezala, erreferentzia-mundua zabaltzen du, nahiz ñabardura desberdina eman. Esan denari buruz nolabaiteko muga jartzeko erabiltzen dugu *behintzat*, horri kontrajartzen zaion informazioa isiltzen dugula adieraziz edo:

- (2) (a) Koldo eta Jone *behintzat* etorriko dira.  
(b) Koldo eta Jone *segurik* etorriko dira.

Esanahiaren aldetik *bederen*, *behinik behin*, *segurik* edo *bederik* lokailuen baliokide da gehienetan (baina ez beti, harridurazko esaldi-mota batzuetan *behintzat* baita aukera bakarra). *Gutxienez* lokailua ere sail berekoa da, baina batez ere zenbatasuna adierazten duten sintagmetara mugaturik ageri da literaturan.

- (3) Gurutzean josirik zegoela ere, hiru hitz *gutxienez* otoitzezkoak izan ziren.

Askotan *bai* eta *ez* partikulak azaltzen dira lokailu honen arrimuan:

- (4) (a) Gizon guztiak, Kain bezala, izandu ziren gaiztoak? Gehienak *behintzat bai*.  
(b) Egun denetan daude sarturik elizan, abadeen aurrean santu baten gisan; gero ikusi behar zer moduz dabilzan. Zintzo asko orain arte *behintzat ez* da izan.

Lokailuaren ezkerreko osagaia mintzagaia izaten da:

- (5) Rahab emakume galduaren izenekoa zen: hala ere, edo bere bizitza gaiztoa utzita zeukalako, edo Jainkoak ordu hartan bihotzean ukitu ziolako, Israeldarrei *behintzat*, txit harrera ona egin zien.

Sarritan zenbatasuna adierazteko erabiltzen diren aditzondo eta zenbatzaileekin agertzen da: *asko behintzat*, *gehienez behintzat*, *askotan behintzat*...

Lokailu honen erabilerak zerikusi handia du hiztunaren eta entzulearen presuposizioekin:

- (6) (a) Aprobatu bat *behintzat* aterako du  
(b) ?? Matrikula *behintzat* aterako du  
(c) ?? Everest *behintzat* igoko du

*Behintzat* lokailuak baditu beste bi erabilera, non *segurik* ez litzatekeen posible: harridurazko zenbait perpausetan (7a) eta «lehenik», «hasteko» edo horrelako zenbait adiera duenean (7b).

- (7) a. Zu zara ene odola eta ene gauza guztien gainetiko gauza. O odol estimagarria *behintzat*! [=bai noski, bai horixe, bai eiki, bai segurki]  
b. Horra hemen zelan munduko gauzarik baliotsuenak zor zaizkien aberetxo batzuei. *Bai behintzat*. Nork esango luke erregeen eta erreginen apaindu-riak hauei zor zaizkiela?

TOKIA: normalena perpaus barnean, mintzagaiaren ondotik aurkitzea da, baina hasieran edo amaieran ere ager daiteke:

- (8a) Salatu *behintzat*, salatu zituen
- (8b) Etxerako zerbait inguratu behar. Eta onik gizona eta semea? Oheak hozten ditugu, *behintzat*.
- (8c) Gaisoren bat zeharo gaizkitu zaio eta. Azpiletako gizona. *Behintzat*, ez zigula hitz egin nahi bazirudien. Lehenago ez zen honelakoa.

Hasieran ageri denean, «hasteko», «lehenbizikorik» esanahia har dezake (eta zentzu honekin *behin bederen* eta *behinik behin* ere erabili izan dira):

- (9) Jorrateak bi on dakartzke. *Behintzat*, hiltzen ditu belar gaiztoak... eta horregatik premia dira jorrateak, bereziki belar txarrak hazten ari direnean edo aintzintzean.

*Edo* juntagailuarekin ere agertzen da noizean behin:

- (10) Bost minutu ibiltzeko, gutxienez ordu erdi behar zuen orratz handiak. *Edo behintzat* hau da Patxiri iruditzen zitzaiona.

Lokailu hau aurreko sintagmari loturik ahoskatzen dugu, etenik egin gabe gehienetan. Hori dela eta, normalean ez darama komarik aurreko aldetik (nahiz adibide komadunak ere arruntak izan literaturan).

Laburtuz, hona lokailu honen distribuzioa:

- 1. *behintzat, bederen, behinik behin, gutxienez* (zenbatasuna), *segurik*.
- 2. *behintzat* (harridura): *segurki, jakina, noski*.
- 3. *behintzat: hasteko, lehenbizikorik, behin bederen, behinik behin*.
- 4. *bederen*: kontzesio-kutsua.

### 59.6. *Bederen, bederik, behinik behin*

Formaz ez, baina esanahiaz (gehienetan) ikusi dugun *behintzat* lokailuaren pareko dituzkegu hiru lokailu hauek. Erabilera arruntenetan *behintzat* trukagarriak dira (perpaus-hasieran, amaieran eta barnean ageri dira eta hurrengo partikulekin ere bai: *bederen bai, bederen ez, edo bederen*):

- (1) (a) Horkoak *behintzat/bederen/behinik behin* etorriko dira.
- (b) Pedrok erantzun zion: Jauna, beste guztiak zugandik gaitzerako bidea hartuko balute ere, nik *behinik behin* ez zaitut utziko.
- (c) Denborak denak kontsolatzen ditu! *Bederen* zurekin Europarat eraman nazazu...
- (d) Beranduegi heldu zara; Marianne gaixoa Jainkoa baitan pausatu da! -Alo! Aldi honetan *bederen* ez dut galduko ene Paberako bidaia!

Nolanahi ere, *bederen* lokailuak badu besteek nekez eskura dezaketen kontzesio-kutsua:

- (2a) Helduko da, zeharka *bederen* (= «zeharka bada ere»)
- (2b) Otxoa de Arin, esate baterako, ez da berebizikoa, baina nolabait ere, Bizkai kutsuari eskerrak agian, moldatzen da, trakeski *bederen* (=«trakeski bada ere»)



### 59.7. *Badere*

«Bada+ere» itzulitik datorrenez, kontzesio-kutsua du (askotan *bada ere*-ren laburdura hutsa da eta mendeko perpausak sortzen ditu):

Aditz arrunta (lokailua izatera iritsi gabe)

- (1) Naduka ni, hotz *badere*, errerik bihotzean (= «hotz bada ere»).

Zenbaitetan ez da adizki bat, iharturik geratu den zerbaiz baizik:

- (2) Bi-hiru urte da pasatuxea zintzotu zela gizona, nekez *bada're* sinestu zuen emaztearen esana... (= «nekez bazen ere»)

Askotan adizkitasuna galdu eta lokailu bihurtzen da:

- (3) Beragatik asmo onekin egunean orritxo bat *badere* irakurri behar duzu.

### 60. LOKAILU HAUTAKARIAK: *BESTELA*, *OSTERANTZEAN*, *GAINERAKOAN*...<sup>295</sup>

Lokailu hauek direla medio hiztunak hautaketa bat adierazten du. Balioari dagokionez, beraz, *edo* eta *ala* juntagailu hautakarien parekoak ditugu.

- (1) (a) Edan ura *edo* egarriak geldituko zara.  
(b) Edan ura, *bestela* egarriak geldituko zara.

#### 60.1. *Bestela* / *bertzenaz* (*bestenaz*)

FORMA: jatorriz modu-aditzondoa da eta askotan hala erabiltzen dugu («Honela ez, *bestela* egin behar da»). *Bertzenaz*, aldiz, lokailu besterik ezin da izan.

BALIOA: bi balio har ditzakete lokailuok:

a) Gehienetan aurreko perpausaren aditzari dagokion balizko esanahia dute, baldintza-kutsua.

- (1) (a) Eguzkia bada, hondartzara goaz. *Bestela*, etxean geldituko gara.  
(b) Ezin bizi izango naiz aitarenean. -Non bada, *bestela*?

b) Bigarren balioan (murriztailea), «gainontzean», «hori bazter utziz» eta antzeko esapideen baliokide gertatzen da:

- (2a) Los Angeles hiri zabala eta hedatua da. Gainera errepideek gain behera gurutzatzen dute. *Bestela*, ez dago gaizki.  
(2b) Noiznahi hamabost bat egun edo hilabate egingo ditu han elurrak, eta kezka ematekoa da. Baina, *bestela*, nik uste baino herri politagoa.

TOKIA: hasieran, barnean nahiz perpaus-amaieran agertzen da (ikus aurreko adibideak).

---

<sup>295</sup> Lokailuei buruzko atal hauetan Euskaltzaindia (1990) laburtu dut.

*Eta* juntagailuarekin (*eta bestela*) adiera bietan agertzen da. *Baina* juntagailuarekin (*baina bestela*) bigarren balioan bakarrik. *Eta* askotan *edoledota* juntagailuekin (*edo bestela, edota bestela*) eta beste lokailuekin (*bada bestela, ezi bestela, bestela ere*) ikusiko dugu.

## 60.2. *Osterantzean*

*Bestela* lokailuaren kidea, bizkaierazkoa batik bat. Formaren aldetik: «oste+-rantz+-(e)an». *Bestela*-ren bi balioak (a. baldintza; b. murriztailea) ditu:

- (1) a. Agudo ibili behar dugu, *osterantzean*, haurra ere galdu egingo da.
- b. Oso lanpetuta gabiltza. *Osterantzean*, ezin kexatu.

Perpauk-hasieran agertzeko joera du (sarritan beste hitz batzuekin batera: *baina osterantzean, osterantzean berriz*).

## 60.3. *Gainerontzean (gainontzean); gainerakoan...*

Erdialdeko euskalkietan erabiltzen da forma hau *eta bestela* eta *osterantzean* lokailuen bi balioak ditu: baldintza (1a) eta balio murriztailea (1b):

- (1a) Obligazio askoren mende bizi gara gurasoak, guk hazi behar haur gaixoak, erakutsiaz nola diren Jesukristoren pausoak, *gainerontzean* guretzat datoz kastigu izugarriak.
- (1b) Lagun bezala ona bazen, etsai bezala beldur izatekoa zenuten; *gainerontzean*, mesede egiteko eta laguntzeko beti prest zegoen.

Itxuraz oso antzekoak diren *gainerakoan, gaineratikoan*, edo *gainerakoz* lokailuek, berriz, balio murriztailea baizik ez dute:

- (2) Etxe zaharra da; baina, *gainerakoan*, oso ondo dago.

Joera nabarmena du hasieran agertzeko, baina bestelako kokalekuak ere aurkitzen dira. Juntagailuekin ere erabiltzen da (*baina gainerontzean, eta gainerakoan*) eta batzuetan *ere* lokailuarekin ere bai (*gainerakoan ere*).

Ez dira nahastu behar *gainera* eta *gainerontzean*: lehena emendiozkoa da (argumentu bat gehiago eransteko balio du); bigarrenak (hautakariak) balio murriztailea du.

- (3) (a) Bilbo hiri zikina da; *gainerontzean*, oso atsegina
- (b) ?? Bilbo hiri zikina da; *gainera*, oso atsegina
- (c) Bilbo hiri zikina da; *gainera*, oso zaratasua

## 60.4. *Ezpere(n)*

Lokailu zaharkitu honek hiru balio har ditzake: *bestela*-ren lehen balioa (baldintza-kutsukoa); balio murriztailea («bederen», «behintzat»); *edo* juntagailu hautakariaren balioa. Perpauk-hasierari, aditzaren ondoren eta juntagailuen ondoan (*edo ezpere(n)*) ageri da gehienetan.

## 60.5. *Ezprobere*

Bizkaieraz erabiltzen da eta *bestela*-ren lehen adieran («baldintza»); perpaus-hasieran kokatzeko joera du, gune hori ezinbestekoa ez bada ere (juntagailuekin sarritan: *edo ezprobere, eta ezprobere*):

- (1a) Hobe idatzita eramatea; *ezprobere*, ahaztu egingo zaizu.
- (1b) Zer egin behar du deungaro ezkontuta dagoenak? Bilatu defentsore jakituria handiko bat, eta egin honek esango diona. *Ezprobere* beti biziko da bekatuan.

## 61. AURKARITZAKO LOKAILUAK: *ORDEA, BERRIZ, OSTERA, ALDIZ, AITZITIK...*<sup>296</sup>

Bi perpausen artean gerta daitekeen kontraktasuna edo aurkaritza aditzera emateko erabiltzen dira. Alde honetatik *baina* juntagailuaren pareko dira. Koma artean idazten dira sarri.

### 61.1. *Ordea*

FORMA: *ordea* (*ordean* batez ere lapurteraz); *orde* izenaz eta artikulua osatua dago.

BALIOA: bi perpausen arteko kontraktasuna adierazten du eta *baina* juntagailuaren baliokide hurbila da:

- (1) (a) Ni zurekin joango naiz, aita *ordea* etxean geldituko da.
- (b) Ni zurekin joango naiz, *baina* aita etxean geldituko da.

TOKIA: normalean bigarren perpausoko osagai baten ondoan kokatzen da, osagai hori hanpatua geldituz eta aurreko perpausoko beste osagai bati kontrajarri. Dena den, askatasun handia du perpausaren barnean kokatzeko:

- (2) (a) Bonboiak ekarri dizkigu, guk *ordea* nahiago genuen perfume on bat.
- (b) Bonboiak ekarri dizkigu, guk nahiago genuen, *ordea*, perfume on bat.
- (c) Bonboiak ekarri dizkigu, guk nahiago genuen perfume on bat, *ordea*.

Aurreko osagaia mintzagai gisa hanpatua geratzen da sarritan, *baina* ez beti:

- (3) Haiek ez zuten; guk, *bai, ordea*, bi mutilen ezagutza.

Galdegaiaren eta aditzaren artean kokatzen ez bada ere, galde-hitzen ondoren ager daiteke:

- (4) ...ikusten zuen han egoterik ez zeukala. Nola, *ordea*, irten?

---

<sup>296</sup> Lokailuei buruzko atal hauetan Euskaltzaindia (1990) laburtu dut.

Perpaus-hasieran —toki ezohikoa— erabiltzen denean, badirudi gesalduta geratzen dela kontrakotasun-balioa:

(5) Ken ditzadala zugandik nire begiak? *Ordea*, noratuko ditut?

Euskalki batzuetan bukaeran erabiltzen da sarri; eta orduan osagaien artean barik perpaus bien artean gertatzen bide da aurkakotasuna:

(6) Hiru bider jo nuen txirrina. Ez zidan inork ere erantzun *ordea*.

Harridurazko perpausetan bukaeran jartzen da sarritan:

(7) Zer oinaze *ordea*!

Maiz, *baina* juntagailuarekin batera erabiltzen da:

(8) *Baina* nondik atera dituzue, *ordea*, berri hauek?

## 61.2. *Berriz*

FORMA: aditzondoa da jatorriz (*berri* + -z) eta sarritan erabiltzen da balio horrekin.

ESANAHIA: aurkaritza adierazi arren, badirudi ez dagoela erabateko kidetasunik *berriz* eta *ordea*-ren artean. *Ordea*-k nolabait aurreko perpausak baieztatua ezabatu edo ukatu egiten du; *berriz*, aldiz, aurretik esandakoari zerbait berri eta diferente eranstea erabiltzen da. Alderatu ondoko bi perpausak:

- (1) a. Goizean paseatzera irten naiz. Arratsaldean, *berriz*, lanean geratu naiz.
- b. Goizean paseatzera irten naiz. Arratsaldean, *ordea*, lanean geratu naiz.

Lehen perpausean, goizekoaren eta arratsaldekoaren arteko aldea ematen da aditzera. Bigarren perpausoko aurkaritza, *berriz*, beste nonbait dago: hor solaskideak uste izan dezakeen zerbait ukatzen dela dirudi. Horregatik ondoko adibidean *ordea* erabil daiteke, baina ez *berriz* (ik. 64. atala):

- (2) (a) Natura asko maite dugu. Ez gara, *ordea* (\**berriz*...), mendira joaten.
- (b) Joango nintzateke; amak, *ordea* (\**berriz*), ez dit uzten.
- (c) Laguntza eskatu diot; ukatu egin dit *ordea* (\**berriz*).

*Ordea*-k kontrakotasuna adierazten du eta horretan *baina*-ren baliokide hurbila da. *Berriz* ez da hain markatua: kontrakotasuna nahiz kontraste soila seinatzeko erabiltzen da eta azken kasu honetan ez da *baina*-ren guztiz parekoa.

TOKIA: normalean bigarren perpausoko osagaien baten ondoren kokatzen da, osagai hori nabarmenduz. Lokailu honen zeregina mintzagai berria (lokailuaren ezker aldeko osagaia) markatzea da (3a); dena dela, batzuetan ezkerreko osagai hori luzeagoa izan daiteke (aditza barne) eta orduan lokailuaren eskuinekoa izan daiteke mintzagai («apustuaren jaso» beheko «3b» adibidean):

- (3) a. Begira zein gizen eta mamitsua nagoen. Hi, *berriz*, zatar hori, burutik oinetara hago, edo hautsez josia, edo basatua.  
 a'. Gaizki hitz egin badut, erakutsi iezadazu zertan huts egin dudan; zuzen hitz egin badut, *berriz*, zergatik jotzen nauzu? [baldintzazko perpausa mintzagai]  
 b. Ehun laurleko bota zituen han bertan, egindako erronkaren eusbide. Mila ogerlekoa izan zen, *berriz*, apustuaren jaso.  
 (= ... Apustuaren jaso, *berriz*, mila ogerlekoa izan zen)

Dena den, lokailua ez da agertzen galdegai den sintagmaren eta aditzaren artean:

- (4) (a) Aitak amari gona ekarri dio. Ilobak, *berriz*, osabari txapela  
 (b) ... Ilobak osabari, *berriz*, txapela  
 (c) ... Ilobak osabari txapela ekarri dio *berriz*  
 (d) ...\*Ilobak osabari txapela, *berriz*, ekarri dio

Galde-hitzak, ostera, ager daitezke lokailuaren ezkerretara:

- (5) Inora ez darama adimenduak, bere ezina adieraztera baizik. Nora, *berriz*, sentimenduak?  
 [=Nora darama, *berriz*, sentimenduak? = Sentimenduak, *berriz*, nora darama?]

Juntagailu eta lokailuekin batera agertzen da inoiz (*eta berriz*, *gainera berriz*, *bestaldetik berriz*).

### 61.3. *Ostera*

FORMA: aditzondoa da berez («berriro») eta lokailu gisa mendebaldeko euskalkietakoa da, bizkaierazkoa bereziki. *Berriz*, *aldiz* eta horrelakoen baliokidea da.

TOKIA: *berriz*, *aldiz*... eta horrelakoak bezala, normalean bigarren perpausoko osagai baten ondoan kokaturik ageri da, osagai hori aurreko perpausoko beste bati kontrajarriz:

- (1) Oraindino, hi bizi haiz; ni, *ostera*, aspaldizkero hil nindunan.

Perpaus osoa kontrajarriz (a), osagai luzeago baten ondoren (b), perpaus-hasieran (c) eta amaieran (d) ere (harridurazkoetan) erabiltzen da:

- (2) a. -Eta min handiak al ditu? -Minik? Esatekorik ez dauka eduki. Oso nekatuta dago, *ostera*; jausia, makal...  
 b. Bildots eder bat erosi zion. Zerekin ordaindu, *ostera*, txikirik ez zeukan eta?  
 c. Ikusirik guztiak direla modu batekoak, doa galdu barik zeukan lotsa, eta doa gutxitu barik beldurra. *Ostera*, bihurtzen bada eurakana galtzen du lehen geratu zitzaion lotsa eta beldur puska...  
 d. Markolbek arto eta ogi guztiak eskuratuta, osinera bota zizkion. Hau baka-rik balitz *ostera*!

### 61.4. *Aldiz*

FORMA: aditzondoa jatorriz. Lokailu bezala ekialdeko euskalkietakoa da.  
 ESANAHIA: kontrakotasuna edo kontrastea.

TOKIA: normalean bigarren perpauseko osagairen baten ondoan, osagai hori aurreko perpauseko beste bati kontrajarriz (a). Baina perpausaren osagai handiago baten ondoren (b) eta inoiz hasieran (c) ere ager daiteke (*eta* juntagailuarekin ere bai: *eta aldiz*).

- (1) a. Lehenago hi baihintzen lengoaietan azkena, orain, *aldiz*, izanen haiz orotako lehena.
- a'. Esatea erraza da; egitea, *aldiz*, askoz ere zailagoa.
- b. Mintzo zara, zu, zure pentsuen arabera; ni mintzo naiz, *aldiz*, dudan ezin emanezko lekukotasunez seguratuak diren gauzen gainean finkatzen naizelarik.
- c. ... ene hutsak ene gain hartzen ditut nik; *aldiz*, ama, zuri bihurtzen dizut, ni baitan bada deus onik.

### 61.5. *Aitzitik*

FORMA: formaz aditzondoa bada ere, lokailu gisa erabiltzen da batez ere. *Berriz*, *ostera*, *aldiz* eta horrelakoen kidea da, baina badu berezitasun bat: sarritan lehenbiziko perpausa ezezka doa eta *aitzitik* bigarren perpausaren hasieran kokatzen da, honela bi perpausen arteko kontrakotasuna markatuz (horretan *baizik* (*eta*) juntagailuaren ordain egokia izan daiteke).

- (1) (a) Eta ez gaitzazula utz tentazioan erortzera, *aitzitik* libra gaitzazu gaitzetik.
- (b) Ez gaitzazu tentaldira eraman, *baizik* libra gaitzazu gaitzetik.

Sarritan lokailu honen ondoren eten bat (idatzian koma) gertatzen da.

- (2) Ez gogor egin gaiztoari. *Aitzitik*, inork eskuineko masailean jotzen bazaitu, bestea ere eskain iezaiozu.

TOKIA: ohikoena bigarren perpausaren hasierakoa den arren, tartekatua ere joan daiteke inoiz, aurreko osagaia hanpatuz edo (orduan *aldiz*, *berriz*, *ostera* lokailuen pareko da).

*Baina* eta *aitzitik* parekoak dira esanahiaren aldetik. Hala ere, zenbaitetan elkarren ondoan ageri dira (*baina...aitzitik*); batzuetan juntagailuekin aurkituko dugu (*baina ... aitzitik*, *eta aitzitik*).

### 61.6. *Bizkitartean*, *bitartean*, *bien bitartean*, *artean*

FORMA: adverbio-esapideak dira berez eta oso zaila da noiz diren adverbio eta noiz lokailu (*alabaina*-ren pare) bereiztea.

*Bizkitartean* ekialdekoa da eta maiz bigarren perpausaren hasieran agertzen da (barnean ere ager daiteke):

- (1) (a) Iduri zuen bortxazkoa; *bizkitartean* borondatezkoa gertatu zen.
- (b) Ez da zeren deus handirik erran halakoei. *Bizkitartean* badira egia entzun dutenak leize itsuenen erdian.
- (c) Ezin sinetsizkoa da, *eta bizkitartean* egia.
- (d) Aita Jainko da, semea Jainko, Izpiritu Saindua Jainko; *eta bizkitartean* ez dira hiru Jainko; bainan Jainko bat.

*Bitartean* aditzondo gisa erabiltzen da gehienetan. Hala ere, zenbaitetan aurkaritza-lokailu gisa ere erabiltzen da (inoiz juntagailuekin: *baina bitartean, eta bitartean*):

- (2a) Farisauak (...) beren baratzetako belarkien hamarrenak ere ematen zituzten. *Baina bitartean*, horiek baino beharragoko gauzaz, zuzentasuna eta Jainkoaganako maitasunaz ez zuten axolarik.
- (2b) Asko egoten dira (...) herriko gizonik sendoenak noiz itoko ote zaizkien beldurrez eta ikaraz; eta eurak, *bitartean*, adiskideei edo ezezagun batzuei laguntasuna ematen dabiltzan heroiak (...) agertzen dira...

*Bien bitartean, (t)arte horretan, artean*, berez aditzondo dira eta hala erabiltzen dira gehienetan. Hemen aurrekoetan baino zailagoa da balio biak bereiztea:

- (3a) Eginak egin eta etxera bakean, ondo bildu behar dugu aurtengo urtean, eta denbora badoa *bien bitartean*.
- (3b) Kaleetan ere ikusten dira palmerak tarteka. Etxeak, behea eta bizitza bakarra, nahiko itsusiak. *Artean*, kanpotarrentzat zerikusia badaukate.

#### 61.7. *Alta, alabaina, alabadere*

Aurkaritza-balioaz gain, balio esplikatiboa ere badute hirurek eta batez ere ekialdeko euskalkietan erabiltzen dira, *alabaina* mendebaldean ere ezaguna den arren.

##### *Alta*

Bi balio ditu:

a) gehienetan aurkaritza adierazten du (*alta bada*):

- (1) (a) Joan zen beraz... eta ez zuten hil. *Alta* egia ederrik entzun zuten.
- (b) Edariez ez dut oraino deus erranik, / *Alta* sei, zazpi trago baditut edanik!
- (c) Bertze solasik nuen *alta* egungotzat gogoan.

Bigarren perpausaren hasieran azaltzen da gehienetan; baina perpausaren barnean ere ager daiteke. Aurkaritza-lokaiku gehienak ez bezala, badirudi ez dela juntagailuekin erabiltzen (*\*eta alta, \*baina alta*).

b) Zenbaitetan (askoz bakanago) bigarren perpausak aurrekoari nolabaiteko azalpena ematen diola adierazteko balio du. *Izan ere, bada* lokailuen kide da orduan.

- (2) Beraz, ez naiz gure arrazan ni lehena bertsotarako gogoia izan dudana. Aita zena ere, *alta*, kantari gaitza genuen.

##### *Alabaina*

Honek ere balio bikoitza du, ez ordea guztiz berdin euskararen eremu osoan. Aurkaritza-lokailu gisa Iparraldeko testu zaharragoetan ageri da batez ere; balio esplikatiboan, berriz, geroago ageri da Hegoaldeko testuetan eta Iparraldeko ba-

tzuetan. Egungo erabileran, berriz, alderantzizko banaketa dago nonbait: Iparraldean balio esplikatioarekin eta Hegoaldean aurkaritza-balioarekin. Gehienetan hasieran joaten da.

a) Aurkaritza-balioa (*bizkitartean* eta horrelakoen pareko):

(3) O zein labur, zein gezurrezko, zein desordenatu eta itsusi diren plazer guztiak!  
*Alabaina* gizonak haietaz horditurik eta itsuturik, ez dute hori ezagutzen.

b) Balio esplikatiboa:

(4) Erretore joateko adinean Biriaturat joan zen alegerarik. Biriatu bere aitzineko herria zuen, *alabaina*.

### ***Alabadere***

Aurreko biak baino askoz ere maiztasun urriagokoa da eta bi balioak ditu (a. aurkaritza; b. esplikatiboa):

(5) a. Aspaldikoa da errana, esperantzen erregea hil zela ospitalean eta ausardia zela astoen bertutea. *Alabadere* biak ez dituenak munduan du bide labur eginen.

b. Heldu da ordua, eta orain da, non egiazko adoratzaileek izpirituz eta zintasunean baitute adoraturen Aita; *alabadere* Aitak holako adoratzaileak ditu galdatzen.

### **61.8. *Dena dela* (orokorra), *dena den* (ekialdekoa)**

FORMA: *den* (erlatiboa)+-a; *da+-ela/-en*. Esapidearen berezko balioa «edo-zein delarik ere» da, baina lokailu-funtzioan lehen atalak (*dena*) «aurretik esandako guztia» adiera hartzen du eta lokailu osoak aurkaritza-esanahia du (batzuetan juntagailuekin: *eta dena dela, baina dena dela, baina dena den...*).

(1) Nik orain ez dut gomuta zer eduki zuen. *Dena dela*, egunik egunera txartoago zihuan.

TOKIA: normalena bigarren perpausaren hasierakoa da, baina ez du debekurik tartekatuta edo amaieran agertzeko.

(2) Gauza berbera bidaltzerik ez denean, haren argazki edo erretratatu bat. Egin-beharra bete ondoren itzuliko zaizue, *dena dela*.

### **61.9. *Hala ere, hala eta guztiz ere***

FORMA: aldaera ugari ageri da literaturan: *alan* (*da/eta*) *guzti(z)* (*be*) [bizkaieraz], *halarik ere* [Iparraldean], *alare*, *halaz guzti(a)z ere*, *halaz ere...* [gipuzkeraz]. ***Hala ere*** eta ***halere*** dira hedatuenak, euskararen eremu osoan erabiltzen direnak.

BALIOA: aurkaritza-balioa dute; perpaus kontzesiboaren pareko direla esan daiteke. *Dena dela*-k bezala aurreko perpaus osoari egiten diote erreferentzia eta harekiko aurkaritza adierazten dute:



- (1) (a) Aberatsa da eta, *hala ere*, pobre bizi da.
- (b) Biak ziren euskaldun zintzoak ustean, / *halere* ezin adi elkarren artean.
- (c) Abadegai bietarik batak esan zuen, *hala ere*, Euskal Herrian baino santu gehiago zeukatela erdal herrian.
- (d) Ekin nion nik ere, baino atzeko alde eman eta han utzi ninduen... Erregearen anaiak sinestu *hala ere*, nik hutsegini niola: hau nahigabea!
- (e) Urrea urre da beti, baina *hala eta guztiz ere* leundu beharrak izaten ditu urreak berak.
- (f) Indar guziak eskuetan izaki, eta *halere* jendearen beldur!

TOKIA: maizenik bigarren perpausaren hasieran (batzuetan juntagailuaren ondoan) ageri dira. Bestelako tokietan ere erabil daitezke: *halere* bai perpaus-barruan bai amaieran ager daiteke; *halarik ere* erraz agertzen da barnean, ez hain erraz bukaeran; *hala eta guztiz ere* eta *halaz guztiaz ere* multzokoak, berriz, perpaus-hasieran agertzen dira ia beti.

*Eta, baina* juntagailuekin agertzen dira maiz.

*Halere* lokailua *gainera, eskerrak, behintzat* eta horrelakoen pareko izan daiteke inoiz, perpausari harridura-kutsua emanez:

- (2) Hartuko gaituzu? -Bai eta pozik *hala ere*.

Batzuetan mendeko kontzesiboari darraion perpaus nagusian txertatzen dira *halere* eta *halarik ere* lokailuak, hari indar handiagoa emateko edo:

- (3) Nahiz adin handia zuen, *halarik ere*, jarraiki zitzaion lasterka.

#### 61.10. *Haatik/hargatik, horratik/horregatik*

FORMA: *-gatik* kasua [«kausa»] duten erakusleak dira eta hala erabiltzen dira sarri. Aurkaritza-lokailu ere izan daitezke, ordea.

BALIOA: Lokailu direnean *hala ere*-ren pareko dira. *Baina* eta *ordea*-ren laguntza hartzen dute sarritan, bai eta *ere*-rena ere:

- (1a) Aita galdu genuen arte (...) artzantza izan zen ene lan nagusia, handik goiti, *hargatik*, denetarik zerbait egin behartu zitzaidan.
- (1b) Zure berriek zinez poztu naute, zerbait dago, *horregatik*, zure eskutitzean poz-pozik irakurri ez dudana: Leonez diozuna.
- (1c) Falta duenak ere ukan dezake, eta eman ez duela faltarik, *baina hargatik*, barren hartan, beti ere kontzientzia bere egian egonen da.

Ezezko perpausetan ez da erraza jakiten lokailu ala erakusle den:

- (2) (a) Kristo zeruan atsedeten badago ere, *ez da horregatik* behin ere guzaz ahazten.
- (b) Lo egin nahi zuen. *Ez hargatik* ohean, haren aldamenen. (lokailua)

*Haatik* eta *horratik* beti dira lokailu; aurrekoak baino berriagoak. *Haatik* ekialdekoa eta *horratik* (*horrega(i)ti(n)o*, *horrati(n)o*) bizkaieraz) mendebaldekoa. Aurkaritza adierazten dute biek («hala ere»).

- (3) (a) Bazekien botila barne hartan zela eta *haatik* ez zuen edireiten.
- (b) Lastoa badugu ugari; galburuak, *horratio*, arintxoegi.

TOKIA: ez dute leku jakin eta finkorik; bigarren perpausaren hasieran eta barnean erraz sartzen dira, azkenean nekezago.

- (4) (a) Jainkoa leku guztietan, eta nonahi dago, *horregatik* ere «zeruetan zaude-na» esaten diogu.  
(b) Guti balio luke *hargatik* urreak, ez balu bertuterik dirudun jendeak.

*Ere* lokailuarekin (*horratik ere...*) eta juntagailuekin ere erabiltzen da (*eta horregatik, baina horratino*). Harridura-perpausetan erabiltzen dira maiz enfasia emateko:

- (5) Ez duzu lan makala hartu *horratino!*

### 61.11. **Barren**

*Ba(da) arren* esapidearen laburdura izan liteke. Bigarren perpausaren azken muturrean kokatzen da beti, alde zuzenetik adierazitako zerbaiti erantzunez, eta bukaerako *baina*-ren ordezkia dela dirudi:

-Isil zaitez, mesedez! -Isilik nago, *barren!* (= Isilik nago, *baina!*)

### 61.12. **Aurkaritza adierazten duten esapideak: zernahi gisaz, nolnani ere...**

Beste lokuzio edo esapide-mordoa dago aurkaritza adierazteko: *zernahi gisaz, nolnani ere, edozelan bere, edozein modutan ere, edozein moduz, guztiarekin ere...* Horiek ere lokailuen pareko dira, berez adberbio-esapideak badira ere.

## 62. ONDORIOZKO LOKAILUAK: *BERAZ, BADA, HORTAZ, ORDUAN, HONENBESTEZ...*<sup>297</sup>

Esatera doana ordura arte esandakoaren ondorioztat hartzen duela adierazten du hiztunak sail honetako lokailuen bidez.

### • **Beraz eta bada kide**

Bi hauek ditugu erabilienak ondoriozko lokailuen sailean. Zenbaitetan baliokide gertatzen dira:

- (1) (a) Hil da, *beraz/bada* ez du gehiago sufrutuko.  
(b) Etxeari kea dario, *beraz/bada* erretzen ari da.  
(c) Ea *beraz!*/Ea *bada!*  
(d) Ekin, *beraz*: lur gizena baldin bada... / Ekin, *bada*, ekin, Aita nirea. euskarari...  
(e) Hona, *bada*, ha Jesus ona, zure miseriakorian.../Horra, *beraz*, arima madarikatua...  
(f) Esaidazu *beraz* zer duzun egunaz irabazten?/Esaidazu *bada*, Jainkoaren garaziaren erdiesteko...

<sup>297</sup> Lokailuei buruzko atal hauetan Euskaltzaindia (1990) laburtu dut.

• **Beraz eta bada kide ez**

Beste batzuetan, ordea, garbi ikusten da ez direla baliokide:

- (2) a. Zergatik huts egin duzu *bada* trenan?  
b. Zergatik huts egin duzu *beraz* trenan?

Emandako arrazoiarekin konforme geratu ez denak (a) esango dio solaskidea-ri; emandako arrazoiarekin ados badago, berriz, (b). Bi lokailuen arteko diferentzia oso mehea bada ere, badirudi oro har *bada* ezadostasuna eta *beraz* adostasuna seinatzeko erabiltzen direla.

62.1. **Beraz**

FORMA: «bera (erakusle indartua) + -z».

BALIOA: *beraz* erabili ohi da ondorioa ia garbiro eta osoro aurreko perpausan esana dagoenean eta deus berririk handik atera ez baina ia gauza bera beste hitz batzuekin esaten denean. Adibidez,

- (1) (a) -Lau senide hil eta hamar bizi gara *-Beraz*, hamalau izan zarete.  
(b) -Hamarretan hil zen eta ni hamabietan iritsi nintzen *-Beraz*, ez zenuen bizirik ikusi.

Gehienetan dedukzio bat adierazten du eta horregatik silogismo direlakoetan ondorioa *beraz*-en bidez adierazi ohi da:

- (2) (a) -Asko gizendu da *-Beraz*, ikusi duzu.  
(b) -Duela 51 urte bukatu zen Espainiako gerratea. -Bada gure andreak 50 urte ditu. *-Beraz*, gerrate ondoren jaio zen.

TOKIA: leku finkorik ez duen arren, badira zenbait joera argi idazle zaharretan bederen:

- a) Perpaus-hasieran, oro har adierazpen-perpausetan:  
(3) (a) *Beraz* beirakia baino perilosago gara.  
(b) *Beraz* asko negar egin duk, ene arima, munduan.
- b) Perpaus-barnean: gehienetan aditzaren ondoan aginte- eta galde-perpausetan:  
(4) (a) Zaudete *beraz* iratzarrirek ene anaia maiteak  
(b) Zer egingen dut, *beraz*, ene Jainkoa...?

Era berean adierazpen-perpausa izan arren, aditzaren ondoren perpaus osagarria dagoenean:

- (5) Erran nahi da, *beraz*, salbatzaileak (...) egin duela

Perpaus osagarririk gabeko adierazpen-perpausetan:

- (6) Barkatu behar diozu *beraz* zeure etsaiari

Beheko adibideetan ere lokailua aditzaren ondoren dago kokatua, itxuraz perpausaren amaieran geratuz:

- (7) (a) Eskola uzten duzu *beraz*?  
(b) Okendo polizia etxera zeramatzaten *beraz*!

Bestalde, lokailua hasieran duten aginte-perpausak (a) eta barnean bigarren lekuan (b) ageri duten perpausak ere badira (salbuespenak):

- (8) a. *Beraz* paira beza zuhurrak eroa!  
b. Haiek *beraz* behar dira handitzetik begiratu  
b'. Zertako *beraz* eman zion orduan Jainkoak gizonari, manamendu hura?

Zenbaitetan *beraz hunelatan*, *beraz halatan*, *beraz horrela*... edota *honela beraz*... moduko lokailu elkartuak aurkitzen dira liburuetan, nahiz gaur egun ia ezezagunak diren, Hegoaldeko euskalkietan behintzat:

- (9) (...) eta bat bertzearen mienbro eta parte. *Beraz hunelatan* elkar maitatu behar dugu.

## 62.2. *Bada*

Loturazko —ondoriozko— lokailua da. Batzuetan *beraz*-en baliokide da, baina ez beti. Hasteko, *bada* erabiltzen da eta ez *beraz* oihu-, auhen- eta hasperen-esaldietan:

Ene bada!	Zer egingo da bada!	Banengoen bada!
Hor(ra) bada!	Nik al dakit bada!	Horregatik bada!
Tira bada!	Jakina bada!	Jakin ez bada!
Zer bada?	Hor zegok bada!	Ez bada jakin!
Aurrera bada!	Baietz bada!	Ez jakin bada!
Kontuz, bada!	Ezetz bada!	Zer egingo da bada!...
Hori zer duk bada!	Ni bai bada!	Ni ez bada!

Euskalki guztietan —zuberera klasikoan izan ezik— zabaldua dago lokailu hau, batik bat ahozko hizkeran edota hau ispilatu nahi duten idazlanetan (ipuin, antzerki eta horrelakoetan). Izan ere, elkarrizketa-giroan du bete-beteko lekua *bada*-k. Zientzia eta jakintzaren zabalkunderako idazlanetan, oster, nekez aurkituko da *bada*-rik. Gehienetan lokailu hau betegarri hutsa izaten da; kenduta ere, testuaren esanahia ez da aldatzen. Eta horregatik esan daiteke batzuetan bere ondorio-balioa ezabatuta duela («-Hor ez dago/-Non *bada*?»)<sup>298</sup>.

## 62.3. *Hortaz*

FORMA: bigarren graduko erakuslea gehi -z kasu-marka. Adibideak ez dira ugari hizkera idatzian, mintzatuan aski erabilia den arren (gipuzkeraz behinik behin). Literaturan ere mende honetako gipuzkerazko testuetan eta bereziki gerra ondokoetan azaltzen da.

<sup>298</sup> Xehetasun gehiagorako ikus Euskaltzaindia (1990:149-167).

TOKIA: bigarren perpausaren hasieran, barnean edo bukaeran ager daiteke.

- (1) (a) -Dantzan eta dantza ondoan beti galtza tartean ibiltzen omen duk eta (...)  
-*Hortaz*, ez zaio senargai aukerarik faltako.
- (b) Bide bakoitzak bere bide muga du. Nork eraman gaitzake, *hortaz*, egiazko gure helburura?
- (c) Horrenbesterekin esan dut ez dudala Oihenart poeta bezala gutxietsi nahi. Egiazko poeta dugu *hortaz*?

#### 62.4. *Orduan*

FORMA: *Ordu* izena inesibo kasuan da; aditzondo bihurtu zen ondoren eta lokailu azkenik. Askotan ez da erraza hiru balio horietatik zein duen zehaztea («*Orduan* bost kilometro ibili zen»): lokailua denean, atzean koma (etenaldia) jartzen da. Eguneroko hizkeran eta honen ispilu izan nahi duten idazlanetan erabiltzen da gehien (Hego nahiz Iparraldean).

TOKIA: lokailu mugikorra da (batzuetan juntagailuaren eta lokailuaren ondoran: *baina orduan, bada orduan...*).

- (1) (a) -Mundakatik hurreko baso-etxe batekoa -*Orduan* jakingo dituzu baserriko arazoak?
- (b) -Berez motela bada, eskola gorabehera, beti motela -Zuk diozunetik eskola jakiteak ez dauka *orduan* halako alde on handirik.
- (c) -Nork galarazten dizu? -Galarazi inork ez, baina hire gogozko dela entzun diat -Bai gizona bai -Hiretzat *orduan*.

BALIOA: ondorioa adierazten duten arren, *beraz* eta *orduan* ez dira baliokidetak. Sarritan *orduan*-ek baldintza-kutsua izaten du: «gauzak horrela (badira)». Ondoko perpausetan, adibidez, ezin da *beraz* erabili:

- (2) (a) Ez zinen joan? *Orduan*, nola dakizu?
- (b) Ez dago autobusik? Baina, *orduan*, nola joango gara?
- (c) Ziur zaude? Bera da, *orduan*, oker dagoena.

#### 62.5. *Honenbestez, horrenbestez, hainbestez*

«Erakusleen genitibo + *beste* + -z «. Batzuetan -*rekin* kasu-markarekin ere ager daitezke (*honenbesterekin, hainbestenarekin...*). Ekialdean *honenbertzerekin, horrenbertzerekin, hainbertzenarekin* eta *ha(i)nbateki(n)*... formak ere ageri dira. Esangurari dagokionez, *beraz* lokailuaren parekoak ditugu. Ezin dira inoiz galdegai izan eta bigarren perpausaren hasieran agertzeko joera dute.

- (1) (a) Zure astoari belarriak moztu izan badizkiozu ere, ez du beretzat zurerik ezer gura eta atzera bihurtzen dizkizu belarriok. *Honenbestez* auzia amaituta legoke.
- (b) Haiek baino askozak kaxkarragoak garelakoan gaude eta *horrenbestez* ho-beengandik eginahalean ikastera behartuak.
- (c) Denbora agortu egin zaigu eta, *honenbestez*, amaiera eman beharko diogu gaurko saioari.

## 62.6. *Halatan, hala*

Jatorriz moduzko aditzondoak dira. Batez ere zubereraz ageri da lokailu-balioan *beraz*-en ordeaz, azken lokailu hau ez baita ageri zubererazko testuetan (batzuetan *eta* juntagailuarekin batera: *eta halatan*):

- (1) Ontsa biziren denak eta ontsa hilen, behar du zuhur izan (...) eta jagoiti gizona ez emaztea ez dira zuhur (...) ez badute herioa gogoan. *Halatan* ontsa bizi eta ontsa hil nahi duenak hauta beza (...) herio bere bihotzean...

## 63. KAUSAZKO LOKAILUAK: *ZEREN, ZERGATIK, ALABAINA, BADA, IZAN ERE*<sup>299</sup>

*Kausa* izen orokorraren pean filosofiako kausalitatearekin zerikusi gutxi duten arrazoi, motibo, aitzakia, esplikazio eta abar direnak sartu ohi dira. Hauei deituko diegu kausa-lokailu. Zer esanik ez, kausa adierazteko gehienetan menderakuntzaz baliatzen gara.

### 63.1. *Zeren*

FORMA: *Zer* galde hitzaren genitiboa da. Iparraldeko tradiziokoa da. Hegoaldean euskara batuarekin hasi zen berriro indarra hartzen, ia ehun urtez azaldu gabe egon ondoren. Bizkaian eta Gipuzkoan XVIII eta XIX. mendeetan bizi-bizirik egon zen lokailu hau (*zerren* aldaera). Baina aspaldi honetan Iparraldeko forma (*zeren*) nagusitu da, *zergatik*, *bada*, *ezen*, *ze...* tankerakoen kaltetan. Hemen lokailu gisa (*bait/-en* menderagailurik gabe) duen erabilera aztertuko dugu.

- (1) (a) Hori horrela da, *zeren* aitak dioen bezala: «Nik dut beti arrazoia».
- (b) Arma hauekin ni ezin mugi naiteke, *zeren* ez nago ohitua.
- (c) Bada eskribatzeaz denaz bezainbatean ez naiz egiteko gabe. *Zeren* bada honetan ere diferentzia.

LEKUA: bigarren perpausaren hasieran agertuko da beti (batzuetan *eta*-rekin indarturik: *zeren eta*).

### 63.2. *Zergatik*

FORMA: jatorriz galde-hitza (*zer*) da, *zeren* bezalaxe. Oso antzekoak dira, *beraz*, *biak*. *Zergatik* batez ere Hegoaldeko literaturan agertzen da (menderagailu de-nean *-en* atzizkiarekin erabiltzen da).

- (1) (a) Zaindu bezate beren etxea eta ez auzokoa, *zergatik* inoren buruko minak astoak hiltzen ditu.
- (b) Ai, noiz aurkituko naiz ni andre Joxeparenean txokolatetxea hartzen; *zergatik* jakin behar du, ni ez banaiz ezkondu, ez da faltatu zaizkidalako.
- (c) ... baina hartu behar duzu, *zergatik* laster ezkonduko zaizu etxean daukazu arrebak.

---

<sup>299</sup> Lokailuei buruzko atal hauetan Euskaltzaindia (1990) laburtu dut.

TOKIA: beti perpausaren buruan doa, batere salbuespenik gabe; eta adizkia hutsik ageri da (inoiz *eze* lokailuarekin: *zergatik ze*).

### 63.3. *Alabaina*

Aurreko perpausean esana hala zergatik den ematen du aditzera edo esplikatzeko du. Lokailu honen adibide zaharrenak Hegoaldekoak dira, gaur egun adiera honetan gutxitan erabiltzen bada ere (aurkaritza-balioari dagokionez, ik. gorago 61.7 azpiatala):

- (1) Ereile gaiztoetan dago azaro txarra, eta gero uzta soila eta hutsa ere. *Alabaina(n)*  
[= zergatik, zeren, ezen...] gutxiak daki bere jaioterriko euskararen erdia...

TOKIA: perpausaren hasieran ager daitekeen arren, gehienetan perpausaren barnean dago kokatua:

- (2) (a) Lege berrian ez ohi dira gertatu kastigu hain izugarriak, nola gertatzen ziren lege zaharrenean; lege berria *alabaina* da amodiozkoa, ez beldurrezkoa.  
(b) Gaizki dirudien gauza da hau, batez ere emakume ezkonduetan; aditzera ematen dute *alabaina* hego haizez beteak daukatela goiak.<sup>1</sup>  
(c) Heldu ziren Belengo herrira, eta ez zuen aurkitu non oinak sartu, orduko *alabaina* beteak zeuden ostatu eta etxe guztiak.

### 63.4. *Bada*

Ondoriozkoa izateaz gain (ik. gorago 62.2 azpiatala), aurreko perpausean esandakoaren zergatia agertzeko balio dezake (sarritan bi balio horiek bereiztea zaila bada ere):

- (1) (a) Aspertu egin naiz, *bada* bakarrik utzi naute  
(b) Ez dut agurtu, *bada* ez dut ezagutu  
(c) -Zer gauza dira horiek? -Ez diezadala hori galdetu niri, *bada* naiz ezjakina.  
(d) Biek huts egiten dute. *Bada* ez olgeta guztiak dira onak, ez guztiak dira txarrak.

TOKIA: bigarren perpausaren hasieran kokatzen da. Gaur ez da oso erabilia.

### 63.5. *Izan ere*

Berez «*izan + ere*» da. Horrela, hurrengo adibidean ez da lokailu:

- (1) Eskuzabala izango zela agindu bakarrik ez; *izan ere*, izan da.  
[*izan* partizipioa mintzagai hanpatu bihurturik]

Beste askotan, ordea, lokailu-funtzioan ageri da, aurretik esandakoaren azalpena emateko (mende honetakoa eta gehienbat Hegoaldekoa da balio horrekin):

- (2) (a) Saldu du; *izan ere*, ez zuen ezertarako balio. [«zeren, ezen, bada, zergatik»]  
 (b) Ardoak saldukeria beltza egin zion... *Izan ere*, ardoa (...) neurritz gainera samin (...) bihurtu ohi da.  
 (c) ... amona bera joaten zitzaion haurrari atseginezko aurpegiz losinga; *izan ere*, etxeko denak txoratzeke nahikoa zara zu...  
 (d) Erantzun honek, egia esan, badu bere pisua eta bertatik bertara begiratzea merezi du. Zer da, *izan ere*, hitzen bizia?

TOKIA: gehienetan bigarren perpausaren hasieran kokatzen da, baina barnean eta amaieran ere aurki daiteke (batzuetan *eta*-rekin: *eta izan ere*).

Ez da egia, bestalde, *izan ere* formak derrigorrez *bait-/en* menderakuntza marka eskatzen duela (ik. 65. atala), askoz gehiagotan erabiltzen baita aditzean markarik ez duen egitura (*izan ere* ... Ø). Ohar bat bukatzeko: ez dira nahastu behar *izan ere* eta *hain zuzen ere*. Lehenak balio esplikatihoa du (kausazkoa da); bigarrenak, aldiz, balio deiktiko hutsa (ez da kausazkoa).

#### 64. ORDEA # BERRIZ, ALDIZ, OSTERA<sup>300</sup>

*Aldiz*, *berriz* eta *ostera* lokailuek kontrajarren konkretuak egiten dituzte, aurretik esandakoari zerbait berria eransteko erabiltzen dira, mintzagaien eransteko. Adibidez:

- (1) a. Nik ... Zuk, aldiz, ...  
 b. Mendia ... Hondartza, berriz, ...  
 c. Lehen... Orain, ostera,...  
 d. Han... Hemen, ordea, ...

Badu *ordea* lokailuak beste hirurek duten mintzagaien kontrajarpenerako erabilera hori ere (1d); horretaz gain, *ordea*, badu beste balio bat. Batzuetan truka badaitezke ere, ez dira berdin-berdinak. Adibidez, *ordea* lokailuak ez du aurreko perpausaren esanahiaren kontrako aurkaritza bakarrik adierazten, baita aurreko perpausaren esanahitik ondoriozta (presuposa) dezakegunaren kontrakoa ere.

- (2) Ez gara, *ordea*, mendira joaten.

Adibide hau hartzen badugu, honen aurreko perpausetik ondorioztatu behar dugu gu mendira joatea normala dela, edo mendira joan beharko genukeela, edo mendira joatea gustatzen zaigula. Beraz, era honetako perpausa espero beharko genuke aurreko testuingurutzat:

- (3) Natura oso maite dugu.

Eta emaitza hauxe litzateke:

- (4) Natura oso maite dugu. Ez gara, *ordea*, mendira joaten = Natura oso maite dugun arren, ez gara mendira joaten (kontzesioa).

<sup>300</sup> Atal honetan hitzez hitz jaso dugu Makazagaren (1996: 90-92) ekarpena.



Baina testuinguru horretan nekez onartuko ditugu *aldiz*, *ostera* edo *berriz* bezalako lokailuak *ordea*-ren lekuan:

- (5) \*Natura oso maite dugu. Ez gara, *aldiz*, mendira joaten.  
 (6) \*Natura oso maite dugu. Ez gara, *berriz*, mendira joaten.

Beraz, lokailu honekin aurreko perpausetik ondoriozta dezakegun ideia ukatu ere egiten dugu; hau da, natura oso maite dugunez, normalena litzateke gu mendira joatea; bada, ideia hori ukatzen dugu *ordea* lokailuarekin. Beraz, *ordea*-ren bigarren erabilera honekin presuposizioaren ukapena egingo genuke eta *aldiz*, *berriz*, *ostera*-rekin —eta baita *ordea*-ren lehen erabilerarekin ere— mintzagai-aldaketa bat.

- (7) Natura oso maite dugu. Ez gara, *ordea*, mendira joaten.  
 (8) Natura oso maite dugu. Zibilizazioa, *aldiz*, gorrotatu egiten dugu.  
 (9) (???) Natura oso maite dugun arren, zibilizazioa gorrotatu egiten dugu.

Honek guztiak esan nahi du ezin ditugula, zenbaitetan egiten den bezala, pare-parean erabili *ordea* eta *aldiz* (edo *berriz*). *Ordea*-k bestiak ordezka ditzaketen bitartean, *aldiz*, *berriz* eta *ostera* ezin eman ditzakegu beti *ordea*-ren ordez; beraz, markatuak lirateke.

- (10) Proteinen kontra aurretik pepsinak jokatzen du (eta horretarako urdaileko azidotasuna behar du); gero tripsina pankreatikoak eta duodenoko urinek aminoazido bihurtzen dituzte. Lipidoak, *ordea*, ahoratzen diren bezala mantentzen dira duodenora iritsi arte.  
 (11) (...) Lipidoak, *aldiz*, ahoratzen diren bezala mantentzen dira duodenora ailegatu arte.  
 (12) Prestatuak gaude landare biologiar buruzko edozein ikerketatan parte hartzeko. Ez dugu, *ordea*, era horretako ikerketatan parte hartzerik izan orain arte.  
 (13) \*Prestatuak gaude landare biologiar buruzko edozein ikerketatan parte hartzeko. Ez dugu, *aldiz*, era horretako ikerketatan parte hartzerik izan orain arte.

Laburbilduz, hauxe litzateke lokailu hauen erabilerak jasotzen dituen eskema:

	MINTZAGAIEN KONTRAJARPENA	KONTZESIOA
<i>ORDEA</i>	+	+
<i>OSTERA</i>	+	—
<i>BERRIZ</i>	+	—
<i>ALDIZ</i>	+	—

## 65. IZAN ERE ... BAIT-; IZAN ERE # HAIN ZUZEN (ERE)<sup>301</sup>

A) Ezin dira txartzat eman egitura hauek, baina esan beharra dago zenbait ikasle/idazle/esatarik uste duela *izan ere* lokailuak nahitaez eskatzen duela *bait-* (edo *eta*) menderakuntza-marka aditzean; eta ez da horrela. Egia da literatur tradizioan

<sup>301</sup> Atal hau egiteko hurrengo artikulua baliatu gara: Makazaga (1996: 89-90).

dokumentatua dagoela *izan ere ... bait-* egitura, baina ez da, ez eta gutxiagorik ere, egiturarik erabiliena. Askoz gehiagotan erabiltzen da aditzean markarik gabeko egitura. Beraz, puntu honetan ez dugu *izan ere ... bait-* egitura txartzat eman nahi; esan nahi duguna da, zenbaiten ustearen kontra, ez dela egitura posible bakarra, eta gainera askoz gutxiagotan erabilia izan dela literaturan. Beraz, zerbait gomendatzekoan, menderakuntza markarik gabekoa gomendatuko genuke.

- (1) a. *Izan ere*, beti entzun *baitugu* ongi jaten dugun ospea dugula. (BAKAN)
- b. *Izan ere*, ongi jaten dugun ospea dugula beti entzun dugu *eta*. (BAKAN)
- c. *Izan ere*, beti entzun dugu ongi jaten dugun ospea dugula. (ERABILIENA)

Menderakuntza-markarekin sarritan ikusten da egungo euskara idatzian eta mintzatuan; baina gure gomendioa hedatuagoa, zaharragoa eta sarriago erabilia denaren (*izan ere ... ø*) aldekoa litzateke. Literaturan (*Orotariko Euskal Hiztegiko* corpusean) *izan ere* lokailuari dagozkion adibideen artean oso gutxi aurkitu ditugu menderakuntza-markarekin, eta hauek autore gutxi batzuen testuetan gainera.

B) *Izan ere / «es ke»*: *izan ere* lokailuari ahozko eta lagunarteko hizkeran batez ere, gaztelaniazko *es que ...* egiturak jan dio lekua; ez da, nolana ere, euskara idatzian normalean egiten den akatsa, eta gutxiago hizkera teknikoan.

C) *Hain zuzen (ere)*<sup>302</sup> / *izan ere*: bi hitz esango ditugu *hain zuzen* eta *izan ere*-ren arteko ustezko nahasketaz. Badirudi zenbait idazlanetan bien erabilera nahikoa nahasia dela, eta bata zein bestea berdin erabiltzen direla. *Hain zuzen ere* ez da esplikatioa, deiktikoa baizik, zerbait zehazki erakutsi eta esplikatzeko diguna. Bestalde, *izan ere* kausazkoa da, hau da, zerbaiten arrazoi edo esplikazioa adierazten digu. Larringanek (1995) biak talde berean sartzen ditu, finkapenerako testu-antolatzaileen barruan, baina ez du ukatzen semantikoki duten desberdintasuna. Tesi-lan horretatik hartuak diren honako adibideetan, esate baterako, trukezinak direla ikusten dugu:

- (2) a. Paradoja bada ere, gerra irabazi eta, irabazteagatik *hain zuzen*, hanka egin behar.
- b. \*Paradoja bada ere, gerra irabazi eta, irabazteagatik, *izan ere*, hanka egin behar.
- (3) a. Txarra da gerra, orain ezaguna dena. Indioak ziren horretan humanitarioenak, hitz honek zentzurik badu behintzat. *Izan ere* hauek beraien guda eta borroketetan ez zituzten etsaien haurrak hiltzen.
- b. \*Txarra da gerra, orain ezaguna dena. Indioak ziren horretan humanitarioenak, hitz honek zentzurik badu behintzat. *Hain zuzen ere* hauek beraien guda eta borroketetan ez zituzten etsaien haurrak hiltzen.

## 66. IRUZKINAK: HAU DA, HOTS, HALA NOLA, ALEGIA, HAIN ZUZEN (ERE), ADIBIDEZ, ESATE BATERAKO, BATEZ ERE, BEREZIKI...<sup>303</sup>

Atal honetan beheko testu-antolatzaileak (1) ditugu aztergai: *hain zuzen ere*, testuan aposizio modura iruzkinak txertatzeko balio dutenak. Eta zehatzago, antolatzaile horien hurrengo funtzioa baizik ez dugu aztergai: perpaus baten barruan

<sup>302</sup> Ik. 66. atala.

<sup>303</sup> Hemen hitzez hitz jaso dugu Zabalaren ekarpena (Zabala, 1996: 113-130).

elementu baten eta elementu hori azaltzen edo zabaltzen duen iruzkinaren arteko lotura gauzatzeko eginkizuna (2).

- (1) a. hau da  
b. hots, alegia  
c. hain zuzen (ere)  
d. adibidez, hala nola, esate baterako, esaterako, besteak beste...  
e. batez ere, bereziki, batik bat, nagusiki, zehazki...
- (2) Stanier eta Van Niel-ek, zelulen koplexutasun-maila desberdinetan oinarriturik, talde bitan banatu zituzten bizidunak: prokariotoak, *hots*, nukleorik gabeko izakiak, eta eukariotoak, *hau da*, benetako nukleoa daukatenak.

### 66.1. Testu-antolatzaile hauek iruzkinaren barruan hartzen duten kokagunea

Kokagunearen arabera bi azpimultzotan bana ditzakegu testu-antolatzaile hauek:

- |                                 |                                   |
|---------------------------------|-----------------------------------|
| (3) A) IRUZKINAREN EZKERRALDEAN | B) IRUZKINAREN EZKERRALDEAN NAHIZ |
| hau da                          | ESKUINALDEAN                      |
| hots,                           | alegia                            |
| hala nola                       | hain zuzen (ere)                  |
|                                 | adibidez, esate baterako...       |
|                                 | batez ere, bereziki...            |

Begien bistan dagoenez, goiko (3a) azpimultzokoek ez dute iruzkinaren ondo-ko kokagunea onartzen (4). Eta (3b) azpimultzokoak askoz ere askeagoak dira kokaguneari dagokionez (5).

- (4) \*Stanier eta Van Niel-ek, zelulen koplexutasun-maila desberdinetan oinarriturik, talde bitan banatu zituzten bizidunak: prokariotoak, nukleorik gabeko izakiak, *hots*, eta eukariotoak, benetako nukleoa daukatenak, *hau da*.
- (5) a. Zenbait espeziek, *esate baterako/adibidez*, «Medicago marina», ile ugari du hosto eta enborretan.  
b. Zenbait espeziek, «Medicago marina», *esate baterako/adibidez*, ile ugari du hosto eta enborretan.

Komaren erabilerari dagokionez, antolatzailea ezkerraldean jartzen denean komen artean joan ohi da (4). Antolatzailea eskuinaldean jartzen denean, berriz, maiz gertatzen da ezkerraldean komarik ez agertzea.

### 66.2. Azalduriko testu-zatiaren eta iruzkinaren ezaugarriak eta kokapena

Testu-antolatzaile hauek txertatzen dituzten iruzkinak laburrak (6a) zein luzeak (6b) izan daitezke. Iruzkinak, normalean aposizio modura txertatzen denez, azaldu nahi duen elementuaren kasu-marka bera hartu ohi du eta gainera haren ondo-ondoan jarri ohi da.

- (6) a. Ziko biologikoen garapenean, belaunaldi berriaren, *hau da*, *esperofitoaren*, agerpena oso garrantzitsua izan da.  
b. Azter dezagun orain, gorago aipatu dugun bigarren galdera, *alegia*, *nola gertatu zen* *izaera prokariotikotik* *izaera eukariotikorainoko* *jauzia*.

Askotan iruzkina elementu nominal bati dagokio eta haren eskuinaldean kokatu ohi da. Hala ere, batzuetan iruzkina aditzaren eskuinaldean kokatzen da: horrelako kasu gehienetan iruzkina aurreko perpaus osoari dagokio eta iruzkina bera ere perpausa izaten da.

- (7) Baina, zianobakterioek, elektroi-emaile gisa ura erabiltzean, fotosintesi oxigenikoa asmatu zuten, *hau da, ordurarteko atmosfera anoxikoa oxigenoz «kutsatzten» hasi ziren.*

Oro har, ez da egokia perpausaren barneko elementu bat aditzaren eskuinaldean doan iruzkin batez azaltzea: beheko (8) adibidearen modukoak ez dira gomendagarriak, erreferentzia-sareak ilundu egiten dituztelako eta tradizioko joera nagusiaren aurka doazelako.

- (8) ??Eusko Jaurlaritzaren Lurraldearen Antolamendua, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak *enpresek erronkari aurre egiteko behar duten tresna nagusia* Bilboko jardunaldietan aurkeztu zuten, «*ERAIKITEN Teknologia eta Produktu Garbien Ekintza-Plana*» hain zuzen.

Aurreko gomendiotik kanpo geratzen dira perpausaren galdegaia azaltzen duten iruzkinak. Horrelakoetan, batez ere aditzak pisu semantiko eskasa duenean (*izan*), iruzkina aditzaren ondoren joan ohi da:

- (9) a. Hamabi gizon gelditzen dira giltzapean: zinegotziak dira, *hau da*, auzia maitasun-gorrotorik gabe erabakitze zina egotzi duten gizasemeak. (MEIG I 179).  
b. Katolikoz gañera, gure egunkaria euskoazale sutsua izango litzake, *au da*, euskeraren alde ta euskaldunen eskubideen alde beti garbi yokatuko lukena.  
c. Baina, dakidanez, behin bakarrik adierazi du hori Aita Villasantek, hainbeste aldiz aipatu dugun Euskeraren zenbaki honetan, *hain zuzen ere*. (MIH).

Baina azaldu nahi dugun elementua galdegaia denean, azalpena aditzaren eskuinaldera eraman badaiteke ere (9), hori egitea ez da ezinbestekoa: azalduaren ondoan ere jar daiteke azalpen hori (10). Kasu horretan, iruzkinaren bukaeran ez da komarik jarri behar, «galdegaia + aditza» sekuentzia ez apurtzeko:

- (10) a. Aldaketak zoriz, *alegia*, kausa eta ondorioaren arteko zerikusirik gabe gertatzen dira.

### 66.3. Testu-antolatzaileen arteko bereizketa semantikoak

#### *HAIN ZUZEN (ERE) # HAU DA*

*Hain zuzen* antolatzailearen kasuan, informazioaren ikuspegitik badago nolabaiteko progresioa azalduaren eta azalpenaren artean. Esaterako, goiko (9c) perpausan *hain zuzen* antolatzailearen bidez ematen den azalpenak lekuari buruzko informazioa («Euskeraren zenbaki honetan, hain zuzen ere») gaineratzen dio bere «aurrekariak» ematen digun informazioari («behin bakarrik»). *Hain zuzen (ere)* antolatzaileak lotzen dituen bi testu-zatien artean «finkapen-erlazioa» dago, hau da, nolabaiteko progresioa duen identitate-erlazioa.

*Hau da* antolatzaileak lotzen dituen elementuen artean, aldiz, ez dago progresio tematikorik; identitatezko erlazioa dago. Azalpena azaldua argitzera dator baina informazio berririk gaineratu gabe: goiko (9a) adibidean, berdintasuna ezar daiteke *hau da* antolatzaileak lotzen dituen bi elementuen artean («zinegotziak» = «auzia maitasun-gorrotorik gabe erabakitzeko zina egotzi duten gizase-meak»). Horrelakoetan, «birformulazio-erlazioa» dago, *hau da*, progresiorik gabeko identitate-erlazioa.

Beraz, *hau da* antolatzaileak txertatzen dituen iruzkinen «aurrekaria» mugatua izan ohi da; *hain zuzen* antolatzaileak txertatzen dituenak, berriz, mugagabeak izan ohi dira. Horrela azaltzen da beheko aurkaritza:

- |  |   |
|--|---|
| <p>(11) ?? Hasieran bai erribosomak, DNA, RNA eta bai azido nukleikoen polimerasak ere, <i>hiru konpartimentutan</i> egongo ziren, <i>hau da</i>, <i>nukleoan</i>, <i>mitokodrioetan</i> eta <i>kloroplastoetan</i>.</p> | <p>(12) Hasieran bai erribosomak, DNA, RNA eta bai azido nukleikoen polimerasak ere, <i>hiru konpartimentutan</i> egongo ziren, <i>hain zuzen</i>, <i>nukleoan</i>, <i>mitokodrioetan</i> eta <i>kloroplastoetan</i>.</p> |
|--|---|

Esanak esan, birformulazio-erlazioan —identitate-erlazioa denez—, identifika daitezkeen elementuak behar dira: bi elementu mugaturen nahiz bi elementu mugagaberen arteko erlazioa behar da:

- (13) Honela, gure planetan 5.000 milioi eta 50.000 milioi espezie artean bizi izan omen ziren, eta egun 40 milioi espezie egon daiteke, *hau da*, *orain arte existitukoaren %1*.

Bestalde, finkapen-erlazioan, ohikoena ez bada ere, azaldutako elementua mugatua ere izan daiteke:

- (14) Eztena babeserako erabiltzen duten intsektuak, *erleak* eta *erlasterak*, *hain zuzen ere*, erlauntza arriskuan dagoenean erasotzaile bihurtzen dira.

### HOTS; ALEGIA

Bi antolatzaile hauek —bai *alegia* bai *hots*— sintagma mugagabeak zein mugatuak azaltzeko erabiltzen dira. Hortaz, bai finkapenezko (15) bai birformulaziozko (16) erlazioetan parte hartzen dute. Hona hemen, lehengo adibideak egokituta:

- |  |  |
|--|--|
| <p>(15) Hasieran bai erribosomak, DNA, RNA eta bai azido nukleikoen polimerasak ere, <i>hiru konpartimentutan</i> egongo ziren, <i>alegia/hots</i>, <i>nukleoan</i>, <i>mitokodrioetan</i> eta <i>kloroplastoetan</i>.</p> | <p>(16) Hasieran bai erribosomak, DNA, RNA eta bai azido nukleikoen polimerasak ere, <i>aipaturiko hiru konpartimentuetan</i> egongo ziren, <i>alegia/hots</i>, <i>nukleoan</i>, <i>mitokodrioetan</i> eta <i>kloroplastoetan</i>.</p> |
|--|--|

### ADIBIDEZ, HALA NOLA, ESATE BATERAKO...

*Adibidez*, *hala nola* eta *esate baterako* antolatzaileek txertatzen dituzten iruzkinek ere nolabaiteko finkapen-harremana dute azalduriko testu-zatiekin, baina

*hain zuzen* antolatzailearekin doan zehaztapena «aurrekariaren» multzo osoa estaltzen duen bitartean, *adibidez* bezalakoek multzoaren zenbait kide baino ez dute zehazten.

- (17) a. Badira tokiak, *hala nola Lorrena*, zeinetan beharrak iguzkiztatu gabe idorrazten baitituzte. (*Dv Lab*).
- b. Maiz galdu dira hitz-hasteko bokalak zenbait hizkuntzatan, babesik gabe zeudenean, *hala nola albanesez eta greko berriz*, bakankago bestetan. (MEIG VII 99).

#### *BATEZ ERE, BEREZIKI...*

*Batez ere* eta *bereziki* bezalako testu-antolatzaileek *hain zuzen* eta *adibidez* bezalako esangura semantikoen artean daude. Izan ere, informazioan nolabaiteko progresioa egiten dute eta iruzkinak azalduaren saileko elementu gehienak adierazten ditu, baina ez guztiak, nabarmenenak baizik.

- (18) Galderetan, gure artean, *giputzen artean diot, bereziki*, ez da pentsatzen gerta daitekeen gauza dela guk maizenik galdera osoetan sartzen dugun galde-partikula ez noiz eta non-nahikoa izatea. (MEIG VI 161).

#### 66.4. Estiloari dagozkion ohar batzuk

a) Ez da komeni iruzkin gehiegi txertatzea. Hots, testu argia eta ulergarria lortuko bada, perpausaren gehiegizko abarrak «kimatzen» ikasi behar da. Beheko testuan iruzkin gehiegi dago eta ez dago dudarik hainbeste iruzkin txertatu gabe ere informazio bertsua eskain daitekeela.

- (19) Heriotzaren eta biziaren oinarriak batzuetan iturri bera dutela ez da beti burutazio hutsa, *alegia, batzuetan naturaren jokaera islatzen duen zerbait da*. Aztergai dugun kasuan, lehenak, *hots, heriotzaren oinarriak*, Gipuzkoako armarrarian agertzen den hagina, *hau da, Taxus baccata*, deitutako zuhaitzean gauzatzen dira, eta bigarrenak, *hots, biziaren oinarriak*, zuhaitz berberarengandik lor daitekeen taxol izeneko substantzian, *I. irudian azaltzen den konposatuan alegia*.

b) Testu-antolatzaile hauen ordez askotan hobe da bi puntuak erabiltzea: bi puntuak egokiagoak izaten dira, batez ere, iruzkin luzeak eta korapilatsuak egin behar direnean. Hurrengo testuan *bata* eta *bestea* testu-antolatzaileez adierazten da iruzkina.

- (20) Europan bi fosil-mota agertu zaizkigu: *azpegi orokortuak dituen bata, eta Neanderthaltara eramango duten azpegiak progresiboki erakusten dituen bestea*.

c) Iruzkinak mendeko perpaus baten barruan daudenean, hobe da iruzkina parentesien bidez mugatzen bada:

- (21) Gizakiak dieta ez-espezializatuari (hau da, dieta omniboroari) dagozkion hortz txiki eta uniformeak erakusten ditu.

d) *Adibidez* antolatzailearen sailekoen kasuan, perpausuan eten bat txertatzeak arazoak ekartzen dizkigunean (eta zehazkiago azalduko elementua mugatua denean), *bezalako* forma erabil dezakegu, horrek ez baitigu perpausaren erritmoa apurtzen.

- (22) a. Anfibioak, *apoa eta igela(,) esaterako*, aintziren inguruan bizi dira.  
 b. *Apoa eta igela bezalako* anfibioak aintziren inguruan bizi dira.

AZTERTZEKO ADIBIDEAK

- (23) \*Honen adibide ditugu, *hala nola*, negozio lokalen errentamendu-kontratua, lehengaien hornidura-kontratua, edota patenteak ustiatzeko lizentzia-kontratua.
- (24) Honen adibide ditugu, negozio lokalen errentamendu-kontratua, lehengaien hornidura-kontratua, edota patenteak ustiatzeko lizentzia-kontratua.
- (25) \*Europa eta Afrika artean, Kretazeoko geografia berezia zela medio, elkartruke faunistikoa gertatu zen, *hau da*, Afrika eta kontinente europarraren arteko uharte-kateek migrazioak bideratuko zituzketela, *alegia*.
- (26) Europa eta Afrika artean, Kretazeoko geografia berezia zela medio, truke faunistikoa gertatu zen, *hau da*, Afrika eta kontinente europarraren arteko uharte-kateek migrazioak bideratuko zituzketen.
- (27) \*Alde batetik, bertan egiten diren hizkuntzak nazioarte-mailako hizkuntzak dira (frantsesa, alemana eta italianoa), eta bestetik, hizkuntza horien erabilera modu isolatuan egiten da, *hots*, horietako bakoitzak bere lurralde edo eremu eksklusiboa duela *alegia*.
- (28) Alde batetik, bertan egiten diren hizkuntzak nazioarte-mailakoak dira (frantsesa, alemana eta italiarra), eta bestetik, hizkuntza horietako bakoitza bere lurraldean erabiltzen da, *hots*, hizkuntza horietako bakoitzak bere lurralde edo eremu eksklusiboa du.
- (29) ?Geroztik eta XVIII. menderarte ez dago interes naturalistarik, salbuespen puntual gutxirekin, XIV. mendeko Ioannes Exarka eslabiarra, *alegia*.
- (30) Geroztik eta XVIII. mendera arte ez dago interes naturalistarik, salbuespenak salbuespen, *hala nola* XIV. mendeko Ioannes Exarka eslabiarra.
- (31) ?Medikuntza eta Odontologia Fakultatean eman ditu eskolak sei urtez, Medikuntza ikasketen lehen mailako «Biologia Zelularra» irakasten *aritu delarik*.
- (32) Medikuntza eta Odontologia Fakultatean eman ditu eskolak sei urtez, *hain zuzen ere*, Medikuntzako lehen mailako «Biologia Zelularra» irakasten aritu da.
- (33) ? (...) baina, gai gehienak sakontasun handiagorekin azaldu direnez, hautazko zenbait irakasgaitarako ere baliagarri gerta daiteke, Biologiako «Biologia Zelularra» irakasteko, *adibidez*. / ... «Biologia Zelularra» irakasgaitarako, *adibidez*.
- (34) (...), hautazko zenbait irakasgaitarako ere baliagarri gerta daiteke, Biologiako «Biologia Zelularra» irakasteko, *adibidez*. / ... «Biologia Zelularra» irakasgaitarako, *adibidez*.
- (35) Baina zenbait egintza burutu ahal izateko, kasu batzuetan Babesgoaren baimena beharko da eta bestetan Babesgoari egintza horiek burutuko direla jakinarazi beharko zaio. ?*Hala nola*, ezin izango ditu fundazioaren %20a baino balio handiagokoak diren ondasunak besterendu Babesgoaren baimenik gabe (FLren 19. art.).
- (36) Baina zenbait egintza burutu ahal izateko, kasu batzuetan Babesgoaren baimena beharko da eta bestetan Babesgoari egintza horiek burutuko direla jakinarazi beharko zaio. *Esate baterako / adibidez...*, ezin izango ditu fundazioaren ondarearen %20a baino balio handiagokoak diren ondasunak besterendu Babesgoaren baimenik gabe (FLren 19. art.).

## 67. BESTELAKO GOMENDIO ETA AKATSAK

### 67.1. ??*Esan zion nola (...)-ela* > *Esan zion nola (...)-(e)n*

EGLU-ren arabera, «Horren lekuan [*«esan zion nola -en»* egituraren lekuan alegia] inoiz entzun eta irakurtzen den *nola ... -ela* egiturak, ordea, ez dirudi aski den adinako onarpena duenik» (EGLU-V:77).

- (1) a. ??Entzun dut *NOLA*, baserria erre zenean, herriko gazteek jaialdi handi bat *antolatu ZUTELA* haren alde diru biltzeko.      b. Entzun dut *NOLA*, baserria erre zenean, herriko gazteek jaialdi handi bat *antolatu ZUTEN* haren alde diru biltzeko.

### 67.2. ? *Sinesten dute segun/depende nork esaten duen...*<sup>304</sup>

- (2) a. ??(Sinesten dute) *segun* nork esaten duen.  
b. ??(Egingo dizu) *depende* noren etxean dagoen.

Euskaraz oraintsu arte ez dira batere erabili (2)-koen antzekoak. Haien ordez —elkarrizketan batik bat— hurrengoan modukoak erabili izan dira:

- (3) a. —Sinesten dute?  
—Nork esaten duen.  
b. —Adizu, makroekonomia oso gai zaila omen da.  
—Irakaslea nor den.  
c. —Ez omen diote asko ordaindu...  
—Zenbat ordu lan egiten duen.

Dena dela, gaztelaniazko *segun* eta *depende* horien ordain zuzena ez da perifrasi hori (*nork esaten duen, irakaslea nor den...*), baizik isilik gelditzen den perpaus nagusia. Eta hori askotarikoa izan daiteke: *ikusiko egin behar, jakin egin behar, ez da berdin, alde handia da, asko esan nahi du...* Esate baterako:

- (4) a. Ikusiko egin behar (...) nola joan behar duen.  
b. Jakin egin behar (...) norentzat den.  
c. Ez da berdin (...) non edukitzeko den.  
d. Alde handia da (...) berak eskatu duen.  
e. Askok esan nahi du (...) nork esan duen.

Ondorioz, beheko (5a) egituraren ordez, (5b) egitura edo antzekoak bultzatu behar dira.

- (5) a. ??*Segun eta zein tokitatik* begiratzeko duzun, ikusiko duzu Bilboko kea.      b. Nondik begiratzeko duzun, ikusiko duzu Bilboko kea.

<sup>304</sup> Euskaltzaindiaren gramatikak «mordoiokeriatzat» jotzen ditu *segun* eta *depende* horiek (EGLU-V: 118-120). Ikus orobat Garate (1988: 271).



67.3. ? *Aldamenekoek uste dute*NA baino hobeto bizi gara gu > *Aldamenekoek uste dute*N baino hobeto bizi gara gu...

Perpau konparatiboak, mendeakoak, *-en* menderagailua izango du aditzari itsatsia. Jakina perpau horretako aditza agerian bada, atzizki hori ere agerian izango da (6a). Eta aditz hori isilarazia bada —maiz gertatzen dena, bestalde—, atzizki hori ere aditzarekin batera isilarazia izango da (6b)<sup>305</sup>:

- (6) a. *Alberditarrek erosi dituzten* baino etxe gehiago erosi ditu udalak berak.  
b. *Alberditarrek Ø* baino etxe gehiago erosi ditu udalak berak.

Euskaltzaindiaren gramatikak *-en baino/bezain/bezala/adina* egitura gomendatzen du eta *-ena baino...* baztertu: «Gaur egun zenbaitek *-eN* atzizkia ez ezik *-eNA* eransten diote perpau horri. Horrelakoak zenbait autorerengan aurki badaitzke ere, badirudi aski bazterrekoa dela jokabide hori eta, gainera, nekez justifikatzen dela gramatikaren ikuspegitik. Hortaz, *-eN* atzizkia izango da gomendatuko duguna era honetako perpausetan.»<sup>306</sup>

Beraz, hurrengo adibideen artean eskuinekoa hobetsiko dugu batere zalantzarik gabe<sup>307</sup>:

- (7) *Aldamenekoek uste dute*NA baino hobeto bizi izan gara gu beti >      (8) *Aldamenekoek uste dute*N baino hobeto bizi izan gara gu beti

Hala ere, gauzak ilunago gertatzen dira *gehiago/gutxiago* ageri denean. Beheko (9a) esaldian, adibidez, mendeko perpausa erlatibo gisa interpretatu behar da; baina *-en baino* gisa ere eman zitekeen (9b):

- (9) a. Auspoa Liburutegia aurrera eta aurrera dabil bere asmo ederrean, euskal irakurleei hasieran *agindu ziena* [agindu zien HURA] baino *gehiago* emanaz (MEIG I 81).  
b. Auspoa Liburutegia aurrera eta aurrera dabil bere asmo ederrean, euskal irakurleei hasieran *agindu zien baino* *gehiago* emanaz.

(9a/9b) modukoetan bi egituren arteko nahastea-edo gerta daitekeela ematen du; izan ere, egitura desberdina izan arren, gauza bera esan nahi izan dezakete praktikan<sup>308</sup>.

67.4. ?*Mendira igoko zarenean, egin ezazu oihu* > *Mendira igotzen zarenean (igo zaitezenean)*...

Hona hemen, Sarasolaren hitzak: «Horrelako erak [etortzen denean gisakoak «etor zaitezenean» adierazteko] aspaldidanik aurkitzen dira euskal testuetan

<sup>305</sup> EGLU-V: 281. or.

<sup>306</sup> EGLU-V: 258. or..

<sup>307</sup> Besterik da ordea *-ena* erlatiboaren kasua: *Nor, beraz, horri gogor egitera ausartzen DENA BAINO ausartagorik?* (MEIG I 150).

<sup>308</sup> EGLU-V: 300-302.



67.7. \**Lanik gabe geratu da eta, hori gutxi balitz, hanka bat galdu du istripu batean* > (...) *eta hori gutxi balitz bezala / eta hori nahikoa ez dela...*

Gaur euskaldunen artean, komunikabideetan bereziki, hedatzen ari den esamolde desegokia da izenburuan agertzen dena<sup>311</sup>: Beraz, beheko (14a)-ren lekuan (14b) egitura hobetsiko genuke.

- (14) a. \*Realak partidua galdu zuen, eta, hori gutxi balitz, bi txartel gorri atera zizkioten.      b. Realak partidua galdu zuen, eta, hori gutxi balitz bezala / hori nahikoa ez zela, bi txartel gorri atera zizkioten.

67.8. ??*Gero eta barrurago eta ilunago aurkituko duzu basoa* > *Zenbat eta barrurago, hainbat eta (orduan eta) ilunago aurkituko duzu basoa*

*Geroago eta ederrago dago gure herria* moduko esamoldeetan denborarekin jokutzen da. Alegia, denboraren arabera bideratzen da konparazioa. Horregatik, ez dira zuzenak denbora-joko hau ez duten *gero*-dun perpaus hauek, sarriegi entzun badaitezke ere<sup>312</sup>: Beraz, beheko (15a)-ren lekuan (15b) egitura hobetsiko genuke.

- (15) a. ??*Gero eta aberatsagoa, eta er-rukariagoa da agure hori.*      b. (Zenbat eta / zenbatenez) aberatsagoa, {hainbat eta / orduan eta / hainbatenez} er-rukariagoa da agure hori.

67.9. **Aditzaren komuntadura**<sup>313</sup>: ?*Hamahiru urte du* > *Hamahiru urte ditu...*

Zalantza izaten da batzuetan ea aditza singularrean ala pluralean jokatu behar den. Ikus ditzagun ondoko kasuak:

A) ZENBAKIAK. Zenbakiekin aditza pluralean jartzen da normalean<sup>314</sup>:

- (16) a. ?*Hamahiru urte du*      b. *Hamahiru urte ditu*  
(17) a. \**Lagun batzuk galdu du*      b. *Lagun batzuk galdu ditu*

Besterik gertatzen da *iraun, neurtu, pisatu, balio...* aditzekin, hartzen duten osagarria ez baita beti osagarri zuzena. Hortaz<sup>315</sup>:

<sup>311</sup> EGLU-V: 371. or.

<sup>312</sup> EGLU-V: 437-438 orr.

<sup>313</sup> Ia hitzez hitz aldatu ditut hona Egunkaria-ren 98. arauko gomendioak (1995: 42).

<sup>314</sup> Sarasolak azaldu duenez (1997: 225, 3. oharra), «*Orotariko Euskal Hiztegia*-n, *hamabi* sarreraren ikus daitekeenez alde eta aldi guztietan aditza pluralean erabili izan da *zer* osagaia izen zenbakidun mugagabea denean. Salbuespen bakanak berriak eta analogikoak dira. Mitxelenak aspaldi esan zuen (Villasanteren *La declinación del vasco literario común*-en 26. orr.-ko oharrean, adibidez) *zenbat urte dituzu?* jatorragoa dela *zenbat urte duzu?* baino, eta bere ustez ez dagoela hor erdararen eraginik. Bestalde, Txillardegik *Sustrai Bila*-n nahiz *Oinarri Bila*-n aditz singularraren alde aurkezten dituen adibide gehienek, edozeinek ikus dezakeen bezala, ez dute frogatu nahi dutena frogatzen.» Ikus orobat Euskaltzaindia (1993: 101).

<sup>315</sup> Ikus Euskaltzaindia (1994c: 930-940).

- (18) a. \*Bi urte iraun *ditu*                      b. Bi urte iraun *du*  
 (19) a. \*Tunelak berrehun metro neur-      b. Tunela berrehun metro luze da...  
       tzen *ditu/du*  
 (20) a. Zenbat pisatzen *duk*?  
       b. (Mikelek) berrogei kilo pisatzen  
       *du/ditu*  
 (21) Lau milioi balio *du/ditu* autoak  
 (22) a. Amak luzatu *dizkio* galtzak  
       b. Bost metro luzatu *du* katea  
       c. Ordubete luzatu *ditu* hitzaldiak  
 (23) a. Zenbatean erosi duzu?  
       b. \*Zenbatean garestitu da?              b'. Zenbat garestitu da?  
       c. Patata bost pezeta merkatu *da*  
       d. Patatak hiru pezeta garestitu *dira*

B) MULTZOAK. Kontuz multzoekin (*pare bat, makina bat, dozena bat*), multzo bat bada, aditza singularrean. *Milioi bat* ere multzoa da.

- (24) a. \*Makina bat ume bildu *dira*              b. Makina bat ume bildu *da*  
 (25) a. \*Dozena bat etxe eraikiko *di-*      b. Dozena bat etxe eraikiko *dute*  
       *tuzte*

C) *ASKO, GUTXI, GEHIAGO, GUTXIAGO, ZENBAIT, ZENBAT, HAINBAT, HAMAICA...* *Asko* eta *gutxi* hitzekin aditza singularrean edo pluralean joan daiteke<sup>316</sup>. Baina izena neurgaitza denean, beti singularrean, logikak eskatzen duen bezala:

- (26) Urte asko *du / ditu*  
 (27) Hainbat arazo sortu *zaio/zaizkio*  
 (28) Diru asko dauka (\**dauzka*)

D) *GEHIEN, GUTXIEN*. Hitz hauek singularrean behar dute aditza:

- (29) a. \*Boto gehien lortu *dituen* al-      b. Boto gehien lortu *duen* alderdia  
       derdia  
 (30) a. \*Boto gutxien lortu *dituen* al-      b. Boto gutxien lortu *duen* alderdia  
       derdia

baina,

- (31) a. \*Desegin zuen etsai *gehienak*      b. Desegin *zituen* etsai gehienak

E) *ZATIAK (ERDIA, HERENA, LAURDENA)*. Zatiek (*erdia, herena, laurdena*) pluralean edo singularrean jokarazten dute aditza. Gauza bakar baten zatia bada, singularrean. Baina pluralean dagoen zerbaiten zatiaz ari bagara, pluralean:

- (32) Aurreikuspenen erdiak betetzeko daude (< Aurreikuspenak betetzeko daude)  
 (33) Plangintzaren erdia betetzeko dago (< Plangintza betetzeko dago)

<sup>316</sup> Ikus Euskaltzaindia (1993: 105-106).

67.10. **Erdal gerundio okerren eragina: \*Ekaitza izan zen, kalte handiak eraginez**<sup>317</sup>

Izenburuko *eraginez* horren modukoak («partizipioa + -(e)z») oker erabiltzen dira maiz: modua edo baliabidea nahiz aldiberekotasuna adieraz dezake, baina ez —*elarik* atzizkia aztertzean (38. atala) azaldu denez— geroago gertatuko den ekintza<sup>318</sup>: Beraz, beheko (34a)-ren lekuan (34b/34c) egitura hobetsiko genuke.

- |   |  |
|---|--|
| (34) a. *Ekaitza bortitza izan zen, kalte handiak eraginez. | b. Ekaitza bortitzan izan zen eta kalte handiak eragin zituen / c. Kalte handiak eragin zituen ekaitz bortitza izan zen. |
| (35) a. *Eraso egin zion, zauritua utziz.                   | b. Erasoen egin zion eta zaurituta utzi zuen   |

67.11. **-ki aditzondo-sortzailearen gehiegizko erabilera**<sup>319</sup>

-ki atzizkiak euskaraz dituen balioetatik, moduzkoa da erabilienetako bat, baina badira baliabide egokiagoak askotan:

- |   |  |
|---|--|
| (36) a. ? <i>Ekonomikoki</i> azpigaratutako herrialdeak           | b. Ekonomian azpigaratutako herrialdeak / Ekonomia azpigaratutako herrialdeak          |
| (37) a. ? <i>Legalki</i> horrela da                               | b. <i>Legez</i> horrela da   |
| (38) a. ? <i>Gogorki</i> kritikatu du                             | b. <i>Gogor</i> kritikatu du   |
| (39) a. ? <i>Normalki</i> ez dute horrelako-rik egiten            | b. <i>Normalean/gehiene(t)an</i> ez dute horrelako-rik egiten.                         |
| (40) a. ? <i>Pertsonalki</i> joango naiz                          | b. <i>Ni neu</i> joango naiz   |
| (41) a. ? <i>Normalki</i> semeak lagundu beharko lioke aitari.    | b. <i>Berez</i> umeak lagundu beharko lioke aitari.                                    |
| (42) a. ? <i>Jeneralki</i> ostiraletan etortzen da <sup>320</sup> | b. <i>Gehienez/gehienez/ardurenez/maizenik/ jeneralean...</i> ostiraletan etortzen da. |

67.12. **Asko maite zaitut (Oso maite zaitut)**

Gramatikari batzuek uste dutenez<sup>321</sup>, *asko* ez omen da erabili behar honako kasuetan: *izan* aditzaz baliaturik egiten ditugun aditz batzuekin (*beldur izan, gose izan, e.a.*); izen zenbakaitz batzuekin (*beldur handia/\*beldur asko, hotz handia/\*hotz asko*); eta *maite izan / ukan* aditzarekin. Uste horren arabera, adibidez, *asko maite zaitut* ez omen da erabili behar.

Usteak uste, *maite izan/ukan* aditzaren kasuan badirudi ez dela betetzen delako legea, ez behintzat *asko*-ren debekuari dagokionez. Hots, *OEH*-k erakusten

<sup>317</sup> Egunkaria (1995: 48).

<sup>318</sup> *EGLU-V*: 371. or.

<sup>319</sup> Egunkaria (1995: 34).

<sup>320</sup> Ikus Garate (1988: 181).

<sup>321</sup> Ik., besteak beste, *EGLU-I* (144-145) eta *EGL* (107. or.).

duenez, literatura-tradizioan *asko maite zaitut* modukoak maizago erabili izan dira *oso maite zaitut* modukoak baino<sup>322</sup>. Beraz, irakaskuntzan-eta (43) gisakoak debekatatu izan diren arren, ez dago horrelako debekurik. Are gehiago, tradizioan *asko maite zaitut* esapidea da nagusi<sup>323</sup>. Hona hemen, *OEH*tik jasotako adibide batzuk:

- (43) a. *Asko maite dozu Jesus?* (Ur *MarII* 117s).
- b. *Zuk asko maite dezun* amaren erraietan (Matx *Gazt* 17).
- c. *Zuek asko maite ninduzuen* bai, ta zintzo ibilli ziñeten nerekin (Or *Scruz* 75).
- d. *Zuk badakizu zierto, egiyetan eta txit asko maite zaitutala* (Bil 156).
- (44) a. *Oso maite zaitut nik / o nere morroia!* (Urruz *Urz* 40).

Bestalde, *OEH*ko azalpenaren arabera, «*hanbat/hainbeste/zenbat/bezanbat + maite izan/ukan*» gisako esapideak (46) euskalki guztietan agertzen badira ere, maiztasun handiagoa dute tradizioan «*hain/zein/bezain... + maite*» modukoek (45):

- (45) a. *Ule trenza ori ain maite badozu* (Mg *Pab* 71).
- b. *Aiñ maite izan zaituen* zuen aita onari (Gco I 414).
- (46) a. *Ainbeste maite zituan* atsegin eta kontentu gabe (AA III 119).
- b. *Orrenbeste maite badozu* bizia (AB *AmaE* 316).

---

<sup>322</sup> Hona hemen, *OEH*ko azalpena (*OEH*: 863): «*Tr.* Aunque hay ejs. con *hanbat*, *hainbeste*, *zenbat*, *bezanbat*, etc., en todos los dialectos, es más frecuente el uso de *hain*, *zein*, *bezain*, etc. En el caso de *asko/oso* domina claramente el primero.»

<sup>323</sup> Gauza bera esan daiteke *gustatu* aditzari buruz: *asko gustatzen zait* modukoak gustitz ohikoak dira.

## Bigarren zatia

### Zalantzen hiztegia

Ibon Sarasola

#### A

**abagadune, abagaune:** *abagune* da idazkera zuzena.

**abandonatu:** *utzi; alde batera utzi, bertan behera utzi* hobesten ditu Hiztegi Batuak.

**abanguardia:** *abangoardia* da idazkera zuzena.

**abantaila:** *abantaila eraman* esapidea *Zah.* ikurraz ematen du Hiztegi Batuak, eta «aldea atera»-ren kidea dela adierazten.

**abar:** *eta abar luze bat*, joskera desegokia da Hiztegi Batuentzat; izan ere, gaztelaniak berriki eragina da; *eta abar, eta abar* baliokide egokiagoa da.

**abarrots:** *harrabots* da idazkera zuzena.

**abel-**. ik. **abere/abel-**.

**aberaska:** *abaraska* da idazkera zuzena; hitzak badu sinonimo bat, *abao*.

**aberaskarri:** *aberasgarri* da idazkera zuzena.

**aberaspide:** *aberasbide* da idazkera zuzena.

**abere-/abel-:** *abelazkuntza, abeletxe, abelgorri, abeltegi, abeltzain, abeltzaintza* hitzetan izan ezik, *abere* forma erabili behar da: *abere xehe, abere-hiltzaile* dira Hiztegi Batuak jasotzen dituen adibideak; kontuan izan behar da Euskaltzaindiaren marratxoaren erabilerari buruzko gomendioaren arabera, *abere-hiltzailea*,

*abereak hiltzen dituen delá, eta abere hiltzailea*, aldiz, hiltzen duen aberea.

**aberia:** ohiko adieran, *matxura* hobesten du Hiztegi Batuak; «kalte handia» adieran inongo oharrik gabe onartzen du.

**abiadore:** baztertzeko forma; *pilotu* eta *hegazkinlari* dira Hiztegi Batuak egokitzat jotzen dituen ordainak.

**abiadura:** bi adiera ditu hitzak; lehena, «has-tapena, hasiera», Iparraldekoa eta Hego Nafarroakoa da, bigarrena «lastertasuna», Hegoaldean azken urteotan hedatua.

**abioi:** *hegazkin, aireko* hobesten ditu Hiztegi Batuak.

**abizen:** Hiztegi Batuak «pertsonek deiturak» argibideaz onartzen du.

**abokatu:** *legelari* eta *legegizon* «gizon legetaria» ere jasotzen ditu Hiztegi Batuak.

**aborto:** *abortu* da idazkera zuzena; Hiztegi Batuak *abortatze* ere ematen du, eta orobat *hilaur*.

**abots:** nahiz tradizioan gehien-gehien erabiltzen den forma *abots* den, *ahots* da Hiztegi Batuko arauturiko forma, eratorriaren erregulartasunari eta, batez ere, azken hogeita hamar urteetako erabilerari begiraturik.

**abstrakto:** *abstraktu* da idazkera zuzena.

**absurdu:** *absurdo* da idazkera zuzena.

**adaska:** idazkera zuzena *adaxka* da (ik. *-ska/-xka* sarrera).

**adastun:** *adasdun* da idazkera zuzena.

**adierazbide:** *adierazpide* da idazkera zuzena.

**adimendu:** mende honetako erabilera kontuan harturik *adimen* hobesten du Hiztegi Batuak.

**adjetibo:** hitzaren nazioarteko forma kontuan harturik, *adjektibo* grafia hartzen du Hiztegi Batuak zuzentzat; euskal gramatiketako kategoriak diren *izenondo* eta *izenlagun* ere jasotzen ditu Hiztegi Batuak.

**afitxa:** frantsesetiko hitz honi dagokion ortografia zuzena *afixa* da.

**agertarazi:** *agerrarazi* da idazkera zuzena.

**agiri:** forma hau izen balioaz soilik onartzen du Hiztegi Batuak; izenondo gisa *ageri* da erabili behar den forma, eta orobat *ageriko*.

**agitx:** *hagitx* da idazkera zuzena.

**agotz:** *ahotz* da idazkera zuzena.

**ahalbait:** idazkera zuzena *albait* da.

**ahaldun:** *ahaldun* da idazkera zuzena (ik. **ahaldundi**).

**ahaldundi:** erabilerari begiraturik, *aldundi* grafia hartzen du Hiztegi Batuak zuzentzat; baina *ahaldun* da idazkera zuzena ez *aldun*.

**ahalge:** *ahalke* da idazkera zuzena.

**ahalik:** adizlagunekin, forma artikuludunak —*ahalik maizena, sarriena...*, eta ez *ahalik maizen, sarrien...*— hobesten ditu Hiztegi Batuak, tradizio hobe dutez gero; izenondoekin ere forma artikuludunak erabiltzen dira: *ahalik garbiena(k), osoena(k), ederrena(k)*, etab.

**ahaztu:** bi joserik ditu aditz honek: *euskaraz hitz egiten* *ahaztu zaio* —hots, gaur egun ez daki euskaraz hitz egiten— eta *euskaraz hitz egiten* *ahaztu zaio* —gaur goizean egin duen mintzaldian, adibidez—.

**ahozpez:** *ahuspez* da idazkera zuzena.

**ahuntzume:** *antxume* da idazkera zuzena.

**ahuña:** idazkera zuzena *ahuña* da; *ahuña* Hiztegi Batuan *Zub.* ikurraz agertzen da, eta *antxume* lehenesten da sarrerari horretan.

**-aia/-aje:** *-aje* da Hiztegi Batuentzat erregela: *adaje, bisaje (Herr.)*, *engranaje, fuselaje, garaje, ilaje, lumaje, makillaje, masaje, paraje (Heg. Herr.)*,

*pausaje (Heg. Herr.)*, *portzentaje, sabotaje*; salbuespenak dira Iparraldeko formak edo euskara batuan ezin eztabaidatzeko nagusitasuna hartu dutenak: *bidaia, bisaia, domaia (Ipar.)*, *kuraia (Ipar.)*, *paisaia, pertsonaia, usaia (Ipar. eta Naf.)*, *xantaia, ziraia (Ipar.)*; *lengoaia* hitza *Zah.* ikurraz onartu da: *mintzaira, hizkuntza* hobesten ditu Hiztegi Batuak.

**ainbat:** *adinbat* eta *hainbat*, zein bere kasuan, dira idazkera zuzenak.

**ainitz:** *anitz* da idazkera zuzena.

**aintzin:** *aitzin* da idazkera zuzena.

**aintzina:** *antzina* da idazkera zuzena; ez dago *aintzina* formaren lekukotasunik tradizioan.

**aitoren seme, aitoren alaba:** forma hauek dira Hiztegi Batuak jasotzen dituenak, ez *aitonen seme* eta *aitonen alaba*; bestalde, OEHN ikus daitekeenez, horien erdal kidea «noble» da, eta ez «hidalgo»; azken honen euskal kidea Hiztegi Batuak dioenez, *kapare* da.

**aitzurdin:** *haitzurdin* da idazkera zuzena.

**-aje/-aia:** ik. **-aia/aje**.

**akorazatu:** *korazatu* da forma zuzena.

**akordeoi:** badu sinonimo jatorria, Hiztegi Batuak jasotzen duena: *eskusoinu*.

**aktorea:** baztertzeko forma da, *aktore* —*antzezle* sinonimoa bezala— ginezkoekin nahiz emakumeekin baitagokie.

**akuarela:** Hiztegi Batuak sinonimo bat jasotzen du, mende honetan erabili izan dena eta ingelesezko *watercolour*-en il-dotik eratua zena: *urmargo*.

**akuarium:** *akuario* da idazkera zuzena.

**alatu:** *alhatu* da idazkera zuzena, eta orobat *alha*, *alhapide*, *alharazi*; *alha* sarrerari bada adibide bat aipagarria, *ordenagailua alhan dut*, 'ordenadorea «funtzionatzen» dut', alegia.

**alanbre:** nahiz Iparraldean idatziz erabiltzen ez den ahozko hizkuntzan ohikoa da; Hiztegi Batuak *burdin hari* sinonimoaren maila berekotzat ematen du.

**alarguntsa:** Hiztegi Batuan ez da agertzen; izan ere, OEHN adierazten duenez, *alargun*, berez, andreei dagokie. Inoiz bereizi behar bada, *andre/gizon alargun* esapideak erabil daitezke.



**albaitero:** *albaitari* aldaera hobesten du Hiztegi Batuak; Hegoaldeko hitz honek badu kidea Iparraldean: *marexal*.

**alboreango:** *alborengo* da idazkera zuzena.

**aldaki:** hainbatek «aldaera»-ren kide gisa erabiltzen badute ere, *aldaki*-ren esanahia, Hiztegi Batuak gogorarazten duenez, «kopia» da; hortaz, *barri*, *berri*-ren *aldaera* da, ez *aldakia*.

**aldaska:** *aldaxka* da idazkera zuzena (ik. *-ska/-xka* sarrerara); hitzak badu sinonimo bat, *kimu*.

**aldun:** ik. *ahaldun*.

**aleazio:** Hiztegi Batuak *Heg.* marka ezartzen dio, gaztelaniazkoa dela adierazteko; nire ustez (*metal*) *nahastura* izan daiteke euskaldun guztientzako ordain egokia: hau dio Hiztegi Batuak *nahastura* sarreran: «zenbait gai nahasiz sortzen den gaia».

**alfonbra:** Hiztegi Batuak *Heg.* marka ezartzen dio, gaztelaniazkoa dela adierazteko, eta era berean haren kide den frantsesezko *tapiz* ematen du, *Ipar.* ikurraz. Hiztegi Batua ez da gauza izan euskaldun guztiontzat balio dezakeen ordain egokia proposatzeko.

**aleman:** «herritarra» adieran *alemaniar* du sinonimo; «hizkuntza» adieran Hiztegi Batuak ez du sinonimorik ematen eta *alemaniera* ez du jasotzen.

**alki:** *aulki* da forma zuzena.

**alleluia:** *aleluia* da idazkera zuzena.

**almendra, almendrondo:** Hiztegi Batuak *Heg.* marka ezartzen die, gaztelaniazkoak direla adierazteko, eta *arbendol*, *arbendolondo* ematen ditu alboan, euskaldun guztientzako balio dezaketen formak direlakoan.

**alternagailu:** *alternadore* da forma zuzena teknologian.

**altuera:** Hiztegi Batuak *Heg.* ikurra ezartzen dio, Iparraldekoentzat ulergaitza dela adierazteko; *altuera*-k ez du ia tradizio-rik, eta azken urteotan hedatu da Hegoaldean, *luzera* eta *zabalera*-ren ildotik. Hiztegi Batuak *goratasuna*, *garaiera* ematen ditu alboan, Euskal Herri osoari begira *altuera* baino egokiagoak gerta daitezkeelako ustean.

**alturako arrantza:** Hiztegi Batuak *Heg.* marka ezartzen dio, esapidea gaztela-

niazkoa dela adierazteko; nire ustez, frantsesaren eta ingelesaren ildotiko *itsas handitako* edo *itsas zabaleko arrantza* dirateke euskal ordain egokiak.

**altxamendu:** ez da Hiztegi Batuan azaltzen; ez da hori harritzekoa, hitzak ez baitu inongo tradizio-rik eta gaztelaniazkoa soilik den *alzamiento*-k zuzenean eragina baita. Euskal ordainak *jazzarraldi*, *bihurraldi*, *oldartze* edo *matxinada* bera dira.

**amankomun:** Hiztegi Batuak baztergarritzat jotzen du, eta ordez *komun* erabiltzeko agintzen. *Amankomun* ez da tradizio idatzian agertzen, eta ahozkoan Bizkaiko eremu txiki batean soilik erabiltzen da, eta adizlagun gisa, *lurrek amankomun dabilgus* bezalako joseretan. Hortaz, gaur egun hainbatek erabiltzen dituzten *lur amankomunak* bezalako joskerak euskara gaiztokoak dira, *lur ederkiak* bezain euskara gaiztokoak.

**ametrailadora:** *metrilladore* da idazkera zuzena.

**amorio:** *amodio* da idazkera zuzena.

**amorrai:** *amuarrain* da forma zuzena.

**ampere:** *anpere* da idazkera zuzena, eta orobat *anperemetro*.

**amuts:** idazkera zuzena *kamuts* da.

**analisatu:** *analizatu* da idazkera zuzena.

**anfibio:** badu Hiztegi Batuan sinonimo bat, *urlehortar*.

**angeluberdin, angeluzuzen:** bi formok izenondoak dira era horretan idazten direnean: *hiruki angeluberdinak*, *lau aldeko poligono angeluzuzenak*; bestela, noski, *bi angelu berdin dituzten poligonoak*, *angelu zuzenak 90 gradukoak dira*... idatzi behar da.

**anitz:** zenbatzailea da, *asko*-ren kide betea; badu beste joskera bat Iparraldean «ugari»-ren balioidea, Hiztegi Batuak jasotzen ez duena. Bestalde, Hiztegi Batuak berariaz baztertzen du azken urteotan Hegoaldean hedatu den erabilera, gaztelaniazko «plural», «multiple» adjektiboen kide gertatzen dena, *Euskal gazteria anitza da*, *industria anitza* bezalako joskeretan; horrelakoe-tan *askotariko* erabiltzea eskatzen du Hiztegi Batuak.

**anperio:** *anpere* da idazkera zuzena, eta orobat *anperemetro*.

**antzman:** Hiztegi Batuan adierazten da ezezkoetan, *ez diot antzik eman* nahiz *ez diot antzeman*, biak onartzen dituela.

**aparailu:** Hiztegi Batuak bi adieratan onartzen du — 1 «arrantza tresneria». 2 «zamarrien tresneria» —, baina ez «tresna» adieran. Bestalde *aparatu* hitza ere onartzen du, eta adibide gisa *arnas aparatua* ematen du.

**apart:** *aparte* da idazkera zuzena; izenondoaren forma *aparta* da: *trebetasun aparta du neska horrek*, adibidez.

**apez:** *apaiz* hobesten du Hiztegi Batuak.

**apostu, apostura:** *apustu* da idazkera zuzena; *apostura*-ri dagokionez, *postura* hobesten du Hiztegi Batuak.

**aquarium:** *akuario* da idazkera zuzena.

**arantze:** *arantza* da idazkera zuzena adiera arruntean.

**araudi, arautegi:** biak onartzen ditu Hiztegi Batuak, inongo argibiderik eman gabe ez batari ez besteari buruz.

**ardi/-art-:** Hiztegi Batuak *ardi(-)esne* onartzen du, ez *artesne*; eratorri fosilduetan soilik agertzen da *art-: artalde, artegi, artile* eta, noski, *artzain*.

**argitarapen:** «zuzentzuna» gorabehera, eta tradizioa kontuan harturik, *argitalpen* da Hiztegi Batuak forma zuzentzat ematen duena; hiztegian *argitaraldi* hitza ere jasotzen da, eta badirudi *bigarren argitaraldia* eta kideko joskerak *bigarren argitalpena* eta antzekoak baino jatorragoak direla.

**arkangelu:** *arkanjelu* da idazkera zuzena.

**arkitektu:** idazkera zuzena *arkitekto* da.

**arkitu:** *aurkitu* da forma zuzena.

**armonia, armoniun:** *harmonia, harmonium* dira, hurrenez hurren, idazkera zuzena.

**arnasa:** *arnas* forman erabiltzen da hitz elkarketako lehen osagai denean: *arnas aparatua*; bestalde, *arnasestu* eta *arnasbotatze* dira idazkera onartuak.

**arnegatu:** *fedez arnegatu zuen/fedea arnegatu zuen* bi joskerak onartzen dira.

**arpa:** *harpa* da idazkera zuzena; bi adiera ditu hitzak Hiztegi Batuan: «musika tresna» eta «arrantza».

**arrabots:** *harrabots* da idazkera zuzena.

**arraultza, arraultze:** Hiztegi Batuak, tradizioan zehar nagusituz joan den forma hartu du nagusitatzat: *arrautza*; horrez gainera, *arroltze*, Iparraldean egiatan erabiltzen den forma ere onartzen du, baina *arrautza* hobetsiz; *arraultza, arraultze* eta gainerako aldaerak erabat baztertzen dira. Ildo beretik *arrautzopil* onartzen da, eta, *Ipar*. ikurrarekin, *moleta*, ez \**omeleta*.

**arrazoia daukazu:** *arrazoia duzu, arrazoi duzu* joskerak hobesten ditu Hiztegi Batuak.

**arregaketa:** baztergarrizat jotzen du Hiztegi Batuak; ordain gisa *ureztapen* ematen du.

**arrenkura:** *arrangura* da idazkera zuzena.

**arront:** *arrrunt* da forma zuzena.

**arubi, arrubio:** *arrabio* da idazkera zuzena.

**arta-/arto-:** Hiztegi Batuan *arto* hautatzen da eratorriak sortzeko formatzat, eta *arto(-)bizar, arto(-)buru, arto(-)jirin, arto(-)jorra, arto(-)landa* eta *arto(-)zuritze* azpisarrerak jasotzen dira; bestalde eratorri fosildu gisa *artaburu, artajorra, artale, artaxiki, artazuriketa* eta *artazuritze* onartzen dira; ikusten denez, bi kasutan —*jorra* eta *-zuritze*— fosildua nahiz «normala» onartzen dira, biak tradizio bertusa dutenez gero.

**artileria:** *artilleria* da idazkera zuzena; hori da Iparraldeko nahiz Hegoaldeko tradizioetan erabili dena, eta hori da, bestalde, nazioarteko idazkera; hortaz, Hiztegi Batuak ez du batasun hori hausteko arrazoirik ikusten.

**artisa:** Hiztegi Batuak esaten duen bezala, hitz hori berriki asmatua da, eta badu sinonimo jator bat, *eskulangile*; orobat, *eskulan* eta *eskulangintza* dira *artisa*tzaren sinonimo jatorrak.

**artixibari:** baztertzeko forma; *artixibozain* da Hiztegi Batuak egokitatzat jotzen duena.

**artxipelago:** Hiztegi Batuak *uhartedi*-ri eman dio nagusitasuna, bi hitzen tradizioak aztertu eta gero, nahiz eta *artxipelago* erabat onartzen duen.

**asignatura:** baztergarrizat jotzen du Hiztegi Batuak; ordain gisa *ikasgai* eta *irakasgai* ematen ditu.

**aspekto:** *aspektu* da idazkera zuzena; bestalde, Hiztegi Batuak gramatikaren alorrean soilik onartzen du.

**asmoz:** Hiztegi Batuak berariaz gaitzesten ditu *joan asmoz*, *egin asmoz* bezalako joskera berriak, eta joskera zuzenak *joateko asmoz*, *egiteko asmoz* direla adierazten du.

**aspil:** *azpil* da idazkera zuzena.

**aste bete:** *astebete* da idazkera zuzena; *astebete egon zen gaixorik* da joskera zuzena, ez *\*astebete bat egon zen gaixorik*.

**astro:** badu Hiztegi Batuan jasotzen den sinonimo jator bat, *argizagi*.

**aszensore:** baztergarrizat jotzen du Hiztegi Batuak; ordain gisa *igogailu* ematen du.

**ataburu:** *ateburu* da idazkera zuzena.

**ateka:** *ataka* da idazkera zuzena.

**aterazi:** *aterarazi* da idazkera zuzena.

**aterbe:** *aterpe* da idazkera zuzena.

**atun:** Hiztegi Batuak bereizi egiten ditu *atun gorria* —kolore gorriko atuna— eta *atungorria* —*Thunnus (Thunnus) thynnus* motakoa—, eta orobat *atun txikia* eta *atuntxikia* —*Sarda sarda* motakoa—, eta *atun zuria* eta *atunzuria* —*Thunnus (germo) alalungas* motakoa—.

**atzakia:** *aitzakia* da idazkera zuzena.

**atxeki:** *atxiki* da idazkera zuzena —nahiz forma jokatuak *datxekio*, *zetxekion* bezalakoak, hots *-txe*-dunak diren— *atxiki* delako alde handiz, tradizio hobere-na duen aldaera; bestalde, bi joskera ditu: *hormari atxikitzen zaion huntza* eta *du erakoa, hitza atxiki zuen, atxiki ezazu gorderik nik esaten dizudana*.

**atxitu:** *atxitu* da idazkera zuzena.

**atxurdin:** *haitzurdin* da idazkera zuzena.

**atzamar:** ik. **behatz**.

**atzazal:** *azazkal* hobesten du Hiztegi Batuak.

**atzealde:** *atzealde* da idazkera zuzena.

**atzipe egin:** baztertzeko forma: *atzipetu* da Hiztegi Batuak egokitzen jotzen duena.

**aume:** *auma* da idazkera zuzena; nolana ere Hiztegi Batuak *auma*-ri *Bizk.* ikurra ezartzen dio eta *antxume* hobesten du.

**anatu:** *unatu* da forma zuzena.

**anitz:** *anitz* hobesten du Hiztegi Batuak.

**aurrekalde:** *aurrealde* da idazkera zuzena.

**ausente, ausentzia:** hitz horien nazioarteko forma kontuan harturik, *absente*, *absentzia* grafiak hartzen ditu Hiztegi Batuak zuzentzat.

**ausnar:** *hausnar* da idazkera zuzena.

**autonomi elkarte:** *autonomia erkidego* da forma zuzena.

**auzalan, auzo lan:** *auzolan* da idazkera zuzena.

**azalera:** Hiztegi Batuak geometriaren arloan, «neurria adierazteko» soilik onartzen du hitza; bestetarako, *azal* (*leuna, zakarra...*), *gainazal*, *eremu* (lurralde baten luze-zabala adierazteko, adibidez: *ehun km koadroko eremua*) gomendatzen ditu.

**azazkatu:** *asazkatu* da idazkera zuzena.

**azeituna:** baztergarrizat jotzen du Hiztegi Batuak; ordain gisa *oliba* ematen du.

**azelga:** baztertzeko hitza: *zerba* da Hiztegi Batuak egokitzen jotzen duen ordaina.

**azkazal:** *azazkal* hobesten du Hiztegi Batuak.

**azpikalde:** *azpialde* da idazkera zuzena.

**azpimarkatu:** *azpimarratu* da forma zuzena.

**aztapar:** *atzapar* hobesten du Hiztegi Batuak.

**azterren:** *aztarren* da idazkera zuzena.

**azufre:** baztergarrizat jotzen du Hiztegi Batuak; ordain gisa *sufre* ematen du.

**azukrontzi:** *azukre ontzi*, *azukre-ontzi* da idazkera zuzena.

**azuzena:** *zitori* hitza hobesten du Hiztegi Batuak.

## B

**ba:** ahozko euskararen isla gisa —elkarrizketetan eta— da onartzekoa; maila neutroa *bada* formari dagokio (ik. lehen zatiko 62.2 azpiatala).

**baberrun:** *babarrun* da idazkera zuzena.

**babor:** *ababor* da idazkera zuzena.

**baga uso:** *pagauso* da idazkera zuzena.

**bago:** *pago* da idazkera zuzena

**baieztu:** *baieztatu* da forma arautua.

**bailara:** Hiztegi Batuak *Gip.* marka ezartzen dio, eta «eskualde txikia» adieran soilik onartzen du.

**-bakar:** *bakar* bigarren osagai duten elkartuak hitz bakarrean idazten dira Hiztegi Batuan, bai *izond.* ikurra daramaten *begibakar, kolorebakar, sexubakar, silababakar*, bai ikurrik gabeko *zelulabakar, adarbakar, elebakar, eskubakar.*

**bakteria:** *bakterio* hobesten du Hiztegi Batuak.

**balen-:** tradizioan, hitz elkartuetan *balea-* edo *bale-* agertzen da, eta ez dago ia *balen-*en arrastorik. Hiztegi Batuan *balea-*ren bi eratorri azaltzen dira: *bat berria — baleontzi—* eta bestea zaharra —*baleazale—*.

**balazta:** «arma» eta, *Heg.* ikurraz «orekagailu» adieretan soilik onartzen du Hiztegi Batuak; «galga, frenu» adieran *balazta* da forma zuzena.

**balio:** nahiz gomendio gisa oraindik ez den eman, 1994.eko Leioako Biltzarrean Euskaltzaindiak dioenez *lau milioi balio du* nahiz *lau milioi balio ditu* komunztadurak zuzenak dira; osagarria mugatua denean, jakina, *milioa balio du, milioiak balio ditu* dira joskera zuzenak, eta orobat *zenbat balio dezakeen jakin nahi dut* bezalakoak (ik. lehen zatiko 26.2 azpiatala).

**baloratu:** *balioetsi* hobesten du Hiztegi Batuak.

**balore:** Hiztegi Batuak lagunarteko marka ezartzen dio eta «adore, kemen» adieran soilik onartzen du, hauek hobetsiz; gainerakoetan *balio* da aukera zuzena.

**balus:** *belus* da idazkera zuzena.

**bangoardia, banguardia:** *abangoardia* da idazkera zuzena.

**banka:** hitz hau gaztelaniaz soilik erabiltzen da; *bankuak* hobesten du Hiztegi Batuak.

**batpatean:** *bat-batean* da idazkera zuzena.

**baratzuri:** *baratzuri* da idazkera zuzena.

**baraur:** *barau* da idazkera zuzena.

**barbantzu:** *txitxirio* hobesten du Hiztegi Batuak.

**barkamendu:** *barkamen* hobesten du Hiztegi Batuak.

**barna:** *-an barna* joskera —*mendian barna—* hedatuagoa da *-tik barna —menditik barna—* baino.

**barnekalde:** *barnealde* da idazkera zuzena.

**barниз:** *berниз* da idazkera zuzena.

**barrukalde:** *barrualde* da idazkera zuzena.

**basa-/baso-:** hitz elkartuetan hauek dira Hiztegi Batuan agertzen diren hitzak, abere espezieen izenak alde bat utzita: *basabazter, basabere, basagizon, basahuntz, basajaun, basajende, basakatu, basakeria, basaki, basamortu, basandere, basapiztia, basaran, basati* alde batetik, eta *basolan, basomutil, basotu* «oihandu», *basozain, basozaintza* bestetik; hots, *basa-* «basati» zentzuko eratorriak eratzeko agertzen da, eta *baso-* «baso»-renak egiteko hain zuzen.

**basoerdi:** *baxoerdi* da idazkera zuzena.

**bat-bedera, bat bedera, bapedera:** *batbedera* da idazkera zuzena.

**bataila:** *gudu* hobesten du Hiztegi Batuak.

**batipat:** *batik bat* da idazkera zuzena.

**baxurako arrantza:** Hiztegi Batuak *Heg.* marka ezartzen dio, esapidea gaztelaniazkoa dela adierazteko; nire ustez, frantsesaren eta ingelesaren ildotiko *itsasbazterreko arrantza* dateke euskal ordain egokia.

**bazkaldar:** *bazkaltiar* hobesten du Hiztegi Batuak.

**bazko:** *pazko* da idazkera zuzena.

**bedeikatu:** *bedeinkatu* da idazkera zuzena.

**beginini:** *begi nini* eta *begi-nini* dira, hurrenez hurren, idazkera zuzenak.

**beharrizan:** Hiztegi Batuak *batez ere Bizk.* ikurra ezartzen dio, eta «beharra, premia» hitz hedatuagoen bidez azaltzen du.

**behatz:** Hiztegi Batuak, eskuetako luzakinak izendatzeko, *hatz-i* ematen dio lehentasuna; orobat onartzen ditu, *atzamar, behatz* eta *eri, Bizk.* eta *Gip. eta Naf.* eta *Ipar. eta Naf.* hurrenez hurren.

**behe:** elkartuen lehen osagai gisa bereiz edo marratxoaz idazten da: *behe(-)lailino, behe(-)maila, behe(-)nafarrera*, baina, noski, *behealde*.

**behekalde:** *behealde* da idazkera zuzena.

**bekar:** *makar* hobesten du Hiztegi Batuak.

**bekosko:** *bekozko* da idazkera zuzena.

**belardenda:** *belar denda* eta *belar-denda* dira, hurrenez hurren, idazkera zuzenak.

**benda:** Hiztegi Batuak *Heg.* marka ezartzen dio, gaztelaniazkoa dela adierazteko, eta *lotura* hobesten du.

**benetazko:** *benetako* da idazkera zuzena.  
**menturaz:** *menturaz* da idazkera zuzena.  
**beraganatu:** idazkera zuzena *beraganatu* da.  
**berdeska:** *berdexka* da idazkera zuzena (ik. *-ska/-xka* sarrera).  
**bereiztu:** *bereizi* da idazkera zuzena.  
**berendu:** *beretu* hobesten du Hiztegi Batuak.  
**berenganatu:** *berenganatu* hobesten du Hiztegi Batuak.  
**berenjena:** *alberjina* hobesten du Hiztegi Batuak.  
**beretsu:** *bertsu* da idazkera zuzena.  
**berredura:** *berretura* da idazkera zuzena.  
**berri:** nahiz gomendio gisa oraindik ez den eman, 1994.eko Leioako Biltzarrean Euskaltzaindiak okertzat eman zuen *tanto* \*berri bat egin du Titinek bezalako esaldietan *berri* erabiltzea: horrelakoetan *beste bat* da zuzena: *beste tanto bat egin du Titinek*; orobat *beste bonba batek egin du eztanda* etab.  
**berriemiale:** *berriemiale* da idazkera zuzena.  
**berro:** bigarren adieran — landarearenean — *iturri(-)belar* hobesten da nolabait.  
**bertako, bertakotu, bertan, berton:** anaforikoak direnez gero ezin dira erabili, nire ustez, lehenago esandako zerbaiti ez badagokie (ik. lehen zatiko 17, 18 eta 58. atalak).  
**bertsio:** Hiztegi Batuak *jatorrizko bertsio* esapideko adieran soilik onartzen du; gainerako adieretan *itzulpen, idatzaldi...* erabiltzeko eskatzen du.  
**bertz:** *pertz* da idazkera zuzena.  
**berunkari:** baztergarritzat jotzen du Hiztegi Batuak; ordain gisa *iturgin* ematen du.  
**besa-/beso-:** *beso* hitzak elkarketetako lehen osagai gisa *besa-* forman agertzen da batik bat Hiztegi Batuan: *besaburu, besagain, besagainka, besakada, besanga, besape, besatara* eta *besarte, besaulki, besazpi*; salbuespena *besamotz* da, Hiztegi Batuak *besamotz* hobesten baitu, eta orobat *besondo*.  
**bet-/begi-:** Hiztegi Batuan *bet-* zenbait eratorri fosildutan soilik agertzen da: *bekain, betaurreko, betazal, betazpi, beterrre, betertz, betezpal, betile, betilun, betoker, betondo, betondoko* eta *betzulo*; gainera horietako zenbaitetan *begi* bi-

dezko elkarketa ematen da sinonimotzat: *begi-erre, begi(-)ertz, begi-oker, begi(-)ondo, begi(-)ondoko, begi(-)zulo*; beste hainbat bide «normalaz» eratuak agertzen dira: *begi-betegarri, begi(-)bista, begi(-)keinu, begi(-)kolpe, begi(-)lause, begi(-)nini, begi(-)ukaldi* izenak eta *begibakar, begigorri, begiluze* izenondok. Bestalde *begiarte* forma ematen du Hiztegi Batuak, eta *betarte* gaitzesten.  
**betatxu, betatxatu:** *petatxu, petatxatu* dira, hurrenez hurren, idazkera zuzenak.  
**beterinario:** baztertzeko hitza; *albaitari* da Hiztegi Batuak egokitatzat jotzen duena.  
**betirako:** *betiko* hobesten du Hiztegi Batuak.  
**betun:** Hiztegi Batuak *Heg.* marka ezartzen dio, gaztelaniazkoa dela adierazteko, eta era berean haren kide den frantsesezko *ziraia* ematen du, *Ipar.* ikurrak. Hiztegi Batua ez da gauza izan euskaldun gutzientzat balio dezakeen ordain egokia aurkitzeko.  
**beztu:** *belztu* da idazkera zuzena, eta orobat *belzkeria, belztasun, belztura*.  
**bibliotekari:** *liburuzain* hobesten du Hiztegi Batuak.  
**biolin:** *biolin* da idazkera zuzena.  
**bideska:** *bidexka* da idazkera zuzena, *-xka* baita atzikiaren forma arautua (ik. *-ska/-xka* sarrera).  
**biga:** zenbatzaile hau izenordain gisa soilik onartzen da: *biga etorri dira*; aldiz, *bi ikasle* erabili behar da, ez \**biga ikasle*.  
**bigizta:** *begizta* da idazkera zuzena.  
**biguin:** *bigun* da idazkera zuzena, eta orobat *bigundu, bigungarri, bigunkeria, biguniasun* eta *biguntzaille*.  
**bihozpera:** *bihozpera* da idazkera zuzena, eta orobat *bihozberatasun*.  
**bikari:** *bikario* da idazkera zuzena.  
**bikor:** *pikor* da idazkera zuzena.  
**biku:** *piku* da idazkera zuzena.  
**bildur:** *beldur* da idazkera zuzena.  
**biligarro:** *birigarro* hobesten du Hiztegi Batuak.  
**biolentzia:** *indarkeria* hobesten du Hiztegi Batuak.  
**biper:** *piper* da idazkera zuzena.  
**bipi:** *pipi* da idazkera zuzena.  
**birtute:** *bertute* da idazkera zuzena.  
**biru:** *piru* da idazkera zuzena.

**biuniboko:** Hiztegi Batuan ez da agertzen; *bana* sarrerako *bana-banako* azpisarrean *bana-banako erlazioa* adibidea dator; *bana-banako* hau Mitxelenak eratu bide zuen, ingelesezko *one-to-one*-ren ildotik.

**bizarmakina:** *bizar makina* eta *bizar-makina* dira, hurrenez hurren, idazkera zuzenak.

**bizialargun:** *bizi-alargun* da idazkera zuzena, eta orobat *bizi-alargundu* eta *bizi-alarguntza*.

**bizitze:** *bizitza* hobesten du Hiztegi Batuak.

**bizkailu:** *pizkailu* da idazkera zuzena.

**bizki:** Hiztegi Batuak *Gip.* ikurra ezartzen dio eta *biki* hobesten du.

**biztu:** Hiztegi Batuak *Batez ere Bizk.* marka ezartzen dio eta *piztu* hobesten du.

**biztuera:** *piztuera* da idazkera zuzena.

**blasfemia:** baztergarrizat jotzen du Hiztegi Batuak; ordain gisa *birao* ematen du.

**blusa/brusa:** lehenengoa «emakumeen atorra mota» da eta bigarrena «gizonen jantzia».

**bobeda:** *ganga* hobesten du Hiztegi Batuak.

**bobina:** badu sinonimo jatorra, *haril*.

**bohatsu:** *buhatu* da idazkera zuzena.

**bolajoko:** *bola joko* eta *bola-joko* dira idazkera zuzenak.

**boligrafo:** Hiztegi Batuak *Heg.* marka ezartzen dio, gaztelaniazkoa eta Iparraldekoentzat ulergaitza dela adierazteko, eta *bolaluma* ematen du alboan, euskaldun guztientzako balio dezakeen forma delakoan.

**bolkan:** baztertzeko hitza; *sumendi* da Hiztegi Batuak egokitzen jotzen duena.

**bolondres:** baztergarrizat jotzen du Hiztegi Batuak; ordain gisa *boluntario* ematen du; nolana ere, nire ustez, *borondatezko* ere erabil daiteke, are izen gisa, Hiztegi Batuak galarazten ez duenez gero.

**boltsa:** baztertzeko hitza; *burtsa* eta *poltsa* dira Hiztegi Batuak egokitzen jotzen dituenak.

**bonbilla:** Hiztegi Batuak *Heg.* marka ezartzen dio, gaztelaniazkoa eta Iparraldekoentzat ulergaitza dela adierazteko; bestalde tradizioan beti *-ll-* idatzi denez gero, horrela onartzen du Hiztegi Batuak, ezin baitu batasunaren izenean tradizioko batasuna hautsi.

**bordatu:** *brodatu* hobesten du Hiztegi Batuak.

**bordoi:** *pordoi* da idazkera zuzena.

**borobil:** Hiztegi Batuak *Gip.* marka ezartzen dio eta *biribil* hobesten du.

**borraia, borroina:** *borraja* da idazkera zuzena (ik. *-aia/-aje* sarrera).

**boskarren, bostgarren:** *bosgarren* da idazkera zuzena

**botarri:** *botaharri* da idazkera zuzena<sup>1</sup>.

**botonzulo:** *botoi zulo*, *botoi-zulo* dira idazkera zuzenak.

**botu:** *boto* da idazkera zuzena

**bufanda** Hiztegi Batuak *Heg.* marka ezartzen dio, gaztelaniazkoa eta Iparraldekoentzat ulergaitza dela adierazteko; saihesteko aukera egokienak *lepoko* eta *tapauka* bide dira.

**burdina:** hitz elkartuetako forma *burdin* da Hiztegi Batuko azpisarrera guztietan: *burdin barra*, *burdin hari*, *burdin sare*, *burdin ur*, *burdin ziri*; eta orobat noski, *burdinbide*, *burdingai* eta *burdinola*, eta *burdinurto* izena.

**burduntzali:** *burruntzali* da idazkera zuzena.

**burduntzi:** *burruntzi* da idazkera zuzena.

**burruka:** idazkera zuzena *borroka* da.

**burruntzali:** *burruntzali* da idazkera zuzena.

**buru(-)hezur:** *burezur* hobesten du Hiztegi Batuak.

**buru-:** lehen osagaia *buru* eta bigarrena izenondu bat duten elkartuak, *izen + izenondu* elkartu gehienak (*aurpegiluze / aurpegi luze...*) ez bezala<sup>2</sup>, etenik gabe idazten dira: *buruargi*, *buruarin*, *burubero* etab.

**burumuin:** *burmuin* da idazkera zuzena.

**burutu:** *du* aditz gisa ez da «egin»-en ki-dea, «amaitu»-rena baizik.

**butaka:** *besaulki* hobesten du Hiztegi Batuak.

<sup>1</sup> Hiztegi Batuan bi aldaerak (*botarri* eta *botaharri*) agertzen diren arren, *botaharri* da azkenean Euskaltzaindiak hautatu duena (ik. *Euskera* 2000-1, 181. or.).

<sup>2</sup> Euskaltzaindia (1992b: 56-57).

## C

**camping:** *camping* nahiz *kanpin* biak dira idazkera zuzenak.

## D

**dagoeneko:** iraganaldiko testuinguruetan ere erabil daiteke: *hori, urte haietan, dagoeneko aldarrikatua zuten Altubek eta.*

**dagokionean:** denborazko esaldietan bakarrik onartzen du Hiztegi Batuak: *dagokionean egiten du lan;* besteetan *dagokionez* da forma zuzena.

**dagokionez:** komunztadura behar du testuinguruarekin: *niri dagokidanez, egon zaitetz lasai; amari obeditu zion, ez ordea barauari zegokionez.*

**-dantza:** *dantza* bigarren osagai duten elkartuak marratxoarekin nahi zuriunearekin idazten dira Hiztegi Batuan: *brokel-dantza, ezpata(-)dantza, godalet(-)dantza, jorrai(-)dantza, madari(-)dantza, makil dantza, mutil(-)dantza, pordondantza, sorgin(-)dantza;* salbuespenak *makil dantza -makila-k -a* galtzen duelako elkarke-tan- eta *pordondantza -pordoi* hitzaren el-karketa forma, *pordon*, hautatzen duelako elkartuarentzat Hiztegi Batuak-; bestalde dantza izenetatik at, *sokadantza* idazkera onartu du Hiztegi Batuak.

**dantzatu:** nor osagairik gabeko joskera da sailleko adizlagunaz da: *arratsalde osoan dantzatu naiz;* bestela, noski, *du* saillekoaz: *aurreskua dantzatu dut.*

**dedikazio:** *arduraldi* hobesten du Hiztegi Batuak.

**defendatu:** *-en alde egin, aldeztu, babestu* hobesten du Hiztegi Batuak; bestalde, *defendatu-ri* ez bezala, *Lgart.* ikurra ezartzen dio *defenditu-ri* Hiztegi Batuak.

**deihadar:** *deiadar* da idazkera zuzena.

**deitu:** *nor-nork* nahiz *nork-nori* adizkiak erabil daitezke: *Mikeli deitu diogu* nahiz *Mikel deitu dugu.*

**deitura:** *abizen-ek* baino adiera gehiago ditu, «izengoitia» eta «zerbaiti ematen zaion izena» ere izan baitaiteke; *abizen*

«pertsonek deitura» argibideaz onartzen du Hiztegi Batuak.

**dejeneratu:** *degeneratu* da idazkera zuzena.

**deklaratu:** epaiketaren inguruko adieran onartzen da batez ere; bestela *adierazi, agertu, aitortu, azaldu* etab. hobesten ditu Hiztegi Batuak.

**dekreto:** *dekretu* da idazkera zuzena.

**delako:** aditzaren aldiaren eta numeroaren arabera aldatzen da: *Crimée delako aurkintzan soldadu zaurituen artatzen ari da;* *fakir zelako batek bere lanean nolako gauzak egiten zituen ikusteko;* *short direlako galtzamatzak;* «Zazpigarren...» *zirelako film gehiegi ikusia nintzen.*

**deliberatu:** «erabaki» adieran soilik onartzen du Hiztegi Batuak.

**departamendu/departamentu:** lehenengo «Frantziako administrazio barrutia» da, eta bigarrena «saila».

**derrigor:** Hiztegi Batuak *Heg.* marka ezartzen dio, gaztelaniazkoa dela adierazteko, eta *nahitaez* hobesten du; orobat gertatzen da *derrigorrezko/nahitaezko*-rekin: bestalde, baztertu egiten du Hiztegi Batuak *derrigorrez.*

**derrigortu:** Hiztegi Batuak *Heg.* marka ezartzen dio, gaztelaniazkoa dela adierazteko, eta *beharu* hobesten du.

**desagertarazi:** *desagerrarazi* da idazkera zuzena.

**desarroilatu:** baztertzeko forma; *garatu* da Hiztegi Batuak egokitzen jotzen duen ordaina; orobat *garapen, desarroilo*-ren ordain.

**deseatu:** Hiztegi Batuak *Heg.* ikurra ezartzen dio eta *desiratu* hobesten du.

**desertu.** Hiztegi Batuak *Lit.* ikurra ezartzen dio eta *basamortu* hobesten du.

**desio:** Hiztegi Batuak *Heg.* marka ezartzen dio eta *desira* hobesten du.

**desondra:** Hiztegi Batuak *desohore* hobesten du.

**detenitu:** baztertzeko forma; *atxilotu* da Hiztegi Batuak egokitzen jotzen duen ordaina.

**deuseztu:** *deuseztatu* da forma zuzena.

**dibujo:** baztertzeko forma; *marrakiz, irudi...* dira Hiztegi Batuak egokitzen jotzen dituenak.

**diferente:** *desberdin, ezberdin* hobesten ditu Hiztegi Batuak.

**diferentzia:** *alde, desberdintasun, ezberdintasun* hobesten ditu Hiztegi Batuak.

**dilijentzia:** *diligentzia* da idazkera zuzena: «orga-mota» adieran soilik onartzen du Hiztegi Batuak.

**dinosaurio, dinosaurus:** *dinosauro* da idazkera zuzena.

**diruzantza:** *diruzaintza* da idazkera zuzena.

**diska:** *disko* da idazkera zuzena.

**disolbatu:** Hiztegi Batuak Kimikaren arloan soilik onartzen du; beste eremuetan hobe *desegin, sakabanatu, urtu*, etab.

**destilatu:** *destilatu* da idazkera zuzena.

**disziplina, diszipulu:** *diziplina, dizipulu* da idazkera zuzena.

**titare:** *titare* da idazkera zuzena.

**diti:** *titi* da idazkera zuzena.

**doarik:** *doan* hobesten du Hiztegi Batuak.

**doe:** *dohain* da idazkera zuzena.

**dohainik:** badu sinonimo betea, *doan*.

**dorpe:** «astuna, zaila, gogorra» esan nahi duela —eta ez «moldakaitza» edo— argitzen du Hiztegi Batuak, eta bi adibide ematen ditu: *Afrikako eguzki dorpea; hau bizitza dorpea*.

**dotrina:** Hiztegi Batuak *kristau(-)ikasbi-dea* hobesten du lehen adieran, eta *doktrina* hobesten du bigarreanean.

**drogo-:** Hitz elkarketako lehen osagai gisa *droga* forma dagokia, ez \**drogo*, Hiztegi Batuak jasotzen ez duen *droga-mendekotasun*, adibidez.

**dupin(a):** *tupina* da idazkera zuzena.

**duro:** *ogerleko* hobesten du Hiztegi Batuak.

## E

**ebaketa:** Matematikaren eta Logikaren alorretan onartzen du Hiztegi Batuak.

**ebatondo:** *ebakiondo* da idazkera zuzena.

**edade:** *adin* hobesten du Hiztegi Batuak; orobat *adindun* eta *adindu*.

**edalontzi:** maila berean onartzen du Hiztegi Batuak *edontzi*.

**edifizio:** baztertzeko forma; *eraikin* da Hiztegi Batuak egokitzen jotzen duen ordaina.

**editorial:** «aldizkarietako artikulua mota» adieran soilik onartzen du Hiztegi Batuak.

**edukin:** *eduki* da forma zuzena.

**efekto:** *efektu* da idazkera zuzena.

**egonezin:** izen eta izenondo gisa onartzen du Hiztegi Batuak.

**egotaldi:** Hiztegi Batuak *Bizk.* marka ezartzen dio eta *egonaldi* hobesten du.

**egurgin:** *egurgile* hobesten du Hiztegi Batuak.

**ehizi, ehizketa:** *ehiza* da idazkera zuzena; ehizatu den animalia adierazteko *ehiza* nahiz *ehizaki* erabil daitezke.

**ehun:** aditz gisa *ehundu* da forma zuzena.

**ehundaka:** *ehunka* da idazkera zuzena.

**ejerzito:** gaztelaniazko hitz honek tradizio urria du eta baztergarriztat jotzen da Hiztegi Batuan; onartzen diren ordainak *armada* eta *gudaroste* dira.

**ekidin:** badu sinonimo bat tradizioan erabiliagoa, *saihestu*.

**ekilibrio:** baztertzeko forma; *oreka* da Hiztegi Batuak egokitzen jotzen duen ordaina.

**ekoiztu:** Hiztegi Batuak *ekoizti* hobesten du; arazlearen forma *ekoitzarazi* da.

**ekadore:** *ekuatore* da idazkera zuzena.

**elaberri:** *eleberri* da idazkera zuzena.

**ele bitan:** ez da, noski, inondik ere jasotzen Hiztegi Batuan.

**eman:** Euskal Hiztegiak ez du onartzen *eman* aditza erabiltzea *neska-mutikoen artean ematen diren liskarrak* bezalako joskeretan: horrelakoetan *gertatu* erabili behar da.

**emendakin:** «eranskin» adieran soilik onartzen du Hiztegi Batuak; bestela *zuzenketa* da ordain egokia.

**emozio:** *zirrara* hobesten du Hiztegi Batuak.

**enganatu, enganio:** *engainatu, engainu* hobesten ditu Hiztegi Batuak.

**enkargu:** *mandatu* hobesten du Hiztegi Batuak.

**enparatu:** *enparau* da idazkera zuzena.

**enpresari:** berariaz ez da azaltzen Hiztegi Batuan; bai, aldiz, *enpresaburu*.

**entrepresa:** *enpresa* da idazkera zuzena.

**entretenu:** bi adiera ditu: lehena, «jostatu, jostarazi», *Heg.* ikurrak markatzen du, Iparraldean arrotza gertatzen dela adierazteko; bigarrena, *Ipar.* ikurrak hornitua gure «mantendu»-ren ordain da.



**entseiatu, entseiu:** *entseatu, entsegu* dira, hurrenez hurren, idazkera zuzenak; biok *Lap. eta BNaf.* ikurraz ematen ditu Hiztegi Batuak.

**entzulego:** baztertze forma; *entzuleria, entzuleak* dira Hiztegi Batuak egokitzen jotzen dituenak (ik. lehen zatiko 52. atala).

**epotx:** *ipotx* da idazkera zuzena.

**erabakior:** baztertze forma; *erabakigarri* da Hiztegi Batuak egokitzen jotzen duena (ik. lehen zatiko 51. atala).

**erabilpen:** *erabilera* hobesten du Hiztegi Batuak.

**erahil:** *erail* da idazkera zuzena.

**eraikin:** *eraikuntza* hitza ere jasotzen du Hiztegi Batuak.

**erakunde ez gubernamental:** *gubernuz kanpoko erakunde* da forma zuzena.

**erakusaldi:** *erakustaldi* da idazkera zuzena.

**erakus-leiho, erakus-mahai:** *erakusleiho, erakusmahai* dira idazkera zuzenak.

**erakustarazi:** *erakustarazi* da idazkera zuzena.

**eralgi/eralki:** lehendabizikoa *dirutza handia eralgi zuen* bezalako joskeretan erabiltzen da; bigarrenaren esanahia «bahetu» da.

**eraskin, eraskor:** *eraskin, eraskor* dira, hurrenez hurren, idazkera zuzena.

**ere:** Ik. lehen zatiko 4. atala.

**erietxe:** *erietxe* da idazkera zuzena.

**eritzi:** *iritzi* da idazkera zuzena, eta orobat *irizpide*.

**erkide:** izen gisa «partaide, bazkide» adiera du; izenondo gisa *komun* du sinonimo.

**erla-/erle-:** *erla-, erlategi* eta *erlauntz* eratorrietan azaltzen da; besteetan —*erle-hazkuntza, erlekume, erlezain, erlezaintza—erle-* agertzen da.

**erloiu:** *erloju* da idazkera zuzena.

**erlojari:** baztertze forma; *erlojugile, erloju(-)konpontzaile, erloju(-)saltzaile* dira Hiztegi Batuak egokitzen jotzen dituen ordainak (ik. lehen zatiko 48. atala).

**ernalhazi:** nahiz eta arauaren arabera aditz erro + izen elkarteak hitz batean idazten diren, kasu honetan *ernal-hazi* da idazkera zuzena.

**erorketa:** *eroriko* hobesten du Hiztegi Batuak.

**errada:** *edarra* da idazkera zuzena.

**erradiazio:** badu sinonimo bat, *irrada*.

**errazional:** *arrazional* da idazkera zuzena.

**errebista:** *aldizkari* hobesten du Hiztegi Batuak.

**erreboluzio:** *iraultza* alde batetik eta *bira, itzuli* bestetik hobesten ditu Hiztegi Batuak.

**errefain:** baztertze forma; *atsotitz* da Hiztegi Batuak egokitzen jotzen duen ordaina.

**erreflexio:** baztertze forma; *gogoeta, hausnarketa* dira Hiztegi Batuak egokitzen jotzen dituenak, eta Fisikaren alorrean, *islatze*.

**errefrau:** *atsotitz* hobesten du Hiztegi Batuak.

**errege-bide/errepide:** lehendabizikoak antzinako bide zabala izendatzen du; bigarrenak oraingoak, berebilentzakoak. Bestalde, *erret* forma, literatura tradizioan inoiz agertzen ez dena, ez da Hiztegi Batuan azaltzen.

**erregelatu:** *arautu* hobesten du Hiztegi Batuak.

**errejistro:** *erregistro* da idazkera zuzena.

**errektore/erretore:** lehendabizikoa hezkuntza sistemakoa da; bigarrena, parrokiako arduradun nagusia.

**erreminta:** sinonimo jator eta txukuna badu, *lanabes*.

**errepresentatu:** baztertze forma; *antzetu, irudikatu, ordezkatu* alde batetik, eta *adierazi...* bestetik, dira Hiztegi Batuak egokitzen jotzen dituen ordainak.

**erreskada:** *errenkada* hobesten du Hiztegi Batuak.

**errexin:** *erretxina* da idazkera zuzena.

**errodaia, errodatu:** ez dira agertzen Hiztegi Batuan; bai, aldiz, *filmatu*.

**erropa:** *arropa* da idazkera zuzena.

**errore:** Matematikaren arloan onartzen da.

**errumes:** *erromes* da idazkera zuzena.

**erten:** *irten* da idazkera zuzena.

**esannahi, esan-nahi:** *esanahi* da idazkera zuzena.

**eskailburu:** *eskailera buru, eskailera-buru* formak hobesten ditu Hiztegi Batuak.

**eskalera:** idazkera zuzena *eskailera* da.

**eskaratz:** *ezkaratz* da idazkera zuzena.

**eskerrak:** *eskerrak ez dela etorri* joskera, *eskerrak etorri ez den* bezain egokia da.

**eskilara:** *eskailera* da idazkera zuzena.

**esklabu:** ez da ia inoiz agertzen literatura tradizioan; *esklabo* da idazkera zuzena.

**eskoletxe:** *eskola etxe*, *eskola-etxe* dira idazkera zuzenak.

**esku-:** *esku* + *izen* elkartetak hitz batean idatziak agertzen dira Hiztegi Batuan: *eskuizkribu*, *eskulan*, *eskulangile*, *eskulangintza*, *eskularru*, *eskuleku*, *eskuliburu*, *eskumakila*, *eskumuin*, *eskumutur*, *eskumuturreko*, *eskuoihal*, *eskusoinu*, *eskutoki*, *eskutrapu*, *eskuzapi*, *eskuzatar*, *eskuzerra*, *eskuzorro*; salbuespen bakarrak *esku-argi* eta Iparraldeko *esku-zarta*, *esku-zartaka* dira.

**eskuibi:** *eskuin* da idazkera zuzen bakarra.

**eskuibila:** *eskuila* da idazkera zuzena.

**eskuierakutsi:** *esku-erakutsi* da idazkera zuzena.

**eskui:** *eskuin* da idazkera zuzen bakarra.

**eskukada:** *eskutada* hobesten du Hiztegi Batuak.

**eskuma:** Hiztegi Batuak *Bizk.* marka ezartzen dio eta *eskuin* hobesten du.

**eskuorga:** *eskorga* da idazkera zuzena.

**eskutur:** Hiztegi Batuak *Bizk.* marka ezartzen dio eta *eskumutur* hobesten du.

**eskuzarta:** *esku-zarta* da idazkera zuzena, eta orobat *esku-zartaka*.

**esparadrapo:** *esparatrapu* da idazkera zuzena.

**esparrago:** *zainzuri* hobesten du Hiztegi Batuak.

**espia:** *espioi* da idazkera zuzena.

**esplotatu:** *leher egin* alde batetik, eta *ustiatu* bestetik, hobesten ditu Hiztegi Batuak.

**esplotazio:** *ustiapen* hobesten du Hiztegi Batuak.

**estai:** *solairu* hobesten du Hiztegi Batuak.

**estamine:** *badu* sinonimo bat, *lorezil*.

**este:** *heste* da idazkera zuzena, eta orobat *hestegorri*.

**estuasun:** *estutasun* da idazkera zuzena.

**estreina:** *estreina* da idazkera zuzena, eta orobat *estreinaldi*, *estreinatu*; bi adiera ditu *estreina*-k: bata Iparraldekoa *inaugurazio*-ren kidea, eta bestea Hegoaldekoa, «lehenbiziko aldiz erabiltzea».

**estropozo:** *estropezu* da idazkera zuzena.

**etengabe:** ik. **-gabe**

**etxabere** *etxe abere*, *etxe-abere* dira idazkera zuzenak.

**etxabizitza, etxagintza:** *etxebizitza*, *etxegintza* dira hurrenez hurren, idazkera zuzenak.

**etxape:** *etxepe* da idazkera zuzena.

**etxeke andre:** *etxekeandre* da idazkera zuzena.

**etxe tresna:** *etxetresna* da idazkera zuzena.

**etzin:** *etzan* hobesten du Hiztegi Batuak.

**eurijasa:** *euri jasa*, *euri-jasa* dira idazkera zuzenak.

**euskaldunberri:** *euskaldun berri* da idazkera zuzena.

**examina, exenplu:** *etsamina*, *etsenplu* dira idazkera zuzenak.

**existitu:** *da* aditza dela adierazten du Hiztegi Batuak.

**expres:** *espres* da idazkera zuzena.

**ezagupen maila:** baztertze forma; *jakite maila* da Hiztegi Batuak egokitzen josten duena.

**ezein:** ezezko esaldietan erabiltzen da, beti izenarekin: *ezein gizoni ez zaio gertatu*; gainerako joskerak ez ditu onartzen Hiztegi Batuak.

**ezezik:** *ez ezik* da idazkera zuzena (ik. lehen zatiko 6. atala).

**ezik:** «salbu» adieran *izan ezik* da esapide zuzena (ik. lehen zatiko 5. atala).

**ezin izan:** *da* aditzekin, *da* bidez da joskera: *ezin da etorri* (ik. lehen zatiko 24. atala).

**ezkero:** *eguerdiko hamabiak ezkero* moduko esaldietan, eta *honezkero*, *horrezkero*, *harrezkero* esapideetan bakarrik erabili behar da; gainerakoetan, *-ezgero* da idazkera zuzena.

**ezkon-ahizpa, ezkon-anaia, ezkon-arreba:** *ezkonahizpa*, *ezkonanaia*, *ezkonarreba* dira idazkera zuzenak.

**ezkontsari:** *ezkonsari* da idazkera zuzena.

**ez-ordu:** *ezordu* da idazkera zuzena.

**ezorganiko:** *ez-organiko* da kimika alorreko izenondo honen idazkera zuzena.

**ezpatadantza:** *ezpata dantza*, *ezpata-dantza* dira idazkera zuzenak.

**ezpatarrain:** *ezpata arrain*, *ezpata-arrain* dira idazkera zuzenak.

**eztera:** *geztera* da idazkera zuzena.

**ez-urte, ez-uste:** *ezurte*, *ezuste* dira idazkera zuzenak; orobat *ezustean*, *ezusteko*.

## F

**laboratu:** zaharkituztat jotzen du Hiztegi Batuak: *fabore egin, mesede egin* hobesten ditu.

**fabrika:** inolako markarik gabe jasotzen du Hiztegi Batuak, ik. **lantegi**.

**facsimile:** *facsimile* eta *faksimile*, biak maila berean onartzen ditu Hiztegi Batuak.

**fagore:** *fabore* da idazkera zuzena.

**fazismo:** *faxismo* da idazkera zuzena; eta orobat *faxista*.

**feto:** *fetu* da idazkera zuzena; bestalde *umeki* lehenesten du Hiztegi Batuak.

**fidantzia:** «uste ona» esaldiaz ematen du Hiztegi Batuak; hiztegian ez da *fidantza* agertzen.

**fidel:** inongo markarik gabe onartzen du Hiztegi Batuak, *leial* sinonimoa bezala; baina OEHren arabera *leial*-ek tradizio hobe da nabarmen.

**filme:** *film*, nazioarteko forma eta K. Mitxelena beti erabili zuena, da idazkera zuzena; Hiztegi Batuak *pelikula* ere onartzen du, baina *Heg.* ikurraz eta *film* hobesten duela adieraziz.

**filmoteka:** «mikrofilmen biltegi» adieran soilik onartzen da; bestela, *zinemateka* da forma zuzena.

**final:** Hiztegi Batuak, *final*-ez gainera, *final-laurden* eta *final-zortziren* jasotzen ditu, eta *finalaurreko*, *finalerdi* sinonimoak.

**finkatu:** Hiztegi Batuak ez du onartzen *da* aditz gisa, \**Donostian finkatu* dira bezalako joskeretan; horrelakoetan *kokatu* erabili behar da: *Donostian kokatu ziren*.

**firu:** *piru* da idazkera zuzena.

**fisiko/fisikari:** lehendabizikoa izendondo gisa soilik onartzen da, eta bigarrena izen gisa soilik (ik. lehen zatiko 48 eta 49. atalak).

**flora:** badu sinonimo bat, *landaredi*.

**flota:** ez da agertzen Hiztegi Batuan, bai, aldiz, *ontzidi*.

**fluoro:** *fluor* da idazkera zuzena.

**fondo:** gaztelaniazkoa eta Iparraldekoentzat ulergaitza da hitz hau; hortaz, Hiztegi Batuak *funts* hobesten du, Europako gainerako hizkuntzen ildotik, *maileguaren funtsa* eta *korrituak* adibidean, esaterako.

**foral:** inongo markarik gabe onartzen du Hiztegi Batuak, baina *foru* sarreran *Foru Aldundi*, *Foru Diputazio*, *Foru Erkidego* azpisarrerak jasotzen ditu.

**fosilizatu:** *fosildu* da forma zuzena (ik. lehen zatiko 55. atala).

**fotokonposaketa:** baztertzeko forma; *fotokonposizio* da Hiztegi Batuak egokituz jotzen duena (ik. lehen zatiko 46.2 azpiatala).

**fraile:** *fraide* da idazkera zuzena.

**fraka:** *praka* da idazkera zuzena.

**franela:** *flaneta*, hots, nazioarteko forma, onartu du Hiztegi Batuak.

**frantses:** «herritarra» adieran *frantziar* du sinonimo; «hizkuntza» adieran Hiztegi Batuak ez du sinonimorik ematen eta *frantziara* ez du jasotzen.

**freno:** inongo markarik gabe jasotzen du Hiztegi Batuak, eta orobat *galga*, *galga eman* azpisarreraz jasotzen dena; *balazta* ere jasotzen du, «freno, galga» argigarriaz.

**frente:** *fronte* da forma zuzena.

**froga:** «zerbait egia dela finkatzeko edo egiaztatzeko balio duena» adieran onartzen du Hiztegi Batuak; bestetan *proba* da forma zuzena; orobat gertatzen da *frogatu/probatu*-rekin.

**frogeta:** *probeta* da idazkera zuzena.

**frontoi:** arkitekturako adieran onartzen da; bestela *pilotaleku* hobesten da.

**frutu:** *fruitu* da idazkera zuzena.

**fuelolio:** *fuel olio* eta *fuel-olio* dira idazkera zuzenak.

**funditu:** *bonbilla funditu* esaldiko adieran *erre* — *bonbilla erre* — hobesten du Euskaltzaindiak.

**funtzionari:** *funtzionario* da idazkera zuzena (ik. lehen zatiko 49. atala).

**funtzionatu:** Hiztegi Batuak *makina horrek ez du funtzionatzen* esaldiaren kidetzat *makina horrek ez du lan egiten* eta *makina hori ez dabil* ematen ditu; ikus orobat *alatu* sarrera.

**fuselaia:** *fuselaje* da idazkera zuzena (ik. *-aia/-aje* sarrera).

**futbito:** era arautua *areto(-)futbol* da.

**futbolin:** baztertzeko forma; *mahai(-)futbol* da Hiztegi Batuak egokituz jotzen duena.

## G

**-gabe:** Hiztegi Batuan, bigarren osagai gisa *-gabe* duten elkartuak baturik idazten dira izenondo direnean eta bi hitzetan adizlagunak direnean: *gizon burugabea* baina *buru(rik) gabe jokatu zuen*; antza denez, *etengabe* da salbuespen bakarra Hiztegi Batuan, *izond.* eta *adlag.* ikurrez agertzen baita.

**gabinete:** *kabinete* da idazkera zuzena.

**gaindi:** *-z gaindi/-n gaindi* postposizioei dagokienez, bigarrenari adibide bat, *elkarrekin zebiltzan Galilean gaindi*, gehitzen dio Hiztegi Batuak, *-z gaindi* baino gehiago erabiltzen dela adierazteko.

**gaindu:** *gainditu* hobesten du Hiztegi Batuak.

**gainontzean:** Hiztegi Batuak *Gip. eta Naf.* marka ezartzen dio eta *gainerakoan* forma hobesten du; orobat *gainontze-kol/gainerako-ri* dagokionez.

**gaiso:** *gaixo* da idazkera zuzena.

**gajo:** Hiztegi Batuak *Gip.* marka ezartzen dio eta emakumezkoei dagokiela adierazten du.

**gako:** «giltza» adiera ematen dio Hiztegi Batuak; bestela *kako* da forma zuzena; orobat, *gakotu* «giltzatu»-ren kide da.

**galde-zeinu, galdemarka, galdeikur:** baztertzeko formak; *galdera(-)marka* da Hiztegi Batuak egokituz jotzen duena.

**galego:** «hizkuntza» adieran soilik onartzen du Hiztegi Batuak, eta *galiziera* sinonimotzat ematen.

**galkatu:** «mukuru bete» adieran soilik onartzen du Hiztegi Batuak; bestela *kalkatu* erabili behar da.

**galtza motz:** *galtzamotoz* da idazkera zuzena.

**galtzarpe:** *galtzarbe* da forma egokia.

**ganbara/ganbera;** lehendabizikoari *Heg.* marka ezartzen dio Hiztegi Batuak eta «teilatupeko solairu» adieran soilik onartzen du; bigarrenari bi adiera ematen dizkio: lehena «logela», *Ipar.* ikurrarekin, eta bigarrena administrazio alorrekoa, *diputaduen ganbera, merkataritza ganbera, ganbera musika* adibideen bitartez argitzen duena.

**gar:** irudizko zentzuan *kar* hobesten da: *zure amodioaren kar saindua*.

**garaikide:** Hiztegi Batuak ez du joskeraz ezer argitzen; nire ustez *-en garaikide izan* esaldikoa da joskera mota jator bakarra.

**garaitezin:** *garaiezin* da idazkera zuzena.

**garatxa:** *garatxo* da idazkera zuzena.

**garbantzu:** *txitxirio* hobesten du Hiztegi Batuak.

**gardabera, gardu:** *kardabera, kardu* dira idazkera zuzenak.

**garitxa:** *garatxo* da idazkera zuzena.

**garrainsi, garraxi:** *garrasi* da idazkera zuzena.

**gartsu:** idazkera zuzena *kartsu* da; orobat *kartsuki* eta *kartsutasun*.

**gartzela:** *kartzela* da idazkera zuzena.

**gasa:** ehun motarentzat, *gaza* nazioarteko idazkera da idazkera zuzena.

**gasoil:** *gasolio* da idazkera zuzena.

**gasolindegi:** (*gasolina*) zerbitzugune hobesten du Hiztegi Batuak.

**gatilu:** *katilu* da idazkera zuzena.

**gau:** Hiztegi Batuak adierazten duenez, deklinabide berezia du: *gauk, gauri, gauren, gauez* mugagabeen, eta *gauean, gaueko, gauetik, gauera, gauaz* singularrean; lehen osagai gisa *gau* duten elkartuei dagokienez, *gau(-)eskola, gau(-)lore, gau(-)mahai, eta gaubeila, gauenara, gaupasa, gautxori* jasotzen dira Hiztegi Batuan.

**gaurkoan:** *gaur* hobesten du Hiztegi Batuak.

**gatzangintza:** *gatzagintza* da idazkera zuzena.

**gatzagin:** *gatzagin* da idazkera zuzena; Hiztegi Batuak *Bizk.* ikurra ezartzen dio eta *gatzagile* lehenesten.

**gatzategi:** *gatzandegi* da idazkera zuzena.

**gatzedi:** *gatzeria* hobesten du Hiztegi Batuak.

**gatzelera:** *gatzelania* hobesten du Hiztegi Batuak.

**gatzun:** *gatzdun* da idazkera zuzena.

**gedar:** *kedar* da idazkera zuzena.

**gehiegi:** Hiztegi Batuak ezer esaten ez badu ere, *ez daki matematika gehiegi* bezalako joskerak, tradizioan agertzen ez direnak eta gatzelaniak eraginak direnak, badirudi baztergarriak direla; nire ustez horrelakoetan *asko, askorik* erabili behar dira.

**gehienetan:** hori bezain zuzen da *gehienean*.

**gelaska:** *gelaxka* da idazkera zuzena; Hiztegi Batuak erleena izendatzeko onartzen du (ik. *-ska/-xka* sarrera).

**general:** *jeneral* da idazkera zuzena.

**gereta:** *kereta* da idazkera zuzena.

**gero:** Hiztegi Batuak adierazten duenez, *eta gero* era burutuaren ondotik erabiltzen da, ez izenaren ondotik: *bilera bukatu eta gero etxera abiatu ziren*; \**bilera eta gero*-ren orde *bileraren ondoren* ematen du (ik. lehen zatiko 30. atala).

**gerra(-)gizon:** *gerrari* hobesten du Hiztegi Batuak.

**gerrila:** *gerrilla*, nazioarteko forma, da idazkera zuzena.

**gertsei:** *jertse* da idazkera zuzena.

**giharre:** *gihar* da forma zuzena.

**gilofina:** *gillotina* da idazkera zuzena, eta orobat *gillotinatu*.

**gimnasia:** *gimnastika* hobesten du Hiztegi Batuak, hau baita nazioarteko forma eta Iparraldekoek, grafia gorabehera, erabiltzen dutena; bestalde, *gimnasio* jasotzen du Hiztegi Batuak.

**ginda:** *ginga* da idazkera zuzena.

**ginebra:** *gin*, hots, nazioarteko forma, da Euskaltzaindaireen ustez erabili behar dena.

**girafa:** *jirafa* da idazkera zuzena.

**girtain:** Hiztegi Batuak *Ipar*. marka ezartzen dio eta *gider*, *kirten* hobesten ditu.

**girten:** *kirten* da idazkera zuzena.

**gizagajo:** *gizagaixo* da idazkera zuzena.

**gizajo:** Hiztegi Batuak *Lgart*. marka ezartzen dio eta *gizagaixo* lehenesten du.

**gloria:** otoitz izen gisa soilik onartzen du Hiztegi Batuak; bestetarako *aintza*, *loria* erabili behar dira.

**goarda, goardia:** tradizioaren araberako *guarda*, *guardia* dira idazkera zuzenak, eta orobat *guardia zibil*.

**goardasol(a):** *guardasol* da idazkera zuzena: Hiztegi Batuak *Heg. Lgart*. ikurra ezartzen dio eta *aterki* lehenesten du.

**goibehe:** *goi-behe* da idazkera zuzena.

**goilare:** *koilara* da idazkera zuzena.

**goitibeheti:** *goiti-beheiti* da idazkera zuzena.

**goizalde:** «egunsenti» adieran onartzen du, eta baztertzen du \**goizaldea lanean*

*eman dute* bezalako esaldietan: horietan, *goiza*, *goiz-partea* erabili behar dira.

**golko:** geografia eremuan soilik onartzen da; bestela *kolko* da idazkera zuzena.

**gonbidatu:** nor-nork saileko adizkia eskatzen du: *Milek gonbidatu dute*.

**gomit:** *gonbit* hobesten du Hiztegi Batuak, eta orobat *gonbidatu*.

**gora-behera:** *gorabehera* da kasu guztietan idazkera zuzena; orobat *gutxi gora-behera*.

**gordairu:** *gordailu* da idazkera zuzena.

**gorporazio:** *korporazio* da idazkera zuzena.

**gorriska:** *gorrixka* da idazkera zuzena, eta orobat *gorrizta* (ik. *-ska/-xka* sarrera).

**gortina:** hitza Hegoaldean soilik erabili da; Hiztegi Batuak *errezel* hobesten du.

**gostu:** *gustu* da idazkera zuzena.

**goto:** *godo* da idazkera zuzena.

**grabatu/irarri:** Biak onartzen ditu Hiztegi Batuak; kontuan izan behar da *disco bat grabatu* esaldiko adieran gaztelaniaz soilik erabiltzen dela *grabar*: frantsesez *enregistrer* da, katalanez *enregistrar*, ingelesez *to record*, italieraz *registrare*, alemanez *aufnehmen*... Hiztegi batuan *grabatu* sarreran ez da adibiderik ematen; *irarri* sarreran, *igeltsu etabarretan irarritako lerroak*.

**grado:** *gradu* da idazkera zuzena.

**grua:** baztertzeko hitza; *garabi* da Hiztegi Batuak egokitzat jotzen duen ordaina.

**guardia:** lehen adieran *zaintza* eta bigarrenean *zaintzaile*, *udaltzain*... hobesten ditu Euskaltzaindiak.

**guda, gudagizon:** *gerra* eta *gerra(-)gizon*, *gerrari* hobesten ditu Hiztegi Batuak; *gudamutil*, *gudari*, *gudaritza*, *gudalburu*, *gudaldi* inongo markarik gabe ematen ditu.

**gudaroste:** *harmada* hobeste du Hiztegi Batuak.

**gudukatu:** nor osagairik gabeko joskera da saileko adizlagunaz da: *etsai bortitzenekin gudukatu dira*; bestela, noski, du sailekoaz: *beti gudukatu ditu bere etsaiak*.

**-gune/-une:** Hiztegi Batuak gaur egungo testuetan aski zabaldua dirudien eta hizkuntzaren aurrerabidean eraginkorra bide den banaketa hau bultzatzen du:

**gune** eta **une** atzizki gisa erabiltzea, lehena leku zentzua duten eratorriak osatzeko eta bigarrena denbora zentzua duten eratorriak osatzeko. Hortaz, esaterako, *abiagune*, abiatzeko gune edo tokia da, eta *geldiune*, zerbait gelditzen den denbora edo unea. Salbuespenak, koloreei dagozkien eratorriak eta *hutsune* dira: koloreetan, *-une* bidezko eratorriak tokia adierazten dute; adibidez, *gorriune* bat, orban edo toki gorria da, edo gorritz margoturiko gunea. Bestela jokatzek tradizioetik gehiegi urruntzea ekarriko lukeela ikusteak bultzatu du Hiztegi Batua horrela jokatzera; arrazoi beragatik «leku edo bitarte hutsa» *hutsune* bat da, eta ez *\*hutsune* edo *\*husgune* bat. Nolanahi ere, beste bi salbuespen badira Hiztegi Batuan: *okerrune* eta *sakonune*, ez baitago tradizioan, antza denez, *okergune* nahiz *sakongune*-ren inongo lekukotasunik.

**gurpen:** *gurtza* hobesten du Hiztegi Batuak.  
**gurutzegrama:** *hitz gurutzatuak* hobesten du Hiztegi Batuak.

**gusto:** *gustu* da idazkera zuzena, eta orobat *gustuko*, *gustura*.

**gutxi gora-behera:** *gutxi gorabehera* da idazkera zuzena.

**guzi:** *guzti* hobesten du Hiztegi Batuak; bestalde, *hau guztia*; *bide hartan guztian*, *horiekin guztiekin*, *hau guztiau*; *hori guztiori* adibideak ematen ditu.

## H

**haitzur:** *aitzur* da idazkera zuzena, eta orobat *aizkora*.

**haltzari:** *altzari* da idazkera zuzena.

**haize-maila:** *haizemaile* da idazkera zuzena.

**haizerrota, haizeorratz:** *haize errota*, *haize-errota* eta *haize orratz*, *haize-orratz* dira idazkera zuzenak.

**hamabosteroko:** *hamaboskari* hobesten du Hiztegi Batuak.

**hamazortzi:** *hemezortzi* hobesten du Hiztegi Batuak.

**hamu:** *amu* da idazkera zuzena.

**hanbat:** *hainbat* da forma zuzena.

**hangare:** *hangar* da idazkera zuzena.

**hanitz:** *anitz* da idazkera zuzena.

**hantuste, handiuste:** bi sinonimoak onartzen ditu Hiztegi Batuak maila berean.

**harbitxi:** *harribitxi* da idazkera zuzena.

**harez gero:** *harrezkero* da idazkera zuzena.

**harma:** *arma* da idazkera zuzena, eta orobat eratorrietan, *armagin*, *armarri*, *armategi*.

**harnabar:** *harrinabar* hobesten du Hiztegi Batuak..

**harpoi:** *arpoi* da idazkera zuzena.

**harri bitxi:** *harribitxi* da idazkera zuzena.

**harri:** ia atzizkitzat erabiltzen du Hiztegi Batuak: *armarri*, *bataiarri*, *botaharri*, *errotarri*, *giltzarri*, *hilarri*, *kareharri*, *labainarri*, *latsarri*, *nabarri*, *oinarri*, *oroitarri*, *puxtarri*, *suharri*, *trikuharri*, *tuparri*, *tupustarri*, *txintzarri*, *zaparri*, *zedarri*, *zimentarri*, *zinginarri*, *zintarri*, *zintzarri*, *zorrotzarri*, *zutarri*; salbuespenak *behaztopa(-)harri* eta *iman(-)harri* dira, lehendabizikoa lau silabako lehen zatia duelako, eta bigarrena *nh* elkarretaratzea saihesteko, antza denez.

**harridura-ikur:** baztertze forma; *harridura* marka eta *harridura-marka* dira Hiztegi Batuak egokitatz jotzen dituenak.

**harrukaldi:** *harri ukaldi*, *harri-ukaldi* dira idazkera zuzenak.

**hasarre:** *haserre* da idazkera zuzena, eta orobat *haserretu*.

**haserratu:** *haserretu* da idazkera zuzena.

**hasgabe:** *hats-gabe* da idazkera zuzena, eta orobat *hats-gabetu*.

**hartzi:** era burutuan *hartzi* nahiz *hartzitu* erabil daitezke.

**hats-beherapen, hats-gorapen:** *hasbeherapen*, *hasgorapen* dira, hurrenez hurren, idazkera zuzenak; lehena *Ipar*. ikurras jasotzen da, eta «hasperena» lehenesten du Hiztegi Batuak.

**hatsapen:** *hastapen* da forma zuzena.

**hatsartze:** *hats hartze* eta *hats-hartze* dira idazkera zuzenak.

**hatzamar:** *atzamar* da idazkera zuzena.

**hatzazal:** forma zuzena *azazkal* da.

**hatzeman:** *atzeman* da idazkera zuzena.

**haundi:** *handi* da forma zuzena.

**hausketa:** *hauste* hobesten du Hiztegi Batuak.

**hausnartu:** *hausnartu* da forma zuzena.

**haustaile:** *hausle* hobesten du Hiztegi Batuak (ik. lehen zatiko 46.1 azpiatala).

**hauzo lan auzolan** da idazkera zuzena.

**hazil:** *Lap. eta BNaf.* ikurra ezartzen dio Hiztegi Batuak, eta *azaro* hobesten du.

**hazkura:** *azkura* da idazkera zuzena.

**hazteria:** *hazteri* hobesten du Hiztegi Batuak.

**hedoi:** *hodei* da idazkera zuzena.

**hegada:** *hegaldi* hobesten du Hiztegi Batuak.

**hegalaldi:** ez du jasotzen Hiztegi Batuak; bai, aldiz, *hegaldi*.

**hemezazpi:** *hamazazpi* da idazkera zuzena.

**herdoilgarri/herdoilkor:** lehen «herdoiltzen duena» da, eta bigarrena «erraz herdoiltzen dena» (ik. lehen zatiko 51. atala).

**hereje:** Hiztegi Batuak *Heg.* marka ezartzen dio eta *heretiko*, Iparraldeko eta nazioarteko forma, hobesten du.

**herejia:** *heresia* da idazkera zuzena.

**herentzia:** Hiztegi Batuak *Heg.* marka ezartzen dio eta *ondoretasun* lehenesten du.

**herese, herexe:** baztertzeo idazkerak: ik. **hereje**.

**heriotze:** *heriotza* da forma zuzena.

**heroe:** *heroi* da forma zuzena.

**heroina:** droga adieran soilik onartzen du Hiztegi Batuak.

**herriska:** *herrixka* da idazkera zuzena (ik. *-ska/-xka* sarrera).

**herts:** izenondo gisa soilik onartzen du Hiztegi Batuak «estua» adieran; aditz gisa *itxi, hetsi* dira onartzen diren formak.

**hestu, herstu:** *estu* da idazkera zuzena.

**heterogeno:** *heterogeneo* da forma zuzena.

**hibai, hidoi:** *ibai, idoi* dira idazkera zuzenak.

**hidrohegazkin:** ez du jasotzen Hiztegi Batuak; bai, aldiz, *ur-hegazkin*.

**hieroglifiko:** nazioarteko praktikari begiratu, izenondo gisa soilik onartzen du Hiztegi Batuak; dagokion izena *hieroglifo* da.

**higiene:** *higiene* da idazkera zuzena.

**hilabete:** *hilabete egon zen gaixorik* eta *hiru hilabete egon zen gaixorik* dira joskera zuzenak (ik. **aste bete, urte bete** sarrerak).

**hilberri:** idazkera horretan izena da: *haren hilberria heldu zitzaigun* etab.; bestela-

ko joskeretan bi hitzetan idatzi behar da: *Txomin hil berri* da etab.

**hile:** *hil* (eta *hilabete*, dagokionean) da idazkera zuzena.

**hilotz:** forma horretan izena da, «gorpu»-ren sinonimoa; adizlagun gisa, *hil(-)hotza*, *hil(-)hotzik* dira formak: *hil-hotza erori zen* etab.

**hiltzori:** *hiltzori* da idazkera zuzena.

**hipokresia:** *hipokresia* da idazkera zuzena.

**hiraka:** *iraka* da idazkera zuzena.

**hiru-hortz:** *hiruhortz* da idazkera zuzena, izena denean bederen.

**hitzjario:** *hitz-jario* da idazkera zuzena (ik. **-jario** sarrera).

**hitzontzi:** *hitzontzi* da idazkera zuzena (ik. **-ontzi** sarrera).

**hobe:** izenondoa da eta *on-i* dagokio; hortaz, *izan* aditzarekin (ez beste aditzekin) erabiltzen da: *hobe dugu isildu*, eta ez *\*hobeki dugu isildu*.

**hobeki:** aditzondoa da eta *ongi-ri* dagokio; hortaz, *izan* ez beste aditzekin erabiltzen da: *hobeki esan*, eta ez *\*hobe esan*.

**hogerleko:** *ogerleko* da idazkera zuzena.

**homogeno:** *homogeneo* da forma zuzena.

**honez gero:** *honezker*o da idazkera zuzena.

**horitza:** *oritz* da idazkera zuzena.

**hormamendi:** *izozmendi* hobesten du Hiztegi Batuak.

**horrez gero:** *horrezker*o da idazkera zuzena.

**hortz-artatzaile, hortz-midiku:** baztertzeoak: *aho-artatzaile* da ordain zuzena.

**hortz-ore:** *hortzetako pasta* da forma zuzena.

**hortzeskuila:** *hortzetako eskuila* da forma zuzena.

**hostia:** *ostia* da idazkera zuzena.

**hozgailu:** idazkera zuzena *hozgailu* da.

**hozpera:** *hozpera* da idazkera zuzena.

**hozperero, hotz-bero:** *hozbero* da idazkera zuzena.

**humil:** *umil* da idazkera zuzena.

**hurakan:** *urakan* da idazkera zuzena.

**huts egin:** Hiztegi Batuak adibiderik ematen ez badu ere, aditz honek, nahiz elkartua izan, nor elementua har dezake: *meza huts egin zuen* edo *kolpea huts egin bezalako* joskerak ongi finkatuak daude tradizioan.

**huts egite, huts-egite:** *hutssegite* da idazkera zuzena.

## I

**iarda:** *yarda* da idazkera zuzena.

**ibai-adar:** *ibaiadar* da idazkera zuzena.

**iceberg:** ez da agertzen Hiztegi Batuan; bai, aldiz, *izozmendi*, adibide honekin: *izozmendi batek hondoratu zuen Titanic itsasontzia*.

**idaztaldi, idaztarazi:** *idaztaldi* eta *idaztarazi* dira, hurrenez hurren idazkera zuzenak.

**idea:** *ideia* da forma egokia.

**ifernu:** *infernu* da forma zuzena.

**igaz:** *iaz* da idazkera zuzena.

**igeltsari:** tradizioko *igelsero* da forma zuzena, eta orobat *igelserotza*.

**igeri:** *igeri* egin-ez bestalde, Hiztegi Batuak *igeri egon* ere onartzen du —adibide batekin —*ur gainean igeri dagoen enborra*—; bestalde, *airean igeri gelditzen den ilauna* adibidea ere badakar; hortaz, argi dago Hiztegi Batuak «nadar/nager» nahiz «flotar/flotter» erdarazkoen kidetzat hartzen duela hitza.

**igerri:** *igarri* da forma zuzena; orobat, *igarkizun, igarle, igarmen, igarrarazi*.

**igitaitu:** *igitatu* da idazkera zuzena.

**igon:** *igo* da idazkera zuzena, eta orobat *igogailu; igan* aldaera *Ipar. eta Naf.* ikurrarekin onartzen da.

**igortziri:** *ihurtzuri* da forma zuzena.

**iguriki:** nor-nork saileko adizkia eskatzen du: *ez dute bertzerik igurikitzen*.

**igurtzaldi:** *igurtzaldi* da idazkera zuzena.

**iguzki:** *eguzki* da idazkera zuzena.

**ihardun:** *jardun* da idazkera zuzena; eta orobat *jardunarazi, jarduera, jardunaldi, jardunbide, jardungai*.

**iharrausi, iharrosi:** *inarrosi* da forma zuzena.

**ihaurkin:** *inaurkin* da idazkera zuzena.

**ihaute, ihauteri:** *inaute, inauteri* dira idazkera zuzenak; nolana ere «inauteria» argibideaz ematen da *inaute*, horrela iradokiz *inauteri*-ren lehentasuna.

**ihaz:** *iaz* da idazkera zuzena.

**ihizi:** Hiztegi Batuak *Ipar. eta Naf.* marka ezartzen dio eta *ehiza* aldaera hobesten du; bestalde, *ihizaldi* eta *ihizketa* formak baztertzen ditu, eta horien ordez *ehizaldi, ehiza*, hurrenez hurren, erabili behar direla adierazten du.

**ihortziri:** *ihurtzuri* da forma zuzena; badu sinonimo bat, *inusturi*.

**ikastarazi:** *ikasarazi* da forma zuzena.

**ikerlari:** *ikertzaille* hobesten du Hiztegi Batuak.

**ikuilu:** *ukuilu* da forma zuzena.

**ikusentzule:** *ikus-entzule* da idazkera zuzena, eta orobat *ikus-entzunezko*.

**ikuskor:** baztertze forma; *ikusgai* da Hiztegi Batuak egokitzat jotzen duena.

**ikutu:** *ukitu* da forma zuzena.

**ilaia:** *ilaje* da idazkera zuzena (ik. *-aia/-aje* sarrera).

**ilaur:** *hilaur* da forma zuzena, eta orobat *hilaurtu*.

**ildaxka:** *ildaska* da idazkera zuzena (ik. *-ska/-xka* sarrera).

**ileapaindegi, ileapaintzaille:** *ile apaindegi, ile-apaindegi* eta *ile apaintzaille, ile-apaintzaille* dira, hurrenez hurren, idazkera zuzenak.

**ilendi, ileti:** *ilinti* da forma zuzena.

**iloba:** Hiztegi Batuak bi adieratan onartzen du: «senidearen semea nahiz alaba» eta «biloba».

**ilor:** *hilaur* da forma zuzena.

**ilunbe:** *ilunpe* da idazkera zuzena.

**ilunsko:** *ilunxko* da idazkera zuzena (ik. lehen zatiko 56. atala).

**imagina:** *imajina* da idazkera zuzena, eta orobat *imajinatu, imajinazio*.

**imanarri:** *iman harri, iman-harri* dira idazkera zuzenak (ik. *harri* sarrera).

**iman orratz:** *imanorratz* da idazkera zuzena.

**inaurri:** *ihaurri* da idazkera zuzena.

**inbertsio:** Hiztegi Batuak Matematikaren alorrean soilik onartzen du.

**indar-etxe:** *indarretxe* da idazkera zuzena.

**induljentzia:** *barkamen* hobesten du Hiztegi Batuak.

**ingresatu:** ez da ageri Hiztegi Batuan; bai, aldiz, *ospitaleratu*; erabat egokiak dira *X klinikan ospitaleratu dute* bezalako esaldiak.

**ingurugiro:** ekologiako adigaiia izendatzeko, *ingurumen*, hots, Iparraldekoa eta nazioartekoa den forma, da erabili behar dena.

**injineru:** *ingeniari* forma hobesten da Hiztegi Batuan.



**immunitate:** *immunitate*, hots, -mm- nazio-  
arteko grafia duena, da idazkera zuzena,  
eta orobat *immunizatu* eta *immunizazio*.

**inportant, inportantzia:** *garrantzitsu* eta  
*garrantzi*, *munta*, hurrenez hurren, ho-  
besten ditu Hiztegi Batuak.

**inprenta, inprimeria:** *inprimatze* hobes-  
ten du Hiztegi Batuak.

**inpresio:** *zirrara* hobesten du Hiztegi Ba-  
tuak.

**insektu** *insektu* da idazkera zuzena, eta  
orobat *insektizida*.

**inskripzio:** Hiztegi Batuan bi adiera onar-  
tzen dira; lehendabizikoa «izen emate-  
a» da; bigarrenean *idazkun* ematen  
du sinonimotzat.

**inspektore:** «poliziaren kargua» adieran  
onartzen du Hiztegi Batuak; bigarren  
adieran *ikuskatzaile* hobesten du.

**instant:** *istant* da idazkera zuzena.

**instituto:** *instituto* da idazkera zuzena.

**instituzio:** *erakunde* hobesten du Hiztegi  
Batuak.

**insulina:** *insulina* da idazkera zuzena.

**integrazio:** Matematikaren alorrean onar-  
tzen du Hiztegi Batuak; bestela *berta-  
kotze*, *gizarteratze* hobesten ditu.

**internazional:** *nazioarteko* hobesten du  
Hiztegi Batuak.

**intzentsu:** *intsentsu* da idazkera zuzena, eta  
orobat *intsentsu ontzi*, *intsentsu-ontzi*.

**ioga:** *yoga* da idazkera zuzena.

**ion:** *ioi* da idazkera zuzena, baina aditza  
*ionizatu* da; orobat *ionosfera* onartzen  
du Hiztegi Batuak.

**ipar ekialde:** *ipar-ekialde* da idazkera zu-  
zena, eta orobat *ipar-mendebal(al)de*,  
*ipar-sartalde* eta *ipar-sortalde*

**ipar-izar; ipar-orratz:** *iparrizar*, *iparro-  
rratz* dira, hurrenez hurren, idazkera  
zuzenak.

**ipur-/ipurt-:** elkartean, bigarren osagaia  
kontsonantea denean *ipur-* da forma:  
*ipurbeltz*, *ipurkada*, *ipurmami*; bokalez  
hasten bada, *ipurt-:* *ipurtalde*, *ipurtan-  
di*, *ipurtargi*, *ipurtarin*, *ipurtats*, *ipurte-  
rre*, *ipurteste*, *ipurtezur*, *ipurtondo*;  
salbuespena *ipurtzulo* da.

**iragazi:** maila berean onartzen du Hiztegi  
Batuak *irazi*; eta orobat *iragazgaitz/iraz-  
gaitz*, *iragazgaiztasun/irazgaiztasun*,

*iragazki/irazki*, *iragazkor/irazkor*, *ira-  
gazkortasun/irazkortasun* eta *iragazte-  
gi/iraztegi*.

**irakaslego:** Hiztegi Batuak ez du onartzen:  
*irakasleria*, *irakasleak* dira egokitzen jo-  
tzen dituenak (ik. lehen zatiko 52. atala).

**irakasaldi:** *irakastaldi* da idazkera zuzena.

**irakurlego:** «irakurletza» adieran izan ezik  
baztertzeko forma; bestela, *irakurleria*,  
*irakurleak* dira Hiztegi Batuak egoki-  
tzen dituenak (ik. lehen zatiko  
52. atala).

**irakurreraz, irakurrezin:** *irakurterraz*,  
*irakurtezin* dira, hurrenez hurren, idaz-  
kera zuzenak.

**irakurtarazi:** *irakurrarazi* da idazkera zu-  
zena, baina *irakurreraz*, *irakurrezin* ez,  
baizik *irakurterraz*, *irakurtezin* dira  
forma zuzenak.

**iraun:** nahiz gomendio gisa oraindik ez  
den eman, 1994.eko Leioako Biltzarrean  
Euskaltzaindiak okertzen eman zuen  
*hamar ordu iraun ditu bizirik* bezalako  
jokera: horrelakoetan *hamar ordu  
iraun du bizirik* da komuntadura zuzena  
(ik. lehen zatiko 26.1 azpiatala).

**iratxeki:** *eratxiki* da idazkera zuzena.

**irla:** Hiztegi Batuak *Ipar.* marka ezartzen  
dio eta, bi hitzen tradizioa kontuan har-  
turik, *uharte* hobesten du; ik. *isla*.

**irten:** *da* aditz gisa onartzen du Hiztegi  
Batuak.

**isla:** lehen sarreran *uharte* hobesten du  
Hiztegi Batuak; bigarrenean adierazten  
denez, *isla* onartzen du eta ez *islada*.

**isladatu:** *islatu* da idazkera zuzena.

**isolatu:** Fisikaren alorrean onartzen du  
Hiztegi Batuak; bestela *bakartu*, *ba-  
kandu* hobesten ditu; orobat, *isolagai-  
lu*, *isolamendu*, *isolatzaile* fisikaren  
alorrean soilik onartzen ditu.

**istibor:** *istribor* da idazkera zuzena.

**itaizur, itatxur, itoiti, itote:** *itaxur*, *itogin*  
dira forma zuzenak.

**itsas-:** *itsaso* lehen osagai duten elkartue-  
tan, *itsas* bereiz idazten da landare eta  
animalia izenetan —*itsas aingira*, *itsas  
gaiztaina* etab.— eta bigarren osagaia  
izenondoa denean —*itsas handi*, *itsas  
zabal*—; gainerakoak, Iparraldeko *itsas  
hegi* izan ezik, hitz batean idazten dira:

*itsasadar, itsasalde, itsasaldi, itsasargi, itsasarte, itsasbazter, itsasbehera, itsasbide, itsasertz, itsasgizon, itsasgorra, itsasikara, itsaskirri, itsaslapur, itsaslapurreta, itsaslaster, itsasmutil, itsasontzi eta itsasorraz.*

**itsusikeria:** *itsuskeria* da idazkera zuzena.

**itxaron:** nork-nori saileko adizkia eskatzen du objektua duenean: *Mireni itxaron zioten eguerdiraino*; eta objekturik gabe dagoenean nor-nork *egongelan itxaron dute goiz osoan*.

**itxoin:** *itxaron* hobesten du Hiztegi Batuak.

**izai:** *izei* hobesten du Hiztegi Batuak.

**izakera:** *izaera* da idazkera zuzena.

**izarratu/izartu:** antza denez biak sinonimoak dira eta maila berean onartzen ditu Hiztegi Batuak.

**izi:** Hiztegi Batuak *Ipar. eta Naf.* marka ezartzen dio eta *izu* aldaera hobesten du; dena dela, badira bi eratorri, *izialdura* «izua» eta *izipera* «izutia», *Ipar.* markaz agertzen direnak eta, hortaz, *izi-* osagaia atxikitzen dutenak.

**izkilu:** *iskilu* da idazkera zuzena.

**izkutu:** *ezkutu* da idazkera zuzena.

**izozgailu:** *izozkailu* da idazkera zuzena.

**izpiritu:** Hiztegi Batuak *Ipar. edo Jas.* marka ezartzen dio eta *espiritu* aldaera hobesten du.

## J

**jabego:** bi sinonimo ematen ditu Hiztegi Batuak: *jabetasun* eta *jabetza* (ik. lehen zatiko 52. atala).

**jabalina, jabo:** *xabalina, xaboi* dira, hurrenez hurren, idazkera zuzenak.

**jaiotze:** *jaiotza* hobesten du Hiztegi Batuak.

**jakinahi, jakinmin:** *jakin-nahi, jakin-min* dira idazkera zuzenak.

**jakitera eman:** *aditzera eman* esapide baliokidea hobesten du Euskaltzandiak.

**jalg/jalki:** lehendabizikoak *Ipar.* ikurra darama eta «atera, irten» adiera du; bigarrenaren adiera «isurkari batean dilindan dauden zatikiak hondoratu» da, eta badu eratorri bat, *jalkin*. Lehenaren eratorriak, *jalgialdi, jalgiaz* dira.

**jandarma:** *jendarme* da idazkera zuzena.

**jardin:** baztertzeko forma; *lorategi* da Hiztegi Batuak egokitzen jotzen duena.

**-jario:** Hiztegi Batuak *jario* sarreran agertzen diren elkartuak *galtza-jario, gezur-jario* eta *hitz-jario* dira (azkenengo biok *gezur* eta *hitz* sarreretan ere agertzen dira hurrenez hurren); ezer adierazten ez bada ere hirurok izenondoak dira berez; horietaz bestalde *odol-jario*, marrazorik gabe, onartzen du Hiztegi Batuak, *iz.* markaz.

**jarrai:** izenondo gisa ez du onartzen Hiztegi Batuak, *jarraiki, jarraitu* dira erabili behar diren formak: *hezkuntza jarraitua, hezkuntza jarraikia*.

**jartoki:** *jarleku* hobesten du Hiztegi Batuak.

**jaunartu:** *Jauna hartu* da idazkera zuzena; baina *jaunartzaile* eta *jaunartze* jasotzen ditu Hiztegi Batuak.

**jaungoiko:** *jainko* hobesten du Hiztegi Batuak.

**jaurtiki:** *jaurti* hobesten du Hiztegi Batuak.

**jaurtikigai:** *jaurtigai* da forma zuzena.

**jazinto:** *hiazinto* da idazkera zuzena.

**jazkera, jazki, jazteko:** *janzkera, janzki, janzteko* dira, hurrenez hurren, idazkera zuzenak.

**jazmin:** *jasmin* da idazkera zuzena.

**jeiki:** *jaiki* da idazkera zuzena.

**jeitsi:** *jaitsi* da idazkera zuzena.

**jeke:** *xeke* da idazkera zuzena.

**jelatu:** *Gip.* ikurra ezartzen dio Hiztegi Batuak eta *izoztu* lehenesten du.

**jendeki:** *jendaki* da idazkera zuzena.

**jenero:** *genero* da idazkera zuzena.

**jerarkia:** *hierarkia* da idazkera zuzena.

**jeroglifiko:** ik. **hieroglifiko**.

**jertsei:** *jertse* da idazkera zuzena.

**joaredun:** *joaldun* da idazkera zuzena.

**joia:** Hiztegi Batuak *bitxi* hitza hobesten du.

**jole, jole:** *jotzaile* hobesten du Hiztegi Batuak.

**joskura:** *jostura* da idazkera zuzena.

**jostagailu:** *jostailu* da idazkera zuzena.

**jubilazio:** baztertzeko forma; *erretiro* da Hiztegi Batuak egokitzen jotzen duena.

**juez:** Hiztegi Batuak *Heg.* marka ezartzen dio, gaztelaniatikoa dela adierazteko, eta *epaile* hobesten du.

**juizio:** *Heg.* ikurra ezartzen dio Hiztegi Batuak eta «epaiketa» argigarria eransten.  
**juzgatu:** Hiztegi Batuak *Heg.* marka ezartzen dio eta *epaitu* hobesten du.

## K

**kabarra:** *gabarra* da idazkera zuzena.  
**kabia:** *habia* da idazkera zuzena.  
**kabo:** Hiztegi Batuak *Heg.* ikurra ezartzen dio, gaztelaniazkoa soilik eta Iparraldekoentzat ulergaitza dela adierazteko, eta *kaporal*, nazioarteko forma eta Iparraldean erabiltzen dena, hobesten du.  
**kafetxe:** *kafe etxe*, *kafe-etxe* dira idazkera zuzenak.  
**kainabera:** *kanabera* da idazkera zuzena, eta orobat *kanaberadi*.  
**kainoi:** *kanoi* da idazkera zuzena.  
**kaiser:** *kaisar* da idazkera zuzena.  
**kajoi:** baztertzeko hitza; *tiradera* da Hiztegi Batuak egokitzen jotzen duena.  
**kalabaza, kalabazin:** Hiztegi Batuak *Heg.* ikurra ezartzen die, gaztelania hutsezkoak direla adierazteko, eta *kuia*, *kuia-txo* hobesten ditu hurrenez hurren.  
**kaldera:** *galdara* da idazkera zuzena.  
**kaltekor:** *kaltegarri* hobesten du Hiztegi Batuak (ik. lehen zatiko 51. atala).  
**kaltzara:** *galtzada* da idazkera zuzena.  
**kalzita:** *kaltzita* da idazkera zuzena.  
**kamaleoi:** *kameleoi*, nazioarteko formari dagokiona, da idazkera zuzena.  
**kamara:** baztertzeko forma; Hiztegi Batuak dioenez lehen adieran *kamera* da forma zuzena, eta bigarreanean *ganbera*.  
**kamarero:** baztertzeko hitza; *zerbitzari* da Hiztegi Batuak egokitzen jotzen duena.  
**kamelu:** *gamelu* da idazkera zuzena.  
**kanika:** *puxtarri* hobesten du Hiztegi Batuak.  
**kanale:** *kanal* da idazkera zuzena.  
**kanila:** Hiztegi Batuak *Heg.* ikurra ezartzen dio, eta *txorrota* hitza hobesten du.  
**kanpaina denda:** *kanpadenda* da forma zuzena; sinonimo bat du, *oihal-etxola*.  
**kanpus:** *campus* da idazkera zuzena.  
**kapelu:** Hiztegi Batuak *Ipar.* ikurra ezartzen dio, eta *kapela* hitza hobesten du.

**kapirio:** *gapirio* da idazkera zuzena.  
**karabinero:** *mugazain* hobesten du Hiztegi Batuak.  
**karaitz, kararri:** *karehaitz*, *kareharri* dira idazkera zuzenak (ik. **harri** sarrera).  
**karatxo:** *garatxo* da idazkera zuzena.  
**karburadore:** *karburagailu* da Hiztegi Batuak jasotzen duen forma.  
**kardenal:** *kardinal* da idazkera zuzena.  
**kare-harri:** *kareharri* da idazkera zuzena (ik. **harri** sarrera).  
**karie(s):** *txantxar* hobesten du Hiztegi Batuak.  
**karikatura:** badu sinonimo bat, *irrimarra*.  
**karlistada:** *karlistaldi* hobesten du Hiztegi Batuak.  
**karnet:** baztertzeko hitza; *nortasun-agiri*, *gidabaimen*, *txartel* dira Hiztegi Batuak egokitzen jotzen dituen ordezkioak.  
**karrasi:** *garrasi* da idazkera zuzena.  
**karratu:** *Ipar.* ikurra ezartzen dio Hiztegi Batuak eta «kuadro» lehenesten du.  
**karrera:** Hiztegi Batuak *Heg.* ikurra ezartzen dio, gaztelania hutsezko dela adierazteko, eta *ikasketak* forma hobesten du: *zuzenbide ikasketak*.  
**karretera:** baztertzeko hitza: *errepide* da Hiztegi Batuak egokitzen jotzen duen ordaina.  
**karretila:** baztertzeko hitza: *eskorga* da Hiztegi Batuak egokitzen jotzen duen ordaina.  
**karro:** Hiztegi Batuak *Herr.* ikurra ezartzen dio, eta *orga* hitza hobesten du: *zaldi karroa*.  
**karrosa:** *karroza* da idazkera zuzena.  
**karta:** jokoko soilik onartzen du Hiztegi Batuak; bestela *gutun*, *eskutitz* eta *mapa* erabili behar dira.  
**kartel:** badu Hiztegi Batuan sinonimo bat, *afixa*.  
**karteldegi:** gaztelania hutsezko *cartelera*-k eragina da eta Hiztegi Batuak bartertzeko hitza jotzen du; *ikuskitunak* ematen du ordezkotzat.  
**kartera:** baztertzeko hitza; *diru(-)zorro*, *paper(-)zorro* dira Hiztegi Batuak egokitzen jotzen dituen ordezkioak.  
**kartulina:** baztertzeko hitza; *kartoi mehe* da Hiztegi Batuak gaztelaniazko hitz horren ordezkotzat jotzen duen forma.

**kaska-motz:** *kaskamotz* da idazkera zuzena, eta orobat *kaskabeltz*, *kaskagor*, *kaskagorri*, *kazkazuri*.

**katakunba:** *katakunba* da idazkera zuzena.

**katarro:** Hiztegi Batuak *Heg.* ikurra ezarzen dio eta *hotzeria* lehenesten du.

**katibatu, katibu:** *gatibatu*, *gatibu* dira, hurrenez hurren, idazkera zuzenak.

**katxalote:** *kaxalote* da idazkera zuzena; sinonimo bat du, *zeroi*.

**kaviar:** *kabiar* da idazkera zuzena.

**kaxa:** bi adiera ditu Hiztegi Batuan: lehendabizikoa «kutxa» da eta *Heg.* marka darma gaztelaniatikoa dela adierazteko; bigarrenak «kazola» da eta *Ipar.* ikurra du.

**kaxoi:** baztertzeko hitza; *tiradera* da Hiztegi Batuak egokitzen jotzen duena.

**kenka:** *kinka* da idazkera zuzena.

**keramika:** *zeramika* da idazkera zuzena, eta orobat *zeraimikari*.

**kibizta:** *begizta* da idazkera zuzena.

**kider:** baztertzeko forma; *gider*, *kirten* dira Hiztegi Batuak egokitzen jotzen dituenak.

**kila:** *gila* da idazkera zuzena.

**kirrets:** idazkera zuzena *kirats* da.

**kirkir:** *kilker* da idazkera zuzena.

**kirofano:** baztertzeko hitza; gaztelania hutsezko forma honen orde *operazio(-)gela*, *ebakuntza(-)gela* dira Hiztegi Batuak egokitzen jotzen dituenak.

**kiskaili:** *kiskali* da idazkera zuzena.

**kitara:** idazkera zuzena *zitara* da.

**kitarra:** *gitarra* da idazkera zuzena.

**klarki** *argi*, *argiro* hobesten ditu Hiztegi Batuak.

**klisket:** *kisketa* da idazkera zuzena.

**klitxe:** frantsesetik hitz honi dagokion ortografia zuzena *klix*e da.

**koaderno:** Hiztegi Batuak *Heg.* marka ezarzen dio, gaztelaniazkoa dela adierazteko, eta era berean haren kide den frantseseko *kaier* ematen du, *Ipar.* ikurrak. Hiztegi Batua ez da gauza izan euskaldun guztiontzat balio dezakeen ordain egokia proposatzeko.

**koartel:** *kuartel* da idazkera zuzena; hitzak sinonimo bat du, Hiztegi Batuak *Ipar.* ikurra ezartzen diona, *kaserna*.

**koerlazio:** *korrelazio* da idazkera zuzena.

**koilare:** *iduneko*, *lepoko* hobesten ditu Hiztegi Batuak.

**koinak:** *koñak* da idazkera zuzena.

**kojin:** *kuxin* da idazkera zuzena.

**kokildu:** *kikildu* da idazkera zuzena.

**kokodrilo:** *krokodilo*, nazioarteko formari dagokiona, da idazkera zuzena.

**kolegio:** *kardinalen kolegioa* esapideko adieran onartzen du Hiztegi Batuak; bestetan *ikastetxe* eta *elkargo* hobesten ditu.

**koliflor:** baztertzeko hitza; *azalore* da Hiztegi Batuak egokitzen jotzen duena.

**kolpatu:** *zauritu*-ren kidea da, *ez jo*-rena; Hiztegi Batuak dioenez teklak-eta ez dira kolpatzen.

**koltxoi:** *lastaira* hobesten du Hiztegi Batuak.

**komisaldegi:** baztertzeko hitza; *polizia(-)etxe* da Hiztegi Batuak egokitzen jotzen duena.

**komisari:** *komisario* da idazkera zuzena (ik. lehen zatiko 49. atala).

**komisaria:** *polizia(-)etxe* hobesten du Hiztegi Batuak.

**komisio:** «kobratzen den saria» adieran onartzen du erabat Hiztegi Batuak; beste bi adieretan, *batzorde* eta *betekizun* hobesten ditu.

**komit, konbit(e):** *gonbit* da idazkera zuzena.

**komunio:** *jaunartze* hobesten du Hiztegi Batuak.

**komunitate:** politikaren arloan bederen *erkidego* da Hiztegi Batuak hobesten duen ordaina: *autonomia erkidegoa*, *foru erkidegoa*.

**konbeni, konbentu:** *komeni*, *komentu* dira, hurrenez hurren, idazkera zuzenak.

**konberjentzia:** *konbergentzia* da idazkera zuzena.

**konbexu:** badu sinonimo bat, *ganbil*.

**kondatu, kondu:** *kontatu*, *kontu* dira, hurrenez hurren, idazkera zuzenak.

**konfidantza:** *konfiantza* da idazkera zuzena.

**konfirmatu:** lehen adieran *berretsi* hobesten du Hiztegi Batuak; bigarrenean, erlijio arloari baitagokio, *sendotza hartu/eman*.

**konfitatu:** bi adieratan onartzen du Hiztegi Batuak: lehendabizikoa *melatu* (fruituak) hobesten du, eta bigarrenean *urinean eman* (haragikiak) hobesten du.

**konjuero:** *konjuro* da idazkera zuzena.

**konkabo:** badu sinonimo bat, *ahur*.

**konponduezin/konponezin:** lehena izena da eta bigarrena izenondoa, «ezin konponduzko»-ren kidea.

**konposaketa:** *konposizio* hobesten du Hiztegi Batuak (ik. lehen zatiko 46.2 azpiatala).

**konpromezu:** *konpromiso* da forma zuzena; Hiztegi batuak *Heg. Herr.* markak ezartzen dizkio *konpromiso*-ri.

**konsagratu:** *konsakratu* da idazkera zuzena; nolana ere, *sagaratu* hobesten du Hiztegi Batuak.

**konstelazio:** badu sinonimo bat, *izar(-)multzo*.

**konte:** *konde* da idazkera zuzena, eta orobat *konderri*, *kondetza* eta *kondesa*.

**kontestu:** baztertzeko hitza; *testuinguru* da Hiztegi Batuak egokitzen jotzen duena.

**kontsekitibo:** *ondoz ondoko* hobesten du Hiztegi Batuak.

**kontsulta:** medikuarekiko adieran onartzen du Hiztegi Batuak: beste adieran *argibide(-)eskaera*, *aholku-eske* hobesten du.

**kontutan hartu:** *kontuan hartu* da Hiztegi Batuan agertzen dena.

**korbata:** *gorbata* da idazkera zuzena.

**korkoi:** *korroko* da idazkera zuzena; badu sinonimo bat, *lazun*.

**korotz:** idazkera zuzena *gorotz* da.

**korpus:** *corpus* da idazkera zuzena.

**korsario:** *kortsario* da idazkera zuzena.

**korte:** *gorte* da idazkera zuzena.

**kortina:** Hiztegi Batuan ustez *errezel* erabili behar da, nahiz, bigarren mailan, *gortina* aldaera erabiltzen ahal den.

**kosmo:** *kosmos* da idazkera zuzena, eta orobat *mikrokosmos*.

**kosta(tu):** nahiz gomendio gisa oraindik ez den eman, 1994.eko Leioako Biltzarrean Euskaltzaindiak dioenez\*zenbat *kosta dezakeen jakin nahi dut* bezalako esaldiak okerrak dira, eta zuzenak *1.500 milioi kosta zaigu* bezalakoak; Hiztegi Batuak, *kosta(tu)*, *zaio* motako aditza dela dio (ik. lehen zatiko 26.2 azpiatala).

**kotxe:** «zalgurdia; bagoia» adieran onartzen da, eta orobat, *Heg.* ikurra ezarrita, haurrentzakoan; adiera nagusian, aldiz, baztertzen da Hiztegi Batuan, eta *auto(mobil)*, *beribil* erabili behar direla adierazten da.

**kozkordun:** *koskordun* da idazkera zuzena, eta orobat *koskortsu* eta *koskortu*; *koskor* da, hortaz, Hiztegi Batuan aldaera ez markatua: *koxxkor* eta *kozkor* adierazkor gisa onartzen dira.

**krisket:** *kisketa* da idazkera zuzena.

**kristal:** mineralogian eta «kalitate handiko beira» adieran soilik onartzen du Hiztegi Batuak.

**kriterio:** baztertzeko hitza; *irizpide* da Hiztegi Batuak egokitzen jotzen duena.

**krozka:** *kroska* da idazkera zuzena.

**krustazeo:** badu sinonimo betea euskaraz Hiztegi Batuan arabera, *oskoldun*.

**kuadro:** *koadro* da idazkera zuzena; *bost metro koadro* bezalako joskeretan onartzen du hitza Hiztegi Batuak; kontuan izan behar da *margin* hitza ere onartzen duela Hiztegi Batuak.

**kualitate:** baztertzeko hitza; *nolakotasun* da Hiztegi Batuak egokitzen jotzen duena.

**kui/kuia:** lehenengo animalia da, *akuria*, eta bigarrena landarea, *Cucurbita pepo* jakintza izenekoa.

**kultu:** erlijiozko adieran onartzen da; beste adiera gaztelania hutsezkoa da eta baztertzekotzat jotzen du Hiztegi Batuak eta *ikasi*, *landu* erabili behar direla adierazten du.

**kuluska:** *kuluxka* da idazkera zuzena.

**kunplitu:** *konplitu* da idazkera zuzena.

**kupel:** *upel* hobesten du Hiztegi Batuak.

**kurba:** geometriaren alorrean soilik onartzen du Hiztegi Batuak; kontuan izan behar da *bihurgune* hitza ere onartzen duela Hiztegi Batuak.

**kurtso:** lehen adieran *ikasturte*, *ikastaro*, eta bigarrenean *ibilbide* hobesten ditu Hiztegi Batuak.

**kutizia:** *gutizia* da idazkera zuzena.

**kutzare:** *koilara* da forma zuzena.

## L

**labe handi:** *labe garai* da esapide zuzena.

**laboratorio:** *laborategi* da forma zuzena.

**lagundu:** *nor-nork* nahiz *nork-nori* adizkiak erabil daitezke: *Mikeli lagundu diote* nahiz *Mikel lagundu dute*.

**lakain:** *akain* da idazkera zuzena.

**laku:** *aintzira* hobesten du Hiztegi Batuak.

**lamia:** *lamina* da idazkera zuzena.

**lanbo:** *lanbro* da idazkera zuzena, eta orobat *lanbrotu*, *lanbrotsu*.

**landara:** *landare* da idazkera zuzena.

**langilego:** «langiletasun» adieran izan ezik baztertzeko forma; bestela, *langileria*, *langileak* dira Hiztegi Batuak egokitzen jotzen dituenak (ik. lehen zatiko 52. atala).

**lano:** *laño* da idazkera zuzena; bi adiera ditu hitzak Hiztegi Batuan, «apala» eta «laua»: bigarren adiera honetan *itsasoa laño dago* ematen da adibidetzat.

**lanpa:** Hiztegi Batuak *Ipar*. ikurra ezartzen dio eta *lanpara* hobesten du.

**lantegi:** hitzaren lehen adiera Hiztegi Batuan «lan egiteko tokia, batez ere fabrika baino txikiagoa» da, eta adibide gisa *eskultorearen lantegia* ematen du. Ik. **tailer**.

**lañeza:** *laineza* da idazkera zuzena.

**lapurketa:** *lapurreta* da idazkera zuzena.

**laranjaondo:** *laranjondo* da idazkera zuzena.

**larehun:** *laurehun* da idazkera zuzena.

**largabista:** Hiztegi Batuak *Ipar*. ikurra ezartzen dio eta «betaurrekoa» lehenesten du.

**larogei:** *laurogei* da idazkera zuzena.

**larrugile:** ez du jasotzen Hiztegi Batuak; bai ahatik *larrugin*.

**larru gorri:** izen, izenondo nahiz adizlagun gisa zuriune gabe idazten da: *larrugorrien buruzagia*; *gizon larrugorriak*; *larrugorri zegoen*; orobat idazten dira *larrugorrian*, *larrugorritasun*, *larrugorritu*.

**laun:** *lau* da idazkera zuzena.

**lautada:** geografia izen gisa *ordoki* hobesten du Hiztegi Batuak.

**legeria:** *legedi* du sinonimotzat.

**lehen gai:** *lehengai* da idazkera zuzena.

**lehengusina:** *Bizk*. ikurra ezartzen dio Hiztegi Batuak.

**lekoa:** *legoa* da idazkera zuzena.

**lekutu:** Hiztegi Batua araberaren «*urrundu*, *baztertu*, *desagertu*» adiera du, eta ez besterik.

**lengoia:** Hiztegi Batuak *zah*. ikurra ezartzen dio eta *mintzaira*, *hizkuntza* hobesten ditu.

**lengoradu:** baztertzeko hitza; *mihi-arrain* da Hiztegi Batuak egokitzen jotzen duen ordaina.

**lente:** Hiztegi Batuak *Heg*. ikurra ezartzen dio gaztelania hutsezkoa eta Iparraldekoentzat ulergaitza dela adierazteko, eta *leiar* hobesten du.

**lenteja:** baztertzeko hitza; *dilista* da Hiztegi Batuak egokitzen jotzen duena.

**leopardo:** baztertzeko hitza; *lehoinabar*, *pantera* dira Hiztegi Batuak egokitzen jotzen dituen ordezkioak.

**lepra:** *legonar* hobesten du Hiztegi Batuak, eta orobat *legenardun*.

**leze:** *leize* da idazkera zuzena.

**lezoi:** *pezoi* hobesten du Hiztegi Batuak; *lesuin* aldaera, berriz, erabat baztertzeko du.

**liberdi:** *libra erdi* lehenesten du Hiztegi Batuak.

**libra esterlina:** *libera esterlina* da Hiztegi Batuak hautatzen duen forma.

**libro:** *Ipar*. ikurra ezartzen dio Hiztegi Batuak eta *libre*, *aske* hobesten ditu.

**libruska:** *liburuxka* da idazkera zuzena (ik. *-ska/-xka* sarrera).

**liburudenda:** *liburu denda*, *liburu-denda* dira idazkera zuzenak.

**lihazi:** *linazi* da idazkera zuzena.

**likidu:** *likido* da idazkera zuzena; badu sinonimo jator bat, *isurkari*.

**linburi:** *limuri* da forma zuzena, eta orobat *limurtu*.

**lingirda:** *lindinga* da forma zuzena.

**lino:** *liho* hobesten du Hiztegi Batuak.

**liseriketa:** baztertzeko forma; *digestio* da Hiztegi Batuak egokitzen jotzen duena; *txegoste* ere onartzen du, baina *digestio* lehenetsiz.

**lisiba:** *lixiba* da idazkera zuzena.

**litera:** baztertzeko forma; *ohatze* da Hiztegi Batuak egokitzen jotzen duena.

**-il-:** erdaratiko hitzak egokitzean, jakina denez, euskara batuak *-il-* grafia erabiltzen du oro har; nolana ere, badira zenbait hitz Hiztegi Batuan *-ll-* grafiaz agertzen direnak, nahiz nazioarteko grafia *-ll-* delako, nahiz gaztelaniatiko hitzak izanik euskal tradizioan beti *-ll-* grafiaz idatzi direlako; hauek dira: *artilleria*, *billar*, *billete*, *bonbilla*, *gerrilla*, *gerrillari*, *gillotina*, *gillotinatu*, *lenti-*

*lla, makillaje, makillatu, paella, pasillo, pastilla, rally, salletar, salmonella, salmonellosi, tortilla eta txintxilla,*

**loakartu:** *loak hartu* eta *lokartu* dira forma zuzenak; lehendabizikoa *du* aditza da eta bigarrena *da* aditza: *bitarte hartan loak hartu zuen Jesus; berehala lokartu zen haurra.*

**lodisko:** *lodixko* da idazkera zuzena (ik. *-ska/-xka* sarrera).

**lotsakizun:** *lotsaizun* da idazkera zuzena; *Jas.* ikurra ezartzen dio Hiztegi Batuak.

**luebaki:** *lubaki* da idazkera zuzena.

**lumaje:** badu sinonimo bat, *lumadi*.

**lurrin:** «usain gozoa» adieran onartzen da; uraren gas forma adierazteko *lurrin* da forma zuzena, eta orobat *lurrin(-)makina, lurrundu, lurrunkor* eta *lurrunontzi* «lurrunez dabilen ontzia».

**luto:** *Heg.* ikurra ezartzen dio Hiztegi Batuak, gaztelaniazkoa dela adierazteko, eta *dolu* hobesten du.

## M

**magisteritza:** baztertze hitza; *irakasle(-)ikasketak* da Hiztegi Batuak egokitza jotzen duen ordezkia: hortaz, esaterako, *magisteritza ikasi zuen* gaitzesten da, eta *irakasle ikasketak egin zituen* erabili behar dela esaten da; orobat, *Magisteritza(-)eskola* ez da zuzena: *Irakasle(-)eskola* erabili behar da.

**mahel:** *urmael* da forma zuzena.

**maiordomo:** Hiztegi Batuak *Heg.* ikurra ezartzen dio baina ez du ordezkorik eskaintzen.

**maitakor:** *maitekor* da forma zuzena.

**maiuskula:** badu sinonimo bat Hiztegi Batuan, *letra larri*.

**maixeatu:** *maiseatu* da idazkera zuzena, eta orobat *maiseaketa, maiseatzaile* eta *maiseo*.

**majia:** *magia* da idazkera zuzena, eta orobat *magiko*.

**makailao:** *bakailao* da forma zuzena.

**makilaia:** *makillaje* da forma zuzena, eta orobat *makillatu; makilatu* «makilaz zigortu» da Hiztegi Batuan.

**makina-erreminta:** *Heg.* ikurra ezartzen dio Hiztegi Batuak gaztelaniazkoa dela adierazteko, eta *makina(-)tresna* hobesten du.

**makutsik:** *mahuka-hutsik* da forma zuzena. **malenkonia:** ik. **melankolia**.

**malerus:** Hiztegi Batuak *Zub.* ikurra ezartzen dio eta *malurus* aldaera hobesten du.

**maleta:** inongo markarik gabe onartzen du Hiztegi Batuak.

**malizia:** *malezia* da forma zuzena.

**malto:** *mantso* da forma zuzena.

**manaiatu:** *manaiatu* alde batetik, eta *maneatu*, bestetik, dira idazkera zuzenak.

**maneiatu:** *erabili* lehenesten du Hiztegi Batuak.

**manifestatu:** Hegoaldean *da* aditza da —*milaka lagun manifestatu ziren Bilboko kaleetan*—, eta *du* aditza Iparraldean —*milaka lagunek manifestatu zuten Bilboko kaleetan*—.

**manifestazio:** (*kale*) *agerraldi* du sinonimo.

**mantenimendu:** *mantentze* da forma zuzena.

**marea behera, marea gora:** *mareabehera, mareagora* dira, hurrenez hurren, idazkera zuzenak; bestalde *itsasbehera* eta *itsasgora* lehenesten ditu Hiztegi Batuak.

**marfil:** *boli* hobesten du Hiztegi Batuak.

**mari-:** erdeinuzko elkartuen lehen osagai gisa, marratxoaz idazten da: *mari-maistra, mari-maisu, mari-matraka, mari-mutil, mari-mutiko, mari-motrailu, mari-gizon*; salbuespena *marizikin* da. Animalia izenak, aldiz, hitz batean ematen dira: *mariburduntzi, marigorri(ngo), mariorratz, marisorgin*.

**marioneta:** baztertze hitza; *txotxongilo* da Hiztegi Batuak egokitza jotzen duena.

**marmelada:** badu sinonimo bat, *konfitura*.

**marmuka:** *marmoka* da idazkera zuzena.

**marraskilo:** *barraskilo* da idazkera zuzena.

**marsopa:** *mazopa* da idazkera zuzena.

**Martitz:** *Marte* da forma zuzena.

**masaia:** *masaje* da idazkera zuzena (ik. *-aia/-aje* sarrera).

**masailako:** *masaileko* da idazkera zuzena.

**masopa:** *mazopa* da idazkera zuzena.

**matematiko/matematikari:** lehendabizikoa izendondo gisa soilik onartzen da, eta bigarrena izen gisa soilik (ik. lehen zatiko 48. atala).

**materiale:** *material* da idazkera zuzena, izen gisa nahiz izenondo gisa.

**matrail:** *masail* lehenesten du Hiztegi Batuak.

**matriz:** *matrize* da idazkera zuzena; *Mat.* ikurra ezartzen dio Hiztegi Batuak.

**matxite:** *matxete* da idazkera zuzena.

**medaila:** *domina* lehenesten du Hiztegi Batuak.

**medizina:** *sendagai* hobesten du Hiztegi Batuak.

**medusa:** *marmoka* lehenesten du Hiztegi Batuak.

**mekaniko/mekanikari:** lehendabizikoa izendondo gisa soilik onartzen da, eta bigarrena izen gisa soilik (ik. lehen zatiko 48. atala).

**melankolia/malenkonía:** biak onartzen ditu Hiztegi Batuak, baina *malenkonía*-ri *Lit.* ikurra ezartzen du.

**melokotoi:** Hiztegi Batuak *Heg.* ikurra ezartzen dio, *gatzelaniazkoa* dela adierazteko, eta *mertxika* hitza hobesten du.

**memoria:** bi adieratan onartzen du Hiztegi Batuak; lehenengoan *oroimen* hobesten du, eta bigarrenean *oroitzapen* hobesten du.

**mendiska:** *mendixka* da idazkera zuzena (ik. *-ska/-xka* sarrera).

**mendizerra:** berariaz ez da agertzen Hiztegi Batuan gatzelerak eragindako hitz hau; bai, ordea, *mendilerro* eta *mendikate*.

**menpe/mende:** sinonimotzat jotzen ditu Hiztegi Batuak, baina *mende*-ri dagozkion eratorriak soilik agertzen dira Hiztegi Batuko zerrendan.

**merezi izan:** objektua aditz izena denean, *joatea merezi du* da joskera zuzena, ez *\*joateak merezi du*.

**merkaldi:** *merkealdi* da idazkera zuzena.

**merkantzia:** Hiztegi Batuak *Heg.* ikurra ezartzen dio, *gatzelaniazkoa* dela adierazteko eta *salgai*, *gai* hitzak hobesten ditu.

**merketu:** *merkatu* da idazkera zuzena.

**merkuriu:** *zilarbizi* lehenesten du Hiztegi Batuak.

**metereologiko:** ez du jasotzen Hiztegi Batuak; *eguraldi* sarreran, aldiz, *eguraldi mapa* adibidea ematen du.

**metro karratu:** *metro koadro* lehenesten du Hiztegi Batuak.

**mezprezatu:** *mespretxatu* da idazkera zuzena.

**midiku, midikuntza:** *mediku*, *medikuntza* dira, hurrenez hurren, idazkera zuzenak.

**mihise:** Hiztegi Batuak *izara* eta *main-dire*-ren sinonimo hutsa dela dio.

**mikra:** *mikroi* hobesten du Hiztegi Batuak.

**mikrokosmo:** *mikrokosmos* da idazkera zuzena.

**milu:** *mihilu* da idazkera zuzena.

**mindegi:** *mintegi* da idazkera zuzena.

**ministeritza, ministraritza:** *ministerio* da idazkera zuzena.

**ministrari:** *ministro* da idazkera zuzena (ik. lehen zatiko 48. atala).

**minoria:** baztertzeko forma; *gutxiengo* da Hiztegi Batuak egokitzat jotzen duena.

**mintzaera:** *mintzaira* da idazkera zuzena, «mintzatzeko era» adieran ez bada.

**minuskula:** badu sinonimo bat Hiztegi Batuan, *letra xehe*.

**mitxa:** *metxa* da idazkera zuzena.

**mitxeleta, mitxirrika:** *tximeleta* hobesten du Hiztegi Batuak; bestalde, *mitxirrika*-ri *Heg.* ikurra ezartzen dio.

**mobitu:** *mugitu* da idazkera zuzena.

**moeta:** idazkera zuzena *mota* da.

**mogitu:** *mugitu* da idazkera zuzena.

**moldekaitz:** *moldakaitz* da idazkera zuzena.

**molestatu:** Hiztegi Batuak *Heg.* eta *Herr.* ikurra ezartzen dizkio eta *eragotzi* hitza hobesten du; adiera honetan *dio* aditza da *eragotzi*.

**molestia:** Hiztegi Batuak *Heg.* eta *Herr.* ikurra ezartzen dizkio eta *eragozpen* hitza hobesten du.

**momentu:** Hiztegi Batuak *Heg.* eta *Herr.* ikurra ezartzen dizkio lehen sarreran eta *memento* forma hobesten du; bigarren sarreran Fisikaren eremuan onartzen da *momentu*.

**monastegi:** *monasterio* da forma zuzena.

**moneta:** lehen adieran *diru*, *dibisa* hitzak hobesten dira Hiztegi Batuan, eta hiru adibide aipatzen dira: *Europako moneta batasuna* — *Europako diru batasuna* hobetsiz —, *dirua bi monetatan daukat* — *dirua bi dibisatan daukat* hobetsiz — eta *lira Italiako moneta da* — *lira Italiako dirua da* hobetsiz —; bigarren adieran baztertzekoa dela adierazten



da, eta *txanpon*, *xeh*e jotzen dira orde-ko egokitza.

**monja:** *moja* da idazkera zuzena, eta orobat *mojagai* eta *mojategi*.

**monstruo:** *munstro* da idazkera zuzena.

**mordoska:** idazkera zuzena *mordoxka* da (ik. *-ska/-xka* sarrera).

**morko:** *murko* da idazkera zuzena.

**moro:** *mairu* hobesten du Hiztegi Batuak.

**mostaza:** *Heg.* ikurra ezartzen dio Hiztegi Batuak, gaztelaniazkoa dela adierazteko, eta *ziape* hobesten du.

**mosu:** *musu* da idazkera zuzena.

**motin:** *mutin* da idazkera zuzena, eta orobat *mutinatu*.

**motore:** *motor* da idazkera zuzena, adiera guztietan.

**motxila:** Hiztegi Batuak *Heg.* ikurra ezartzen dio, gaztelania hutsezkoa eta Iparaldekoentzat ulergaitza dela adierazteko, eta *bizkar-zorro* hobesten du.

**mozle/moztaile:** biak onartzen ditu Hiztegi Batuak, baina *mozle-ri Ipar.* ikurra ezartzen dio (ik. lehen zatiko 46.1 azpiatala).

**mueta:** *mota* da idazkera zuzena.

**mukuru:** *mukuru* da idazkera zuzena.

**multa:** *isun* hobesten du Hiztegi Batuak.

**mun, muno:** *muin*, *muino* dira, hurrenez hurren, idazkera zuzenak.

**muskulu:** «gihar» lehenesten du Hiztegi Batuak.

**mustio:** *muztio* da idazkera zuzena.

**mustro:** *munstro* da idazkera zuzena.

**mustur:** *mutur* da idazkera zuzena.

**mutil zahar:** *mutilzahar* da idazkera zuzena, eta orobat *mutilzahartu*.

**mutiltzale:** *mutiltzale* da idazkera zuzena.

## N

**nabigari nabigatzaile** forma da zuzena (ik. lehen zatiko 46.1 eta 48. atalak).

**nabigazio:** badu sinonimo bat, *itsasketa*.

**naharo:** *naro* da idazkera zuzena.

**nahastaile:** *nahasle* hobesten du Hiztegi Batuak (ik. lehen zatiko 46.1 azpiatala).

**nahastu:** *nahasi* hobesten du Hiztegi Batuak.

**nahitanahiez:** *nahitaez*, *nahi eta nahi ez* dira idazkera zuzenak.

**nailon:** *nylon* da idazkera zuzena.

**nardo:** badu sinonimo bat, *akara*.

**narrats, narraz:** *narras* da idazkera zuzena, eta orobat *narrasti*.

**nebulosa:** badu sinonimo bat, *izar-laino*.

**negutegi:** *berotegi* hobesten du Hiztegi Batuak.

**nekazalgo:** Hiztegi Batuak *Naf.* ikurra ezartzen dio eta *nekazaritza* hobesten du.

**nerekoi:** *nirekoi* da idazkera zuzena, eta orobat *nireganatu*, *nirekoikeria*, *nirekoitasun*, *niretar*, *niretu*.

**neumatiko, neumonia:** *pneumatiko*, *pneumonia* nazioartekoak dira, hurrenez hurren, idazkera zuzena.

**neurtu:** nahiz gomendio gisa oraindik ez den eman, 1994.eko Leioako Biltzarrean Euskaltzaindiak dioenez *tunelak berrehun metro neurtzen du/ditu* bezalako esaldiak badaezpadaoak eta gaztelaniaz eraginak dira; zuzenak hauek dira: *tunela berrehun metro luze da*, *tunel honek ehun metro ditu luzean*, edo *soil-soilik tunelak berrehun metro ditu*; orobat *zenbat neurtzen du?* badaezpadao da, eta zuzena, *ze neurri du?* (ik. lehen zatiko 26.4 azpiatala):

**nigar:** *negar* da idazkera zuzena.

**nilon:** *nylon* da idazkera zuzena.

**nimiño:** *ñimiño* da idazkera zuzena, eta orobat *ñimiñotu*.

**nobela:** *eleberri* lehenesten du Hiztegi Batuak.

**nolaz:** *nola* lehenesten du Hiztegi Batuak.

**nonnahi:** *nonahi*, *non-nahi* dira idazkera zuzenak.

**nora ezean:** *noraezean* da idazkera zuzena.

**norantza:** *norantzko* da forma zuzena.

**notari:** *notario* da forma zuzena (ik. lehen zatiko 49. atala).

**notizia:** Hiztegi Batuak *Heg.* eta *Herr.* ikurra ezartzen dizkio: markarik gabeko hitza *berri* da.

**nulo:** *nulu* da idazkera zuzena; *Mat.* ikurra ezartzen dio Hiztegi Batuak.

**numero:** Hiztegi Batuak *Gram.* ikurra ezartzen dio; *zenbaki* da bestelakoetan ohiko hitza.

**nun:** *non* da idazkera zuzena.

## O

**objetibo, objetu:** *objektibo, objektu* dira, hurrenez hurren, idazkera zuzenak.

**objektore:** Hiztegi Batuak *kontzientzia(-)objektore* hitz elkartuan bakarrik onartzen du; bestalde *kontzientzia(-)objektore* eta *kontzientzia(-)eragozle* sinonimotzat hartzen ditu; orobat *kontzientzia(-)objektio* eta *kontzientzia(-)eragozpen*.

**odaiertz:** *ostertz* hobesten du Hiztegi Batuak.

**odol-jario:** *odoljario* da idazkera zuzena; *iz.* ikurra ezartzen dio Hiztegi Batuak hitzari (ik. **-jario** sarrera).

**odolodi:** *odol hodi, odol-hodi* dira idazkera zuzenak.

**ofiziale:** Hiztegi Batuan «bere kontura ari den hargina, arotza etab.» adiera du, eta *Ipar.* ikurra ezarri zaio; «armadako karguduna» adieran da adjektibo gisa *ofizial* da idazkera zuzena.

**ohaburu, ohape:** *oheburu, ohepe* dira, hurrenez hurren, idazkera zuzenak; eta orobat *oheburuko*.

**ohe-kotxe:** ez da jasotzen Hiztegi Batuan; bai, aldiz, *ohe(-)bagoi*.

**ohituratu:** *ohitu* da forma zuzena.

**ohizko:** *ohiko* hobesten du Hiztegi Batuak.

**ohostu:** *ostu* da idazkera zuzena.

**oihaldegi:** *oihaltegi* da idazkera zuzena.

**oihaldenda:** *oihal denda* eta *oihal-denda* dira idazkera zuzenak.

**oihantzain:** *oihantzain* da idazkera zuzena, eta orobat *oihantzaintza*.

**okergune:** *okerrune* da idazkera zuzena (ik. **-gune/-une** sarrera).

**okotz:** *kokots* da idazkera zuzena.

**oldoztu:** *pentsatu* lehenesten du Hiztegi Batuak.

**omeleta:** ik. **arraultza**.

**onda:** baztertzeko forma; *uhin* da Hiztegi Batuak egokitizat jotzen duena.

**ondorean:** *ondoren* hobesten du Hiztegi Batuak.

**onegintza:** *ongintza* da forma zuzena.

**ongaitz:** *on-gaitz* da idazkera zuzena.

**ongi etorri:** izen gisa ez bada (*ongietorria eman zioten*), artikulurik gabe erabili behar da: *ongi etorri guztiok!*

**-ontzi:** *ontzi* bigarren osagai duten elkartuak hitz bakarrean idazten dira Hiztegi Ba-

tuan: *aireontzi, argiontzi, bainuontzi, baleontzi, belaontzi, edalontzi, edontzi, garbiontzi, gatzontzi, gerraontzi, hautsontzi, itsasontzi, kafeontzi, laketontzi, loreontzi, lurrinontzi, lurrontzi, lurrunontzi, oliontzi, orratzontzi (orraztoki sarreran orratz-ontzi agertzen da, oker), paperontzi, postontzi, teontzi, tintontzi, umontzi, zaborrontzi, zakarrontzi; salbuespenak lehen osagaia hiru silabakoa duten elkartuak dira: *azukre(-)ontzi*, eta *intsentsu(-)ontzi*, eta orobat *kontserba-ontzi*, *lata 2* sarreran agertzen dena.*

Orobat idazten dira hitz bakarrean ize-nondo balioa dutenak, bai *gezurrontzi, hitzontzi, kakontzi, mainontzi, putzontzi, izond.* ikurra daramatenak, bai *bal-darrontzi, negarrontzi, tripontzi* inongo markarik ez daramatenak. Bestalde orobat jasotzen ditu Hiztegi Batuak *pixontzi, iz. eta izond.* ikurra daramana, eta haren kide *txizontzi*, markarik gabe agertzen dena.

**ontziteria:** «sukaldeko ontzien multzoa» adiera du Hiztegi Batuan; *ontzidi* ere jasotzen du, ur gaineko ontziei dagokiena.

**ontzurre:** idazkera zuzena *ontza urre* da.

**onurakor:** *onuragarri* da forma zuzena (ik. lehen zatiko 51. atala).

**optiko/optikari:** lehendabizikoa izendondo gisa soilik onartzen da, eta bigarrena izen gisa soilik (ik. lehen zatiko 48. atala).

**optimismo, optimista:** *baikortasun, baikor* lehenesten ditu Hiztegi Batuak.

**oraindik orain:** Hiztegi Batuan «arestian, oraintsu, duela gutxi» adieran jasotzen da; ez, noski, «oraindik (ere)» adieran.

**orapilo:** *korapilo* da idazkera zuzena.

**orbain/orban:** Hiztegi Batuan lehenaren esanahia «ebakiondoa» da, eta bigarrenarena «zikinunea, akatsa, etab.»

**ordaintsari:** *ordainsari* da idazkera zuzena.

**ordeinu:** *ordenu* da idazkera zuzena.

**ordena:** *munduan ageri den ordena, karmeldarren ordena, ordenako sakramentua* esaldiei dagozkien adieretan erabili behar da; *ordenu*, «hilburukoa, testamentua» adieran soilik onartzen da, *Ipar.* ikurrarekin.

**ordu bete:** *ordubete* da idazkera zuzena (ik. **aste bete, hilabete, urte bete** sarrerak).

**ordukotz:** Hiztegi Batuak *Ipar.* ikurra ezartzen dio eta *orduko* lehenesten du.

**ordurarte:** *ordu arte, ordura arte* dira idazkera zuzenak.

**ordutegi:** agertzen da hitza Hiztegi Batuan; baina horrek ez du esan nahi *harrera ordutegia, harrera orduak* baino jatorragoa denik.

**organbide, organgile:** *orgabide, orgagile* dira, hurrenez hurren, idazkera zuzenak.

**organu:** *organo* da idazkera zuzena hitzaren bi adieretan.

**orgatila:** ez da ageri Hiztegi Batuan; bai, aldiz, *eskorga*.

**orkesta:** *orkestra* da idazkera zuzena, eta orobat *orkestratu*.

**orohar:** idazkera zuzena *oro har* da.

**oroldio:** *goroldio* da idazkera zuzena.

**orraz ontzi:** *orrazontzi* da idazkera zuzena.

**orrika:** *kurrika* da idazkera zuzena.

**orroa, orroe:** *orro* da idazkera zuzena.

**ortzadar:** Hiztegi Batuak *Ipar. eta Naf.* ikurra ezartzen dio eta *ostadar* hobesten du.

**ortze:** *ortzi* da idazkera zuzena; «zeru sabai, izartegia» adieran onartzen du Hiztegi Batuak.

**osakera:** *osaera* da forma zuzena.

**osotu:** *osatu* hobesten du Hiztegi Batuak adiera guztietan.

**ospatu:** Hiztegi Batuak dioenez, *menduerrenak* eta kidekoak *ospatzen* dira, ez *bilerak* eta kidekoak: *bilerak* eta kidekoak, *egin* egiten dira euskaraz (ik. **burutu** sarrera).

**otarteko:** *ogitarteko* da forma zuzena.

**ozka:** *hozka* da idazkera zuzena.

## P

**pabilioi:** idazkera zuzena *pabiloi* da.

**paga:** lehen adieran *Ipar. eta Naf.* ikurra ezartzen dio Hiztegi Batuak, eta *lansari* hobesten du; bigarrenak *Heg.* ikurra du eta «haurrei ematen zaiena» argigarria jasotzen da.

**pago-uso:** *pagauso* da idazkera zuzena.

**paisaje:** *paisaia* da idazkera zuzena (ik. **-aia/-aje** sarrera).

**pantera:** badiu sinonimo bat: *lehoinabar*.

**paparurdin:** *papo-urdin* da forma egokia.

**paper ontzi:** *paperontzi* da idazkera zuzena (ik. **-ontzi** sarrera).

**paralela:** *paralelo* da idazkera zuzena, izen gisa nahiz izenondo gisa.

**pardel:** *fardel* da idazkera zuzena.

**parking:** *aparkaleku* hobesten du Hiztegi Batuak.

**parlamentari/parlamentario:** lehendabizikoa izena da, *parlamentarien bilera* adibidekoa, esaterako; bigarrena izenondoa, *talde parlamentarioa* adibidekoa, esaterako; dena dela bigarrenaren kasuan *parlamentu(ko) taldea* hobesten du Hiztegi Batuak (ik. lehen zatiko 49. atala).

**parra-parra:** *barra-barra* da idazkera zuzena.

**parrafo:** *paragrafo* da idazkera zuzena.

**partaide:** «parte-hartzaile»-ren ordaintzat jasotzen du Hiztegi Batuak, eta *zure nahigabean partaide naiz ni ere* adibidea ematen du.

**partidu:** Hiztegi Batuak *Heg.* ikurra ezartzen dio, gaztelania hutsezkoa dela adierazteko, eta lehen adieran *partida*, Iparraldeko aldaera hobesten du, *futbol edo pilota partida bat* esaterako, eta bigarrenean *alderdi* hitza.

**pasabide:** *igarobide* lehenesten du Hiztegi Batuak.

**paseera:** *pasiera* da idazkera zuzena, baina orobat *paseo*; biak *Heg.* ikurraz agertzen dira; Hiztegi Batuak *pasealeku* eta *paseatu* ere jasotzen ditu, inongo markarik gabe.

**pasilo:** *pasillo* da idazkera zuzena; Hiztegi Batuak *Heg.* ikurra ezartzen dio, gaztelaniazkoa dela adierazteko, eta *korridore* hobesten du.

**pastila:** *pastilla* da idazkera zuzena (ik. **-il** sarrera).

**patrulla:** *patrulla* da idazkera zuzena.

**peaje:** baztertzeko forma; *bidesari* eta *ordainsari* dira Hiztegi Batuak egokitatzat jotzen dituen ordainak.

**peita:** *beita* da idazkera zuzena.

**pelota:** *pilota* da idazkera zuzena.

**peluka:** baztertzeko forma; *ileorde* da Hiztegi Batuak egokitatzat jotzen duena.

**penalty:** *penalti* da idazkera zuzena.

**pena merezi:** ez da Hiztegi Batuan agertzen, eta kide egokia *merezi* soila da: *ez du merezi joatea*.

**penintsula:** badu sinonimo betea, *erdiu-harte*.

**perfektu:** gramatikaren alorrean *burutu* erabili behar da.

**perito:** *peritu* da idazkera zuzena, eta orobat *peritutza*.

**perra:** *ferra* da idazkera zuzena; orobat *ferratoki*, *ferratu*, *ferratzaile*.

**pintura:** badu sinonimo bat, *margo*.

**piper-beltz:** *piperbeltz* da idazkera zuzena, eta orobat *pipermin*, *pipermorro* eta *piperrauts*.

**pisatu:** nahiz gomendio gisa oraindik ez den eman, 1994.eko Leioako Biltzarrean Euskaltzaindiak dioenez *zenbat pisatzen duk?*, *laurogei kilo pisatzen dinat/dizkinat* bezalako esaldiak zuzenak dira (ik. lehen zatiko 26.5 azpiatala).

**pistilo:** badu sinonimo bat, *lore(-)orratz*.

**pizkina:** baztertzeke forma; *igerileku* da Hiztegi Batuak egokitzen jotzen duena.

**pitxi:** *bitxi* erabili behar da adiera guztietan.

**pixa-oihal:** *pixoihal* da idazkera zuzena.

**pizkor:** *bizkor* da idazkera zuzena.

**piztarazi:** *piztarazi* da idazkera zuzena.

**pizti:** *piztia* da idazkera zuzena, baina *piztikeria* idatzi behar da, ez *\*piztiakeria*, eta orobat *piztitxo* eta *piztiztar*.

**plajio:** *plagio* da idazkera zuzena.

**planta:** Hiztegi Batuak *xafla* hobesten du lehen adieran eta *lisaburdina* bigarrenean.

**plantxatu:** *lisatu* hobesten du Hiztegi Batuak.

**platano:** Hiztegi Batuak, adiera arruntenean, *Heg.* ikurra ezartzen dio eta *banana* hobesten du.

**plaza-gizon:** *plazagizon* da idazkera zuzena.

**plomada:** *plomu* da forma zuzena.

**plomu:** *berun* hobesten du Hiztegi Batuak.

**plubiometro:** *euri(-)neurgailu* hobesten du Hiztegi Batuak.

**polbora:** *bolbora* da idazkera zuzena.

**polen:** badu sinonimo betea, *lore(-)hauts*.

**polizia:** inguruko hizkuntza guztien bidetik, elkarte eta kideak bereiztea proposatzen du Hiztegi Batuak: elkartearentzat *polizia* eta kideentzat *poliziakide*, *poliziako*.

**polo:** Hiztegi Batuak beste argibiderik gabe jasotzen du; bestalde *lurburu*, «Lurra-  
ren poloa» argigarriarekin, *iparburu* eta *hegoburu* ere jasotzen ditu.

**porru jorra:** *porrujorra* da idazkera zuzena.

**portuges:** «herritarra» adieran *portugalдар* du sinonimo, eta «hizkuntza» adieran, *portugalera*.

**portzentaje:** *ehuneko* hobesten du Hiztegi Batuak (ik. bestalde *-aia/-aje* sarrera).

**potro jorran:** *potrojorran* da idazkera zuzena.

**poxxolu:** *pospolo* da idazkera zuzena.

**pozoin:** *pozoi* da idazkera zuzena, eta orobat *pozoidun*, *pozoiu*, *pozoiutsu*.

**prehistoria:** *historiaurre* hobesten du Hiztegi Batuak.

**presidente:** *lehendakaria*, *burua* lehenesten ditu Hiztegi Batuak.

**prestijio:** *prestigio* da idazkera zuzena.

**prezeski:** *preseski* da idazkera zuzena.

**preziatu:** izenondo gisa soilik onartzen da Hiztegi Batuan «balio handikoa» adieran; *harri preziatu*-ren kide *harribitxi* ematen da.

**preziagarri:** *prezagarri* da forma zuzena.

**pribilejio:** *pribilegio* da idazkera zuzena.

**probetxatu:** *aprobetxatu* da idazkera zuzena; *Heg.* ikurra darama honek.

**proiektil/projektil:** baztertzeke formak; *jaurtigai* da Hiztegi Batuak egokitzen jotzen duena.

**proiektu:** *proiektu* da idazkera zuzena.

**puding:** *budin* da idazkera zuzena.

**puru:** Hiztegi Batuak «hutsa, garbia» adieran onartzen du, nahiz eta bi horiei nola-baiteko lehenasuna ematen dien; baina Kimikan, esaterako, askoz ere txukunagoa da, nire ustez, *aratz* erabiltzea, *araztegi*, *araztu*-ren ildotik, *arazten den urrea*-ren ondorioa *urre aratza* baita. Bestalde Hiztegi Batuak bigarren *puru* bat jasotzen du, «zigarroa» argigarritzat duena eta *Heg.* marka daramana gaztelaniazkoa dela adierazteko.

## R

**record:** *errekor* da idazkera zuzena.

**rifle:** *errifle* da forma zuzena.

**rugby:** *errugbi* da idazkera zuzena, eta orobat *errugbilari*.

**ruleta:** *erruleta* da idazkera zuzena.

## S

**sabotaia:** *sabotaje* da forma zuzena (ik. -*aia/-aje* sarrera).

**saguzahar:** *saguzar* da idazkera zuzena.

**saiaera:** *saiakera* da idazkera zuzena.

**sailordetza:** *sailburuordetza* da forma zuzena.

**saindu:** *santu* hobesten du Hiztegi Batuak.

**sakongune:** *sakonune* da idazkera zuzena (ik. -*gune/-une* sarrera).

**sakrilejio:** *sakrilegio* da idazkera zuzena.

**salbaia, salbaje:** *salbai* da idazkera zuzena, eta orobat *salbaikeria* eta *salbaiki*; *Ipar.* ikurra ezartzen die hirurei Hiztegi Batuak (ik. -*aia/-aje* sarrera).

**samba:** *sanba* da idazkera zuzena.

**sandwix:** idazkera zuzena *sandwich* da.

**sarats:** *sahats* da idazkera zuzena.

**sardinzahar, sardintzar:** *sardinzar* eta *sardin zahar* dira idazkera zuzena; lehena *Clupea harengus harengus* motako arrainen izena da; bigarrena, sardina idorra.

**sargento:** *sarjentu* da idazkera zuzena.

**sarobe:** *saroi* da idazkera zuzena.

**sasi-:** «aizun»-en kide gisa ari denean, *sasia*, *sasieskola*, *sasiezkontza*, *sasijainko*, *sasijakintsu*, *sasijakitun*, *sasikume*, *sasiletradu*, *sasimediku* eta *sasiprofeta* hitzetan, bigarren osagaiari lotuta idazten da Hiztegi Batuko adibide guztietan.

**saski-baloi:** *saskibaloi* da idazkera zuzena.

**sastre:** Hiztegi Batuak *Heg.* ikurra ezartzen dio, gaztelania hutsezkoa dela adierazteko, eta *jostun* hobesten du.

**scanner:** *eskaner* da idazkera zuzena.

**scout:** *eskaut* da idazkera zuzena.

**sebo:** Hiztegi Batuak *Heg.* ikurra ezartzen dio, gaztelaniazkoa dela adierazteko, eta *bilgor* lehenesten du.

**seba:** *zeta* da idazkera zuzena.

**seduktore, seduzitu:** *limurtzaile*, *limurtu*, hurrenez hurren, lehenesten ditu Hiztegi Batuak.

**segari:** *segalari* da forma zuzena.

**sega-harri:** idazkera zuzena *segarri* da (ik. *harri* sarrera).

**seguratu:** *segurtatu* da forma zuzena.

**seinzain, seinzaro:** *seintzain*, *seintzaro* dira, hurrenez hurren, idazkera zuzena.

**seirehun:** *seiehun* da idazkera zuzena.

**sekretario:** Hiztegi Batuak *idazkari* hobesten du (ik. lehen zatiko 49. atala).

**sekulan:** *sekula* da idazkera zuzena.

**senadore:** *senatari* da forma zuzena.

**sendi:** *familia* hobesten du Hiztegi Batuak.

**senditu:** *sentitu* da idazkera zuzena.

**sendor:** *sendo* da forma zuzena.

**sentidu:** Hiztegi Batuak *Heg.* ikurra ezartzen dio, gaztelaniazkoa dela adierazteko, eta *zentzu*, *zentzumen* hobesten ditu.

**sentimen/sentipen:** *ikusmen*, *entzumen*, etab. izendatzeko Hiztegi Batuan *zentzumen* —eta *Ipar.* ikurrarekin *sentsu*— hautatuenez gero, nire ustez, literatur tradizioa ikusirik, *sentimen*, *sentimendu*-ren kide gisa, eta *sentipen* Hiztegi Batuan jasotzen ez den «sentsazio»-ren kide erabiltzea izango litzateke egokiena eta txukunena.

**serio/serios:** maila berean onartzen ditu Hiztegi Batuak, lehena *Heg.* ikurrarekin eta bigarrena *Ipar.* ikurrarekin.

**serraila:** *sarraila* da idazkera zuzena.

**siesta:** Hiztegi Batuak inongo markarik gabe onartzen du; sinonimo bat du, *biao*.

**sinadura, sinatu:** Hiztegi Batuak *izenpe* eta *izenpetu* ere jasotzen ditu.

**sines-/sinis-:** Hiztegi Batuak *sinetsi* aldaera hobesten duenez, eratorri guztiak —*sinesbera*, *sinesgai*, *sinesgaitz*, *sinestun* etab.— *sines-* sailekoak dira. Bestalde *sinetzarazi* da arazlearen idazkera zuzena.

**sirimiri:** *zirimiri* da idazkera zuzena.

**-ska/-xka:** atzizki txikigarri honetarako *-xka* da Hiztegi Batuko forma: *adaxka*, *aldaxka*, *belaxka*, *berdexka*, *bidexka*, *buruxka*, *gelaxka* (erleena), *gorrixka*, *harrixka*, *herrixka*, *horixka*, *kuluxka*, *kurrixka*, *liburuxka*, *mailuxka*, *mendixka*, *mordoxka*, *ontzixka*, *otarrainxka*, *pilixka* (*Ipar.*), *pixka*, *sardexka*, *urdinxka*, *zamaxka*, *zaticka* (*Ipar.*), *zoroxka*, *zuhaixka*, *zhamuxka* (*Ipar.*), eta *zurixka* dira Hiztegi Batuan agertzen direnak, eta orobat *zubixka*, *zaldain* sarrerako definizioan; *ildaska* ez da salbuespen bat, ez baitago hitz horretan delako atzizkia (ik. lehen zatiko 56. atala).

**sofritu:** *sufritu* da idazkera zuzena.

**soia:** *soja* da idazkera zuzena.

**soka-dantza:** idazkera zuzena *sokadantza* da (ik. -*dantza* sarrera).

**solidaritza:** *solidaritate* da idazkera zuzena.  
**solidu:** *solido* da idazkera zuzena.  
**solo:** *soro* da idazkera zuzena.  
**solomilo:** baztertzeko forma; *azpizun* da Hiztegi Batuak egokitzen jotzen duen ordaina.  
**somatu:** *sumatu* da idazkera zuzena.  
**sonda:** *zunda* da idazkera zuzena.  
**sorberri:** *sortu berri* da forma zuzena, baina *sorberritu* onartzen du Hiztegi Batuak.  
**sormarka:** *sor-marka* da idazkera zuzena, eta orobat *sor-mintzaira*.  
**sortarazi:** *sorrarazi* da idazkera zuzena.  
**sostenidu:** baztertzeko forma; *diese* da Hiztegi Batuak egokitzen jotzen duen ordaina.  
**sozio:** *bazkide* hobesten du Hiztegi Batuak.  
**smoking/esmokin:** maila berean onartzen ditu Hiztegi Batuak.  
**spagheti:** *espageti* da idazkera zuzena.  
**sprint:** *esprint* da idazkera zuzena.  
**standard:** *estandar* da idazkera zuzena.  
**stress:** *estres* da idazkera zuzena.  
**suakartu:** *su hartu* eta *suak hartu* dira forma zuzenak: *su hartu zuen mendiak* eta *suak hartu zuen mendia*.  
**subjektibo, subjetu:** *subjektibo, subjektu* dira idazkera zuzenak hurrenez hurren.  
**subjunktibo:** *subjuntibo* da idazkera zuzena.  
**sujeito:** idazkera zuzena *subjektu* da.  
**su-pizteko:** *supizteko* da idazkera zuzena.  
**suspentse:** *suspense* da idazkera zuzena.  
**sustantibo, sustantzia:** *sustantibo, substantzia* dira idazkera zuzenak hurrenez hurren; dena dela Hiztegi Batuak onartzen du *sustantzia* idatziriko hitza, *Herr.* ikurrarekin, *sustantzia gutxiko gizona* adibidea.  
**sustar:** *zuztar* da idazkera zuzena.  
**sustengatu:** *sostengatu* da idazkera zuzena.  
**susto:** *Heg. Herr.* ikurra ezartzen dio Hiztegi Batuak, eta *ikara, beldur* hobesten ditu.  
**su-ziri:** *suziri* da idazkera zuzena.

## T

**tailer:** Hiztegi Batuak *Heg.* ikurra ezartzen dio, gaztelania hutsezkoa dela adierazteko, eta *lantegi* hobesten du; *lantegi* sarreran, lehen adieran *eskultorearen lantegia* ematen du adibidetzat.

**taiu:** *taxu* da idazkera zuzena.  
**tamainu:** *tamaina* da idazkera zuzena.  
**tantu:** *tanto* da idazkera zuzena.  
**taratulu:** idazkera zuzena *daratulu* da.  
**taxista:** baztertu egiten du Hiztegi Batuak gaztelania hutsezko forma hau; *taxilari* ematen du forma egokitzen.  
**teilagile:** *teilagin* da hiztegi Batuak jasotzen duen forma.  
**teinkatu:** *tenkatu* da idazkera zuzena.  
**tekniko/teknikari:** lehendabizikoa izendondo gisa soilik onartzen da, eta bigarrena izen gisa soilik (ik. lehen zatiko 48. atala).  
**teniente:** Hiztegi Batuak *Heg.* marka ezartzen dio, gaztelaniazkoa dela adierazteko; sinonimotzat Iparraldeko *lotinant* ematen du, iparraldekoaz gainera nai-zoartekoa dena.  
**te-ontzi:** *teontzi* da idazkera zuzen (ik. **-ontzi** sarrera).  
**tesoro:** Hiztegi Batuak *Heg.* marka ezartzen dio eta *altxor* hobesten du.  
**testigu:** Hiztegi Batuak *Heg.* marka ezartzen dio eta *lekuko* lehenesten du.  
**tetano:** *tetanos* da idazkera zuzena.  
**tila:** baztertzeko forma; *ezki(-)lore* da Hiztegi Batuak egokitzen jotzen duen ordaina.  
**tilista:** *dilista* da idazkera zuzena.  
**tintatu:** *tindatu* da idazkera zuzena.  
**tolare:** *dolare* da idazkera zuzena.  
**tolestatu:** Hiztegi Batuak *tolestu* hobesten du.  
**tomo:** badu sinonimo bat, *liburuki*.  
**tonelada:** idazkera zuzena *tona* da.  
**torre:** *dorre* da forma zuzena.  
**tortila:** *tortilla* da idazkera zuzena (ik. **-II-** sarrera).  
**traje:** Hiztegi Batuak *Heg.* marka ezartzen dio, gaztelaniazkoa dela adierazteko, baina ez du aukerabiderik ematen.  
**trantsistore:** *transistore* da idazkera zuzena.  
**trasatlantiko:** *transatlantiko* da idazkera zuzena.  
**translazio:** geometriar eta astronomiar onartzen da.  
**trastero:** *trasteleku* da Hiztegi Batuak onartzen duen forma.  
**tregoa:** *menia, su-eten, gudu-eten* lehenesten ditu Hiztegi Batuak.  
**tregoharri:** *trikuharri* da forma zuzena (ik. **harri** sarrera).  
**treineru:** *traineru* da idazkera zuzena.

**trineo:** baztertzeko forma; *lera* da Hiztegi Batuak egokitzen jotzen duen ordaina.

**trinitate:** *hirutasun* hobesten du Hiztegi Batuak.

**tristetu:** *tristatu* da idazkera zuzena.

**trono:** idazkera zuzena *tronu* da.

**trotskista:** *troskista* da idazkera zuzena.

**ttipi:** *Ipar. edo Lit.* ikurra ezartzen dio Hiztegi Batuak, eta *txiki* lehenesten du.

**txangurro:** *txangurru* da idazkera zuzena.

**txanpain, txanpu:** frantsesetik hitz hauen idazkera zuzena *xanpain, xanpu* da hurrenez hurren.

**txanpinoi:** *Heg. Herr.* ikurra ezartzen dio Hiztegi Batuak, eta *barrengorri* hobesten du.

**txantaje:** *xantaia* da idazkera zuzena (ik. *-aia/-aje* sarrera).

**txikle:** Hiztegi Batuak *Heg.* marka ezartzen dio, gaztelaniazkoa dela adierazteko, baina ez du aukerabiderik ematen.

**tximitx:** *zimitz* da forma zuzena.

**tximu:** Hiztegi Batuak *Gip.* ikurra ezartzen dio eta *tximino* hobesten du.

**txingurri:** *txindurri* da idazkera zuzena; nolana ere Hiztegi Batuak *inurri* lehenesten du, *inurritegi* eta *inurritu* eratorriak zerrendaratuz.

**txinpanze:** *txinpantze* da idazkera zuzena.

**txipi:** *txiki* hobesten du Hiztegi Batuak.

**txirribita:** *xirribika* da forma zuzena; *Ipar.* ikurra ezartzen dio *xirribika*-ri Hiztegi Batuak.

**txistorra:** *txistor* da idazkera zuzena.

**txito:** izen gisa, *txita* da idazkera zuzena, eta adizlagun gisa, *txit:* adibidez *oiloak txitak izan ditu* eta *txit gorena*.

**txitxare:** *zizare* da idazkera zuzena.

**txofer:** *Heg. Herr.* ikurra ezartzen dio Hiztegi Batuak.

**txoro:** *Adkor.* ikurra ezartzen dio Hiztegi Batuak.

**txukatu:** *xukatu* da idazkera zuzena.

**txuri:** *zuri* da idazkera zuzena.

## U

**ubelgune:** *ubelune* da idazkera zuzena (ik. *-gune/-une* sarrera).

**ugarte:** idazkera zuzena *uharte* da.

**uhain:** *uhin* da idazkera zuzena.

**uherka:** *uharka* da idazkera zuzena.

**ujolde:** idazkera zuzena *uholde* da.

**ukan:** *Ipar.* ikurra ezartzen dio Hiztegi Batuak, eta *izan* lehenesten du.

**ukrainiar, ukrainiera:** *ukrainar, ukrainera* dira idazkera zuzenak.

**ulerrarazi:** *ulertarazi* da idazkera zuzena.

**umetu:** «ume bilakatu» adieran soilik onartzen du Hiztegi Batuak; bestela *umatu* da forma zuzena.

**une-:** ik. *-gune/-une*:

**untzi:** *ontzi* da idazkera zuzena hitzaren bi adieretan (ik. *-ontzi* sarrera).

**untziola:** *ontziola* da idazkera zuzena.

**uraga, uranditu:** *uhaga, uhanditu* dira, hurrenez hurren, idazkera zuzenak.

**uregazkin:** *ur-hegazkin* da idazkera zuzena.

**urjauzi:** *ur-jauzi* da idazkera zuzena.

**urjente:** idazkera zuzena *urgente* da, eta orobat *urgentzia*.

**urmahel:** *urmael* da idazkera zuzena.

**urrats:** *urratsak* egin da ohiko joskera, ez *urratsak eman*.

**urraza:** *uraza* da idazkera zuzena.

**urregin:** Hiztegi Batuak *Bizk.* ikurra ezartzen dio eta *urregile* lehenesten du.

**urritz:** *hurritz* da idazkera zuzena.

**urte bete:** *urtebete* da idazkera zuzena; *urtebete egon zen gaixorik* da joskera zuzena, ez *\*urtebete bat egon zen gaixorik*.

**urtukor:** *urkor* da forma zuzena.

**urtzi:** *ortzi* da idazkera zuzena.

## V

**voltio:** *volt* da forma zuzena, eta orobat *voltmetro*.

## W

**watio:** *watt* da forma zuzena, eta orobat *wattmetro*.

**whisky:** *whiski* da idazkera zuzena; eta orobat *whiskitegi*.

## X

**xagu:** *sagu* da idazkera zuzena, eta orobat *saguzar*.

**xara:** *txara* da idazkera zuzena.

**xehetu:** *xehatu* da idazkera zuzena.

**xiberera, xiberotar:** *zuberera, zuberotar* hobesten ditu Hiztegi Batuak.

**xinple:** *Adkor.* ikurra ezartzen dio Hiztegi Batuak.

**xip:** ingelesetiko hitz honen idazkera zuzena *txip* da.

**xirula:** *txirula* da idazkera zuzena.

**xixare:** *zizare* hobesten du Hiztegi Batuak.

**-xka:** ik. **-ska**

## Y

**yogur:** *jogurt* da idazkera zuzena.

## Z

**zabalune:** *zabalgune* da idazkera zuzena (ik. **-gune/-une** sarrera).

**zailu:** *zalu* eta *zoli* dira idazkera zuzenak.

**zaintzuri:** *zainzuri* da idazkera zuzena.

**zakur:** Hiztegi Batuak *txakur* lehenesten du, eta hortaz, aldaera horrekin eraturiko eratorri eta elkartuak dira zerrendan agertzen direnak; *zakur, Ipar. eta Naf.* ikurraz agertzen da, eta *zakurkeria, zakurki, zakurkume* eta *zakurtegi* berariaz baztertzen dira, *txakurkeria, txakurki, txakurkume, txakurtegi* idazkerak aginduz; bestalde, *xakur* ere ematen da Hiztegi Batuan, *Ipar eta Naf.* eta *Adkor.* ikurrez.

**zalge:** *zalke* da idazkera zuzena.

**zamalzain:** *zamtzain* da idazkera zuzena.

**zangoluze:** *zangaluze* da idazkera zuzena.

**zangorri:** *zaingorri* da idazkera zuzena; *Bot.* ikurra ezartzen dio Hiztegi Batuak *zaingorri*-ri.

**zangurru:** *txangurru* da idazkera zuzena.

**-zantza/-zaintza:** *-zaintza* da atzizkiaren forma zuzena, salbuespenik gabe: *artzaintza, ertzaintza* etab.

**zapata denda:** *zapata denda* eta *zapata denda* dira idazkera zuzenak.

**zapatila:** Hiztegi Batuak *Heg.* marka ezartzen dio, gaztelaniazkoa dela adierazteko, eta *txapin* hobesten du.

**zartai(n):** *zartagin* da idazkera zuzena.

**zazpirehun:** *zazpiehun* da idazkera zuzena.

**ze:** Hiztegi Batuak *Lgart.* ikurra ezartzen dio, eta *ezen, zeren* alde batetik, eta *zer, zein* bestetik, hobesten ditu.

**zehakatu:** *xehakatu* da idazkera zuzena.

**zenbatnahi:** *zenbanahi* eta *zenbat-nahi* dira idazkera zuzenak.

**zenbakarren:** *zenbatgarren* da idazkera zuzena; baina *zenbakaitz, zenbakarri* onartzen ditu Hiztegi Batuak.

**zerbeza:** Hiztegi Batuak *Heg.* marka ezartzen dio, gaztelaniazkoa dela adierazteko, eta *garagardo* hobesten du.

**zerebelo:** hitza ez da nazioartekoa; Hiztegi Batuak «garuntxo» lehenesten du.

**zerebro:** Hiztegi Batuak *Heg.* marka ezartzen dio, gaztelaniazkoa dela adierazteko, eta *burmuin* hobesten du.

**zerraila:** *sarraila* da idazkera zuzena.

**zerri:** Hiztegi Batuak lehenesten du *txerri*-ri ematen dio, eta hortaz, aldaera horrekin eraturiko eratorri eta elkartuak dira zerrendan agertzen direnak; *zerri, Batez ere Ipar. eta Naf.* ikurraz agertzen da, eta *zerrikeria* eratorria berariaz baztertzen da, *txerrikeria* idazkera aginduz; bestalde, *xerri* ere ematen da Hiztegi Batuan, *Ipar eta Naf.* eta *Adkor.* ikurrez.

**zertifikatu:** baztertzeko forma; *ziurtagiri* eta *sinestamendu* dira Hiztegi Batuak egokitzat jotzen dituen ordainak.

**zigarro:** hitzaren adiera arruntean Hiztegi Batuak *Heg.* marka ezartzen dio, gaztelaniazkoa dela adierazteko, eta *zigarreta* hobesten du; ik. **puru.**

**zigoina:** *zikoina* da idazkera zuzena; sinonimo bat du, *amiamoko.*

**zilueta:** idazkera zuzena *silueta* da.

**zima:** *simaur* da idazkera zuzena.

**zimino:** *tximino* da idazkera zuzena.

**zine:** *zinema* hobesten du Hiztegi Batuak.

**zita:** *hitzordu* hobesten du Hiztegi Batuak.

**zirko:** *zirku* da idazkera zuzena.

**zirkulo:** *zirkulu* da idazkera zuzena.

**zirkunbalazio:** baztertzeko forma; *ingurabide* da Hiztegi Batuak egokitzat jotzen duen ordaina.



**zirujau:** Hiztegi Batuak «barberu»-ren kideztat ematen du eta *Bizk.*, *Zah.* ikurrak ezartzen dizkio.

**zirujia:** baztertzeko forma; *kirurgia* da Hiztegi Batuak egokitizat jotzen duena.

**zolu:** *zola* da forma zuzena.

**zortzirehun:** *zortziehun* da idazkera zuzena.

**zuganatu:** *zureganatu* hobesten du Hiztegi Batuak.

**zumo:** baztertzeko forma; *zuku* da Hiztegi Batuak egokitizat jotzen duena, eta el-karketan, orobat *ur (laranja(-)jura)*.

**zuriska:** *zurixka* da idazkera zuzena (ik. *-ska/-xka* sarrera).

**zuzpeltu:** *suspeltu* da idazkera zuzena.



## Bibliografia aukeratua

- AGIRRE, J.M. (1994), «Desoreka sintaktikoak», *Administrazioa Euskaraz*, 6. zenbakia, 16. or.
- ALBERDI, X. eta GARCIA, J. (1996), «Zein (...) bait-/n egitura», in I. ZABALA (1996), *Testu-loturarako Baliabideak*. Bilbo: EHUko Argitalpen Zerbitzua, 131-167.
- ALBERDI, X.; GARCIA, J.; UGARTEBURU, I. (1997), «Izenen mendeko perpausak: XX. mendeko erabileraz», *ASJU*, XXXI-1, 1997, 149-210.
- , (2000a), «Perpaus osagarri izenlagunak: tradizioa (I)», 2000ko *ASJU*-n argitaratzekoa.
- , (2000b), «Perpaus osagarri izenlagunak: tradizioa (II)», 2000ko *ASJU*-n argitaratzekoa.
- ALBERDI, X.; UGARTEBURU, I. (1999), *Euskaltzaindiaren Araugintza Berria: Ikastaroa*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- ARRASATE, M. (1992), *Euskarazko Albistegietarako Esku-Liburua*. Bilbo: Euskal Irrati-Telebista.
- ARTIAGOITIA, X. (1995), «-Garri atzizkiaren izaera bikoitzaz: Zergatik den maitagarria bezain mingarria», *ASJU*, XXIX-2/3, 355-405.
- AZKARATE, M. (1990), «Euskal -garri vs. latinezko -bilis: bi balio desberdin», in E. PEREZ eta P. URKIZU (eds.), *Patxi Altunari Omenaldia*, Donostia: Mundaiz.
- AZKARATE, M.; ALTUNA, P. (1992), «-ko/-dun atzizkiez», in EUSKALTZAINDIA, *Iker-6: Luis Villasanteri Omenaldia*. Bilbo: Euskaltzaindia, 91-112.
- , (1993a), «Behartuta izan da vs behartua izan da / behartu dute», *Administrazioan Euskaraz* 1, 16. or.
- , (1993b), «-garri eta -kor atzizkien erabileraz», *Berba* 10, 16. or.
- , (1995), *Hobekuntza Ikastaroa*, EHUUn emandako ikastaro baten material argitaragabea.
- AZKUE, R.M. (1923-1925), *Morfología Vasca, I-III*. Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca.
- BAILEY, JR.E. (1990), *The Plain English Approach to Business Writing*. New York, Oxford: Oxford University Press.
- BIGURI, K. (1994), «Erdarazko erlatiboen itzulpenaz», *Senex*, 10. urtea, 1994: 37-71.
- CASSANY, D. (1993), *La cocina de la escritura*. Barcelona: Anagrama (1996ko argitaralditik aipatzen da).
- EAGLESON, R.D. (1990), *Writing in Plain English*. Canberra: Commonwealth of Australia (1992ko argitaraldia erabili dugu aipamenetarako).
- EGUNKARIA (1995), *Estilo Liburua*. Donostia: Egunkaria.
- EGUZKITZA, A., 1993, «Adnominals in the Grammar of Basque», J.I. HUALDE, ORTIZ DE URBINA (arg.), *Generative Studies in Basque Linguistics*. Amsterdam, Philadelphia: John Benjamins, 163-187.

- ELOSEGI, A. (1996), «Ohar batzuk *-(e)lal-*(*e)larik* atzizkien erabilera eta balioei buruz», in I. ZABALA (1996), *Testu-loiturarako Baliabideak*. Bilbo: EHUko Argitalpen Zerbitzua, 169-192.
- ENSUNZA, M. (1989), «Erdal adjektibo erreferentzialetarako euskal ordainak», *Euskera*, 1989-2.: 577-596.
- ESPAÑA, E. (1999), «Aditz deklaratioak», *Administrazioa Euskaraz*, 24. zenbakia, 18-19.
- ETXEBERRIA, J.L. («Txigua») (1993), *Euskera Jatorraren Ildotik*. Vitoria-Gasteiz.
- EUSKALTZAINDIA (1985), *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak*. Iruñea: Euskaltzaindia.
- , (1987), *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-I (Eranskina)*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- , (1990), *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-III (Lokailuak)*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- , (1992a), *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-I*. Bilbo (berrargitalpena): Euskaltzaindia.
- , (1992b), *Hitz Elkartuen Osaera eta Idazkera. Hitz-elkarketa/4. LEF Batzordearen emaitza. Euskaltzaindiaren gomendio-arauak*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- , (1993a), *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- , (1993b), *Hitz Elkartuen Osaera eta Idazkera*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- , (1994a), *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak IV (Juntagailuak)*, Euskaltzaindia.
- , (Gramatika Batzordea) (1994b), «Batasunerako proposamenak», *Euskera*, 1994-3, 835-910.
- , (Gramatika Batzordea) (1994c), «Okerrak zuzenduz», *Euskera* 1994-3, 39. liburukia, 911-965. Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarrean aurkeztutako txostena.
- , (LEF Batzordea) (1994d), «Eratorpenaz», *Euskera* 1994-3, 39. liburukia, 1039-1058). Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarrean aurkeztutako txostena.
- , (Gramatika Batzordea) (1998), *Arau Proposamenak*, Areatzan, 1998.eko uztailaren 24an aurkeztutako txosten argitararagabeak.
- , (1999), *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-V (Mendeko Perpausak-I)*. Bilbo: Euskaltzaindia. [EGLU-V].
- , (2000), *Hiztegi Batua*. Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala, *Euskera*, 2000-2, 45. liburukia.
- GARATE, G. (1988), *Erdarakadak*. Bilbo: Mensajero.
- , (1994), «Bizkaiera», *Euskaldunon Egunkaria* (1994.XI.4ko «Orri debozinezkoa», 26. or.).
- GARCIA, J. (1996), «Erlatibizazioa testu teknikoetan», *Ekaia* 5, 177-193.
- GARZIA, J. (1997), *Joskera Lantegi*. Donostia: IVAP-HAEE (Herri Ardulararitza Euskal Erakundea).
- , (1998), «Hura, bera eta abarren adar gehiago», *Senez* 18.
- GOENAGA, P. (1980a), «Perpuas kompletiboei buruz», *Euskera*, 1980-2, 581-596.
- , (1980b), *Gramatika Bideetan*<sup>2</sup>. Donostia: Erein.
- , (1985a), «Complementación y nominalización en euskera», *ASJU*, XIX-2, 493-570.
- , (1985b), «Konpletiboak, zehargalderak eta erlatiboak», in P. SALABURU (ed.), *Euskal Sintaxiaren Zenbait Arazo*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 157-189.
- , (1991), *Proyecto docente (Lengua Vasca)*, Katedrako irakaskuntza-proiektua (Euskal Filologia Saila), 196-264.
- , (1994), «Lehendakaria funtziotan denerako», in *Euskaldunon Egunkaria* 1994.XI.25 («Orri debozinezkoa» atala: 26. or.).
- GRÀCIA, LL.; CABRÉ, T.; VARELA, S.; AZKARATE, M.; et al. (2000), *Configuración morfológica y estructura argumental: léxico y diccionario*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- HAEE-IVAP (1994), *Hizkera Argiaren Bidetik*. Gasteiz: Herri Ardulararitza Euskal Erakundea (HAEE).
- , (1999), *Zalantza Dantza*. Gasteiz: Herri Ardulararitza Euskal Erakundea (HAEE).

- HIDALGO, V. (1994), Hitzzen Ordena Euskaraz. Euskal Herriko Unibertsitatean irakurritako doktorego-tesi argitaragabea.
- , (1996a), «Euskal joskeraren mito kaltegarriak (I). Nola idatzi euskaraz modu arin, ulergarri eta aberats batean», *Hizpide* 35, 39-51.
- , (1996b), «Euskal joskeraren mito kaltegarriak (II). Euskararen hitz-ordena libre», *Hizpide* 36, 21-27.
- , (1996c), «Euskal joskeraren mito kaltegarriak (eta III). Aditza maiz euskaraz esaldi hasieran», *Hizpide* 37, 23-31.
- IDIAZABAL, I.; LARRINGAN, L.M. (1998), *Koherentzia, kohesioa eta konexioa: testuratzte baliabideak. Hizkuntzaren azterketa eta irakaskuntza*. Vitoria-Gasteiz: Arabako Foru Aldundia.
- KALTZAKORTA, M. (1997), «Definizioak ematen», *Administrazioa Euskaraz*, 16. zenbakia, 9. or.
- LAFITTE, P. (1944), *Grammaire Basque (Navarro-Labourdin Littéraire)*, (aipamenak hirugarren argitaraldiari dagozkio: Donostia, Elkar, 1979).
- LARRINGAN, L.M. (1995), *Testu-antolatzaileak bi testu-motatan: testu informatiboa eta argudiapenezkoa*. Doktorego-tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- LÁZARO CARRETER, F. (1997), *El dardo en la palabra*. Barcelona: Galaxia Gutenberg-Círculo de Lectores.
- LOINAZ, M. (1995), «Adjektibo erreferentzialen erabilera», *Berba* 16.
- MAKAZAGA, J. (1996), «Perpausen arteko testu-mailako lotura: testu zientifikoak sortzen», in ZABALA (koord.) (1996), 45-111.
- MAKAZAGA, J. (1999), «-kiko atzizki konposatuaz», in ODRIOZOLA (koord.) (1999), 7-53.
- MAP (Ministerio para las Administraciones Públicas) (1991), *Manual de estilo del lenguaje administrativo*. Madrid: Ministerio para las Administraciones Públicas (1993ko argitaldia erabili dugu aipamenerako).
- , (1999), «-kiko atzizki konposatuaz» in ODRIOZOLA (koord.) (1999), 15-53.
- MITXELENA, K. (1978), «Relato y orden de palabras», *Fontes Lingua Vasconum X*, 205-228. (Berrargitaratua in L. MICHELENA, *Palabras y textos*. Euskal Herriko Unibertsitatea, 1987, 363-385).
- , (1986), «Eratorbidea eta deklinabidea», *Euskera* 31 (2), 534-544.
- MORALES, J. (1995), «Hura eta bera. Haren, beraren eta bere», *Senex* 16, 81-92.
- ODRIOZOLA, J.C. (1996), «Euskal baldintzazko adizkiak eta baldintzapenak», in I. Zabala (1996), *Testu-loturarako Baliabideak*. Bilbo: EHUKo Argitalpen Zerbitzua, 193-224.
- , (koord.) (1999), *Zenbait Gai Euskara Teknikoaren Inguruan*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- OSA, E. (1990), *Euskararen Hitzordena (Komunikazio Zereginaren Arabera)*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- OYHARÇABAL, B. (1985), *Les relatives en basque*, Collection UA 1028, CNRS-Université Paris VII.
- , (1986), «Erlatibakuntza: perpau erlatiboen egitura: izen erlatibatuaren betakizuna haren barnean», in P. SALABURU (ed.), *Euskal Sintaxiaren Zenbait Arazo*, Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 131-153.
- , (1987), *Etude descriptive de constructions complexes en basque: propositions relatives, temporelles, conditionnelles et concessives*, Doktorego-tesia (CNRS, UA 04 1028 Paris 7).
- , (1994), «Ekiko-keriarik ba ote den», *Euskaldunon Egunkaria* (1994.IX.02ko «Orri debozinezkoa», 24. or.).
- PETRIRENA, P. (1994), «Ikastolaren zuzendaria ala ikastolakoa?», *Euskaldunon Egunkaria* (1994.II.18ko «Orri debozinezkoa», 26.or.).
- REY, F. (1995), «Hartz gero / hartzekotan», *Euskaldunon Egunkaria* (1995.II.3-ko «Orri debozinezkoa», 26.or.).

- SARASOLA, I. (1996), *Euskal Hiztegia*. Donostia: Kutxa Gizarte- eta Kultur Fundazioa.
- , (1997), *Euskara Batuaren Ajeak*. Donostia: Alberdania.
- VILLASANTE, L. (1972), *La declinación del vasco literario común*. Arantzazu, Oñati: Edit. Franciscana.
- , (1976), *Sintaxis de la oración compuesta*. Arantzazu, Oñati: Edit. Franciscana.
- ZABALA, I. (koord.) (1996), *Testu-loturarako Baliabideak: Euskara Teknikoa*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- , (1996a), «Testu-lotura: lotura tematikoa eta erreferentzia-sareak testu teknikoe-tan», in I. ZABALA (koord.), *Testu-loturarako Baliabideak: Euskara Teknikoa*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. 15-44 orr.
- , (1997), «Argumentu-harremana / eremu-harremana: izenondo erreferentzialen euskal ordainen bila», in *Nazioarteko Terminologia Biltzarra*. Donostia: HAEE-UZEI, 535-556,
- , (1999), «Izen-sintagma konplexuak: adjektiboen eta izenlagunen segidak» in ODRIOZOLA (1999), *Zenbait Gai Euskara Teknikoaren Inguruan*, 107-157 orrialdeak.
- ZUBIMENDI, J.R.; ESNAL, P. (1993), *Idazkera-liburua*. Gasteiz: Eusko Jaurlearitzaren Argitalpen-Zerbitzu Nagusia.
- ZUBIRI, I. eta ZUBIRI, E. (1995), *Euskal Gramatika Osoa*. Bilbo: Didaktiker.

### Laburdurak

- OEH: *Orotariko Euskal Hiztegia* (K. Mitxelena).
- EH: *Euskal Hiztegia* (I. Sarasola).
- EGLU: *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak* (Euskaltzaindia).
- EGL: *Euskal Gramatika Laburra* (Euskaltzaindia).

# EUSKARA INSTITUTUA

## Hizkuntza

Estilo-liburu honetan, gaur eguneko euskara estandarrean nabaritu ohi diren gramatika-okerrak, estilo-zalantza eta hiztegi-gorabehera nagusiak aurkituko dituzte irakurleak. Lanak bi zatitan nagusi eta osagarriak dira, eta zatitako bakoitzak bere banakoa du. Lehen zatitan gramatika- eta estilo-ko arazoak landu dituzte Xabier Alberdi EHUko irakasleak: hirurogeita zazpi arazo antolatuta dituzte zatitako aztergaiak. Bigarren zatitan («Zalantzen Hiztegia») euskara batuko hiztegi-azterketak jorratu dituzte Ibon Sarasola EHUko katedradunak eta euskaltzainak. Guztira, mila eta bostehun sarrera inguru hautatu dituzte hiztegi horretarako. Argitalpen honetan, lehen aldiz, filologo ez den irakurlearen eskura jarri dira hanturak sakabanaturik zeuden proposamenak, gomendioak eta zuzenketa asko eta asko.

Liburuaren atal batzuetan Euskaltzaindiak aspaldi honetan emandako arau batzuen testua jasotzen dugu. Orobat jasotzen ditugu Euskaltzaindiaren zenbait arau-proposamenak. Har horiek ohar hau, beraz, azterlan honetan Euskaltzaindiaren langintzarekin hartu ditugun zorraren erakusgarri eta kitagarritzat.